

# LĀNDUZ

GURE HERRIKO GAUZAK  
(Cosas de nuestro País)

© Copyright Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala  
Argitaldari zenbakia: 936 C.E.C.A.  
Legezko gordailua: 11/84  
I.S.B.N.: 84 - 7580 - 016 - 5  
Inprimatzaile: IZARRA Inprimategia (Usurbil)  
Azala: Laura Esteve

# LÄNDUZ

GURE HERRIKO GAUZAK  
(Cosas de nuestro País)



GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA

1983

GIPUZKOAKO AURREZKI-KUTXA PROBINTZIALAK, bere Argitarapen-Saileko DOCUMENTO Bildumabarruan, atseginez aurkezten du JUAN SAN MARTINEN LANDUZ liburua berria.

Lehen GOGOZ eta BIDEZ eman zizkigun; orain LANDUZ dakargu Juan San Martinek eta hemen, beste zenbait elementurekin batera, euskal kultur ondarea osatzen duten «gure Herriko gauzen» berri ematen digu.

Sobera ezaguna da Egilearen nortasun aberatsa, zeinek, berriz ere, Etnografia, Historia, Arteak eta Literatura eta abarri buruzko gai asko eskaintzen baitizkigu, guztiak Euskal Herriari dagozkionak.

Argitalpen hau dela eta, GIPUZKOAKO AURREZKI-KUTXA PROBINTZIALAK poza hartzen du lan berri hau eskaintzean, zeina Erakundearen hondo bibliografikoan aberastera baitator eta, bide batez, Gipuzkoako Komunitateari kultur eskaintza berria egiten baitzaio.

*Un nuevo título de la Colección DOCUMENTO, «LANDUZ» de JUAN SAN MARTIN, se complace en presentar la CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA dentro de sus Ediciones.*

*Después de GOGOZ y BIDEZ, ahora con LANDUZ, Juan San Martín nos acerca a «esas cosas de nuestro País» que conforman, junto con otros elementos, el acervo cultural vasco.*

*De sobra es conocida la rica personalidad del autor, quien, una vez más, nos ofrece una amplia gama de temas sobre Etnografía, Historia, Arte y Literatura, etc., todos bajo el común denominador del País Vasco.*

*Con este motivo la CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA tiene la satisfacción de ofrecer un nuevo trabajo que viene a enriquecer el fondo bibliográfico de la Institución, y representa una nueva oferta cultural dirigida a la Comunidad guipuzcoana.*

ESKAINZA:

*Zuri, Oier;  
arbaso mezuan landuz,  
gure herri hau maitatzeko  
arrazoirik badela agerreraziz.*

J. S. M.

## AURKEZPENA

Irakurle: hara hemen ekinaren buruan gogoz, bidez eta landuz *Gure herriko gauzak* gai direla hirukoitzasunaren helburuz datorren liburu hau. Horregatik, oraingo honek ere aurretiko *Gogoz* eta *Bidez*-en egitura bera du, eite bereko beste hainbeste artikulua eskainiz etnografiaz, historiaz, arteaz, hizkuntzaz eta literaturaz lehengo haien gehigarritz, ondorean zenbait pertsonaia bereziri buruz eta azkenez orotariko artikuluz. Horiez gainera eibartar-plaentziar umore berezitik zerzelada batzu ere gehitu ditut, lehenengo liburuan inguru hortako jendeak hutsune hori aurkitzen ziola eta nik, nolabait, alde hori ere herri baten izateari itsatsi nahi.

Liburu honen asmoaz jabetu nahi duen irakurlea aurreko beste bi liburuen aurkezpenetara igortzen dut. Haietan esanak honentzat ere balio dutenez.

Lanik gehienak, aurrekoetan bezala, zabalkundezkoak dira. Baina, asmo handiegirik gabe, beretako zenbaitzutan, irakurlea ohartuko denez, bada ikuspegi berezirik eta baita ere iker lanik hauetan lehen aldiz argitaratzen denik, gehigarritz bederen. Eta, dena dela, Donostiako *Hoja del Lunes*-ean euskal kulturaren inguruko gauzeri buruz idazteko konpromisoa nola bete nuenaren lekuko dira orain burutzen dudana hirukoitz lan hontako gaiak.

*Egileak*

*Hondarribia, 1983ko urriaren 31.ean.*

## PRESENTACION

Lector: con perseverante voluntad, el caminar y el laborar han obrado en la realización del presente volumen que viene a formar el tríptico del temario *Cosas de nuestro país*. Por consiguiente, sigue la misma pauta que los precedentes, *Gogoz y Bidez*, para ofrecer otros tantos artículos que vienen a ampliar los aspectos de la etnografía, la historia, el arte, la lengua y la literatura, dedicándoles un recuerdo a personajes singulares y finalizar con una miscelánea. También se han añadido algunas notas del humor peculiar eibarrés-placentino, capítulo que algunos lectores echaron de menos en el primer libro.

Para la información de motivaciones de estos artículos valen las presentaciones hechas a los dos primeros libros, a donde remito al lector.

La mayoría de los trabajos, como en los precedentes, son de pura divulgación. No obstante, sin grandes pretensiones, en muchos de ellos el lector observará, además de mi punto de vista, algunas aportaciones de primera mano. De todas formas, este que viene a cerrar el tríptico de cosas constituye el testimonio del compromiso adquirido en su día con la *Hoja del Lunes* de San Sebastián sobre temas culturales del país.

*El autor*

*Hondarribia, 31 de octubre de 1983.*



## AURKIBIDEA — INDICE

Itzaurrea ... ..	6
Prólogo ... ..	7
Aurkezpena ... ..	10
Presentación ... ..	11

### I. ETNOGRAFIAZ — SOBRE ETNOGRAFIA

1. Suaren sinbologiaz. (Sobre la simbología del fuego) ... ..	19
2. Herrian herriko folklorea. Gabon kanteri buruz. (Cada pueblo su folklore. En torno a canciones navideñas) ... ..	23
3. Sorginak Donibanez. (Sobre brujería del solsticio de verano) ...	26
4. Ekaineko Donibanez. (Sobre el San Juan solsticial) ... ..	31
5. Ekaineko ospakuntzak. (Las celebraciones del solsticio de verano)	36
6. Antropologia. (Antropología) ... ..	41
7. Hirigintzaz. (Sobre urbanismo) ... ..	44
8. Feria nagusiak. (Las ferias mayores) ... ..	47
9. Ihauteri. (Carnaval) ... ..	50
10. Sandaili eta ingurua. (Santa Iliá y su entorno) ... ..	53

### II. HISTORIAZ — SOBRE HISTORIA

11. Irun-Oiartzun eta erromatarren aztarnategiak. (Irún-Oyarzun y los yacimientos romanos) ... ..	59
12. Itsasoaren aurrez-aurre. (Frente al mar) ... ..	62
13. Medikuntza Euskal Herrian - I. (La Medicina en el País Vasco)	66
14. Medikuntza Euskal Herrian - II. (La Medicina en el País Vasco)	70
15. Medikuntza Euskal Herrian - III. (La Medicina en el País Vasco)	74
16. Autonomi Estatutoen aurrez-aurre. (Ante el Estatuto de Autonomía)	77
17. Gernikako Estatutua. (El Estatuto de Guernica) ... ..	79

### III. ARTEAZ — SOBRE ARTE

18. Prerromanikoa Araban. (El prerrománico en Alava) ... ..	85
19. Astigarribiako eliza. (La iglesia de Astigarribia) ... ..	89

20.	Berriz ere Astigarribia. (Más sobre Astigarribia) ... ..	94
21.	Aralarko San Migel elizako erretaula. (El retablo del Santuario de Aralar) ... ..	98
22.	Arrasateko eliza gotikoa. (El templo gótico de Mondragón) ...	101
23.	Itziar. (Iciar) ... ..	105
24.	Zutoidun elizak Euskal Herrian. (Las iglesias columnarias en el País Vasco) ... ..	108
25.	Oñatiko Bidaurreta, Gipuzkoako monumentu berezi bat. (Bidaurreta de Oñate, un monumento singular de Guipúzcoa) ...	113
26.	Plaentziako eliz-ataria. (El atrio de la iglesia de Placencia) ...	117
27.	San Andres ermita Plaentzian. (La ermita San Andrés en Placencia) ... ..	120
28.	Mutrikuko eliza neoklasikoa. (El templo neoclásico de Motrico)	123
29.	Gipuzkoako sortetxeak. (Casas solares de Guipúzcoa) ... ..	127
30.	Hilarri biribilak. (Las estelas discoidales) ... ..	130
31.	Argizaiolak. (Las tablas para cerilla) ... ..	135
32.	Euskal artea gaur, Segurako erakusketan. (Arte vasco actual en una exposición de Segura) ... ..	139
33.	Kalkografia arteaz. (Arte calcográfico) ... ..	142
34.	Diego Maiora, eskultore segurarra. (Diego de Mayora, escultor de Segura) ... ..	146
35.	A. Arteta irudigintzan. (Las figuras de A. Arteta) ... ..	149
36.	Inguruaren eragina Beobidegan. (La influencia del entorno en Beobide) ... ..	152

#### IV. MUSIKAZ. — SOBRE MUSICA

37.	Arantzazu, musikaren babesleku. (Aránzazu, refugio de música)	159
38.	J. A. Lombide musikariaren berriak. (Noticias del músico J. A. Lombide) ... ..	162
39.	José Bustindui donostiar musikariaren mendeurrena. (Centenario del músico donostiarra José Bustinduy) ... ..	165

#### V. HIZKUNTZA ETA LITERATURAZ. — SOBRE LENGUA Y LITERATURA

40.	Gure hizkuntzaren sorreran, Pirineoa ardatz -I. (El Pirineo, eje en los orígenes de nuestra lengua) ... ..	171
41.	Gure hizkuntzaren sorreran, Pirineoa ardatz -II. (El Pirineo, eje en los orígenes de nuestra lengua) ... ..	175
42.	Gure hizkuntzaren sorreran, Pirineoa ardatz -III. (El Pirineo, eje en los orígenes de nuestra lengua) ... ..	178
43.	Mitoz eta ideiaz. (Sobre mitología e ideología) ... ..	182
44.	Euskara eta erdara. (El vascuence y el castellano) ... ..	185
45.	Euskal literaturaren historiaz. (Sobre la historia de la literatura vasca) ... ..	189
46.	Euskaldunen hizkuntzaren hastapenak. (Primicias de la lengua vasca) ... ..	191
47.	Biblia euskaraz. (La Biblia en vascuence) ... ..	194
48.	Testu zahareri begira. (Ojeando viejos textos) ... ..	198

49.	Azkue zenaren ardi galduak. (Las ovejas descarriadas del difunto Azkue) ... ..	201
50.	Beharrezko bibliografia. (Una bibliografía imprescindible) ... ..	205
51.	Ipuinen eremua - I. (En el área de los cuentos) ... ..	208
52.	Ipuinen eremua - II. (En el área de los cuentos) ... ..	212
53.	Herbesteratuen literaturagintza. (El exilio de la literatura vasca)	216
54.	Agiriak hilondoko omenez. Gaurko euskal poesiaren antologia. (Documentos en homenaje póstumo. Antología de la poesía vasca actual) ... ..	218
55.	Poetaren mezua. (Mensaje del poeta) ... ..	221
56.	Ilargiaren eskolan. (En la escuela de la luna) ... ..	223
57.	Bertsolari arauak. (Las reglas del bersolari) ... ..	227
58.	Bertsolari doinuak. (Las músicas del bersolari) ... ..	230
59.	Bertsolari txapelketak. (Los concursos de bersolaris) ... ..	234
60.	Amuriza txapeldun. (Amuriza campeón) ... ..	238
61.	Euskararen arazoa autonomiaren babespean. (La problemática del euskara al amparo de la autonomía) ... ..	242
62.	Euskara zuzpertzetz. (Sobre la recuperación del euskara) ... ..	246
63.	Berriz ere Unamuno. (De nuevo Unamuno) ... ..	249
64.	Euskara auzitegian. (El euskara en los tribunales) ... ..	252
65.	Hizkuntza eta gizartea. (Idioma y sociedad) ... ..	256
66.	Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak. (Encuentros Internacionales de Vascólogos) ... ..	259
67.	S. Altube euskalaria. (S. Altube, el vascólogo) ... ..	262
68.	G. von Humboldt filologoa. (G. von Humboldt, el filólogo) ... ..	265
69.	L. L. Bonaparte printzea. (L. L. Bonaparte, el príncipe) ... ..	268
70.	Julien Vinson euskalaria. (Julien Vinson, el vascólogo) ... ..	272
71.	Sortzaileen mezuz. (En mensaje de fundadores) ... ..	274
72.	Jardunaldien kronika - I. (Crónica de los Encuentros) ... ..	278
73.	Jardunaldien kronika - II. (Crónica de los Encuentros) ... ..	283
74.	Jardunaldien kronika - III. (Crónica de los Encuentros) ... ..	287
75.	Jardunaldien kronika - IV. (Crónica de los Encuentros) ... ..	290
76.	1978. urteko euskarazko liburuak. (Los libros en vascuence, año 1978) ... ..	294
77.	1979. urteko euskarazko liburuak. (Los libros en vascuence, año 1979) ... ..	297
78.	Kaletar literaturaz edo uste okerren zuzenketaz. (Sobre la literatura urbana o los falsos conceptos) ... ..	301

## VI. OROITZAPENEZ. — RECORDANDO

79.	Georges Lacombe-ren sortze mendeburua. (Centenario del nacimiento de Georges Lacombe) ... ..	307
80.	Joannes Leizarragaren lanak. (Las obras de Juan de Leizarraga)	310
81.	Bakarriketa Mikeli. (Soliloquio a Mikel) ... ..	314
82.	Lau nafar idazleren gorazarrez. (En homenaje a cuatro escritores navarros) ... ..	318
83.	Hugo Schuchardt. (Hugo Schuchardt) ... ..	321
84.	Bruno Etxenike eta bere lanak. (Bruno Echenique y sus obras)	324
85.	Etxenike eta Bonaparte printzearen arteko harremanak. (Las relaciones entre Echenique y el príncipe Bonaparte) ... ..	327

86.	J. Zaitegi joan zaigu. (Hemos perdido a J. Zaitegui) ... ..	329
87.	P. Bordazarre «Etxahun» koblakariaren oroiz. (A la memoria del juglar P. Bordazarre «Etxahun») ... ..	333
88.	Bordel bertsularia. (El bersolari Bordel) ... ..	338
89.	Sebero Altube euskaltzaina. (El académico Severo de Altube)	340
90.	A. Iraizoz. (El R. P. Iráizoz) ... ..	345
91.	Aita Adoain agurgarriaren mendeurrena. (Centenario del venerable Padre Adoain) ... ..	347
92.	Fausto Arozena historiagilea. (El historiador Fausto Arocena)	351
93.	Bi poetaren oroimenez I.-Blas de Otero. (A la memoria de dos poetas I.-Blas de Otero) ... ..	354
94.	Bi poetaren oroimenez II.-Celso Emelio Ferreiro. (A la memoria de dos poetas II.-Celso Emilio Ferreiro) ... ..	357

#### VII. OROTARIK. — VARIOS

95.	Itsas-hondoaren ikerketaz. (Estudios del Bentos marino) ... ..	363
96.	Euskal Herriko museoetan Pedagogi Saila sortzeaz. (Sobre la creación de Departamentos Pedagógicos en los museos del País Vasco) ... ..	366
97.	«Jan-edanak», moko-finen gomendagarri. («Jan-edanak», literatura gastronómica) ... ..	369
98.	Araba zabaldua. (Alava abierta) ... ..	373
99.	Nahi eta beharrezko euskal zinema. Zestoako topaketen inguruan. (El deseado y necesario cine vasco. En torno a los encuentros de Cestona) ... ..	376
100.	Munduaren gailurrean. (En la cumbre de la Tierra) ... ..	379
101.	Israelgo adibidea. (El ejemplo de Israel) ... ..	382

#### VIII. UMOREZ. — DE HUMOR

102.	Pernandoren umoreak zuen nortasuna. (Personalidad humorística de Fernando de Amézqueta) ... ..	389
103.	Telefonoz. (Por teléfono) ... ..	392
104.	Bertsolarienak. (De los bersolaris) ... ..	396
105.	Medikuenak. (De los médicos) ... ..	399

I

ETNOGRAFIAZ  
Sobre Etnografía

## SUAREN SINBOLOGIAZ

Urtearen garai honetan, Eguberriak, eskualde bakoitzak bere ospakizuneko era bereziak ditu, Olentzero, Subilaro, Txukil, Gabon-zuzi, Gabon-enborra... Funtsean denak bat dira, sua eta bera lortuko duen gaikia. Hoiak sinbolizatzeaz, giza itxura ematen zaie, Grezia zaharreko jainkokietan agertzen zaigun bezala.

Jende asko, Olentzero esateko ahozkeraz edo idazkeraz gehiago arduratzen da adierazi nahi duen sinboloaz baino, iragan asteko artikuluan J. M. Satrustegik ongi zion bezala. Urrengo aski zaio, jendeari, Noel edo Oleris-en kideko dela jakiteak, baina hortik harantza aurkitu genezakean jatorrizko inguruaren gogoetatik ihesi ibiltzea nahiago du. Harrigarria badirudi ere, krisi batean bizi den gizonak ez du nahi hontaz pentsatzerik. Teknika aurrerapenen eta merkatalgo bizkortzearen eraginez, kontsumismoak itoa dauka egungo gizona; gizartearen masifikatzean eroria. Aintzina berbizkundearen sinbolotzat erabiltzen zena, orain trapuzaharrez egindako irudi soil bat besterik ezta eta bulla ateratzeko bakarrik balio duena.

Lehenago, gure herriak bere sineskeretan bizi zuen kosmosetikako hierofania zekarren, naturaleza adierazteko modu bat. Zer den hori? C. Geertz-ek zion bezala: Kultur eskematizat ulertzen dena, historian zehar etorria, lehenak geroari elkar loturazko izatean duten natur us-tearen sistema, sinbolu bidez agertzen diren mezuak, aintzinakoen ideiak bizitzaren esperientzietatik eskainia, ondoko belaunaldietan iraunarazteko. Laburrago esateko, Dumezil-ek ongi ziona: Mitoak, herri baten kulturaren, gizaldien jarraipenerako oinarritzko dira.

Eguberrietan eta ekainean, eguzkia beheren eta goren aurkitzen den garaietan, urtaroak bereizten dira. Bizitzarentzat aldi garrantzitsuak dira eta gizonak sinbologiaz ospatuko ditu.

Garai hoietako sineskeraz eta sinbologiaz, bai Eguberri eta bai ekainean, aintz artikulua idatziak ditut eta hauetan emandako gaiak eta ideiak behar bezala ordenaz jarriaz argi gehiago aurkitu genezake.

J. M. Barandiaran, R. M. Azkue, eta bestek bildutako materialak

hor daude aztertu nahi dituenarentzat. Lehenago J. Caro Barojak emana digu hoi argitasunik aski, baina azkenaldi hontan beste ikerketarik ere bada sineskerak eta sinboloak aztertuz. Hara nola Emeterio Sorazuren *Antropología y religión en el pueblo vasco* (1979) eta J. M. Sarrutegiren *Mitos y creencias* (1980) deritzan liburuak. Lehenengoak, bere bigarren eta bosgarren kapitulueta gaiak ugari pilatzen ditu eta bibliografia aberatsa dakar.

Baina, hasieran esan dudan bezala, Olentzero eta kidekoak, naturaren sinboluzko pertsonaiak dira; zura eta sua batipat. Sua bera, ez dakigu zer neurritaraino ez ote zuten sinbolizatzen eguzkiarekin. Eguzkia sua da. Sua, garbikundea dakarrena. Eguzkiak, bere goi-beheak hartzeaz, bizitza aldatzen du. Aldakuntza bakoitzarekin, munduak aldi berri bati ekingo dio. Honela, eten gabe, urterik urte, gizonak berbizkundea ezagutuko du. Eguzkiaren eragina, sua bere kideko duela. Mircea Eliade-ren lehenera itzultzeko berritzea, edo eten gabeko berritzea.

Berbizkundeak ordea, berakin dakar garbikundea. Eta, sinbologiak estudiatu dituzten guziak bat datoz sua eta ura garbikundezko sinbolotzat hartzeaz.

J. G. Frazer-ek badu liburu bat ere suaren sorkundezko mitoeri buruzkoa. Baina, agian, René Guénon eta Gaston Bachelard izanen dira eguzkia eta suaren arteko sinbologiak onduen ikertu dituztenetakoak. Hauek ez dute ezagutu gure herriko mitologiari eta bestetan aurkitu zituzten arrazoiak gurean aurkitzen direnen antzekoak baldin badira ere, hemen ageri harrigarrikeri bada, 1977ko ekainaren 20an «Eguzkia gurtzen» izenburuz eman nuen artikulu hura lekuko.

Sorkundearen mitoari loturik aurkituko ditugu eguzkia eta sua. Bestalde, sua, etxearen sinbolo bihurtzen da. Honegatik, etxea, aintzina-koentzat, deitura bera baino gehiago zen eta hau bera ere maizenik bertatik sortzen zen. Holako adierazpenik badu Bonifazio Etxegaraik auzoetako harremanak ikertzean, bereziki *Los ritos funerarios en el Derecho consuetudinario de Navarra* (1951) deritzan lanean. Etorkizuna zaintzen bai du etxean sua iraunarazteak. Berriki E. Knörrek aurkitu dituen Ehariko Ordenantzen 5. kapituluak irakurtzen denez, 1659ko arauen artean, bertako egin nahi zuen etorkinak hanega t'erdia gari eta kantaro bat ardo eman behar zituen, baina inoiz hiru egunez eta hiru gauetz surik pizten ez bazuen biztanle eskubideak galduko zituen.

Eguberrietan, naiz ekainean, urtemugaz egiten diren suak sineskera zaharren hondarrak ditugu, inoiz Olentzero ikazkinaren bidez datorkiguna, naiz urrengo berri onaren mezua dakarrena bada ere. Gure mitologian eguzkia bera inoiz pertsonaje bihurtzen bai da.

Duela hiru urte t'erdi, aipatutako artikuluan agertzen nuen bezala.  
Batean Aita Donostiak bildutako otoitza:

*Agur, eguzki ederra,  
Jetxirik zerutik lurrera,  
Illuna desterratzera  
Ta gu argitten paratzera.*

Bestean J. M. Barandiaranek Muskurutxu mendietan jasotako hura:

*Eguzki amandria  
Badoia amangana,  
Biar etorriko da,  
Denbora ona bada.*

M. Lekuona ordea, Gernikan Eguberriz kantatzen diren «Marijesiak» biltzean (*Anuario de Eusko-Folklore*, XIII, 1933), honako bertso polit honekin aurkitu zen:

*Eguzki dibinala  
Gauaren gauberdian  
Etorri da mundura  
Gizonaren jantzian.*

Egia esan, Marijesietako bertso hau beste iturri batekoa izan leike, latinez elizan aspalditik sartutako kontseptua bai da. Baina, elizak berak ere lehenago ez ote zuen hartu, Eguberriak bezala, jentil sineskeretatik? Dena dela, euskaraz lehen aldiz idatzirik ageri dena, zera da, Nikolas Zubiaren *Doctrina christiana*-n datorrena, 1691ean argitaratua:

*Eguzki dibinala  
Gaberdi batean  
Etorri zan lurrera  
Gizonen soñean.*

Eta, honek, Marijesietatik hartua dirudi.

### **Sobre la simbología del fuego**

Siguiendo la trayectoria de mis artículos en esta época del año, tocante a los solsticios, renuevo las sugerencias en torno a los símbolos míticos.



Respecto a Olentzero, la gente muestra más preocupación de su forma hablada o escrita que a su representación como símbolo. A veces les basta con saber los paralelismos que guarda con Noel u Oleris, pero generalmente huyen de las averiguaciones de su trasfondo, como acostumbran huir de la meditación sobre el entorno tradicional. Pero bien dijo J. M. Satrústegui en su artículo de la semana pasada: «Interesa recabar datos dispersos y rehacer información para ir dibujando la silueta definitiva del personaje».

Olentzero se conoce en una área concreta, pero sus equivalentes Subillaro, Txukil, Gabonzuzi, Gabonenpor, etc., se extienden por toda la geografía de nuestro pueblo con mayor o menor intensidad. En esencia, es un personaje mítico que simboliza al solsticio de invierno. Y, por tanto, irá unido a los ritos del fuego en el concepto primitivo, y al de mensajero de la buena nueva en lo moderno.

Barandiarán, Donostia, Azkue y otros recopiladores nos ofrecieron denso material sobre el tema. J. Caro Baroja, entre otros, nos marcó el camino de la investigación para comprender el mito. En mis artículos en fechas solsticiales he ido reuniendo distintos materiales para sugerir algunas interpretaciones. Ultimamente, E. Sorazu, en dos capítulos que no tienen desperdicio, en su obra *Antropología y religión en el pueblo vasco* y J. M. Satrústegui en *Mitos y creencias* han aportado un material nada despreciable. Pero la materia sigue siendo poco menos que inextinguible.

Olentzero y sus equivalentes se identifican con el fuego, éste a su vez con el sol y la purificación; el cambio de estación traerá consigo la renovación; a la orgía le seguirá la frugalidad, y todo volverá a redimirse. A Olentzero y sus equivalentes corresponde la pantomima transitoria del solsticio. Es el sol, el fuego y su energía purificadora, para el que antes habrá que preparar la despedida de la vieja estación a la manera dionisiaca, porque significa el eterno retornar a los orígenes. Son concepciones inherentes expresadas simbólicamente.

Sobre esta materia aún queda mucho por indagar. Frazer escribió un libro que tiene por título *Mitos sobre el origen del fuego*, pero son más actuales las obras de Guénon y Bachelard sobre la mitología del sol y el fuego. En nuestro caso de considerable importancia por todo lo que ha representado el hogar. Pues fuego es sinónimo de hogar, casa, vida tradicional. Recordemos los trabajos de Bonifacio de Echegaray sobre la vecindad. La importancia del mantenimiento del fuego hogareño nos reflejan las Ordenanzas de Ali, de 1659, recientemente descubiertas y publicadas por E. Knörr.

Pero constituye casi un hecho insólito la personificación del astro solar, tal como aparece en la literatura oral vasca, como nos vienen a testimoniar las estrofas recogidas en distintos puntos del país por el Padre Donostia, J. M. de Barandiarán y M. de Lecuona.

1980-XII-29.

## HERRIAN HERRIKO FOLKLOREA

### Gabon kanteri buruz

Eguberrietako folklorea, etxe bakoitzeko ohituretatik aparte, Euskal Herri guzian edo gehiengan kantari taldeak kalez-kale edo etxez-etxe eskean ibiltzea ohitzen da. Erabiltzen ziren kantak, lehen lehenago herri bakoitzean bertakoa eta bere ingurukoa ohi zen, baina folklore honen ahuleziagatik edo, aspaldiko urteetan holako berdintasun bat zabaldu da Euskal Herri guzian. Behar bada irrtiaren eraginezkoa izan da.

Dena dela, orain zenbait urte Donostiako Orfeoia, edo Karlos Mungiak zabalduak hedatu ziren gure geografia guzian, eta orain, biz-pahiru urtetik honera Olentzeroak zabaldu dira. Gentearen irudimen falta besterik ez da, besteei imitatu behar hau, edo herri handiagoei ohi dutena hartzea, handi nahiagatik handikerian eroritzeko.

Behar bada guzia ezta horrela izanen. Batek badaki. Baina, hoieta-ko guzietatik izanen da zerbait eta azkenean euskal folklore aberatsaren txirotasunerako. Eskerrak langilerik izan dugula gure folklore bilketan, bestela auskalo nun zeuden herri kanta zaharrak.

Duela bi urte, Eibarko Gabon kanta zahar bat argitaratu nuen Club Deportivo-ko «Kezka» aldizkarian, Aita Donostiak gure mende honen lehen partean Eibarren bertan bildua eta Aita Jorge Riezu adiskideari esker lortu nuena. «Ator, ator mutil etxera» delakoaren antzerakoa zen; aldaera bat. Eibar bertakoa izatearen pozak ekarri zituen zenbait gazte igazko Eguberrietan kantatu zituztenen artean hori ere sartzeko. Pozgarria benetan gure guraso zaharrak erabili zuten kanta bera orain gazteen ahoetatik entzutearen zoria.

Honegatik, gainerako herrietan ere bertakoak daudenez, herri bakoitzak bere kantak ezagutzeko ideia batzuk zabaldu nahi nituzke.

Duela hiru edo lau urte Hendaiako kantari talde batek disko polit bat atara zuen Euskal Herriaren eskualde guzietako kantaz hornitua.

Disko honek, Lapurdiko kantatzat agertzen dituen batzuk Joanes Etxeberri Ziburukoak *Noelak* liburuan argitaratu zituenak dira. *Noelak* delako hau 1630ean argitaratu zen liburu eder bat da. Argitalpen asko ezagutu ditu eta azkena Donostiako Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. delako argitaletxeak 1970 urtean berriz argitaratua eta oraindik salgai dagoena. Gure literatura zaharra ezagutzeko oso premiazkoa eta Eguberri kanta zaharrak aurkitzeko ere bai.

Baina Eguberri kantak, arestian esan dudan bezala, herrian herriko folklorea berbizteko, bestelako iturririk ere badugu. Eta, gidari gisa, gaur egun errazen eskuratze bideak emango ditugu. Azkue zenaren *Cancionero popular vasco* dugu bide hauetarik nabariena noski. Bi tomotan berriz argitaratua. Bigarrenaren bukaeran jartzen ditu kantak zein herritan jasoak diren eta argibide honetatik abiatu eskuratuko dugu bakoitzari komeni zaion tokikoa. Eguberri kantak sail desberdinetan sakabanaturik daude, baina gehienak «Canciones de Ronda» sailean eta erlijiozkoenean.

«Anuario de Eusko-Folklore»ren XIII. tomoan ere (1933, urtekoa) sail ederrik bada. Nafarroa aldeko batzuk agertu zituen Aingeru Irigarayk eta sorta handi eder bat Manuel Lekuonak. Eta Aita Donostiaren «Obras musicales»en lehen tomoa *Navidad* izenekoa da eta bertako gehienak euskarazkoak dira; berak armonizatutako herri kantak direnez. Liburu honek 1960an izan zuen bere lehen argitalpena eta hura aitu zelarik birargitalpen bat dugu oraindik salgai.

Bada bilduma horietan zer hautatu, norberan herrikorik ez bada ingurukoa edo gogozkoena hartzeko. Eta ez beti besteen leloari jarraituz denok doinu berdinetara erori. «Beti bat, beti bat; txori txarraren kanta» dio gure herriko esaera zahar batek, beti gauza berdina aspergarri egiten denez.

Debarruko behe partean kantatzen direnen muestratxo bat eman nuen aspaldi; Ikus *Gogoz* liburuen 32-37 orrialdeetan.

Folklore zaharreko gauzarik berezienak jatorren gordetzen diren toki berean ezagutu nahi izan ditut, eta orain zenbait urte ibili nintzen Eguberri arratsean Tolosa inguruetan eta Nafarroako zenbait tokitan. Gauza gogoangarririk ezagutu nuen. Baina handik urte gutira Tolosa inguruetara hurbildu nintzanean, orduan nere emaztegai eta orain emazte denari erakutsi nahirik, a! zelako atsekabea. Olentzeroren orde zesusen jaiotzat bakarrik, mutiko talde bat herriko apaizaren zuzendaritzapean kantari ari zelarik. Jentiltasunari guduka iduritu zitzaidan nere kiko. Zer pena, folklorea bere herri kutsuz maitatzen dugunontzat.

Orain berriz, bestaldera ari da. Donostiar talde handi bat hasi zen Olentzerokin eta herri tipiak, handi nahiaz, heuren etxean handitasunez

girotzeko hartzen hasi dira. Eta inoiz holakorik ezagutu ez den Bizkai aldean ere jokabide berdinak hartzen hasiak dira. Tamalgarria izango da Gernikak bere «Marijesiak», hain bere dituenak, berbiztu beharrean, Olentzero hartzea. Gainera, «Marijesiak», J. A. Arana Martijari esker, aurtengo *Dantzariak* aldizkarian egoki ikerturik argitaratuak izan dira.

Besteena hartzea baino hobe da norberarena piztu, edo berriak asmatu. Berriak asmatzeko badugu bertsolari presturik ere. Adibidez, orain urte batzuk Aspillagak egin zuen bezala.

Hala ere, ez ditzagun ahaztu Olentzero taldeak eta bere kanta alaiak, holako grazia berezi bat dutela, baina ezta ere hain doinu politen jabe diren beste kanta zahar haiek: «Oh! Belenen», «Jesus jaio da eta kanta aleluia», «O! Eguberri gaua», «Txamarra txartxo bat», eta abar.

### **Cada pueblo su folklore. En torno a canciones navideñas**

Una canción navideña que publiqué hace dos años en el Boletín del Club Deportivo de Eibar, dio pie para que, al siguiente año, un grupo de postulantes de dicha entidad la incorporara a su repertorio. Era una variante bastante desvirtuada del «Ator, ator mutil txera», que el Padre Donostia recogió en Eibar a comienzos del presente siglo y que mi buen amigo el R. P. Riezu tuvo la amabilidad de poner una copia en mis manos.

Nuestro folklore es rico y variado, y es importante que cada pueblo se esmere en mantener, o rehacer, el suyo propio. Hemos tenido infatigables recopiladores de nuestro folklore, y a ellos hemos de recurrir los que queremos valorar las particularidades locales.

*Noelak*, de Etcheberri de Ciboure, que vio la luz en 1630 (una última edición se hizo en Sn. Sn. en 1970 y, si no estoy muy equivocado, aún está a la venta) es sin duda la obra poética antigua más importante de nuestra literatura, en torno a la Navidad. Lo curioso es que el pueblo labortano canta aún muchas canciones de esta obra, como si fueran populares o de autor desconocido. En realidad, en su día, las canciones populares tuvieron su correspondiente autor conocido, aunque su memoria se haya borrado entre nosotros, en algunos casos, porque el autor no hizo constar su nombre. Cosa, por otra parte, bastante frecuente. Lo importante es que ahí están las canciones que, hoy, son patrimonio del pueblo.

La falta de imaginación o el desconocimiento de las fuentes que

nos legaron esas canciones, ha hecho que el repertorio de Navidad se disminuya, se mengüe, a base de imitar canciones más en boga en cada época, o por haberlas difundido tal o cual cantante u orfeón, y así ha ido cada pueblo desplazando las suyas propias. Hubo una racha en la que, en algunos pueblos orientales de Guipúzcoa, se desterró al Olentzero, y ahora, en cambio, hay una tendencia a difundirlo e incrementarlo, hasta en áreas de Vizcaya, donde no hay constancia histórica del Olentzero como tal. Sería una verdadera pena que se aceptara hasta en Guernica, por ejemplo, en lugar de rehacer sus originales «Marijesiak» que antaño animaron su vida propia y enriquecieron el variado folklore del país, y en sucesivos números de la revista *Dantzariak* del presente año han sido motivo de un profundo estudio por parte del musicólogo guerniqués J. A. Arana.

Es posible rehacer el cancionero popular de cada lugar, y los que tal deseen pueden recurrir a las fuentes más asequibles, que son: el *Cancionero popular vasco*, de Azkue, las *Obras musicales* del Padre Donostia (*I Navidad*, en nuestro caso de hoy), el tomo XIII del *Anuario de Eusko-Folklore* (1933), etc., donde hallaremos un rico caudal para todos los gustos y para todos los lugares.

De cualquier manera, no menospreciemos al alegre Olentzero, con su semi-pagana gracia especial, y tampoco las viejas canciones de bellas melodías, como son: «Oh! Belenen», «Jesus jaio da eta kanta aleluia», «Oh! Eguberri gaua», «Txamarra txartxo bat», etc.

1979-XII-24.

## SORGINAK DONIBANEZ

Sineskera zaharrak bazituzten beren ohiturak eta ekaineko San Joan gauak kristautasuna baino lehenagotik errotuak zituen sua, landare eta urarekin egin ohi diren zeremoniak.

Inoiz pentsatu izan dut sineste berriak hartzeaz eta zaharrak zokoratzeaz ez ote ziren sortu bestelako usteak. Usuario zaharrak zenbait jenderen artean irauntzeaz, gizaldi berrientzat misterioz beteriko aurgigiz agertzen da argi ulertu ezinezko lehena, era askotariko usteak sortuaz. San Joan gauak badu holako misteriorik eta ohitura zahar zokoratu haiek sorginkeri fama.

Ez dakit Orixek noraino sakonduko zuen honen izatea baina bere

poema nagusian argitasun askorik ematen ez baldin badu ere, hor utzi zuen sorginkeriaren lekukotasuna.

*Sorgiñaren odolez jarioko pertza,  
biamonez bidetan nonai tanta beltza,  
«Sorgiñak erre» esanez, currak ez dire ertsak;  
gaur bide-dugu sorgin denen eriotza.*

Baina, sua, landare eta ur sinboluen zeremoniak bitarteko direlarik, pentsatzekoa da frutu emankortasunaren sinbologiakin aurrez-aurre aurkitzen garela. Sinbologia hontan, gizonak Naturarekin bat egiten du, alorretan bizi berria kementsu indartzen den garai honetan eta aztikeria nabari zaigu bizitzaren sortzeaz nahasturik.

Etnografia bilketaz aritu direnak berri asko eman dute gai hon-taz eta nik neuk ere emanak ditut «Gogoz» liburuaren 42-60 orrialde-tan.


Donibanez, eguzkiak bere goi muga jotzen du eta Natur indar berritzeak ditu ondoriozko agerpenez. Hemen, gizonak berak ere Naturarekin burua bat egiten du sorkundezko zeremoniak ospatzen; bere orgia ta guzi, noski.

1610. urtean Zugarramurdiko sorginak Logroño-ko auzitegira eram zituzten Donibane gauez izan zen Akelarre bategatik. Hala jaso zuen Julio Caro Barojak «La vida rural en Vera de Bidasoa» lanean. Oraintsuago, Florenzio Idoatek emana du, «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» (20. zenb.) aldizkarian, 1969. urtean Burgiko (Erronkari) sorginkeriak Iruñan izan zen auziaren berri. Hemen ere, beste zenbait gertakizunen artean, Donibane gauezko akelarrea agertzen da.

Burgin sorgintzat salatuak etzekiten erderarik eta itzultzailez egin zituzten auzitegiko agerpenak. Sorginak, zenbait neskato ibaiko osin batera eta beren etxeko ohetik hartuta eramaten omen zituzten, eta orgia batean kristautasunaren ukapenezko zina egitera behartzen omen zituzten, honako hitzekin! «*Aurrak, Arnega ezazuei Jangeikoaz eta andre dona Mariaz eta saintu eta sainta guzuez eta santa Anak eztuei aurrik*». Urrengo, hoiez gainera, beren gurasoak ere ukatuz: «*aitaz amaz eta askazi guzuez*».

Ukapenezko zin hauek ditugu Erronkariko «uskára»-ren lehen idatziak. Horrez gainera, «*latakan, tirakan, literna y dios vast*» sorgin formula erabiltzen omen zuten. Baina hitz hoién esan nahirik ez dugu ezagutzen. Bere funtsa ezta erraz igartzekoa.

Azkuek Urdiainen jasotako kanta zahar batek hara zer dion:



*Donibane Garaziko etxe baten ateburuan ilargi, izar eta eguzkiaren irudiak. Imágenes simbolizando la luna, estrella y sol en el dintel de una casa de San Juan de Pie de Puerto.*

*Goazen San Joanera gaur arratsean,  
etorriko gerala bihar goizean.  
Goazen San Joanera berduratara  
berduratara eta han egoitera*

Hemen, behar bada, ezta Akelarrekeri ageri, gau pasa baizik. Ondorengo bertsoetan San Joan iturriaz ihardungo da.

San Joan-iturrietara joan eta han edan eta bustitzez aparte, aintzina, belardietan egunsentiko ihintzetan oinutsik edo inoiz biluzik, Zaraitzun ohi zen bezala, Erronkarin ordea, eguzkia irtetzean ibaian oinutsik bustitzen ziren, baina lehenago biluzik ere bai. Biluzik ibaiko osinean bustitzearen azterrena, San Pedro egunez, Usunen ere badugu. (Ikus «Gogoz» liburuaren 50-52 orrialdeetan).

Hemendik ohartzen gara Naturan urak bizitzaren sorkuntzaz eta garbikuntzaz dituen ahalmenen berri zekitelarik honen inguruan hazitako mitoaren ondorena dela. Baina, sineskerak aldatzera, sorginkeritzaz jo zen ekainean, eguzkia goren den garaian, ibaian bustitzea. Bataioak ez dakit ikustekorik izango duen rito honekin, baina induak Ganges ibaian egiten dutenarekin bai noski.

Bestalde, gai eta garai berari loturik dauden suaren garbikuntzaren zeremoniak ere oso aspaldikoak dira. Testamentu Zaharreko Deuteronomio-ren hitzaldietan azaltzen da: «Ez bedi zurean aurkitu bere seme edo alaba sutan barna igaro-erazi dutenik, ez asmaginik, ez aztirik, ez sorginik» (Deut. XVIII, 10).

Burgiko sorginkeria hortan osinean Akelarre gisa biltzeaz, zalan-tzarik gabe ba du ikustekorik Izaban bertan gure gizaldira arte ezagutu den ohiturarekin, neska-mutilek ibaian sartzeaz (ikus J. M. Iribarrenen «Historias y costumbres» liburuaren 134 orrialdea; 1956-ko argitalpenean).

Badirudi, Donibane gaua, denborarekin itxuraz aldatua dela. «Euskaldunak» poema berean esaten da, San Joan gaez ari delarik: *Akerra ukatzen dugu, Bildots Aurra aitortzen.*

Sorgin galerazko kantak ez ezik, sorgin erretzearenak anitz baditugu, Donibanez. Eta hauek ere aintzinako Akelarreen agiritzat har genezazke:

*San Joan dela, San Joan:  
gure goiko soruan  
Sorgin begia galdu da;  
galdu bada, galdu bedi:  
sekula agertu ezpaledi!*

Natur zituak soilik baliatzea eta gizarte gaitzak bastertzea zetorren ondorean, suari ukorik egin gabe edo honetaz baliatuz:

*San Joan!  
artoak eta gariek gorde  
lapurrek eta sorginek  
eta beste peste guziek erre.*



Argi dago, itxuraz aldatuarren, eguzkia goren den urte muga hon-tan, sua, landare eta ur, sorkuntzaz eta garbikuntzazko aztarnak hor ditugula.

### **Sobre brujería del solsticio de verano**

Apenas conozco estudios que relacionen la brujería con los ritos del solsticio estival. En la «Relación del proceso de Logroño» celebrado en 1610 contra las brujas de Zugarramurdi, se habla de que a una de las acusadas, a Juana de Tellechea, la maltrataron los brujos porque «habiendo sido elegido su marido Rey de los moros (a usanza de la tierra) para se holgar y festejar la fiesta de San Juan, en competencia de otro Rey, que también eligen, de los cristianos, como era Reina, tuvo ocupación legítima para no ir al Aquelarre, y por eso la azotaron tan cruelmente...».

Antiguamente, en la fiesta de San Juan en Lesaca, se hacía también la elección de los reyes moro y cristiano y en el archivo parroquial de Lesaca, según J. Caro Baroja, existe un Mandamiento dado en 1597 por el Visitador de la Diócesis, en el que, se prohíbe, so pena de excomunión y multa, que se hagan Reyes el día de San Juan, y que se les acompañe a la iglesia con tamboril y bandera. El mismo autor describe una costumbre originalísima de Lesaca, que recibe el nombre de «San Juan putzu».

El proceso de brujería en Burgui, estudio de Florencio Idoate en el número 20 de Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, en su tercera parte habla de las actividades brujeriles de la noche de San Juan, siendo uno de los puntos de reunión la balsa o laguna del río Ezka.

Los ritos de fertilidad y purificación en las aguas al amanecer del día de San Juan, son conocidos en toda la geografía del país, como ya informé en el primer capítulo del libro «Gogoz». Pero, concretamente sobre la magia del agua, en Isaba, acudían al río a bañarse mozos y mozas juntos, o bien las mujeres solas. Según recoge J. M. Iribarren en «Historias y costumbres» (edición de 1956, pág. 134). Mas en el contiguo valle salacenco, la mañana de San Juan solían andar desnudos entre la hierba para mojarse con el rocío. En el estudio etnográfico del valle de Urraul Alto, hecho en colaboración con L. P. Peña Santiago, se recogen prácticas de inmersiones que se hacían antaño en Ayechu y Jacoizti.

Así se desprende que costumbres o ritos antiquísimos, de origen

indoeuropeo en muchos casos, fueron perseguidos y calificados de brujería. Y no es extraño que esto ocurriera con los ritos lustrales, en torno a la adoración del astro solar, con enramadas, hogueras, inmersiones en las aguas o mojaduras con el rocío, que caracterizaban a la primitiva religión. Aún hoy, en el mundo rural vasco, se canta a San Juan implorando la protección de las cosechas y la quema de brujas y otros males.

En la Biblia aparece ya condenado el rito purificador de pasar por el fuego (Deuteronomio, XVIII, 10) y San Agustín decía en uno de sus sermones: «Nosotros solemnizamos este día, no como los infieles a causa del Sol, sino a causa del que ha hecho el Sol».

Pero, volviendo al proceso de brujería en Burgui, del año 1569, aunque no fueron más que acusaciones de niñas alucinadas, guardan la particularidad de la creencia de celebrar la madrugada de San Juan en una balsa del río Ezka, pero, sobre todo, por recoger entre indescifrables fórmulas brujeriles, unos textos de reniegos que constituyen los primeros testimonios escritos del vascuence roncalés.

Con el tiempo, los conceptos han cambiado y en nuestros días, la tradición popular mantiene las hogueras pero cantando la quema de las brujas. Nicolás Ormaechea «Orixe» que conocía muy bien el cancionero vasco y se valió mucho de él a la hora de confeccionar el gran poema «Euskaldunak» (Los Vascos), dedica bastante espacio a las tradiciones de San Juan, a veces relaciona con la brujería, y para su cristianización, en un verso manifiesta: «Renunciamos al macho cabrío y confesamos al Cordero Infante».

De cualquier modo, aún se pueden reunir materiales que aporten más luz sobre el tema, para el enriquecimiento de nuestro folklore.

1979-VI-18.

## EKAINeko DONIBANEZ

Kosmos berritzearen ospakuntzak argi nabari zaizkigu neguan Eguberriz eta udaran ekaineko Donibanez. Urtaro hauen izenak heurak ere kosmogoniarri loturik bai daude: Eguberri eta Ekaina. Eguberri, eguzki berritzea edo eguna berritzea. Egunaren izen bera eguzkian sustraitzen denez. Eta, Ekaina, eguzkia gainean (goren) aurkitzen den urtaroa da.

Inoiz esan dudanez, egutegi zaharra bi urte muga horietan banatzen

zen. Geroagokoa zaigu lautan zatitzea, ilargiaren lau aldiari loturik eta eguzkiaren lau aldiotara bateratuz.

René Guénon-entzat, *Symboles fondamentaux de la Science Sacrée* (1962), solstizio hauek, eguzkiaren ospakuntzak, gizonen eritzizko kosmogoniaren bi atea dira, ekaldeko erresumetan Jano-ren bi aurpegiez sinbolizatzen dena eta, kristautzean, itxura horri jarraituz San Joan bietan ospatzen dena: San Joan Ebangelista eta San Joan Bataiatzailea. *Yabanán* (edo, hobeto esan, *Yehobanán*), Jainkoaren miseriakordia edo alabantza esan nahi duena, haienez hartuz. Guri, behinik-pehin, semantikaren joko hau irristakorra iduritzen zaigu. Hala ere, gai hontaz, bilaketarako lagungarri zaigu.

Gai hau, Jose Mari Satrustegi adiskideak, argitaratu berri duen *Mitos y creencias* deritzan liburuaren 35-96 orrialdeetan dabil. Satrustegik, Mircea Eliade-ren teoriak hartu ditu oinarri eta Euskal Herriko mitologiari erantsi. Egizko historian edo bizitzan oinarritzen diren mitoa, gizonaren egintzako epikatik sortu diren kondairetatik banatuko ditu. Sorkunde arrazoieri erantzunez datozenak bereziz, eta hauetan garrantzitsuenak ditugu eguzkiaren ospakuntzak: Eguberri eta Ekaina.

Ekaineko ospakuntzan, eguzkia gurtzeaz, ura, landare eta batez ere suaren ritoak erabiliko ditu, bakoitzaren inguruan bildu duena adieraziz.

Ospakuntza horien bidez, gizonak, urtero berritzen du sorkunde. Neguan jaiotzaz eta udaran Naturaren heldutasunez. Horrela aurkitzen du bere nortasuna. Sorkunde, hazkunde, garbikunde ohituretan inguraturik. Inoiz, ekainekoa, sorginkeriekin ere nahasturik agertzen zaigu, igaz garai honetan idatzi nuen artikuluan jasotzen nuen bezala: baina honek, nere ustez, bere lehenean garbikunde aintzinean egiten ziren orgietan ditu bere sustraiak.

Ospakuntzok, mendeak zehar beren jatorrizko itxura aldatuz etorri zaizkigu eta gaur egun kontuz aztertu beharrezkoak ditugu gaiaren funtsa behar bezala hurbilduko bagara. Hontaz, lan ederra eskaini digu Satrustegik. Lehen aldiz ikuspegi berri eta egokiago bat eskaintzen bai digu. Orain bide argiagoak ditugu aintzinako euskaldunek Kosmos-aren sorreraz zer nolako usteak zituzten jakiteko.

Eguberri eta Ekaineko ohituren bilketaz aurrerapen handia egin da, batez ere J. M. Barandiaranek egin duen lanari esker.

*Gogoz* deritzan liburuaren 21-60 orrialdeetan ikus dezakegu zer nolako sineskeraz erabili diren edo erabiltzen diren eguzkiaren ospakuntza hauetan. Eguzkia gurtzeaz soilik 1977ko ekainaren 20an argitaratu nuen artikuluan irakur genezake eta igaz garai honetan sorginke-

riakin nahasteaz ihardun nintzen. Guziotan bada gairik aski gure mitologia zehatzago ikertuz joan ahal izateko. Baina oraingo honetan J. M. Satrustegik M. Eliade-ren teoriak hartuaz egin duen azterketari aurre-rapen handia deritzagu. Aurrerantzean gai hauek ikertu behar dituenarentzat behar beharrezko liburua da.

Ekaineko Donibanez, edonondik begiraturik ere, gizonaren gogoe-tak aurkituko ditugu, izadiaren aurrez aurre. Kant eta geroztiko razionalistek eta zientziaren abantailak Naturaren ikerketaz beste bide batzuetatik abiatu baziren ere, sorkunde arazoa oraindik misterio bat da eta aintzinako gizonak hontaz zituzten sineskerak eta erabiltzen zituzten ritoak gauza jakingarriak dira izatearen erizietan bildu den filosofia bera eta gizonaren pentsamendua hobeto ezagutzeko.

Zalantzak eta ikusmolde desberdinak aspaldikakoak ditugu. San Agustin berak zion, kristauak ez dutela ospatzen eguzkiagatik, baizik eguzkia egin zuenagatik.

Honela, era batera edo bestera, eguzkiaren goren eta behearen mugetan sorkundearen arrazoia aurkituko du gizonak eta bizitzaren berrikuntza ospatuko. Urtaro biotan bizitza berritzearen sinbologiaz arituko da, gorputzaren garbikundea eginaz. Hau egitea, bere izatea sorkundearekin bat egitea denez, bere nortasuna aurkituko bai du, bere burua nolabaiteko jainkotasunarekin jabetuz. Misterio honek, aspalditik, bere inguruan bildu zituen zenbait sineskeraren ageriak: sutan igarotzea, aztiz eta sorginez nahasturik, Testamentu zaharrean agertzen denez (Deut. XVIII, 10).

Berrikuntzaren oinarri, bere goiak hartu dituenak guttutu beharra omen du, berriz ere itzulpena izango duen aldi berri bati ekinaz. Kosmogonia idea hauek zenbait aldiz eta zenbait erataria aurkituko ditugu Lao Tse-ren *Tao-te King*-en. Sisifo-ren mitologia bera da. Baina Lao Tse haruntzago joango zaigu, esanaz: «Itzultzea Tao-ren ekintza da. Tao ezkutaturik dagoenez izenik gabe iharraitzen du, eta honela delarik be-regan biltzen eta egiten dira gauza guziak».

Guénon-en ustetan, Glastonbury (Somersetshire) deritzan hirian aurkitzen den harrespila izartegi antzera egina omen da, lurrean Zodiakoa marraztuz. Britainia Handian bertan aurkitzen da Stonehenge (Wiltshire), Eneolitos garaiko harrespila ezaguna ere. Aintzinako Egipton eta Amerika aldian ere baziren eguzkiaren ohorez eraikitako tenpluak. Hauek izan litezke eguzki gurtzearen ageririk zaharrenak. Baina, inora joan gabe, Euskal Herrian bertan ditugu garai haietako treguharriak, harrespilak, irunarri eta antzerako oroitarriak. Ekaldere begira egiteak eguzki gurtzearekin zer ikusirik ba dutela esan genezake. Ezpairik gabe, hor ditugu Eguberri eta Ekaineko ohituren jatorriak.

## Sobre el San Juan solsticial

Como en años anteriores y por estas fechas vuelvo a escribir sobre el tema de los solsticios. Si de por sí constituye un tema prácticamente inagotable, en ocasiones hallaremos algunas novedades, como en el caso presente con la publicación del libro *Mitos y creencias* por J. M. Satrústegui.

A modo de introducción recuerdo las teorías semánticas de René Guénon, que hasta cierto punto pueden resultar dudosas respecto al juego bipartito, Jano e Yahanán, para convertir la cristianización de los solsticios en las personas de los santos Juan, Evangelista y Bautista; mientras que las etimologías vascas de Eguberri y Ekaina no dejan lugar a dudas su origen solsticial.

La citada obra *Mitos y creencias* de mi compañero José María Satrústegui constituye un avance considerable en materia cosmogónica. Entre las páginas 35 y 96 trata del agua ritual de Año Nuevo y el solsticio de verano. Para ello, el autor, antes ha tenido que analizar y desglosar la naturaleza de los mitos empleando por vez primera entre nosotros las teorías de Mircea Eliade, y clasificar el mito de los orígenes y el eterno retorno, aplicando a personajes y héroes de nuestra mitología y a los ritos lustrales en las páginas referidas. Para las comparaciones interpretativas aporta un valioso material de la mitología vasca, en muchos casos de primera mano, y ayuda a esclarecer muchísimos aspectos.


Algunos ritos solsticiales se extienden a los equinoccios. Porque las cuatro fases lunares corresponden, en un ciclo más restringido, a las cuatro fases solares que son las cuatro estaciones del año, y las prácticas rituales se repiten, aunque con menor intensidad en los equinoccios en comparación con los solsticios que dividen el año en dos grandes ciclos.

En *Gogoz*, páginas 21-60, traté sobre este tema, y, en 1977, por estas mismas fechas publiqué un artículo titulado «Eguzkia gurtzea» (el saludo al Sol), donde daba diversas referencias de la adoración del astro solar. Con todo, éste es un tema que resulta prácticamente inagotable.

San Agustín decía que los cristianos no solemnizan este día (San Juan) a causa del Sol, sino a causa del que ha hecho el Sol.

La práctica de pasar por el fuego, con mezcla de magia y brujería, aparece ya en el *Antiguo Testamento* (Deuteronomio, XVIII, 10).

La idea del eterno retorno, de lo que ha alcanzado su máximo no puede, al contrario, sino comenzar a acrecerse en seguida y viceversa,



*Aizkaxkar, Oiñati partean.*

es una idea cósmica que se encuentra, expresada varias veces y en formas diversas, en el *Teo-te King*. En el mismo se dirá que «Todas las cosas encuentran vida en su Origen». De este modo: «El retorno es la acción del Tao. Tao estando oculto permanece sin nombre, y siendo así en él todas las cosas convergen y se realizan». En algún modo también se puede relacionar con el mito de Sísifo.

Pero los monumentos megalíticos del Eneolítico se encuentran orientados al Este y es de suponer que las prácticas del culto solar datan cuando menos desde aquellas épocas. Guénon identificó el «templo estelar», como un inmenso Zodíaco, en los monumentos célticos de Glastonbury. Diríamos que también está claro en Stonehenge y otros similares de aquella época. También en el antiguo Egipto y en las culturas precolombinas existían templos erigidos al culto solar. Y los propios monumentos líticos del país vasco, tanto los dólmenes como los cromlechs, monumentos funerarios orientados al Este, mantienen a los muertos mirando al origen solar, origen de la vida para los antiguos.

1980-VI-23.

## EKAINENKO OSPAKUNTZAK

Ekainean, izenak berak dionez, eguzkia gainean (goren) jartzen delarik, urtaroa mugatzen du eta honegatik datoz aintzinako denboretatik gure egunokarte ezagutzen diren ospakuntzak. Mitologia zahar honen sinbolorik ezagunenak: ura, landara eta suaren inguruan egiten diren ospakuntzak dira. Hauek ordea, Naturaren berritzearekin loturik daude. Bizitzaren berritzea adierazten du eta honegatik egiten dira garbikundezko jaialdiak. Jai hauek, batez ere, San Joanetan egiten dira, baina San Pedroetara irauaraziz ere bai.

San Joan iturrietara erromes joateko ohiturak oso zaharrak dira gure artean. «Ur goiena. Ur barrena» delako ritoak oraindik bizirik daude Nafarroako Sakana partean.

Itxura denez, Lekeitioko Kaxarranka deritzan dantzaren jatorria, aintzinatik arrantzaleak Kofradiko kaxa (kutxa) gainean San Pedroren irudia ipinita irtetzen omen ziren prozesiora, eta arrantzaleentzat urte txarra izan bazen imajina itsasora botatzen omen zuten. 1682an Kalahorrako apezpikuak ohitura hori debekatu zuen eta, hau delata, ika-

ragarrizko iskanbilak sortu omen ziren, errege Felipe III.ak parte hartzeraino. Garai haietatik, santu imajinaren ordez gizona ateratzen hasi omen ziren, baina gizonak, gizon biziak, kutxaren gainean San Pedroren irudiz geldirik itxusi ematen omen zuen eta aurrezkua dantzatzeari eman zioten.

Eibarren eta Plenzian esan ohi denez, elgoibartarrek herriko jaientan egualdi ona «biogu» (behar dugu) eskatzen omen zuten, bestela santua errekara. Egia esan, honen ziurtasunik ez daukagu. Baina antzerako ohiturak ezagunak dira.

Iruñan 1581ean *De Superstitionibus* zeritzan liburu bat argitaratu zuen garai hartan diakonoburu zen Martin de Andosilla y Arlés azkoiendarrak sineskereri buruz eta, bertan jasotzen dituenen artean, Usungo San Pedro ermitan ohi zena adierazten du. Usun Nafarroako Romanzado partean dago eta herritik ibaiaren bestaldean San Pedroren basiliza. Bertara erromes joaten ziren herritar eta elizgizonak santuaren irudia osineko uretara sartzen omen zuten. Baina Zaraitzuko ibai ertzean aurkitzen den San Pedro de Usun delakoan lehenagotik ere izango zen holako ohiturarik, zeren historiak diotenez, Santxo Garzes Nafarroako erregea 924. urtean Usungo San Pedro hortan otoitz eginez sendatu omen zen sukar-gaitzetik.

San Joan goizean eguzkia irten baino lehen ura edatea, ihintzetan oinutsik ibiltzea, orrazia ihintzetan bustiz gero orraztea eta abar, oso ezagunak dira Euskalerririk gehienez.

San Joan goizaren lehen orduetan elorri eta lizar erramak hartu eta erreka edo uraren gainetik igaro gabe etxera eraman eta ateburuan edo atearen aldamenetan jartzea. Haritz arbola (Doninatxa, Donibane-haritz) plazetan jartzea eta abar. Eguzkiaren indarrez hazten diren landara edo pizten den bizia sinbolizatzen du. Gizonak naturalezan urtero nabaritutuko duen mirakulua bai da.

San Joan bespera gauean suak egitea bera mundu guzian zabaldurik dagoen ohitura da. Herrialde bakoitzean bertako bereizkuntzekin, baina mundu guziko ohitura. Su gainetik jauziz sarna fuera, lapurrak eta sorginak eta gainerako gaitz guziak erre, deadarka arituz. Gauza zahar guziak metatu eta erre. Aspaldiko usuarioak benetan.

Garbikunde ospatzeak dira horiek eta garbikuntzen aurretik agertzen zaizkigu zenbait sorginkeri. Naturaren berritzea datorrenez, barne grinak askaturik uzten dira eta aurrez, aintzinako denboretan, orgietara amain emonik ibiliko ziren, Erronkariko Burgin 1569. urtean agertzen zaigun bezala, saindu, guraso eta askazi guziak ukatuz, sorginkeriari emanaz «latakan, tirakan, literna y dios vast» formula oihukatuz, gausa. 1610. urtean Donibane gaeuz Zugarramurdin Akelarrea ospatu





*Dolmen de Aizkomendi, en Egulaz (Alava). En su estado del año 1960.*

zutelako eraman zituzten sorgintzat Logroñoeko auzitegira, berrogetahamaika urte lehenago Burgikoak Iruñara eraman zituzten bezala. Eta, ageri hoiak nonbait badute zer ikustekorik Testamentu Zaharrean Deuteronomio-ren hitzaldietan aurkitzen denarekin.

Donibanez, egunsentian, lehen lehenago biluzik bainatzen ziren Izaban, Lesakako San Joan-putzuan eta Igantzi, Orío eta beste zenbait herritako San Joan iturrietan egiten ziren garbikundezko rito horiek.

Aintzinakoak oharturik zeuden urez eta eguzki beroaren indarrez hazten zirela landarak. Landaretan zuhaitza zela nagusi eta landaren egurrez egiten zela sua.

Suak ordea, gizona beste abere eta prizti guzien gaintetik ihartzen zuela. Suak eguzkiarekin bazuela elkarrekiko antzik, baina batez ere suak berotzen eta giotzen zuela etxea, familiaren biltokia. Latinez, *focus* «hogar», Leon aldeko «lares» gauza bera da eta *lares* latinez «familiko jainkoak» esan nahi du. Beraz, idea bereko iturriak dituzte.

Bestalde, aintzinako denboretan gizonaren abantailarik handiena sua izanik, gizona ahalmentsu eta trebe izaten laguntzeko, ezta baterere harri-

tzekoa suak bere inguruan biltzen dituen dohainak hain handiak izanik horrela gurtzea eta eguzkiaren pare ihartzea.

Sortaldeko Zuberoan «Ekhi saindua», Larraunen eta beste zenbait lekutan ederrez agurtua, Gipuzkoako Goierriin «Jainkoaren begi» da eta Bizkairako «Amandre» egina berriz itzuliko da bere amagana. «Bihar etorriko da denbora ona bada».

Horrela beti. Eguerrietatik Ekainera, sorkunde, hazkunde, garbi-kunde gurpilez.

## Las celebraciones del solsticio de verano

El solsticio de verano, en gran parte de nuestra geografía, normalmente se prolonga desde San Juan hasta San Pedro, con una extraordinaria riqueza de ritos mitológicos.


Desde las romerías a las fuentes de San Juan, el rito de mojarse en el rocío de las praderas, la entrega de agua bendita a los hogares, hasta las inmersiones en determinados ríos o pozos.

Dos costumbres antiguas de inmersiones por el día de San Pedro, constituyen la primitiva procesión de Lequeitio transportando la imagen del santo sobre el arca de la Cofradía de pescadores al que se sometía a una inmersión en la mar en los malos años para la pesca. Costumbre prohibida en 1682 por el obispado, que ocasionó diversos tumultos e intervino el propio rey Felipe III. La imagen fue suplantada por una persona a la que para animar el cortejo se les ocurrió ponerla a bailar el auresku, dando origen a la actual Kaxarranka. Y la otra noticia nos viene de San Pedro de Usún, en el Romanzado (Navarra), según recogió Andosilla y Arlés en *De Superstitionibus* (1581), se prohibió la práctica de meter al río al santo.

No se sabe si tendrá alguna relación con tal práctica la creencia de las propiedades curativas de las aguas de San Pedro de Usún. Se cuenta que el rey navarro Sancho Garcés se curó de calenturas intermitentes en San Pedro de Usún, en el año 924.

Las plantas que para junio florecen por las tierras que en primavera han sido regadas por las aguas y con la ayuda del calor solar y que al hombre le proporcionaran el fruto alimenticio y la leña, indispensable combustible para el hogar, también recibirá su adecuado tratamiento en los ritos solsticiales con las enramadas y el árbol de San Juan.

Leña con el que encenderán el simbólico fuego la víspera de dicha festividad. El fuego, así como el agua, se considerará purificador.



*Muskildiko ate erromanikoa eguzki eta ilargiaren sinboluz (Zuberoa).*

Pero a los ritos de purificación le precederán algunos festivales que pueden convertirse en orgías. Recuérdese que los juicios sobre brujería de Burgui (Roncal) y Zugarramurdi, en 1559 y 1610 respectivamente, fueron por estas prácticas en la noche de San Juan.

Por otra parte, el hombre era consciente del poder del fuego. Si de *focus* proviene «hogar», *lares* que viene de la misma procedencia significa «los dioses familiares».

El poder sobrenatural que el fuego representaba para el hombre primitivo le indujo a los referidos rituales y a identificarle con el propio astro solar. Ese astro que proporciona luz y calor y al que en la parte oriental del país, en Zuberoa, se le saludará, como en Valcarlos, «sol santo», se le tributarán cantos de salutación por Larraun, se le denominará «Ojo de Dios» en el Goierri guipuzcoano y se le despedirá en Vizcaya como a «la señora madre, abuela» que ha de retornar al regazo de su madre y ha de volver al día siguiente si el tiempo es despejado.

Así sucesivamente se renueva, de solsticio a solsticio, nace, crece y purifica ininterrumpidamente.

1980-VII-7

## ANTROPOLOGIA

Iragan egunetan harriturik irakurri ditugu Leioako medikuak eskole-tako haurrentzat eratu zuten inkesta zela ta sortu ziren eztabaidak, galde-ren artean antropologiari zegokion zenbait puntu ikutzen zirelako. Antropologia, gizona estudiantzeko zientzia denez, lotsagarria izan da politikaz nahasturik eman zaion tratamentua. Ikerketaren ondorea ezagutu gabe eta gero emango zaion helburuaren berririk jakin gabe, nola daitake holako ikerketa baterako medikuak gertatu duten inkesta razistatzat hartzea?

Zer egin behar ez den adierazteko, artikulu hontan ondo deritzat berri labur batzuk ematea, Espainiako irrati eta telebistak agertu dituen bihurkerien ondotik.

Lehen lehenik gogoratu behar garena zera da, odol sailkatzeak lortzeari esker gizonok elkarri ematea kontzegitu zela eta honen bidez bizi asko salbatzeko bidea ekarri. Karl Landsteiner austriakoa izan zen odol sailak bereiztea deskubritu zuena, gure mende honen hasieretan, eta 1930. urtean Nobel Saria jaso zuenetik zabalkunde handia izan zuen. Hala ere, baziren inoiz «A», «B», «AB» eta «O»-ren artean elkar hartu ezinezko fenomenoak. Orduan, Alexander Salomon Kiener izen deiturazko bere ikaslearekin jarraitu zuen plasmen fenomeno horiek xeheki ikertzen eta «Macacus Rhesus» bezala ezagutzen den tximio mota baten odolari esker lortu zuen gero «Rh» deituko zen faktorea deskubritzera eta honen bidez odolaldaketen arazoa gainditu.

Gure artean urteak igaroko ziren ikerketa horien berri ezer jakin baino lehen. Ameriketara eta Ingalterran hemen baino lehen oharu ziren Rh faktoredun odolaren portzentaiarik tipienak euskaldunen artean aurkitzen zirela. Ez naiz sartuko hemen portzentaia horien xehetasunekin, baina bai fenomeno horren berriak hemen nola zabaldu ziren adierazi. Gai honi buruz lehenengoz, nik dakidanez, Inazio Maria Barriola medikuak eman zuen Arantzadi Natur Zientzia Elkarteak antolatutako hitzaldi batean eta *Munibe* aldizkarian argitaratu zen 1954. urtean. Handik bost urtera Auñamendi argitaldaria eman zuen M. A. Etxeberriren lana, Arantzadi eta Barandiaranen beste lan batzuekin batean. Baina euskaldun unibertsitariak medizina estudiantzen zuten Unibertsitateetan oraindik ez zen ematen gai honen berririk. Behar bada, arrazakeriaren aurka zeudenen lana zen gauza horiek isilaraztea, baina bitartean, Euskal Herriko haur asko ta asko gibelesko gaitzez eta buruz ere inoiz elbarrituak sortzen jarraituko zuten, eta inoiz hil ere bai. Euskal Herriko mediku gazteak, bio-kimikazko estudioak sakonago ezagutzeko Ingalterrara joaten zirenean, han enteratzen ziren hemen

Rh negatiboa nolako maiztasunez agertzen zen. Bitartean, errementaria-  
ren etxean zurezko ganibeta.

Gauza hontaz Ingalaterran jakitun jarri zenetako bat izan zen J. L. Goti bera oraindik gaztetxo zela. Gero, bere ikerketen fruituak hor daude *La Gran Enciclopedia Vasca* aldizkarian 1966an agertu zuen hartatik hasi eta hainbeste lan argitaratuaz. Baina ordurarte ezjakintasunaren mundutik zetozten fruitu mingots eta larriak hor gelditzen zaizkigu zer egin behar ez denaren erakuspidez. Beraz, aurrerantzean ez dezala inork mugarik jarri antropologia ikerketeri, naiz bestelako edozein ikerketeri. Adierazi dudan gai hori, lehen hain misteriotsu erabili bazen ere, gaur egun edozein pediatrik edo ginekologok jakin beharrezkoa da. Hau izaten bai da luzarora ikerketen ondorea.

Oroitzen naiz duela hogeiren bat urte Paulette Marquer antropolo-  
goa Paris-tik Musée de l'Homme-k bidalia nola etorri zen hemen iker-  
ketak egitera eta zein harrিতua zegoen gure artean hain ezagutu beha-  
rrezko iduritzen zitzaion gai hontaz hemengo medikuek gehiago ez ja-  
kitez. Gure atzerapenaren agergerri ez ote?

Marquer-ek lan garrantzitsua egin zuen lehenagoko R. Collignon  
eta T. Aranzadiren ikerketeri jarraituz eta egungo aurrerapenez balia-  
tuz. Orduko ikerketen emaitza izan zen bere «Contribution a l'étude  
anthropologique du peuple basque et au problème de ses origines  
raciales» (*Bull. Société Anthropologie de Paris* T. 4, XI série, 1963,  
pp. 1 à 240). Bukaerazko adibideetan atlantomediterranea sailean jar-  
tzen zuen, baina ez arraza berezi bezala. Alianza Editorialek 1969an ar-  
gitaratu zuen *Las razas humanas*-en egilea dugu Paulette Marquer eta ar-  
gitalpen hortan, lanerako metodologiaz aparte, 149. orrialdean ikusi  
dezakegu euskaldungoari buruz duen eritzia.

1965ean Iruñan egin zen IV Symposium de Prehistoria Peninsular-  
eko batzarretan ordea Miguel Fusté-ren lan orokor bat agertu zen  
Atlantika-Pirineotakoez eta J. M. Basaberen lanetan aski berria izango  
zen P. T.C.-ri dastamen sentikortasuna aplikatzeaz. Urte bete geroago  
J. Pons-ek behatzenetako lerroen lorratzez agertu zuen beste estudio bat  
*Pirineos* aldizkarian.

Nork esan ikerketok egin behar ez direnik? Hala ere Unibertsitate  
inguruan bete beharrezko lanak iduritzen zaizkigu. Honegatik, zergatik  
ez bua umeen jatorriak eta beren izate biologikoak estudiatu? Datoen  
prozesuak, zenbat eta zabalagoak, hobe. Esate baterako, hortzak txar-  
ragoak edukitzeak familia baten ekonomiari ikutzen dio, dastamen sen-  
tikortasunaren gora-beheran dago jatunegia izatea edo edarien bidez al-  
kolismoan erortzea, etab. Gauza hoiek haurtzarotik ezagutzea hobe da,  
medikuntzari alde aurretik laguntzea denezkero.

Gainerakoan, zuri zein beltz, arraza kontuko diferentziak gizata-sunaren azpitik jarri behar ditugu, humanismoa gainetik dela. Eta, arren, holakorik ez dezagula arrazakeritzat hartu. Edozein eratako ikerketetara idekiak egoten ikasi behar dugu, edozein herri aurreratu bezala.

## Antropología

Días pasados hemos sido testigos atónitos de la polémica surgida a raíz de una encuesta médica escolar, porque en ella se recogían datos relacionados con la antropología. Las cosas fueron por un declive erróneo y la ciencia antropológica, que es precisamente para el estudio del hombre, recibió un lamentable tratamiento. Sin conocer los resultados de un estudio y saber la aplicación que se iba a dar al mismo no se puede prejuzgar de racismo.

No es mi intención salir al paso de las polémicas pero sí el de ofrecer alguna información sobre la importancia de la investigación antropológica para los vascos. En primer lugar, quede claro, cualquier tipo de investigación es importante para la sociedad, y en el caso de la antropología, su importancia, está reflejada en las publicaciones especializadas. Anotaré algunos ejemplos recordando en primer lugar el proceso de los grupos sanguíneos. Para que no haya malentendidos, conste que no soy del grupo 0, ni tengo Rh negativo y ni siquiera llevo apellido vasco.

Fue Karl Landsteiner (1868-1943) el hombre que descubrió los grupos sanguíneos y empezó a difundir desde primeros de siglo, para salvar muchísimas vidas humanas por transfusión. Consiguió una mayor difusión desde que en 1930 recibiera el Premio Nobel de Medicina y continuó sus investigaciones, en colaboración con su discípulo Dr. Wiener, hasta conseguir superar algunos casos excepcionales con el descubrimiento del factor Rh. Este fue un gran paso para la medicina preventiva. En América e Inglaterra supieron antes que nosotros mismos que el factor Rh negativo se daba en porcentajes muy elevados entre vascos. El Dr. Ignacio M.<sup>a</sup> Barriola dio una conferencia informativa en la S. C. N. Aranzadi (que se publicó en *Munibe* de 1954). Pero en las Universidades peninsulares, donde estudiaban medicina personas de nuestro país, no se enseñaría hasta bastante después. Mientras, muchos niños seguían sufriendo de ictericia y daños cerebrales de diversa índole, incluso la muerte. Hoy, de esto sabe cualquier pediatra o ginecólogo, pero cuando la antropólogo Paulette Marquer vino al país, hace veintiún años, ella se asombraba porque se nos ocultaba una cosa tan

importante. No era ésa su especialidad dentro de la antropología, pero era consciente del caso. Hizo un trabajo muy bueno al actualizar los estudios de R. Collignon y T. Aranzadi, empleando moderna metodología. Su trabajo se publicó en el *Bull, Société Anthropologie* de París en 1963. Como conclusión definitiva colocó al pueblo vasco, con sus peculiaridades, dentro del grupo de la subraza atlantomediterránea, sin categoría de raza especial. Marquer, a su vez, es la autora de la obra *Las razas humanas*, que publicó Alianza Editorial en 1969, y donde el lector podrá consultar la definición que ella hace del grupo vasco.

En el Symposium de Prehistoria Peninsular, en 1965, además de una aportación general del pirenaico-occidental de M. Fusté, se presentaron dos trabajos de J. M. Basabe sobre antecedentes prehistóricos y sobre la sensibilidad gustativa al P. T. C. Un año más tarde, J. Pons, publicó un interesante estudio de las líneas papilares, en la revista *Pirineos*. El campo ya era más abierto y los estudios vinieron progresando en cantidad y profundidad. Ahora que se dispone de una Universidad del País Vasco con una Facultad de Medicina, es muy lógico que la investigación se incremente. Naturalmente, incluyendo la oriundez del individuo y los factores genéticos. Muy por encima de las diferencias ideológicas es deber de los especialistas. Diría hasta una exigencia de salud pública. La peor dentadura de la generalidad de los vascos repercute en su economía familiar; la sensibilidad gustativa, tal vez, a una predisposición a los excesos gastronómicos y al alcoholismo; las condiciones de vida en determinados climas y valles angostos pueden repercutir en el temperamento, etc., etc. ¿Por qué no iniciar un proceso de datos desde los escolares?

Entendemos que el valor del ser humano, sea éste blanco o sea negro, debe estar muy por encima de toda diferencia racial. Y que no haya impedimentos de ninguna clase para estar abiertos a todo tipo de investigación, como cualquier pueblo civilizado.

1980-XI-24.

## HIRIGINTZAZ

Hirigintzaz, industriadun Euskal Herri partean, egoera larri batera helduak gara. Azken urtetako hazkuntzak irautzen baldin badu, —eta behera baino aisago gora egingen du—, gure hiriak itxusiak, itoak eta

bizi ezinezkoak bihurtzeko zorian dira. Egoera honek, urkamendira baino lehen, erabaki egoki bat behar du. Arrazoi honegatik, argitara irten berri den Jose Inazio Linazasoreren *Permanencias y arquitectura urbana* deritzan liburua une egoki egokian datorkigu. Betor, bai; betor zorionean. Ia hemengo gehiegizko bidegabekeriak mozten hasten garen.

Hirigintzari buruz lehendabiziko liburua dugu. Nik dakidanez behintzat, lehen ez zen holako liburu zientifikorik hirigintzaz. Hau da, hiriak historian zehar zer kriteriokin eraikiak ziren eta oraingo egoeran, gure mendean, zer aburu jarraitu behar duten markatzen duenik. Etxeeri buruzko estudioak bagenituen, baina ez hirigintzaz. L. P. Peña Santiago-ren *Arte popular vasco*-ren hitzaurre hartan aditzera eman nuen bezala, etxeeri buruz bagenituen zenbait estudio: «Anuario de Eusko-Folklore»-ko V, VI eta VII (1925-1927) tomoetan, M. M. Smith, J. Yrizar, H. Oshea, F. Veyrin, A. Baeschlin, E. Aranzadi, Zabalo, L. Urabayen eta beste zenbaiten liburuetan. Ez ordea hirigintzaz. Hala ere, Leoncio Urabayenek lur eta bizilekuen ordenatzeaz zenbait lan eginak zituen. Honez gainera, Carreras Candi-ren zuzendaritzapean egin zen *Geografía General del País Vasco-Navarro* tomoetan badira anitz agiri, eta, batez ere, orain aipatzen dugun J. I. Linazasoreren liburu beraren hitzaurregile den J. Caro Barojak *Los Vascos* (1949) deritzanetik hasita *Etnografía Histórica de Navarra* (1971-1972) liburuetara arte. Euskal Herriko arkitekturaz zerbait serioa egin nahi dutenek ezagutu beharrezkoak dituzte liburu horiek.

Arkitekto gazteak kezkatu daude gure herriko hazkundera da roan martxaz. Honegatik, J. I. Linazasorok, hirigintzaren helburuz, aurreproektoak behar duten analisia sakona eskatzen du. Bere tesia aurkeztzeko, historian zehar erabili diren aburuak aztertzen ditu, erromatarren garaiko aztarnetatik hasi eta joan zen mendean neoklasikoaren joerak burutu arte.

Irakurleari ez diot aditzera emango hirigintzaz eta etxe eraikitzez erabili den politika txarra, hontaz nik haina dakienez. Diruzalatasunez itxuturik ibili direnen politika ez baita izan herriaren onerako.

Hitzaurrean Julio Caro Barojak ongi salatzen duen bezala eta, gezurra badirudi ere, aintzinako hirigintzak zentzuzkoagoak ziren, hiritarren zerbitzurako eginak, arrazoi bidez eta buruz eginak; baina oraingo eraikitzaileak momentuko premieri eta irabazieri begira itsu-itsuan ari dira. Denbora laburrerako lanok, ez dira, luzarora, ez ekonomiaren onerako eta ezta ere hiritarren bizigarri. Listerak garelakoan tonto portatu gara. Ez bai dugu eskubiderik gure oinordekoen bizimodua hipotekatzeko.

Morfo-tipologiaz eta honen aplikazioarekin hasten da Linazasoreren



liburua. Ondorean, aintzinatik gordetzen diren hiri zahar eredugarriak aipatzen ditu heureri buruzko iritziak agertuz. Bakoitzaren izate joera zertan den eta zergatik zen adiaraziaz. Lehen lan baterako ikertze tekniko izugarria iduritzen zaigu, gai beraren zientzia disziplina zehatzaren barru eramanez.

Erdi-aroran sortu eta eraiki ziren hiri-bilduak eta hamazortzigarren mendearen azken partetik erabili ziren neoklasiko joerazko kriterioan izanen dira liburuko zatirik bereizgarrienak. Hoietan nabarmen azaltzen bai da eraikitzaileen zentzuzko aburua.

Liburua bera Barcelona-ko Gustavo Gili-k argitaratua da; irudiz, argazkiz eta marrazkiz aberats dator, irakurgaiaren lagungarri. Toki askotako agiriak agertzen ditu; baina, bereziki, Puentelarreina, Laguardia, Gasteiz, Segura, Mutriku, Bilbo eta Donostiako hirienak.

Hain beharrezko zaizkigun kriterio berriak markatzera dator J. I. Linazasoro donostiar arkitekto gaztearen lan hau. Gure gizartean eraikitzaile arduradun direnak ezagutu beharrezkoa, zer pentsa emango diotena eta gogoeta berrizetik egungo anarkiari muga jarriaz bizileku egoitza erakitzea bideratu. Hala bedi.

### Sobre urbanismo

Constituye una novedad editorial muy importante la aparición de la obra *Permanencias y arquitectura urbana* del joven arquitecto donostiarra José Ignacio Linazasoro, que trata de las ciudades vascas de la época romana a la ilustración. Tratándose del primer intento serio sobre la historia urbanística del país, creemos haber logrado sus objetivos con éxito. Es un ensayo, que incluye una serie de etapas discontinuas de construcción de la ciudad, y en el mismo se pretende analizar básicamente el papel y naturaleza de las «permanencias» físicas a lo largo de este proceso. Elementos como el sustrato romano, la morfología de las ciudades medievales o la propiedad del suelo, en general, son tenidos en cuenta en su papel de elementos en parte determinantes de los resultados físicos concretos y sucesivos.

El libro viene prologado por Julio Caro Baroja. Muy bien prologado, por cierto. Quien nos manifiesta que «la preocupación actual de nuestros arquitectos jóvenes y con sentido de la responsabilidad a este respecto hace ver, de modo claro, que vivimos momentos gravísimos y que el caudal de conocimientos teóricos y prácticos con el que contamos no corresponde, ni mucho menos, a las «realizaciones». ¡Qué realizaciones!

No hay duda, que el medio influye directamente en el comportamiento del individuo y no se puede pretender orden en una urbanización desordenada, ni sensibilidad estética si no se cuidan dentro de unas exigencias mínimas los conjuntos armónicos de las poblaciones.

El libro, ricamente ilustrado con dibujos, fotografías y planos, aporta un valioso material para la historia del urbanismo en el país y al propio tiempo marca la pauta, o por lo menos sugiere, el camino a seguir en lo sucesivo. Por lo que consideramos fundamental para nuestros arquitectos y las personas responsables en la construcción.

1979-I-22.

## FERIA NAGUSIAK

Urtearen bukaera heltzeaz Euskal Herriko hiri askotan urteko feria nagusiak ospatuko dira. Gehienak Santo Tomas egunez, abendua-ren 21-ean eta guti batzuk abenduko beste egun batez. Elgoibarren, adibidez, Gabon zahar egunez.

Gehienetan «feria» hitza erabiltzen da. Gure auzoko Elgoibarren «azoka». Azken hau ordea euskaldun jatorragoa den ustez zabaltzen ari da. Arabeen «zoco»-tik dator, baina feria kontuaz ari geranez, berdin da; tratua tratu, asto batari buztana atera eta besteari sartu.

Feria edo azokarik gehienok urtean zehar eskualdezka egiteko ohitura da. Adierazpenez, Gipuzkoara mugatuko naiz. Hara nola izaten diren Arrasate (Mondragon), Elgoibar, Azpeitia, Ordizia, Tolosa eta Donostian. Gure geografiaren eremuan, bakoitzak inguru berezi bat hartzen duelarik.

Aintzina, komunikabideeri orain baino gehiago begiratu beharra zegoen, oinez edo zaldiz ibiltzen zirelako eta honegatik zuen eskualde bakoitzak bere feria. Hileroko ferietan egiten ziren salerosketarik beharrezkoenak; baina urtearen bukaerakoan nagusienak. Salerosketaz gainera, gizarte harremanak gordetzeko ere balio zuen feria hoiak mantentzea. Baita ekonomiaren gora-beherak jakiteko baremotzat ere. Gaur oraindik ere, baserritarrek, errentan etxeren bat edo utzi behar badute baina denbora berean pezetaren balio neurriari eutsi, ferietan salgai egoten direnetan jartzen dute oinarrizko neurria. Adibidez, urte batean honenbeste erraldek txalax zenbat balio duen, urrengo urtean pisu bere-

koak izan dezakeen diferentziaren arabera prezioa aldatzeko kondizioaz. Eta, horrela jarrai urtez urte.

Eskualde hoiek, beren barne ekonomia politikaz aintzinagoko herri-  
-elkarte erakunde zaharragoeri lotzen zirela esango nuke. Hau ezta oraindik ondo estudiatua, baina hala dirudi.

Ez pentsa Gipuzkoa beti orain bezalakoa izan denik, ez. Donostia Nafarroako erregeren babespean hiri sortzean, bertako foruak dionez, Itziardik Donostiarainokoa zen probintzia hau. Orduko eliz barrutien arabera nonbait: zeren Gipuzkoako Artziprestego nagusia muga hoiien barnean Iruñeko Diozesisekoa bai zen, Pasaitik harakoa Baionakoa eta Debarrua Kalagorrikoa zen bezala, Anaitasuna aldizkarian «Ezagutu gure herria» (1973) eta geroago «Lur eta gizon. Euskal Herria» (1974) deritzan liburuan Jose Luis Lizundiaren lanetan ikus dezakegun bezala. Muga hoiek aintzinagoko Barduli, Baskoni eta Karisti herrialdeetan finkatzen dira. Baina hoiek heurok baino mugaketa naturalago eta zaharragoa izango dute feria nagusien eskualdeak.

Aintzinasunez xehetasun gehiagora hurbiltzeko, P. Gorosabel-en lanetan «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa»-ren bigarren tomoko hirugarren kapituluan aipatzen diren eskualdeetara joko nuke nik. Orainsuago Sebastian Insaustik «División de Guipúzcoa en valles» (Bol. de Estudios Históricos de San Sebastián, Dr. Camino, año 1974, pp. 219-229) deritzan lanean argitaratu zuen bereizkuntzara.

Arrasatera biltzen ziren Leintz haranekoez, hiri hau inguruko buru zenez. Erdi-aroran, Tolosakin batean Gipuzkoako hiririetarik handiena. Gasteiztik itsasora irtetzeko biderik laburrenaren erdialdean (Mutriku eta Debaz gogoratzen bagara), meatokiak, olak eta merkatalgoa zituen bere aberastasunez. Proporzioz, 1448ko erreketara arte izan zen hiri garrantzitsua. Bertako eliza, probintziako hiru zutoitartedun gotikorik zaharrena dugu, XIV. mendearen lehen partean eraikia. Feria nagusiak egiten diren hiriak aztertzen baditugu, guzietan aurkituko dugu zerbait zahar eta berezigarri. Elgoibar ordea, Markinaldeko hiri nagusia. Horregatik, Gaztelako erregeak hiri bildutaz onartzean, Villamayor de Marquina jarri zion. Hemen ere, hor gelditzen zaigu gotiko atari eder bat hilerriko sarreratzat.

Azpeitia, Iraurgiko hiri nagusiak beraganatuko zituen Urolako ibar-  
-rrak Saiaz zeritzan partearekin, Aiatik Beizamarainoko guzia. Ordiziak Goierri parte, Azeria bere barne zuela. Tolosak, foru artxibo eta am-  
-nistralgoaz hiririk handienetakoa zenez, Beterri zuen bere.

Bestalde, Donostia, Hernaniko lurraldeetan sortu zen baina Erdi-  
-aroaren goi partetik Hernani bera baino handiagoa eta garrantzitsuagoa bihurtu zen. Eta, Oiartzun aldea, garai batean, aski berezia izango zen.

Historia ezta alperrik iragana eta gaur ere, ekonomiaren aldetik, herriak elkartuz zerbait egin nahi dutenek, kontuan hartu beharrezkoak dituzte feria nagusi hoiengatik inguruko lurraldeak elkar laneko erakundeak berritze orduan.

## Las ferias mayores

Al finalizar el año, y principalmente el día de Santo Tomás, se celebran las grandes ferias. Por lo que toca a Guipúzcoa, éstas están sujetas a las villas donde se mantienen las ferias periódicas más importantes, generalmente mensuales: Mondragón, Elgoibar, Azpeitia, Villafranca de Ordicia, Tolosa y San Sebastián. Villas que circunscriben centros comarcales erigidos en pequeñas cabezas territoriales por uso y costumbre. Coinciden, a su vez, con las antiguas agrupaciones o divisiones en valles. Su origen estaba condicionado por intereses político-económicos, y por su proximidad, en unos tiempos en que los medios de transporte eran muy dificultosos.

Lo cierto es que, estas ferias, mantienen un comercio poco común en los medios de los mercados cotidianos y, a su vez, una intercomunicación social y un baremo para la vida económica rural.

La división en valles, es probablemente anterior a las divisiones de las Diócesis y, quién sabe si, anterior a la primitiva de Caristios, Vascones y Várdulos, ya que responde a una distribución más regular y natural del territorio guipuzcoano. Este sería un factor muy importante a estudiar y que debería tenerse en cuenta a la hora de las distribuciones y obras públicas en común.

P. Gorosábel en su gran obra «Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa» (tomo II, cap. tercero), J. L. Lizundia en «Lur eta Gizon. Euskal Herria» (capítulo primero) y en los artículos «Ezagutugure herria» (rev. Anaitasuna, 1973), y además S. Insausti en «División de Guipúzcoa en valles» (Bol. de Estudios Históricos de San Sebastián, 1974) aportan valiosa documentación para reconstruir el aspecto territorial y que redundaría en un mejor aprovechamiento del mismo.

Mondragón fue antiguamente la pequeña capital del Valle de Leniz, Elgoibar de la merindad de Marquina, Azpeitia de Iraurgi al que se le uniría Sayaz, Villafranca de Ordicia se constituiría en centro geográfico del Goierri con Areria, Tolosa del Beterri y San Sebastián del antiguo territorio de Hernani al que pertenecía la capital guipuzcoana.

La historia no transcurre en vano, y la lección recibida hay que

aprovecharla. La hegemonía de nuestro territorio, para su economía e interrelación, estaba proporcionalmente distribuida. A la hora de formar las mancomunidades para servicios comunes, es algo a tener en cuenta, y que las grandes ferias de diciembre nos hagan reflexionar.

1979-XII-17.

## IHAUTERI

Ihauteri edo Iñauteri, Bizkaí aldean Aratostiak edo Aratustiak, era askotara eta oso aintzinatik ezagutzen dira, Euskal-Herrian ez ezik, mundu guzian zabaldurik.

Gure inguruko ez aintzinatik ezagutzen dira, Euskal-Herrian ez ezik, mundu guzian zabaldurik. Gure inguruko ez aintzinatik ezagutzen dira, Euskal-Herrian ez ezik, mundu guzian zabaldurik. Gure inguruko ez aintzinatik ezagutzen dira, Euskal-Herrian ez ezik, mundu guzian zabaldurik.

Duela hiru urte neronek ere zerbait idatzi nuen *Hoja del Lunes*-ko zerrenda hauetan, Aratostiak zer ziren adieraziz. Orain, badirudi jende gehiago arduratzen dela gai hontaz eta, handik eta hemendik, galdera asko jaso ditut. Galderen artean pozgarri izan zaizkit Kultura Kontseilaritzan nengoenean Bizkaiko Museo Historikoan sortarazi nuen Pedagogi sailean ikerketetan ari zen Jon Aurreren galderak lehenik eta berak burutu duen lanaren kopia ondorean. Lan polita benetan.

Historia aurretik ere, seguru asko, artzaingo arora helduko den ohitura honek, folklorezko agiriak ugari izanarren, agiri idatzi zaharrik apenaz dugu. J. Garmendia Larrañagaren *Iñauteria* deritzan liburua, 228 orrialdean, Tolosako Iñauteri ospetsueri buruzkoan ematen duenez, harriturik gelditu nintzen agiririk zaharrena Agirre Asteasuaren (1742-1823) *Eracusaldia*-ren hirugarren tomoko 552. orrialdean aurkitu nuen hura zela.

Hamaseigarren mendean, Oñatiko unibertsitarioek, Ihauteriz, gauez errondan ibiltzen ziren, inoiz armazko torneoak eratu ere bai. Baina bestelako iskanbilarik ere izaten zen. Lizarralderen *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate* liburua 239 eta 248 orrialdeetan agertzen denez, 1565. urtean estudiante errondalariak zalaparta handiak erabili zituzten nonbait eta hoietako batzuk, biharamunean, alkateak preso hartu zituelako Unibertsitateko erretora alkatearen kontra jarri zen, bere eskubidezko gauzetan sartu zelako.

Dena dela, Ihauterien agiritzat kontuan hartzekoak dira Lizarral-

dek bere liburu horren 239, 248, 306 eta 318. orrialdeetan ematen dituen berriak.

Baina, Ihauterien jatorria aintzinako denboretan galtzen zaigu. Gizonak bere natur izatearen arrazoiez galdetzean eta misterioari erantzun zehatza eman ezinez, bera baino natur indar boteretsuago diren izaki batzutan bere burua gorde nahi du, jainkokiak sortuz. Jainko bat sortzeak eta hau adierazteak, bere kontrako zerbait eskatzen du eta Satan edo Luzifer bezalako deabrukeriak behar.

Gizona harpeetan bizi zenerako ohartu zen urtaroez, udako beroaldiz eta neguko elurrez, frutuen ernetzeaz, abereak tokiz aldatzeaz eta abar. Abereak hezitzeaz, hauek erakutsi zioten larraldaketa, udaran mendietara eta neguan ibarretara. Eguzkia jartzen duelarik bizitzaren indartzat. Urtaro horietan udaberriak dakar bizitza berriaren poza, baina uztak dira oraindik urruti eta barau egun batzuk pasa beharko ditu. Azkuek zeritzan bezala, Aratusteak, haragia uztetik baldin badatoz, edo naiz Aratosteak haragi janen ostea izan, bere balio semantikoa hor mugatzen da, aintzinako erromatarren *Carnestolendas*-en arabera, eta hau da erdarazko *Carnaval*-en guraso. Beraz, Ihauteriak, urtaro bat uztean eta beste berri bat hastean hartzen du bere zentzua. Kristautasunak jarritako Garizumak, kendu nahiko du Ihauteri; baina gizartean indartsu kokatzen diren ohiturak baztertzea ezta hain erraza, batez ere alai igarotzekoak baldin badira.

Noizbait, izatearen misteriozko indar eskutueta makurtu zen gizona, itxuraldaketazko mozorro jantziz, txontxongillo bihurtzeko dohai-nak ere ba dituen. Eta pertsonaje zelebreak sortuko ditu: Miel Otxin, Zaldiko, Ziripot, Txatxoak, Domingillo, Koko-moko... Azkenik, Tolo-sako Ramos Azkarate bezalako konparsagile eta bertsolariak ere izango ditu eta lehenago laborarien mundukoa zen jaialdia hirietara sartuko zen; aspaldi gainera, Oñatiko agiriok erakusten digutenez.

Berrogeitamargarren aurreko igandez hasiko dira jaialdiak eta urrengo asteazkenez izanen da Ihauterietako egunik handiena.

Haurrak ere beren egun jakin bat izanen dute, *ostegun gizona*. Bizkaian *eguen zuri* dena.

Lehen gizartea bezain zaharra dugu Ihauteri.

## El Carnaval

De muy diversas formas y desde tiempos muy remotos está enraizado el Carnaval en el país, así como en todo el mundo. J. Caro

Baroja, J. Garmendia Larrañaga y J. M. Satrústegui son autores de libros monográficos sobre el tema.

Hace tres años, por estas mismas fechas, dediqué un artículo, en estas mismas columnas, sobre los *Aratostiak* de la zona limítrofe entre Guipúzcoa y Vizcaya, con una descripción del Carnaval eibarrés que conocí en mi infancia. En esencia es el mismo *Ihauteri* o *Iñauteri* de otras zonas del país, y corresponde a las Carnestolendas romanas.

Quedé sorprendido al saber que la noticia más antigua del Carnaval de Tolosa fuera aquella mención del escritor euskaldún J. B. Aguirre de Asteasu (1742-1823), según recoge J. Garmendia Larrañaga en las páginas 228-229 de su obra *Iñauteria*. Sin embargo, el Carnaval urbano cuenta con noticias anteriores. La obra *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate* (Tolosa, 1930), del reverendo J. José A. Lizarralde, recoge en las páginas 239, 248, 306 y 318, noticias del siglo XVI en Oñate. Concretamente el año 1565, los estudiantes de la Universidad registraron algunos actos delictivos, el alcalde prendió a algunos de ellos y el rector pidió su puesta en libertad, bajo graves censuras eclesiásticas por entrometerse en sus competencias. Por aquellos años se conocían rondas nocturnas y hasta torneos de armas.

El Carnaval está sujeto al entorno cultural del solsticio de invierno. Su origen puede remontarse al estadio pastoril y, tal vez, al paleolítico. El hombre que vivía de la caza, la pesca y la recolección, había de presenciar los ciclos solares y su repercusión en los frutos y en la migración de los animales. Su vida estaba condicionada a las circunstancias implantadas por la naturaleza que le envuelve en un profundo misterio, y él es incapaz de aclarar dichos fenómenos. No obstante, sabe que la primavera le depara una nueva esperanza para la vida. Los alimentos escasean y tendrá que ayunar, pero sabe que después brotarán los frutos. Es una época importante y hará converger sus creencias y sus sentimientos de aspecto religioso, a los que irá añadiendo magia, culto, rito... que se harán consustanciales a la época e irá tomando cuerpo el Carnaval. Luego será una rutina, y no pocas veces válvula de escape de toda una serie de sentimientos íntimos que el hombre no se atreve a manifestar en la vida cotidiana. Para ello necesita de sus máscaras y disfraces.

El Carnaval es consustancial a la primitiva sociedad humana y ha ido acumulando diversas formas y aspectos en el transcurso del tiempo.

1980-II-11.

## SANDAILI ETA INGURUA

Nere mendizaletasunezko ibilaldietan gogoko nuen mendi berriak eta toki berriak ezagutzea, baina, hala ere, banituen nere gogoan zenbait toki edo inguru maiz ibiltzea nahiago nituenak eta hoi en artean, Gipuzkoan bederen, Zaraiatik Urrexola aldeko inguru hori nuen maite. Joera honek bultzatu ninduan Zarea mendietako artzaintzaz azterketa bat egitera, 1956ko «Anuario de Eusko-Folklore» liburuan argitaratuko zena, Asuntzetako treguharriak deskubritzera, «Munibe» (1954an adiztera emanak) eta mendizaleen «Pyrenaica» aldizkariaren ale batean (1958ko 4. zenbakiaren 122-124 orrialdeetan) Orkatzategi gailurrera joateko bideak agertu nituen bertako inguruak eta kondairak adieraziaz. Beraz, bertako edertasunaren trukean zerbait eskaini nuen.

Garai hartan, Degurixa inguruak, saroi eta zelai oparotsuz, Aumategitik, Andartora, Andartotik Arluzera eta hemendik Alabieta aldera, edertasun zoragarriaz, bakardadezko toki amesgarriak ziren. Eta handik hurbil, Urrexolako haitzetan, Orkatzategiko gailurra, hain altua izan gabe Bizkai-Gipuzkoetara bista ederrez eta bere ekialdeko hegalean Aitzulo, «Pyrenaica» zenbaki hartako atzekaldeko azalean argazkiz azaldu nuena. Alde bereko behe partean, Oñatitik Araozerako bidearen gainekaldean, Jaturabeko presaren parean dagoen haitzulo baten sarrean aurkitzen da San Elías (Sandaili) ermita.

Inoiz Aretxabaletatik Orkatzategira edo Kurtzebarrira igoaz eta urrengo Gatzaga-gainetik Alabietara eta hemendik gailurren batera igoaz jaxkitzen nintzen Oñatira Sandailiko haitzean atsendendu edo bazkaldu ondorean. Ibilaldi haietan hau izaten nuen, gehienetan, babes leku, euriagatik edo eguzki beroagandik gordetzeko. Era berean, bazkaltzeko toki egokia bai zen, ura eta mahaiak han bertan zirenez.

Duela hilabete batzuk bisitatu nuen San Elías eta tristura handia eraman nuen hain desegina ikusteaz. Ermita, ondoko etxea eta barru guztia apurtuta, kobako mahaiak ere autsita eta toki guziak zikinez eta kakatzaz.

Kulturaz ez dakit aurrerapenik egin dugun, baina zibismo aldetik atzerapen handia dugu nonbait. Tamala da ehundaka urteetan errespetaturik gorde diren paraje atseginak horrela ikusi beharra, tamala arbasoagandik kondairaz beterik eta toki sakratutzat heldu zaiguna modu txarrez desegintzea. Ez da zilegi sinismenaren edo naiz sineskeraren jabe direnak era horretan iraintzeko. Oñatiko San Elías-en gertatu denarekin inork ez du ezer irabazi.

Lehen Santa Ylia (Sandaili) zena, ahozkeratik edo itxuragatik bihurtu zen San Elías. Hala ere, herriaren ahoan oraindik ere Sandaili bezala



ezagutzen da. Santa Ylia, Santa Julia bai da. Bertako lehen albisteak izkribu zaharretan aurkitzen dira, J. K. Gerrak zionez, 1388 edo 1401. urte inguruan gertatu zenari buruzko kanta zati batzuk dira. «Pyrenaica»-ko nere lantxo hartan ere aipatzen nituen.

Lapurrak gorde ziren bertan eta

*Sandailiak atek ditu zirarrez,  
Nola zirarrez da ala zendalez.  
Hermandadea arean doa negarrez,  
Anso Garziak gazteluori emun ez.*

Askok ikertua eta Mitxelenak argitasun gehiagorekin «Textos arcaicos vascos»-en emana. Oñatiko Doktor Puertok idatzirik utzi zuenez, Anso Garzia Garibaikoaren menpekoak Santatrin (oraingo San Adrian-en) ernaniar mandazain bati ardoa eskatu omen zioten eta honek uko egitean zeramazkin ardo eta diruak lapurtu eta Sandailira jo ezkutatzera. Ardoa, probintziako korrejidore zen Hurtado Mendozakoarena omen eta Hermandadeko jendez, «*argi izarrok ditugula kandela*» hesitu omen zuten Sandaili.

*Ardao zuri, ardao Madrigalgora,  
Ardao zuria Mendoza gana doa,  
Alabana Sandaili gogoa,  
Zalagarda Sandailira doa.*


Baina, behar bada, tartean besterik ere izango zen, batzuk oinaztrarak eta besteak ganboarrak zirenezkerok.

Urte guti dela, arabar senar-emazteak aurkitu nituen, bertako uretan busti eta ermitan otoiitz egitera etorriak, haurdun izateko. Gurasoengandik jasotako ohitura omen zuten.

Haitzulo ondoan dagoen harraska batean bustitzen ziren, hatzak, eskua edo gorputza gerriraino sartuaz. Urrengo, haurren soinekoak busti eta legortzeko esegiaz haurra lortuko zuten ustez. Hontaz, ikus J. M. Barandiaranen «Obras completas»-en lehen tomoaren 210. orrialdea.

Holako aipamen bat jasotzen zuen J. M. Satrustegik ere «Medicina popular vasca y ginecología» zeritzan lan batean, «Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra» aldizkarian IX. urtea (1977) Ikus Araoz 333.orrialdean.

B. Gandiaga poeta bikainak ere jasoak ditu Sandaili eta inguruko sineskerak eta holako aztarna ere aurkitu genezake 1956an «Euskera» aldizkarian argitaratu zuen lan hartan (ikus 226.orrialdea). Baina Gandiagaren bilketetan nabarmen aurkitzen den sineskera, zera da, San Elias bera jatorriz Arabako Narbaxako semea zela.



*Sandaili.*

Ikus dezakegunez, sineskera hoiek aspalditik sustraituak dira Sandailin eta euskal mitologian toki berezi bat merezi du, herriaren irudimenak bere lekua izan dezan. Paraje atseginak gogoetazko ametsetarako bai dira.

**OHARRA:** Artikulu honen ondotik, inguruko biztanleak jabetu ziren Santailiren egoeraz eta ermita guzia berritu eta inguru guzia txundu zuten. Eskergarria da benetan.

### **Santa Ilija y su entorno**

Hace algunos años, en mis excursiones de montaña, frecuentaba muchísimo los montes de Zaraya y las peñas de Urrejola, atraído por la belleza y la soledad de sus alturas. En muchísimas ocasiones, Oñate era el punto de regreso y solía pararme en San Elías para tomar un refrigerio.

El amor que sentía por estos parajes, me llevó a realizar un trabajo sobre la vida pastoril, que vio la luz en el «Anuario de Eusko-Folklore» (1956), al descubrimiento de dos dólmenes, reseñados en «Munibe» (1954), y, entre otros itinerarios descritos, aquél en que señalaba la ascensión a la cumbre de Orkatzategui y mencionaba los antiguos cantares de Urréjola y Sandailia, en «Pyrenaica» de 1958. Si mucho se me ofreció para el disfrute de la Naturaleza, algo aporté a trueque.

Hace unos meses visité San Elías, y sentí una gran pena al ver los destrozos y el estado de abandono en que se encuentra el lugar. Un vandalismo sin límites, ha hecho verdaderos estragos. Y todo, a cambio de nada.

Es posible que algo hayamos adelantado en conocimientos culturales, pero mucho hemos perdido en valores cívicos.

La ermita de San Elías se sitúa en la misma boca de una cueva con yacimiento prehistórico, y es muy rica en tradiciones y leyendas, además de lugar de peregrinaje para los pueblos limítrofes, de Alava. Su primitivo nombre de Santa Ylia (Santa Julia), que entre los euskaldunes se ha empleado Sandailia, se ha transformado en San Elías.

Las primeras noticias aparecen en antiguos cantares relacionados con un robo en el túnel de San Adrián; según J. C. de Guerra, suceso ocurrido entre los años de 1388 y 1401. Dichos cantares nos han llegado fragmentados y han merecido numerosos estudios, entre los que destaca la versión de L. Michelena en las páginas 92-97 de la obra «Textos arcaicos vascos».

En las leyendas recogidas por V. Gandiaga, a San Elías se le atribuye oriundez de Narbaja. También se cuentan costumbres relacionadas con ritos de fertilidad, tanto para los campos labrados como para personas estériles. Pues todavía hoy, hay quienes van con ilusión de concebir, mojándose en las aguas de una bañera de piedra que se nutre de lo que mana de un orificio natural de la roca. También lo recoge J. M. de Barandiarán en sus «Obras completas».

No cabe duda de que San Elías es un centro con antiquísimas creencias y, como tal, se merece los mayores respetos.

1979-III-19.

II

**HISTORIAZ**  
**Sobre Historia**

## IRUN-OIARTZUN ETA ERROMATARREN AZTARNATEGIAK

Erromatar geografoek «ouáskones» (vascones) deituaz ezagutu ginduzten eta gure herriaz zenbait berri eman zituzten. Baina kosta izan zaigu testu haietan aipatzen diren tokiak ziurtasunez ulertzea. Hontaz ahaleginik aski egin zuten A. Schulten eta A. García Bellido-k, beste zenbaiten artean. Strabon-en Oiason, Mela-ren Oeason eta Plinio-ren Oiarso, dudarik gabe gure egunotako Oiartzun zen, baina aipatzen zuten portua ordea, askoren ustez, Pasaia izan zitaikean, Errenderia bera Oiartzunen portutzat historian ezagutu denez.

Erromatar haiek Oiartzungo Arditurriko meatokietatik galena, burdina-karbonatoak eta blenda mea hartzen zuten itsasoz eramateko. J. G. Thalacker injeniariak estudiatu zuenez, 600 gizonen 200 urteko lana behar omen zen zehar-zulo guzi haiek idekitzeko. Behar bada ezta hainbeste izanen; baina, dena dela, lan handiak egin zituzten meatoki honetan eta hortarako beharrezko zen jendetzaren adibidea ematen digu.

Gaur ordea, Irun eta inguruetan aurkitu diren erromatar aztarnak eta Bidasoa ibai izenaren sustraia *vida-oiasoa* dela usterik, mea eramateko erabiltzen zuten portua hemen izango zela uste dugu. Gainera, garai hartan Euskal-Herriko hiri izenen artean ditugu Irun kidekoak, Iruñe, Irunberri eta Okako Iruña adibidez.

Irungo lurretan bilatu dira Vitellio, Claudio I, Antonino Pío, eta Octavio Augusto enperadoreenez gainera Faustina gaztearen brontzezko monedak, Errenderian aspaldi agertu zen brontzezko idolotxo bat, Oiartzungo Andrearriagan San Telmo Museoa gordetzen den harria eta abar. Agiri hoiek eta toki izenok erakusten ziguten lur hauetan erromatarren egotaldia aski luzea zela eta Oiartzun eskualde bera oso zabala izango zela.

Erromatar aztarnok indartzera etorri ziren Tomas Hernandorenak 1961ean Bidasoako lasahoa itsasora idekitzen den une batean, Asturiaga deritzan tokian, garai hartako lurrontziak bilatu zituenetik. Ondoko urteetan, jaun berak eta Jaime Rodríguez Salis-ek jarraitu zuten gauza gehiago bilatuz. Azkenik, J. Rodríguez Salis-ek Irungo hiri barnean bertan erromatarren azternategiak, Junkalgo elizaren inguruetan, «terra

sigillata» deritzan zeramika ontzi polit batzuk ere tarte direlarik. Aztarna hoiek erakusten digutenez Irun bera erromatar hiri zahar baten gainean eraikia da.

Harrezkero, inguru hoietan egin diren azterketa, lurketa eta etxe zaharren lurraketaz adi ibili direnez, Ama Xantalen (Santa Elena) ermita berritzean, 1971. urtean, hobiak aurkitu ziren. Ermitaren zoluean erromatar nekropolis tipi bat, eta bertan 106 baxera ontzi gorputz hautsa gordetzekoak Kristoren ondotiko 50 urtetik 150-era bitartekoak dira, Inazio Barandiaranek dionez. Ikus egile honen *Guipúzcoa en la Edad Antigua* (1973) liburua.

Bertako azternategietan hiru kanpaina egin dira: aintzinako hiria-  
ren aztarnak bilatzetik, erromatar hilerria eta beraien elizaren zimentuak Ama Xantalen kristau ermitaren barnean. Gainera, ermita hau XVI. mendean eraikia izanarren, bere oinarrietan Erdi-aro garaiko baten arrastoak aurkitu dira.

Lapurdurum-en (Lapurdi) muga, «Ouaskones» (vascones) eskualdean, Nafarroako erresumak itsasorako irtera izango zuen Bidasoako lurretan kokatu ziren erromatarren aztarna hauek garrantzi handikoak dira, Gipuzkoarentzat ez ezik Euskal-Herri guziarentzat ere. Arrantzas, ihizaz eta artzaintzaz biziko zen herrian, mea eta merkatalgoa idekitze hastapenak izanen bai ziren.

Horrez gainera, Irungo herriarentzat ohitura zaharren gordetzaila izan da Ama Xantalen ermita bera, Luis de Uranzuk bere lanetan adierazia duen bezala. L. P. Peña Santiagoren «Las ermitas de Guipúzcoa» lanean ere gauza bera ikus genezake.

Orain, irundarrek museo bat jarri nahi dute Ama Xantalen ermita barnean, bertan eta inguruetan bilatu diren materialak ikus ahal izateko. Asmo bikaina iduritzen zaigu eta ahalegin hoietan lagundu nahi genuke.

OHARRA: 1981-eko urtearen bukaeran ideki zen Ama Xantalen ermitan museoa, bertan aurkitutako materialik eredu-garrienak aurkeztuz.

### **Irún-Oyarzun y los yacimientos romanos**

Oiason, Oiarso u Olarso, citados por geógrafos romanos, correspondía bastante bien al actual Oyarzun, municipio al que antiguamente pertenecía Rentería. Tal vez por esto, se situaba al fondeadero de los romanos en Pasajes. Pero, sin embargo, Bidasoa se podía interpretar como *via oiasoa*, y que hoy recobra su razón de ser

con los últimos descubrimientos arqueológicos y por la concordancia de Irún con Iruñe (Pamplona), Irunberri (Lumbier) e Iruña de Oca, como nombres eúskaros de poblados romanos.

La antigua Oiarso u Oíason, hoy se puede interpretar como un territorio bastante extenso, limitado al NE. con Lapurdurum, cuyo principal centro ubicaba en las minas de Arditurri, que los romanos explotaban en Oyarzun, y la ciudad de Irún en el estuario del Bidasoa.

Numerosas monedas de bronce halladas en el término de Irún, la estatuilla de bronce de Rentería, el epígrafe de Andrearriaga, etc., daban testimonio de la presencia romana. Y recobró una atención especialísima desde el descubrimiento del conjunto de materiales encontrados en el paraje de Asturiaga, en la desembocadura del Bidasoa, a partir de 1961, por Tomás Hernandorena al principio, y, últimamente, por Hernandorena y J. Rodríguez Salís. Materiales arqueológicos romanos, fundamentalmente vasijas de cerámica. En 1969, Jaime Rodríguez Salís, descubría, en pleno centro urbano de Irún un depósito arqueológico. Una minuciosa excavación en la plaza del Juncal dio como resultado una excelente muestra de cerámicas de terra sigillata, testimoniando un importante núcleo de población. Finalmente, al iniciar las obras de restauración de la ermita de Santa Elena, en 1971, se descubrió la pequeña necrópolis romana en el interior del templo, donde se han llegado a localizar 106 urnas de incineración, de cerámica y vidrio. Pertenecen a un período de tiempo que no iría más allá del año 50 d. de C. ni acaso sobrepasa los 150 d. de C., según Ignacio Barandiarán.

Las tres campañas de excavaciones realizadas, dieron como resultado el descubrimiento de: restos de un antiguo poblado, una necrópolis indígena de época romana y la cimentación de un templo romano dentro de un templo cristiano de la alta Edad Media, que ha sufrido sucesivas edificaciones hasta la actual ermita del siglo XVI.

Hoy, con muy buen criterio, se quiere montar un museo *in situ* para exponer los materiales descubiertos en Irún y Fuenterrabía.

1979-VII-9.

NOTA: Para final de 1981 se montó el Museo de Santa Elena, donde se muestran las excavaciones y el material más representativo de los hallazgos.

## ITSASOAREN AURREZ-AURRE

Itsas gaiak ez dira maizegi erabiliak euskal literaturan eta euskal ikerketan, eta bada hor gauza jakingarririk. Hortaz azaldu berria dugu elkarlanean egindako «Itxaskaria» deritzan liburua, euskaldunak itsasoaren aurrez-aurre izan duten jarreraren adierazgarri.

«Itxaskaria» ezta ez izen txukuna, baina bai liburu mamitsua. Bertako partaideen arteko ditugu J. Altuna, J. M. Barandiaran, J. M. Busca Isusi, J. Caro Baroja eta M. Pelay Orozco, zein baino zeinek testu hobek, eta hoienez itzultzaile izan dira Txillardegi eta Amuriza. Beraz, bi hizkuntzetan dator liburu hau. Idazlanean gainera, edergarri oparotsu eskainia da. Sigfrido Koch-ek eman dio hain ikusgarria izatearen balioa. Bertako fotografia bakoitzari edermina dario, baina ederraren sentipenez gainera gogoetarako grina piztekoak dira. Argazkien testuak ordea, olerki kutsua nabari dutela, M. Ortiz de Arratiarenak dira.

Liburu zoragarri hau Petronor-ek argitaratu du bere 10. urtebuaren ospagarri. Hil honen 16an aurkeztua izan zen Bilbon. Entrepresak, salgai jarriko diren 500 aleren irabazpena Euskaltzaindiarentzat eta Muskiz eta Abanto-Zierbanako ikastolentzat eskaini du; hau delata, aurkezpen egunean Villasante euskaltzainburuak ongi agertu zuen bezala, guk ere gauza bera ezan genezake, entrepresen urte-mugak ospatzeko hobe dela holako kultur bidetik zerbait eskainiz betetzea, jan-edan eta keak atezaz bakarrik ospatzeke.

Euskaldunak itsasoaren aurrean zer nolako grinak izan dituen, janari bila, urruti minez, merkatalgo harremanez, ohore nahiaz, zori ezzagunegatik, itsas-hegalean bizitzeak berak sortu zion urez gaindiko abenturaren kezka. Eta, ekintzarik handienak idatzi gabe utzi zituen, Elkanok bezala adibidez. Orain, honegatik, historiagileen lana da lehenan ikerketan eginaz iragana hobeto ezagutzea. Lehenak erakutsiko bai digu gerorako bidea, eta era berean oraingo euskaldunaren ezagutza hobea.

Liburuak jasotzen dituen lanetan, ikuspegi askotako emaitzak daude. Izan ere, arestian esan bezala, joera askotakoak izan dira itsas-gizonaren jarrerak, beharrak bultzaturik edo gogoak eraginik. Eta orotariko arrazoiak agertzen dira liburu horretan. Behar bada, lanik andiena eta baliotsuena, argibide eta agiri berriak ere emanez, Julio Caro Barojarena izanen da. Hala ere, ber-berak liburuaren aurkezpenean aitortu zuen bezala, euskaldunen itsasoko historiak, oraindik ere sekretu asko gordetzen dizkigu eta gure herri honen historiak eta kulturaz arduratzen garen guzior lana dela bakoitzak bere aldetik azterketak eta gehigarriak eskaintzea. Esaldi hau hitzetik hortzera hartuz, artikulu honetan, argitara





*Hondarribiako sigilua 1297. urtekoa. Sello de Fuenterrabia del año 1297.*

berri den liburu eder honen adierazpen zehatza edo laudorioak baino nahiago dut bertan jasotzen ez diren gauzetaz zenbait ohar egitea, liburuaren asmoen lagungarri.

J. Caro Barojak aipatzen du gure itsas-bazterrez aintzinako geografoak ziotena, baina haietarik agiri zitura eskaini ziguna Strabon izan zen, Geografiaren Iberia partean (III.liburua, 3,8), lehen lehenago Kantabria aldeko itsasoetan, Galizia aldetik hasi eta euskaldunetara, larruzko txalupak erabiltzen zituztela, baina bere garairako zuhaitz gerriak hus-

tuz eginak ezagutzen zirela. A. Garcia y Bellido-ren argibideekin datorren edizioak hala dakar (Buenos Aires, 1945).

Bestalde, Caro Baroja, bibliografiaz hain hornitua izanarren ere, lehenago M. Ciriquiain-Gaiztarro-ren lanetan ikusten genuen hutsunetxo ber-bera nabari du. Karmelo Etxegaraik gai hontaz euskaraz eman zuen lan bateko berri jakingarriak falta dira. Baina hau ezta batere harrigarri. A. Arrinda beraren «Euskalerrria eta arrantza» euskarazko lan bikainean hutsune nabarmen hau agertzen delarik. Etxegaraik, 1921-ean. «Euskalerrriko itsas-gizonak» zeritzan hitzaldi bat eman zuen, geroago, 1923an Euskal-Esnaleako «Itzaldiak» sailean 147-184 orrialdeetan argitaratua eta bere laburtasunean ere gure historiarako ageri eta berri jakingarriak ematen ditu.

Adibidez, 167. orrialdean, XIII eta XIV. mendeetan ezagutu zuen salerosketari buruzkoa, 166. orrialdean Ternua (Terranova) aldeko berriak eta sortu ziren euskarazko toki izenen zerrenda, «Itxaskaria»-ko 146. orrialdean datorren maparekin konparagarria dena. Baina, oraindik jakingarriago dena, zera da, garai haietako itsasontzien mugimendua numeroz ematea. Esate baterako, 1625.urtean Pasaiatik bale arrantzara irten zirenak 41 ontzi, 288 txalupakin eta 1.475 gizon.

Horrek erakusten digu bale-arrantzaren garrantzia eta hortarako zuten indar neurria.

Euskal-Herriko semeek itsas-nabegazioz idatzi zituzten zenbait libururen berri ere ematen digu Caro Barojak, eta hoiéi gehitu beharrezko iduritzen zaigu 1677. urtean P. Etxeberrik euskaraz eman zuena, lehen Martin Hoiarزابalek frantsesez idatzia.

Juliok liburu horren 240. orrialdean agertzen digun bezala, Felipe II.aren garaian hasi zen itsasaldeko ekintzen beherakada, Gortetik bertatik jartzen zituzten eragozpenetatik hasita eta «Armada Invencible» hura izan zen azkenengo erremata. Honek hipotekatu zituen gure ondasunak eta geroztik ezta iritxi lehengo mailarik.

## Frente al mar

El vasco frente al mar, es la temática general del libro monumental que acaba de aparecer bajo el título «Itxaskaria», con textos de J. Altuna, J. M. Barandiaran, J. M. Busca Isusi, J. Caro Baroja y M. Pelay Orozco, con versiones euskéricas de los mismos debido a J. L. Alvarez Emparanza «Txillardegi» y X. Amuriza. Obra profusamente ilustrada con artísticas fotografías de Sigfrido Koch y poéticos pies de fotos por M. Ortiz de Arratia.

Este magnífico libro, en el que no se han escatimado ni presentación ni contenido, ha sido editado por Petronor al conmemorar el décimo aniversario de su fundación. Ojalá otras empresas sigan la misma pauta en contribución de los conocimientos culturales del país.

El trabajo más denso y el que más información histórica aporta y que no tiene desperdicio alguno, es el suscrito por Julio Caro Baroja, que con rigor ha sabido reunir materiales de diversas fuentes hasta hoy desperdigadas y hasta desconocidas para el mundo cultural vasco.

En la presentación de la obra, que tuvo lugar el pasado día 16, el propio Caro Baroja insistió sobre la necesidad de aportaciones en esta materia para el mayor conocimiento de nuestra historia, puesto que los hechos marinos han sido demasiado importantes en el transcurso de la historia para que no se les preste la debida atención. Por esta razón, al reseñar este libro, me tomo la licencia para recordar algunas noticias y referencias bibliográficas, que a mi entender no se han tenido en cuenta en los principales tratados sobre el tema. La cita de Estrabón comentada por A. García y Bellido, que menciona los bajeles hechos de un tronco de árbol que venían usando en la costa



*Frente al mar en un atardecer de Erromadie (San Juan de Luz).*

cantábrica, vascos inclusive; el tratado de navegación publicado en vascuence en el año de 1677; y, sobre todo, una conferencia en euskara del erudito Carmelo de Echegaray en 1921 (publicada en «Itzaldiak» de Euskal-Esnalea, en 1923), que aporta algunas informaciones que no han sido recogidas en las principales obras dedicadas a la pesca en particular y a la mar en general.

Esa mar que se presta para diversas formas de vida y a la que los vascos han sabido responder en cada circunstancia de una manera muy particular. Porque en la costa vasca se han producido marinos de muy diverso talante, desde los pescadores, comerciantes, exploradores, cosmógrafos, constructores y guerreros hasta los corsarios. La aventura marina ha dado todo tipo de personajes, y en el libro se da cuenta de ello.

Desde el siglo XIII hasta finales del XVI, la marinería vasca conoció su prosperidad ascendente. La decadencia vino desde finales del reinado de Felipe II. Que desde la Corte se dictan normas que iban en contra de los criterios de los armadores más experimentados. Se culpa a la inflexibilidad burocrática. Desde esas fechas, Inglaterra y Holanda van progresando. Y la verdadera hecatombe vino con la construcción de la llamada «Armada Invencible», que dejó hipotecados los puertos vascos.

En la obra se perfilan lecciones que pueden ser aprovechables en los momentos tan difíciles que hoy se están viviendo. Y, no hay duda de que en lo sucesivo todo historiador deberá considerar.

1979-III-26.

## MEDIKUNTZA EUSKAL HERRIAN (I)

Pozarren irakurri dut Luis S. Granjel-ek Euskal Herriko medikuei eskaini dien liburuxka, *Introducción al estudio histórico de la Medicina vasca* deritzana (Salamanca, 1979). Medikuntza ikerketaren hutsune nabarmena agertzen zaigu bertan. 1940-1975 urteetan Espainian medikuntzaren lehenaz argitaratuak diren 864 estudioetatik 34 lan soilik Euskal Herriko; Ehunetik laukoa ere ez.

Une berean eskuratu nuen *Jakin-en* azken zenbakia, 12garrena, 1979ko urritik abendurakoa betetzen duena, izenburuak bere gai monografikoa adierazten duela, *Medikuntza Euskadin*, egungo egoerari buruzko

lan bilduma bat eskaintzen duena. Egile askoren lanak dakarzki. Guztia euskaraz gainera. Biba zuek! Medikuntzazko parte nagusi honek 112 orrialde osatzen ditu. Lan bakoitzak, azkenean, gaztelera eta frantseseko laburpenak daroaz. Zenbakiaren gainerakoa, bestelako zenbait berriren sailez.

*Jakin*-ekoek, medikuntzaz, batera batera eman diguten jauziaz edonorrek esango luke euskaldunok luma hartzeko ez garaela hain alperrak; baina, zoritxarrez, ezta egia. Idazte kontuan, naiz euskaraz edo naiz erdaraz, S. Granjel-ek adierazten duena da egia. Idazte kontuan, atzean ibili gara eta gabiltz. Honegatik, iker lanetan arlo handiak ditugu betetzeko.

Unibertsitateak urruti izatearen kontuak dira hoiak. Irakasleak ere urrutikoak eta tesi gaiak bideratzeko orduan ere gure historiarik eza gutzen etzutenak. Arrazoi osoa du S. Granjel-ek Medikuntzaren Historia Mintegi baten beharra adieraztean. Usandizaga eta Barriolak egin dituzten iker lanak goraiatzen ditu eta langintza hauetarako plangintza markatzen digu. Laburki bederen, sarrera gisa, bere lantxo honek asko balio du eta aurrerantzean Euskal Herriko medikuek kontuan hartu beharko dute *Introducción al estudio histórico de la medicina vasca* (Salamanca, 1979) deritzan hau.

Luis S. Granjel-entzat, Juan Huarte Donibane Garazikoari, Medikuntzaz, ez dio aurkitzen gure herriarekingo loturarik. Nere ustez, loturarik asko ez bazuen ere, bana-banako erraldoi horietako genuen Huarte Donibanekoa, mendeak zehar entzute handiaren jabe egingo zena, baina horrek ez du ukatzen garai berean hemen bertan beste ezer ez zenik. Dena dela, Granjel-ek historiagile, etnologo eta gainerakoek lan guntza ezkatzen du hemengo Medikuntza mendeak zehar ikertu eta ezagutu ditzagun. Honek bideratzen nau zenbait ohar osatzera.

Juan Huarte Donibanekoak, egia esan, Izpirtuzko ikerketa burutzen duen *Examen de ingenios para las ciencias* (1575ean argitaratua) deritzan liburuan ez du gure herriarekingo adibiderik ematen. Gaiak berak ere ez du holakorik eskatzen. Baina, Alcalá de Henares-en estudiatu eta Baeza-n urte askoan mediku izan zen hau, bera bizi zelarik, bigarren aldiko argitalpena Iruñean izan zuen 1578an eta hirugarrena Bilbon 1580an. Bere herrianganako maitasunak eraginik egin zuen ala ez egiztatuko duen ageririk ez dugu. Baina argitalpen hoiarren arrazoiak bi eratakoak izan daitezke: bere obra interesatu zitzaizen mediku andana bat izatea edo Inkisizioakin izan zituen eragozpenentzat hemengo foruen babesa lagungarri izatea. Dena dela, honen zergaitikakoa jakiteko agiriak falta zaizkigu.

Huartek bere garaikoa zuen Esteban Félix Zabala gernikarra, Kar-

los V.aren eta Felipe II.aren medikua, Alcalá de Henares-en irakasle zena eta behar bada Huarte bere ikasleen arteko izango zuena. L. Al-tube Albiz-ek *Ensayo histórico y apuntes para la historia de la Villa de Guernica* (Gernika, 1913) deritzan lanaren 65. orrialdean eman zuen bere berri.

E. F. Zabala medikuak, 1569an, hilburukotzat Alcalá de Henares-ko Unibertsitateari utzi nahi zion legadutza, azkenerako Oñatikora etorri zen. Bertako 28. aginduak medikuntzako doktor maila hartzeko baldintzak jartzen zituen.

Oñatiko Unibertsitatean, 1579an egin zen txosten batetik dakigu-nez, Medikuntzako doktor tituluak ematen ziren. Eta bertako edo bertarututako batzuen izenak ematen dira: Bergara eta Erro deiturazkoak Arrasaten, Olarte eta Bidain Gasteizen, Monasterio Bergaran eta Alegria Oñatin bertan. Hala dakar Jose A. Lizarralde *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate* (Tolosa, 1930) deritzan obran.

Ikerketa hoietarako gogoan izan behar ditugu Iratxeko Unibertsitate eta Iruñako Colegio de Medicina y Cirugía de Navarra. Hauen iturriak ikus Pérez Goyenaren *Ensayo de Bibliografía Navarra* bere II.-to-moaren 118-121 orrialdeak eta VI.aren 666-668.ak.

Ikerketa hoietarako gogoan izan behar ditugu Iratxeko Unibertsitateetako artxiboak eta J. Bilbaoren *Eusko-Bibliographia*.

Azkenik, bi gauza berezi aipatuaz bukatuko ditut gaurko oharrak. Batetik aipagarria deritzat Iruñeko inkunablea, Brocar inprimatzaileak 1495ean argitara eman zuen *Epilogo en Medicina y Cirugía*, jakintza honen hedakunde eta indarra adierazten diguna. Eta bidenabar aipa dezadan euskaraz Huarte Donibaneakoari buruz *Huarte, hator etxerat* (1975ean lehen argitalpenaren laugarren mendeurrena betetzear) liburu idatzi zuen J. B. Etxarren-Lohigorri jauna iragan abenduko hilean Euskaltzaindiak bere urgazle izendatu duena.

## La Medicina en el País Vasco (I)

He leído con deleite el opúsculo del programa de trabajo que el Dr. Luis S. Granjel ofrece a los médicos vascos, bajo el título *Introducción al estudio histórico de la Medicina vasca* (Salamanca, 1979). De él se desprende la asombrosa laguna en investigación médica que existe en el país. Del total de 864 estudios sobre el pasado médico español peninsular e insular, editados entre 1940 y 1975, solamente 34 trabajos (el 3,93 %) tienen por tema la medicina de las que se vienen denominando provincias vascas y Navarra.

Por las mismas fechas recibí una publicación que puedo considerar alentadora, si, de algún modo y a otros niveles, tuviera continuidad. Se trata del número monográfico de la publicación en euskara *Jakin* (n.º 12 de 1979), dedicada a la medicina en el país vasco, con valiosas aportaciones de diversas materias sobre la especialidad. Se trata de trabajos actuales, escritos en vascuence y con resúmenes de cada trabajo en castellano y francés. De algún modo viene a compensar la ausencia de estudios históricos sobre la medicina en nuestro país, que tan acuosadamente refleja la interesante ponencia de Luis S. Granjel.

Lo más importante de las proposiciones de S. Granjel, es el plan para la creación del Seminario de Historia de la Medicina. Pondera las recientes aportaciones de los doctores Usandizaga y Barriola, reconoce la falta de más trabajos por la ausencia de una Universidad institucionalizada y orienta su plan hacia lo que debería cubrir la nueva Universidad.

Considera a Juan Huarte de San Juan como a un personaje aislado totalmente de nuestro país. Sin embargo basándome en su invitación a historiadores, etnólogos, etc., para que puedan aportar el material que en estos casos requiere un corpus general, me atreveré a señalar otros puntos donde tendrían que indagar los interesados en la especialidad.

La lectura de *Examen de ingenios para las ciencias* no nos aporta ninguna conexión de Huarte de San Juan con su país, ni la obra se presta a ello. No obstante, hemos de recordar que la segunda edición tuvo lugar en Pamplona, cabeza de reino de la patria de Huarte de San Juan, en el año de 1578, y la tercera en Bilbao, en 1580.

Que la imprenta vasca se interesara en estas reimpressiones, puede deberse a dos razones: que existiera un núcleo importante de médicos a quienes interesa su obra, o por problemas que tuvo que salvar ante la Inquisición, que no podía actuar de la misma forma que en otras regiones, por las posibles ventajas de protección que le ofrecen los fueros. Confieso que nos faltan elementos de juicio. He aquí la labor del investigador.

Contemporáneo de Huarte de San Juan fue el guerniqués Esteban Félix de Zabala, médico del emperador Carlos V y de Felipe II, colegial (entiéndase profesor) de la Universidad de Alcalá. Sus datos figuran en la página 65 del *Ensayo histórico de Guernica*, de L. Altube Albiz (Guernica, 1913), quien deseó hacer, en 1569, un legado que en primera instancia quiso para esta Universidad y que, al final, fue a parar a la de Oñate. En la cláusula 28 del legado señala las disposiciones para graduarse como doctor en medicina. Por la época, pudo ser profesor de Huarte de San Juan en Alcalá de Henares.

A través de un informe del año 1579, se sabe que en la Univer-

sidad de Oñate se cursaba Medicina. Había doctores médicos graduados en la misma o incorporados a ella, entre los que figuraban los doctores Vergara y Erro en Mondragón, Olarte y Bidain en Vitoria, Monasterio en Vergara y Alegría en el propio Oñate, según consta en la página 172 de la obra *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate* (Tolosa, 1930) del R. P. José Adriano Lizarralde.

Para estos estudios, son también de tener en cuenta la Universidad de Irache y el Colegio de Medicina de Navarra. Sus fuentes las hallaremos a través del *Ensayo de bibliografía navarra* de Pérez Goyena, tomo II, pág. 118-121 y tomo VI, pág. 666-668, respectivamente. A la hora de investigar en este campo, tampoco debemos olvidar los archivos de las aludidas Universidades ni la *Bibliographia* de J. Bilbao.

Por último, considero digno de mención el incunable navarro *Epílogo en Medicina y Cirugía*, impreso en Pamplona por Brocar en 1496, y al mismo tiempo citar la obra en euskara sobre Huarte de San Juan, *Huarte, hator etxerat* de su paisano J. B. Etxarren (Oñate, 1975), autor que recientemente ha sido nombrado miembro correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca<sup>1</sup>.

1980-I-21.

1. J. B. Etxarren vuelve a tratar el tema, con correcciones y ampliaciones en la revista *Egan* (1978-1979) bajo el título «Juan de Huarte, haugi etxerat...», pp. 165-272.

## MEDIKUNTZA EUSKAL HERRIAN (II)

Aurrekoan, Huarte Donibane Garazikoak Euskal Herriko medikuntzaz ezer ikustekorik izango zuenaz aritu ginen, bere *Examen de ingenios para las ciencias*-en bigarren eta hirugarren argitalpenak hemen izan zirelako eta bere garaiko Esteban Felix Zabala, gernikarra, erregeen mediku eta Alcalá de Henares-en irakasle zenez.

Gaurko artikulu hontan gai berari jarraituz XVI. mendearen azken parteko eta XVII.aren lehenaz zerbait gehitu nahi nuke.

Bitartean, Jose Luis Goti adiskideagandik berri on bat izan dut. Leioako Unibertsitatean Mintegi bat ireki dute eta honen egitaraua adierazi dit. Guzia aurrera eramaten baldin badute, eta hala espero dut, historian zehar gure Medikuntza zer izan denaren argi iturri seguruagoak izango ditugu.



Lope Martínez de Isastik 1625. urtean *Compendio Historial de Guipúzcoa* idatzi zuenean, 17 medikuren berri ematen du, gainerakoan sasimediku edo enplasterorik bazela aditzera emanaz. Ikus liburuaren 623. orrialdean Medikuntzaren alabantzak.

Isastiren obra hau ez zen argitaratu 1850. urtera arte. 630 eta 631. orrialdeetan dakar beren berri. Hor irakurriko ditugu, besteak beste, Irure soraluzearra. Eskoriatza leintzarra, Galbete zegamarra, Elizalde tolosarra eta Agirre azpeitiarra Karlos enperadorearen ganbarako medikuak zirela. Baina, puntu hontaz, irakurtzekoak dira Fr. Jose Inazio Lasa adiskidearen *Tejiendo Historia* deritzan liburuaren 148-154. orrialdeak.

Bertatik ikus genezake Gipuzkoako Batzar Nagusiari 1524an probintziako medikuak zer eskari egin zioten. Bertatik aditzen duguna hau da: soldatadunak eta soldatarik gabeak zeudela eta Isastik lehenengoak baizik ez zituela izan gogoan.

Edonola ere, gaur gaurkoz, medikuntzari buruz, ez dugu aski ageri Hipókrates-en zientziak zer indar edo zabalkunde zuen jakiteko. Ikusi besterik ez dugu Fausto Arozenak *Diccionario biográfico vasco* (Vol. I Guipúzcoa) liburuaren 212 orrialdetik, medikuak zein urri aurkitzen diren gainerako ofizioen ondoan. Hastapenetan den Mintegiak erantzun beharko du, inork erantzutekotan. Izango du non eta zer ikertu.

Hamazazpigarren mendearen lehen partean, probintziako Batzar Nagusiaren aginduen artean azaltzen zaigu, botikak ikustea. Gai hontaz Luis Murugarrenek lan eder bat agertu zuen «Algo sobre las boticas donostiarras del siglo XVII» izenburuz *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (8 zenb.) bere 231-252 orrialdeetan. Hematen dituen berriak mende horren hasierakoak dira eta botikak hain hedatuak eta hornituak zeudela jakiteak, tarteka botikarioak ez ezik zenbait mediku ere aipatzen dituelarik, aurreko mendetik zetorrenaren ikuspegi ederra eskaintzen digu.

*Boletín* horren zenbaki bereko beste lan batean, 293. orrialdean, mediku ospetsuaz gainera Errenderian apez zen Joan Arizmendiren zenbait berri dakar. Hau berau da Lope M. de Isastik bere liburuan aipatzen duenetako bat «fue colegial en Alcalá» esanaz, eta Franzisko Elizalde tolosarragatik «catedrático de vísperas de medicina en Alcalá» dio. Hau hola delarik eta E. F. Zabala gernikarra, bere ondasunak Alcalá-rako edo Oñatirako eskaini zituena. Hobeto esan, aurreko artikuluan agertu genuen bezala, lehenik Alcalá-rako utzi nahi zuen hilburukoa, azkenerako, Oñatiko Unibertsitatetera etorri zen, medikuntza irakaskintzarako ere baldintzak jarriaz.

Isastik, Zegamako jatorrizko Franzisko Galbete medikua aipatzean,

«Está componiendo en Madrid un libro grande de su arte» dio. Zer dakigu hortaz? Non ote dira bere lanok? Gure iker lanak badute nondik hasi. Bai horixe.

## La Medicina en el País Vasco (II)

En el artículo anterior, para estudiar el entorno de la medicina vasca en la época de Juan Huarte de San Juan y la posible conexión de éste con sus colegas del país, hice alusión a la segunda y tercera edición de *Examen de ingenios para las ciencias*, en Pamplona (1578) y en Bilbao (1580), además de la probabilidad de impartir las clases del guerniqués Zabala en Alcalá de Henares. En el presente, quiero añadir algunos datos más de médicos contemporáneos que también cursaron sus estudios en Alcalá, y alcanzaron renombre.

Al mismo tiempo he de manifestar mi alegría por la noticia que me llega del amigo Dr. Goti, quien me comunica el inicio de un Seminario de Historia de la Medicina Vasca en la Universidad del País Vasco. Justo lo que él deseaba y requería Luis S. Granjel en su ponencia. Además, con la noticia, me acompaña un programa de trabajo con un temario ambicioso que, puesto en práctica, nos ha de deparar muchísima luz sobre la materia.

En 1625 escribía Isasti que, por más averiguaciones que hizo, sólo halló 17 médicos en toda Guipúzcoa. La gente acostumbraba a curarse con hierbas y medicinas caseras, y abundaban los curanderos y embaucadores, tales como los «saludadores». Pero esto no debe tomarse al pie de la letra, como bien nos advierte nuestro entrañable amigo Fr. José Ignacio Lasa en su obra *Tejiendo Historia* (pág. 149), pues no debería haber escrito que no existían «médicos», sino «médicos asalariados», como nos viene a demostrar la petición hecha por los médicos guipuzcoanos a las Juntas Generales celebradas en San Sebastián del 9 al 20 de Abril de 1524.

De cualquier manera hemos de confesar que esta profesión no abundaba o, al menos, no se han recogido suficientes noticias sobre ella. Basta echar una ojeada a la clasificación de actividades en el *Diccionario biográfico vasco* (vol. I Guipúzcoa) de F. Arocena (pág. 212).

No obstante, en la obra *Compendio Historial de Guipúzcoa* de Isasti (pág. 630) encontraremos entre los médicos guipuzcoanos contemporáneos a Juan Huarte de San Juan que, como él, estudiaron en Alcalá, y alguno de ellos protomédico del emperador Carlos V, como el placentino Irure, y el tolosano Eleizalde que alcanzó la cátedra en di-



*Esculpió S. Orduna*

*Dibujó el 4.º Cia*

*Juan Huarte de San Juan. Dibujo de J. M.º Cia,  
basado en la escultura de S. Orduna.*

cha Universidad; y Galbete, oriundo de Cegama, del que dice estar «componiendo en Madrid un libro grande de su arte». ¿Qué se sabe hoy del mismo?

Otra vía de investigación puede ser, por ejemplo, la Farmacia, que de sus inventarios y recetas nos dio alguna luz Luis Murugarren en su trabajo «Algo sobre las boticas donostiarras del siglo XVII» en el *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (n.º 8), donde expone un sondeo referente a las inspecciones llevadas a cabo entre 1610 y 1648, por mandato de las Juntas Generales, de cuyas actas se puede ampliar la información.

Como observará el lector, hay todavía mucha materia para la investigación, en el campo de la medicina.

1980-III-17.

### MEDIKUNTZA EUSKAL HERRIAN (III)

Hamaseigarren mendearen lehen partetik, Pizkunde garaiazen eragina ezagutu zuen gure herriak. Nafarroak erregetza galdu bazuen ere, lehenagotik goraka zetorren itsasobidezko merkatalgoa. Amerika aurkitzeaz bizkorragotu zen eta mende oso batean, Bizkai-Gipuzkoak bereziki, inoiz ezagutu ez zuten ekonomi aberatsa ezagutzera heldu ziren. Ondasun horren ondorenez, Euskal Herriko semez ugarituko ziren Espainiako Unibertsitateak.

V. Beltrán de Heredia arabarrak argitaratu zuen *Bulario de la Universidad de Salamanca* (1966) deritzan obra aztertzeaz J. Ig. Telletxea Idigoras-ek atera zituen konklusioak hor daude. Hamairugarren mendetik hamaseigarrenaren lehen partera, Euskal Herriko semerik urri omen zen, estudianteen artean, baina hortik aurrera ugarituko ziren. Egile honen *Papeles viejos* (1968) deritzan liburuaren 175-188 orrialdeak irakurgarriak dira garai haietako egoeraz jabetzeko. Uste dugu, Salamanca-n gertatzen zen gauza bera gertatuko zela gainerako Unibertsitateetan ere. Hala ta guztiz ere, ba dirudi, XVI. mende osoan, euskaldunak, Medikuntza irakasteko, Alcalá-ra joera gehiago izan zutela. Aurreko bi artikuluetatik argi ikus daiteken gauza da.

Dena dela, gure historian azaltzen zaigun ekonomi gorabeherekin bateratsu doa goi mailako ikasketa, eta hamaseigarren mendea oso aberatsa izan genuen, ola-zaharren gorakadaz, merkatalgo eta gizon jakitunez.

Hamazazpigarren mendean aldatu ziren gauzak. Europako ifarraldeakin eta Amerikakin izan genuen merkataritzazko harreman estu eta aberats hura gainbeheraka etorri zen. Hemen bertako gizonak itsasontziak hobetzeko ahaleginetan arduratu ziren, baina errege eta inguru-koen aldetik ez zuten izan laguntzarik. Lehen lehenik axolarik ezak atzeratu zuen hemengo ekintza eta azkenik «Gran Armada Invencible» hura izan zen hondamendia. Hemengo itsasontzirik onenak, kaiñoiak-jarrita, Armada hartan joan bai ziren.

Pundu hau eztago ondoegi estudiatua. Hala ere, argibide batzuk ematen dizkigu J. Caro Barojak *Itxaskaria* (1978) liburuaren 250-257 orrialdeetan.

Gure herriak krisi aldi gogorrek ezagutu zituen mende hartan. Gure eliza eta etxeen arte aldetik ere hala ageri da. Ez dugu, beraz, gauza baliagarri askorik aurkituko. Euskal Herriko semeak Ameriketara irtingo dira, baina ez hainbeste Unibertsitateetan estudiatzera.

Geroago, hamazazpigarrenaren azken partetik, Real Compañía Guipuzcoana de Caracas sortzeaz, eta hamazortzigarrena zehar hemengo merkatalgoa berpiztuko zen aurpegi berri bat erakutsiko zигun gure ekonomiak.

Historia ikerketak bestelako argitasunik ematen ez digun artean ospedun medikuen hutsune handia aurkituko dugu Elizalde eta Galbete (biak Franzisko izenekoak) geroztik Etxeberri, Moguel, Oianarte, Lardizabal, Luzuriaga eta beste zenbait agertu arte.

Oñati, Iratxe, Montpellier eta beste toki batzuetako artxiboak aztertu beharra dago garai hoietan gai hontaz zerbait gehiago jakin nahi badugu.

Huarte-Etxenikek 1918an, Oñatiko Batzar haietan euskal estudianteeek Salamanca-n 1643an izan zuten auzi baten berri eman zuen, M. Barriolak ere *Los Amigos del País y la Medicina* (1963) deritzan liburuaren 21.orrialdean ematen du horren berri, ikergaitzat eskainiz.

Barriolaren lan hau oinarritzkoa da. Baina euskaltzale munduarekin zer ikusirik zuteneguz Mogeldarrak J. Garatek lehenago ikertu zituen eta J. Etxeberri Sarakoa J. Urkixok.

Mogeldarrak, lehen lehenik Nafarroatik Errioxara jo zuten eta hemendik Aragoira, medikuntzarekin zer ikusia izan zuen lehena, Andres Mogel, Alfaron sortua eta Ruesca-n «cirujano» agertzen zaigu eta bere seme Domingo, 1685-ean Ruesca-n mundura etorri zena Arabako Aguirainen mediku izan eta bertan ezkondu ondorean Markinara etorri zen. Honen semea, Markinan jaioa, Iratxen medikuntza estudiatua zen. Honek bere izen berdineko seme bat izan zuen, mediku egingo zena, eta Juan Antonio apeza *Peru Abarka*-ren egilea. Xehetasunak J. Gara-

tek ematen ditu *La época de P. Astarloa y J. A. Moguel* (1936) deritzan liburuaren 36-40 orrialdeetan.

Joanes Etxeberri Sarakoa ez dakigu noiz sortua zen, baina bai 1749an hil zela, Bera, Hondarribia eta Azkoitian mediku izan ondorean. Gainera, Agustin izeneko seme bat izan zuen, Mutrikun mediku izango zena. Joanes Euskaltzale zen, euskararen alde eta honen ikerketaz lan asko egin zuen; biziki maite zuen Axularren lana eta honen zabal-kundez ere ahalegindu zen. Bere esku-izkriburik gehienak Zarauzko frantziskotarretan zeuden argitaratzeke eta Julio Urkixok bildu eta argitaratu zituen *Obras Vascongadas del Doctor laboriano Joannes d'Etcheberri* (1907) izenburuz. Hitzaurre luze batean ematen du egilearen berri bere mediku ofizioa nondik nora bete zuen adieraziaz.

### La Medicina en el País Vasco (III)

Como consecuencia de una fuerte crisis comercial e industrial, en el siglo XVII nuestras provincias no gozaron del esplendor conocido a lo largo del XVI.

Las razones de esta crisis fueron varias. Desde el estancamiento tecnológico, sobre todo en la construcción naval, que repercutió directamente en la marina mercante, hasta la propia pérdida de la Gran Armada «Invencible» que se llevó los mejores navíos de nuestros puertos, a los que se dotó de cañones, y dejó hipotecados a los propios constructores.

A pesar del inmenso vacío existente de médicos de fama, desde Elizalde y Galbete hasta la generación de los ilustrados, creemos que aún queda mucho por investigar. Aquel comunicado de Huarte y Echenique al Congreso de Oñate en 1918, que ya recoge M. Barriola en su obra *Los Amigos del País y la Medicina*, el escaso resultado de las indagaciones sobre el *Bulario* del alavés V. Beltrán de Heredia, comentado en *Papeles viejos* por Tellechea Idígoras y el elocuente silencio que se denuncia en esta última obra, son un serio llamamiento a la investigación de nuestros hombres en relación con la Universidad en el pasado.

Sobre los Moguel y Etcheberri, sabemos algo por Justo Gárate y Julio Urquijo, dada la vinculación de los mismos con la euskarología, y los médicos de la Ilustración están muy bien recogidos en la mencionada obra de Barriola.

1980-III-24.

## AUTONOMI ESTATUTOEN AURREZ-AURRE

Gure historiaren bidegurutze batean aurkitzen gara, holakorik gutxitan gertatzen da eta hara hemen non agertzen garan Autonomi Estatuoen aurrez aurre.

Ametsak amets utzirik, sar gaitezen zentzu bidean, utopiaz baliatu gabe, aurrez aurre daukagunetik ahaleginduz.

Autonomia zer den, Batzar Nagusiak zer diren, historian zehar nola izan den eta une honetan zer bide jokatu behar genukean adierazteko orrialde asko behar nituzke eta gauza hauek liburuetan jasoak daudenez, gai hontarako ni baino hobeto gertaturik daudenak idatzirik, egungo problematikan Euskal Herria aurkitzen den egoeratik begiraturik osatua den liburu baten berri emango dut. Nere iritziz, gidaritza hoberik aurkituko ez dugun ustez. Liburu honek, «Euskadi y el Estatuto de Autonomía» du izenburutzat. Ezagutzea merezi du. Egileak: J. A. Ayesarán, J. M. Castells, J. Echano, I. Estornés Zubizarreta, Llorens, G. Monreal, Ohiarzabal, J. Oleaga, Ugalde.

Liburua, beraz, talde espezialista batek osatua da, bakoitzak bere arloa beteaz. Eta kontuan izan dezagun: Autonomi Estatuto baten baiezenak giro berriko politika bat eratzen lagunduko digu, ekonomia arazoak, hizkuntza eta kultura..., hain beharrezkoa zaigun normalizapenera eroateko. Hala deritzagu.

Laster hasiko da Kongresoko Batzorde Konstituzionalean euskal Estatutoa eztabaidatzen, 1978ko abenduaren 29an goikiro Parlamentarien Batzarrak Gernikan onartua. Denbora laburrean erabaki beharko da eta hau izango da euskal politikaren ekintza eta helburu nagusia ondoko hilabeteetan, eta beroni lotua geldituko ondoko urteetarako.

Honegatik, aipatzen dugun liburu hontan, besteak beste, euskal politika indarren sail garrantzitsu batek, erabakita ikusi nahi dituen zenbait galdera egiten ditu: Zer dira Euskadiko autonomia eskabideen oinarriak? Zer arazo sortzen digu Autonomiak? Zertzuk dira Estatutoak eta zer du ikustekorik preautonomiak E.K.N.-rekin? Gernikako Estatutoak zer neurritan bideratuko dute Nafarroaren problema, Ekonomi Akordioak, herriko hizkuntza eta kultura, orden publiko indarrak...?

«Euskadi y el Estatuto de Autonomía» deritzan liburu hontan, espezialisten talde batek, elkarlanean gertatu eta argitaratu du autonomi problematikak planteatzen duenari erantzunez. *Lehen parte* batean euskal politikaren agindu edo poderioen aurrea erakusten du —foruen garaiari— eta mende honetan Euskal Herriak bere nortasun politikoaren alde egin dituen ahaleginak, batez ere Estatutoen alde II. Errepublika

garaian; eta, ondorenez, gaur egungo egoeraren aurrez aurre jartzen gaitu, preautonomia eta E.K.N.-ak duen izateaz.

*Bigarren parte*a, oso osoan, Gernikako Estatutoa aztertuz eta agertuz egina da; zenbait kapitulutan adierazten du Euskal Herriko eskualdeen arazoa, Nafarroa barneratzea ere kontuan harturik; Euskadiko Gobernua eta Parlamentuaren arteko harreman eta konpetentziak, funtzionarioak gure etorkizuneko politikan; orden publikoaren arazo nagusia eta seguritateari eusteko euskal erakundeaz; bertako kulturaren normalizatzea. Eta, azkenik, Haziendaren oinarritzko problemak zertan diren (ohizko Ekonomi Akordioen arabera) eta autonomiaren beharra ekonomi erabakiak bideratzeko eta Euskadiko industria indarberritzeko.

Azken eraskinez, agiri juridiko eta politikoen testuak biltzen ditu, zeren hauek gabe ez baita autonomi planteamenduak ulertzerik: 1839 eta 1876ko legeak Nafarroako «Ley Paccionada» delakoa 1841ean emana; 1977ko maiatzean hartutako konpromisoa, preautonomia eta 1978ko urtarrilleko Parlamentari Batzarraren dekretuko testua, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko batzar Nagusiaren legezko testuak eta Nafar Foru Parlamentua, Gernikako Estatutoaren testua bi hizkuntzatan jarriarekin agiri sorta hau bukatzeko.

Bideak urraturik daude eta aukera hau jartzen zaigu aurrez aurre. Aprobetxatu dezagun. Erronkariko esaera zahar batek dion bezala: «Urak bidea enginen du».

Badakit gure herri jakintza ausarta dena eta Xenpelarrek esan zuela, arrazoirik ez dugula guti garalako. Baina, baita ere, ber berak esana da, gerra nahi duenari, tiro bat buruan berari. Gogorra baldin bada ere, gogorragoa da jakitea historian inoiz ez dugula gerrarik irabazi. Eta gure herria bere nortasunez salbatuko badugu, goazen behar den bidetik.

Bidegurutze honetan, gaur gaurkoz, Autonomi Estatutoarena dugu aukerakoena. Aukeratze hontan, etsaiak handi direla oharturik, joka dezagun zentzuz. Gure gizaldian oso nekez izanen bai dugu bi aldiz holako aukerarik. Aipatzen dudan liburu hontatik erraz ikus daiteke. Irakur, jakitun izan zaitean; merezi duta.

### **Ante el Estatuto de autonomía**

El lector será consciente de que en mis artículos procuro rehusar los temas políticos, pero ante la lectura del libro titulado «Euskadi y el Estatuto de Autonomía», editado recientemente por Erein, y dadas las circunstancias cruciales que atraviesa el momento político del país, me siento en la responsabilidad y en el deber de recomendarlo, porque



trata de los temas fundamentales que se han de debatir próximamente, y su repercusión puede durar años.

El libro está elaborado para sensibilizar la opinión pública en torno al Estatuto de Autonomía. La obra está llevada a cabo por un equipo de especialistas que, cada uno en su materia, trata de orientar en esta encrucijada para la construcción política, social y cultural del País Vasco en el contexto de la Europa industrializada a finales del siglo XX.

Para los autores del libro, es un hecho evidente el que el País Vasco es una realidad nacional muy deficiente, una realidad agobiada por problemas de integración, en una sociedad como la nuestra, peligrosamente desarticulada, los partidos y sindicatos vascos encuentran grandes obstáculos para desarrollarse, y reflejan en su bagaje de doctrina política y en su implantación social, la situación del país.

Con estas y otras premisas, los autores hacen un llamamiento para sacar adelante el Estatuto de Autonomía, considerándolo como un reto político.

En una primera parte, describe la historia de las distintas formas de las instituciones vascas; en la segunda, trata exclusivamente del Estatuto pactado en Guernica; y, finalmente, en una tercera parte, muestra un apéndice documental desde la foralidad hasta el proyecto del Estatuto actual.

No puedo decir que esté de acuerdo con el texto en su totalidad; pero tenemos ante nosotros una oportunidad de las que difícilmente se pueden repetir en la historia, y la hemos de aprovechar. Por el bien del país y la convivencia entre sus ciudadanos.

1979-V-28.

## **GERNIKAKO ESTATUTOA**

Ez dakit ze neurritaraino jabetzen den gure herria historiako une honetan Gernikako Estatutoak duen garrantziaz. Etorkizunera begira, gure nortasunen eskubideaz jabetzeko aukera dugu hauzitan. Erabakitzen denetik jarri beharko ditugu gure geure azpiegiturak eta hauek izanen dira herri nortasunaren eusle eta bultzatzaile. Gaur egun, gure indarrak oso aulak dira, baina Gernikako Estatutoaren bidez indartuak izanen dira. Badakigu, gabetik goizera, bat batean, estatutoarekin ere

ez ditugula erabakiko gure herriak dituen beharrak; baina, gaur gaurkoz, bide bakarra dugu. Ez dugu beste alternatibarik Estadu mailan negoziaketarako, eta hala ez dena utopia hutsean erortzen da.

Gernikako Estatutoaren garrantzi arabera, bere alde hainbeste alderdi edukitzean ere badugu, eta honek, beste gabe, demokrazia bidea markatzen digu. Estatuto hau aurrera eramateko harremanean sartuak diren alderdi politikoei hala erakusten digute.

Oraindik demokrazian zeharo sartuak ez bagara ere, bidean goaz. Lehengo ditaduratik irtetzeko, bi bide zeuden, bakezkoa eta hautsiaz edo etenaz lortzekoa. Bakoitza bere eraz, denak dira iraultzaile. Iraultza ez baita indarkeriz bakarrik egiten. Alderdirik gehienek, ongi edo gaizki, bake bidezko aldakuntza hautatu zuten. Eta, egungo errealtatean, hautapen honetatik ez dugu atzera jotzerik gure ahalegin guziak bide honetan agortu gabe.

Ez dugu inork esan beharrik demokraziak behetik gora behar duela, herritik gobernarietara, udaletatik erresumetara. Hauteskundeak ordea, alderantziz egin ziren, demokrazia zentzu beraren aurkako aburuz; baina, hala ere, hemen gaude demokraziarako bidegurutze honetan eta guziak bakoitzak bere aldetik amor eman beharra dugu. Aurrera irtetzeko, badakigu bide lardaskatuak jarri zaizkigu, baina har dezagun pazientziaz. Bidea, ibiliaz egiten bai da, eta borondate onez ibiliaz egin dezagun. Egunotan eztabaidatzen den Gernikako Estatutoa lortzen baldin badugu, denbora gure alde jarriko zaigu. Beraz, ez etsi. Etorkizuna gurekin izango dugu-ta.

Honegatik, gaur gaurkoz, bere akats guziekin ere har dezagun Estatutoa bide eta helburuak lortzeko aukerak idekiko ditugu. Estatutoak emanen digun eskubidez gure elkarte eta mintegiak indartuko ditugu eta hauen bidez gure kultura eta hizkuntza indartzea datorkigu, ekintzarako behar diren azpiegiturak osatuko ditugunez.

Batez ere, gure hizkuntzak arduratzen nau. Honen egoera oso larria baita, geroagorako itxaro ezinezkoa, eta azkar ibiltzen ez bagara laster da galdua.

Iragan maiatzaren 28an argitaratu nuen artikulu hartan, gai hau sakondu nahi zuenarentzat liburu ezaugarri baten aipamena eta gomendio egiten nuen, «Euskadi y el Estatuto de Autonomía» deritzana, aurtien bertan Erein editorialak argitaratua. Liburu hortan Lontxo Oiharzabal eta Arantza Ugaldek hizkuntzaz osatzen duten kapitulua, zer pentsatu asko eskaintzen duten hoietakoa da. Gure egungo egoera eta hezkuntza sailcan onartu berri den legearen aurrez aurre badugu langintzarik aski, hizkuntzaren etorkizunerako bide egokiak burutuko baditugu.

Hizkuntzarena, bere egoeratik eta gure ikusbidetik premiatsuenetakoa iduritzen zaigu. Badakigu hizkuntza ez dela guzia. Baina, hala ere, behin eta berriz esan dezagun gure herria bere hizkuntza jator gabe ez dela inor, bere nortasunetik garrantzitsuena mintzaira berezi hau duenez.

Euskaratik axola guti izan dutenek, amaika aldiz esan digute, euskara biziko bada etxean erakutsi behar dela. Gaur ordea, ez dago hau esaterik ere, etxeetan irratia eta telebistak direnez. Tresneria honen bidez Euskalerriko sukaldeetan erdara sartu zaigu eta behar beharrezkoa zaigu orain tresna hoiekin jabetzea, euskaldunen etxetara beren hizkuntza jatorra itzultzeko; eta Estatutoak hortarako bidea ere idokitzen digu. Eta, gaur, eskola ta kalea ez ezik, harrigarria baderitzagu ere, etxeko jabetasuna ere eskatu beharrean gaude euskaldunok.

Beste hizkuntza batean erakutsi ziguten gure historia, ez zen guziz gurea. Orain ordea, gurean bidez bertako historia eta arbasoegandiko kultura ere ezagutu beharrean gaude, mundu zabalekoa ukatu gabe, bertakoaz jabetzean norpere erroak ezagutzeko.

Badakigu autonomiak ez digula gure problema guzia erabakiko, baina gure historiako une honetan hau da aurrez aurre jartzen zaigun aukerarik egokiena eta guziok elkarturik goazen Gernikako Estatutoaren alde.

## **El Estatuto de Guernica**

El presente es un momento histórico que difícilmente se volverá a producir, y todos hemos de reflexionar muy seriamente sobre el Estatuto de Guernica que se viene negociando en Madrid.

No nos parece justo que sólo se negocie entre dos partidos, sin la intervención de los parlamentarios y sin consultar con los miembros del comité que intervino en la elaboración del proyecto. Menos aún cuando se ha puesto en entredicho la facultad que corresponde, sin ningún género de duda, a la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, en materia de normativa lingüística, a la que se ha tratado de menospreciar, cuando en esta corporación se toman los acuerdos por mayoría absoluta, y tantas veces ha reiterado públicamente que la lengua es patrimonio cultural de nuestro pueblo, muy por encima de las tendencias ideológicas.

¿Quién puede demostrar que otro organismo se haya preocupado del euskara más que Euskaltzaindia, que ha sabido luchar en épocas desfavorables y comprometidas?

Pero, a pesar de los pesares, nos inclinamos a favor del Estatuto de Guernica, para que éste salga adelante con las mínimas modificaciones, porque de él podemos encauzar las necesidades que urgen en el pueblo vasco en estos momentos tan difíciles, agudizadas por la crisis política y económica que viene padeciendo el país.

Sabemos que la autonomía no nos solucionará todos los problemas, pero sí puede ponernos en vías de solución. Que tantos partidos políticos lo hayan asumido, es un signo favorable hacia la democratización y la reconstrucción de una sociedad libre

1979-VII-16.

III

ARTEAZ  
Sobre Arte

## PRERROMANIKOA ARABAN

Arabako prerromanikoaz badoaz gauzak argitzen. Erdi-aroaren lehen partea aski iluna da. Hala ere, gaur egun inork ez du dudan jartzen Trebiño parteko Gobeak (Las Gobeas), Markinez, Laño, Faido, Pinedokoak zenobioen harpeetako monastegiak zirena, VI-VIII. mendeetakoak behar bada.

Baina oraindik ilunaldi handiak ditugu erromanikoaren aurretik eta gai hontaz arduratzen direnen artean bada nahikoa kezka. Bestalde, visigotikoaren agiriak urri dira, baina hau estudiantuko duten espezialistak urriago.

1975. urtean, Arabako Foru Diputazioko Kultur Kontseiluko zuzendari den Periko Sancristoval adiskideak Zalduendoko San Julián ermita visigotikoa aurkitu zuen. Ermita hau, egia esan, lehendik ezagutzen zen, baina ez visigotikotzat. Eta, zalantzarik gabe, hala da. Behar bada, arkitektura aldetik bere ahaiderik hurbilena Erriojako «Martirium» de Santa Columba izan daiteke, harlanduz eta teilatu hegaleko molduraz elkarren antz handia dutenez.

Bestalde, Zalduendoko San Julián, zalantzarik gabe, Reja de San Millán delakoan 1025. urtean aipatzen zen *Haiztara* deitzen zen herri hartako azken aztarna bakarra dugu. Duela pare bat urte bisitatu nuen, ermitaren inguruetan lurrontzien zatiak aurkitu nituen; batzuk, gainera, horma mehedun zeramikak ziren. Eta, ermitaren harlanduak go-goan harturik, behar bada erromatarren herri zaharrago baten gainean eraikia izan ziteken Haiztara, Burgos-ko Quintanilla de las Viñas-en antzera.

Igaz berriro bisitatu nuen San Julian-go ermita, Periko Sancristoval berakin, eta handik Araiako San Juan-era joan ginen. Hemengo eliza hau ez da, nere ustez, San Julian-go bezain ziurra, visigotikotzat jotzeko. Baina, hala ere, duen erromaniko leihoa gora-behera, elizaren zola, ekialdera parte tipi eta estuago bat duela, erromaniko aurrekotzat jo genezake.

Gainera, izatez, Araiako San Juan ermita, Amamio zen aintzinako

herriaren parrokia izan zen, eta San Millan-go «*voto de la reja*»-n Hamamio bezala agertzen da 1025.urtean. Honegatik, ermitaren inguruan hilobiak aurkitu dira. Bai Zaldueendoko San Julian-en eta bai Araiako San Juan-en azterketak egin beharra dago, elizaren barnean eta inguruan eskabazioak eginaz, argi gehiago izan dezagun.

Dena dela, erromatarren garaitik jarraipenezko bizi lekuak badira inguru hoietan eta ez du ezer harritzekorik aintzinako denboretako aurkimenak izatea. Oroi, Araiako eliza eraikitzean erromatarren harriekin ere baliatu zirela eta, lau harri, haien idazkiz aurkitzen direla.

Itzuleran, Perikok, Barrundiako Hermua-ra eraman ninduan eta bertan San Martin elizak burualdean duen leihoa erakutsi zidan. Pre-romanikoa da, batere dudarik gabe. Kasik seguru visigotikoa. Ate-morroiloetako giltzulo bezala eta San Julian-go bezalakoa, harri bakar batean landua. Bestalde, Hermuako lehen berri ere aipatutako Reja de San Millan-ean agertzen da, 1025.urte berean.

Joan zen igandean, Periko Sancristoval eta biok, gure emazteekin, berriz joan ginen Barrundiako Hermuara eta leihoari argazki bat atera ondorean, Opakuatik, Legaire zehar, Onraitara. Hemen elizako ponte erromaniko ederra eta Diego de Mayora eskultore segurarraren erretaula ikusi genuen. Eta, ondorean Cicujano-runtz abiatu ginen.

Hainbeste aldiz aipatutako Reja de San Millan-en, gaur Cicujano den herri hau *Zekungau* bezala agertzen zaigu 1025ean. Oraindik hamazortzigarren mendeko agirietan ere *Zecujano* (1718), *Sicuxano* (1753) eta *Cecujano* (1788) bezala agertzen zen.

Bertako elizaren parterik zaharrena erromanikoa da, baina atzekaldeko horman perra formadun leiho bat du. Leiho honek Burgos-ko San Vicente de Val-goarena gogoratzen digu. J. E. Uranga eta F. Iñiguez Almech-en «*Arte Medieval Navarro*» deritzan obran (tomo I, 40 orrialdean), Burgos-ko hau, visigotikotzat jotzen da. Eta hau hola delarik, hemen aipatzen ditugun Zaldueendo, Araia, Hermua eta Cicujano-koak laurak Uranga-Iñiguez Almech-en obra horretan bere lekua behar dute, lurralde honek garai haietan Nafarroako erregetzaren mendekoak zirenez.

Hemendik ikus, Erdi-aroaren lehen partetik XII. mendeko erromanikora arte, ikerketeta gaietan zein atzeratuak gauden.

—Ibilaldi hontatik, Azatzetatik zehar Gasteizera gentozela, Arkaia-tik igarotzean oroitu ginen bertako bataio-pontez, batzuk visigotikotzat joa eta, gainera, inguru berean aintzina ezagutu zen Sarrikuri herria hor bertan zen ustea ere bada. Gainera, denbora asko ez dela, erromatarren aztarnak aurkitu dira inguru hontan.

Dena dela, hor daude hoiek Arabako prerromanikoaren agiriz.

## El prerrománico en Alava

A principios de 1975, Pedro Sancristóval, director del Consejo de Cultura de la Diputación Foral de Alava, denunció como visigótica la parte oriental de la ermita de San Julián de Zalduendo. A los pocos meses visité el lugar y contemplé sorprendido el pequeño templo de estructura similar al de «Martirium» de Santa Columba, en Santa Coloma (Logroño), con igual moldura por cornisa. Mas su emplazamiento me recordó al templo burgalés de Quintanilla de las Viñas.

Además, la ermita, ubica en el despoblado de Astrea o Aistra (que en la Reja de San Millán, en el año 1025, figura como *Haiztara*). En su entorno, a flor de tierra, encontré trozos de cerámica de paredes finas, que hacen pensar en un primitivo emplazamiento romano. Pues no olvidemos que está bastante cerca de Araya y que su parroquia tiene cuatro piedras con inscripciones romanas.

El año pasado volví al lugar acompañado del propio Pedro Sancristóval, y seguidamente visitamos la ermita de San Juan en Araya (valle de Aspárrena), igualmente orientada al Este y con planta presbiterial más estrecha que el resto del templo, que a pesar de una ventana románica desencajada de su sitio, muestra estructura prerrománica. Además, debió ser la parroquia del despoblado de Amamio, que en el *voto de la reja*, el 1025, figura *Hamamio*, y se han hallado enterramientos junto a la ermita.

Aquel mismo día, de regreso, visitamos el lugar de Hermua (Barandía), que se cita en la mencionada Reja de San Millán el mismo año de 1025. El ábside tiene una ventana del tipo de ojo de cerradura, monolítica muy parecida a la de San Julián de Zalduendo.

El pasado domingo, día 4, volví a visitar Hermua, para obtener una fotografía de la ventana de esta ermita de San Martín. Y, a continuación, por el puerto de Opacua nos dirigimos a Cicujano (Laminoria), pero no sin antes parar en el pueblecito de Onraita, para ver la hermosa pila bautismal románica y el retablo que es obra renacentista del escultor Diego de Mayora, de Segura.

Sancristóval me guardaba otra sorpresa en Cicujano. Su iglesia que es de la advocación de la Degollación de San Juan Bautista, con puerta y cabecera del templo de estilo románico, tiene en el ábside una ventana o saetera con arquillo en forma de herradura que nos recuerda a la de San Vicente del Val, de Burgos, considerada como visigótica y figura en la obra *Arte medieval navarro* (tomo I, pág. 40) de J. E. Uranga y F. Iñiguez Almech.





*Ventana absidal de  
San Julián de Zaldueño.*

Cicujano también consta en el *voto de la reja*, en 1025, con el nombre de *Zekungau*.

San Julián de Zaldueño, San Juan de Araya, San Martín de Hermua y San Juan de Cicujano son dignos de incorporarlos a la catalogación de templos con vestigios prerrománicos. Y en los dos primeros convendría efectuar excavaciones, para disponer del material necesario que ayude a precisar mejor a asentar estilos y siglos y tal vez el origen romano del primero.

Al retornar por el puerto de Azazaeta hacia Vitoria, a la altura de Arcaya comentamos la pila bautismal de su parroquia, según algunos, visigótica y el propio pueblo tal vez se asienta sobre el antiguo poblado de Sarricuri y en sus proximidades se han descubierto restos romanos en época muy reciente.

1979-III-12.

## ASTIGARRIBIAKO ELIZA

Deba ibaiak itsasora jotzen duen lekutik aski hurbil, Sasiola auzoa eta Deba hiria bitartean eta ibaiaren ezkeraldetik, Mutrikuko lurretan, Astigarribia dago. Astigarribiak bere parroki propioa du aintzinako denboretatik. Auzo berezia da izan ere, lehenago, bertan mugatzen ziren Gipuzkoaren bi apezpikutegiak, Iruña eta Kalahorra. Horrez gainera, bi euskalkiren muga dugu. Une honetatik, Deba ibaiaz gora, bizkaieraz mintzatzen da. Elgoibarrera arte gipuzkeraren joera asko sartzen da baina muinean bizkaierazko egitura du. Izan ere, Karistioen lurretan gaude, ez Barduloenetan, eta lehenagoko eta nolabaiteko politikazko lurraldeen bereizketaren ondorenak dira. Baina Astigarribiak bere baitan gordetzen duen gauzarik interesanteena, arte aldetik begiraturik behinik-pehin, elizak ekaldera duen horma zaharra da: prerromanikoa.

XI eta XII. mendeetako agiritan ezagutzen da Astigarribiako San Andres eliza. Gaztelako errege Alfonso VI.ak, 1081. urtean San Millán de la Cogolla-ra eman zueneko eta Beñat Astaratz Baionako apezpikuak 1108an konsakratu zueneko.

Harrigarria idurituko zaigu toki honetan zer ikustekorik ote zuten gaztelako erregeak eta Baionako apezpikuak, baina lurralde hauek Itziartik Durangaldera eta Arabara sartu arte Nafarroa eta Bizkaiaren artean mugatzat zeuden garaiak ziren. Mugaketa hori, Debarruaren behe partean, Markina izeneko merindadeari zegokion, gaurko Elgoibar, Plaentzia, Eibar eta Artibai aldeko Markina-Jemein eta Etxebarria barne hartzen zituela. Karolingio ohituratik sartuko zen *marka* mugatzailea.

Guzti honek, behar bada, ezer ikustekorik izango du Astigarribiakin. Hemengo eliza ezta hain handia, baina bai badu gauza harrigarrik. Bere ekaldeko horma, arestian aipatu dugun agiriaren garaikoa dugu. Bi leiho ditu, eta beretako bat, behekaldean dagoena, prerromaniko estilokoa da. Perra forma du eta arkiboltak alderdi bietatik. Maria Asunzion Arrazolaren ustez mozarabe da. Uste dut arrazoi guzia duela. Nik ere iritzi hori eman nuen *Gogoz* liburuan (ikus 409-412 orrialdeak).

Harrigarria dirudi mororik heldu ez zen toki batean holako leiho bat aurkitzea. Baina nork daki Santiago bidean zehar izan ziren harremanez zer nolako influentziak ez ote ziren gertatuko; baina batez ere aintzinatik gure itsas-portuak Europako ifarraldearen eta Gaztelako mesetaren artean izan zuten merkatalgoan. Harremanok etziren izan nolanahikoak.

Ez dago dudarik Astigarribia puntu garrantzizkoa izango zela Santiagorako erromes bidean, batez ere biderik zaharrenean. Bai G. Menén-

dez Pidal-ek eta bai Y. Bottineau-k, Erdi-aroko kronikak erakusten digutenaren arabera, Nafarroako Santxo III.ak Mesetaren goi partetik mo-ruak beherago bota arte itsas-hegaletik omen zijoan bide zahar hura. Eta, bide horrek, Itziardik behera Deba ibaia Astigarribian hartzean, he- men zatiketa bat ezagutuko zuen, batek ibaian gora jarraitzeko eta bes- teak Arno mendiak gora, Arnoatetik Bizkaiko lurretara joteko. Azken honen zalantzak kentzeko, egun batez B. Garate, L. P. Peña Santiago, nere seme Unai eta laurok igaro genuen galtzada hau Arno zehar.

Baina ez dezagun ahaztu Deba hiriaren hasierak merkatalgozkoak izan zirela. Ibaia itsasora idekitzen den tokian, Itziargo auzoa hazi zen, hiri bihurtu arte. Gaztelako mesetan arabek errotu eta indartu zuten artilearen merkatalgoa izan zuen garai batean Debak bere ekonomiaren sendotasuna. Karmelo Etxegarayk zionez, komertzio honen zergetatik egina da Debako parrokia ederra (ikus K. Etxegaray, *Investigaciones*



*Astigarribiako elizaren leihoa,  
1963. urtean.*

*históricas referentes a Guipúzcoa* deritzan liburuaren 238. orrialdea). Erdi-aroan ere aspalditik etengabe zetorren artilearen komertzioa, Gipuzkoako itsas-portuetatik Europako ifarraldera zabaltzeko, bereziki Debatik. Geroago, Orduñako mendietatik Bilbora bide berria ideki zenean zerbait kendu bazion ere, itsasora zetozten bide zaharretan erabiliena omen zen Gasteiztik, Arrasatetik zehar Debarruan behera zetorren hau. Honegatik, pentsatzekoa da Deba baino lehen Mutriku eta bere auzo den Astigarribia izango zirela porturik garrantzitzuenak. Oraindik ere gordetzen dira Astigarribian, ibai ertzaren bi tokitan, Portu eta Portu-zaar deritzaizen leku-izenak.

Ez pentsa moro guziak gerra-zale zirenik, oroi Nafarroako erregeen kortean bertan sarrera ona izan zutela. Beraz, ezta batere harritzekoa merkatalgo harremanen bidez arte estiloena ere zerbait hartzea, bi herri edo bi kulturaren harremanetik maiz gerta ohi den bezala. Alde hontatik begiraturik ez du ezer harritzekorik Astigarribiako elizaren leihoa mozarabea izateak. Erromaniko artea oraindik hedatu gabe bai zegoen.

Hala ere, mozarabe leihoaz aparte, Astigarribiako horma horrek gailur zutituz eraikitako elizaren azternak ageri ditu eta hau ifarraldeko edo Pirineoko influentziatzkoa du; erromesen harremanetik hartua noski.

Mendeak zehar aldakuntza handiak ezagutu ditu eliza honek, mendebaldera luzatua izan zen, bi alderdietara zabaldua ere bai eta bere buelta guzian bigarren horma eraiki, harresi gisa, baina teilatupean hartuaz. Aldakuntzazko gehigarriok XIV edo XV. mendean eginak izango dira.

1968-69. urteetan konponketa izan zuen elizak, Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz M. Urkola arkitektuaren zuzendaritzapean, eta une berean zola aztertu zuten M. Lekuona, J. L. Otegi eta L. P. Peña Santiago partaide zirela<sup>1</sup>. Gaur egun, txukun agertzen dira Astigarribiako elizaren balioak eta ondo merezi du arretaz zaintzeak ekaldeko horma bere bi leihoekin Gipuzkoan ezagutzen den prerromaniko bakarra de-  
nezkero.

1. Azterketen zuzendari Inazio Barandiaran Maestu izan zen eta bere Txostena *Noticiario Arqueológico Hispánico*-ren XV. toman argitaratu zuen, Madrid-en 1971-urtean. Ondoko artikuluan agertzen ditut zenbait zuzenketa eta gehigarri.

## La iglesia de Astigarribia

La parroquia rural de San Andrés Apóstol de Astigarribia, situada en las proximidades de la desembocadura del río Deva, por su orilla izquierda y en término municipal de Motrico, es un testimonio excepcional del prerrománico en la provincia de Guipúzcoa.

Su documentación se remonta a los siglos XI y XII, en la donación hecha por el rey Alfonso VI de Castilla al Monasterio de San Millán de la Cogolla en el año de 1081 y por la consagración llevada a cabo por Beñat Astaratz, obispo de Bayona, en 1108. Esta aparente extraña coincidencia de un rey castellano y un obispo bayonés tiene su explicación en que a la sazón el territorio comprendido desde Iciar hasta Durango, con toda la cuenca del Deva hasta entrar en Alava, era una tierra franca que separaba el reino de Navarra con el Señorío de Vizcaya, como atestiguan Moret y otros historiadores.

La iglesia de Astigarribia, que es de planta rectangular y mide 14 x 9 metros, aún conserva su muro oriental prerrománico con dos ventanas. Una de éstas, la mayor y más baja, lleva arquivoltas con tres arcos de herradura hacia el interior y otras tantas al exterior, en forma de ojo de cerradura. Como bien apunta M. A. Arrázola, es de estilo mozárabe a juzgar por el trasdós de sus arcos y la curvatura tendente a cerrarse en el salmer de los mismos. Cuando hace ocho años dediqué en estas mismas columnas un artículo a Astigarribia, como se puede comprobar en la obra *Gogoz*, páginas 409-412, ya emití mi opinión inclinándome al estilo mozárabe. Pero no deja de ser una incógnita en las corrientes de los estilos artísticos de la costa vasca.

Dicha ventana mide 2 metros de alto y 0,75 de ancho, con 1,40 x 0,90 de luz, y está construida burdamente con piedra arenisca.

La ventana en cuestión no deja de ser un cuerpo extraño en estas latitudes. Su explicación habría que buscar, más que en la ruta de Santiago, en las relaciones comerciales, como puerto marino, entre la meseta castellana y los países septentrionales de Europa.

Astigarribia debió ser uno de los puntos claves en la primitiva ruta jacobea, anteriormente a la principal marcada por la meseta que coincidiría con el antiguo camino romano, conforme el estudio hecho por Gonzalo Menéndez Pidal y tal como lo precisó Ives Bottineau. Aquel primitivo Camino de Santiago por la costa, que funcionaría como el principal hasta que Sancho III el Mayor de Navarra despejara a los moros de la parte norte de la meseta y con ello estableciera la nueva ruta. En el vado de Astigarribia se bifurcaría la ruta, para continuar una fluvial Deva arriba y otra que remontaría por el macizo rocoso del

Arno, por Arnoate, hacia tierras vizcainas y cántabras. El camino pudo influir en la importancia del lugar en los momentos en que se tanteaba un nuevo estilo arquitectónico, el románico. Pero, la ventana más bien parece obra morisca o influenciada en lo que se estaba haciendo más al sur en la Península.

No debemos olvidar que los primeros testimonios históricos del puerto de Deva y su evolución se deben principalmente al comercio de la lana, vida económica desarrollada por los árabes en la meseta. A decir por Carmelo de Echegaray: «la preciosa iglesia parroquial de Santa María de la Asunción se edificó con el producto de un módico arbitrio que se impuso a las lanas que se exportaban por el puerto de Deva para las regiones septentrionales de Europa», con las cuales mantuvo una actividad ininterrumpida desde tiempos medievales.

Hasta que se abrió el puerto de Orduña para dar paso hacia Bilbao, la ruta principal para la salida a la mar fue por Vitoria y Mondragón por el curso del Deva. Motrico con Astigarribia, serían los principales puertos marinos. A Astigarribia llegan las mareas y en el mismo aún se conservan los topónimos Portu y Portuzar. Por todo ello es de suponer la influencia que dicho comercio pudo ejercer en aquel templo prerrománico.

El templo ha sufrido muchas transformaciones en el transcurso del tiempo. El muro prerrománico, muestra claramente que el primitivo tejado fue muy inclinado al estilo de las construcciones nórdicas o pirenaicas. Muestra evidente de la influencia recibida a través de la ruta jacobea. En época posterior la nave fue ampliada a lo ancho y por el lado occidental, y todo el templo fue rodeado de un muro defensivo jalonado de saeteras y que ha servido de claustro. Entre la nave central y el dicho muro externo de defensa, en otro tiempo debió de haber una entreplanta, como señalan los orificios continuos a lo largo de la pared y la hilera alta de saeteras.

Esta iglesia fue restaurada en los años 1968-69, a expensas de la Diputación de Guipúzcoa, bajo la dirección del arquitecto Manuel Urcola. Durante la misma se llevó a efecto una excavación por los señores Lecuona, Peña Santiago y Otegui<sup>1</sup>.

El muro oriental, con sus dos ventanas, es la única muestra prerrománica que se conoce en la provincia de Guipúzcoa, y como tal merecedora a que se le presten los debidos cuidados de conservación.

1980-V-5.

1. Las excavaciones fueron dirigidas por Ignacio Barandiarán Maestu y su memoria fue publicada en el *Noticiero Arqueológico Hispánico*, tomo XV. Madrid, 1971. El artículo que sigue sirva como corrección y adición.

## BERRIZ ERE ASTIGARRIBIA

Behin baino gehiagotan idatzi dut Astigarribiaz eta oraingo hau ere ezta izango azkena. Izan ere, Astigarribia auzoko San Andres parrokiatxoak Gipuzkoako arkitekturan ezagutzen den erromaniko aurreko aztarna bakarra du eta luzaro jarraitu beharko dugu bertako leiho bixiaren inguruan bildu ahal ditugun agiri eta oharrez. Santio bidea, itsas-merkataritza eta abar, ezta erraz ahortzeko gaia Astigarribiaren inguru aurkitu dezakeguna. Gai hontaz aski luze idatzi nuen 1980ko maiatzaren 5eko artikuluan; baina, geroztik, huts egite larri bat nabari dut eta honek nakar zenbait zuzenketa eta ohar gehitzera. Astigarribian egin diren ikerketarik sakonenak 1969ko abenduaren 29tik 1970eko urtarrilaren 5era bitartean eraman ziren, Eguberrietako oporketak aprobetxatuz, Inazio Barandiaran Maestu arkeologoaren zuzendaritzapean eta lanaren memoria *Noticario Arqueológico Hispánico* aldizkariaren XV. tomoan argitaratu zen (Madrid, 1971), 190-217 orrialdeetan, zazpi irudiz eta sei laminaz jantzirik. Hori da gaurko berrikustearen arrazoia.

Lan hortan, I. Barandiaranek, aurkezpen baten ondorean, elizaren adierazpen orokorra egiten du, azternategian aurkitu zituzten materialak estudiatu, «Tritium Tuboricum» aipatuz geroztik Astigarribiaz bildu diren ageriak azaldu, elizaren berriak bildu eta azkenik bere eritziak agertu. Lan ederra «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia» deritzana.

Elizaren burualdean, ekaldeko horma, prerromanikotzat egiztatzen du. Behar bada XI. mendekoa. «Bernardo episcopo de Sancta Maria de Lapurde»-ren konsagrazioa, 1108koa da. Beñat Astaratz Baionako apezpikuori San Millan de la Cogolla-ko abataren aginduz etorri omen zen. Jakina da 1086an Bizkaiko Jaunak San Millanera eman zuela eta 1091ean Gaztelako errege Alfonso VI.ak San Millanen babesean hartu. Beraz, horma hori eta bertako bi leihoak urte horietakoak izan daitezke. Horrek ez du ukatzen bisigotikoaren kutsapenik eza.

Bestalde, lurpean ziren hilobien artean aurkitu dituzten ehundakak monedak XIII. mendetik XVIIra bitartekoak dira. Honek ordea, eliza barnean noiztik hobiratzen ziranaren berri ematen digu. Edozelan ere XIII. mendearen azkenalditik eta XIV.aren lehen partetik. Azkoitiko «Carta-puebla»-n, 1361, Iraurgiko Santa María elizan hobiratzeko eskubidea aipatzen da eta ez dabilta elkarrengandik hain urruti. Kontuan izan aintzinago Kontsilioetako ageriek dakartenaren arabera, XII. mendera arte apezpikuak eta abatak bakarrik hobiratzen zituztela eliza barruetan. Gregorio IX.ak (1227-1241) ordea, libertate gehiago eman zuen gainerakoak ere elizetan hobiratu zituzaten.

Astigarribiako elizan aurkitu diren hilobiak bertako lurraren buztin naturalean idekiak daude, batzuk harriz inguraturik; baina guzietarik bat bada berezia, harlandu batean antropomorfo eraz egina bere gailurdun estalki ta guzi. Era hortakoak ez ziren lurpean sartzeoak eta zalantzarik gabe geroztik solairupean jarria zen. Santilla del Mar-en daudenekin konparatzen du eta XIII. mendekotzat jo. Hala izango da; baina nik berriz ere nere oharra jarriko diot, Elorrioko Argiñeta, Zengoitako San Juan eta Bolibarko elizpean eta Ziortzan aurkituekin konparaketa zehatzagoak egiteko. Argiñetakoek urtea jarria bai dute, bi hobitan aurkitzen denez, 883 eta 893 urtekoak dira. Ikus D. Areitoren *Los sepulcros de Argiñeta* (Bilbo, 1908), eta bestalde R. P. Pedro Vázquez-en *Monumentos artísticos de Vizcaya* (Bol. de la Sociedad Española de Excursiones, tomo XVI, 1908, p. 312). Ez dut esango bisigotikoa denik, Vázquez-ek Bolibarkoegatik zion bezala, baina bai eliza barruan hobiratzeak etorri baino lehenagokoa dela.

Erdi-aroko galtzadari buruzko oharra ere kontuan hartzeoak dira. Hauek itsas-hegaletik zijoan Santio-bide zaharrekoak izan daitezke eta Astigarribiako elizarekin ere zer ikusirik badute. Ez ordea erromaniko estiloa hedatzearen arrazoï bakarra Santio-bidea delako, zeren bestela nola ulertu Italiatik Eskandinabia aldera zabaldu zena? Nola ulertu Kataluina partean hain laster eta hain era berezian zabaldu zena? Hala ere, gurean baliteke erromanikoaren hastapenak Santio-bideari lotuago egotea; ez dut ukatzen. Baina erromes bide zen kaltzadak, Astigarribiatik Bizkaira igarotzeko ez zuen nahitaez Mendarora jo beharrik. Bestalde esango nuke, biderik zaharrena eta oraindik ere garbien azaltzen zaiguna (garbien kaltzadaz esan nahi dut, zeren gainerakoan sasiz estalia bait da), Astigarribia bertatik Arnoko arro harritsu batetik gora zuzenean Arnoatera doana da. Hori egiztatzeko, arratsalde batean, Bitorio Garate, Luis Pedro Peña eta gure seme Unai, laurok joan ginen. Harrigarria badirudi ere, metro ta laurden zabal zituen kaltzadak, toki batzutan bi metro t'erdiko erretenak edo zanjak haitzean ebakiz eta urrengo lau-bost metroko hormak zituen betegarri. Baina, bai laster eta artez gaina hartu, handik Artibai aldera jotzeko.

Kaltzada horren zati bat garbi azko zegoen elizaren ingurutik ibai aldera, I. Barandiaranek ere aipatzen du. Baina urte asko ez dela ormi-goiz estali zuten auzokoek, autoak errezago ibiltzeko. Horiek dira gure herriko monumentuen paradojak. Bestalde, elizaurrean, bi etxe daude bertako tipolojiaz aski politak direnak, lehen apezetxe eta auzo-eskola izanak. Orain, biak daude galzorian. Baina, txarragoa dena, horietakoren bat aprobeztatu beharrean, berri bat eraiki dute elizatik hurbil, to-



kiari eta monumentuari egokitasuna kenduz. Gure historiaren erreliki horiek gorde behar ez baditugu, gure abertzaletasuna pikutara!

Bukatzeko, esan dezadan, Santio-bidearen influentziaz gainera kontutan hartzekoa dela Astigarribiaren aintzinasunak baduela ikustekorik euskaldunak itsasozko bidaia handietan hastearekin.

Dena dela, lan bikaina, taxuz eta zentzuz bezain jakinduriz egina iduritzen zaigu Inazio Barandiaranen ikerketa, gure artean zabalkunde gehiago merezi duena.

### Más sobre Astigarribia

En numerosas ocasiones he mencionado la iglesia de San Andrés de Astigarribia, llevado casi siempre por la incógnita que encierra ese testimonio de pared prerrománica que muestra por su lado oriental y que es la única que conocemos en Guipúzcoa. Sobre sus antiguas noticias, la ruta jacobea, el comercio por mar y las excavaciones llevadas a cabo en el interior del templo a la hora de su restauración han sido temas preferentes para tratar de escudriñar en torno a su pasado. En síntesis, le dediqué un artículo bastante extenso el 5 de mayo de 1980. Pero en él cometí una omisión imperdonable al no citar al director de las excavaciones y al principal trabajo sobre el tema, al renombrado arqueólogo Ignacio Barandiarán Maestu y la memoria de las excavaciones confeccionado por el mismo y que vio la luz en el *Noticiario Arqueológico Hispánico*, tomo XV (Madrid, 1971). Nunca es tarde para subsanar una falta, y al tiempo de presentar mis excusas, vaya también mi agradecimiento al amigo Ignacio que tan amablemente supo entregarme una copia del trabajo aludido: «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia».

Al propio tiempo ha sido para mí un motivo para reconsiderar el tema siempre apasionante sobre las antigüedades de Astigarribia y anotar algunas observaciones que considero de interés.

El trabajo de Ig. Barandiarán abarca 27 páginas y va acompañado de figuras y láminas: tras una presentación hace la descripción de la iglesia, realiza un inventario de los elementos materiales menores recuperados, recopila las fuentes escritas e incorpora apuntes históricos, para acabar con unas conclusiones. Se diría que no le ha escapado ninguna cita y a la hora de establecer comparaciones ha sabido guiarse con un sentido muy lógico. Un trabajo ponderable que nos ayuda a aclarar muchos aspectos hasta ahora ocultos.

Se confirma como prerrománico el muro de la cabecera, con probable influencia visigótica en la ventana inferior. Al clasificar el medio millar de monedas halladas (material que fue depositado en el Museo de San Telmo) que van desde el siglo XIII al XVII (en menor porcentaje las más antiguas), hace pensar que los enterramientos en el interior del templo corresponden a esas épocas. Lo que constituye un dato importante, aun teniendo en cuenta que las acuñaciones pueden preceder en algunos decenios, se pueden considerar desde finales del siglo XIII y por tanto anterior a la noticia que nos ofrece la carta-puebla de Azcoitia (1362) sobre el derecho de los vecinos al enterramiento en Santa María de Iraurgi. La mayoría de las monedas pertenecen a Castilla, otras a Navarra y Aragón, y muy pocas son francesas.

Un sarcófago exento muestra interés. Debe ser del siglo XIII, pero debieron colocar en época posterior. Cuando por mi parte indiqué su antigüedad lo hice con referencia a las más próximas de Arguñeta y Bolibar, que fueron estudiados por Areitio y Vázquez. En todo caso, un sarcófago anterior a los enterramientos en el interior del templo.

Sobre la calzada medieval hay que reconocer que la ruta principal hacia Vizcaya, probablemente la primitiva costera, debió ser la que desde el mismo barrio de Astigarribia se remonta por los roquedales del Arno directamente a Arnoate, tal como pudimos comprobar haciendo el recorrido. Es lamentable cómo ha quedado la calzada desde el vado hasta las inmediaciones de la iglesia, cuando desaprensivamente han asfaltado para circulación de vehículos. Y, para colmo, otra torpeza el erigir una casa junto al templo, cuando existen en el lugar dos casas típicas condenadas a la ruina. Espero que un patriotismo más consustancial culturalmente nos conduzca a la protección de nuestro patrimonio que hace historia de nuestro pueblo. Un ejemplo elocuente viene a ser este trabajo tan extraordinario de I. Barandiarán que nos ayuda a conocer mejor nuestro pasado.

También hay que tener presente, que además de la influencia que pudo ejercer la ruta de Santiago en Astigarribia, no se debe descartar el comercio por mar, que coincide cronológicamente con los inicios de las largas rutas maríneas que pronto alcanzarían épocas de esplendor en la navegación vasca, como el lector podrá apreciar a través de aquel artículo «Itsasoaren aurrez-aurre» (Frente al mar), publicado el 26 de marzo de 1979.

1982-IV-19.

## ARALARKO SAN MIGEL ELIZAKO ERRETAULA

Aralarko San Migelen zegoen erretaula, gauza bitxia eta bakarra zen munduan. XII. mendean esmaltez egina, arte aldetik neurtu ezindako balioa zuena, sineskaitz egiten zait lapurtua izan dela jakiteak.

Gertari honek utzi digun hutsunea, ez artez eta ez diruz bete ezinezko da. Izan ere, besterik ezlakoa zen Aralarko erretaula. Berari zer-bait hurbiltzen zen bakarra Silos-ko Santo Domingon zegoen, gaur egun Burgos-ko museoan gordetzen dena. Baina, hau ezta hain aberatsa, ez edergarri eta ezta ere esmalteko tekniken aldetik.

Askori harrigarri iduritu zaie holako gauza baliozkoa Aralar mendian egotea. Baina kontu izan Aralarko San Migelen debozioa aintzina aintzinatik zabaldua dagola Euskal Herrietan eta Nafarroako erregeek oso maite izan zutela.

Herriagan bere aldeko joera aspaldiko mendeetan galtzen zaigu. San Migelen debozioa bera ere aintzinakoa bazaigu, bertako erlijiozko erroak, mendeetan ez ezik kristautasuna baino lehenagokoa izan daiteke.

San Migel eta piztiaren kondairak Italiako hegoaldean Manfredonia hiritik hurbil dagoen Gárgano mendian ditu sustraiak. Han ba omen zen Erdi-aroarean behe partean Garganus zeritzan gizon bat leza zulo baten atarian zezen baten aurrez aurre ikusi zena eta mirakuluz salbatua. Leku askotara zabaldu zen kondaira hura eta Teodosio Goinirena ere hortik dator nonbait. Dena dela, gaur Barcelona-ko museoan dugu Nafarroako Egilior deritzan herritik eraman zuten pintura batean agertzen zaigu kondaira honen ageri zaharra.

Aintzinatik hain beneragarria dugun Aralarko San Migelen, kristautasuna baino lehenagoko erlijio aztarnak ere badira. J. M. Satrustegik «Reminiscencias de culto precristiano en la devoción a San Miguel» deritzan lanean aditzera eman zigunez (ikus *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*-ren 6. zenbakian, 287-294 orrialdeetan).

Aralarko San Migelen eliza bera, erromanikoa izanarren, J. E. Uranga eta F. Iñiguez Almech-en *Arte medieval Navarro*-ren bigarren to-moko II.kapituluan aditzera ematen denez, egin dituzten ikerketen arabera, Santxo Nagusiaren garaian eraiki zen lehenagoko eliza prerromanikoaren zimentarrien gainean. Aipatutako liburua-ren 54. orrialdean marrazkiz adierazia dator.

Baina, arestian esan bezala, eliza hortako arterik baliagarriena, munduan bakarra, esmalte-dun erretaula izan da. Jatorriz, behar bada, aldara izango zen, baina XVIII. mendean egin zioten konponketa desegokia geroztik erretaulatzat ezagutu da.

Aipatutako obra horren hirugarren tomoan Uranga eta Iñiguez

Almech-ek diotenez, Nafarroan ez ezik munduko artearen gailurrean zegoen obra hau, bere estilo eta teknikaren aldetik. Metro bat eta hamalau zentimetro zituen alturaz eta bi metro luzez. Gutxi bezala eztabai-datua izan da noizko eta nongotasuna. Gehienek Limoges-kotzat jotzen zuten.

Erretaularen inguru guztia urreztatua zuen eta gubilez landare hostoz jantzia, esmalteak ordea berde-urdinkaraz beteak, zenbait ikutu beltzez, zuriz, horiz eta gorritz, eta ez bakarrik tinta plan eta soilez esmalteetan gehienez ohi den bezala, baizik tartezko kolore tonuak ere erabiliz. Honegatik, teknika hoietan erabili zitekeen kalitaterik hoberenetakoa zen. Kobrezko txapan kolore bakoitzarentzat azpilduraz lekua idekiz eta hura esmaltez beteaz, kobreaken lerro bat azalean utziz, koloreak banatuz gainera metalarekin soinekoen pliegeak hobeto markatzeko. Honela, irudientzat egokitasuna lortuz eta azal guztia txukun lehunduta; azken urreztatze lana suaren bidez eginaz.

Erdi erdian Jesus haurra tinko aurrez aurre Amaren altzoan, koroiez eta atzekaldetik argikoroa duela; kanpokaldeko lau aldeetatik Tetramorfos-aren sinboluak. Alde batera hiru erregeak eta heuren gainean beste hiru apostolu; bestaldera Deikundea eta errege bat (antza denez, Nafarroako Garzia Ramírez, 1136. urtean eliza konsagratu zuena, emaile gisa), eta hauen gainekaldean beste hiru apostolu. Irudi guzieren buruak errepjatuak eta zizelez landuak. Erretaularen erdialdeko gaina lehundutako harri gogorrez horniturik eta erdian gurutze bat, hauen aldamenetan beste lau irudi, txikiagoak eta orainarte ezezagunak. Gero, gainekalde berean, alde batetik bestera botoi biribilduak bezala esmaltezko dominak, oso apain landuak, irudi eta filigranaz nahasirik.

Esmaltezko artearen teknikak ezagutzen dituenarentzat amesetako gauza zen.

Gaur egun seguritateerako asmatuak diren tresna-gailuak daudelarik, nola zitekean hain libre utzia egotea? Ulertu ezinezkoa zait erretaula hori lapurtu dutela jakitea.

**OHARRA:** 1981 martxoan hartu zuten Paris-en lapurretariako bat, uztailean Erroman aurkitu zuten erretaula bi zatiren faltaz, eta, azkenez, 1982 otsailean bi zatiak Belgikan.

## **El retablo del Santuario de Aralar**

El robo del retablo esmaltado, del siglo XII, del santuario de San Miguel de Aralar, ha consternado a todo amante a las artes plásticas.

Y, para muchísima gente es increíble que en aquel lugar se guardase una pieza de tanto valor.

Téngase en cuenta que San Miguel de Excelsis, en lo alto del Aralar, ha sido venerado desde muy antiguo, y hasta tomó cuerpo aquella leyenda de San Miguel y el feroz animal, que se trasplantó al legendario suceso de Teodosio. Probablemente, dicha leyenda arrancó del monte Gárgano, en el mediodía de Italia, cuya primera muestra gráfica en Navarra la hallaremos en el frontal de Eguilior, actualmente en el museo de Barcelona, y que Uranga e Iñiguez reproducen en la obra «Arte medieval navarro».

En un lugar tan venerado, nada tienen de extraño las reminiscencias de cultos precristianos y, probablemente, habría que remontar algunas tradiciones de Aralar a épocas lejanas como sugería Satrústegui en un trabajo publicado en el número 6 de «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra».

La popularidad mantenida durante siglos y las diversas atenciones prestadas al santuario por los propios reyes navarros, justifican la ubicación de una pieza tan valiosa en aquellas alturas.

Lo que en origen pudo ser un juego de altar, y al que se le hicieron algunos arreglos poco afortunados en el siglo XVIII, hoy servía de retablo y era una pieza cumbre y excepcional de todo punto, como manifiestan J. E. Uranga y F. Iñiguez Almech en la referida obra.

Pieza gigantesca, única en su género en tamaño y arte. Medía 1,14 mts. de alto, en la parte central, por 2 mts. de ancho. Discutida como pocas piezas en fecha, taller y aún estilo, aunque la mayoría apunta su origen a Limoges, de cuando aún su producción no estaba industrializada. Aunque no se había conseguido comprobar documentalmente.

Sobre un fondo dorado repleto de tallos con hoja trazados a buril, los esmaltados están realizados dentro de una gama común de verdes y azules, con toques de negros, blancos, amarillos y rojos; no sólo en tintas planas, sino también con veladuras y tonos intermedios. De una calidad realmente extraordinaria, empleando la técnica normal de la época en esmaltería: sobre plancha de cobre ahuecado, abriendo cajas para rellenar con cada color de esmalte, para dejar separados por líneas salientes de metal, que dividen colores y precisan pliegues y detalles; todo ello logrado con gran armonía, y con toda la superficie bien pulida. El dorado final, a fuego, termina el trabajo.

En el centro, Jesús niño mayestático sentado, de frente, sobre las rodillas de su madre, coronada y con brillante nimbo, rodeada del tetramorfos que no se le encaja bien. A un lado, los reyes magos y, enci-

ma, tres apóstoles; por el otro lado la Anunciación (la Virgen y San Gabriel) y la figura de un rey, que Iñiguez Almech identifica con García Ramírez como donante (que consagró el templo en 1136) y por encima otros tres apóstoles. Todas las cabezas están repujadas y cinceladas. La parte superior central está rematada con una fila de cabujones o piedras duras pulimentadas, más una cruz con dos figuras a cada lado, sin identificar, y una hilera de botones esmaltados con preciosas ornamentaciones donde se conjugan figuras y filigranas entrelazadas.

Por mucho que lo piense, me es *incomprensible entender*, con la variedad de medios de seguridad tan eficaces que hoy existen, cómo ha sido posible esa falta de previsión sin adoptar las oportunas medidas de seguridad que la pieza requería.

1979-XI-5.

NOTA: En marzo de 1981 fue detenido en París uno de los ladrones, quien dio la pista para localizar la mayor parte del retablo en Roma, en el mes de julio. Por último, en febrero de 1982 en Bélgica se localizaron las dos piezas que faltaban para recuperar la totalidad del retablo, que fue trasladado a Navarra tras una exposición en Madrid.

## ARRASATEKO ELIZA GOTIKOA

Arrasateko parrokia Gipuzkoako gotiko estilodun eliza handietatik zaharrena dugu. Estilo honetan, probintziako elizarik ederrena Getaria da, noski. Baina hau mende bat geroagokoa da. Hiru zoladuradun eliza gotikoetatik zaharrena Mondragoko San Juan Bataiatzailearen izeneko da, XIV. mendearen lehen partean eraikia, 1340. urtetik 1350era bitartean.

Garai hartan, Arrasate, Tolosarekin batean, Gipuzkoako hiririk handiena zen eta orduko industriad eta merkatalgoaz probintziako lehena. 1448. urteko erreketaren ondorean beheratze handia ezagutu zuen, bere bizitza ahulduz eta Gipuzkoako hirietan hirugarren mailara jaitsiaz.

Lehengunean Astigarribiako prerromanikoaz eta artilaren merkatalgoaz ihardun nintzen. Debako eliza, Karmelo Etxegaray historiagileak zionez, itsasoz bialtzen zen artilari iharritako zergeri zor diogu. Baina, artilaren merkatalgo bidea Gasteiztik Arrasaten barna zetorren. Gasteiztik itsasorako erdibidean, bi eguneko ibilaldiaren erdian. Beraz, hor gelditu beharra zuten, gaua pasaz bederen, merkataria haiek. Bestalde, bertatik Bergara-Azkoitia zehar Urolako bidea. Baina, hortaz aparte,

Arrasatek, Elorrio aldetik Bizkaira sarrera ona zuen eta gainera, aintzina hartan, Leintz araneko hiriburua zen bere Artziprezgoaz. Bestalde, burdina meategiak zituen bertan, inguruko basoetatik egurrikatzik ez zitzaion falta eta ola zaharrez aberats zen. Bertan egiten ziren ezpatak, Toledokoekin batean, fama handia zuten. Geografiak eta meategiek eskaintzen zien ondasuna berakin zuen Arrasatek.

Gaztelako erregeak hiri-bildu onartzeaz, 1298. urtean, lehenago, 1181ean Nafarroako erregeak Gasteizi jarri zion bezalako forua eman zion. Zerga kontuan beste Logroñoko harek baino eskubide hobeak eskaintzen zituen. Anitz dira era hortakoak Debarruan. Gasteiztik itsasora bidearekin ezer ikustekorik ba ote? Foru aztertzen aritzen diren historiagileek arretaz begiratzekoa da.

Argi dago Erdi-aroen Gipuzkoan hiririk garrantzitsuena genuela Arrasate. Hiri-bildutzat izendatzean jarri zioten *Montdragon* izena. Hala ere, hiriarri ikutzen zegoen auzoak gorde zuen Arrasate izena. Baina, etimologiaz, Arrasate bera ez ote da *Arresi-ate*? Hala balitz hiri-bildu bihurtu baino lehenagotik ere harresiren bat izango zuen. Dena dela, gauzak bat batean nekez egiten dira eta Arrasatek bere geografia inguruagatik, aspaldiagoko industri eta merkatalgo mugimenduagatik, XIII. mendea baino lehenago ere hiri garrantzitsua izango zen itxurak ditu.

Adierazi dugun guzi honegatik, ezta batere harritzekoa XIV. mendearen lehen partean, gotiko estilodun arkitektura Europako mendebaldean hedatu zen garai berean Arrasaten hain eliza eder eta handia eraikitzea. Arrasateko parrokia honek, geroztik asko sufritu eta aldakuntza handiak ezagutu baldin baditu ere, arkitektura gotiko zaharraren egitura nahikoa ondo gordetzen du.

Esan bezala, Gipuzkoako probintziaren gotiko arkitektura handietan lehena da. Bere egitura apalagoa bada ere, Gasteizko San Pedrokoaren antz handia du, eta hura baino lehen eraikia zen. Hiru zoladuraren gurutza formadun horietakoa da. Elizburua poligonal du eta hiru absideak kaperak jartzeko egina. Erdiko sabaia altuagoa du eta alde bietara arkuak, sabaiaren bultzada eusteko. Bere hiru ateak ojibalak dira, arkiboltekin, baina apenaz dute apaindurarik. Ostiko handiak ditu uztaidun sabaiari eusteko. Sabai-uzta horiek oso sinpleak ditu, barneko hormetan gora dituen zutoetatik irtetzen direnak, bitarte kapiteltxo batzuk dituztelarik. Izan ere, gotiko zaharraren xinpletasuna du elizaren sabai guziak.

Korua berriz geroztik egina da, zurezkoa. Bi zola ditu bata bestearen gainean, zuraje ausartez eraikiak. Organu eder bat du bertan. Barcelona-ko Brum deritzan etxearen marka du, gure mende honen hasieretakoa izaki, baina aditza dudanez, Arrasaten bertan egina da

eta tekladua eta beste zerbait berritzean, orduan, berritzaileok jarri omen zioten marka <sup>1</sup>.

Bere historian zehar gauza asko ezagutuko zituen eliza zahar honek, baina ezagutzen dugun aipagarrienetarik 1408. urteko Aste Santuz San Vicente Ferrer-en predikua da bat. Oraintsu pulpitua kendu arte, bere eskilaren lehen mailak omen ziren Santu harek zapal dutakoak, baina hemengo berritu nahiak aurrean eraman ditu. Baita ere, aipatzekoa da, hemen bataiatu zela Espainiako koronikagileetarik lehena, Esteban Garibay, beste zenbait lanen artean *Compendio Historial* idatzi zuena. Euskarazko zenbait kanta zahar eta erretrauak ere jaso zituen.

Gaur egun pena da eliza hau dagoen bezala ikustea, zahartua, aski eroria, hainbeste aldakuntzaren zauriak agerian dituela. Zauritzeetan lehena 1448ko erreketak izango zuen eta azkena duela berrogetakak urtean zerbait sufritu zuena. Gaur egun lehengo egituretara berritze premiaz dago.

1. Artikulu hau argitaratzeaz Jose Letona Arrieta arrasatear adiskidearen gutuna jaso nuen organoari buruz, ondoko argitasun hauek emanaz. Ikus beste orrialdean.

## El templo gótico de Mondragón

La pasada semana, al tratar del templo rural de Astigarribia, recordábamos la importancia de la ruta del comercio de la lana a través de la cuenca del río Deva en época medieval, con la transcripción de un párrafo del historiador C. de Echegaray, alusivo a la construcción de la iglesia monumental de Deva. Recordemos que el mismo historiador fue quien llamó la atención sobre la antigüedad de Astigarribia en la presentación del primer tomito de arquitectura guipuzcoana (pág. 7) *Monumentos religiosos de Guipúzcoa* (editados en 1921). Sin embargo, no parece que le llamara tanta atención la parroquia de Mondragón, siendo ésta el primer gran templo gótico de Guipúzcoa y enclavado justo en la mitad de jornada entre Vitoria y la desembocadura del Deva, y que fue construido en la primera mitad del siglo XIV.

La portada de Deva y la de la desaparecida parroquia de Elgóibar, así como la primitiva de Motrico, en las proximidades de la casa-torre de Berritua, podían ser unas buenas muestras góticas a considerar dentro de la citada ruta. Y un detalle a tener en cuenta en el desarrollo de este comercio, puede ser el Fuero de Vitoria que han gozado las villas de Motrico (otorgado en 1294), Mondragón (en 1298) y Deva



(en 1381), con algunas exenciones sobre el otro Fuero de Logroño. A esto debemos añadir, en el caso de Mondragón, el haber sido cabeza de los municipios del Valle de Léniz, con Arciprestazgo, en aquellas épocas que integraba el mencionado Valle.

Su situación geográfica y las minas de hierro que tuvo antaño, hacían de la primitiva Arrasate una de las villas más privilegiadas de la provincia. De sus ferrerías salían las espadas de fama que se competían con las de Toledo, sus bosques suministraban el carbón vegetal necesario para fundir y labrar el mineral que salía de sus montañas y la vida comercial fue muy floreciente. Con Tolosa, era la primera villa guipuzcoana hasta la quema de 1448. Esta asolación ocasionada en las fraticidas guerras de bandos fue la causante de la pérdida de su vida esplendorosa. Y su parroquia de San Juan Bautista, el primer gran templo gótico de Guipúzcoa, es el testimonio más fiel de la importancia de su pasado.

Este templo gótico fue erigido el siglo XIV, entre los años de 1340 y 1350. Esta catalogación como gran templo, le viene a diferencia de los de una sola nave. Pues, este de Mondragón posee tres naves con crucero, con ábside poligonal y capillas absidiales en el crucero. Su estructura arquitectónica, aunque más modesta, tiene similitudes con la de San Pedro de Vitoria, y su fecha de construcción es anterior a la misma. En la nave central lleva arcos colaterales para contener el empuje de las bóvedas. Sus tres puertas son ojivales y abocinadas carentes de ornamentación, con sencillos capiteles entre los baquetones de sus jambas y arquivoltas. Por el exterior, gruesos estribos sostienen el empuje de las crucerías.

El coro es un capítulo aparte, de doble piso y estructura de madera, de época muy posterior a la construcción del templo <sup>1</sup>.

Esta iglesia monumental cuenta en su efemérides la predicación de San Vicente Ferrer durante la Semana Santa de 1408 y el bautismo de Esteban de Garibay, príncipe de los cronistas españoles, en 1533.

A pesar de que el tiempo ha dejado su huella, de transformaciones y deterioros, mantiene su primitiva estructura gótica. Está necesitada de una gran restauración que muy bien se la merece.

1980-V-12.

1. Al publicarse el artículo recibí unas atentas notas de mi buen amigo el mondragonés José Letona Arrieta, en las que me facilita algunas precisiones y datos ampliatorios sobre los órganos de la parroquia de San Juan Bautista de Mondragón, los cuales considero oportuno publicar como complemento:

«Existía el órgano en el año 1538. Y el 27 de enero de 1646, informa el cabildo al provisor de Calahorra que necesitaba imprescindibles arreglos. Que se

realizaron ese mismo año. En 1677, el organero José Echevarría, vecino de Oñate, construyó un nuevo órgano. En la escritura hicieron constar sus registros, entre los que figuran: juguetes, cascabeladas, gaita zamorana y atabales. Este órgano debió durar hasta 1913. Siendo sustituido, este mismo año, por el actual de la fábrica de órganos de «Lope Alberdi», Paseo de Gracia en Barcelona. Su propietario era natural de Gauteguiz de Arteaga (Vizcaya). Se inauguró la víspera de San Pedro, domingo, en la Misa Mayor, el 28 de junio de 1914. Se montó en el nuevo coro lateral alto, del lado del Evangelio. Hacia 1950 se trasladó al coro alto de atrás, donde fue electrificado en 1959, aplicándole una consola nueva, además de toda la instalación eléctrica» (En esta época debieron colocar la marca Brum junto al teclado).

## ITZIAR

Ezta gipuzkoarrik Itziar ezagutzen ez duenik. Debako auzo hau, herriaren ekaldetik dauden hegien lepo gain batean kokaturik, Andutz mendiaren babespean eta itsas-hegalera begira aurkitzen da, Bizkaiko mugatik hurbil, paraje eder batean. Gipuzkoako hiririk zaharrenetako bat da eta bere berrien lehen agiriak XI. mendekoak dira. Eliza gotiko apal bat du Andra Mariren izenean eta imajina erromaniko bat gordetzen du, Santio-bideko erromesak igarotzean atsedean leku eta itsas-gizonak izar-gidaritzat hartua zuten Erdi-arotik.

Nafarroako errege Santxo Nagusiaren garaian, 1027. urtean, Iruiñeko elizbarrutian agertzen da. Handik laster Gipuzkoako mugatzat, Itziartik Durangora bitarteko lurraldean, Arabaraino (gaurko Debarrua eta Markinaldea barne hartzen dituela), Bizkaiarekin mugatzeko utzi zen lurraldea bereizteko egin zen tratuzko agirieta ere bai.

Baina ikus dezagun gaur egun Itziarrek zer duen berezirik.

Eliza, esan bezala, aspaldiko denbora haietatik aipamen bereziz heldu zaigu. Bizkai-Gipuzkoetako itsas-gizonak Itziarrentzat izan duten debozioa argi azaltzen zaigu Juan de Esnaolaren *Santa María de Itziar* deritzan obran (Bergara, 1927). Liburu honen 91-100 orrialdeetan ikutzen bai du gai hori. Bertan jasotzen ez duena, eta itsas-gizonak Itziarri zioten maitasuna egoki adierazten duena, Elkanoren hilburukoa da. Munduaren bira lehen aldiz eman zuen getariarrak, 1526an Pazifikoko uretan egin zuen testamentu hartan, bere deboziorako zituen elizekin oroitu zen eta Getariako parrokiarentzat 6 dukat urrezko utzi zituen, Askizuko San Martín ermitarako 12, Sasiolako Monastegirako 10, Hondarribiako Guadaluperako 6, beste zenbait eliza eta ermitetarako dukat bana, baina Itziarrerako 40 dukat urrezko.

Hor agertzen da itsas-gizonek nolako zaletasuna zuten Itziarko Andra Mariarentzat.

Elizan, esan bezala, Birginaren imajina erromaniko polikromatua gordetzen da, XII. mendearen azkenaldikoa edo XIII.aren lehen partekoa, Aita Lizarralde bere iker-lanetan agertzen duenez. Hau du Itziarrek lehen lehengo arte ageri zaharretik baliagarriena. Gipuzkoan bertan, Irungo Junkal Andra Mariaren ondorengoa dugu zahartasunez.

Garai hartako Itziarren lurraldeetan, XIII. mendearen azken partetik XIV.a zehar izan zen merkatalgoaren hazkuntza, Deba ibaiaren irtera berean kokaturik, eta hiri berri bati eman zion hasiera, mende baten buruan Itziar bera baino handiagoa izatera helduko zena: gaurko Deba. Herrialdearen administralgoa, denborarekin, hona pasatuko zen eta Itziar auzo soil bihurtu.

Aintzinako denboren agiriz, Andra Mariaren irudiaz gainera, hor gelditzen zaigu eliza bera, gotiko egiturazkoa, XVI. mendean XIV.ekoaz baliaturik berriro eraikia. Solairu batekoa, sabai gurutzatuz, hamabost metro t'erdi ditu zabaleran eta hogetahamar doi doi luzeran. *Arquitectura serioa, apaingarri gutikoa. Onofre Larumbe eta Maria A. Arrazolaren lanetan ongi estudiatua dator.*

Bere barnean, Andra Mari erromanikoaz aparte, erretaula zoragarri bat gordetzen du. Erretaula hau Pizkundearen hasieretakoa dugu, plate-resko deritzen diren hoietakoa eta estilo honetan ames egin ahal genezakeanik hoberenetakoa noski. Arte obra onekin maiz gertatzen den bezala, nolabait ere egile baten izenpean babestu nahia, arteak berez ona izatea aski ez balu bezala. Egileren bati erantsi nahiak ekarri dio Itziarko erretaulari nahikoa eztabaida. Esnaolak bere lanean Jose Aldazabal zenaren ageriak azaltzen ditu, erre zen artxibo zaharrea oinarritu ezinik, erretaularen egiletzat Andres Araoz jartzeko eta Georg Weise alemanaren iritzien kontra jartzen da. Baina, esanak esan, alemanaren begi zoliak aski argi utzi zuen Eibarko elizako erretaula egin zuenaren eskua eta Itziarkoa eginzuenarena ez zirela esku bera. Eta, uste dut arrazoi handia zuela Weise-k.

Itziargo erretaularen egile izenik ez badakigu ere, ez dio Eibarkoari zorrik, eta estiloz ere hau baino lehentxeagokoa da. Azken berria, J. M. Agirrebaltzategi oñatiar jatorragandik jakin dut; jatorra bezain langile den jaun honek Protokoloetako paper zaharretan aurkitu du Araoz-ek polikromatua izan zela Itziargo erretaula. Argibide hontatik ikus genezake, Aldazabalek, seguru asko, polikromatze eta urreztatzearen berria izan zuela eta hortik nonbait iduritu zitziola eskultura ere berea izango zela, zeren A. Araoz garai haietarako eskultore ospetsua izango zenez.

Behar bada noizbait zerbait aurkituko da argi gehiago emango diguna, baina oraingoz, Itziargo erretaularen egile izenik ez dugu ezagutzen; baina honek ez dio ezer kentzen Gipuzkoan den plateresko erretaula onena izatetik.

Aipatu dugun polikromia, errejeta baten ondorean galdu zuen eta gaur egun zurezko irudiak soil soilik nabari dira, eskulturaren edertasunean ezer galdu gabe.

Elkanoren hilburuko diruz egina ote da? Hau da beste gauza zalantzarri bat. Juan Sebastian Elcano getariarrak bere ondasunak hilburukoz banatu zituen, baina hil zenean apenaz zuen dirurik. Testamentuan banatu zuen dirua haina hartzeko bai, bazuen; batez ere erregeak, orduko gobernariak, dirutza handia zor zioten Elkanori. Kobratu ote zen? Hara hemen gure historiaren ikerketetan oraindik bete gabea. Egunen batean jakingo ahal dugu.

Dena dela, Itziarren, aipatutakoez gainera beste gauza ikusgarrikerik ere bada eta hauen artean, eskubialdeako aldarean aurkitzen den sagrario tipi bat, Antxietaren eskolako eta behar bada bere ikaslerik argienetako irten zen Bengoetxeak egina.

Azkenik, esan dezadan, gure arte balioak hain ugari ez direlarik ere, zer pena ematen duen hain abandonatuak ikusteaz. Itziargo erretaula, Gipuzkoako erretaula platereskoetarik onena noski, pipiak joa dago eta ahalik lasterren sendakuntza eskatzen du. Agintari eta herri, guzior artean ez ote da ezer egiteko modurik? Gure herri nortasuna ez dezagula jan-edanean diruak emana eta indarrezko ahalmenak soilik erakutsiaz agerrerazi, herriarenganako maitasunak hori baino gehiago eskatzen du.

## Iciar

El templo de Nuestra Señora de Iciar nos ha llegado cargado con su fama de santuario y resulta difícil de evocarla sin verla unida a peregrinaciones, principalmente de las zonas costeras vascas. La veneración que guardan los pueblos marineros de estas provincias, desde muy antiguo hasta nuestros días, está bien atestiguada en la obra de Juan Esnaola. Y, aunque no conste en la obra de éste, el propio Elcano, navegante que dio la primera vuelta al mundo, tuvo tanta devoción hacia esta Virgen que en su testamento, repartido entre varias Iglesias guipuzcoanas, la cantidad mayor la destina para Iciar, incluso más que a la propia parroquia de San Salvador de Guetaria, en cuyo re-

parto se lee: «Item, mando a la iglesia de nuestra Señora de Iziar cuarenta ducados de oro para que hagan con ellos unos ornamentos».

En el santuario se conserva la talla en madera policromada de una virgen románica de finales del siglo XII o primeros del XIII, según la opinión autorizada del R. P. Lizarralde que estudió la imagen.

El comercio desarrollado en la zona de la desembocadura de su jurisdicción desde primeros del siglo XIV, dio crecimiento a un nuevo núcleo de población para dar vida y nacimiento a la actual villa de Deva y, con el tiempo, restar importancia, hasta desplazar el centro administrativo, y reducir a simple barrio la primitiva villa de Iciar.

Pero como testimonio de viejas épocas, además de la virgen románica, ahí nos queda el actual templo de Iciar, de estructura gótica, construido en el siglo XVI sobre otro anterior del XIV. Su única nave, con bóveda de crucería, mide 15,52 metros de ancho por 29,80 metros de largo. Obra muy austera; prácticamente sin ornamentación.

En su interior, además de la talla románica de la Virgen, alberga un precioso retablo donde el arte refinado del plateresco llegó a su culminación. Su autor o autores, eran muy artistas; no sólo los que dispusieron sus elegantes proporciones, sino los que tallaron sus preciosos grupos, las estatuas todas. Y los medallones que las rematan, y las cabezas que corren en los frisos de las cornisas, llenas de expresión y de vida, son obra de un gran maestro. Más tarde fue policromado por Araoz y se estropeó durante un incendio. Se sabe que Elcano no tenía dinero en efectivo, pero sí que le debían muchísimo, toda una fortuna, empezando por los propios reyes. ¿Se llegaría a emplear este dinero en la construcción del retablo?

1979-X-22.

## ZUTOIDUN ELIZAK EUSKAL-HERRIAN

Kultur gaietan, euskaldunok, eman baino gehiago hartu egin dugu, gure historiak erakusten digunez. Besteak beste, plastika arteetan hala gertatzen da. Baina, egia esan, Erdi-arotik, artegintzak unibertsalak dira Europako mendebaldean behinik-pehin, nazioarteko korrentean dabilenez. Toki edo inguru batean sortu izan diren estilo berriak zabaldu dira nora-nahi, eta bereizgarririk ezer aurkitzekotan herri artean aurki genezake. Hemen, estilo bakoitzaren barnean ere, inoiz, herri arteak izan bai

ditu bere jokera bereziak, eta hoietan ere, monumentu handietan baino gehiago somatuko dugu ontzi edo haltzarrietan.

Hala ere, horrek ez du esan nahi uste hau bete betean eta beste gabe ontzat hartzekoa denik. Erromaniko eta gotiko garaian Andre Mari irudiak bertako joera berezi bat duten bezala, etxegintzan ere hori bedori aurkitu genezake. Baina monumentu handietan, XVI. mendean aurkituko dugu gauzarik bitxiena: «euskal gotiko»tzat ezagutzen den arkitektura.

Espainiako eliza handiak estudiantzen ari ziren arkitektoak oharu ziren hortaz, eta gure mende honen lehen partetik «gótico vizcaíno» eta «gótico vascongado» deitzen hasi ziren, arkitekturazko bereizkuntza hoiek hemen inon baino ugariago aurkitzen zirelako.


Gotikoaren bukaeretan, XV. mendean, K. Etxegarayk argi utzi zigun bezala, Euskal-Herriko harginak ez ezik arkitektoak ere edonon ari ziren eliza handiak eraikitzen. Neuk ere eman nituen zenbait berri *Gogoz* deritzan liburuan, batez ere 189-192 orrialdeetan. Arkitekto edo harginen maisu ziren horien ekintzatik sortu zen diodan berezitasun hau. Gotiko erazko sabaia ongi egiten ikasi zutenek, nonbait, Pizkunde garaian ez zuten aurkitu era hoberik edo atseginagorik eta lehen lehengo sabaigintzari jarraitu zioten. Baina ez hori bakarrik. Gotikoan egiten ziren hiru zolairudun eliza haiek, erdikoan sabai altuagoa izaten zuten eta kanpokaldetik, euskarri, habeak arbotantez. Hemen aldatu zuten hori hiru sabaia altura berdineran eramanez eta eliz barruan zutoin klasiko handiekin sabaia eutsiaz. Horrela, barnetik, elizak handiago eta ederrago egin zituzten. Behar bada, herri euritsu hontan elizaurreetan egiten ziren batzarrak barrukaldera eramatean asmatu zuten. Hala dirudi.

1918 euskal jakintzez Oiñatin egin ziren batzarretan F. López del Vallado zenak eman zuen hitzaldian, ederki adierazi zituen «euskal gotiko»aren bereizkuntzak zertan ziren eta gure egunotan askozaz narrogo jardun zaigu Maria Asunción Arrazola «El Renacimiento en Guipúzcoa» lan ederrean. Bereizkuntzak zertan diren lehen tomoaren 95-99 orrialdeetan adierazten ditu, baina eleiza hoietako 11-ren estudio sakonak datoz, beste zenbaiten artean. M. A. Arrazolak 12 eliza zutoin dunen berri ematen digu, guziak ongi estudiatuaz, Idiazabalgoa ez ezik.

Gehienok, sabaia, izarrez dute, gotikoan ohi bezala; baina, badira Pizkunde garaian hedatu zen apaingarriz agertzen direnak ere, Azkoiti eta Azpeitiko elizak bezala.

Hara hemen Gipuzkoako zerrenda:

XVI. mendearen lehen partetikakoak, Errenderia, Azkoiti, Bergarako Ariznoa, Azpeitiko Soreasukoa eta Eibarko parrokiak. XVI.aren



*Eibarko eliza, zutoidun elizetarik korintio erako bordoinburuak dituen bakarra.*

bigarren partekoak, Bergarako Oxirondokoa, Tolosa, Segura, Zumarra- ga, Idiazabal, Deba eta Irungo parrokiak.

Probintziarako Bellas Artes-ko kargua eman zidatenean, nere le- henengo eginkizuna, eliza guzi horien agiriak, planoak eta argazkiak biltzea izan zen, probintzia mailan behinik-pehin monumentu eskaria egiteko. Debakoa eta Irungoa lehendik bai ziren monumentu dekla- ratuak.

Asmo honekin, gure hargin haiek behar bezala epaitzeaz, eliza ho- riei behar duen garrantzia emateko eta aurrerantzean ahalik txukunen gordetzera ahalegintzeko.

Honegatik, atsegin handiz ikusi dut berriki joan zaigun Kastor Uriarteren «Las iglesias «salón» vascas del último período del gótico», Gasteizko Fournier-enean hain apain argitaratua. Era hontako elizen katalogoa da, argazkiz aberats eta Euskal-Herriko guzien planoz jantzia.

Aipatu ditugun gipuzkoako horiez gainera, Euskal-Herriko beste be-

deratzi eta Espainian sakabanaturik dauden 14-ren berriak ematen ditu. Zutoindun elizok, 35 dira guztiz. Gipuzkoan 12, Bizkaian 6, Nafarroan 2, Araban 1, Toledoko probintzian 5, Burgos-en 3, Erriojan 2, Guadajara-n 2, Soria-n 1 eta Badajoz-en 1.

Esan dugun bezala, eliza horiek, hiru zola, zutoin klasikoak, hiru sabaiak altura berean berdinduak, zola errektanguluan elizburua poligonal dutela. Era hauetakoetan, behar bada elizarik eredugarriena Segurakoa dugu, eta, bere ondoren San Pedro Ariznoakoa Bergaran.

OHARRA: Ikus *Gogoz* deritzan liburuaren 189-192 orrialdeetan «Euskal Herriko artisten eragina» artíkulu hau hobeto ezagutzeko lagungarri, baita.

Hontaz, lan luzeago bat, euskara hutsean, Aurrezki Kutxa Probintzialaren *Guipuzcoa* 81 aldizariaren 39 eta 40 zenbakietan eman nuen.


### Las iglesias columnarias en el País Vasco

Las iglesias columnarias o iglesias «salón» constituyen una singularidad arquitectónica, desconocida en Europa, escasa en España y frecuente en el país vasco. Los estudiosos de la arquitectura religiosa, desde primeros de siglo, a este tipo de iglesias han venido llamando «gótico vascongado» o «gótico vizcaíno», por su abundancia en nuestro país.

Las particularidades de este aspecto arquitectónico fueron difundidas en nuestro mundo cultural por Félix López del Vallado, S. J., primero en el capítulo de Arqueología del tomo de generalidades de la «Geografía General del País Vasco-Navarro», páginas 903 y 913 y luego, con mayor amplitud, en su conferencia del Primer Congreso de Estudios Vascos, en 1918, y que fue publicada en el volumen que recogían los trabajos de dicho Congreso. En esencia, constituye una transformación de la construcción ojival que según el autor referido: «cuyas características, por regla general, son, la planta primitiva basilical, de tres naves con sólo un ábside en la central: las tres naves son de igual altura, carecen de arbotantes, sus apoyos exteriores son gruesos y salientes contrafuertes, alguna vez escalonados; los interiores, y esto es lo que más los caracteriza, son altísimas columnas, con capiteles clásicos, de uno y otro género; en los ábacos de éstos, o en la prolongación del fuste sobre los ábacos, descansan las crucerías. Suelen ser éstas, estrelladas, o de nervios ondulantes que exhortan los fundamentales de la ojiva».

Estos templos se erigieron el siglo XVI, y no les queda de ojival





*San Miguel Arcángel de Idiazábal (Guipúzcoa).*

más que la altura de las naves y las crucerías. Si tendría que elegir alguna iglesia como prototipo de lo descrito, me inclinaría en primer lugar por la parroquia Asunción de Nuestra Señora de Segura (Guipúzcoa), aun reconociendo que San Pedro de Ariznoa (Vergara) puede servir como típico ejemplo. Ntra. Sra. de la Purísima Concepción de Elorrio y Ntra. Sra. de la Asunción de Xemein.

Una descripción más amplia y detallada del «gótico vasco» la hallaremos en «El Renacimiento en Guipúzcoa» de María Asunción Arrázola (tomo I, pp. 95-99).

Estas iglesias columnarias que normalmente llevan bóvedas góticas de tracerías estrelladas, en sus transformaciones evolutivas, a veces, las bóvedas de crucerías estrelladas fueron sustituidas por otras vaídas como en San Juan de Aulestia, con nervios en retícula formando casetones al estilo renacentista, como podemos contemplar en las pa-

roquias de Nuestra Señora la Real en Azcoitia y San Sebastián de Soreasu en Azpeitia.

En consideración a estas singularidades arquitectónicas, la comisión de Bellas Artes de Guipúzcoa preparamos los expedientes oportunos para incoar monumentos provinciales de interés Histórico-Artístico a diez templos guipuzcoanos (que son doce en total, pero que de los mismos dos estaban ya declarados monumentos nacionales), para resaltar por su interés y crear conciencia de su importancia en nuestro suelo y al propio tiempo rendirles el merecido reconocimiento a aquellos maestros de cantería que supieron dar espacio, monumentalidad y carácter a nuestros templos.

Al propio tiempo de esta valoración, ha sido para nosotros una sorpresa muy grata la aparición de la obra «Las iglesias 'salón' vascas del último período del gótico», del que es autor el recién fallecido arquitecto Castor de Uriarte. Esta obra cataloga las 35 iglesias columnarias existentes, de las cuales 21 ubican en el país vasco y 14 en el resto de España, distribuidas en seis provincias.

1979-II-26.

NOTA: Ved el libro titulado *Gogoz*, páginas 189-192 el artículo «Euskal Herriko artisten eragina», que se complementa a una mejor interpretación del presente artículo.

## **OÑATIKO BIDAURRETA, GIPUZKOAKO MONUMENTU BEREZI BAT**

Bidaurretako Monastegia, Gipuzkoan lehenbiziko moja komentua, 1964tik probintzi mailako monumentua zena, aurtengo irailaren bostetik nazional mailako bihurtzen da, bere inguruko Franziskotarren Erresidentzia eta Olakua torretxearekin batean.

Hiruretatik edifiziorik zaharrena Olakua da, XV. mendearen lehen partean Peru Lopez de Lazarraga zenak eraikia nonbait eta bere lehen agiria 1442an bere seme Joani hilburukotzat uzten diona. Joan Lopez de Lazarraga, Errege Katolikoen kontadorea eta erreginaren albazeetarikoa bat izan zen. Bere handikitasunari zegokionez, bera eta bere sendeak hobiratzeko kapera berezi bat eraiki nahi zuen San Migel parrokian, baina Oñatiko kondeak eragozpenak jarri zizkion nonbait eta horregatik erabaki zuen Bidaurreta torretxearen ondoan (orain Olakua bezala ezagutzen den dorrea bera bai zen Bidaurreta zeritzana) Mo-

nastegi bat eraikitzea. Inguruko ermitetan izaten ziren freirak deitu zituen eta 1510. urtean sortu zuen, klarisa komunitatearen barnean eta probisionalki torretxean bertan jarriaz.

Monastegia 1510 eta 1520. urteetan eraiki zen. Joan Lopez de Lazarraga sortzailea eta Joana de Gamboa bere emaztea, Monastegia bukatu baino lehen hil ziren eta beren gorpuak Olakuan hobiratu ziren, Monastegia bukatzean hona pasatzeko.

Residentzia, Monastegiarekin batean eraiki zen, elizkizun zerbitzuetarako.

Maria Comas-ek (1936) egin zuen estudioa behar beharrezkoa da Bidaurreta eta bere sortzaileen historia ezagutzeko. Monastegiaren arte balioez berriz M. A. Arrazolak Gipuzkoako Pizkunde arteaz burutu zuen lan nagusi hura eta geroago Oñatiri eskaini zion liburuxka. Iñaki Zumaldek ere, *Historia de Oñate* liburuan zenbait orrialde eskaintzen dizkio Bidaurretari.

Eliza, Trinitateari eskainia, bere egituraz beranduko gotiko estiloduna da, eta kanpokaldera azaltzen diren zenbait leiho eta fatxadako apainduretan Pizkunde estiloa nabari da. Gainera, bi aldeetara Errege Katolikoaren sinboloak, uztarri eta geziak armarri handi baten azpian. Elizaren zola latin gurutzazkoa du, eta bere sabaia, gotikoan ohi zen bezala, uztai gurutzatuz egina, beren giltzarrietan erregeen, sortzaileen eta frantziskotarren armarriekin. Aski laztasunez eraikia da.

Lehenago, Errege Katolikoaren hirugarren armarri bat omen zuen elizaren atzekaldean, baina geroztik han ideki zen leiho bategatik kendu zuten, eta armarri horren harriak gaur egun Artzubi baserriko leiho bat apaintzeko jarriak daude.

Elizako erretaula nagusia, beranduko barroko hoietakoa, Jacinto de Sierra fraileak egina da, XVIII. mendean. Lehengo erretaula zaharra, urte guti dela berriz jarri dute elizan (berria egin zenetik klausurako partean gordea bai zen), gurutzatzen den ezker alderdian. Hamaseigarren mendearen lehen partekoa da, «plateresco» deritzan estilokoa, Burgos-ko lantegietan egina. Oso lan ona, bai eskultura aldetik eta bai polikromia aldetik. Arte aldetik, dudarik gabe, elizak duen gauzarik balagarriena.

Bai Monastegiak eta bai Residentziak, beren kalostreak dituzte; adreiluz eginak dira gainera. Bietan, eta Refektorioko sabaian, mudejar erak agertzen dira. Behar bada gure probintzian lehenengo mudejar agiriak Loiola dorrearekin batean.

Gipuzkoako herrietan arte balioak inon zaindu badira, Oñatin zaindu dira. Hala ere, lastima izan zen Monastegia eta Olakua bitartean etxe berriak eraikitzea, Hiriko plangintzan, hor utzi behar zen pa-

sealeku edo jolasleku zabal bat, hiru edifizioen ingurua errespetatuz, hauek historian elkarri loturik daudenez, etxe berriak kanpokalderuntza luzatuz. Hola garaiz jokatu bazen, etxe horietako biztanleentzat ere inguru atseginagoa lortuko zen. Baina, maiz gertatzen dena, joanak joan.

Oñati, bere Unibertsitate, San Migel parrokia, Udaletxea eta zenbait dorre zahar eta jauregikin Bidaurretako Monastegia barne dituela, Gipuzkoako herririk atseginenetakoa dugu, bai arte aldetik eta bai paisaje aldetik. Zaharra berriztatze kontuan ordea, manposteriaz egindako horma batzuk berriz karez zuriturik utziko balira (hortarako eginak zirenez), herri eredugarria litzake. Eta, ezta guti esatea herri baten alde, probintzia guzian ezagutu ditugun disparteak ezagutu ondorean.

### **Bidaurreta de Oñate, un monumento singular de Guipúzcoa**

El Monasterio de Bidaurreta de Oñate constituye un monumento singular de Guipúzcoa. Estaba declarado monumento histórico-artístico, de carácter provincial, desde 1964 y desde el 5 de setiembre del presente año queda incoado el expediente, junto con los edificios anejos, casa-torre de Olakua y la Residencia de los Padres Franciscanos, para que se declare de rango nacional.

En sus raíces, el edificio básico, fue la casa-torre que hoy conocemos por Olakua, cuyo primitivo nombre era Bidaurreta y pertenecía a la familia de los Lazarraga. Una casa-torre gótica de comienzos del siglo XV, que su primer testimonio escrito aparece en 1442, en el testamento de Pero López de Lazarraga. Tenía otro edificio anejo que era molino y a primeros del siglo XVII se convirtió en ferrería. De ahí su nombre Olakua.

A Pero López de Lazarraga le sucedió su hijo Juan, que se casó con una Gamboa y fue contador de los Reyes Católicos y uno de los albaceas de la Reina Isabel. Por su alta alcurnia parece ser que aspiró a levantar una capilla familiar en la parroquia de San Miguel, al que se opuso el señor conde de Oñate, y fundó el Monasterio de Bidaurreta en 1510, instalando provisionalmente a la comunidad de monjas clarisas, hasta la construcción del Monasterio, en su casa-torre, que hoy conocemos por Olakua. Torre rectangular de dos plantas con la elevación de otra tercera de ladrillo. Aún mantiene una puerta ojival y tres ventanas geminadas.

El Monasterio, con su Residencia aneja para los servicios del culto, se construyó entre los años 1510 y 1520. Durante ese espacio de

tiempo fallecieron los fundadores que recibieron sepultura en la capilla de Olakua y luego pasarían al Monasterio. Primer convento de monjas de Guipúzcoa; pues hasta entonces sólo había beaterios.

El Monasterio de Bidaurreta es un edificio sencillo, austero, de estilo gótico en su estructura arquitectónica, presentando al exterior ventanas y fachadas renacentistas, con sabor isabelino. Su iglesia está dedicada a la Santísima Trinidad. Con planta de cruz latina, de una sola nave y bóveda de crucería, con escudos reales, de los fundadores y los franciscanos en sus calves. También en las fachadas aparecen escudos de los Reyes Católicos, los de Lazarra-Gamboa y de los PP. Franciscanos. Tenía un escudo más en el ábside, que se quitó al abrir una ventana y parte del mismo, hoy, se conserva ornamentando la ventana del caserío Artzubi.

La Residencia es del mismo estilo de transición del gótico al renacimiento, pero aún con más austeridad que el Monasterio. Ambos edificios poseen claustros de influencia mudéjar, estilo que aparece más acusado en los ornamentos del techo del Refectorio.

El retablo de la capilla mayor de la iglesia es barroco con elementos rococó, obra de Sierra, del s. XVIII. Es mucho más interesante el retablo primitivo, del que María Comas Ros se lamentaba el no poder ver, para su estudio de tesis doctoral, por encontrarse entonces en la parte clausurada. Hoy se encuentra en el brazo derecho del crucero de la iglesia, junto al sepulcro de los fundadores. Es obra de primeros del XVI, del más puro estilo plateresco, con talla fina y delicada. Procede de un taller de Burgos, al que encargaron los fundadores. Sobre el banco, donde se efigia el apostolado (en tres grupos) se historian, en relieves escenas de la vida de María; el último cuerpo presenta la creación y el pecado de Adán y Eva, y está rematado con hermoso Calvario. Hay profusión de conchas, balaustres, grutescos y demás elementos decorativos del primer renacimiento español. Una descripción más amplia la hallaremos en el opúsculo que María Asunción Arrázola dedicó a Oñate, y para la historia general del Monasterio es obra indispensable la de María Comas.

1980-XI-3.

## PLAENTZIAKO ELIZ-ATARIA

Gure auzoko Plaentzia ezta itxurari begiratzekoa. Itxuragatik bakarrik begiratuko bagenio, oso itsusia aurkituko genuke. Baina, kaioiak ez du egiten txoria; ez. Herri honetan gizona da jenero baliozkoa. Egia esan, edonon ere gizonak gehiako balio dute kale eta etxeak baino; baina, hala ere, gure auzoko Plaentzian.

Plaentzia, aintzinako Soraluze, mendartean hain zuloraturik egonarren eta autoen bide nagusia beti hain tratatua egonarren, herria bera ere askok uste baino ederragoa da. Herri artearen aldetik badu gauza ukusgarrikerik ere, San Rokeitik hasi eta San Andresera, Ezozi, Ernizketa eta Irure ahaztutzeke. Baina, gaurko hontan bertako parrokia eta «eliz-ataixa» soilik aipatuko ditut.

Artikulu hau idaztean, Ramiro Larrañaga adiskideari eskaintzea pentsatu nuen, baina nola eskaini nezaioke emango ditudan ageri guztiak bereak izanik? Izan ere, Ramirok, urtetan, txingurriak bezala jardun du bere herriko historia aztertzen. 1970. urtean monografia bat agertu ondorean ere, hor jardundu lan eta lan, materialak garreatuz eta igazko Santa Ana-Andra Mari jaietarako Kontsejoak argitaratu zuen programan eman zituen bertako eliz-atariari buruz orain arte bildu ahal izan dituan guztiak.

Gure hontan ordea, ataria soilik hartu gabe, eliza beraren zenbait gauza jakingarri azalduko dugu, gehiena Ramiro berari zor dioguna.

Jakina da Soraluze hiri-bildu (villa murada) 1343. urtean izendatu zuela Gaztelako errege Alfonso XI.ak, *Plasencia de Soraluze* izena jarriaz, Soraluze eta Erlaibia (Herlaibia), ibaiaren bi alderdiak bat eginik. Baina eliza bera lehenagokoa dugu eta lehen berriak 1267koak.

Parrokia honek gotiko egitura du, baina parterik gehiena XVI. mendekoa du. Ate nagusia ere ojibala zen nonbait, baina geroako ateburua lautu zioten. Ate gainekaldean ordea, bi leiho ajimezek salatzen dute elizaren parte zaharra.

Sabai gurutzatu polita du, gotiko eraz Pizkunde garaian egina. Kapera nagusia Paskual Iturriak egina da Martin Igartzak diseinatu antzera. Maria Asunzion Arrazolak xehetasunez estudiatua da «El Renacimiento en Guipúzcoa» deritzan obraren lehen tomoko 271-277 orrialdeetan.

Elizak gordetzen duenik zaharrena Andra Mari imajina bat du, sakristian, XIV. mendearen lehen partekoa. Batzuen iritziz XIII.aren azkenaldikoa. Dena dela, herri-gotiko zahar hoietakoa da, eta hoietan ezta erreza mende kontua ziurtasunez igartzzea. Andra Mari hau izan zitekean eliza zaharreko irudi nagusia, Andre Mariaren deboziozko

denez. Honen ondorean, seguruenik, eliz- atariaren sarreran bertan gorde izan den Valladolid-eko eskolako Andre Mari barroko estilozko irudia izango zen noski. Lehenagoko erretaula, barrokoa, XVIII. mendean kendu bai zen Ventura Rodríguez-en diseinuzko baten ordeztu.

Baina, arestian esan bezala. Plaentziako elizak duen gauzarik bereziena, zera da, «Eliz-ataixa»; bai bere zurezko arkitekturaren aldetik eta bai apaingarrizko zura-lan ederren aldetik.

Zurezko lan ederrak badira Euskal-Herriko elizetan, Durangoko Santa Marian bezala, baina Plaentziakoak beste era baterako egitura du eta orokortasunez begiraturik guzietan ederrena dugu.

Plaentziakoak egitura bikaina du: zutoi, gapiro, euskarri, trabez eta abar eta guziak ederto tailutuak. Meritu handidun lana da. Pedro Aldazabal soraluzearren zuzendaritzapean egina da Antonio Aziondo debarrak diseinatu zuen araura, 1665 eta 1666. urteetan egina.

Gainera, aldapan egina denez, zolua mailaka du.

Zenbait aldetan pipiak joa aurkitzen da, beste parte batzutan zaharrez eta hoz-beroz zerbait gastaturik eta eregiekin. Hori gutxi balitz, aspaldi hegal bata moztu zioten eta alde batetik erortzeko arriskuan dago. Bada konponketarako proiektu bat ere Gustavo Kraemer-ek egina; baina dirua behar eta dirurik ez, eta konpondu ezik ez dauka luzaro irauterik.

Holako obrak ere herri bati bere nortasuna ematen diotenez, guzian artean ahalegindu behar gara atari hau berriztatzen. Ongi merezi bai du.

## El atrio de la iglesia de Placencia

Placencia de las Armas es de esas villas guipuzcoanas que se distinguen por el paisanaje y no el paisaje. De esto sabemos los eibarreses, donde el paisaje tampoco es envidiable. Y, aunque las calles por donde discurre la carretera general que cruza Placencia nos parezcan muy feas, el conjunto urbano de la antigua Soraluze, donde se conservan más casas típicas, tiene aún más encanto que el propio Eibar.

Pero lo que más llama la atención en Placencia, es el pórtico de su parroquia, que es una obra de arte monumental de estilo rural o popular del período barroco.

Las primeras noticias de esta parroquia se remontan al año de 1267, fecha en que el rey Alfonso el Sabio de Castilla, la cede en patronato a Juan López de Gamboa, señor de la casa Olaso de Elgóibar y cabeza de la parcialidad gamboína.

El actual templo, de una sola nave y de piedra sillar, es de estilo gótico que ha sufrido diversas transformaciones en el transcurso del tiempo. En su fachada principal, una puerta ojival dovelada que en período barroco fue recortada para dejarla cuadrada; sobre la puerta dos ventanas de ajímez y, aparte de alguna gárgola, la parte central de la nave con bóveda de crucería, son lo más característico de la primitiva arquitectura, que tampoco corresponden a aquella época de la primera noticia.

En la parroquia se conserva una imagen de la Virgen, talla popular gótica de primeros del siglo XIV, que bien pudo ser la titular del primitivo templo; además otra imagen de la escuela vallisoletana de Gregorio Fernández, hoy desplazada al atrio del templo, pero que en tiempos perteneció a la titular del retablo mayor barroco, que fue sustituido en la segunda mitad del siglo XVIII, por el actual, diseñado por Ventura Rodríguez.

Como ya hemos dicho, lo más extraordinario de esta iglesia es su pórtico de talla rural vasca. Constituyendo un ejemplar único por su conjunto arquitectónico y ornamental.

Obra fechada en 1666. Realizada por el placentino Pedro de Aldazabal, según traza del maestro carpintero Antonio de Aziondo, de Deva. Noticias éstas que debemos al entrañable amigo Ramiro Larrañaga.

Es un conjunto de estructura de madera que sostiene el tejado: pies derechos, correas, tornapuntas, ménsulas, barrotillos y largueros, enteramente tallados con azuela de peto. Un trabajo meritorio de artesanía, con una calidad artística ornamental que supera a muchos barrocos rurales.

Además, se distingue por la espectacularidad que representa un pórtico tan maravilloso en pendiente, con una disposición de dos pisos en gradas.

Pero su mal estado actual exige sea restaurado antes de que se venga abajo, y para ello conocemos un interesante proyecto de reconstrucción de Gustavo Kraemer, y esperamos se lleve a efecto.

1979-IV-2.



## SAN ANDRES ERMITA PLAENTZIAN

Gure mendi eta basoetako zenbait ermitak badute beren baitan nolabaiteko giro atsegin bat, herritar arte atsegingarriak eta bertako debozioaren graziak ematen dien berezitasunagatik. Honelakoa dugu Plaentziako San Andres.

San Andres-ek, gainera, negu parteko igandeetan poeta bat du predikari, giro berezi hori aberatsago egiten duena. Historian holakorik gutxitan gertatzen bai da. Nik ez dakit San Bizente Ferrer-ek bere garaian zer predikatuko zuen Arrasaten, bost mende igaro ondorean aipagarria izateko; baina, dena dela, orduko mondragoarrii kostako zitzaien hamabosgarren mendean ezagutu ziren emakume ereslari haiek bezalakoen abots ezta eta egoki agertutako esaldiak entzutea. Nere iduriz, haiekin berdintzekoa ez bada ere, Asis-koaren ezpaletik datorren poeta euskaldunak eman lezake gogoaren asegarririk. Eta hau da azken urteotan San Andres-en jazotzen dena.

Baina nere egitekoa ez da neronek betetzen ez dudanetik besteei eskatzea eta noan San Andresko arte balioak zertan diren adieraztera. Herritar artea eta herritarren gogoia ezagutzeko egokiak bai dira ermita hoiek.

Ermita bera, herriaren ekaldeko mendi maldan kokatua da. Oinez joatera, ordu erdi baino gehiago behar dugu; hiru ordulaurden hurbil. Baina kamino berri bat dago eta autoz joan daiteke. Paraje polita da, Soraluze menpean duela. Aintzina, inguruetakoroak gehiago lantzen zirenean, ekaitzetik gorde ahal izateko, Arteta baserriko nagusia izaten zen begirale, ekaitza zetorrenean ermitako kanpaia joaz auzoeri aditzera emateko. Hau zen «Ore-kanpaia» zeritzana. Ohitura honen berriak aspaldi eman nituen. Ikus «Gogoz» liburuaren 73. orrialdean. Ez bai du merezi berriro kontatzerik.

San Andres ermita, bere itxuraz, XVI. mendean eraikia da. Bere lehenengo agiri idatzia 1545ekoa, «San Andres de Yriaun» bezala, Ramiro Larrañaga Plaentziako historiagile adiskideak 1974ko Andra Mari-San Roke jaietako programan agertu zuenez.

Otaharri ubel eta berdezka eraikia da. Inguru honetan ugari bai da harri mota hau. Bere egituraz ez du ezer bereizgarririk. Harlanduzko atea arku biribilez eta baserrietan ohi den zurajea teilatuaren euskarri. Aldara partetik elizaren erdi ingururaino arku zapaldun zurasabaia, bere egituraz Arrateko elizaren sabaia bezalakoa. Gainerakoan ez du garrantzikorik ezer, zurezko koru arrunta izan ezik.

Irudiz nahikoa aberatsa da. Aldaratxo baten erdian San Andres (1,44 m.neurriz) romanista deitzen den hoietakoa. XVI. mendearen az-

kenaldiko beraz. Bere ondoan Andra Mari eder bat, geroxeagokoa, barrokora hurbiltzen. Birgina orbangabe hoietakoa da, eta Lizarralderen katalogoan jaso gabea (1,20 m.).

Bana irudirik bitxiena San Isidro da, laia eta igitaiarekin (0,78 m.). Imagina polit honen berriak R. S. V. de Amigos del País-en Boletinean eman nituen 1972an (XXVIII, 593-596 orrialdeetan argazki ta guzi). Bitxitasunik aski bazuen ere, joan zen mendeko alkateei bezalako kapela bat jarri zioten jerarkiatasuna eman nahirik Bestalde hamaseigarren mendeko irudia da, itxuraz. Beraz, Isidro santu izendatu baino lehenagokoa, eta garai batean debozioa aldatzeaz esplikatu lezakena. Sagrario zahar baten gainean jarria dago eta honek Flajelazioko irudi eder bat du. Hau ere XVI. mendekoa.

Aldararen bestaldera San Luis-en irudi itsusi bat, XVIII.aren azkenaldikoa, oso txarra. Bere odoan E. Agirreolea bergarar pintorearen lauki bat, oriopinturaz, Santa Luzia eta Santa Polonia errepresentatuaz.

Sakristian ordea Kristo barroko interesgarri bat (0,64 m.) Bere itxura arrunt eta gogorrarekin ere, tailu ederra da.

Aldara ondoan bada zeramikazko ontzi eder bat ere, *alfabeguer* horietakoa, neoklasiko estilodun polikromatua. Talavera-koa edo behar bada. Eta sakristian bertan beste ontzi bat garbiketarako.

Pulpittoa ere badu San Andres-ko ermitak, baina hau aspaldi Soraluzeko parrokiatik ekarria omen, Pizkunde garaikoa, zurez egina eta lau ebangelisten irudiak ditu (0,41 m.), romanista erakoak. M. A. Arrazolaren lanean jaso gabea.

Gure herritar arte zaharraren parte handi bat hor dago mendi eta basoetako ermitetan ahazturik eta bertako edergarrien tipologiak estudiatu beharra dugu, mende bakoitzeko joera eta aberastasunak ezaizterik nahi baldin badugu.

## La ermita de San Andres en Placencia

A las ermitas rurales que han mantenido la tradición espiritual de extensas comarcas, el éxodo de los caseríos les está arrastrando al declive de la decadencia, abandono y extinción, por mucha vocación que un día mantuvieran. Una prueba evidente fue mi artículo «Sandaili eta ingurua», del 19 de marzo próximo pasado, en estas mismas columnas.

Mi amigo Luis Pedro Peña Santiago que ha recogido tantas tradiciones en torno a sus respectivas advocaciones y que ha abogado en más de una ocasión en defensa y conservación de estos pequeños tem-

plos, también nos hizo ver la urgente necesidad de inventariar los valores artísticos que contienen.

La verdad sea dicha, poco se ha estudiado la imaginería popular del país, y estas ermitas están repletas de ellas. Esto me lleva con el presente artículo, a título orientativo, a dedicar un sondeo en una ermita muy popular como es San Andrés de Placencia. Que, además, durante la estación invernal goza para las celebraciones litúrgicas con un religioso extraordinario, hombre humilde y gran poeta, el R. P. Victoriano. Nadie mejor que él, a la manera de Francisco de Asís, para identificarse con el elemento popular.

San Andrés se sitúa en una loma alta sobre Placencia, la antigua Soraluze, enmarcado a media ladera en el angosto valle. Es un rústico templo del siglo XVI, construido con roca óftica, verdosa y morada, roca ígnea que tanto abunda en el lugar. Antaño, cuando se avecinaban



*Talla popular de San Isidro en la ermita de San Andrés de Placencia de las Armas.*

las tormentas, de allí se anunciaba al valle con el tañido de la campana, «Ore-kanpaia». Costumbre ésta recogida en mi libro «Gogoz». Y allí se han congregado durante siglos la mayoría de los habitantes de los caseríos de la parte oriental de la villa placentina. Su primera noticia escrita se remonta a 1545 y figura como «San Andrés de Yriaun».

La construcción no tiene nada de particular, excepto su estructura de madera del coro y techo. Sobre todo el artesonado de su bóveda que cubre la mitad del templo únicamente por el lado presbiteral, que es de arco rebajado, exactamente igual a la del santuario de Arrate.

Una hermosa imagen de San Andrés, de la escuela romanista, en madera policromada, preside el humilde altar. A su izquierda, una Inmaculada del mismo estilo, que no figura en la catalogación mariana del R. P. Lizarralde. Pero la escultura popular más extraordinaria es el San Isidro con laya y hoz, y tocado con un sombrero de copa. Esta singular figura la reseñé en 1972 en el Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País (tomo XXVIII, páginas 593-596). Posa sobre un viejo sagrario renacentista que tiene un precioso alto-relieve de la Flagelación.

Al otro lado del presbiterio, una mala escultura de San Luis y un cuadro al óleo del vergarés E. Aguirreolea, representando a Santa Lucía y Santa Polonia. En la sacristía, una tosca pero preciosa talla barroca del Cristo crucificado. Hay también un alfabeto con ornamentación neoclásica y que puede ser cerámica talaverana, y un lavabo más popular vidriado en blanco y ornamentación azul cobalto.

El templo también cuenta con un púlpito de considerables proporciones. Pero, según me informaron, procede de la parroquia de Placencia. Es renacentista y lleva buenas tallas en alto-relieve, de casi medio metro de altura cada una de las imágenes, y que representan a los cuatro evangelistas.

Está visto que una clasificación sistemática de la imaginería popular nos depararía grandes sorpresas. Por hoy, es una tarea a realizar.

1979-V-14.

## MUTRIKUKO ELIZA NEOKLASIKOA

Gipuzkoan ez ezik, Euskal Herriko eleiza Neoklasikoetatik onenetakoa dugu Mutrikuko eliza. Arrazoi honegatik izendatu zen joan zen abenduan monumentu. Izendapen hau, nonbait ezta izan guzien gogoño,

aurtengo otsailaren bateko *Deia*-an M. A. letraz honi buruz artikulua argitaratu zuenaren ustez.

Dena dela, ezta egia monumentu izendatze hori elizako arduradunei aditzera eman gabe egin zenik. Baina, horrela izan balitz ere, legezkoa zen. Gainera, monumentu inkoatzea, azken batean, proposamena besterik ez da eta ukatzeko errekursoa nornahik egin dezake, herri, eliza, udaletxe edo auzo elkarteek, baina hortarako arrazoiak jarri behar ko ditu.

Europako edozein Estaduko legeen arabera, monumentu deklaratzearen konpromizu bakarra, geroko belaunaldiengana iraunarazten laguntzea da. Beste esamesok ez dakit nondik aterako zituen M. A.-z izenpetzen zuenak. Gainera, argitu beharrezkoa iduritzen zait Bellas Artes batzordean Diputazioa eta Donostiako Udala partaide direla, eta, gaur egun, elizbarrutiko arte-arduradun egiten duena ere bai. Beraz, hemendik atera kontua, gauzak ez dira nolana ekiten. Eta, herriak, aurreratuagoak diren neurri berean, monumentuen alderako legeak orduan eta hertsia goak dira.

Mutrikuko parrokia, Asuntzioko Andra Mariren izenekoa, eliz-arkitekturaren estiloetan era berezi bat gordetzen duenetakoa da, Neoklasikorik ortodoxoena den aldetik. Silvestre Pérez (1767-1825) arkitektoak Espainiara ekarri zuen era berritze hartakoa dugu. Bermeoko parrokia, Donostiako udaletxe zaharra, Bilboko Plaza Barria eta beste ditugu arkitektu haren adibiderik onenak<sup>1</sup>.

Mutrikuko elizaren projektua 1798-9. urteetan egin da. Lehen hariaren jartzea 1803an izan zen eta 1845ean ideki zen elizkizunetarako. Baina S. Pérez berak ez zuen eraiki, baizik honen planuekin Laka eta Laskurain arkitektu mutrikuarren zuzendaritzapean eraiki zen. Aurreak greziar tajura du eta zola eta eraikia bizantino eraz. Kanpokalde guzira karaitz landuz egin da. Arkitektura aski hotza, Neoklasiko guziak bezala.

Eliza ez ezik bere ingurua ere diseinatu zuen Silvestre Pérez-ek. Oso ongi gainera Jose Ig. Linazasorok *Permanencias y arquitectura urbana* liburuaren 200-204 orrialdeetan ematen dituen xehetasunen arabera, idea berriak emanaz. Hark planteatu zuen bezala, monumentua bera inguruari loturik ederrago zen, baina, zoritxarrez, bere asmo hori ez zen jarraitu.

Espanian Ventura Rodríguez Neoklasikoaren bide berrietatik abiatu zenean, oraindik zalantzaz ari zen, eta barrokoaren erak guztiz baztertu ezinik ibili zen artean, Juan Villanueva alde batetik eta Castañeda bestetik, Blondel-en ideak zabaldu zituzten eta Neoklasikoa garaile irten zen. Estilo berri honen buruan daude S. Pérez, J. A. Cuervo, Callés eta beste. Euskal Herrikoen artean Ugartemendia eta Olagibel.



*Mutrikuko eliza.*

Elizaren barnean, Pizkunde garaiko ohol bat, Jaiotza aurkezten duena, 1790ean hondatutzat eman zen elizako agiri bakarra agian.

Baina barnean gordetzen den arte baliorik ederrena. Zurbaran-en lauki bat da. Kristoren agonia. Alturaz hiru metrora hurbiltzen da eta zabalez bi. Ibarburu kalongea emana. Eliza barnea berritzen ari direlarik, beretergoan bertan merezi zuen lekua. Ezer berririk egitea baino merkeagoa eta egokiagoa zen, eta obra harat honat erabili gabe behin betiko jarririk utzi guzien begi aurrean.

1. Silvestre Pérez-i buruz ikus *Bidez* liburuan 154-158 orrialdeak.

### **El templo neoclásico de Motrico**

La declaración de un monumento significa el reconocimiento expreso de un inmueble que, por sus valores históricos y artísticos, pasa oficialmente a integrar el patrimonio. Desde el momento de incoar el

expediente, recibirá un tratamiento especial para su protección. Cualquier entidad o ciudadano puede solicitar la incoación así como recurrir en contra de la declaración exponiendo sus razonamientos.

La declaración, como es natural, nunca perjudica los intereses del propio monumento, y sí beneficia a su conservación. En este sentido las exigencias son mayores en los países más desarrollados. En el nuestro, quedan fundamentalmente acogidos a la Ley de 13 de Mayo de 1933 y Decreto de 22 de Julio de 1958.

La iglesia parroquial de la Asunción de Nuestra Señora de la villa de Motrico, como obra arquitectónica viene a marcar un hito en el estilo Neoclásico. Es el primer ejemplo y sin duda el más auténtico u ortodoxo de dicho estilo, introducido en España por Silvestre Pérez (1767-1825). El proyecto está fechado en 1798-99. La primera piedra se colocó en 1803 y se abrió al culto en 1845. La construcción la dirigieron, conforme a los planos del aragonés Silvestre Pérez los arquitectos Manuel Vicente Laca y Mariano José de Lascurain, vecinos de la villa.

Cuando en España Ventura Rodríguez, entre otros, se inclinaba a la nueva corriente sin acabar de desprenderse del todo de las influencias barrocas, Juan de Villanueva (formado al amparo de su hermano Diego antes de ir a Roma) junto con Castañeda, difunde decididamente las ideas de Blondel y, al mismo tiempo, otras personas que aceptaron las teorías del nuevo sentido del historicismo clasicista como Arnal, educado en Francia, y otros como Casanova, Machuca, Sabatini, Hann, etc. De ese modo sale triunfante el Neoclásico. Pero el proceso fue culminado por otras figuras como Silvestre Pérez, Juan Antonio Cuervo, Pedro Manuel Ugartemendía, Callés, Olaguibel, etc.

Además de lo que representa en sí una obra del renovador aragonés Silvestre Pérez, el templo de Motrico representa el monumento religioso más importante de este arquitecto y también el templo más representativo del estilo Neoclásico que posee la provincia de Guipúzcoa. Por su interés como obra arquitectónica, va más allá del interés provincial, pues según el arquitecto José Ignacio Linazasoro, en su estudio, Silvestre Pérez planteó en Motrico, de forma rotunda, el tema del *monumento* en cuanto elemento *emergente* y a la vez capaz de reestructurar la ciudad a través de un nuevo concepto compositivo.

En el interior del templo se conserva una tabla renacentista, en altorrelieve, representando el Nacimiento del Señor, único resto del retablo de la antigua parroquia de la villa, que se declaró en ruina en 1790.

Pero lo más precioso que se conserva en su interior es un cuadro

notabilísimo, el Cristo de la Agonía, de Zurbarán. Lienzo que mide 272 x 198 cms. Obra donada por el canónigo Ibarburu, hijo de Motrico que fue maestro-escuela de la catedral de Sevilla.

1980-IV-7.

## GIPUZKOAKO SORTETXEAK

Gipuzkoako sortetxez liburu eder bat eskaini digu Roke Aldabal-detrekuek debarrak, *Casas Solares de Guipúzcoa* deritzana, igazko urtearen azkenaldean Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratua.

Liburu serioa iduritzen zaigu Aldabaldetrekuren hau. 99 sortetxe-ren berriak jasotzen ditu bere 376 orrialdeetan, beren historiaz, arki-tekturaz, egungo egoeraz, armarriz eta biztanle eta leinuz idazten du. Agiriz hain ongi taxutua denez, ondoko urteetan gai hontaz ihardun nahi dutenentzat behar beharrezko lana iduritzen zaigu.

Larogeta hemeretzi sortetxe hoietatik 83 Diputazioaren eskariz 1964ko urtarrilaren 17an probintziko monumentu deklaratu ziren haietakoak dira.

Orduan monumentu izendatutako etxeak, guztiz, 113 izan ziren. Gainerakoan komentu, ermita, zubi, arku, gurutze, plaza eta Udaletxe, 151 monumentu izan ziren. Gainera, Hondarribiko Pampinot kaleko etxeak eta Oiartzungo kale nagusikoak guziak sailean izendatu ziren. 1964ko urtarrilaren 29ko B. O. E. delakoan publikatu zen monumentu zerrenda hura. Haietarik, hutsen batzuegatik, gaur egun zutik ez dau-denen arteko dira Debako Irarrazabal, Elgoibarko Karkizao eta Legaz-piko Olaetxea.

Orduan izendatuetatik etxe eta gainerako zenbait edifizioaren ze-rrenda bat baizik ez zen ezagutzen. Orain ordea, Roke Aldabaldetrekuren lan txalongarriari esker, haietatik larogetahiruren xehetasun guziak ditugu, beste hamasei monumentutzarako gai direnak gehiturik.

Egileak, aurrez, bibliografiako eta bestelako agirien iturriak ondo ezaguturik osatu du bere lana. Sortetxeren bat edo bertako jatorriz, naiz semez, sakonago aztertu nahi duenak, bere idazkiaz gainera liburuari azken partean erantsi dion bibliografia aberatsa izanen du lagungarri. Lehenago gai hontaz idatzi dutenen lanik onenez aparte han-hemenka





*Berriatua torretxea Mutriku.*

aldizkarietan sakabanaturik zeuden lanak eta argitaratu gabeko agiriak ere kontuan izan bai ditu.

Ezagunak dira sortetxez eta leinuz Lizaso, Gerra, Garcia Carraffa anaiak, Kizkitza eta bestek egindako lanak; baita ere Euskal Herriko arkitekturaz K. Etxegaray, J. Yrizar, Urabayen, Baeschlin, Veyrin, Zabalo anaiak eta *Anuario de Eusko-Folklore*-ren lehen aldian publikatu zirenak; zer esanik ere ez *Geografía General del País Vasco-Navarro*, bereziki bertan eta Oñatiko Batzarrean (1918) López del Vallado-k aurkeztutako lan orokorrak, era berean J. Caro Barojaren *Los Vascos*, L. P. Peña Santiagoren *Arte Popular Vasco* eta Auñamendi Argitaldarien *Diccionario Enciclopédico Vasco*. Baina, guzi horiez gainera, bestelakoa da orain Roke Aldabaldetrekuk eskaintzen diguna.

Aldabaldetrekuk, iturri guzietatik eta agiri zaharretatik bilduaz zentzuz eta taxuz ikertuaz burutzen jakin du bere lan hau.

Etxe bakoitzari bere nortasun berezia eman dio historia, arkitektura,

leinu, armarri, eta abar elkarrri lotuaz. Liburuan dauden etxe guziak agertzen ditu argazki bat edo bikin, etxaurre ikuspegiz, armarriz edo beste nolabaiteko arte balioak erakutsiz. Eta gainera, era hontako liburuetan hain erraz lortzea ez den batasun zaluarekin irakurgai atsegina isuriz.

### Casas solares de Guipúzcoa

*Casas solares de Guipúzcoa*, de Roque Aldabaldetrecu es una obra seria sobre el tema y, para muchos años, será un libro de consulta indispensable, en lo que se refiere a casas-torre y palaciegas de la provincia, tanto para conocer la historia de cada casa que figura en esa catalogación, así como el de su aspecto arquitectónico, estado de conservación, escudos nobiliarios que ostentan y principales personajes que las habitaron.

En sus 376 páginas recoge la descripción de 99 edificios, de los



*Untzuetta torretxea Eibarren.*

que 83 fueron declarados monumentos de interés Histórico-Artístico, de carácter provincial, a propuesta de la Diputación, el 17 de Enero de 1964 (publicado en el B. O. E. de 29 de Enero de 1964). De dichos edificios no existía más que una simple relación; es decir, no existía un expediente por cada casa. Al final de la obra aporta una bibliografía muy completa que puede servir de orientación a quienes deseen profundizar en el caso particular de cualquiera de las casas tratadas por el autor, que ha tenido en cuenta, además de las obras generales, las monografías locales y los trabajos dispersos en publicaciones culturales o especializadas.

Sobre casas solariegas y linajes, nos ilustraron D. de Lizaso, J. C. de Guerra, hermanos García Carraffa, E. de Aranzadi «Kizkitza, etc.»; sobre arquitectura otros autores como C. de Echegaray, J. de Yrizar, L. Urabayen, A. Baeschlin, F. Veyrin, hermanos Zabalo, etc., además de algunos tomos de la primera época del *Anuario de Eusko-Folklore*. Claro está, aparte de otras obras generales como la *Geografía General del País Vasco-Navarro*, *Los Vascos* de Caro Baroja, *Diccionario Enciclopédico Vasco* de la Editorial Auñamendi, o *Arte popular vasco* de Peña Santiago.

Pero el mérito de la obra de Roque Aldabaldetrecu consiste en haber investigado en las fuentes bibliográficas y documentos inéditos, para condensar objetivamente en su obra la historia, arquitectura, estado actual, armas y personajes que los habitaron. Todas las casas van ilustradas con fotografías, bien de perspectivas generales, vistas de fachadas o escudos de las mismas. A todo ello se une la cualidad de una amena lectura, que no siempre resulta fácil de encontrar en este tipo de libro documental.

1980-IV-28.

## HILARRI BIRIBILAK

Euskal Herrian hain ugari aurkitzen diren hilarri biribilak, aintzina kanpotik hartuak baldin badira ere, beste gauza askok bezala, bertakotasuna hartu zuten. Hemen errotu eta bertako eraz apainduta egin dira gure hilen oroitarri. E. Frankowski-rekin bat gatzoz hilarrien formaz giza idurizkoak direla, antropomorfo, esaten duenean. Edonor euskaldunek dakienez, mugazandik ugariago dira hegoaldean baino, eta honek ere bere arrazoia du, ondorean agertuko dugunez.

Hilarriok, esan bezala, apaingarriz hornituak dira eta bertan agertzen diren gaiak herri artean maiz aurkituko ditugunak dira gehienbat, baina baita ere zenbait sinbolo eta apaingarri hilarrietan maizago aurkitzen direnak. Ugaritasunez eta formaz aberats dira, gaiak heurak ere ugari, naiz kristauenak edo naiz jentilenak, erlijio gauzetatik ogibidezko tresneriara, bada orotarik. Gainera, apaingarriok, irudi formaletatik hasi eta forma abstraktoak arte, era zabalean, orotariko estilisazioak dituztela elementu geometrikoz, gurutzak agertzez, loraz, aberez eta, batez ere, izartegiaren sinboloz inoiz gure irudimenak misterioz kutsatzen arte, E. Frankowski, L. Colás eta J. M. Barandiaranen bildumetan ikus daitezken hilarri biribiletatik ohartuko garenez.

Aintzina Pirineoko bi alderdietan erabili zen, Cataluñatik hasi eta Euskal Herriraino, eta Kantabria zehar Asturiastik Portugalera arte, Gaztela zaharra barne zela. Hegoalderago ere banakaren bat aurkitu izan da, baina oso guti. Hauetan, gehienak Erdi-arokoak dira, Clunia-koak edo izan ezik. Clunia, Burgos-en hegoaldean, Keltiberiatzat ezagutzen denaren hiri nagusia omen zen, eta bertako hilarri biribilak kristoren garaia baino zerbait lehenagokoak dira. Guregandik hurbilago, Oka mendietako Somoro herrian (aintzina euskaldun herria heltzen zen tokia) II. mendekoa aurkitu zen, bere idazkiaren argibidez. Gaur egun Burgos-ko Museoa gordetzen da.

Hilarri biribilik zaharrenak Italian, «villanoviense» eta etrusko garaikoak, Kristo baino VI mende lehenagokoak, eta beren garaiko batzuk ezagutzen dira Siria partean ere.

Euskal Herrian ostera, Nafarroako Arazurikoak eta Santakarakoak hartu dute zahar fama. Gutienez Erdi-arokoak lirake, baina ez dugu agiri ziurrik. Santakarako honek duen berezitasuna harrigarria da, lauburua izan ohi den bezala, honek, lauoin ditu. Beraz, munduan ezagutzen den *tetraskete* bakarra da.

Zaharrenen artean katalogatu genezazkeanak Elorrioko Argiñeta-koak dira, bertako hilobi batek X. mendeko urtea markatzen duenez. Arrigorriagakoa dugu beste bat oso zaharra. Bestalde, A. Aguirre Andrés zenaren ustez Bizkaiko Meñakakoa Burdin-arokoa izan daiteke, *Materiales arqueológicos de Vizcaya* (1955) deritzan liburuaren 136. orrialdean eta *Tumbas antiguas...* (1957) delakoaren 51. orrialdean berri dakarrenez. Baina nik ez dut holakorik uste. A. Aguirre irudietan soilik oinarritzen zen eta Meñakakoaren bezalako irudiak aski dira Euskal Herrian. Bertako hiruburua eta epaiki hortzen gisako puntatxoak Erdi-aroko itxura du gutienez, baina haruntzago joateko bestelako agiri beharko genuke. Dena dela, kontuan edukitzekoa da.

XII. mendera arte apezpikuak bakarrik hobiratzen ziren elizetan.



*Santa-Graziko hilerri zaharra, Zuberoan.  
El viejo cementerio de Santa Engrazia, en Soule.*

Gregorio IX. agandik (1227-1241) eman zen askatasun gehiago eta le-goak ere elizetan hobiratzen hasi ziren, Frankowskik *Estelas discóideas de la Península ibérica* deritzan liburuan dakarrenez. Bestalde, egile honek, Azpeitiko «carta-puebla» delakoa (1324. urtekoa) jartzen du lekuko, Gipuzkoan XIV. menderako elizetan hobiratzea normala zela adierazteko. Honegatik, gure probintzi honetan aurkitu direnetatik gehienak Erdi-arokoak dira, bideetan hildakoegatik eraikiak edo izan ezik (Plaentziatik Osintxura bidean eta Zestoatik Iraetara bitartean bezala, adibidez), gainerakoak elizetan hobiratzen hasi aurretikoak dira noski.

Hau da Ifar Euskal Herrian ugariago aurkitzearen arrazoia. Han ez bai zuten jarraitu alde hontako araurik. Nafarroan bertan, 1512. urtean Gaztelako erregeak menperatu zuenetik, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko arauera jarraituko zuen, muga zeharo erabagi gabe gelditu zen herri batzuetan izan ezik (Luzaiden bezala, adibidez) edo Baionako apezpikutegiari loturik jarraitu zutenetan (Pasaiatik Irunera bitarte hortan bezala, edo Bidasoako herriak adibidez). Gero, hamazortzigarren

mendean, Karlos III.aren denboran, hilerriak elizetatik kanpo jarri ziren eta garai hortatik, muga inguruetakoz zenbait herritan handikaldeko influentziak usuario zaharrari berriz lotuko ziren. Baina muga inguruetatik hegoalderuntza aurkitzen direnak zahartzat jo genezazke.

Gipuzkoan ezagutzen direnak, hogueiren bat dira guztiz. Gehienak Manuel Labordek katalogatu zituen, *Homenaje a D. J. M. de Barandiarán*, lehen tomoan (Bilbao, 1964), 139-155 orrialdeetan. Orainsu Seguran katalogatu dut beste bat, Rafael Berasategik hospitaleko baraztean aurkitua. Hilarri honek, bere parte biribilaren bueltan ere marrazkiak ditu eta hau izango da holakorik duen bakarra, Gipuzkoan orainarte aurkitutakoen artean, eta bi alderdietan dituen gurutzegatik Erdi-arokotzak jo genezake, elizetan hobiratzen hasi baino lehenago. Hain itxura zaharra ez badute ere, Seguran bertan M. Labordek, L. Peña Basurtok eta F. Leizaolak aurkitu zituztenak ere Erdi-arokotzat jo genezazke.

Gure herri artea ikertzeko oinarri oinarrizkoak dira hilarri biribilak. Hauek beste edozein monumentuk baino gehiago laguntzen digute apaingarritzat erabili diren gaiak eta naiz mila urtean zehar edergarriak izan duten eboluzioa estudiatu ahal izateko; Euskal Herriaren estetika aburuak aztertzeke elementurik onenetakoak ditugu gure hilarri biribilak.

### Las estelas discoidales

Las estelas discoidales aún tan abundantes en la parte septentrional del país, aunque sepamos que en época antigua fueron importadas de otros países, como otras muchas cosas tomaron carta de naturaleza en el nuestro, donde fue adquiriendo características propias como pieza de decoración al erigir los monumentos funerarios a la memoria familiar o individual. Estamos de acuerdo con Frankowski, de que se trata de piedras antropomorfas ornamentales. Los motivos, siguiendo la tradición del arte popular, son muy variados, que pueden ser bien cristianos o paganos, desde atributos religiosos hasta los de las profesiones. La misma decoración va desde el formalismo figurativo hasta las formas abstractas, pasando por una extensa y extraordinaria gama de estilizaciones de elementos geométricos, representaciones de cruces, flora, fauna y, sobre todo, una rica variedad de símbolos astrológicos que a veces les envuelve en misteriosas piezas líticas, como se puede comprobar en las principales catalogaciones de E. Frankowski, L. Colás y J. M. de Barandiarán.

Antiguamente su uso se extendía por ambas vertientes del Pirineo, desde Cataluña hasta Vasconia, para llegar desde Cantabria hasta Asturias y Portugal, abarcando Castilla la Vieja. Hay, además, algunos casos muy aislados hacia el sur de la Península. Generalmente son de época medieval, salvo las de Clunia (al sur de Burgos), antigua ciudad celtibérica, y algunas como la de Somoro (en Montes de Oca) que es del siglo II.

Las más primitivas se hallan en Siria e Italia, del siglo VI a J.C.

Tenemos testimonios de que para el siglo XIV era general el enterramiento en los templos, en lo que respecta al reino de Castilla, y por supuesto en Alava, provincia de Guipúzcoa y Señorío de Vizcaya, a juzgar por la carta-puebla de Azpeitia. Lo más probable es que en Navarra siguieran a la antigua usanza hasta que fue invadida en 1512. Pero tal norma no afectó al país vasco continental donde ha perdurado hasta nuestros días y por esto encontraremos allá su riqueza en cantidad y calidad con todos los procesos evolutivos en los estilos.

Por sus características pueden ser muy antiguas algunas de la alta Navarra, como la de Arazuri, por ejemplo, y muy importante en



*Segurako bilarría.*

antigüedad y rareza la de Santacara, con *tetrasketele*. Pero las que con certeza se pueden situar en nuestro país, son las de Arguiñeta (Elorrio), del siglo X, por la fecha que lleva uno de los sarcófagos. La de Meñeca (también en Vizcaya), según A. Aguirre Andrés, es de la Edad del Hierro, pero no veo ninguna razón que apoye su hipótesis. Su ornamentación es bastante común a otras estelas del país de época posterior.

En el País Vasco peninsular, por la razón expuesta, las encontraremos en menor cantidad que al lado continental, pero podemos suponer que en su mayoría se remontan a época medieval. En algunos municipios fronterizos de Navarra, la cuenca del Bidasoa con Irún, pueden ser hasta posteriores, por su dependencia al obispado de Bayona hasta siglos más tarde, y en otros por pertenecer a zonas aún no delimitadas de la frontera. Posteriormente, entrado ya en el siglo XVIII, la orden de llevar los enterramientos fuera del templo hizo que volvieran a la primitiva tradición por influencia de los pueblos vecinos de allende de la frontera.

Las que se conocen en Guipúzcoa son una veintena en total. En su mayoría catalogadas por M. Laborde, y casi todas ellas de la zona del Goierri. Recientemente he podido catalogar una de Segura, hallada por Rafael Berasategui de la misma villa, que viene a sumar la cuarta de este municipio. Las otras fueron descubiertas por M. Laborde, L. Peña Basurto, y F. Leizaola. Esta de ahora tiene la particularidad de su canto ornamentado con doble hilera de diente de sierra, decoración funeraria muy frecuente hasta nuestros días y que ya figura en las estelas de Arguiñeta. Por ello y por el resto de su ornamentación se puede clasificar entre las estelas medievales.

Las estelas discoidales son piezas fundamentales en el arte popular vasco. Ellas pueden ayudar, como ninguna otra pieza mobiliaria, el estudio temático y evolutivo de la ornamentación a través de un milenio; constituyendo los mejores exponentes de los conceptos estéticos de nuestro pueblo.

1980-IX-29.

## ARGIZAIOLAK

Gure elizetan familiko hilobiari argi egiteko erabiltzen ziren argizaiolak urte gutitan suntsitu dira. Jatorriz bazitekean hobiratzeak eliza barnera igaro zirenetik sortuak izatea, XIII-XIV. garren mende haie-



tan, Gipuzkoari dagokionez. Gure probintzian oro zabaldu zen eta bere mugetatik hat Bizkai erdialdera arte. Behar bada, lehen, elizatik kanpora, hilerrietan, eraikitzen ziren hilarri biribilen ordez. Bere esan nahiak ordeza garbi adierazten du *argizari-ohola*.

Hilarri biribilen gizatiar forma bera agiri da argizaiolarik gehienetan, bai heldu lekuan eta bai burualdean. Horrez gainera, haiek bezala, erakusten dituen apaingarriak ere marrazki geometrikoen gainera, lora eta izartegiko irudiak agertzen dira: lauburu, arrosa, eguzki irudiak, eguzki lora eta abar, hilarrietan bezala, aintzinako erlijioan errotzen diren irudiak. Gainera, ezagutzen diren argizaiolarik zaharrenak gotiko estilodun dibujoak dituzte.

«Hilarri biribilak» zeritzan artikulua hartan (irailaren 29an argitaratua) adierazten nuen bezala, hilarri hoiak gorpuei lur ematea eliz barrura pasatzen denean bukatzen da. Hala dirudi, guzien eritzia ez bada ere. Baditeke lehen lehenagotik hilen arimen alde eliza barruan egiten ziren oitizetan argizaiola edo «fuesa» erabiltzea, hilerrietako harri bilibilen antzerako irudia erabiltzearen. Itxura hori dute apaingarritzat dituzten marrazkietatik. Bestalde, denboraz eta tokiz koinziditze horrek, aipatutako artikulua hortan agertzen nuen bezala, argizaiolak eta «fuesak» hilarri biribilen ordeza sortu zirela dirudi. «Fuesa» bera erdarazko *fosa* (= hobia) besterik ez bai da. Hau segurtatzeko, egia esan, ikerketa sakonagoak behar dira, egiaren funtsa eritzi hortatik urrun ez badabil ere. Bestela, zelan esplikatuko mugazandiko Ifar Euskal Herrian argizaiolarik ez ezagutzea? Zelan adierazi Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako hilarri biribilak guziak Erdi-arokoak izatea? Bestalde, Nafarroa dago bitartean, geroxeago bide berbera hartuko zuela, Gaztelaren menpeko bihurtzea.

Argizaiola bera, kasik Gipuzkoako fenomenua soilik izatea bera ere beste arrazoi bat dugu aintzinako hilarri biribilen ordeza izatearena. Bertan sortua zelako Bizkai erdialdera arte zabaldu zen, baina Nafarroa geroago hasi zenez, bestelako joerak hartu zituen: «fuesa», saskitxo, xerbilla eta abar. Batzuek dioten bitasun horren kontra datorrela uste dut. Hoi eritzi, hilarrietan harri biribilak jartzen ziren garai berean erabiliko ziren eliza barruetan argizaiolak, «fuesa»k eta abar. Baina, horrela ulertzen ez dena zera da, zergatik kanpoko hilarri biribiletan batasun hori Euskal Herri guzian eta zergatik ez eliza barruko gauzetan? Horren arrazoi bakarra, garai desberdinetako aginduegatik eta politikazko menpetasun desberdinetatik bakarrik aurkitu genezake. Horregatik irauin dute hilarri biribilak ifarraldean gure egunokarte eta horregatik ez da ezagutu han argizaiolarik. Beste argibiderik ez dugu aurkitzen.

Tamalgarria izan da behar bezalako ikerketa sakonak egin aurretik gure elizetatik argizaiolak baztertzea, beren inguruan zuten ritoez gainera zentzu estetiko bat eskaintzen bai ziguten. Katalogatzerik osatuena Luis Pedro Peña Santiagok 1961 eta 1964. urteetan egin zuena da, *La «argizaiola» vasca* izenez Auñamendi argitaldaria 1964an argitaratua. Gainera, lan honetan, argizaiola bide, elizkizunen ohiturak ere jasotzen ditu; adibidez, ezaugarriak dira Idiazabal, Itxaso eta Garingoak; Lazkaon hilobiaz nola jabetzen diren, Amezketan fameliko kontratua nola egiten zen, aldabarrek argiz hilen garbikunde ustea nola zuten eta abar. Mila xehetasun tipi horiek dira lehena ezagutzearen lagungarri. Horrez gainera, argizaiola, herri artea estudiatzeko ere gauza egokia zen. J. Caro Barojak zionez, bere hedadura mugatuak ere, tokian tokiz kontuan edukitzeko desberdintasunak ditu.

Beren usariozko bete beharrik nagusiena, oraingo kandelena bezalakoa zen. Baina, arimaren argi egiteari hain ohol apainak gertatzea bera zer esan nahi handikoa zen herri batentzat, bizitza eta heriotzaren misterioan gogoetak bide sortutako arte agerpena zenez.

Argizaiolak eta «fuesa»k hilarribiribilekin duten kidetasuna ikusteko, irakurleak begira beza L. P. Peña beraren *Arte Popular Vasco* (Ed. Txertoa. Donostia, 1977) liburuan 174 eta 175. orrialdeak. Batez ere, behekaldeko «fuesa»k bi alderdietan dituen buruak argi erakusten dute.

Dena dela, gure herriak berekiko sortu dituen arte balioetan garrantzitsua dugu argizaiola.

### Las tablas para cerilla

La «argizaiola» (tabla de cerilla), utensilio de madera para enrollar la cera que sirve para iluminar la sepultura familiar en la iglesia, en muy pocos años ha ido cayendo en desuso. Quedarán muy pocas parroquias rurales donde aún se conserva. La función de estas tablillas decoradas fue la misma de los hacheros, candelabros o velas. Su origen es muy posible que se remonte a la época en que los enterramientos pasaron al interior del templo, allá por los siglos XIII-XVI, en lo que respecta a Guipúzcoa, provincia donde se generalizó su uso extendiéndose a zonas limítrofes de Vizcaya, probablemente sustituyendo a la estela discóidea. Las «argizaiolak» más antiguas van decoradas con líneas de estilo gótico.

Las formas antropomorfas de la estela están presentes en las empuñaduras y cabeceras de la «argizaiola» y su variante la «fuesa».

Además, como aquéllas, ostenta motivos ornamentales geométricos, florales y astroláticos: lauburus, rosetas, signos solares y la flor de cardo relacionada con el culto solar; decoraciones que reflejan, como en las estelas, reminiscencias de religiones primitivas.

Tal como expuse en mi artículo «Hilarri biribilak», del día 29 de setiembre, el uso de la estela discóidea desapareció en las vascongadas al pasar los enterramientos al interior del templo.

Es seguro de que las oraciones por las almas de los difuntos se hicieran en el interior del templo desde tiempos antes de los enterramientos, pero no hay testimonio de la «argizaiola» o la fuesa. Sin embargo, la última, como indica su nombre, es la imitación de la fosa del cementerio al exterior. El hecho es que coincide el uso de la «argizaiola» con los cambios cronológicos en áreas donde los enterramientos pasaron al interior del templo. Pero hay un razonamiento básico, y es que en fuestas, canastillos, simples rollos de cera, «argizaiolak», «saskitxoak», etc., no existe el concepto unitario que encontramos en las estelas discóideas en toda la geografía, y ello es debido a una interrupción de la tradición, motivando a que los objetos a suplir respondieran aisladamente por la discontinuidad en la aplicación de la norma. A la hora de interpretar, esto demuestra por qué no se ha usado «argizaiola» en el País Vasco continental, donde los enterramientos siguieron siempre al exterior, y por qué se perdió el uso de la estela discóidea en época medieval en estas provincias.

Advierto que no todos comparten esta hipótesis, que a nuestro juicio nos parece la más aceptable.

Ha sido una lástima que en muy pocos años hayan desaparecido las «argizaiolak» de nuestras iglesias, sin haber realizado sobre ellas un estudio exhaustivo, tanto en su entorno ritual como en su sentido estético. La catalogación más completa se la debemos a L. P. Peña Santiago, realizada entre los años 1961-64, y que se publicó bajo el título *La «argizaiola» vasca* (1964). En esta obra, además, se recoge la descripción ritual de algunos pueblos como Idiazábal, Ichaso, Garín, etc.; la «toma de la sepultura», en Lazcano; la representatividad de la mujer sobre la «sepultura», en Zaldívar; el contrato familiar sobre pertenencia, en Amézqueta; la iluminación para la purificación de los difuntos, en Aldaba, etc. Por otra parte, la «argizaiola», quede patente, que ha sido una interesante pieza en el arte popular mobiliario, que como bien indicó Julio Caro Baroja en *Los Vascos*, «dentro de un límite, presenta variaciones locales muy dignas de tenerse en cuenta».

1980-XI-10.

## EUSKAL ARTEA GAUR, SEGURAKO ERAKUSKETAN

Segura bezalako herri batentzat zer hobeagorik kultur ekintzak bultzatzea baino? Hala ere arte plastikoak aukeran datoz herriak berak historian zehar bildu dituen balio berezien inguruan. Eta, badirudi, Segurako herriak ekintza hauen alderako kontzientzia hartu duela.

Lardizabal jauregian berrogei artistaren lanak bildu dira. Lehendik ospetsu diren Ameztói, Basterretxea, Goenaga, Mendiburu, Ruiz Balardi, Txillida, Ugarte, Sistiaga, Ortiz de Elgea, Larrea, Mirantes, Azketa eta besterekin batean Aleman, Arsuaga, Beorlegi, Bikondoa, Larrañaga, Txopitea, Valverde, Zabala, Zuriarrain, Diez Alaba, del Valle, Anda, Extramiana, Salaberri eta abar, Segura bertako J. M. Telleria partaide dela. Egungo artearen ikuspegi ederra adierazten digute. Hautaketa egin dutenek bazekiten egungo balioak non zeuden, sorketa berrietan mugatu bai dira eta artearen gailurrean sorketa da helburu.

Pozarren ikusi dut Segurako hiribildu zaharrea holako erakusketak. Erdi-aroko egituradun hiri kaskoak, aspaldi jaramon askorik egin ez bazaio ere, hamabostarren mendetik hasi eta hamazortzigarrenean arteko estilodun etxeak gordetzen bai ditu. Herrietako arkitekturak historian zehar estudiatu ahal izateko Gipuzkoan Segura bezalako adibideak urri ditugu, baina Gipuzkoan ez ezik Euskal Herri guzian ere ez dira holako esenplu askorik. Jose Inazio Linazasorok kontuan izan zuen hau hirietako arkitekturaz burutu zuen lan bikainerako, *Permanencias y arquitectura urbana* deritzan liburuan ikus daiteke. Kale nagusiko 17.a eta bere ondoko zenbait ditugu adibiderik egokienak. Horiez gainera jauregi bikainik ere ez zaio falta Segurari. Gebarakoa, gotikoaren azkenaldikoa; Arrue, bere behe partean Pizkunde garaikoa eta goi partea mudejar kutsuzkoa; Iarza eta Lardizabal barrokoaren erudugarri jartzekoak Gipuzkoan; beste zenbait jauregi Zurbanokoaz aparte eta Mujikatarrena hemeretzigarrenaren azkenaldian modernismo joeraz. Horrez gainera, Segurako eliza Gipuzkoan den euskal gotikorik erudugarrietakoa delarik Santa Isabel komentua Gaztela aldeko barroko erazkoa du bere aurrekaldea.

Holako inguruak giro berezi bat eskaintzen dio artegintzari eta berebiziko asmo ona izan dute gaur egungo arte erakusketa jartzea bururatu zaienek. Baditeke, lehenengoa denez, uste bezain ikusle ez joatea, baina ez daitezala beldurtu. Holako ekintzak antolatuz jendeak ikasiko du bertarako joera eta herrian piztuko da artegintza berriaren alderako grina.

Lehengo arte abstraktoak ez dut uste orain inor harrutuko duenik, eta bakoitzak berekiko gogoetatik atera beharko du abstraktoak eka-

rri diguna. Materia bera hobeto baliatzen erakutsi dio artistari eta berritzearen ondorenak dira gero ideki diren bide berriak. Erakusketan bertan aurkituko ditugu arte librearen erantzunak, hiperrealismoz, errealismo fantastikoz eta magikoz agertuak, bai pinturaz eta bai eskulturaz.

Amestoik aurkezten duena ezta txantxetakoa, bere surrealismoaren heldutasunean egindako lana denez; Ruiz Balerdirena bere esku trebearen adierazgarria da; Sistiaga, Zumeta eta Goenagak lehentxoago aritzen ziren lanetatik muestra bana agertzen dute, eta era berekoa du Ortiz de Elgeak ere. J. M. Telleriak inoiz baino nabarmena agertzen ditu kolore urdin-berdexkak bere irudi-paisaje loturekin. Berriagoen ekintza ere ezta gutiagorako. Zabalaren irudimenak aintzinako flamen-darrak gogoratzen dizkigu; Txopiteak era magikoak jarraitzen ditu manieristen teknikekin; Aleman, Azketa eta beste zenbaitek, gehientsue-



*Euskal artea, gaur. Segura.  
Lardizabal jauregia J. M. Telleriaren irudian.*

nak behar bada, materiaren erabilkerazko maisutasuna agerrerazten dute; errealismo fantastikotik ere bada lanik, baina hemen denak aipatu ezinez F. Beorlegi datorrit burura, azkenaldi honetan hartu duen bide txalogarria aipatzeko. Basterretxea eta Mendibururen eskultura landuak ere aipagarriak dira. Txillidak grabatu soil bat bakarrik jarri du eta bere anai Gonzalok aspalditik ohi duen paisaje lauso horietako bat.

Elkarrekiko desberdintasunak hain nabariak direnez, erakusketa aspergaitza da edonorrentzat.

Kultur ekintzeri hasiera ona eman diote segurarrak. Erakusketa San Juanak arte iraunarazteko asmoa omen dute, San Juan jaietan esku-lanena agerraraziz. Besteak beste, Zegamako Gregorio olleroa (Gipuzkoan gelditzen den bakarra) eta Segura bertako saskiginak bere artea erakusteko aukera egokia izango dute. Hauek berbiztea ez litzake gauza txarra.

Lehen erakusketa hoietatik hasi eta jarrai.

### **Arte vasco actual, en una exposición de Segura**

En el palacio de Lardizábal de Segura, cuyos propietarios han tenido el gesto de regalar el hermoso edificio barroco al ayuntamiento de la villa donde instalarán su nueva sede como casa consistorial, la nueva Corporación, ha tenido el buen acierto de montar una exposición de artistas vascos de la actualidad. Artistas de primera línea en lo que se entiende por la nueva corriente creatívista. Tal vez resulte algo chocante a los segurarras encontrarse de buenas a primeras con una irrupción de obras abstractas, surrealistas, hiperrealistas u otras corrientes más recientes como realismos fantásticos y mágicos; pero ahí está la muestra que como novedad nos ofrecen nuestros artistas plásticos del momento actual, y esta es la verdadera realidad. Cualquier visitante perspicaz se hará cargo de la ilimitada fuerza creativa de nuestros artistas.

En el palacio de Lardizábal se dan cita renombradas firmas de todo el país vasco, aunque la mitad de ellos sean guipuzcoanos.

A un conjunto monumental como es Segura le corresponde desarrollar este tipo de actividades. Así, el visitante, tendrá una doble ocasión de admirar la estructura urbana del casco viejo de la villa donde se pueden contemplar edificios con estilos que van desde el siglo XV hasta el XIX. Las casas palaciegas de Guevara, Arrue, Yarza, Lardizábal y otras menos notables, el templo parroquial que es modélico entre las iglesias columnarias de Guipúzcoa, sin olvidar el arte mobiliar que

contienen los mismos, y luego poder contrastar con las corrientes actuales en el empeño de lograr nuevas formas, nuevos conceptos, en nueva armonía de colores. La verdad, lo considero un deleite.

La exposición durará todo el mes de Junio, y durante las fiestas de San Juan se verá incrementada con la presencia de las labores artesanas. De ellas, las más importantes podrán ser la presencia del único alfarero guipuzcoano, natural y vecino del próximo pueblo de Cegama, y los cesteros del propio Segura que han tenido fama desde años atrás. Artesanías que convendría revitalizar.

El éxito de estas exposiciones está más que en la asistencia numérica y la difusión por los medios de comunicación, en la perseverancia en mantenerlas durante años sucesivos. La continuidad de tales actividades, será el gran éxito que el futuro habrá de reconocer.

1980-VI-9.

## KALKOGRAFIA ARTEAZ

Kalkografia arteak era askotakoak dira, Ekalde urrutian Erdi-erotik egiten zen xilografiatik hasi eta gure gizaldiko litografiara arte. Baina, esku-lanezko artegintzetarako, oraindik orain ere, inprentarekin bateratsu asmatu zen zurezko (eta gero, metalezko) txapetan irudiak grabatzea, tintaz paperean inprimatzeko erabiltzen dena. Sistema beretik XVII. mendearen azkenaldira, Europan zehar, indartu ez ezik, bronzeko plantxen bidez liburuaren edergarriak inprimatzea hedatu zen.

Irudiak idazkien lagungarri bihurtu zirenetik, literatura erak ere aldakuntzak izan zituen eta hortik datorkigu Ilustrazio izenez ezagutzen den kultur mugimendua.

Inprimategientzat aurrerapen handia ekarri zuen kalkografiak eta arte lanen zabalkundea erraztu eta merkatu. Durero, Mantegna, Graf, Rembrandt, Van Dyck eta Goya izan ziren lehengo denboretako grabatzaile ospetsuak.

Kalkografian aguaforte deritzan espezialitatea da ezagunena. Euskal Herrian berandura arte ez zen ezagutu. Juan de Iziar eta Pedro de Madariaga bizkaitar kaligrafoen lanak, liburuaren edergarriak eginak, zurean landuak izaten ziren. Aguafortez ordea, apenaz ezagutu zen gure mende honen hasierara arte. Eta Rikardo Baroja izan da hontan lanak gehien egin duena. Baita gure arteko grabatzaile onena ere.

Gaur egun, indar berriz berbizten ari zaigu grabadugintza hau. Eta, gezurra badirudi ere, Alemania, Holanda, Txekoslovakia eta industriagintzan aurreratuen dauden herrietan egiten da gehien. Hoietan erabiltzen diren teknikak heurak ere eskuzko inprimategietakoak direnez arte langintzetako balio berezia bai dute.

Herbeste hoietan holako indarra duela ikusirik eta egungo Euskal Herrian bertan grabatzaileak sakabanaturik badirela jakiteaz, zeren aguafor-te lanak egin bai dituzte E. Txillida, F. Beorlegi, B. Alfonso, R. Ruiz Balerdi, G. Ramos Uranga, M. P. Herrero, C. Sanz, M. Cardenas, I. Goikoetxea, A. Nagel, R. Zuriarrain, eta beste zenbaitek, Kultur Kontseilaritzatik arduratu ginen hontaz zerbait egitera. Indar sakabana-tuok bideratzera eta ofizioz ahalik egokien jabetzeko eskola sortzeaz.

Ekintza hontan, ofizio aldetik duen parterik gaitzena eskuairrezko gubila ondo jakitzean datza. Gainerakoan, azidoak eta tintak nola erabili behar direnaren gora beheran bai daude, eta hauek beti dira erraza-goak. Hortik aurrerakoa, artista bakoitzaren etorrian dago. Ideak, senti-penak eta bakoitzak bere barnetik duen gustoak egiten du artista, eta hau ezta hain gauza erraza. Ofizioa ikas daiteke, baina artista etorria bakoitzaren gogotik sortu behar da. Honi esaten diogu Eibarren, berezkoa.

Baina, badakigu berezkorik ez dagoela oinarritzko den ofizio maila betetzen ez bada. Honegatik, burilez grabatzaile diren eibartarren joera-gatik aukeratu genuen grabatzaile eskola bat sortzeko lehen esperien-tzia. Hontarako, Armeria Eskola egokia iduritu zitzaigun ikastaro bat betetzeko eta hara uztaileko arratsaldeetan nola burutu den lehen ikastaroa Ohizko Ikasleen Elkartearen laguntzarekin eta aguafor-te gaian maisurik onenetakoak ditugun Mari Puri Herrero eta Gabriel Ramos Uranga bilbotarren zuzendaritzapean.

Hamabost ikaslek osatu dituzte ikastaroak, batzuk gubilezko gra-batzaile ofiziodun eibartarrak eta beste batzuk artistak. Egin dituzten lanen arabera, uste bezain esperientzia ona izan dela esango genuke. Probetxugarria benetan, eta nolabaiteko jarraipena behar duena. Behar bada Armeria Eskola berean, iluntziko ikastaroetan, urte guziz eman ditzakean disziplina berri bat izan daiteke. Hala deritzagu. Zeren inon izatekotan, Eibarren aterako genioke probetxua holako arte ekintza bati.

Artez zerbait dakienari esan beharrik ez dago kalkografiak duen garrantziaz. Aguafor-tez hoge, berrogei edo hirurogei aleko serie la-burrak egiteko posibilitatea dagoenez, edozein artistari laguntzen dio bere obren inguruan edonork erosi ahal izateko laminak eskaintzea, eta edonorrentzat etxean aguafor-tezko lan bat edukitzea itxura hobekoa da



mueblerietan saltzen diren arimarik gabeko oriopinturazko lauki merke horiek baino. Hau ere ikasi beharrezkoa dugu. Artistaren eskuetatik, serie txikietan, banan bana irten duan lanak berakin du sortzailearen gogozko sigilua.

Bestalde, bere inguruan teknika ezaugarriak edukitzeaz gainera sorketa gogoari pizturik eutsi beharra dugunez, artegintza hau gordegarria iduritzen zaigu eta irauneraztea eskatzen digu. Lamina ederrak sortzetik bibliofilo liburuak egitera arte, kalkografiak badu gizartean zer bete. Honegatik, ondore ona izango duen uztean gaude.

### Arte calcográfico

Entre las artes aplicadas de escaso desarrollo en nuestro país, está la calcografía. En el transcurso de la historia, la xilografía no ha contado con artistas de relieve. Tampoco en aguafuerte, si exceptuamos a Ricardo Baroja e Iturrino, pues de nuestro paisano Zuloaga, sólo se conocen dos planchas grabadas. La litografía, por su parte, apenas ha salido del anonimato industrial.

En Junio del pasado año, Mari Puri Herrero presentó una exposición colectiva de grabadores vascos en U. N. E. D. de Vergara, y la Consejería de Cultura tomó conciencia del tema. En consecuencia, durante el mes de Julio del presente año, se ha celebrado en la Escuela de Armería de Eibar el primer cursillo de calcografía dirigido por Mari Puri Herrero y Gabriel Ramos Uranga, impartiendo las técnicas de aguatinta, punta seca, buril y «mezzotinta», con sus correspondientes barnizados de planchas, baños de ácido, tintado e impresión.

Si se eligió Eibar para este primer ensayo, fue por las condiciones que reúnen sus habitantes por la tradición de grabadores en metal. La parte más dificultosa del aprendizaje consiste precisamente en el manejo del buril y la punta seca. Y, el mismo G. Ramos Uranga cuenta que aprendió el dominio de dichas herramientas gracias a un eibarrés. Pero, paradójicamente, se presentaron al cursillo, más artistas de otras especialidades que artesanos grabadores. De todas formas, esta primera experiencia ha tenido gran éxito y esperamos que tendrá continuidad para consolidar una escuela en la especialidad.

La calcografía, como complemento, facilita a cualquier artista la posibilidad de ofrecer algo de su obra creadora a un precio módicamente asequible, como en su día practicaron renombrados artistas como Durero, Mantegna, Van Dyck, Goya, etc., hasta el mismo Picasso.



*Grabado al aguafuerte de F. Beorlegui.*

El aguafuerte tiene la virtud de mantener una tradición de impresión gráfica artesanal para trabajos o tiradas especiales, que van desde las mismas series cortas de láminas hasta libros de bibliófilo.

Y, aunque parezca un contrasentido, los países más progresistas de centro Europa, son los mayores productores de calcografía.

1979-VII-30.

## DIEGO MAIORA, ESKULTORE SEGURARRA

Artearen historia agirien bidez ikertze kontuan, beste gauza askotan bezala, oso ahul eta atzeratuak gabiltza. Bitartean eztabaida antzuetara maiz joten dugu, euskaldunak artegintzarako ahalmenik izan duen ala ez, euskal arte jatorrik ba ote den, koloreak nabaritzeko ahalmen berezirik ote dugun eta abar. Sistematikoki ikerketak egin baino lehen erabakiak atera nahi ditugu, ia artegintzari gure aldetik ezer eman diogun ala ez jakiteko. Gauza askotan bezala, sentipen hutseri amain emanik eta errazoi bideetatik urruti.

Gauza hauek bideratzeko ikerketen premiaz gara eta ikerketetarako gure geure instituzioak behar ditugu, eta hau, ametsak amets alde batera utzirik, gaur egun autonomia bideak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxaturik zuzendu beharrezkoa dugu. Gure nortasunari dagozkion azterketak eta aurrera begirako kultur ekintzak, gaurkoz, autonomia bidetik eraman ahal direnak dira. Gainerantzean ahuntzaren gauerdiko eztula.

Arte ikerketaz, Gasteizko Apezpikutegia egiten ari den *Catálogo Monumental* dugu zer egin behar denaren eredugarritzakoetarik bat. Bere zuzendari den Mikaela Portillak esaten zidan igaz, harriturik baina pozez, XVII. mendearen hasieretan segurar eskultore baten lanak aurkitu dituela Araban, agirietan agertzen denez, Onraita eta Ozaetako erretaulen egiletzat, Diego Maiora izen deiturazkoa. Bere harridura, Araban hainbeste artista zen garaian gipuzkoar bat bertako lanetan aritzearena zen. Tomas Biurrun nafarraren *La escultura religiosa y Bellas Artes en Navarra durante la época del Renacimiento* (Iruña, 1935) eta M. A. Arrazolak Gipuzkoako Pizkunde arteaz egindako lanak begiratzeko esan nion, hor aipatzen zirela segurararen beste lan batzuk eta.

Diego Maiorak egina da Olaztiko erretaula nagusia. Ziordirako ere egin omen zuen beste bat baina eliza hontan XVIII. menderaren bukaeretan beste berri bategatik aldatu zen.

XVII. mendearen lehenetik erdialdera agertzen zaizkigu bere lanak. Barrokoaren hasiera garaia bazen ere, Diego Maiora oraindik Pizkunde garaiko estiloekin zebilen. Eta, estilo honetan ere Joanes Anxieta azpeitiarraren jarraitzaileetakoa zen. Gipuzkoan bertan ezagutzen diran lanak: Lezo, Zerain, Ataun eta behar bada Gainzako erretaulak ditugu.

Denok dakigu Antxietaren ikasle eta jarraitzailerik jatorrena Ambrosio Bengoetxea genuela. Bere eskuz eta gogoz maisuagandik hurbil ibili zen eta Gipuzkoan lan handiak utzi zizkigun. Biurrunek berak, uste zuen, Lezoko erretaula ederra A. Bengoetxearena zela, baina M. A. Arrazolak agiriz demostratu zigun Diego Maiorarena zela. Hala aipatzen du bere *El Renacimiento en Guipúzcoa* (t. II, 286 orr.) lan bikainean. Zerain eta Gainzakoen berri ere ematen digu.

Baina, Biurrunen begi zolia ez zebilen hain oker edo hain urrun. Inazio Iparragirrek *Cinco villas del Alto Goyerri* (1975) deritzan monografian Zeraingo erretaulaz ari denean, Maiora segurarra A. Bengoetxearen ikasletzat jotzen du.

Gainzakoari buruz ordea, agiriak azaldu beharra dugu. M. A. Arrazolak, bere lanean, aipatu besterik ez du egiten eta Jose Maria Sukiak *Alzaga-Arama-Gainza-Isasondo y Legorreta* (1975)<sup>1</sup> deritzan monografiaren 103. orrialdean, hara zer dion: «Su retablo es similar al que existe en Hernialde, y es obra de Zatarain». Itxuraren eritzizkoa ote? Ala agirietatik atera ote zuen? Jakitekoa litzake.

Artezale ikertzaileak, orainarte, Ataungo San Martingorik ez dute aipatu. Baina Ataungo artxiboak xagua bezala ikertu zituen Juan Arin Dorronsoro zenak aspaldi eman zuen berria, eskultore hontaz inork ezer etzekien garaian, non eta «Ataun. Toponimia de carácter religioso» lanean, *Anuario de «Eusko-Folklore»* (IX. tomoa, 1929. urtea) ikus 29. orrialdean. Gero, lasaiago eta zehatzago agertuko zigun *Clero y religiosos de Ataun* (Gasteiz, 1964) deritzan liburuaren 9. orrialdean. Geroago, gazte talde batek elkarlanean burutu zuten *Ataun* (1975) deritzan monografiaren 88. orrialdean ere horrela jasotzen da. Hemen, erretaulako santu nagusia, San Martin de Tours, ez dakigu zer arrazoi-gatik, geroztiko irudia da, Santiago Masily-k 1780. urtean egina.

Ikertuz goazen artean bere lan gehiago agertuko dira, baina orainarte ezagutzera iritsi geran hauek Diego Maiora eskultore segurarrái ospe handia ematen diote eta aurrerantzean, behar bada, gure Pizkunde garaiko eskultore handien artean toki berezi baten merezimendua du.

Dena dela, orainartekoen artean, seguraski, Olaztikoa izango da ezagutzen diren lanik ederrena. D. Maioiraren lanetan, neronek ikusi ditudanetan behintzat, gora-behera handiak nabari dira, behar bada

bere langileak hautatzen edo presupuestoak beharturik, baina kontu gehiegirik izan etzuelako nonbait.

1. Gauza bera dio Leandro Silván-ek *Las villas de la unión del río Oria* (1974) lanaren 80. orrialdean.

### Diego de Mayora, escultor de Segura

La investigación histórico-documental de obras de arte es casi nula entre nosotros. El catálogo documental de la Diócesis de Vitoria podía ser una obra a imitar. Nos llevaríamos muchas sorpresas y probablemente borraríamos bastante de esa fama que llevamos de pueblo que apenas ha producido arte. Mícaela Portilla que dirige el referido catálogo, con sorpresa y alegría me manifestaba, hará cosa de un año, que había descubierto algunas obras de un escultor guipuzcoano en Alava a comienzos del siglo XVII, cuando precisamente en aquella provincia abundaban tantos artistas. El escultor era Diego de Mayora de Segura y sus obras los retablos de Onraita y Ozaeta, si mal no recuerdo.

Tomás Biurrun que fue un gran investigador navarro, en su obra sobre escultura religiosa en Navarra en la época del Renacimiento nos habla del escultor segurarra al estudiar el retablo de Olazagutía como «magnífica obra», realizada hacia 1600, según consta en el Archivo Episcopal. También ejecutó otro retablo para Ciordia, y ha desaparecido de esta iglesia, sustituido por otro de fines del siglo XVIII.

Sin embargo, Biurrun que atribuyó el retablo de Lezo a Ambrosio Bengoechea, M. A. Arrázola pudo demostrar documentalmente como obra del escultor Diego de Mayora, con la colaboración de Domingo de Goroa en el ensamblaje. El mero hecho de atribuir a Bengoechea nos atestigua la talla del escultor de Segura. Ignacio Iparraguirre, en su monografía de las *Cinco villas del Alto Goyerri* (1975), al tratar del retablo de Cerain, le considera discípulo de A. Bengoechea.

Además del retablo de Cerain, en Guipúzcoa, M. A. Arrázola le considera autor del de Gainza, pero J. M. de Suquía, en su monografía, señala como obra de Zataran y asimismo Leandro Silván en la suya. Me imagino que se basaría en algún documento y no por el simple hecho de ser similar al que existe en Hernialde. Convendría averiguar.

Pero hay otra obra más en Guipúzcoa, que es el retablo mayor de San Martín de Ataun, terminado por Diego de Mayora en 1654, según podemos leer en *Clero y religiosos de Ataun* (1964) de Juan de

Arín. La imagen del santo titular es muy posterior y es obra escultórica de Santiago Masily, realizada en 1780.

La obra de Mayora es bastante desigual, porque no cuidó suficientemente las diferencias de sus manobreros. La mejor obra concebida es sin duda la de Olazagutía. Retablo de cuatro cuerpos que llena por completo el ábside. Dos grandes cuadros apaisados en el basamento, que casi puede llamarse primer cuerpo, representan la Última Cena y el Descendimiento. En los entrepieños las Virtudes Teologales y las Cardinales. Diversas esculturas o bultos y en medio relieve, historias de la Virgen y de San Miguel Arcángel, se conservan perfectamente. Debieron hacerse juntamente con él, dos colaterales, obra de la misma mano y del mismo estilo romanista.

1980-X-27.

## A. ARTETA IRUDIGINTZAN

Aurelio Artetaren ehunurteburua ospatzez, Bilboko Grijelmo imprimategiak aurtengo egutegia eskaintzen dio omenez. Aurelio zenaren autoerretatua eta beste lau irudik osatzen dituzte edergarriak eta M. Llano Gorostiza eta bion testuak, gazteleraz eta euskaraz, artistaren langintzaz.

Gaurko hontan nere idazkian gai honi helduko diot, astekari honen irakurleek bere berri izan dezaten.

Gure mende honen lehen partean Bilbo ingurutik girotu eta zabaldu zen artegintzarako zaletasuna eta eragina Euskal Herri osora. Ekintza harek, impresionisten ondorenez, berakin zekartzan plastika gaietan argi, kolore eta teknika berriekin baliatzea. Honela jokatu zuten hartu zuten hementxo semeek, bertako gai herrikoiak erabiltzeaz gainera, pintatzeko joera edo taxura jakin bat eta hemendik sortu zen Euskal Pinturaren Eskola deritzana. Zalantzarik gabe, ekintza horretatik aldi berri bat sortu zen bertako pinturagintzarentzat, eta mugimendu honen artistarik berezietako bat eta ospetsuena noski, Aurelio Arteta Errasti izan zen. Bilbon bertan jaioa, duela ehun urte.

Arte, zentzumenez eta sentimenez begiratu eta konprenitu beharrezko gauza izpirituala denez, hala begiratzekoa da Artetaren lana. Barne muinean zeraman poeta sentipena eta eguneroko bizitzatik hartzen zituen gaiak. Marrazki eta forma, kolore eta molde, egituraz egoki zain-

duak, eta era berritzeen premiaz jabeturik, lanaren ikuspegitik eta herri langilea goresiaz, mitologia berri baten antzera bere ohialetara eramanez aritu zen. Euskal Herria eta bertako jende apalaren maitasuna adieraziko zigun, lehengo klasikoan emaitzarik onenen eraz, Europako gogo zaharrari jaramon eginaz, eta bere borondatezko sintesiaren arauetan oinarrituz. Bere buruari gehiegi eskatzen ohitua zen eta, honegatik, oso konformagaitza bere izaeraz. Bere lanaren kritikorik zorrotzena ber bera bai zen.

Bere artista neurria, teknika eta sorketaren aldetik, Madrid-eko Banco de Bilbao eta Logroño-ko Mintegiko hormen edergarriz egin zituen fresko direlakoek erakusten digute. Lekuneak bolumenez eta zabalego guzia kolorez ongi konposaturik betetzen zituen irudiz, obra guzia poesiako giro atseginean osatzeko. Etika eta estetika, elkarrekin zeramatzan.

Pintatzaile bezala gailurrik gorenetara igona zen. Margolaritzak ez bai zuen haretzat sekreturik gordetzen, muralgintzan erakutsi zigunez. Marrazkiak ordea, lerro edo marra soilez, zalantzarik gabeko maisuaren eskutikakoak dira. Ez zituen gehiegi landuko, argiak eta itzalak bereizteko haina izan ezik, eta hortik zuzenean kolorez pintatzera.

Euskal Herriko bizitza motak jasotzeaz arduratu zen, bertako pertsonaiak gure herriaren ereduazko gizartetzat hartuaz. Hoietakoaak dira egutegi honetarako hautatu diren marrazkiak ere, nahiz zirriborroz eginak edo zerbait landuak, egitura dute garrantzizkoa. Bai batean eta bai bestean, dibujogile onaren esku zehatza nabari dute.

Santiago Amón-ek 1972an dibujozko kuadernu eder bat eskaini zigun bilbotar artista honen marrazkigintza adieraziz, eta, gaurko hontan Grijelmo S. A.-ak eskaitzen digu beste aukera hau, gure herriko maisu on baten eskutitako lana ikus dezagun.

Gure pintatzaile aipatu honen zabalkundez egutegirako aukeratu diren irudiak, honako hauek dira:

Ataurrean egilearen autorretratoa. Buru ederra, nahiko landua den marrazki hoietakoa; apaina, bere ekintza bezalakoa, eta pinturara eroango zituen alternantzizko argien saiera darabil bertan. Lehenengo eta bigarrenko irudiak Madrid-eko Banco de Bilbao-ko hormaren biran egingo zuen muralgintzarako gertatu zituen marrazkiak dira Uzta Bil-tzailea eta Deskargatzailea; bi irudi eder, gorputz mugimenduak ederki estudiatuaz. Hirugarrenean, bi arrantzale gazte, lerro arin eta soilez eginak; ikutu guti dutelarik ere, dibujo betea; artistak bere heldutasunean egina. Eta, askenik, emakume bat etzanda, gaur Bilboko Bellas Artes Museoa dagoen Emakumeak uztaroan deritzan laukirako egin zuen zirriborrea da.



*A. Arteta. Autorretrato.*



Urte hontan, uste dugu, hau bakarrik ez dela izango Aurelio Artetari eskaintzen zaiona, berak irabaziak dauzkan merezimenduak handiak bai dira.

Lanaren eta uztaren ohoretan bete zuen artegintzaren adigarri, etika-estetika edergintzaren gailurrera eroan nahirik sortutako irudi paregabeak dira, Artetaren doahinen erakusgarri.

### **Las figuras de A. Arteta**

Conmemorando el primer centenario del nacimiento del pintor Aurelio Arteta, Artes Gráficas Grijelmo ha editado un extraordinario calendario con dibujos del artista bilbaíno, representando: su autorretrato; una figura de mujer del boceto para «La recolección», de la rotonda del Banco de Bilbao, de la que existe otra variante en la obra conocida «Campesinas vascas con frutos y hortalizas»; boceto para «Los descargadores», de los frescos de la misma rotonda del Banco de Bilbao; apunte de «Arrantzales», y mujer recostada, de un boceto para la obra «Campesinas vascas con frutos y hortalizas», popularmente conocida por «Las manzaneras», pintura al óleo que se halla en el Museo de Bellas Artes de Bilbao.

Lleva en la cubierta dos breves textos en castellano y vascuence, de M. Llano Gorostiza y del que suscribe, con comentarios generales sobre la obra pictórica de Arteta y muy particularmente sobre los fabulosos dibujos del mismo.

Dichos dibujos muestran el concepto ético y estético que se perfila en toda la obra plástica de Aurelio.

Desearíamos que este acertado calendario no fuera más que la introducción del año que conmemora el nacimiento del singular maestro de la pintura vasca, fallecido en trágico accidente en la capital mejicana, el año 1940, durante su exilio.

1979-II-19.

### **INGURUAREN ERAGINA BEOBIDEGAN**

Julio Beobideren hilondoko omenaldian, Ana M.<sup>a</sup> Gutiérrez Márquez-ek hain ongi eraturik Donostiako Aurrezki Kutxak argitaratu duen

liburu ederra eskaintzen zaiolarik, aurkezpenean partaide ginen hizlariok gure artista handi eta maitagarria zen Julio goretsi nahi genuen, guretariko bakoitzak hitz batzuk eskainiz eta, nik nere aldetik, saiaera gisa, artista honengan inguruko giroak izan zuen eraginez ideia batzuk eskaini nituen, gaur orrialde hontan agertzen ditudanak, Julio Beobide zenaren bokazio helbideak nondikakoak zituenari buruz zerbait hurbildu nahiaz behinik-pehin. Uste honekin, eskultorearen lanen argibidetzat edo hauek hobeto aztertzeko; nere eskaintza tipi hontan, zerbait berri adieraztera nator.

Nere iduriz, bokazio hori, Zumaian bertan sortu ez-ezik hemen bertan errotzen da. Lehen lehenik, bere barruan zekarren artista sena; bigarrenik, bere begi zoliak haurtzarotik ohituak zeuden Antxietaren eskutik irten zuen erretaularik onenetakoa den San Pedro parrokiakoa ikusten. Pizgarri askorik ez zuen beharko, baina hemen elikatu zuen bere gogo.

Zahartzaroan, parrokia hau elkarrekin bizitatu genuen batean ohartu nintzen erretaularen detailerik tipienak ere zehatz estudiantuak zituela. Dударik gabe, artista dohaia jaiotzatik zekarren mutikoaren gogo jantzi eta indartu zuen Antxietaren lanak. Gasteizko irudigileen eskolan, ofizioak lanerako eskatzen duen ikastaroak osatu, Madrid-en San Fernando Akademian eta Bilbon Quintin de Torre-kin hobetu eta hornituko zituen ikastaroak; baina sorterriratzean, berriz ere hemen aurkituko zuen haurtzaroan barne gogoaren piztutzaile izan zen erre-aula bera. Behin eta berriz begi zoliz aztertuko zuen, Kalbarioko Kristo gurutzatuak burutzen duen Zumaiako erretaula eta, gure eskultorearen lana ezaguturik, edonor jabetuko da erretaula honek eskultorearen haurtzaroan izango zuen eraginaz.

Zumaiako erretaularen bidez bokazioa indartu zitzaion haur hura, herbestean ikastaroak egin ondotik, hemen bertan kokatu zen, bere sorterrri eta inguruak artistaren gogo lotzen zuelako.

Gure irudimenez, ibilalditxo bat egin dezagun Julio Beobide zenak oinez edo bizikletaz hainbeste aldiz erabili zituen bideetatik. Ibilaldi hontan igarri genezake bere gogoaren betegarrizkoak zer ziren eta, gizonaren obra hobeto ezagutzeaz aparte, bere herriaren inguruari zenbateraino lotu zen ikus dezakegu. Kontuan izan Julio zenaren begirada zorrotzez eta oharpenetarako zuen dohainez.

Pizkunde garaiko lanak zituen maite eta estilo hauetakoa erretaulak eta irudiak gogoko.

Zumaiakoaz aparte, Oikinan eta Zarautzen A. Araozen lanak ongi aztertuko zituen duarik ez dut, berakingo elkarrizketetan maiz aipatzen zituenez. Egile beraren lana, Eibarko parrokian, oso ezaguna ez

ezik, Kresala etxeko paperen artean Araozek Eibarren egindako atlantea Juliok bere eskuz dibujatua bai zuen.

Baina, hoviez gainera, erromanista estiloaren bideak hartu zituztene-gandik hurbilago zebilen, Antxietaren kidekoengandik. Bere lanaren joerak ikusirik ezta hau harritzekoa. Zumaiaetik hurbil, Zarautzen zituen Errosarioko Amaren erretaula (gaur egun Pilar-kotzat ezagutzen dena), Antxietaren ikaslerik onenetakoa zen Ambrosio Bengoetxeak egina, eta eliza berean San Exuperio deritzan erretaula, egile berberari eras-ten zaiona. Ez ziren hauek Julio zenak xehetasunez ikusi gabeak.

Era berean, Azpetiko parrokiari, Bakardadeko Amaren kaperan, Jeronimo Larrearen lana, biziki atsegin zitzaiona, eta bertako Kristo gurutzatuak, itxura batean, badu Julion lanekin zer ikusirik. Donostiako San Bizenten, Bengoetxearen lana, Larrearen laguntzaz egina, besteak beste, atsegin zitzaion eta bere ibilaldietan aztergai. Hau baino urrutiagoko lanak ere ezagutzen zituen, baina ez dugu adierazpenez urrutiagora joan beharrik.

Ez gaitezcan ahaztu B. Imbertoren eskutikako Kristoa Urrestillan, ezta ere Azpeitian epistolaren aldeko kaperan dagoen Ehorzketa eta ikus dezagun Kristoren aurpegia. Kristoren eskua, eta holako kidetasun natural bat aurkituko dugu elkarren artean.

Baina, gure artistak inguruetakok eskulturok azterketarako lagun-garri zituenarren ez dugu esan nahi beretan guztiz kutsatu zenik. Lagun-garri zituen, baina ez kopiatzeko. Gure artistak buruz jasoko zituen. Zumaia eta inguruetan, han-hemenka, baina bere eskuetatik sortzen ziren irudiak ez ziren gauza bera. Barne gogoetaz beraganatu ondorean, bere-kiko etorriaren bidez, era berriturik eskainiko zizkigun lanok. Apaindu-retan neurritz ez ezik, apal eta urri ibiliko zen.


Apainduren urritasun honetan agertzen zuen bere euskalduntasuna, hemen bereizten zen klasiko haien egituretatik. Bere izatean zeraman eta hontan nabari zuen bere nortasuna. Hor zen artistaren arima, gogoetetan barnean egosten zuenari libre uztean berez irtetzen zitzaiona bai zen.

Hori zen artistaren emaitza, herritikakoa herrianga ereduz eskainiz.

### **La influencia del entorno en Beobide**

El libro que acaba de presentar Ana M.<sup>a</sup> Gutiérrez, que trata de la vida y de la obra de Julio Beobide, nos renueva en la memoria la figura insigne de nuestro llorado amigo y gran escultor.

Se dice que el artista no se hace; sino, nace. Es cierto. Pero las



*Julio Beobide. Autorretrato.*

circunstancias del entorno de la propia vida ejercen su influencia, a veces de manera decisiva, en la vocación de cada hombre, y a cada artista le conduce a determinar posturas en los estilos y en las formas.

Para aquel niño predispuesto, que fue Julio Beobide, no pudo pasar inapercibido, desde muy temprana edad, el retablo monumental de la parroquia de su villa natal de Zumaya, obra de Juan de Anchieta; y desde joven conocería también las obras escultóricas del estilo romanista de la segunda mitad del siglo XVI en Zarauz, Oiquina, Azpeitia... y que nos consta que Julio visitaba frecuentemente a pie y en bicicleta.

Y, para que nuestras exposiciones sobre el artista y su obra no resulten repetitivos, éste será mi tema de hoy, basándome en sencillos apuntes, para describir el rico entorno del Renacimiento y las posibles influencias en el ánimo y en la gubia de nuestro escultor.

A esas visitas guiadas por su gusto, de líneas clásicas en sentido general, a ellas y a las consecuencias derivadas de las mismas, que son motivo de reflexión y van dirigidas mis observaciones.

Pero que nadie crea que Julio copiaba o se nutría su inspiración con la contemplación de esas obras de Zumaya y sus proximidades y que él por su parte no ofrecía nada nuevo a la hora de crear. Pues quede bien claro que la personalidad de nuestro artista, dueño de una sensibilidad extraordinaria y una espiritualidad poco común, ejecutó con fidelidad lo que brotaba de su propio interior, de lo más íntimo de su ser, para ofrecernos una obra singular, recia y a la vez sobria, de una sobriedad asombrosa, desprendida de ornamentos, como fruto de la intimidad más honda que le condicionaba su propia naturaleza, su estirpe vasca. Ahí, en esa obra personal, Julio entregó el ser de su alma.

1979-IX-17.

IV

MUSIKAZ  
Sobre Música

## ARANTZAZU, MUSIKAREN BABES LEKU


Lehenago Aita Donostiaren lanetatik eta gero Arana Martijarenetatik, bagenekin musika gaietan zein garrantzitsua izan zen Arantzazu; baina orain, Jon Bagüés errenderiar gaztearen *Catálogo del Antiguo Archivo Musical del Santuario de Arantzazu* deritzan liburua argitaratzeaz zehatzago jabetzen gara XVII, XVIII. mendeetan eta XIX.-aren lehen partean nolako eragina izan zuen Arantzazuko Musika Kaperak.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren bidez eskuratu zaigun Bagüés-en liburu hau guti bezalako iker lan serioa da. Gure kultur-gintzarako eskaintza ederra.

Liburu hontan katalogatzen diren lanak nola salbatu diren..., beste historia bat da. XV. mendearen bukaerarako baziren Arantzazuren berriak, baina San Frantziskoren ordenakoak 1514an kokatu ziren. Handik berrogei urtera izan zuten komentuaren lehen erreketeta. Orduko artxibotik ez omen zen ezer salbatu. 1622ko uztailen izan zuten bigarren erreketeta eta orduan ere paper guziak erre omen ziren. Beraz, gure egunotara arte heldu zaigun artxiboa ordutik honakoa dugu. Karlisten gerrate garaian, 1834.urteko abuztuan Rodil jeneralak sua eman zion eliza eta komentuari. Orduan galdu zen Gregorio Fernández-en erretaula, baina musikako artxiboa dorrean gordea edo omen zen eta hau salbatu. Beraz, hamazazpigarren mendearen lehen partetik hemeretzigarrenaren lehenerakoa gorde da. Eta hauek klasifikatzea izan da batez ere Bagüés-en lana. Lan hau, bere lizentziaturako tesi gaia du. Lehen estudioak Donostian egin bazituen ere, espezializatzeakoa Barcelona-n burutu zuen eta han Centre de Documentació de Música Catalana delako erakunderekin lan egin zuen hango zenbait artxibo ordenatzen eta hemen bertan ere bai Eresbil-en inguruan.

Arantzazuko musika artxiboaren klasifikaziotik jaso ditugun argitasunak, milatik gora partituraren ordenamenduaz gainera, honek beronekin eman dituen lekukotasunak dira nabarmen agertzen zaizkigunak gure musikaren historia ezagutzera laguntzeko.

Arantzazun bertan, musikaz lagundurik kantatzearen berriak 1594-koak dira. Polifoniazkoak ordea, dokumentatu ahal izan diren agiririk



*Arantzazu.*

zaharrenak, Isastik bere historian jasotzen duenez, 1615ekoak. Eta Musika Kaperaren lehen aipamena, Ventura de Etxebarriaren esku-izkribuetan agertzen denez, 1621ekoa. Berri hauek bigarren erreketara baino lehenagokoak direnez, orduko musika paperik ez da gorde.

Sarrerako orrialdeetan musika eskola sortzeaz eta honen ekintzaz berri jakingarriak eskaintzen ditu 23.-etik hasi eta 37. orrialdeak zehar. Ondorean ikus dezakegu, herriz herri noiz eta nondik nora ibili zen Arantzazuko Musika Kapera, Gipuzkoan ez ezik Gasteiz, Valladolid eta Alcalá de Henares-era arte, inoiz Bilboko frantziskotarrenekin elkarturik.

Ondorengo kapitulu batean musikagileen biografiak aurkituko ditugu. Ezagunak egiten zaizkidanen artean ikusi dut Manuel Sostoa eibartarra, duela lau edo bost urte donostiarrak Eibarko parrokiari eman zuten kontziertu batean, beste batzuen artean, Sostoaen doinuak agertu zituzten. Haren *Gozos* direlakoak eibartarrak gozo gozo entzun zituzten, baina inork ez zekien musikagilea bera herriko semea zenik. A!, gure kultur ahulezia. Foballistia izan balitz ez zen horrelakorik gertatuko.



Katalogoak berak hartzen du liburuaren parterik gehiena, 83-343 orrialdeak. Ondoren zenbait agiriren eraskin bat dakar; musikagileen eta musika obren aurkibidea, azkenik bibliografiaz bukatzeko.

Tesigintzan zuzendari izan zuen Francesc Bonastre i Bertran musikari katalanaren aurkezpena du. Oso laburra, baina oso jakingarria. Maizenik, kanpotikako ikuspegia zabalagoa ez ezik sakonagoa ere izaten denez, Arantzazuko Musika Artxiboaren arabera XVII eta XVIII. mendeetan gure musikaren kultur maila zein goian zegoen adierazten digu. Eta Haendel-en partitura baten kopia, 1758koa aurkitzeak, egilea bera bizi zen garaian, gure musikagileen aurrelartasuna markatzen duela.

Katalogazio hau artxibo zaharrekoa dugunez, esan beharrean gaude gure egunotara arte izan direla Arantzazun musikari ospetsuak, kantari taldeak eta organu bikaina. Jon Bagüés-en lan eder honek merezi du jarraipenezko zerbeit, eta hasteko hor dugu *A la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de su Restauración* (1859-1934) izenburuzko liburua, bertako 334-381. orrialdeak geroztikako musika eta musikariei buruzko berriak eskainiz daudenez.

### Aránzazu refugio de música

Una de esas agradables sorpresas, a las que no estamos habituados en el campo de la investigación de nuestra cultura musical, ha supuesto la publicación del *Catálogo del Antiguo Archivo Musical del Santuario de Aránzazu*, obra de J. Bagüés, editado bajo los auspicios de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.

Esta catalogación, en buena medida, nos testimonia la cultura musical de Euskal-Herria en los siglos XVII, XVIII y el primer tercio del XIX.

La obra contiene más de un millar de partituras de música religiosa y civil, la mayoría de autores vascos perdidos en el tiempo, importantes noticias de la Capilla Musical que funcionó en el Santuario de Aránzazu en los siglos referidos, y sus actuaciones dentro y fuera del país. Un apéndice documental, índices de autores y obras, y una amplia bibliografía sobre el tema, cierran esta importante obra.

Sabíamos de la importancia potencial de nuestros organeros y organistas en las épocas barroca y clásica, en toda la geografía peninsular, pero estábamos faltos de este tipo de trabajos para poder confirmar documentalente la influencia que ejercieron más allá de nuestro territorio.

Esta obra, que constituye la tesis de licenciatura del autor, aporta

un apreciable material para la historia de la música, como muy bien bien apunta Francesc Bonastre i Bertran, que dirigió dicha tesis y se ocupó de hacer la presentación de la obra impresa: «La catalogación del Archivo de Aránzazu suponía en primer lugar, el problema básico de exploración —séanos permitida esta manera de decirlo— de un terreno virgen, es decir, del panorama histórico de la música en Euskal-Herria». Para seguir afirmando: «Muchas de las generalidades que sobre la música hispana del Barroco se han ido repitiendo, se encuentran aquí rebatidas a la luz del documento. Así por ejemplo, sabemos hasta qué punto se conocía en Aránzazu, en los siglos XVII y XVIII, no sólo la música italiana —sin ella no hubiera habido de hecho el Barroco internacional sino también la música centroeuropea. Baste señalar, con esta aseveración que el lector ya encontrará en las páginas siguientes, el hallazgo de dos conciertos de Haendel, copiados en 1758, que da fe de la contemporaneidad de propagación de su música».

Es verdad que hasta la fecha contábamos con muy escasas obras de este género. El propio autor Jon Bagüés nos dirá en el encabezamiento del libro: «No es fácil hacer un resumen de la música vasca durante este período. Faltan estudios parciales. *Música y músicos en el País Vasco* del P. Donostia, *Música vasca* de Arana Martija y *Música y músicos de la Catedral de Pamplona* de Leocacio Hernández Ascunce, son los trabajos más serios escritos hasta el presente sobre la historia de la música vasca».

1980-III-31.

## J. A. LONBIDE MUSIKARIAREN BERRIAK

Elgetan monografigintzan ari nintzenean, bertako seme ospetsuen artean ospetsuenetako bat Juan Andres Lonbide eta Mezkiá aurkitu nuen. 1745. urteko azaroaren 14an jaioa. Bere gurasoak, aita elgetarra eta ama arabarra zituen.

Lonbide, hemeretzi urte zituenerako Bilboko Done Joanes (Joanes bat besterik ez bai zen, baina nonbait euskarazko *Joanes*-tik etorri zitzaion gaztelerazko pluralizazioa) elizako organularia zen, hogetirukin apaiztu zen eta hogetabederatzikin, 1774an, Jaun Done Jakue elizako organulari nagusi agertzen zaigu. Urte hontan bere alogera gehitzearen eskaria egin zuen eta eskari honen onartzean ohar hau aurki-

tzen da: «y salario atento a la especial habilidad de organista y compositor». Beraz, dohain hoberik ezta erraz.

Bere eskaintzaz, klabe eta biolinerako sei sonata aurkeztu zituen Sociedad Bascongada de los Amigos del País elkartera (elkarte honen *Extractos* deritzan agirietan agertzen denez, 1772an), baina gaur egun ez dugu ezagutzen beren burubiderik. Gainera, liburuxka bat ere idatzi zuen *El arte del organista* zeritzana, baina hau ere nonbait galdu zen.

Argi bide horiek ziren *Elgueta con Anguiozar y Ubera* (1975) deritzan liburuaren 138. orrialdean eman nituenak. Heurok, Aita Donostiak egin zituen ikerketetatik atereak ziren. Bereziki *Música y músicos en el País Vasco* (1951) eta *Música de tecla en el País Vasco. Siglo XVIII* (1953) liburuetatik. Bigarren hontan agerrerazi zituen J. A. Urreta Idiazabalgo organulariaren kuadernuetan aurkitu zituen Lonbideren hiru partituretatik bi. Gainerakoak non direnik ez dakigu.

Hara hor gure musika ikertzaileek duten lanetariko bat. Bere karguak izan dituen tokietatik jarraitu dezakete lorratza.

Oraintsu berri onik ere izan dugu. Gaur egun Oviedo-ko katedralean organulari den Angel González Pérez jaunak hiri hartan bizi zen berria aurkitu du. Ez gainera edonolako egotaldia, Katedraleko organulari nagusi bezala baizik. Berri horiek laster R. S. B. Amigos del País-eko Boletinean argitaratuko dira.

1778. urteko azaroaren 27an, Juan Andres Lonbide elgetarrak oposizio bidez irabazi zuen Oviedo-ko katedraleko organulari nagusiaren lan-postua eta han jarraitu zuen zortzi urteren buruan. Bere kargua hartzearen ehun urte betetzeaz, oraingo organulari den Angel González jaunak, Kabildoari aditzera eman zion Lonbideren berri, musikari bezala zuen merezimenduak agerreraiz eta egun hortako ospakuntzak elgetarraren sonataz horniturik bete omen zituzten.

Jose Antonio Arana Martija *Música vasca*-ren egileak aditzera eman didanez, Guy Bourlignieux jaunak Nantes-etik igorri zion «Recherches sur la musique a la Cathédrale d'Oviedo» lanean (*Melanges de la Casa de Velázquez*, Tome III, 1967), Jose Ferrer eta Antonio Saralegui euskal organistak aipatzen ditu, baina Lonbiderenik ez omen dakar ezer.

1786. urteko martxoan Madrid-eko Real Capilla de la Encarnación-eko organularitza irabazi zuen. Urte hortako uztaildean jo zuen Espainiako hiri nagusira eta han jarraitu zuen bere azken egunak arte. Garai haietan, Espainiako organulari guzien gogozkoa zen Madrid-eko lan-postu hori eta bertara heltzeko azterketa zorrotzak egiten omen ziren. Hortik ikus dezakegu Elgetako seme hau ez zela edonor. Gaur, bere izena gorestean arrazoi gehiagorekin gogoratzen ditugu hor zehar

nonbait galdurik dauden esku-izkribuak, bere doinu eta organularitzari buruzko liburua. Madrid-eko gordailuren batean izango dira elgetarraren paperak eta han edo bera ibili zen tokietan ondo begiratzea merezi luke.

Dena dela, aurrerantzean, Elgetako herriak ere badu nor goraiatu eta kaleren bati izena emateko orduan ere presente izan dezatela musikari ospetsu hau.

### Noticias del músico J. A. Lombide

Al confeccionar la monografía de Elgueta, entre los hijos ilustres de esta villa, me encontré con el músico Juan Andrés de Lombide. Nacido el 14 de noviembre de 1745, que a la temprana edad de diecinueve años era ya organista de la Capilla de Santos Juanes de Bilbao, a los veintitrés se ordenó sacerdote y, en 1774, a los veintinueve años figuraba de organista principal de la Capilla de la parroquia del Señor Santiago de Bilbao. En este cargo, en octubre de 1774, solicitó aumento de salario, que le fue adjudicado haciendo constar en una nota «y salario atento a la especial habilidad de organista y compositor».

Presentó, con su dedicatoria, seis sonatas de clave y violín a la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, del que era miembro (Extracto de la Sociedad, 1772), de los que hoy no se sabe el paradero. Además, escribió un libro o tratado de música bajo el título *El arte del organista*.

Estos datos se los debemos a las investigaciones realizadas por el R. P. José Antonio de Donostia, quien las publicó en su obra *Música y músicos en el País Vasco* (1951), y en *Música de tecla en el País Vasco. Siglo XVIII* (1953) donde dio a la luz las partituras que provenían del cartapacio de J. A. de Urreta, organista de Idiazábal, según indica en la introducción a dicha obra. Pero de otras nada se sabe.

He aquí un descubierto para nuestros investigadores de la música. La pista se puede seguir por los lugares donde desempeñó sus cargos y las entidades a las que perteneció.

Por de pronto, una grata noticia nos llega del actual organista de la Catedral de Oviedo, don Angel González, que ha descubierto la estancia de Lombide en aquella capital. El resultado de su investigación esperamos sea publicado en el Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

Según nos notifica, el 27 de noviembre de 1778, Juan Andrés de Lombide ganó la plaza de organista de la Catedral de Oviedo y en el primer templo de la capital asturiana desempeñó la organistía por espacio de ocho años. Hecho que, según me notifica el amigo J. A. Arana Martija, no recoge Guy Bourligueux en su trabajo «Recherches sur la musique a la Cathédrale d'Oviedo», que vio la luz en *Melanges de la Casa de Velázquez* (tomo III, 1967).

En marzo de 1786, tras reñidas oposiciones, ganó la plaza de organista principal de la Real Capilla de la Encarnación de Madrid, meta a la que aspiraban los más preclaros organistas de aquella época. Se trasladó a la capital de España en julio de aquel año y allí terminó sus días.

Es muy probable que en algún archivo de Madrid se guarden los manuscritos del elguetarra Lombide.

## JOSE BUSTINDUI DONOSTIAR MUSIKARIAREN MENDEURRENA

Aurtengo apirilaren azken egunean beteko dira ehun urte Jose Bustindui Bolinaga donostiar musikariaren jaiotzarena. Ezagutzen ditudan biografiazko aipamen laburretan ez da jartzen bere sortegunik, baina San Bizente parrokian bataiatua izan zen 1882ko apirilaren 30ean. Horregatik, musikazaleak garaiz jakitun ipini nahi ditut, musikari ospetsuaren alde zerbait egin dezaten. Gainera, aurten, apirilaren azkena baino lehen jenderik gehiena fobail mundialarekin erdi txoraturik ibiliko baita gure kulturaren kalterako, eta tamalgarria litzaiguke biolin kontzertulari ospetsuaren jaioteguna inor ohartu gabe isilean igarotzea.

Jose Bustindui, bere gurasoak eibartarrak zituen, Bustindui armagin famatuen familikoak. Bere aita, Nikolas Bustindui, Donostiako Artes y Oficios eskolako zuzendaria izan zen; besteak beste *La industria guipuzcoana en fin de siglo* (1894) deritzan liburuaren egile ingeneria.

Josek haurtzarotik erakutsi zuen musikaritzarako dohaina, bederatzi urterako biolina jotzen ikasteari emana zen, Donostian bertan, lehenik Gimonekin eta gero A. Larrotxakin. Hamabost urte bete baino lehen hasi zen kontzertuak ematen eta Albeniz eta Arbós-ek entzun zutenean Bruselas-era bialtzea gomendatu zuten, hango Kontserbatorioan ikasketak jarraitzeko. Belgikan Thomson-ekin bukatu zuen biolin ikasketa eta Huberti eta Tinel-ekin armonia. Bere kontsertuak laster entzun ziren Bel-

gikako hirietan ez ezik Paris-ko Erard aretoan ere. Hogetabat urtekin eman zituen Espainian zehar bere lehen errezitaldiak eta 1903.eko urte hartan Madrid-eko Kontserbatorioko katedrara presentatu zen eta ez zuten hartu arautegiak eskatzen zuen adinik ez zuelako.

Urrengo urtean, 1904an, Thomson irakasleak Atenas-ko Kontserbatorioan biolin eta kamarako irakasle tokia lortu zion; 1906tik Pireokoarekin batera eroango zuena.

Grezian erregeen Korteko biolinista izendatu zuten, eta lortu zuen osperei esker, kontsertuak emateko eskariak non-nahitik zetorkion. Sonata errezitakal ematez aparte laukote bat ere sortu zuen. Bere herrienganako maitasunak maiz ekarri zuen Donostiako Gran Casino-ra. Garai haietan entzute handikoak izan ziren Esmirna, Konstantinopla, Alexandria, El Cairo, Viena eta beste zenbait hiritan eman zituen errezitakal.

1915. urte inguruan, bere musika irakasle eta biolinista ekintzeri orkestra zuzendariarena gehitu zion eta gauza jakina da Europako talde instrumentalak bere zuzendaritzapean hartzean Euskal Herriko doinuaz eratutako sinfonia obrak ere sartzan zituela, gure musikaren zabalkundea eginaz. Adibide hoiek erakusten digutenaren arabera, orain Espainiako erregina den Sofia-ren gurasoak euskal musiketara eginak zeudela esan genezake erregeen Gorteko biolinista izendatua zenezkero.

Rogelio del Villar-ek *Músicos Españoles* obraren bigarren tomoko 329-337. orrialdeetan ematen dizkigu Jose Bustindui Bolinagaren berri zehatzak, eta handik jasoak ikus genezake A. Sagardiaren *Músicos vascos*-en lehen tomoan.

Bustindui, Greziako Orden del Salvador-go zaldun izatera iritsi zen; Frantziako Akademiako ofizial eta Orden de Villaviciosa-ko zilarrezko domina jaso zuen.

Gure belaunaldian ezagutu ditugun ezbeharregatik hain ahaztua eduki badugu ere, musikako kultur munduan J. Bustindui ez du galdu ospirik. Guretzat ere ohorerik aski badu, bertako seme izatez gainera euskal musikar munduan zabaltzen ahalegindu zenez. Errenderiako «Musikaste» elkarteak ondo daki Euskal Herriko seme musikarien oroitzeapena gorazarrez agertzen eta asko poztuko ginake aurtengo ekintzetako programan Jose Bustindui donostiarraren omenez zerbañt eskainiko balu. Baina, baita ere, Donostian bertan, zeren horrenbeste merezi bai du bertako seme musikari ospetsu batek

Nik uste dut, maila hortako musikari batek ondo merezia duela bere herriagandiko omenaldia, holako gizonik maizegi sortzen ez denez. Donostiarrak badakite ospatze oparotsuak eskaintzen eta garaiz daude merezimendu hori behar den neurrian bete ahal izateko.

## Centenario del músico donostiarra José Bustinduy

El presente año se cumple el centenario del nacimiento de un ilustre músico donostiarra: José Bustinduy Bolinaga. Según consta, fue bautizado en la parroquia de San Vicente el 30 de abril de 1882.

Era hijo de aquel ingeniero eibarrés Nicolás Bustinduy Vergara, descendiente de los renombrados armeros de su apellido, que fue director de la Escuela de Artes y Oficios de San Sebastián y autor, entre otras obras, de *La industria guipuzcoana en fin de siglo* (1894).

José Bustinduy fue un virtuoso concertista de violín, que destacó para los quince años y a quien Albéniz y Arbós le aconsejaron se trasladase a Bruselas para ampliar estudios en el Conservatorio de la capital belga. Tuvo a Thomson por maestro de violín y estudió armonía con Huberti y Tinel, logrando brillantes galardones. Tras sus éxitos en Bruselas y París, en 1903 dio varios recitales en España.

Su maestro Thomson le proporcionó, en 1904, una plaza de profesor de violín y música de cámara en el Conservatorio de Atenas, que desde 1906 simultaneó con otra lograda en el de El Pireo, donde formó instrumentistas muy notables. Actuó en diversas ocasiones en el Gran Casino de San Sebastián, su ciudad natal, y recorrió con recitales: Constantinopla, Alejandría, El Cairo, Viena, etc., alcanzando clamorosos triunfos.

A su actividad pedagógica y violinística, hacia 1915, agregó la de dirección orquestal, y al dirigir conjuntos instrumentales introducía obras sinfónicas vascas y por ello se le considera un propagador de nuestra música.

En Grecia fue nombrado violinista de la Corte, y entre otros nombramientos contaba el de Caballero de la Orden del Salvador, de Grecia, y oficial de la Academia Francesa.

Motivos suficientes para que San Sebastián le rinda un merecido homenaje y «Musikaste» le dedique algún recuerdo especial dentro de la semana musical que con tanto acierto sabe organizar año tras año.

1982-I-25.

V

HIZKUNTZA ETA LITERATURAZ

Sobre Lengua y Literatura



## GURE HIZKUNTZAREN SORRERAN, PIRINEOA ARDATZ (I)



Gaur egun gure herrian irautzen duen bizimodurik zaharrena arzaingoa dugu, noski. Neolitos garaitik datorkigu gure euskara hizkuntza artikulatu bezala, orduan hartuko zuen zalutasuna eta Pirineoa izango zuen bere ardatz.

Euskaldunoi garrantzi handikoa zaigu Neolitos aldia. Lehen ere emana dut aldi horren berri, ikus *Gogoz* liburuaren 60-63 orrialdeetan Baina oraingo hontan, kultur era zahar horrek bere mugak nondik nora zituen eta euskararen lehenakin duen zer ikusiaz zerbait adierazi nahi nuke.

Gure artean maizegi erabili da gure hizkuntza Harri-aro edo Paleolitos garaietakoa den iritzia. Egia esan, Harri-arokorik zerbait eduki lezake, baina mintzaira zalutzat ezin genezake jo gizonak ihiza, arrantza eta frutu biltze soiletik bizi ziren garaikoa. Gizarte hartakoek ez bai zuten mintzaira zalu baten beharrik. Hizkuntza, harreman premia-tik sortutako fenomenua den aldetik, Harri-aroko gizonak hitz soilak aski zituzten. Mintzaira zalua, bizi moldeak ugarizetik zetorren eta Neolitos aldirako ihiza, arrantza, frutu bilketa, abelzaintza, eta honek berakin zekartzan esne, haragi eta hile (lana) ekoizpen edo produktuen ondorenez behar ziren tresnagileak eta guzion harat-hunatak ekarri zion gizonari lehen merkatalgoarekin harreman estuago eta bizkorragoetz bizitzeko premia.

Euskarak, nekazaritza garaia baino lehen, bi urte-aro baizik ez ditu ezagutu: udara eta negua. Hortik sortu ziren udaberri, udazken, udagoien... Eta artzainak oraindik orain ere bi urte-arotan moldaturik dabilta: mendi goietan udara igaroaz eta ibarretan negua. Neguko elurteetan ezin dira bizi belarrak estalirik gelditzen diren larretan eta, horregatik, behe aldeko ibarretan bilatu beharra abereak bazkatzeko larradiak. Baina neguko elurte horri esker, udarako belar goxoak sortuko dira mendiko larretan, eta negualdean ibarretan sakabanaturik ibiltzen diren artzain eta unainak berriz elkartzen dira Pirineoko mendietan.

Kantabriako itsasoa eta Ebro ibaiaren hegala bereizten dituzten



*Ekain* (Gipuzkoa).

mendietatik, Gorbea, Zاراia, Aizgorri, Aralargoek, gehienek itsasaldera joten dute. Baina guziak, beti, elurrak gutien estalduko dituen lur epe-agoen bila.

Arrazoi horregatik, mendiak dira, artzaintzaren munduan, elkartze lekuak, beren bizimodu horren ardatz. Era berean, itsasoa eta ibaiak, muga. Abereak mendiz igarotzeko ez dago inolazko eragozpenik, baina bai abere taldeok ibai handiak pasa ahal izateko. Honegatik, Neolitos alditik, artzaingoak, Ebro eta Garona ibaiak izan ditu gizarte horren mugatzat eta Pirineoa elkartasunaren ardatz.

Eskoletatik hasita, maiz esan zaigu Pirineoa muga naturala dela. Baina etnografiaz arduratu eta Pirineoko mendi eta haranak oinez ibiliak ditugunontzat, bi hegialak batean lotzen eta elkartzen dituzten mendiak dira. Gizartez, esate baterako, Aragoiko Barbastrotik Teruel-era alde handiagoak dira Barbastro-tik Campan-era baino.

Duela lau edo bost mila urte errotu zen oraindik irautzen duen bizimodu hau, eta bi Estaduen artean jarritako mugak, denborarekin bere lan bereizgarria eginarren, anitz bizi molde oraindik gordetzen dira.

Pirineo ardatz bazen, herri-larrak bertan zirelako zen. Abereen jabe familiak baziren ere, lurrak guzianak bai ziren. Ekonomiaren desberdintasuna ez zetorren lurren jabetzatik, baizik abere asko edukitze-tik. Hemendik dator *aberatsa*.

Hontaz jabetzeko, on ditugu, adibidez, Descheemaeker-en «Las facerías Pyréneennes et du pays basque» (Eusko-Jakintza, Sara, 1974) edo Fairen Guillén-en «Las facerías quinquenales internacionales del Valle de Baztán» (Pirineos, Zaragoza, 1956), gaurko Euskal Herriari dagokion partean. Jakina, lehen lehengo Euskal Herria, Neolitos garaikoa, zabalagoa izanen zen, Ebro-tik Garona-ra, Pirineoa ardatz zuelarik, eta hor egosi eta zalutu euskara gure aurretikoek.

## **El Pirineo, eje en los orígenes de nuestra lengua (I)**

La forma de vida más antigua, que aún perdura en el país, es el pastoreo heredado desde el Neolítico.

El estadio pastoril, entre otras características culturales, hizo posible el desarrollo del idioma flexible y articulado, y durante el mismo, se fundamentó básicamente el euskara. Hay quienes remontan nuestra lengua a las épocas Paleolíticas, pero las limitadas formas de vida del estadio del recolector, cazador y pescador, no hacían necesario un idioma que hoy entendemos como tal, sino la utilización simple de monosílabos.

El Pirineo, lejos de ser una frontera natural, era el centro de fusión en el Neolítico, que los arqueólogos llaman cultura pirenaica. La vida estaba sujeta a dos estaciones principales en el año, con ciclos de verano e invierno, y trashumancia entre los pastos altos de verano y las riberas en invierno. Los límites de esa forma de vida, estaban condicionados a los dos grandes ríos Ebro y Garona, por la dificultad que representaban los mismos para vadearlos con los rebaños de ganado.

El hombre, con la domesticación y crianza de los animales y los productos derivados de los mismos, alcanzó un incipiente comercio, que unido a los traslados y las formas de vida anteriores, que indudablemente seguían, contribuyeron al desarrollo de una lengua fundamental. Luego es aventurado pensar que el euskara sea una lengua de las épocas paleolíticas. Su desarrollo, en lo que entendemos como idioma flexible, data de unos cuatro o cinco mil años, asentado dentro de la cultura pirenaica.



*Aspe gailurra Huesca-ko Pirineoetan.*

Muchísimos aspectos del derecho consuetudinario y hasta el usufructo de muchos pastos comunales del Pirineo, no han podido dividirlos ni siquiera los años de convenios entre dos Estados. Así lo testimonian, entre otros, los trabajos de Descheemaeker y Fairen Guillén. Y los que hemos tenido la dicha de recorrer a pie gran parte de las montañas y valles del Pirineo, sabemos que esta cordillera es un punto de fusión étnica, y no de división, como han tratado de mostrarnos desde la escuela.

1979-I-29.

## GURE HIZKUNTZAREN SORRERAN, PIRINEOA ARDATZ (II)

Europako lehen aurrerakuntzetan artzaingoa sartu zelarik, Harri-aroak kultur era berri batera jo zuen, Neolitos garaitik hasi eta Eneolitos deritzan aldian Pirineo guzian berebiziko hedakunde nabarituriko zuena: Garona eta Ebro ibaien artean, Pirineoa ardatz, artzaintza ekonomia bihurtu zen gizarte hartako bizibideen nagusi.

Kultur aldi hori adiarazteko, arkeologia eta etnologia hartu behar ditugu oinarri. Beste helbiderik ez dugu. Arestian laburki emanak, arazoa garbi uzteko, beste azter lan batzuk eskatzen ditu lagungarri. Hauen artean, J. M. Barandiaran-ek Euskal-Herriko lehen gizonez eta oitura zaharrez bilduak eta L. Pericot Garcia-k Pirineoaz erakutsia, «Los sepulcros megalíticos catalanes y la cultura pirenaica», adibidez.

Guretzat garrantzi handiko aroak ziren haiek, gure hizkuntzaren zalutasuna ordutikoa dugunez, eta hizkuntza hau dugunez, herri bezala, nortasuna ematen diguna.

Hizkuntza zalua lortzez aparte, gauza ugariago ezagutzera heldu ziren orduko gizonak eta hiztegia aberastu beharrean aurkitu ziren.

Aberats ideia, latinezko *Pecu* = abere; *pecunia* = «riqueza»-tik dator, noski. Aberatsa bera ere, Schuchardt-en ustez, latineko «habere»-tik hartua omen da. Hau ere hala daiteke, provenzalez ere aberea «avera» denez.

Hizkuntzari dagokionez, euskarak zalutasun naroa hartzez aparte, era orokorrez isomorfo izanik ere, gure egunotan oraindik gordetzen diren euskalkiak aintzinako isoglosak markatuak dira. Mitxelenaren ustez, aintzinako tribuen zatiketeri erantzuten diote gaurko isoglosa horiek. (Ikus. *La lengua vasca*-ren 53 orrialdean). Hala dirudi, eta aintzina-



*Pombie-tik Balaitus aldea.*

ko zatiketa tribal horrek, gutienez, Eneolitos garaira arte eramango gaitu eta tribu hoiek larraldaketa edo trashumanziari loturik heldu zen. Horregatik, hain zuzen, isoglosak Pirineoaren Ifarretik Hegoaldera kruzaturik aurkitze hau.

R. Plandé-ren «La formation politique de la frontiere des Pyrénées» deritzan lanak emango digu argitasun gehiago (ikus «Géogr. Pyrénées», t. IX, 1938, 221-243 orrialdeetan). Pirineoa, gizon modernoak asmatutako muga izanarren, bere naturalezaz, inolako mugarik gabe, bi alderdietako herriak biltzen dituen mendiak dira. Pirineoko kultura zahar harek, arestian esan bezala, Ebro eta Garona ibaiak eta Kantabriako itsasoa zituen mugatzat. Milaka urteetan, larraldaketa ber-berak jarraitu zituen artzaingoak, Ifarretik Hegora harreman edo komunikabide estuagoak zituela, eta honek kondizionatu zituen hizkuntzaren barneko isoglosak.

Euskalkiak Pirineoa goitik-behera kruzatze horien arrazoi bakarra trashumanziak larraldieri loturik ibiltzearen kondizionamentua da. Horregatik, fenomeno ber-bera agertuko zaigu euskara aintzina galdu zen parajeetan ere, erromantzeen dialektoak ere larraldaketen isoglosak daramatenez. Horrela, katalan hizkuntza Rosellón partean, eta, era berean,

Languedoc parte guzian: Bigorreko dialektoa Benasque, Arán eta Ribagorza garaian; Biarnokoa Hecho eta Ansó partean. Euskal-Herria ikutzean, isoglosak berdintsu jarraituko dute: Zuberoak Erronkarin aurkituko du bere euskalki kidekoa; Lapurdikoak Nafarroako zenbait haran hartuko ditu, edo alderantziz, nafarra sartuko da Oihartzundik Hondarribiaraino; giputza Nafarroako Sakanra; bizkaiera Arabara eta abar. Hontaz Mitxelenak badakar zerbait, aipatutako obraren 52. orrialdean.

Ebro eta Garona ibaiak heurak ere, neurri bateraino Pirineoko kultura haren muga ziren. Baina, ez noski kultur muga itxiak. Kulturak inoiz ez baidu izan muga itxirik.

Adibidez, Pirineoko kultura zaharrean hilobitzat eraiki ziren treugarri edo dolmenak aztertzean aurkitu diren materialetatik dakigu Ebrotik beherakoekin naiz Garonatik gorakoekin ere izan zituela kultur harremanak. Hontaz, zeramika izan daiteke agiririk bereziena, eta kanpaniforme deritzan lurrontzia edo era berean ditimuturduna, lehenik Mediterraneoan agertzen delarik, Britainiara ere jo zutenez; Hegotik Ifarrera igaro zen Pirineoz gaindi. Beraz, muga ez zen hain hertsia, bizi molde batean hizkuntzaren inguruak nahikoa mugatu bazuen ere.

Bestalde, hizkuntza bera ere, Europan bertan indoeuropearrak baino lehendik ziren hizkuntza zaharragoen errotikako formak ditu bere morfologian, eta honen adierazpenak beste parte bat eskatzen du.

Baina, otoi: artikulutan ematen duguna adierazpen labur bat baikiz ezta. Punduok sakonago ezagutu nahi dituenak aipatzen diren autoreen lanetara jo beharko du.

## **El Pirineo, eje en los orígenes de nuestra lengua (II)**

El estadio pastoril de la cultura pirenaica marca el punto de arranque básico para formular los orígenes de la lengua éuskara. Los conocimientos arqueológicos y etnológicos, a partir de las obras de J. M. de Barandiarán y L. Pericot García, nos pueden ilustrar y situar en el marco adecuado para la comprensión de dicha cultura pirenaica, desde el propio Eneolítico. Por otra parte, R. Plandé nos aclaró la formación artificial de la frontera del Pirineo. Y una atenta lectura de «La lengua vasca» de L. Michelena nos dará la clave de la cuestión. Ya que resulta poco menos que imposible sintetizar los contenidos en estos breves artículos, me daré por satisfecho con difundir una idea fundamental y marcar las fuentes donde se pueda profundizar el tema.

La cultura pirenaica desarrollada entre los grandes ríos Ebro y Garona, como ya se ha dicho, tuvo como eje a la cordillera Pirenaica,

y las rutas invariables de la trashumancia marcaron las isoglosas del euskara. Y, probablemente, del mismo modo ha perdurado en las lenguas romances allá donde se perdió el vascuence; con ejes perpendiculares sobre el Pirineo, siguiendo la mencionada línea trashumante, puesto que son coincidentes las variedades de Languedoc, y que no se explica, de otro modo, a no ser por el condicionamiento de la trashumancia de la economía pastoril.

Sin embargo, ha de quedar bien claro que siempre hubo intercambios culturales. A este respecto, un ejemplo bien elocuente consiste la presencia en nuestros dólmenes de la cerámica campaniforme y la llamada de pezones, que se halla primero al mediodía del Mediterráneo peninsular y pasa por el Pirineo y fue usado también en el Eneolítico de Bretaña. Conexión, sin duda, favorecida por la trashumancia pastoril.

Los lejanos parentescos de nuestra lengua y el primitivo substrato requieren un tratamiento aparte.

1979-II-5.

### GURE HIZKUNTZAREN SORRERAN, PIRINEOA ARDATZ (III)

Artzaintzaren inguruan eta beste zenbait herri ikutuaz, larraldaketak alde batera eta bestera ibiltzea behartzen zuelako, bizikera berraren eraginez eta inguruko herrien harremanez, Pirineo eta inguruetan kultura indartsua lortu zen. J. M. Barandianek dionez, Harri-aroko Madalen aldia geroztik ezagutu ez zen bezalako.

Artzaintza edo artzaingoa hitza, behar bada ezta ongi esana garai hareri. Artzaintza ardi zaintza denez eta garai haretan ardiak haina abere larriak zituzten, eta lehenagotik hezituak gainera. Neolitos aldira orduko behiak hezituak zituzten eta ardiak Neolitos aldiaren azken partera arte ez dira agertzen. Beraz, lehendabizi unaiak ziren abelzaintzan. Baina, gaurko ulerterrezagoa egiten zaigu artzai izena erabiltzea.

Aurreko artikuluetan arkeologia eta etnologiako materialei lotuago ibili gara Pirineoko kultur zaharraren adiarazpenez eta oraingo hontan hizkuntzaren arloa soil soilik erabiliko dugu.

Euskara, hizkuntza bezala, jakitun guziak beti jo dute gauza bitxiztat. Bere egitura ez baita inguruko beste hizkuntzen antzerakoa. Senideren bat bilatu nahiri hasi ziren konparaketak, eta zeinekin ez ote da konparatu? Asia eta Ameriketako hizkuntza zaharrekin ez ezik baita



Australikoekin ere. A. Campión-ek badu «Euskariana» sailean «Orígenes del pueblo euskaldún» deritzan obra bat hiru tomok osatzen dutena eta hirugarrena gai hontaz da. Babel-go dorretik sortu zen ustedenetatik hasi eta Adan eta Eva-ren mintzaira zela esaten zutenen arte, bada hor historia luze bat. Iberiako hizkuntzekin ahaidetasuna bilatu nahirik ibili zirenek, hala ere, zentzunagokoak izan ziren. Baina, munduan zientziak aurreratzen diren neurri berean linguistika bera ere, zientzia bezala, aski aurreratua dugu egun. Honegatik, inoiz baino iturri hobeak eta azterketa jakintsuagoak egiteko aukeran gaude.

«Vasco-iberismo» teoriak ordea, E. Zylharz-ek eman zituen ukapezko agiriak gure artean G. Bähr-en bidez zabalduak. K. Mitxelena berak hala aitortuko zigun bere zenbait lanetan, 1964an argitaratu zuen «Sobre el pasado de la lengua vasca» eta oraintsuagoko «La lengua vasca» deritzanean. Zylharz-en teoria hari arrazoia ematera etorri zen M. Gómez-Moreno zena, iberiatarren izkribuz eman zituen argibideekin. Hortik ikusi zen iberriarrak hizkuntza bat baino gehiago zirela, Euskal-Herriaren hegoaldeko mugetan keltibero mota egiten zela, baina bertako izkribuak euskararekin irakurri ezinezkoak zirela. Gaur egun, teoria horrek ez du zereginik. Eta, honek ez du esan nahi hitzen bat edo beste elkarren artean trukatuak izango ez direnik; baina egitura aldetik beste era bateko hizkuntzatzat joa da.

Pirineo guzian, edo behinik-pehin Andorra ingurutik mendebaldera, Ebro eta Garona ibaiak muga eta Kantabriatik Asturias aldera arte kultura berezi baten hazkuntza nabaritu zen Neolitos garaitik erromatarrek inguru hontan agertu arte, artzaingoaren ekonomian oinarriturik. Trashumantziak markatutako barne isoglosak izan daitezke, baina kultura hortan burutu eta hedatuko zen hizkuntza bakarra euskara zen noski. Harri-aroko zenbait hitz edo formatik hasita heldua eta zalutua.

Izan daitake kanpotik etorritako zenbait famili bertan finkatzea, lehen bertan ziren ihizari eta arrantzaleekin nahastuaz. Gainera, behar bada, ordurako abere hezitzen hasiak zirenekin. Harat-hunat nomada gisa ere ibiltzen baiziren artzainak, larraldi bila. Arrazoizkoa deritzagu. Baina baita ere, daitakeena, hemendik beste lurralde batzuetara joatea. Edo, harreman estuen bidez guziek elkarren artean landuko zituzten elkarren kideko hizkuntzetatik sortu zitezken. Dena dela, gaur egun, oraindik behintzat, ezta posible gauza ziurra jakiterik.

Baina, nondikakotasuna utzita, posibleago da hizkuntzen arteko ahaidetasuna aurkitzea, batez ere elkarren arteko egituren bidez. Eta, azken ikerketak, Trombetti, Uhlenbeck, Dumézil, Bouda eta Lafon-ek eman zituzten argibideei jarraituz, Kaukason aurkitzen den hizkuntza bat omen dugu seniderik hurbilena.

Eta, behar bada, lehen agertu bezala, honek eztu esan nahi handik hona edo hemendik harakoa denik. Seguruenik, gaur erromanikoak, sajonak edo eslaboak diren bezala, orduan ere izango ziren elkarren sende edo kideko mintzaira indoeuropearren hoiek agertu baino lehen, eta hontan ikusten dugu Georgiakoa eta Euskal Herrikoa aintzinagoko hizkuntzen errotikakoak direla. Aintzinako erro hori zabalagoa izango zen, noski. Horregatik, batzuentzat fino-hungaro delakoak ere, edo hobeto esan, honen zati edo forma batzuk, ba omen dute zer ikusirik. Atlas mendietako Bereber mintzairarekin ere holako zerbait aurkitzen da. Azkenean, Krutwig-ek Garaldean deritzan Alpes parte batekoakin ere bai. Mediterraneo aldearekin aintzina batean zer ikusia izango zuen, Pirineoko kultur zaharrak hala erakusten digunez, baina hainbeste teori irristakorren gainetik Cáucaso-koa dugu, batere dudarik gabe, hizkuntzalaririk hoberenak uste dutenez, seniderik hurbilena.

Konparaketa hoietarako, ez dago esan beharrik, hizkuntzari berari erro zaharreko parteak aurkitu beharra dago, batez ere egituraren aldetik, eta hau ez da edozeinen irudimeneko usteetatik burutzeko lana. Gure hizkuntzak, bai latinetik eta bai hau baino lehenagoko indoeuropearregandik gauza asko hartu zuela kontuan izan behar dugu. Ez dut



*Gavarnie-ko larradiak.*

uste gaur hontaz inor harrituko denik, zeren Julio Caro Barojak argi utzi bai zigun «Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con el latín» (1946) deritzan liburuarekin.

Dena dela, «Vasco-caucásico» delako teoria honek oinarri trinkoak jarri ditu, oraindik ere aztarna asko aurkituko dira, era askotako aztarnak, baina nekez aldatuko dira gaur egun hain burutuak dauden teoriak.

Hala ere, guzi hau gora behera, misterio bat da gure hizkuntzaren sorrera. Gaurkoz, ziurtasunez aitortu genezakean gauza bakarra, Eneolitos garaian abelzazintzaren ekonomiaz burutu zen kultura hartan indartu eta zalutua dela, eta hizkuntza bitxiaz gainera, gizonaren lehena ikertzeko lagungarri zaigula. Eta, ezta guti.

### **El Pirineo, eje en los orígenes de nuestra lengua (III)**

En el período Eneolítico, como bien manifestó J. M. de Barandiarán en su obra «El Hombre Prehistórico en el País Vasco»: «Alrededor del pastoreo y en virtud de contactos con diversos pueblos a que daba ocasión la trashumancia, se formó en el Pirineo y en las regiones colindantes una cultura relativamente destacada que no conoció igual desde los buenos tiempos del Magdaleniense».

En este período, asentó su base la lengua eúskara. En cierto modo, hoy, una lengua isla enclavada dentro del continente lingüístico del Grupo Latino. Descartadas ya aquellas teorías de vasco-iberismo, primero por las hipótesis de Zyhlarz y después por los descubrimientos de Manuel Gómez-Moreno, el pariente más próximo del vascuence lo encontraremos en una de las lenguas del Cáucaso. Trombetti, Uhlenbeck, Dumézil, Bouda y Lafon, entre otros, han aportado abundante material de tesis sobre la existencia de un parentesco genético entre ambas lenguas.

De ello se deduce que ambas son islotes de otro continente lingüístico, anterior a las lenguas indoeuropeas. L. Michelena, eminente lingüista y partícipe en estudios comparativos, a pesar de la complejidad del asunto, en más de una ocasión nos ha ilustrado sobre el tema, en trabajos dispersos en revistas especializadas, en «Sobre el pasado de la lengua vasca» (1964), y por último en la obra «La lengua vasca» (1977), pág. 57-64.

1979-II-12.

## MITOZ ETA IDEIAZ

Euskararen mitologiak eta ideologiak liburu mamitsu bat eskaini digu Antonio Tovar jaunak. Oso ongi etorriko zaigu gure herritarentzat. Oraindik orain ere, kulturadun itxuraz, hamaika pertsona badira euskararen sorrera Babel-go nahasmendutik ez ezik Adan eta Ebak paradisuan mintzatzen zirenetik datorrela sinesten dutenek, eta gainerako hizkuntzak sustrai horren ondorengotzat dituztenak. Egia esan, beti izango dira mundu hontan era guzietako pertsonak, lelokeririk harrigarrienak ere sinesteko gertu. Holakoak izan bai dira mirakuluen sortzaille. Beti izango dira arrazoietara makurtzen ez diren gizonak, baina, zori-enez, gehienak zentzunezkoak dira eta hauei zerbituko die Tovar-en *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* deritzan liburu honek. Mitoen nondikakoa eta hizkuntzari buruzko ideiak historian zehar nola izan diren erakusteko oso baliagarria.

Aintzinako denboretatik oraingo eritzi berriak arte, zenbait egilek beren testuetan erabili dituzten aburuak xehetasunez agertzen dizkigu, unerik ilunenak argitzeko ere jakintza eremuetatik irten gabe agertuko dizkigu. Liburu irakurgarria benetan.

Testamentu Zaharreko lehen partean aurkitzen dugun Etorkiaren hamargarren kapituluaren omen ditu euskarak aintzinatiko mito horien oinarriak. Flavio Josefo historia-gileak lehenik eta San Jeronimok geroztik, herrien eta hizkuntzen sorrera Jafet-en semeengandik hasiaz. Tovar-ek ederki harilkatu digu gai hau, alderantziz, haritik mataza lortu arte. Hariok hain nahasiak zeudenez, ondo berezirik jarri ditu. Ordena lojiko batera eramanaz, hara hor edonor jakitun jartzeko eran ipinia.

Obra honen barnean, tarteko izango dira zuzendu beharrezko gauzak, zehaztasunerako lagungarri direnak eta baita gehitu beharrezkoak ere, baina bere funtsean ez dut uste aldaketa askorik egitekoa denik. Esate baterako, 17. orrialdean, Unamunoren eritzi bat zalantzan jartzen du, Puente la Reina hirian euskara noiz arte egin zenari buruz, bertan mundura sortu zen Ximenez de Rada-ren eritziak agertzean (nafar hau bai zen, XIII. mendearen lehen partean, «Iberi» hura «Hispani» edo Espanian jartzen zuena); baina A. Díez y Díaz-ek Gares (=Puente la Reina)-ri buruz egin zuen liburuaren bigarren kapitulua irakurtzen baldin badugu, Unamuno bide zuzenetik zebilela esan behar.

Georgia aldeko Iberia gure Penintsula hontara ekartzetik sortu ziren ondoko eritziak eta Garibay-ren ondotik Poza, Etxabe, Oihenart, Moret, Henao eta beste abiatu ziren teoria hortatik, elkar poztuz eta puztuz. Are gehiago, lehen Penintsula zalantzarri zenetik Túbal Bermeora etorri zela baieztu arte. Baina herrizaletasun hartan bazen urak

norpere eiherrara eroan nahi zuenik ere eta hara nola Lope de Isasti gipuzkoar historigileak probintzi honi buruz 1625ean idatzi zuen liburuan Tubal Pasaiera etorri zela nola aipatzera heldu zen (ikus, IV. liburuko VI. kapitulua).

Astarloa eta Traggia-ren garaian muturrik mutur eta bizi ari ziren gai honi buruzko eztabaidetan. Ordurako Henrique Flórez-ek emana zuen aski argi, Testamentu Zaharreko Iberia ekialdekoa zela eta ez hemengoa, baina setak eta bihozkadak indar handiz jarraitu zuten gure mende hontara arte.

Larramendi bera ere ez zen salbatu neurririk gabeko eritziak ematek. Baina, aburu harrigarrien abiada hartan Astarloa heldu zen dispartearen erpinera. Beretzat, euskara, paradisuan Adan eta Eba mintzatu ziren hizkuntza ber-bera zen, eta gizakiaren lehen hitzak ikertu nahi zituen, haur mutilezkoek «a» eta neskatok «e» zutela lehen hotsa; Adan eta anaia eta Eba ta arreba-ren arteko kidesunak; eta nik ez dakit zenbat amets antzu gehiago. Sabino Arana berak ere hortik hartu zuen emakumezko izenen bukaera «e»-kin eta gizonezkoena «a»-kin izatea. Tovar-ek bere liburuaren 171. orrialdean aipatzen dituen bitxikeriak indar diabolikoa hartzen dute herrian, oker dagoena bera ere hontzat ematera arte; bai, halakok esan duelako eta kitto.

Baina linguistika jakintzak bere bidea egin du. Julio Urkixo eta R. M. Azkuek batez ere, beste bide batetik eraman zituzten beren ekin-tzak, bai bilketaz eta bai azterketaz. Geroztik, pertsona arraro batzuk baizik ez dute aipatu paradisuko hizkuntzarik.

Abertzalekeriz ari diren batzuk beti izango dira gure hizkuntzaren bitxikeriak goraiatzeko; naiz eta erdaraz mintzatu. Baina euskaldunok ohartuak gara gure mintzaira honegatik garala euskaldun; honek ematen digula izena eta sena. Eta beharrezko dugula egungo bizitzak eskatzen duen maila guzietara eramatea: eskoletara, egunkarietara, irratiara, telebistara, administrazioara... Tovar-ek berak ongi dion bezala. Zeren hori ukatzea, bizitza ukatzea baita.

### **Sobre mitología e ideología**

Todavía hay personas en nuestro país, con pretensiones de cultas, que siguen creyendo a pies juntillas los misteriosos orígenes de nuestra lengua vasca y de ser ésta la matriz de donde partieron las otras. Siempre habrá personas con las que no entraremos con la razón, pero la inmensa mayoría seguirá siendo sensata y para ellas, si están interesadas,

puede servir el libro de reciente aparición, *Mitología e ideología sobre la Lengua Vasca*, de Antonio Tovar, que les guiará sobre las distintas creencias y opiniones en la materia a través de la historia, ayudando a aclarar con erudición y sano criterio hasta las partes más intrincadas. Un libro merecedor de una gran difusión.

En él se recogen las distintas teorías existentes desde la antigüedad hasta los modernos conceptos.

Parece ser que todo comenzó de las interpretaciones de Flavio Josefo primero y de San Jerónimo después, del capítulo décimo del *Génesis* para la búsqueda de los fundadores de pueblos y lenguas. Luego se confundió a los íberos de oriente con los de occidente. De ese modo, del hilo salió el ovillo. Pero el entrecruzado de los hilos fue fatal para la lingüística vasca. Harto trabajo le habrá dado a Tovar el desenredar la madeja mal hecha. Lo que ha conseguido con magistral orden cronológico, poniendo las cosas en su sitio y salirse airoso a la información pública.

Toda obra es susceptible y ésta de Tovar podrá admitir algunas modificaciones en pequeños detalles, pero éstas no podrán ser esenciales al argumento general sobre el desarrollo del mito e ideas y síntesis del contenido. Por ejemplo, en la página 17, nota al pie, se puede confirmar que Unamuno estaba seguro al decir que en Puente la Reina (donde nació Ximénez de Rada, quien «Iberi» situó en «Hispani») en el siglo XIX aún se hablaba vascuence, según nos documenta Alejandro Díez y Díaz en el capítulo segundo de su obra monográfica *Puente la Reina y Sarría en la historia* (1977), pero ello no altera los argumentos básicos de la obra.

Tras el historiador guipuzcoano Garibay, Poza, Echave, Oihenart, Moret, Henao y otros fueron hinchando la teoría de la llegada de Túbal. Es más, lo que al principio se apuntaba a la Península de una manera ambigua, la mayoría empezaron a sostener que Túbal llegó por Bermeo. Pero en esto también influyen los patriotismos de campanario y para el historiador Isasti, en su obra escrita en 1625 (lib. IV, cap. VI), desembarcó en Pasajes.

A pesar de que Henrike Flórez aclarara suficientemente el asunto, desde los forcejeos surgidos principalmente en época de Traggia y Astarloo avivaron las posturas contradictorias que se exponían desde tiempos atrás. Las teorías del durangués elevaron nuestra lengua hasta el paraíso, y la caída ha sido mayor a medida que iba avanzando la ciencia lingüística. No obstante, hay que reconocer que el efectismo expuesto en la página 171 aún posee un poder diabólico en nuestro país.

La sabiduría, con el tiempo, ha devuelto las aguas a su cauce. La

obra no tiene desperdicio y recomendamos a cuantos deseen informarse sobre el tema.

1980-XII-1.

## EUSKARA ETA ERDARA

«*Glosas Emilianenses*» deritzanetatik sortu zen gazteleraren erne-  
tzea eta *Cantar del mio Cid*-ekin loratu zen literaturagintzara XII-men-  
dean, geroago urrezko mendea ezagutzera helduko zena.

Denok dakigu gazteleraren garrantziak, eta lerro hauetan ez dut  
ezer idatziko bestek nik baino hobeto adieraziko dutenetik. Honegatik,  
hain zuzen, nahiago dut, adierazpen bidez eta zenbait ideia-  
ren zabalkun-  
dez oharrak egitea, batez ere hizkuntzak elkarren artean muturrik mu-  
tur etsai bezala ez agertzearen alderako asmoz. Bakoitzak bere kultur  
ingurua du eta inor ezin daiteke baztertu, ezta ere tratu txarrez erabili.  
Honegatik, orain arte hain gaizki informatua izan denaren egoera hon-  
tatik, barkatuko didazute euskararen eta euskarazkoaz bereziki jard-  
tzeagatik.

Euskarak, Neolitoz garaian artzaingoaren aldi hartan hazi zenak,  
erromatarren inperioak bere indarrez bultzaturik, Penintsulako hiz-  
kuntzak desegin zituen garaian, bazterturik utzi zuen gure hau. Zoko-  
raturik eta makalik gelditu zen euskara Pirineoko mendebaldean gor-  
derik. Erromanzeak loratzen ziren garaian etzuen jakin edo etzuen lortu  
idazterik eta ezta lortuko ere oso berandura arte. Bere lehen idatzien  
agerpena, zenbait hitz eta izenez, Akitaniako hilarrietan agertzen da  
Kristoren ondotikako lehen mendeetan, eta lehen esaldiak *Glosas Emi-  
lianenses* deritzan agiri zaharretan, gazteleraren sorrerarekin batean.  
Hain zuzen, erromanzeetatik gaztelera formatzerakoan euskarak izan  
zuen bere zer ikusia, kronikagileak euskaraz zekitenez, hotsak ez ezik,  
hor dugu zenbait egitura ere euskararen kutsapenezkoak dituenaren  
lekukotasunez. Kutsapenok, R. Menéndez Pidal zenak aipatu zituen  
*El idioma español en sus primeros tiempos* eta *En torno a la lengua  
vasca* idaz-lanetan, batez ere azkenengo honen bigarren kapituluan.

Pizkundearekin hasi ziren euskal literatura idatziaren lehen kimuak,  
ahozko literaturaren usuarioak lehenagotikakoak baldin badira ere. Baina  
garai modernoetan euskarak ez du izan eskoletarako sarrerarik. Eta hau  
izan da gure hizkuntzak hazkuntza normal baterako izan duen eragoz-  
pen nagusia.

Politika oinarrizko erabakietara erobatan jakin ez duten lekuetan, gobernatzeko ideal ereduazko adibidetzat hartuaz, esate baterako, helvetiako ereduztat izan daitekean bezala, ezin bestean hil edo biziko egoera latz eta zailera bultzatzen dira lehendik aski baztertuak diren hizkuntzak, bere naturalezaz dituzten zailtasunaz gainera, eta, inoiz, honek sortzen ditu gizarteko egon ezinak eta iraultzak. Hala delarik, gaur egun gure herriak bizi dituen eragozpenak hortik sortuak bai dira.

Frankoren errejimenak, euskara biziko bazen, une neketsu eta larri batera eroan zuen, eta honen ondorioz, erantzun natural bezala, euskaldunok gure hizkuntzaren alderako kontzientziaz jabetzera bultzatu ginduzen eta honatik hasi zen azken hamar urteetan ezagutu dugun euskalduntzearen gorapena, Euskaltzaindiaren aginduz eta laguntzaz Siadeco deritzan etxeak egina duen *Euskara hizkuntz-gizarteko ikerketa* lanean ikus daitaken bezala. Gainera setkore pribatuaren laguntza soilez ezagutu den birreuskalduntzea da.

Baina behar beharrezkoa du euskarak hezkuntzako maila guzietan sarrera izatea eta era berean komunikabideetan ere, batez ere telebistan, mintzairaren bizitza gordeko bada.

Kontuan izan behar dugu ez gara eskubide berdinen jabe, haur euskaldunak gaztelera soilean hezitza behartzen direlarik, eta hizkuntzaren galera herri baten kultur bizitzaren pobretasuna denez. Gainera, euskarak aintzinako hizkuntzen tipología zaharra gordetzen duenez mintzairaren eta literaturaren ikerketarako materialik aski eskaintzen digun harrobia dugu. Berau galtzeaz, euskaldunok gure nortasunaren elementurik bereizgarriena galduko genuke eta Espainiak bere historiaren errealitate zati bat. Hala delarik kontzientziaz, gaurko euskaldunok ez dugu inolako eskubiderik arbasoegandik jasotako kultur ondasuna gure semei ukatzeko.

Baina, batez ere, argi gelditu bedi, euskararen salbamena ez dadila izan gaztelarari tokia kentzeko asmoz. Euskaldunok, hizkuntza tipien jabe diren guziak bezala, beste handiago baten premian gara gure harremanen zabalkundez, eta hizkuntza handiago hau gaztelera izan daiteke, gure lurraldean mendeetan hain naro ezarria dagoenez eta gainerrako Penintsulako herrialdeekin anaitasunera hurbiltzen gaituanez. Eta, ez dut esan nahi unibertsalagoa den ustez, askok esan ohi duten bezala, ez, zeren unibertsaltasuna euskara ere partaide den orokortasunean denez eta berau galtzeaz Unibertsioak bere izatearen zati bat galdu lezakealako; eta, unibertsaltasunari begira, ez litzake bidezko, ez zilegi eta ez etika helburu.

Bizitza maitatzen dugu eta eskubide guzia dugu bere alde. Batez ere hizkuntza bakoitzak bere inguru duen kultur izateagatik.



## El vascuence y el castellano

De las *Glosas Emilianenses* brotó el florecer de la lengua castellana que tomaría cuerpo literario con el *Cantar del mío Cid*, en el siglo XII, y más tarde conocería su siglo de oro.

Todos conocemos la importancia de la lengua castellana, y no repetiré en estas líneas aquello que otros puedan describir mejor que yo. Por ello considero preferible anotar otros aspectos orientados a la intercomunicación informativa, con la sana intención de mostrar que a dos lenguas no se las debe enfrentar como rivales. Cada una tiene su entorno cultural y ninguna debe ser maltratada o excluida. Por esto, desde nuestra situación poco y mal informada hasta la fecha, me dispensarán que me incline preferentemente a hacer una exposición del euskara y sobre el euskara.

El vascuence o euskara, que se desarrolló en el estadio pastoril en los tiempos del Neolítico, sufrió su arrinconamiento cuando otras lenguas peninsulares desaparecieron con el empuje del latín durante el imperio romano. El euskara quedó arrinconado y maltrecho en un reducto del occidente pirenaico y, al florecer los romances, no acertó como ellos con la escritura, hasta épocas muy tardías. Su presencia escrita aparece en las lápidas aquitanas en los primeros siglos después de Cristo con simples nombres y vocablos; y las primeras frases propiamente dichas, en las *Glosas Emilianenses*, paralelamente al nacimiento de la lengua castellana. Este hecho nos da a entender que en esa transición del romance vulgar al castellano, es cuando se interfiere el euskara, con cronistas que sabían o entendían el vascuence, influyendo en algunos aspectos de la fonética e incluso en la propia estructura de la lengua naciente, como atestigua R. Menéndez Pidal en sus obras *El idioma español en sus primeros tiempos* y *En torno a la lengua vasca*, capítulo segundo de ésta.

Con el Renacimiento comenzaron los primeros brotes de la literatura culta en vascuence, aunque indudablemente existía la tradición oral. Pero en tiempos modernos no ha tenido acceso a la escuela, y éste ha sido el defecto que ha impedido un desarrollo normal del idioma vasco.

Allí donde la política no se ha sabido orientar hacia las soluciones básicas, tomando como ejemplo los modelos ideales de gobernar, como puede ser para el caso el modelo helvético, arrastra a unas dificultades extremas de vida o muerte al idioma reducido que, por su naturaleza, cuenta con dificultades propias. Y, en ocasiones, esto viene a crear des-

equilibrios de tipo social. De hecho, parte de los problemas que está sufriendo nuestro pueblo son derivados de ello.

El régimen de Franco arrastró al vascuence a una situación extremadamente difícil para poder sobrevivir y, tal vez en consecuencia, como reacción natural, impulsó a los vascos a tomar conciencia en favor de su lengua, y de ahí que ha conocido un proceso de recuperación en los últimos diez años, como se puede comprobar en el *Estudio sociolingüístico del euskara*, trabajo realizado por el centro Siadeco bajo el encargo y la colaboración de la Real Academia de la Lengua Vasca. Recuperación que se debe única y exclusivamente a la iniciativa privada. Pero es menester disponer de acceso a la enseñanza en sus distintos niveles, y a los medios de comunicación, sobre todo a la televisión, para poder asegurar la supervivencia del idioma.

Hemos de ser conscientes de que no disponemos de igualdad de oportunidades mientras a los niños euskaldunes se les obligue a estudiar únicamente con el castellano, y de que la pérdida de un idioma constituye un empobrecimiento en la vida cultural de un país. Además, el vascuence es mantenedor de una tipología antigua capaz de ofrecer una importante fuente informativa para las investigaciones lingüísticas y literarias. Con su extinción, los vascos perderíamos el elemento más importante de nuestra propia identidad, y España una parte de su realidad histórica. En conciencia no tenemos ningún derecho a privar a nuestros hijos del legado cultural que hemos heredado de nuestros antepasados.

Pero, ante todo, ha de quedar bien claro que la salvación del vascuence no presuponga negar espacio al castellano. Los vascos, como toda lengua minoritaria, necesitamos de otra más amplia que nos permita una expansión comunicativa, y ésta debe ser la castellana, asentada ya desde siglos en gran parte de nuestro país y que nos acerca fraternalmente al resto de la Península. Y, no lo digo por más universalidad, como afirman algunos, puesto que el universalismo está en la pluralidad donde también interviene el euskara, y con su extinción el Universo perdería una parte de su ser, lo que no sería ni justo ni ético, en aras de una mayor universalidad.

Amamos la vida y tenemos pleno derecho a ella. Máxime por el entorno cultural que encierra cada idioma.

1980-IX-1.

## EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAZ

Azken urte hoietan zerbait argitu eta hedatu da euskal literaturaren historia. Duela zenbait urte ilunpeko gauzetaz hitz egitea zen euskararen literaturaz ihardutzea. Gehienek ez zekiten zegoenik ere. Gutxi batzuk konturatzen ginen, gure herriak irakurtzen zuenagatik, me-rezi dugun baino literatura aberatsagoa genuela. Baina, batez ere, gure literaturak azken urte hauetan hartu du ikaragarritzko abiadura.

Literaturaren historiaz euskaraz, lehenago Orixek idatzi zuen lan labur hartaz aparte bestelako liburu ederrik ere badugu: S. Onaindia, I. Sarasola, M. Zarate, J. Erzibengoa eta P. Ezkiaga, J. M. Torrealdy eta azkenik E. Zabala ditugu gai hontaz zenbait liburu eskaini dizkigutenen artean.

Orixerena izan ezik, beste guzi horien guraso Fr. Luis Villasantek erdaraz idatzi zuen *Historia de la Literatura Vasca* deritzana dugu. Bere lehen argitalpena Bilbon 1961ean izan zuen. Villasanteren liburu hau baino urte bete lehenago argitaratu zuen K. Mitxelena beste liburu bat titulu berdina. Lan laburragoa eta kritika alderditik begiratu. Gainera, hau berak lehenago enziklopedia handi baten barnean argitaratu zuen.

Dena dela, gure literaturaren zabalkunde handia Villasanteren obra eta garai berean pizten hasia zen ekintzaren eraginak ekarri zuen.

Une garrantzitsua izan zen hura, zapalkuntza baten ondoriozko kontzientzia batetik sortua. Euskararen alde zerbait egin nahi genuen guzoi gure autore zahar eta beren lanaren berriak eskaintzen zizkigun. Ordura arte inoiz ez bezala, orotara begiratu, sistematikoki eratu, garai bakoitzeko eta autore bakoitzeko xehetasunak agertuaz. Hau da, gure literaturaren gorputz osoari begiratu. Eta bertatik bizkortuko ziren gero lanak, edo, behinik-pehin, lan horien zuzpertzaila eta bultzatzaile bilakatuko zen Villasanteren obra.

Obra hau, igaz, berriz argitaratu zen. Baina ez zenbait aburu emalek esan duten eran, «Apendice» bat erantsiaz; ez. Hau ezta gehigarri bakarra. Hau, ordutik gure egunotara hil diren autoreen parte esarritzea baizik ezta izan: Orixegandik Lopez-Mendizabalera arte. Lehen ere, obra, hilak diren egileetan mugatzen zenez. Baina, azken urteotan hildakoen artetik ere, denak sartu ezinez, aukerazko hautapen bat egiten du eta 444. orrialdean beste batzuen zerrenda dakar, oharrez, beren berri non aurkitu aditzera emanaz.

Gainerakoan, zuzenketa gutxi batzuk egitez aparte, egile bakoitzari buruzko bibliografiak gaurkotzen ditu, lehen argitalpenetik bigarrenera bitartean, hamazortzi urteren buruan, gehitu diren estudio, saio edo

biografien berriak erantsiz. Horrez gainera, beste gehigarri batzuk dira testuen barna egiten dituen deierí orrialdeen barrenean gehitu dituen oharra. Gure iduriz asko gehituaz dator bigarren edizio hau.

Izen, toki eta gai analisi aurkibideak liburu erabilgarria egiten dute. Zernahi azkar bilatzeko eran. Behar bada, hain egokia ez dena, aurkibidearen numeroz zatitzea da, orrialdez beharrean. Baina, hau ere, azken batean metodoaren obitura da.

Euskal Literaturaz edonolako azterketak egin nahi duenak harrobi aberatsa aurkituko du Fr. Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* deritzan liburu ederrean. Bertan, literatura soila ez ezik, honen inguruari dagokiona ere bildua aurkituko dugu eta gure kulturaz eta historiari berri asko eskaintzen digu.

Obra honek egilearen langiletasuna eta trebetasuna adierazten du. Eta hau ongo ezagutzera heldu nintzen zortzi urteren buruan Euskaltzaindiko zuzendaritzan elkarrekin lan egitean.

### **Sobre la historia de la literatura vasca**

En estos últimos años se han editado varias historias y antologías de la literatura euskara, tanto en vascuence como en castellano. Todavía es muy reciente la aparición de la obra *Euskal alfabetatzeko literatura* de E. Zabala, con breves reseñas histórico-críticas y muestras de textos de los autores. Una obra eficaz para la introducción a las nociones fundamentales de la literatura vasca.

El interés por nuestra literatura se fue acrecentando tras las publicaciones de las obras de una historia crítica debida a L. Michelena, en 1960, seguida de otra extensa historia general de L. Villasante, en 1961. Esta última, consistía en un corpus general que ha sido base y guía para el conocimiento de la literatura en sí, así como para la investigación sobre cualquier autor o género de las distintas épocas de la historia; y en un momento crucial vino a incidir hacia el nuevo desarrollo de la misma.

El pasado año vio la luz, en su segunda edición, la *Historia de la Literatura Vasca*, de Fr. Luis Villasante, que mantiene la misma estructura de libro, con correcciones y adiciones al texto primitivo, con un apéndice actualizador e intercalando notas ampliatorias a pie de página.

Constituye una obra rica en contenido y que, hoy por hoy, seguirá siendo la fuente indispensable para toda persona interesada por el conocimiento de la literatura en euskara.

La obra viene a ser fiel reflejo del hombre, laborioso y ordenado,

con quien me honra el haber compartido durante ocho años nuestros trabajos al frente de la corporación académica.

1980-III-10.

## EUSKALDUNEN HIZKUNTZAREN HASTAPENAK

Iragan ostiralez, ekainaren 27an, aurrez programan irarria zegoanaren arabera, Patxi Altunak paratu duen *Linguae Vasconum primitiae* (Edizio kritikoa) aurkeztu zen Gipuzkoako Diputazioaren jauregian. Luis Villasanteren agurrezko hitzen ondotik L. Mitxelena, L. Akesolo eta Altuna beraren mintzaldiz. Edizio berriaren oinarriak, Etxepare 400 urte geroago eta liburuaren prestaketaz ihardun ziren hizlariok.

Euskaltzaindiak Euskararen Lekukoak sailean argitaratu du liburu hau Mensajero argitaletxeekin batean. Lekukoak deritzan saileko lehena Apeztexeak Lizarraga Elkanokoaz hornitu zuena izan zen.

Oraingo hau, Patxi Altunak paratua, bere doktoradutzako hiruzkianaren azkena da. Beste bi liburuak igaz argitaratu ziren: *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación* eta *Etxepareren Hiztegia. Lexicón Dechepariano* deritzanak.

Egileak Bernard Etxeparez bost urteren buruan osatu dituen iker lanen fruitu dira hiru argitalpen hauek. Baina Etxepareren hizkuntza eta poesia ez ezik, euskara zaharraren egiturak, orduko literatura erak eta gizarte arazoak eta abar ezagutzeko ere lan baliagarria deritzagu. Hiru liburuetatik teknikoena lehen tomoa izanen da. Doktoradu tesia osatzen duena. Honek, Mitxelenaren hitzaurrea daroa eta bertan dionez, ahozkeraz eta gramatikaz Altunak egin dituen aurkikuntzak garrantzitsuak dira. Bertako xehetasunak ugariak bezain zehatzak direla. Lanari buruzko eritziak, ahozkeraz eta lanaren irakurketa, neurria eta erritmoaren azentua, bertsoen sailketa, desberdintasunen analisisa, loturazko fenomenoak, hitz batzuen erabilkera eta abar hartzen ditu oinarri. Bigarren tomoak ordea, hitzen eta adizkien zerrendak biltzen ditu, bakoitzari bere ohar bereziak eginaz. Tomo bakoitzak berari dagokion oinarriko bibliografia daroa.

Holako lanik guti burutu da gure artean. Lehenago J. Haritschelharrek egin zigun holako zerbait Barkoxeko Etxahunen lanez. Bestela, lotsagarria bada ere, atzerritarrek izan bai dira gure autore zaharrak aztertzen gehien ahalegindu direnak.

Orain aurkeztu den hirugarren hau J. L. Orella-ren hitzaurrez dator. Etxepare poetaren garaiko Nafarroako giroa aztertzen du bertan. Eta, ondotik egilearen aintzin solasa.

Bernard Etxepareren liburu hau, edonork dakien bezala, ezagutzen den lehen liburu inprimatua da euskaraz, 1545. urtean Bordelen argitaratua. Etxepareren bizitzaz oso guti dakigu bere poema batean esaten duenez aparte. Ber berak «Mosen Bernat Etxepare kantua» deitzen diona, autobiografia eraz egina da; benetan izugarria. Eiheralarreko apezaz izan zen, Beaumontarren aldekoa. Beraz, Gaztelako erregearen alde paratu zen Nafarroak bere erregetza galtzeko zorian agertu zenean eta honegatik presondegiratu zuen nafarren erregeak. Laurehun urtez geroztik ezta erraz orduko egintzak epaitzea. Baina Etxepareri inork ukatu ezinezkoa da bere euskaltzaletasuna, azken bi poemak lekuko.

Maiz, gure Etxepare, Hitako Artziprestearekin konparatua izan da, Patxik ongi dion bezala, biak apez eta Trento aurrekoak zirelako nonbait. Baina, elkarrekidetasunik baldin badute, garaigatik gehiago da. Gaiez eta bertsogintzaz badute desberdintasunik. Etxepare bera, Hitakoa baino gordinagoa da. Behar bada horregatik ez zen gelditu liburuaren ale soil bat besterik Trento ondorean. Oihenartek aipatzen duen bigarren argitalpenetik ale bat bera ere ez zaigu gelditu.

Bernard Etxeparek erabiltzen duen gai nagusia, emakumea da. Sarreran Kristau dotrina adierazi ondorean, amorezko kantak erabiliko ditu, zein emakumezko den Andra Maria Birjinari edo zein emaztearen faboreak goraiatzeko, maiz errepikatuz gizonarentzat ez dela emakumea bezalakorik. Hamaika poema sailetan gai hori adierazi ondorean dator bere buruari eskaintzen diona, azkenik euskararen ohorez Kontrapaz eta Sautrela agertuaz.

Hiru tomoen hitzaurreetan eta batipat lehenaren bi lehen kapituluetan, Altuna bera, poetaz eta haren lanez aritu zen. Oraingo honetan, hirugarrenean, Etxepareren *Linguae Vasconum primitiae*-ren lehen edizionetik han bertan dagoen bezala testu osoa, bertsorik bertso, jartzen du orrialde batean eta bestean hura bera gaur egungo ortografiaz, eta azpian oharrak. Ohar horietarako V. Stempf eta R. Lafon-en ikerketaz baliatu da gehien bat. Baina bi hioen ikerketak guti ziren orain Altunak eskaintzen dizkigun ondoan.

Altunaren eritiziz, Etxepareren lana bera ezta egileagan bat batean sortutako poema lana, baizik herriagan lehendik zen tradizio zaharrago baten fruitua da. Hala erakusten bai du bere bertsogintza bikain bezain jatorrak.

## Primicias de la lengua vasca

El viernes día 27, tuvo lugar la presentación de la obra *Linguae Vasconum primitiae* (Edición crítica) de Francisco M.<sup>a</sup> Altuna, en el palacio de la Diputación de Guipúzcoa, con intervenciones de L. Villasanté, L. Michelena, L. Akesolo y el propio autor.

Esta edición crítica de la obra *Linguae Vasconum primitiae* de B. Dechepare es la tercera de la trilogía que viene a completar como resultado de cinco años de investigación sobre el primer autor conocido de la literatura vasca: Bernard Dechepare. Esta edición crítica ha salido a la luz en coedición entre la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y Mensajero, siendo el segundo volumen que Euskaltzaindia va publicando sobre clásicos vascos (Euskararen Lekukoak). Presenta, además del texto original con su grafía primitiva y la grafía moderna —a fin de facilitar su lectura a los no familiarizados con la grafía antigua— una copiosa serie de notas y comentarios de los aspectos más interesantes de la lengua, versificación y sintaxis del autor. Se trata, por ello, de un texto escolar de suma utilidad para cuantos hoy se afanan en profundizar sobre el pasado de nuestra lengua. Las numerosas observaciones y notas que René Lafon publicó con vistas a una futura edición crítica de la obra de Dechepare han tenido cabida en este libro, habiéndolas ampliado —aceptado o criticado, según el caso— el autor con otras muchas, fruto de su larga investigación.

La obra lleva un prólogo de José Luis de Orella y un prefacio del autor.

Dechepare, fue un poeta lírico y apasionado, con una fuerza extraordinaria que rara vez se vislumbra en la poesía eúskara, a decir de G. Reicher.

El primer volumen de la trilogía, es la tesis doctoral defendida por F. M. Altuna en la Universidad de Salamanca en marzo de 1978, sobre el tema: *La versificación de Dechepare: Métrica y pronunciación*; el segundo volumen: *Etxepareren Hiztegia. Lexicón Dechepariano*. Ambas obras vieron la luz el pasado año y que hoy se completa con el texto íntegro de Dechepare con anotaciones críticas.

1980-VI-30.

## BIBLIA EUSKARAZ

Gipuzkoako Ebanjelismoa Ekinean delako mugimenduak, Donostiako Aurrezki Kutzaren laguntzaz, II. Biblia Astea ospatu du. Bost hitzaldi, antzerki bat eta Bibliaren argitalpen bereziz hornitutako erakusketa izan dira iragan asteko ekintza hoiek. Erakusketan, leku berezia izan du euskarazko sailak.

Izan ere, euskal literaturaren mugimenduan Biblia oso garrantzizkoa izan bait da. XVI. mendean, kalbindarrak, erreformak zekarren ekintzaz, Euskal Herrian errotu nahi izan zuten eta 1571an Testamendu Berria eta beste zenbait lan argitaratu zituzten, Joanes Leizarragak prestatuak. Ondorean katolikoek ekin zioten eta hontatik bizkortu zen euskarazko literatura.

Baina, euskaraz, Leizarragak itzulia ote zen Bibliako lehen lana? Ahoz aho bederen, herriak bazuen Bibliaren berri. Kanta zaharretan maiz erabiliak ziren Noe, Salomon, eta beste. Ipuietan ere bai. Baina, bereziki, Zuberoako pastoraletan aurkituko ditugu Moises, Josue, Abraham, Sodoma ta Gomorra, Haur prodigoa, Jondoni Joanez Batixta..., Piarres Lafittek Olabideren omenez egin zuen lan batean zion bezala.

Horregatik, ezta batere harritzekoa Artemós eta Sarratel jaunek beren *Diccionario histórico, cronológico, geográfico y universal de la Sagrada Biblia* (1788) deritzan obraren lehen tomoko 180. orrialdean Agoizko Tomás Fermin Arteta zenak zituen lan batzuk aipatzen ditu lekuko, Leizarragaren itzulpenekin ezer ikustekorik etzutenak. Xehetasunik ematen ez badu ere, esku-izkribu zaharrez ari zela esango genuke. Eta Beraskoitzeko Joanes Leizarragarena Bibliako Testamendu Berriaren lehen lan inprimatua da.

Leizarragaren lanak bere eragina izan zuen. Herri literaturan eta apaizen predikuetan lehengotik ezagutuko ziren Bibliaren parte asko. Baina, Trentoko Kontsilio hura erreformaren kontra altxa zenetik Bibliak leku guti izan zuen Europako mendebaldean.

XVIII. mendean Urte donibandarra anglikano bihurtu zen eta Ingalaterrara alde egin behar izan zuen. Han, euskal gramatika eta hiztegi bat burutzeaz aparte Biblia itzuli zuen, baina oso geroztik Dodgson-en oharrez zati batzuk baizik ez ziren agertu. Garai berean itzuli zuen Haranederrek Testamendu Berria, baina ez zuen argirik ikusi 1855. urtera arte.

Historia Sakratu erara, 1775-77 urteetan Larregiren *Testamentu Zaharreko eta Berriko Historia* agertu zen, lapurteraz, lehenago K. de Royaumont-ek frantsezez egin zuenaren araura. Eta Juan Antonio Ubillos frantziskotarrak ere antzerako lanak egin zituen gipuzkeraz. Ber-



nardo Larreginaren arabera, bertatik eratua, Lardizabalek eskaini zuen gipuzkeraz, 1855. urtean.

Esan beharra dago, 1828an, Gañdor idazleak Leizarragarena lapurteraz jarria argitaratu zuela Baionan.

Bibliak izan zituen eragozpenak ezagutzeko lan bikaina dugu George Borrow-ren *The Bible in Spain*, M. Azaña-k gaztelerara itzulia eta *La Biblia en España* izenburuarekin argitaratua. Liburu honek, berriki, Alianza Editorial-en zenbait argitalpen izan ditu eta merezi du ezagutzeta. Gainera, Euskal Herriari buruzko kapitulu interesgarri bat ere badu.

Joan zen mendearen erdialdean, Luis Luziano Bonaparte printzeak gure hizkuntzaren ikerketetarako, gehien bat, Biblia hartu zuela oinarri, bere laguntzaileei honen zatiak itzuleraziz. Ekintza honek bizkortu zituen berriz Biblia lanak euskaraz. Argitalpen laburrak egiten zituen, baina gure herriko jakitun eta zenbait apez kezkatirendako aski izan zen.

Bere lanok ohar gabe argitaratzeaz izan zituen zenbait eragozpen. Esate baterako. Intxauspe zuberotarra ukatu zitzaion. Hala ere, honen zenbait lan jaso eta argitaratu zituen.

Bonaparte printzeak, 1856tik 1869ra bitartean, Bibliaren parteekin 31 edizio eman zituen argitara Londres-en. Lan hauek, berak klasifikatutako zortzi euskalkietatik aparte zenbait azpieuskalki edo subdialektoetan ere bai. Biblia osorik J. Duvoisin kapitainak lapurterara itzulitakoa bakarrik argitaratu zuen. J. A. Uriarte frantziskotarrak gipuzkerara itzulia lehen partea baizik ez zen argitaratu. Beste lan asko bezala, argitaratu gabeak, hor daude gure Diputazioetako artxiboetan lo.

Duvoisin-en itzulpenetik hartua eta oharrak eginaz argitaratuak zituen 1898an Haristoy-k lau ebanjelioak.

Harrigarria baderitzagu ere, geroztik, katolikoaren artean, Bibliarentzat idekitasun gehiago izan dela esan behar. Harrigarria, Kristogan sinestearen agiri oinarriak hor bertan daudenezkero, nola zitekean lehen-go hertsitasuna?

Olabide jesulaguna izan zen beste bultzatzaile bat gure mende honen hasieran, 1931an argitaratu zuen *Itun Berria* (Testamendu Berria). 1942an hil zelarik Biblia osoa itzulia utzi zuen eta Patxi Etxeberria andoaindarrak Bilboko El Mensajero-n argitaratu 1958. urtean. Olabide gasteiztarra zen. Euskaldun berri esan ohi denetakoa. Bere euskara gogortxo izan daiteke, baina bai aberatsa eta batez ere heladeratik (grekeratik) zehatz itzulia.

Olabideren Biblia osoak argia ikusi zuenetik hona, Testamentu Berriz edo honen zatiz, euskaraz argitaratuak, 42 titulu haina errejis-

tratuak dauzkat. Berriz, *Euskal Biblia* osorik, J. Kerexetaren bizkaierazkoa dugu, Bilboko Apezpikutegiak 1976an argitaratua, Jerusalemgoan oinarrituriko oharrez.

Aditzea dugunez, *Elizarteko Biblia* laster bukatzeko zorian omen da.

Erliziozko balioez gainera, hemendik ikus Biblia lanak zein garrantzitsuak diren euskal literaturan. Gure idazlerik hoberenak izan dira itzulpenetan partaide; bestalde, euskalki guzietako agerpenak ditugu; eta, gainera, hizkerarik herrikoienetatik hasi eta garbikeriarik harrigarrienak aurki genezazke Biblia itzulpenotan.

### La Biblia en vascuence

Acaba de celebrarse la II Semana de la Biblia en San Sebastián y con este motivo resalto la importancia de las traducciones bíblicas en la literatura vasca.

La primera edición del Nuevo Testamento en vascuence es de 1571, debido al calvinista J. de Leizarraga. Pero ¿fue ésta en realidad la primera traducción de la Biblia al euskara? Sí, como obra impresa, pero podían circular manuscritos, como dejan entrever Artemós y Sarratel en su Diccionario sobre la Biblia, basándose en una versión en poder de Tomás Fermín Arteta de Aoiz (Navarra).

La literatura popular nos ofrece algunos testimonios del conocimiento de la Biblia en el pueblo, como confirman el cancionero y las pastorales suletinas, más las predicaciones de los sacerdotes. La contrarreforma se cerró en banda en contra de la difusión de la Biblia y no conocería ni el mínimo de aperturismo hasta finales del siglo dieciocho. Pero aún a principios del diecinueve, sabemos por G. Borrow de las dificultades y resistencia en contra de la Sagrada Escritura, según describe en su interesante obra *La Biblia en España*.

Una adaptación del francés M. de Royaumont fue publicada en euskara por B. Larreguy a finales del s. XVIII. Algo similar hizo el guipuzcoano Ubillos. Pero antes, Haraneder tradujo el Nuevo Testamento, que no vería la luz hasta 1855. La misma fecha que Lardizábal publicara en guipuzcoano una obra basada en la de Larreguy. Pierre d'Urte, contemporáneo a Haraneder, cura de San Juan de Luz convertido al anglicanismo, tuvo que exiliarse e hizo, además de una gramática y un diccionario (este último aún sigue inédito en Oxford), una traducción de la Biblia, de la que existe una edición crítica de Dodgson.

Los trabajos del príncipe L. L. Bonaparte, a mediados del siglo

pasado, a pesar de sus limitadísimas ediciones, serían fundamentales para la difusión de la Biblia en el país vasco y para el enriquecimiento de la literatura eúskara. Entre los años 1856 y 1869, el príncipe Bonaparte editó en Londres hasta 31 ediciones de diversas versiones de partes de la Biblia en todos los dialectos del idioma vasco.

Pero la primera Biblia completa se le debe a Duvoisin, en versión labortana según la Vulgata, realizada por encargo de L. L. Bonaparte y editada por éste en Londres entre los años 1859-65. Otra traducción completa fue llevada a cabo por Uriarte, pero ésta no vio la luz más que la primera parte, Génesis, Exodo y Levítico.

El principal fin que perseguía el príncipe era el lingüístico, y dentro de él el estudio interdialectal. Por esto, las versiones de sus colaboradores están exentas de notas. Años más tarde, basándose en la versión de Duvoisin, el también labortano Haristoy publicó los evangelios con notas adicionales.

El jesuita Olabide publicó el Nuevo Testamento, *Itun Berria*, en 1931, y a su fallecimiento en 1942 había dejado terminada la traducción completa de la Biblia, cotejada con la versión griega, y que fue publicada en 1958. Y desde esta fecha hasta hoy, tengo registrados hasta 42 títulos. De los cuales, 5 son el Nuevo Testamento, 8 los Salmos, y los demás, distintas partes del Nuevo Testamento. Obras de 16 traductores distintos, que algunos han vertido a sus respectivos dialectos y otros al literario común que sigue las normas de la unificación. Entre los mismos van incluidos los preparados para la infancia y juventud. Pero, entre los mismos descuella la versión completa en vizcaíno, debido a J. Querejeta.

Según noticias, se está terminando la nueva versión en colaboración entre católicos y reformistas, *Elizarteko Biblia*.

De todo ello se desprende la importancia de la Biblia en nuestra literatura. Pero, finalmente he de señalar, que por encima de toda tendencia o corriente lingüística, y aún al margen de los valores positivos de hablas cultas o populares, ahí se conserva su esencia que es la base de una importante religión que durante centurias ha predominado y ha marcado el concepto moral del occidente europeo; ahí tenemos la obra en sí como fruto de las experiencias humanas.

1980-II-25.

## TESTU ZAHARRERI BEGIRA

Ez dakit herririk izango den munduan bertako hizkuntza baliatu nahiaz ibili eta bertako literatura zaharrari euskaldunok baino jaramon gutiago egin dionik. Behintzat, oso guti baliatu gara gure autore zaharrez. Orain, hutsarte hau betetzeko bideetatik abiatu garala dirudi. Alde batetik Hordago argitaletxea klasikoan sailarekin eta bestetik Euskaltzaindia lekukoekin, beren joera hau mantentzen baldin badute, urte guti barru bestelako ikuspegi batez begiratuko ditugu euskal literaturaren testu zaharrak.

Aipatzen dudan leluoen saila Apezetxeak ideki zuen Lizarraga Elkanokoaren azter-lanez. Testu zaharrak haintzat ez hartzearen adibide ederra dugu idazle nafar honen obra, gehiena esku-izkribuz zenbait liburu eta liburuxkatan Iruñako Mintegian gordeta. Baina, liburu itxiak ez dio inori ezer erakusten.

Lizarraga Elkanokoaren liburu argitara gabeak lehenik asko zirelarik, hara hor Fermin Ixurkok non aurkitu digun beste bat; Euskaltzaindiko azken batzarrean eman zigun bedonen berri.

Badakigu garai batzuetako literatura ez dela irakurgai bezala hain atsegina, baina hala ere gure hizkuntza idatziaren lekuko da, garai bakoitzeko giroaren adierazgarri. Beraz, gizarte historiaren lekuko.

Lizarraga Elkanokoa (1748-1835) eta Agirre Asteasukoa (1742-1823) garai eta giro berdineko autoreak ditugu. Jansenismo kutsua oraindik zeharo baztertu gabe zegoen garaikoak, baina Frantsiako iraultza eta hemengo kontrairaultzaren artean bizituak. Askorentzat euskaldunon hertsitasun eta konserbadore joeraren ondorioak dira. Garai berean inguruko herriak libreago izan balitz bezala. Baina Joxe Azurmendik ongi gogorazten digu bertsoaritzari buruz argitara berri duen lan batean (ikus *Jakin*, 14-15, 146. orrialdean) Agirre Asteasukoa dionaz: «Españaco legue aguintzen du, ez dezala inoro ere esan, ez cantatu itz desonesturic, ez gauaz, ez egunaz caleetan, placetan, eta bideetan, eun azote, eta urte betean deserrituric vicitzeco penaren azpian». Egileak berak lege horren erreferentzia ere egiten digu. Edonork ikus dezakeanez, lege hori ez zen hemengo hertsitasunetik sortua; baina horren arabera aurkituko ditugu garai hartako elizgizonen lanak eta pekatuak gabe bizitzeko nola ibili behar zenaren exenpluak ordena berekoak ziren.

Hoiek, garaian garaiko era ulertuaz, orduko giroa erakusten diguten neurri berean gure historiarako agiriak eskaintzen dizkigute eta hizkuntzaren erabilkerazko lekukotasuna ere bai. Exenplu on horietariko bat Ixurkok Lizarragaren lanean hatzemaña, karramarroaren anekdota da.

Gauza bera, Agirre Asteasukoaren *Erakusaldia* deritzanaren II. tomoko hamaikagarren hitzaldian aurkituko dugu, txangurro izenez. Mezezi du emen jasotzea. Hara:

«Changurrua da arrai chiqui itsusi bat, cearca baicic ez dabillena. Asi zan beñ umeari eracusten, nola ibilli bear zuen, eta esan cien: *nere umechoac, zabilzate, ez zearca, baicic zucen*. Erantzun cioen umeac: *zoaz bada, ama, aurretik, eta jarraituco dizugu*». Eta, ondorean honako hau gehituko dio: «Au bera esango dioe umeac gurasoari, eracusten ezipadie obraz Ceruraco bidea».

Bere esanak, maiz, izugarriak dira eta mehatxurik harrigarrienak agertuko ditu. Baina ibilera txarrak non diren azaltzean garaiko herriaren joerak salakuntzekin batean agertaraziz. Bere lehen liburua *Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Erakusaldia*, 1803an argitaratu zen. Hemengo salakuntzarik handienak Ihauterieri buruzkoak dira. Hoiien jatorriz eritzi ximple hau agertuz: «Jainco guezurrezco oetatic bi ciran Luperco eta Baco, eta oen onran eguiten cituen festac *Iñuterian*. Deitzen diogu onela urte berritic austerretarañoco demborari, eta beste lecu batzuetan deritza: *iñoteriac, iáuteriac, arratuzteac, zampanzartac*» (ikus Laugarren partean Bederatzigarren Eracusaldia). Ihauteriez zuen usteaz gainera noiztik norako aldia mugatzen zuen eta Euskalerrietako beste zenbait lekutako izenak gogoratzen dizkigu.

Urrengo, Agirre Asteasukoa, apostuz dirua jokatzearen kontra jardungo zaigu, naiz pilotaz edo naiz idi-probaz. Hala ere hau aitortuko digu: «Gure errietan joric egoquienac mutillentzat dira pillota, balenca, bola edo birlac eta saltoa; baña onena pillota: ¡ojala utziaz ez-palijoaz mutillac joco au!». (Laugarren Partea. Laugarren Eracusaldia). Tarteko ematen dituen berri hoieri esker dakigu garai hartako herriaren zaletasunak zer ziren. Batez ere kapitulu honetan ari da jokoari buruz eta esaldi hortan agertzen direnak baino gehiago ere badira. Gizarte ekonomiaren alderdikoak ere badira, harrokeria salatuz, Hirugarren parteko Hamazazpigarren Eracusaldian, «bemallacoac, nor bi-tartecoac eta nor goiagocoac; badirudi, bazter gucietan aditzen dala ots bat, diona: *emen gucioc guera berdiñac*».

Frantsiago iraultzatik hurbil zen eta berdintasunaren kezka nabari herriagan. Baina ez ekonomiaren berdintasuna bakarrik, baizik bestelakorik ere bazen. Hau da, emakumezkoak gizonezkoak bezala jantzi nahia, lehengo esaldi hortatik aurreraxeago aurkituko dugunez: «Alare sarritan ecusten omen dira gaurco egunean bideetan emacumeac guizonen eran janciac: eta edoceñec dacus, ceñ ondoren charrac ecarri litzaquean erguelqueria onec, gure errietan zabalduco baliz».

Honela, garai hartako giroa estudiatzeko, tarteka marteka gauza

asko arkituko ditugu. Tolosako Ihauterien lehen berrietatik hasi, Ernioko erromeria, zezen korriden pasarteak eta abar, bere obra nagusia den *Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean Eracusaldiac* deritzanean. Lan hauek egilea hil geroztik argitaratu ziren, Tolosan 1850. urtean.

Nere herkide euskaltzale bati literatura mota hauek adieraziz mintzatu nintzaion batean. Berak esaten zidan: «Hik ez badakit ere, pekatua hain gizatiarra delarik, eretan duk tentagarri eta maiz gustagarri».

Ez nuen izan hari Agirre Asteasukoaren lanak irakurrerazterik liburuko pasarte umoretsu hau kontatu arte. Gezurrezko konfezioari buruz hara zer dion *Eracusaldiac*-ren lehen tomoko 243. orrialdean: «Ostu omen zuan mutill batec antzumeren bat: galdetu cion confesoreac: *ostu dezu arcumeric?* Erantzun cion, *ez Jauna*. Eta ondoren omen cion: *arcumearen lecuan esan balit antzumea, galdua nintzan*».

«Horixe jatorra!» esanaz, eskuetatik kendu zidan liburua irakur zezan.

Orain, herkide honi esker, bion artean Agirre Asteasukoagandik antologia baterako merezi duen zatia ere hautatua dugu, bere *Eracusaldiac*-ren III. tomoko 248-250 orrialdeak dira, gure ustez, inoiz inori gure literaturaren antologia on bat egitea bururatzen bazaio.

### Ojeando viejos textos

Pocos pueblos habrá en la tierra que, queriendo valorar su propia lengua, no sepan apreciar la literatura de sus escritores del pasado. Ahora parece que vamos tomando conciencia de ella. Hordago Ediciones, con su colección de clásicos, por un lado y Euskaltzaindia, con la nueva colección de ediciones críticas de viejos autores, por otro, pueden hacer una buena labor para una mejor difusión de la literatura del vascuence.

Uno de los mejores autores guipuzcoanos, por su estilo, es sin duda Juan Bautista Aguirre, natural y párroco de Asteasu. Lo que ocurre es que le tocó vivir una de las épocas más represivas de la historia, entre la revolución francesa y el último período del absolutismo, que llevaba consigo la influencia jansenista y de la legislación de la época con unas perspectivas tenebrosas. En sus pláticas denuncia las malas costumbres del carnaval, de las romerías y los juegos donde se hacían apuestas. También vigila la indumentaria de sus coterráneos, y a través de sus acusaciones contra las malas costumbres y los buenos

consejos para llevar una vida cristiana, Aguirre va mostrando los conceptos morales de la época, los diversos juegos y modos de vida, que constituyen los valores testimoniales de la historia.

En resumen, las obras de este autor, y otros de su época, además de su valor lingüístico, aportan un material de interés para la historia y la etnografía. Ahí nos queda aún un inmenso pozo para seguir indagando.

1980-VI-16.

### AZKUE ZENAREN ARDI GALDUAK

Azkueren zenbait lan, aspalditik aitua zeudenak, makinatxobat kostatu zitzaidan banan-bana han eta hemen aurkitzea, artalde sakabana-tuaren ardi galduak balira bezala.

Gure herriko gauzetaz zerbait jakin nahiak mugitu ninduen beharrezko iduritzen zitzaizkidan liburu garesti haien atzetik ibiltzea. Liburu garestiak izan ere, bilatzea hainbeste kostatu zitzaizkidan haiek. Boltsillotik ere bai franko, Donostia eta Bilboko bibliotekak horren urruti izatearren, beharrezko nituen Azkueren zenbait liburu jakingarri jabetzea.

Orduan, ames bat uste nuen *Hiztegiaren* bi tomoak aurkitzea eta *Euskalerrriaren Yakintza*-ren lehenengo liburua, ahitua, nekez aurkitu nuen Madrilgo Marroles liburu-dendan. Hura osatu ondoren, *Morfología vasca* nuen beste ardi galdu estimagarri bat edonondik aurkitu behar nuen. Kaxkagorregia naiz ni behin bururatutakoa ez lortzeko. 1955-garren urteko otsailean, Antonio Guzmán-ek, Madrildik hau ere, korreoz bialdu zidan. Eskuratu nuenean ohartu nintzen: aurreko orri batean, Azkue beraren eskutikako letraz, eskaintza zuela: «A mi carísimo amigo Pepín Villalonga, Jefe de la Acción Jurídica del Instituto Internacional de Cooperación Intelectual. Resurrección María de Azkue. Bilbao, 28-X-1925». Nonbait «carísimo amigo» haren ondorengo batek merke saldu zuen. Hau izaten da azkenerako liburuen burubidea. Baina, dena dela, *Morfología* etxean neukan. Nere esparruan.

Hasiera batean, zer pentsatu behar nuen, billa nenbilen ardi galdu hauen bidez Azkue bera hurbilago aurkitu behar nuela, bere pena eta pozen sentipenez. Baina, horrela zen. Liburu bakoitzak mezu berri bat zekarkidan.



*T. Aranzadi, R. M. Azkue eta A. Donostia. Bergaran 1930ean.*



*Cancionero popular vasco*-k ez zitzaidan horrenbeste lan eman. Eta aurkitu nuen aleak bere eskuz zuzenketak eginak zituen.

*Euskal izkindea*, gazterik egin zuen pekatu hartatik (berak horrela aitortua) hasi eta *Hiztegiaren* bi tomoak arte, urteak eraman nituen ardi galduok biltzen.

Beharrezkoenekin jabetu nintzanean, nerekautan esan nuen, orain- ezkero, hainbeste ardi galdu batu ondoren, bilketaren irudigarri besterik ez bada ere, *Ardi galdua* izeneko eleberria ere aurkitu behar dut. Azkue-ren literatura era hain atsegin ez banuen ere, merezi zuen. Nere esparrura sartu nuen artalde haretan, ez bai zen itxura *Ardi galdua* falta izatea.

Zorioneko azken «ardi galdua», era bitatik. Egun batean, Mante-rola liburu-dendako baztartxo batean zegoen «beeka!» balego bezala. Eta, ezin ba utzi. Hartu eta esparrura eraman nuen, bere artaldearekin elkartzera.

Egun batzuk barru, irakurtzeko hartu nuenean, ohartu nintzen Jose Maria Zuazti Leaburuko erretoreari eskeinia zegola, 1918-garren urtean. Beste zenbait ardi galduk bezala, harek ere bazuen bere jabe edo ugazabaren marka. Baina gero, irakurtzen niharduela, orritarte batean korreozko txartel bat aurkitu nuen Azkuek Zuaztiri egina, ardiaren kaparra balitza bezala, eta hau jartzen zuen:

«Bilbotik, 31-XII-1918.

Adiskide maitea: Zure eskutitza artu nuen. Egunean berean bidali nizkizun 200 *Ardi...* (artalde osoa). Mila esker. Peseta binan saltzen ditugu edo, zeatzago, eztitugu saltzen. Eztet inor nere ondoan saleroz- le - sudurdunik. Nerau, neronez, utsa naiz onelako gauzetarako. Eztet, Bilbon izan ezik, inun saltzen jarri. Donostian ta beste uri anditxoene- tan norbait balitz, euneko onenbesteko bat duela, zeregin au artu nai lukeana, ni pozik eta lasai. Gorantzi aundiak eta ugari *Eztu balio*-ri. Beste orrelako zerbaít darabilt esku-arteán. Udararte gaitz izango da ni orre- runtz joan al izatea. *Astun*-en berririk eztet. Zurea. R.».

Azkue beraren eskuz idatzia da.

Bertan ematen du artalde osoaren berri eta baita euskararen zau- ritzarena ere. «Milla urte ígaro ta ura bere bidean...» Hori da euska- raren gaitz nagusia.

Nortzuk ote ziren *Eztu balio* eta *Astun*? Biak ote ditu soinean gute literaturak? Ez nuke ezetzik esango.

Baina, Azkueren aurrera jokatzeko indarra ere hor agiri da. Eus- kararen alorrean lanik gehien egin zuan gizona. Lan sakona eta zabala. Beste edonongo herrian egin balu askozaz ere gehiago baliatuko zena. Nerekin dudán, bere eskuz egindako korreo txartel honek gauza asko

adierazten ditu. Pitxi estimagarri bezala dut. Beste herri batean bere mailako lana egin duen batena balitza, autografozko txartel hau, kolekziogintzat asko balioko zuen. Bere lanak bezala. Baina, hemengoa denez, azalean duen erregedun seiloak askoz gehiago balio du filateliarako.

Hau ere bada izatekoa!

### Las ovejas descarriadas del difunto Azkue

En mi mocedad, época de posguerra, me interesé por los estudios vascos, convencido de que difícilmente podía comprender la sociedad universal sin conocer la propia cultura tradicional de donde habitaba. Pero la distancia que me separaba de Eibar a las capitales de Guipúzcoa y Vizcaya para poder frecuentar las bibliotecas donde pudiera consultar el material que necesitaba, me obligó a invertir mis pequeños ahorros, lo que me suponía grandes sacrificios, en la compra de libros. Naturalmente se trataba de libros viejos o editados antes de la guerra, puesto que en aquellas fechas eran rarísimas las ediciones sobre temas vascos.

En el texto en vascuence, cuento la parte anecdótica de la tan paciente como pertinaz labor de búsqueda de las principales obras de Resurrección María de Azkue, indispensables para el conocimiento de la lengua y del folklore, en su buen sentido etnográfico.

Juan Arbelaiz, de la Librería Manterola, a quien me presentó Jon Etxaide, se portó como un gran caballero prestándome su colaboración y proporcionándome libros en condiciones favorables, hasta vendiéndome a precios más bajos algunas obras solicitadas desde el extranjero, por considerar un deber patriótico que las obras agotadas y buscadas quedaran en el propio país. Así fue, entre otros, el caso de los dos tomos del Diccionario Trilingüe.

La procedencia de las obras en aquella época, más que de las ventas de bibliotecas viejas, era de la expoliación y de las requisas, pero también de purgas depuratorias de algunas bibliotecas públicas. Muchas obras llevaban el sello de propiedad, en algunos casos hasta exlibris, y también dedicatorias del autor. En Madrid encontré un ejemplar de la *Morfología Vasca*, dedicada por Azkue a su «carísimo amigo» José Villalonga que, en la década del veinte, ocupaba el cargo de Jefe de la Acción Jurídica del Instituto Internacional de Cooperación intelectual, y que en la fecha de mi compra, 1955, se hallaba exiliado, él y su acción institucional.

La búsqueda del primer tomo de *Euskalerrriaren Yakintza* y el completar los cuadernos del *Cancionero popular*, constituyeron un largo proceso. Nunca perdía la esperanza de lo que perseguía y, por supuesto, tampoco el buen humor, que también hacía falta. Cuando llegué a completar las principales obras de Azkue, me empeñé en cerrar aquel ciclo, a modo de colofón, con su novela *Ardi galdua* (La oveja descañada), porque así se me figuraron aquellas piezas tan raras como preciadas. Cuál no sería mi sorpresa al encontrarme dentro del libro, dedicado a J. M. Zuazti, cura de Leaburu, una tarjeta manuscrita en la que Azkue habla de las desdichas de la distribución de su novela en euskara, y, a la vez, envía sus saludos a dos individuos motejados con analogías a su penosa labor de divulgación de la literatura en vascuence.

En un país normal, una tarjeta manuscrita de una personalidad como Azkue, que era toda una institución lingüística y folklórica, hubiera tenido un valor incalculable; pero en el nuestro, donde se ha tratado de ignorar la cultura autóctona, sólo puede tenerlo para las colecciones filatélicas por el sello que contiene dicha tarjeta.

1979-IX-10.

## BEHARREZKO BIBLIOGRAFIA

Euskal Herrian, bertako Unibertsitate, mintegi eta erakunderik ezaren ondorioz, kultur gaietan zerbait jakin nahirik edo zerbait landu nahirik abiatu ginen guziori gertatu zaigu eginalak egin ondorean, inoiz landatuko alorrek uste gabean berriz lantzen aritzea eta indarrok hutsean gelditzea. Hasiera bateko ekintzetan maizenik gertatu zaigu alperrikako lanak egitea, lehendik eginak zeudenez. Gure mundua hain handia ez delarik ere holako gauzak gertatu zaizkigu.

Hori da gerraondoko lehen urteetan Jon Bilbaori gertatu zitzaiona ere. Eta, egiten ari zena egina zegoela ohartzen zen neurrian jabetu zen euskal gaien bibliografia handi eta zabal baten beharrez. Kontuan hartu zituen Allende Salazar, J. Vinson eta G. Sorarrainen bibliografia lanak eta hauek oinarritzat harturik eta geroztik argitaratutako lan pila bat bildurik Lapurdiko Sarara jo zuen bizpahiru urtetan *Eusko Bibliografia* zabal eta zehatz bat burutzeko asmoz. Gaiak sakonduala urteak luzatu ziren eta, ondorioz, ekinaldi batean egitekoak bere etenaldiak ezagutu zituenez gura baino atzerapen gehiago izan zuen. Lanaren egi-

tura bera ere ez zitzaion iduritu aurreko haiek bezala eratzea liburu bakoitzari fitxa soil bat idekiz. Bestalde, aldizkarietako lanak ere bildu nahi zituen; behinik-pehin kultur aldizkarietakoak. Lan guziok egileen deitura ordenaz emateaz gainera, gaitan ez ezik tokian tokiko ordenamenduz ere agertzea iduritu zitzaion, horrela egile eta gaiez aparte hiri edo herri bakoitzak bere bereizketa izan zezan, edozein ikertzaile edo jakin nahidunari aukera guziak eskainduz. Era hortara, urteen luzapenez, bizpahiruan burutzeko zenak hogetahamar urteko iraupena ezagutu du.

Bitartean ordenadore elektronikoak agertu ziren eta hoiien laguntzaz aukera hobekak ezagutu ditu lana inprimategiratzean.

Esan beharra dago, historiari zor diogunez, duela hamaseiren bat urte, lana inprimategiratzeke aukera eskaini zitzaiola Instituto de Cultura Hispánica delakoaren babespean, baina zentsurak Sabino Arana eta bere lan guziak kentzera behartzen zuela obra argitaratuko bazen. Orduan, Jon Bilbaok, arrazoi handiz, nahiago izan zuen denbora hobeei itxaro. Bere lana ideologia guzien gainetik zegoan zerbait bai zen.

Azkenean, prentsaren lege berriak zirrikitu bat ideki zion, alde aurretiko zentsura kentzen zuelarik eta lan bat publikatu ondorean bahituta koaren alde legezko eskabidea egiteko eskubideak eman. Hala ere harriskugarria zen, baina Añamendi Argitaldaria prestatu zen argitaratze lana aurrera eramateaz eta 1970ean plazaratu zuen *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoa eta igazko urtearen bukaeran zortzigarrena; aurten zabaldu dena.

Orain, euskal gaiez zerbaiten diharduenarentzat edo nahiz kuriosidade hutsez zerbait jakin nahi duenarentzat hor dugu prest, eta seriozki euskal kulturari zerbait egin nahi duten guziei beharrezkoa zaie obra honen orrialdeetara iturri bila edo zehaztasun bila joatea.

Inprimategiak sortzetik hasi eta 1960. urtera artekoa biltzen du eta zortzigarren tomo berean hasten du 1961etik 1975erako eraskina. Hondorengo tomoetan 1975. urtera artekoa osatuko duena. Geroan, bost urtetik bost urtera osatuaz jarraitzeko asmoa du.

Otoi: Bibliografia hau behar bezala erabili nahi duenak, ahalden probetxurik handiena ateratzeko, beharrezko du lehen tomoak daroan hitzaurrea irakurtzea, nola maniatu behar duenaren ohar eta adierazpenak dituelako.

Egilea, Jon Bilbao, bere lan gotor honegatik guzian errespetua irabazi duen gizona da. Eta, bera ta bere lan honen balioaz gehien baliatu dena Nevadako Reno Unibertsitatea izan da, Euskalerriko Ikaskuntzen Bibliografia saila sortuaz. Sail honek daroa han bertan jarri duten

euskal gaien biblioteka eta agirien gordailu ardura eta euskal jakintzen programaketena.

Hil honen lehen egunetan Durangon Gerediaga Elkarteak eraturik egiten den disko eta liburu azokan, obra aurten burutua agertu denez, urtean zehar euskal gaietaz argitaratu den libururik onenaren saria eraman du. Gure ustez, inork merezimendurik izatekotan, obra honek ondo merezia zuen holako sari bat.

### Una bibliografía imprescindible

A primeros de año, salió a la luz el último tomo de *Eusko Bibliographia* de Jon Bilbao, obra que recoge por orden de autores, materias y lugares, los trabajos impresos de temática vasca, desde que la imprenta hizo su aparición hasta el año 1960. Y digo el último tomo, sin ser el definitivo de la obra porque viene a completar ese corpus general básico y da comienzo a los apéndices quinquenales que mantendrán la actualización en lo sucesivo. De hecho, el octavo de los voluminosos tomos que ha ido publicando la Editorial Auñamendi de San Sebastián, culmina la gran obra básica. La efemérides ha sido motivo para que mereciera este año el primer galardón como la obra más importante de tema vasco en la Feria de Disco y Libro que anualmente viene celebrándose en Durango bajo la organización de la Asociación Guerediaga.

Jon Bilbao, que nació en Cayey (Puerto Rico) en 1914, estudió en Bilbao y Madrid bachillerato y Filosofía y Letras para terminar en la Universidad de Columbia, donde preparó la licenciatura. Primero hizo algunas investigaciones en el Oeste americano sobre la presencia de los vascos en aquellas latitudes. En su trabajo tuvo la sensación de que podía estar realizando algo que otros habrían hecho anteriormente. De ahí se percató de la necesidad de una bibliografía completa y actualizada sobre lo que habían hecho hasta finales del pasado siglo Allende Salazar, J. Vinson, G. Sorarrain y otros, pero extendiendo dicho trabajo a los publicados en revistas. Recopiló todo el material que pudo y, con ánimo de arremeter y tal vez finalizar el trabajo, se retiró a Sara en 1947. Pero el trabajo que se traía entre manos y la pulcritud con que quería llevarlo, resultó ser más denso y extenso en volúmenes y tiempo.

Su especialización en el tema le llevó a crear y ocupar el cargo de Bibliógrafo de Estudios Vascos de la Universidad de Reno (Nevada). En dicho centro tiene establecido su banco de datos, valiéndose de

ordenadores, y cada cinco años volverá con nuevo repertorio acumulativo de temática vasca, para su actualización.

La consulta de su obra, sobre cualquier tema del país, viene a ser imprescindible para todo investigador.

1979-XI-19.

## IPUINEN EREMUA (I)

Ipuiak, gehienetan, gizonaren amets beharrak eraginik, irudimezko jolasketa besterik ez dira. Aintzínako gizaldietan premiazko une berezi bat betetzen zuten gizonaren bizitzan, baina bereziki haurren eta gaztetxoen bizitzan. Bizimodu berrian ordea, ez dago afalondoko solasaldirik; irrati eta telebista etxebarnean direlarik, hoiek jan diote supazter txokoari eta mahain-inguruari lekua.

Oraindik orain, irakurgai bereziak nahi dituenarentzat badute beren balioa. Baita ere ikertu nahi dutenentzat ere. Eta, inoiz gure herrian bere jabetasunezko normalizapenik lortzen baldin bada, bildurik dauzka-gunetara jo beharko da irratsaioak edo filme laburrak egiteko ber-bertako gaiak hartu nahi badira.

Lehengoz denboretan, gizon ikasien kultura eta herriarena elkarren arteko lotura gabe egon ziren historian zehar, baina gaur egungo giroa ezta horrela. Gaur, haintzakotzak hartzen dira, herri xeheak ahoz aho erabiliak, aspaldiko denboretatik heldu zaizkigunak ere. Euskal literatura beraren barnean ere hori nabari da. 1974. urteko produkzioari buruz idatzi nuan (ikus «Gogoz» liburua, 290 orr.) hala agertu bai nuen. Gainera, urte berean, berrogetaka liburu eta liburuxka argitaratu ziren euskaraz, batzuk elezahar bilduak, beste batzuk zitu berriak eta beste asko itzuliak.

Hortik ikus dezakegu oraindik orain ere ipuinen eremuak baduela zer ikustekorik gure gizartean. Baina, bestalde, asko baderitzagu ere, ez dira haur euskaldunen egarria asetzeko haina.

Pierres Lafittek esango digu ikertzaileak baduela nondik bildu eta *corpus* osatu bat nondik burutu. Mende batet'erdian lan asko egin da hortaz, besteak beste R. M. Azkue eta J. M. Barandiarán buru direla.

Ikastoletarako irakurgaiak beharrez, Azkueren bildumatik hautatuaz eta zenbait ohar eginaz, neronek argitaratu nuen «Aintzínako ipuina» (1968), eta lehenago Euskaltzaindiak berak, A. Irigarayren hauta-

penez eta oharpenez, Barandiaranen bildumetatik «Euskalerriko ipuinak» (1957). Baina hauek aspaldi ahitu ziren.

Ipuigile edo ipuin eratzaile bikainik izan dugu gure idazle ikasien artean: Bizenta Mogel, A. Pascual Iturriaga, Artxu, J. B. Elizanburu, G. Adema, Kirikiño, Barbier, Oxobi, Urruzuno, Marie Ariztia eta abarrez gainera gure egunotako Julene Azeitia, N. Etxaniz, L. Iriondo, Bitaño, Satrustegi, Andu eta abar.

Bilduak eta asmatuak, hamabi mila ipuin ba omen euskal literaturan, P. Lafitteren ustez.

Euskarara itzuliak diren autore klasiko eta berrien artean badira anitz. Ikus nere «Escritores euskéricos» (1968) liburuaren 179-183 orrialdeak. Adibidez, Esopo, Grimm anaiak, della Croce, O. Wilde, Hoffman, Schmid, Svenson, Andersen, Saint-Exupéry, Sayrach, Hergé, Greg, e.ab.

Gure barnetik haurrentzako ipuinak berritzeaz, lan ederrik egin digute A. Lertxundi «Andu», Lurdes Iriondo, Bitaño Satrustegi eta bestek. Hala ere, egitekorik badugu ipuinen eremu honetan. Egin denez eta egin lezakeanez liburu oso bat idaztekoa da.

Gai hontaz bada Piarres Lafitteren txosten bat, «Euskal-Ipuinak» deritzana (ikus Euskera, XVIII, 1973, 160-166) eta han ematen ditu ikertu nahi duenarentzat materialak non aurkitu ez ezik baita euskal-ipuina nola berezi, beren nondikakoa eta itxuren jatortasunaren berri ere.

Bere klasifikatzeaz, bost motatako ipuina daude Euskal-Herrian: paganoak, basa-giristinoak, basa-ixtoriak, amets hutsezkoak eta irri solasak. Eta hoietako zati bakoitzak ba omen du kapitulu andana bat.

Berak ongi dionez: ipuin paganoetan euskal mitologiako izaiteek balukete, zoinek bere kapituluak: bai lamiek, bai Marik, bai hunen semeek, bai basa jaunandereek, bai bertzeek.

Gisa berean, Kapitulu bana basa-giristinoetan hartze lukete Testamentu zaharrak, Testamentu berriak eta Sainduen bizitzak. euskal-ipuinek eratziki deitzen sineskerien eta mirakuluerien gatik.

Basa-ixtorioak ere baluke zombait kapituluren betetzeak, dakigularik nola egiazko gertakariak jendeen oroitzapenetan ezinago aldatzen diren: aditzeak dira gure kondatzaileen ahotik, ez bakarrik erromatarren aroko pasakizuna, baina aro berrikoak! Aipa dezadan Zesar, ala Karloman, ala Santxo Azkarra, ala Napoleon, ala Hitler, ez duzue aire asmatzen ahal zer berri harrigarriak aterako daukitzueten! Hori esaten digu Lafittek. Eta, ondorean, ofizioko banaketa bat ere egingo digu.

Ipuin horiek nondik atera ditugun? Aspaldidanik eskualde guzietan dabiltzanak dira eta maiz ezta erraz jakitekoa zein nongoa den.



G. Montes  
1968

*Nikolas Alzola «Bitaño».*  
*G. Montes Iturrioz-en irudian.*



Argudio honen adibideak aurkitu genezazke *Encyclopedie de la Pléiade* deritzanaren hiru tomoetan. Axularrek itzala galdu zuela deabruaren atzaparretan utzirik? Alemanek eta italionok gauza bera kontatzen dute beste zenbaitez, baina geroztik Atarrabioren aintzinagoa aurkitu dugu hemen bertan; zeruan zaldiz sartu zenaren ipuina ezagutua da Errusian ere, eta gauza bera gertatzen zaigu beste zenbaitekin ere.

Euskal-ipuinen zenbait itxura aztertzen ditu azkenez, gure La-fittek. Moldatzeari buruzko ohitura bereziak: Hasieran eta bukaeran esaldi jakinak dira; ipuin tartean klixek ezagun batzuk erabiltzen dira, epeak ere gisa berezi batez markatzen dira; azkenik, orenen buruan gure ipuinek zer salatzen diguten gure aintzinekoen gogoeraz.

Ipuien eremu zabal honetan badira asmagarriak, lazgarriak, altsagarriak eta jostagarriak. Irratsaioetarako eta filmeetarako gaiak behar dituenak badu hor zer hautatu. Lanok burutuaz, egin dezagun bide bat irratiz edo telebistaz euskaldun sukaldeetara arbasoen literatur sustraitikakoa, eta euskaraz, igor ditzagun.

Lehen hala bazan, sartu dadila kalabazan.

## En el área de los cuentos (I)

El presente artículo trata de ofrecer una información muy generalizada sobre los cuentos infantiles vascos. En otra ocasión espero seguir sobre algunos aspectos de los mismos.

Los niños poseen una capacidad devoradora para los cuentos. No hay forma de saciarles con los mismos y por esto es un género al que debemos prestar especial atención.

En 1974, entre libros y cuadernos, originales y traducidos, recuerdo que venían a sumar más de cuarenta títulos en vascuence. Que constituye una cifra importante. Muchas de estas publicaciones vieron la luz artísticamente ilustradas. En ocasiones, esto gravaba sobre los bolsillos de los niños o de sus padres y dificultaba el acceso a muchas familias. Dichoso sea el día en que los niños puedan leer de su literatura favorita sin las trabas económicas. Y ésta es una de las necesidades sociales a cubrir por los órganos oficiales a través de centros para la infancia.

Uno de los aciertos, en los años que rondaron al que me refiero, fueron las publicaciones de los cuadernos de cuentos con «comic» que salieron de algunas ikastolas. ¿Es que, hoy no hay quien impulse?

Las buenas tradiciones hay que mantenerlas actualizando. Y, aquellos cuentos populares, transmitidos oralmente, se merecen un trata-

miento especial para ser recuperados o sobre los mismos crear nuevos. Los cuentos transmitidos durante centurias han sufrido todas las pruebas de los gustos o sentimientos de los seres humanos, tuvieron su éxito y cumplieron con su cometido social en las tertulias del hogar y en las jornadas de los trabajos manuales o artesanales, así como en los ratos de asueto. Muchas veces dando rienda suelta a la imaginación y a la fantasía, narrando sucesos o hechos legendarios. Pues el misterio los hace más atrayentes.

Hace ocho años, Pierre Lafitte, presentó un informe a la Academia, sobre los cuentos populares. El calculaba en unos doce mil cuentos los recogidos del acervo cultural vasco. Si bien, aclaraba, que muchos de ellos eran muy flojos y, otros, sería muy difícil averiguar si son originalmente vascos. Muchos cuentos, con sus variantes, están muy extendidos por otros lugares de Europa y para la orientación de los interesados en la investigación anotaba la consulta de la *Encyclopedie de la Pléiade*.

Los cuentos vascos, tras clasificar en cinco grupos que a su vez se dividirían en tendencias épicas, trágicas, terroríficas, humorísticas, etc. Dentro de los mismos tendrán un adecuado marco o espacio los oficios y personajes históricos.

Observaba las peculiaridades más acusadas de nuestra narrativa popular en los modos del comienzo y fin, clichés a utilizar dentro de las narraciones, cadencias y las particularidades que en definitiva vienen a acusar más a nuestros cuentos. Escuetamente, marcaba unas ideas básicas para ir formando el *corpus* e insinuar las líneas a seguir en futuras investigaciones. También aportaba una relación de autores que han trabajado en la recopilación, donde descuellan Barandiarán y Azkue, y otros más que se han dedicado a la creación a partir de la tradición popular. Dicho informe fue publicado en la revista Euskera (tomo XVIII, 1973, páginas 160-166).

En los cuentos populares disponemos de un buen material donde basarse para la confección de guiones radiofónicos y cinematográficos.

1979-VI-25.

## IPUINEN EREMUA (II)

Euskalerriko ipuin zaharrak, belaunik belaun datozenak, heuren zahartasun guztian, beti berri direnak. Zahartzaroan aurrera doazen

atso-aguretzat haurtzaroko oroitzapenez beterik eta haurtzaroan bizi direnei misteriozko mundu bat idekiaz. Beti zahar baina beti berri. Horrela aitortu nuen duela hamaika urte Azkuen bildumatik hautatuz hornitu nuen «Aintzinako ipuinak» irakurleari hitzaurrez aurkeztean.

Oihenart izan zen gure lehen folklore biltzailea, hamazazpigarren mendearen lehen partean. Baina gai hontan aski sistematikoki aritu zen lehenengokoa Iztueta (1767-1845) izan zen. Honen ondorean etorri ziren Webster, Vinson eta gainerako atzerritarrak eta gure mendearen lehen partean burutuko zuten, hainbeste aldiz aipatuarren, inoiz ere aski goraipatu ezinezko diren Azkue eta Barandiaranek.

Gure ipuien sustraiak ezagutzeko lanak ere badira, eta hauen artean aipamen berezi bat merezi du Martin Etxeberriaren «Euskaldunen ipuin harrigarriak» deritzan liburuak. 1973. urtean Jakin liburu sortan argitaratua.

Ipui asko, mitologiakoak bereziki, sineskera zaharretako zentzu-nean oinarritzen dira, lehenagoko erligio eta gizartearen pentsa moldeetan eta, inoiz, horregatik egiten zaizkigu hain ulerkaitzak. G. Dumézil-ek zionez: Auzoz-auzo mundu zaharra estali duten ipuinen sorrera auzi eztabaidatu bat da, askatu ezina behar bada.

Bizenta Mogelek Esopo-ren alegiak eskaintzean, «Ipui onak» (1804), liburuaren hitzaurrean, arlotetzat gutietsi zituen Peru ta Mariaren ipuinak. Azkue berak ere ezagutu zituen ipui hauek, baina ez zituen maite. Bi baizik ez dira ageri bere bilduman, «beste guziak aurkeritxoak baizik etziran» esanez. Baina haurrentzat «haurkeritxoak» ere atseginak dira. Haurrak bere irudimenezko mundua bizi bai du. Horrelako ipuinez, Peru ta Mariarenekin, Teri Ibarrola aulestiarrek bi diska argitaratu zituen Columbia etxearen bidez, duela dozenaren bat urte, eta haur euskaldunek harrera ona egin zioten. Merezi lukete berriz argitaratzea.

Dena dela, haurrak haur, heurak dira, ez beste, gogozko eta irudimenezko lanen kritikorik onenak. Eta inoiz ez dira konformatuko joera edo mota berezi bateko ipuinekin. Beren ames beharrak ez du mugarik. Honegatik, behin eta berriz esango dut haurren literaturaz dugun bete beharra zein garrantzi handikoa den, komikatik hasi eta harrigarriak arte. Bildurik dauzkagunak estudiatu, hautapenezko bildumak argitaratu, edo beretan oinarriturik berriak sortu.

Hontaz, *Irakur* deritzan liburuekin lan ederra egin digu A. Lertxundik. Lehengo ohiturazkoetan oinarriturik, adibidez, berriak sortzeaz ere bai Bitaño eta Lurdes Iriondok.

Gure literaturan izango ditugu hutsune handiak ere, baina ipuien

eremua aski abertsa dugu. Eta, bera ezagutarazi eta bertatik kimu berriak sortzea da gure egitekoetarik bat.

Igaz, Madrid-en, Txekoslobakiarren Enbaxadako lehen idazkari den J. Hadler jaunak galdetu zidanean ia gure hizkuntzan zer literatura mota genuen; laburki adierazi nion berandu hasi ginela idazten. Gure lehen liburu inprimatua 1545ekoa zela eta 1571.ean argitaratu zela Testamentu Berria euskaraz. Baina, hasiera hau, itxuraz, aski aberats agertuarren eta geroztiko mendeetan landuaz etorri, egiazko kultur literaturaren mugimendurik ez zela loratu hemeretzigarren mendearen azken partera arte. Hala ere, herri literatura aberats baten jabe ginela. Euskalerrriaren sorkaldean erdiarotik zetorkigun pastoralak, herri antzerki bezala, oraindik irautzen dutela. Horrez gainera, herri literaturan genuen gauzarik bereziena bertsoarritza zela, doinu jakin baten laguntzaz poesiaren neurri, puntu eta gaineroko baldintzak legez be-teaz bat-bateko bertsoz gaiak betetzen dituztela. Fenomeno interesgarritzat jotzen zuen hau. Baina, azkenik, gure ipuinen eremua adieraztean, gauza bitxitzat agertu nion alegietako abere hizlariekin gertatzen zaiguna. Hauetan, klasikoetatik apartekoak ere aurkitzen direnez. Eta hauen arrazoia, zera dela, hemen bertan sortuak izatea edo hizkuntza zaharrak bere baitan gordea izatea, inguruko hizkuntza senideak galduz gero. Honegatik, zenbait ipuini kideasunik arkitzekotan hinduen *Panchatantra* eta *Hitopadesa* deritzan ipuin sailetara jo behar dugula.

Honek piztu zuen txekoaren jakin nahizko kezka. Orduan aitortu bai zidan, bera Hindu jakintzetan espezializatua zenez, hauek jakitean, emozioz betetzen zela gure herri literaturaz. Honek, beste gabe, gure hizkuntzaren bizitzaz, iraupenez eta indartzez daroazkigun borrokak ongi justifikatuak direla.

Egia esan ikerketa zehatzagoen premiaz gaude, arestian aipatu dudan Martin Etxeberrriarena bezalakoak, edo J. Caro Barojak «Algunos mitos españoles y otros ensayos» (1944) liburuan agertu zituen saiaeren gisa alegietan ere egin beharra. Horrela, gure jatorrizkoen ikusmolde sakonagoa izango genuke eta, era berean, mendeak zehar gure haurren gogozkoak zertzuk izan diren ezagutzeaz bertako psikologia hobeto ezagutzen lagundu.

Orduan, alegietan oinarriturik era berritzeak lortzea izango genuke beste eginkizun bat.

Alegien literatura, zoritxarrez, eskoletatik kendu bazuten ere, ez pentsa baliorik gabeko gauza baten baztartzea izan denik. Alegiak bere teknika zuten bizitzaren gertakizunen aurrez-aurre kontseilu onezko moralejaz bukatuaz. Gaur egungo gizartean horren hutsunea nabari zaigu.

Hoi en eraberritzea ordea, zinema berak erakutsi digu. Uste dut Pat Sullivan izan zela abere hizlariak lehen aldiz filmetara eraman zuena, bere Feliz Kantuarekin, eta ondorean Walt Disney-k hainbeste erataro agertu zituen abereen bidez; gainera beretariko asko mundu guzian hain ospetsu eginaz.

Azken baten, gai hontaz ere, egindakoa baino gehiago da egin gabe gelditzen zaiguna.

## En el área de los cuentos (II)

En el género de cuentos de la literatura popular vasca, han existido, y aún se pueden recoger, la serie de Peru eta Maria (Pedro y María), considerados de insustanciales por Vicenta Moguel y R. M. de Azkue, y a los que no se les ha prestado mayor atención. Ellos, no obstante, comparativamente con cuentos de otra naturaleza, podían servir para la reconstrucción del estudio de cuentos autóctonos o para su relación con otras influencias. En este tipo de trabajos fue muy notable y modélico la aportación de Martín Echeverría sobre cuentos asombrosos.

Por otra parte, merecen su atención las fábulas, que constituyen una clase de cuentos poco estudiados. Tuvieron gran auge desde primeros del siglo pasado y por sus características de animales parlantes de buenos consejos, se enseñaban en las escuelas, y creo que fue un gran error el desterrar de las mismas, cuando precisamente Walt Disney se las llevó a la pantalla.

En las fábulas populares recogidas en el país, hay algunas que no coinciden con las de los autores clásicos. Aún no se han estudiado si han podido ser creadas en épocas recientes o bien se han podido conservar con el euskara desde muy antiguo. Porque, en este caso, habría que buscar su origen o parentesco en la serie de *Panchatantra* y *Hitopadesa* de los hindúes, y, por consiguiente, sus respectivas conexiones en el transcurso del tiempo.

De todas formas, los futuros universitarios vascos encontrarán un material apreciable para la investigación de nuestra literatura popular.

1979-VII-2.

## HERBESTERATUEN LITERATURAGINTZA

Gerraondoko lehen urteetan eremu hutsa zen euskal literatura. Oroitzen naiz, gure hizkuntzaren garrantziaz jabetu nintzenean, zein nekeza zen euskarazko liburu bat aurkitzea. Mendizale adiskideen artean elkarri uzten genizkienak, bitxi gareztiak ziren orduan, eta gehienak isilpean erabili beharrezkoak. Bilboko Verdes etxean ezaukera eginaz eta Yon Etxaiden bidez Donostiako salmentariegandik lortzen nituenak laster irentsiten nituen. Baina herbestetik zetoztenak haize freskoagoa zekarten. Hemen bertan ezer berririk ez bai zen sortzen.

Bertan, isilaldiaren garaia bai zen eta deserrituak aberri minez ziharduten. T. Monzonen *Urrundik* eta *Gudarien eginak*, Zaitegiren *Goldaketan*, Irazustaren *Joanixio* eta *Bizia garratza da...*, Eizagirreraren *Ekaitzpean*, Lontzi Abaren *Ipuintxuak*... Batzuk behin eta berriz irakurriak. Bestalde, noizbehinka hartzen genituen aldizkariak ziren J. M. Barandiaranen zuzendaritzapean Baionan argitaratzen zen *Eusko-Jakintza* (1947-1957), Donibane Lohizunen I. Fagoagak *Gernika* (1949a baino lehenagotik). Baina, bereziki, J. Zaitegik Guatemala-n 1950ean sortu zuen *Euzko-gogoa* (1950-55. urteetan Guatemala-n eta 1956-59.etan Miarritzen). Lehen biak euskaraz eta erdaraz eta azkena euskara hutsean. Orixe, Ibiñagabeitia, Ametzaga, Iratzeder, Mirande eta bestek asetzen zuten gure gogoa. Hein batean, *Euzko-gogoa*-k bere inguruan bildu zituen munduan zehar sakabanaturik zebiltzan euskal idazleak, lehenagoko zuzi zaharra pizturik eutsiaz.

Jokabide horri esker, ondoko gizaldiak etengabeko kateari jarraitu dio.

Inoiz pentsatu izan dut gerragatik herbesteratuen literaturagintzak azterketa egoki bat behar zuela edo gure literaturaren historian toki berezi bat. Baina, hara hemen urte honen hasieran Taurus argitaletxeak *El exilio español de 1939* sailean agertu duen seigarren alean «Cataluña, Euskadi, Galicia» deritzan tomoa non plazaratu digun. Izenburuak dión bezala, bere kapituluetatik bat, *El exilio en la literatura vasca: problemas y consecuencias*, Martin Ugaldek izenpetua, liburuaren hiru-rogeta sei orrialde hartzen dituena. Gainera, liburuaren lehen partea, Fermín del Pino-k izenpeturik, «Antropólogos en el exilio» deritzan lana dakar eta, parte batean, bederatzi orrialde Jose Migel Barandiarani eskainiak.

Liburu honi garrantzitsua deritzagu, une ilun eta neketsuetan gure literaturaren jarraipenez lotura nola gertatu zen jakitzeko.

M. Ugaldek, lehenbizikoz, sarrera gisa, idazle herbesteratuen berriak ematen ditu, ondorean gure literaturaren berri orokorrak eta

1936ko egoera. Jarraieran, deserrituen literatura mugatzen du, irakurlearen argibiderako.

Argentina-n Ekin argitaldiaren inguruan eta Ifar Euskal-Herrian bertako idazleen laguntzaz nola eman zituen lehen urratsak. Garai honetan, 1950. urtera arte euskal idazleek aurkitu zituzten nekeak eta eragozpenak oso mingotsak izan zirela erakutsiko digu. Inoiz, testu zatiekin baliatuko da garai hartako giroa zehatzago aurkezteko.

1950. urte muga hontan, *Euzko-gogoa*-k bere inguruan idazle zahar eta berriak biltzeaz eta Zarautzen bertan hain kezkatu itxaro genuen *Euskaldunak* poema handia agertzeaz, gure literaturak jarraipenezko aurpegi berri bat erakutsi zuen geroari begira zio pizgarria sortuz. Martin Ugaldek, Torrealdyren *Euskal Literatura*, gaur liburuko argudioz adierazten du garai ezaugarri hau.

Ordura arte herbesteratuak erabili zuten zuzia, aurrerantzean etxebarnekoak erabiliko zuten, egoera zerbait lasaitu zenez. Bai, zerbait lasaitu zen, baina ez guztiz baretu eta beste anitz urtetan anitz neke leporatu genuen idazleok.

Herbesteratuentzat bada bigarren aldi bat ere, lan hontan idazleak aipatuarren, behar bada, sail berezi bat merezi zuena: Txillardegiren *Huntaz eta Hartaz* (1965) deritzanaren ingurutik hasita, P. Iztueta, J. Apalategi eta bestek, gazteria berrikoak, frankismoaren aurkako borroka isilagatik deserrituak, eta, behar bada, sail berezi bat merezi zuena. Baina, ez dezagun ahaztu Taurus-ko lanaren bete beharra *El exilio español de 1939* dela, izenburuak aitortzen duen bezala, eta, beste hau, belaunaldi berrikoa.

Ugaldek, lan hortan, autoreak eta obrak, guziak xehetasunez jasotzen ditu, eta era hontan bildurik ikusteaz ohartzen gara zein garrantzitsua izan zen herbesteratuen literaturagintza. Parte hau, aurrerantzean, kontuan hartu beharrezkoa dute gure literatura eta gure historia estudiatzen dutenek.

## El exilio de la literatura vasca

La literatura vasca producida en el exilio durante la década del cuarenta y hasta bien entrada la del cincuenta, fue el eslabón de la continuidad; porque, en el país, su actividad se había interrumpido prácticamente en el 36.

Nada surge por generación espontánea, y muchísimas veces pensé que alguien tenía que ocuparse del tema, reuniendo y ordenando los

materiales para exponer en público y recuperar para la historia la memoria de una penosa etapa de nuestra literatura.

Por esto me he llevado una grata sorpresa al ver que el sexto volumen de la obra «El exilio español de 1939» que publica Taurus está dedicado a Cataluña, Euskadi y Galicia. En él, un extenso capítulo titulado: *El exilio en la literatura vasca: Problemas y consecuencias*, suscrito por el prestigioso escritor Martín de Ugalde, que abarca sesenta y seis páginas de la obra, con el siguiente sumario: Volumen y características del exilio vasco. Características de la literatura vasca misma y su situación en 1936. La obra que abarca «el exilio». El exilio de la literatura vasca. El resurgir de la literatura euskérica a partir de 1950. La contribución de América. El fenómeno «Orixe». Los años 1950-54. Cambios en la literatura euskérica a partir de 1961. Un paso adelante. Obras publicadas a partir de 1967. Y, Publicaciones. Esta última parte se limita a reseñar las revistas culturales o político-culturales con fechas y lugares donde aparecieron.

En lo sucesivo, por su carácter específico, es un trabajo a tener en cuenta para comprender el resurgir de la propia literatura de posguerra. Su autor, Martín de Ugalde cuya ficha bio-bibliográfica figura en la página 361 de dicha obra, hombre que vivió el exilio y que entre obras en castellano y vascuence es autor de «Síntesis de la historia del País Vasco» que en muy pocos años ha tenido cinco ediciones, estaba dotado como pocos para abordar este tema, y su lectura, bien documentada, resulta muy amena. El eslabón fragmentado que peligraba a perderse, ha quedado bien condensado en el libro.

Además, el mismo volumen, empieza con un capítulo dedicado a los antropólogos en el exilio y, entre otros, recoge a don José Miguel de Barandiarán, a lo largo de nueve páginas explicando su personalidad y su obra, debido a la pluma del antropólogo sevillano Fermín del Pino.

En resumen, esta obra, constituye un valioso documento.

1979-VI-11.

### **AGIRIAK HILONDOKO OMENEZ (Gaurko euskal poesiaren antologia)**

Duela hilabete aurkeztu zen publikora «Agiriak» eta egunotan agertu da salgai.



Hain beharrezko genuen gaurko euskal-poesiaren antología baten hutsunea betetzera dator euskal-poetak eta artistak G. Aresti zenaren omenez egin duten liburua. Zahar eta gazte, 47 poetaren lanak osatzen bai dute, eta hoiiek ederrez hornitzera etorri diren 32 artistaren lanak. Euskal poetek eta artistek Aresti zenaren izena goretsi nahi zuten eta hor ditugu «Agiriak».

Hilondoko omenez argitaratu den liburu honek 28,5 x 21 zentimetroko neurria daroa eta 204 orrialde ditu. Paper onean eta edergarritz, bilduma txukuna osatzen du.

Liburua Gabriel Arestiri eskainia izanarren, gaiak libre utzi ziren. Horregatik, lanik gehienak, gaiaren aldetik ez dute ezer ikustekorik Aresti zenakin. Hara hemen liburuan partaide diren poeten izenak: A. Agirreazaldegí, B. Albizu, N. Alzola, A. Aranburu, M. Arregi, F. Artola, «Bordari», J. A. Arze «Harzabal», B. Aurre Apraiz «Aurraitz», J. Azurmendi, X. Azurmendi, A. Bilbao, M. Erdozain Etchart, E. Erkiaga, M. Ertzilla, E. Etxamendi, J. A. Etxebarria «Dirauket», P. Etxeberria, S. I., B. Gandiaga, J. I. Goikoetxea «Gaztelu», Iratzeder, J. M. Irigoyen, Itsubia, M. Iturbe, P. Iztueta, J. Kerexeta, E. Kortadi, D. Landart, G. Lantziri, A. Lasa, M. Lasa, J. M. Lekuona, X. Lete, B. Mujika, A. Muniategui, S. Muniategui, L. M. Muxija, S. Onaíndia, Otsalar, M. Pagola, R. Saizarbitoria, I. Sarasola, M. Tejeria, G. Trinxerpe, P. Urkizu, M. Zarate, I. Zubizarreta eta J. Zulaika. Liburuaren azkenean jartzen dira poeten berriak eta izen deituren ondotik, beste zenbait xehetasunen ondoan poesiaz argitaratuak dituzten liburuen berri ere bai. Bertatik ikusten dugunez, zerrendako 47 olerkariok 51 poesi libururen egileak dira, denak gerra ondoren argitaratuak. Horrez gainera beste 3 liburu poesia-zko bilduma orokorrez. Hau ikusirik, berriz ere esan beharrean gaude, euskaldunok, irakurtzen dugunagatik, merezi dugun baino literatura aberatsagoa dugula.

Xehetasun hoiei esker, omenezko bilduma honek, irakurgai atseginez gainera, euskal-literatura ezagutzeko lagungarri diren anitz berri dakarzki.

Artistenak ordea, izen eta bizilekuak soilik agertzen dira, baina bai bada gauza ikusgarririk liburuaren apainduraz.

Hara hemen liburuan partaide diren artisten zerrenda: J. G. Agirre, L. J. Akerreta, J. Arocena, N. Basterretxea, F. Beorlegi, F. Beristain, K. Bizkarrondo, D. Blanco, E. Txillida, J. Egaña, J. Garro, J. L. Goenaga, T. Hernández, Mendizábal, A. Ibarrola, S. Iñurrieta, I. Larrañaga, V. Larrea, R. Mendiburu, J. Mieg, F. Mirantes, A. Olariaga, K. Ortiz de Elgea, J. de Oteiza, R. Ruiz Balerdi, P. Saint-Esteben, A.

Tapia, J. M. Tellería, D. Txopitea, J. Ugarte, R. Ugarte de Zubiarain, J. Urkijo eta J. L. Zumeta.

Neronek egindako hitzurre labur baten bidez G. Aresti zenaren bizitza eta laneri buruzko berri labur batzuk ematen ditut.

Liburu honetatik, 5.000 ale argitaratu dira, eta aurkezpenean esaten den bezala, «Agiriak» liburuaren 5.000 ale hauek, Erakunde oro-ren liburutegitan, Ikastetxe eta euskaldunon etxetan leku bat izanen dute». Euskal-kulturaren zerbitzuan bere bizia bete zuen Arestiren oroimen-arogan guziok haintzat izan dezagun. Gipuzkoako Aurrezki Kuxta Probintziala izan da liburu honen argitaratzailea eta ale hoietatik mila alargunarentzat dira, ale bakoitza mila pezetan saltzeko. Nahi duen guziak liburu dendetan eta Euskaltzaindiaren bulegoetan aurkituko ditu salgai.

Euskara hutsean gutxitan argitaratu da holako liburu ederrik, eta, inork merezitezkotan, gure belaunaldi hontan euskal-literatura berritzen hainbeste lan egin zuen G. Arestik merezi zuen. Zordun ginen, eta, horregatik, hor daude «Agiriak».

### **Documentos en homenaje póstumo (Antología de la poesía vasca actual)**

Hace un mes se hizo su presentación y estos días se ha puesto a la venta, la obra antológica de poesía actual en euskera, en homenaje póstumo a Gabriel Aresti. Es un testimonio que le dedican los poetas y artistas del país y lleva por título «Agiriak» (documentos).

Una obra de 204 páginas en formato de 28,5 x 21 cm., que está suscrita por 47 poetas euskaldunes actuales, más 32 artistas que *vienen a embellecer sus páginas con ilustraciones. Está editada por la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.*

Los poetas, al tiempo de rendirle un merecido homenaje a G. Aresti, que tanto contribuyó en la modernización de la literatura en vascuence, han ofrecido al público una muestra antológica actual, aportando para ello poemas con tema libre.

La poesía es el género más desarrollado de la literatura vasca contemporánea, y la obra muestra una importancia extraordinaria. Al final de la misma figuran las fichas de los poetas, por las que se puede comprobar que entre los 47 participantes son autores de 51 títulos de obras de poesía en la postguerra, más 3 antologías generales, que revelan la dinámica productiva en el campo de la poesía.

1979-III-5.

## POETAREN MEZUA

*Gauari ahosturiko lilaren hariak dira;  
oihanean apurtzen diren izarren printzak;  
kristaletan jotzen duten zain-kolpeak;  
gurdi xixtu-jolearen arreo musikaduna...*

eta ez dakit nik zenbat gauza gehiago dakarren nere gogoetara aberri eta gizarte bizi nahiaren larriminezko borrokaren garai hontan, euskal poetak mezutzat, *Ilargiaren eskolan* berekikoetan ikasi duenetik.

Literaturagintzan urri ematen diren frutu umatu hoietako baten aurrean gaudela esan genezake. Hala deritzat Juan Mari Lekuonaren azken liburuari.

Poeta hau, behar bada, inoiz ezta izanen emaitzaz ugaria, baina galburua anitz eta lasto guti ematen dakien poeta da.

Gerraondoan poesiaren alorretik hasi ginenok maiz entzuten genuen, aurrerapidean bizkortzeko beharrezkoa genuela olerkari ospetsu bat lortzea. Zenbaitek Orixeren *Euskaldunak* poeman jarri zuten esperantza, baina bestek, poeta askoren ekintzatik sor zezaken girotik berez lortuko zen ustean. Hizkuntzaren jakzera, irudien erabilkera, ideien etorria... gizarte baten gogoari egoki erantsi beharra zegoen. Beraz, orduko gehienon ustez, ekintzak berakin zekarren gauza zen.

Gure gizarte krisialdi baten aurrez aurre geuden eta krisi aldiak ez dira izaten txarrenak gogoeta zuzpertzeko. Geroztik, frutu ederrik eman da euskal literaturan.

Adibidez, *Agiriak* deritzan bilduman oraingo 47 poeta euskaldunen zatiak erakusten dira, eta liburuaren bukaeran, poeta bakoitzaren fitxa laburra azaltzean, olerkariok poesiaz edo poesiari buruz argitara eman dituzten liburuen zerrenda agertzen nuen: 51 titulu, 1954tik 1977ra bitartean argitaratuak. Euskal literaturaren hedapenerako kantitatea hain arrazoizkoa baldin balitz, uzta ederra deritzagu azken urte hauetan poesiaz argitara eman denari. Baina, kalitateaz, zer esan? Ekinak omen dakar egina eta kantitateak, behinik-pehin, hobetze giroa eta hautapenerako aukera. Argi agertzen zaiguna, zera da, euskal literaturaren alorrean poesia beste sail batzuk baino aberatsagoa dela. Kantitateak, gehienetan, bere barne dakar kalitatea. Esate baterako, Omar Khayyám persiarrak 170 bertso, laukoan, besterik ez zuen idatzi, baina bere inguruko Firdousi, Mólavi, Nizâmi eta gainerakoek milakak bertsoak idatzi zituztenek baino ospe handiagoa lortu zuen. Bere gogoetazko mezua, poetaren mezua, luzarora begira, beste haiek baino irakurgarriago bihurtu zenez. Baina beste haien ekintza Khayyám-en zio eragilea.

Baina, poeta baten lanak irakurgarriagoak izatez aparte, badago bestelako mailakatze bat ere. Alde batetik, garai bakoitzeko pentsaera giroak iritziaik alda lezazke, baina bestetik, formaziozko desberdintasunez aparte bakoitzaren barnetikako sentipenen hari meharrak ere badute zer ikusirik. Adibidez, har dezagun Espainiako 27. belaunaldia. V. Alexandre-ri Nobel saria eman zitzaionean, gure arteko idazle «gizarte iraultzaile aurrerazale» batek duda-mudarik gabe agertu zuen sari hura R. Albertik merezi zuela, eta horrela ez izatearen arrazoiak politikazkoak iduritzen zitzaizkiola. Gauzen ximpletasunetik begiraturik hala dirudi. Baina batak herbesteratu beharra izan bazuen, bestea prepondegian egona zen. Beraz, ez dut uste sari hautapenean politikak ezer ikustekorik izan zuenik. Batak egunoroko gizarte auzien borrokeri gehiago kantatu bazion, besteak barne gogoetatik izatearen metafisikazko pentsamendu sakonagoak eskaini zituen. Eta balioen mailakatze hontan ezta hain erraza nor aurretik jarri. 27. belaunaldikoek berek, orotara harturik, maiz aipatu dute behar bada talde guziaren gainetik jartzekoa dela Pedro Salinas. Baina nork ezagutzen du P. Salinas-en lanik, poetak heurak izan ezik? Ezta alperrik deitua izan poeten poetatzak.

Euskal literaturan bertan ere holakorik gertatzen zaigu. Baina lasai esan genezake puntarengoen artean jartzekoa dela J. M. Lekuonaren *Ilargiaren eskolan* deritzan lan argitara berria.

Urrengo artikuluan iharraituko dugu liburu horren bidez poetak «gauari ohosturiko lilaren hariak» dakarten mezuaz.

### Mensaje del poeta

Añoranzas, recuerdos, compromisos, crítica, mensaje... emanen del libro de poemas *Ilargiaren eskola*, que surgidos de los pensamientos y las meditaciones de la escuela bajo la luna hurtando en las noches las cuerdas a la lira, fue componiendo el poeta para los hombres de hoy en nuestra tierra. Un libro rico en lenguaje poético, con metáforas, decires, etc.; todo un mundo reconstruido con simbolismos y buen hacer. Un libro como pocos, que viene a enriquecer la literatura eúskara.

Quando en la postguerra nos asomamos a la literatura vasca, observamos que nuestros mayores habían depositado sus esperanzas en un gran poema cuyo prestigio impulsaría nuestra endémica literatura. Pero nosotros descubrimos nuestro gran poema en el cancionero popular, y confiamos más en el cultivo cuantitativo, en el empeño co-

lectivo, para el florecimiento de obras como la que acaba de dar a la luz Juan M.<sup>a</sup> Lecuona.

Las 47 firmas contemporáneas que suscriben la antología *Agiriak*, en homenaje a G. Aresti, como se puede comprobar en las fichas de los mismos al final de la obra, son autores de 51 obras de poesía, o sobre poesía, en euskara, y esa dedicación ha producido el fruto sazonado que hoy llega a nuestras manos.

Juan M.<sup>a</sup> nunca se ha mostrado prolífero, como tampoco lo fue Omar Khayyám que se inmortalizó por sólo 170 cuartetos, contra los miles y miles de otros poetas, tales como Firdousi, Mólavi o Nizâmi.

Hubo entre nosotros quien ponía en tela de juicio las valías entre V. Alexandre y R. Alberti, cuando el primero de estos fue galardonado con el premio Nobel. Inútil comparación, porque cada poeta es quien es. Cada uno cultiva una parcela en el mundo de su dedicación, de su meditación, de su reflexión, y su mensaje, si es que lo hay, y es difícil de medir en el tiempo, porque la propia sociedad es cambiante y nunca se sabe a dónde nos han de llevar las transformaciones de las ideas y de los conceptos. No obstante, hoy por hoy, sí se vislumbra un criterio bastante claro entre los de la llamada generación del 27, y es que uno de sus puntales, el más reconocido de entre los que componen dicha generación, es Pedro Salinas, a quien se le ha llamado poeta de los poetas, y que, sin embargo, es poco conocido por la gente.

Somos conscientes de que es muy difícil medir la valía de cada poeta y, a este respecto, tenemos nuestras dudas en el tipo de comparaciones que hace el presentador de *Ilargiaren eskolan*, pero en lo que no tenemos ninguna duda, es en la propia obra, que es un libro de poemas extraordinario dentro de la poesía euskara, merecedor de un comentario general y que prometemos dedicarle un artículo.

1980-V-26.

## ILARGIAREN ESKOLAN

*Hasieran hitza zen;  
hitza haragi egin zuen profetak,  
haragia hitz biburtu zuen poetak.*

Baina nor da hitzezko irudigintzaz baliatuko den artista? Esango nuke, gauzak sorkunde egunaren biharamunean modatik pasatzen ari diren garai honetan ez dela ekintzarik onena poetaren ofizioa. Hala ere, aspalditik ildo zuzenak datorrenak badaki zerbait eta *Ilargiaren eskolan* bildu duenetik Juan Mari Lekuona garaile irten dela esango nuke.

Bitan banatzen duen liburu horretan, gauzak bere inguru egoki batek bildurik adierazten ditu. Gauza bakoitzari, hitzaren bidez, bere ingurua iradokiz mamia eta sena emango dio. Hala dira: Bizilekua, Esku, Ile-adats, Haragizko estatua eta Begitarte; liburuaren lehen partean lau hirukoitz eta laukoitz bat osatzen dutenak.

*Eta baliapide, lanabes, elkartasun  
eta festetako kriskitin ziren eskuak.  
Arimaren ispilu ere bilakatu ziren,  
izaera baten salatari,  
behatz berbadura gorrien kupula aldakorrean.*

Eskuz gidatutako lumak, artistaren gogoz, balio estetikoak adierazten ditu iradokigarri direnak, bertso librez edo hitz-neurtuz (zortzi-koz edo koplaz zaharrez gehien bat), gorpuzkeren komunikapen ilunetan argia egin nahiaz.

Euskal poesian ere mila aldiz kantatu da emakumearen edertasuna, baina hara Juan Marik nola berritzen duen emakumezkoaren irudi adierazpena, Haragizko estatuan, kontzeptu berrien araura:

*Emakumezko irudi biziaren orekan.  
bularrak berezko pentsamendu dira.  
Bizia elikatzera behartuak;  
aho gosetien forma dute hartzen,  
kutxa barruko ogiak bezala.  
Mehea gerria,  
haurgintzaren expalek  
hozkatu gabeko zurubia.  
Eta sabelean eusgarri  
izter geldoak,  
marfilezko zutabe sendoak,  
jeminatuak,  
jainkesen irudien  
tinka-harri lerdan-airosak.*

Horiez gainera, usuario zaharrerik jarraituz, asmakizun erakoak ere bere tokia dute.

Liburuaren lehen zatian irakurleari gauzen sena iradokitzen badio, bigarrenean, gure bertsolarien gisako ironiaz, azken urteotan euskal literaturaz eman diren liburu handien kritika agertuko du. Hau da Liburuaren karroxa. Oharrez adierazten duenez: «Karroxa» hitzak, karrikako antzerki mota herrikoia esan nahi du hemen. «Karroxa», «astolaster», edo «toberak», antzerki satirikoaren atal dira.

Bost bertso sorta dira guztiz, guziok doinuz emanaz eta liburuaren bukaeran aurkituko ditugu pentagramaz.

Liburu azalen koloreen araberez, honela datoz: lehen, Liburu Horia deritzana, Berrondok euskeratutako Don Kixotez ari da; bigarrena ordea, Liburu gorria, Aresti zenaren Lan osoak bildu nahirik agertu ziren bi tomoena; hirugarrena, Liburu urdina, Torrealdayren Euskal idazleak; laugarrena, Liburu berdea, Xalbadarren Odolaren mintzoa; eta bosgarrena Euskaltzaindiaren Liburu zuria.

Adibidez, har ditzadan azkenengo hortatik bi bertso:

*Euskarakiko bulda  
taldeak dakar;  
berena on den gisan  
besterena txar.  
Bietan da luma prestu,  
bietan idazle extu;  
sena duenak baddu, ta  
ez duenak ez du.  
Deabru huts da hatxe,  
adar ta buztan;  
edo hegal txurizko  
aingeru laztan.  
Gaitz txarrak gaitu kutsatu;  
armetan gara altxatu;  
inoiz bain gutxik ez gaitu  
hainbeste saltsatu.*

Xenpelar eta Txirritaren herri eskolatik ari zaigu horietan.

Bi zati desberdinez taxutzeaz, liburu horrek badu bere bizitasuna, edonork atseginez irakurtzeko eran.

*Eder zibota lur-zolan;  
maite-minduek auzo-lan...  
Txorkatil finak tximista dira  
ilargiaren eskolan.*

## En la escuela de la luna

El arte de la poesía es algo más que esa capacidad de recepción, reflexión y emisión de los sentimientos más o menos emocionales en el entorno de la sociedad donde vive inmerso el poeta. El lector sabe que la cosa no es tan pueril. El poeta se formula los elementos de juicio del entorno natural o social en el que vive y se dirigirá al presente, al futuro o, quizás, a la nada. Siempre mostrará su mundo interior, y ese mundo interno lo transmitirá a las fibras sensibles de sus semejantes, pero procurará emplear bellas formas aunque lo que cante no siempre sea bueno. Muchas veces buscará formas mágicas para centrar la atención del lector y situarle a la receptividad. Es el juego que utiliza el buen bersolari ante los oyentes, la fórmula que hallaremos con frecuencia en el cancionero popular vasco. Y si a esta habilidad se le añade un lenguaje fluido de forma e imágenes, dando a cada vocablo su sentido real y a las ideas y temas expuestos su sentido filosófico, no hay duda de que se ha alcanzado el éxito.

Podemos decir que algo de todo lo expuesto ha sabido verter Juan María Lecuona en su obra *Ilargiaren eskolan*. No sólo ha sabido aplicar el vocablo preciso a cada cosa, sino que ha logrado la manera de cantar cada cosa. Sus trípticos a la morada, la cabellera, la estatua de carne y al entrecejo, o la tetralogía de la mano, que forman la primera parte del libro, son piezas literarias de gran mérito. La segunda parte, «Karroxa», se basa en el género popular suletino de la crítica satírica, y desfilan en versos tradicionales, nada comunes, las opiniones del poeta sobre cinco voluminosos libros que han visto la luz en estos últimos años.

Lecuona por otra parte demuestra gran madurez en el empleo, a la perfección, de un lenguaje poético. No en vano publicó poemas a los veintitrés años y en 1951 recibió el primer galardón en un concurso convocado en Aránzazu sobre el tema impuesto «Ama», que A. Onaindía publicaría en la antología *Milla Euskal-olerki eder* (1954).

De Juan María Lecuona hay una primera obra publicada en Roma, en hojas multicopiadas: *Mindura gaur* (1966), que más tarde, parte de su contenido vería la luz en *Muga beroak* (1973) que constituyó otro gran éxito para la poesía vasca que ahora viene a ampliar y mejorar, por su gran calidad, con *Ilargiaren eskolan* (1979).

1980-VI-2.



## BERTSOLARI ARAUAK

Gure herri literaturak duen gauzarik baliozkoena, bertsolaritza da. Bertsolaritzaren jatorriak ez ditugu behar bezala ezagutzen. Ez dakigu noiztikakoa den. Oienartek euskal poesiaz egin zituen saiakeretan (P. Lafittek argitara eman zituen esku-izkribuez ari naiz) bada antzeko neurririk, baina lehen agiri idatziak XVIII. mende hondarraldekoak ditugu (Iztuetak eman zituen berrietan oinarritzen gara), baina zenbait kanta zahar eta bertso beraien egiturak erakusten digutenez aintzinagoak dira bertsolaritzaren erroak.

Bertsolariatzak, hain baliozkoa izatea, bere egiturazko araueri eta gauza bizia izateari zor dio.

Bertsogintzak bere legeak ditu, aintzinako koblakari, trobadore edo poetek bezala. Lege hoiek Manuel Lekuonak ikertu zituen, lehen lehenik metrikazko lantxo batzuetan eta geroago «Literatura oral euskérica» deritzan liburuan (argitaraldi berrian «Literatura oral vasca» deritzana eta azkenik euskarazko argitalpen berri batean). Baita ere Piarres Lafittek «Kloblakarien legea» deritzan liburuxka batean. Bertsolariaren meritua lege hoiek bat bateko bertsoetan betetzean datza.

Lehen aldiz bertsoetan hitzetik hortzera aditzen duenarentzat, bertsolariak adierazten duten adimen argitasuna eta ideiak bizkor eta neurri hertsietan sartzeko duten ahalmena harrigarriak dira.

Doinuak ematen dio neurria eta nahikoa erraz betetzen du; baina puntuak osatzeak jartzen dizkio bertsolariai buruhausteak. Hitz edo aditz desberdinez baliatu behar du puntuak osatzean. Hitz edo aditz berean bigarrenez erortzea, potu egitea da, eta hau huts handitzat jotzen dute.

Bertsolariak, lehen lehenik, ofizioaz jabetu behar du, neurriak bere eten-unekin eta puntuak ondo betetzen ikasiaz.

Bertsolaritzan, bertsoa, erderaz «estrofa» deritzana da, eta erderazko «verso» gure lerroa. Neurriak era askotakoak erabil daitezke; baina gehien ohitzen direnak zortziko nagusia eta zortziko txikia dira, lau eta bost puntuz osatzen direnak.

Zortziko nagusiaren neurria, bi etenaldiko 18 silabaz osatzen da: 5 + 5 + 8; Adibidez, har dezagun Xenpelarren bertso zati bat:

1 2    3 4 5    1 2 3    4 5  
*Askok badegu besteren ona*

1 2    3 4 5 6 7 8  
*begiz ikusi eziña*



*Bertsolariak. Manuel Lasarteren omenaldian Eibarren 1963an.*

*Ezkerretik eskubira: J. Mugartegi, J. Azpillaga, J. Lizaso, M. Olaizola «Uztapide», I. Eizmendi «Basarri», M. Lasarte, I. Lazkano, Egileor eta J. Agirre «Oranda».*

Zortziko txikia ordea, etenaldi bateko 13 silabaz osatzen da: 7 + 8. Hobeto ulertzeko beste adibide bat jarriko dut, Xenpelarren bertsobatetik hartua hau ere:

1 2 3 4 5 6 7 1 2 3 4 5 6  
*Bertso bi paratzeko hartu det ordena*

Lege hioen barnean, ez dezagun ahanzi euskaraz ere badirela diptongoak, bi bokal, elkarren ondorean doazenean eta bigarrena idekia, Bestalde, erderaz sinalefa deritzan hitzelkartuak egiteko eskubidea du bertsolariak; edonongo poesian ohi den bezala.

Ofiziozko hutsik handiena, esan bezala, puntuan poto egitean datza. Bertso batean behin erabilitako hitza ezin du berriz esan. Gainera, puntua jatorra izateko, azken bi silabak berdina behar dute, edo azken berdina eta azken aurrekoa berdintsua. Azken silaba soilik betetzea puntu pobrea da, eta azken bokal hutsezkoa ezta zilegi.

Itxura batean oso nekeza dirudi lege guzi hoiek kontuan izanik bat bateko bertso gintzan ihardutzea. Baina ofiziozko heldutasunera iristen den bertsolariarentzat ezta hain gauza zaila

Zailena, bertsolari heldu batentzat, hortik gorakoa da. Hartzen duen gaiaren arabera, bertsoak heurak egituraz ondo hornitzea, lehenengotik azkenera, eta gaia bera ahalik poesia beteenez ematea. Horretarako, etorria behar du, inspirazioa. Hor dago bakoitzaren dohaina.

Bakoitzak bere burua landu eta bere sentipenak piztu behar ditu. Hontan ahalegintzen denak eman dezake, bere barnean ezer baldin badu. Hontarako, gaztetatik bertsolari zaharrei entzun, kanta zaharrak ezagutu, eta bere burua esaldi eta molde egokizko klixeez hornituz berrikiko barne gogoetaz oreatu eta egosi.

Bertsolariak bere barnetik behar duen ekintza oso ongi adierazi zigun Xalbadorrek «Odolaren Mintzoa» deritzan liburuaren hitzaurrean. Une batean hau aitortzen digu: «Nehork ez lezake sinets eni segurik zonbat gusta zautan». Beraz, alperrik da berezkoa, norperak lan-zeko ahaleginak egiten ez baditu. Urepelkoaren mintzoa dugu lekuko:

*Miatu behar laike ahal bezain barna,  
lur hoberenak ere baitu bere lana.*

### Las reglas del bersolari

El género más valioso de la literatura popular vasca es, sin duda alguna, el bersolarismo; más que por sus cualidades técnicas de composición, por mantener viva la tradición de realizar una poesía espontánea.

El bersolari se ajusta a sus leyes como los trovadores y poetas de cualquier lengua, con la particularidad de la improvisación de las estrofas, la mayor de las veces a pie forzado.

La técnica con que deberá cubrir la métrica y la rima son importantes. Las tradicionales melodías, generalmente «zortzikos», le marcan el metro; es decir, el bersolari se entrega por el cauce de la música por la que discurrirá sin preocuparse del número de sílabas, ajustándose con precisión a la propia música, pero sí deberá tener en cuenta el número de consonantes de cada estrofa.

Las métricas más usuales son el *zortziko* mayor y el *zortziko* menor, bien de cuatro o cinco rimas. El *zortziko* mayor se compone de 18 sílabas, con cesura en: 5 + 5 + 8; y el *zortziko* menor de 13 sílabas, con cesura en la séptima.

No hay que olvidar que, dentro de esta técnica, también se deberán considerar los diptongos. Asimismo, es lícito recurrir a sinalefas, para las que la propia tradición tiene establecidas sus reglas.

La falta más grave consiste en la repetición de la consonancia de rima, a cuyo fallo se le denomina «poto». La consonancia, para ser perfecta, ha de coincidir en las dos últimas sílabas idénticas.

Para un bersolari es básico dominar el oficio de componer estrofas ajustadas a metro y rima. A partir de ahí, cuentan el buen desarrollo temático y la composición de las estrofas con arreglo a ese desarrollo. Además de la capacidad de inspiración y el saber situarse bien (que no siempre se consigue y, a veces, es cuestión de suerte) en los pies forzados.

1979-XII-3.

## BERTSOLARI DOINUAK

Iragan astean bertsolari arauak agertu nituen. Bertsolariak gehien erabili ohi duten zortziko nagusian eta zortziko txikian oinarritutako neurriak eta puntuak betetzeko erabiltzen duten teknikaren legeak eta bertsoketaren egitura laburki adieraziz. Baina doinuere buruz ere zerbait agertzea merezi du.

Lau eta bost puntuko zortzikoetan bada doinurik aski, baina hala ere, muga zabalagoetan mugitzen dira bertsolariak. Batzutan gaiemai-leak beharrik edo epailariak eskaturik osatzen dituzte zortzikoak ez diren neurrizko bertsoak, baina urrengo ez dute inork esan beharrik eta bertsolariak berekiko hasten dira beste doinu batzutan. Doinua aldatzeaz, neurria bera ez ezik puntuen ordena bera ere aldatzen da.

Bertsolaria, gehienetan, lasai arituko da zortzikoetatik aparte «Urso zuria...» doinuz edo beste kanta ezagunen baten doinuaz aprobetxatuz, batez ere polikia denean, baina ez doinu bizkorretan eta sei puntuko bertsoetan. Hauek inoiz, kobla zaharren arauetakoak direnean, poterik gabe irten nahiaz bertsolaria larritasunera eramaten dute. Kobla nagusia, adibidez: 8 + 8 + 10 + 8 silabaz osatzen da, lehen lerro bietan eta azkenean puntuak osatuz.

Gaiez eta doinuz, bertsolari zaharretan aberatsena, Xenpelar erren-deriarra dugu. Izan ere, egungo bertsolaritzaren erak eta arauak beragan oinarritzen dira Kobla nagusiaren adibiderik onena ere bera eta Musa-

rroren arteko hitzetik hortzerakoak osatzen dute, hain ospetsu egin diren bertsoekin. Xenpelar eta Musarrok elkarrekin lan egiten zuten eta lantegiko arduradun Xenpelar zela Musarro maiz komuneratzen omen zen pipa erretzeko aitzakiz eta honelako batean joan zitzaion Xenpelar ate ondora bertsoz aditzera emanaz:

*Aizak i, mutill mañontzi,  
nagusiari goraintzi,  
ez al ekian or pipa artzia  
etzela lizentzi?  
Jeniyo txar oiek utzi,  
bestela ezurrak autsi,  
Giza-legia nola bear dan  
ezin erakutsi.*

Musarroren erantzuna ez zen gutiago eta neurri horretan jarraitu zuten elkarren arteko solasa. Koblarren neurri honek eskatzen dituen puntuak, era berean bertsoak taxuz eta puntuz ondo beteaz, ezta gauza erraza. Bertsolariak, neurri hauek menderatzeko, hamaika saio egin beharra du plazaratzean egoki aterako bada.

Xenpelarrek bere garaian hartu zuen ospeak, neurri handi batean behintzat edozein doinutan bertso egokiak hornitzeko zuen ahalmen horri zor zion. Hark etzuen lotsarik bederatzi puntukoetan ihardutzeko ere. Bederatzi puntuko bertsoa da bertsolari batentzat zailena. Bertsoaren lehen partean zortziko txikiaren antzera asten da, baina azken erdian bost lerro errezkaran puntua osatuz bete behar du. Neurri hontan ospetsuak dira Xenpelarren Betroiarenak.

Inoiz zalantzan jarri da bederatzi puntukoetan bat bateko bertsoetan aritzea. Hontaz eztabaidarik ere izan da. Baina Auspoa liburute-giak bere sailetan argitara eman dituen zenbait bertsolari zaharren sorkak ikus ondorean ez dago zalantzarik inoiz bat batekoetan erabilia izan dela. A. Zavalak argitaratu zuen «Xenpelar bertsolaria» (1969) deritzan liburuaren hitzetik hortzerako bertso sailean datorren bat dugu adibiderik egokiena eta ez edonolako bertsoa. Oiartzungo Txiki-erdin bederatzi bertsolari bildu zirelarik, Xenpelarri tokatu zitzaion beste zortziren aurkespena egitea eta baita egin ere haietako bakoitzaren dohainak agertuz:

*Panderiyako onek  
memoriya erne,  
Lexotik jartzen digu  
zenbait umore;*

*txarrik ezin bota du  
Ibarrek naita're,  
Nik oiekin ezin det  
luzitu batere;  
Xorrola da trebe,  
baita Bordondo're,  
Ardotx pare gabe,  
Arotxa kantore,  
Larraburu jartzen det  
gobernadore.*

Bederatzi puntukoa, inoiz txapelketetan ere eskatu izan da, saioen azkenaldera, epai-mahaikoek erabakia errazteko. Baina, aitortu behar da inoiz ez duela ekarri ondore onik. Lerrokada laburretan puntuak azkar osatu beharrak bertsolaria larritasun handian jartzen duelako eta, egoera hontan, gaiaz baino ofizioa betetzeaz gehiago arduratzen denez inoiz ezin du bertso egokirik osatu. Azken batean, horren ondorioa, ofizioz nor gailentzen den jakitzea da, eta saioen ekintzaz hori gabe ere jakiten den gauza da.

Zortzikotik aparteko doinuetan gehien erabiltzen denetako bat Xenpelarren «Iparragirren bozian...» da. Doinu hau Oiartzungo neskatxen alde egin zituen bertsoetan erabili zuen, eta baita ere Iparragirre desafiatu zuenean: «Iparragirre abilla dela / askori diot aditzen...».

Txapelketetan, bertsolarietako zortzikoa ez den neurri batean bertsoa kantatzea eskatzen zaienean, gehienetan, «Iparragirren bozean...» delakora edo «Urso zuria» kanta zaharrenean jotzen dute.

Beste zenbait doinuren artean, bada ordea, beste bat ere aspaldian asko sartu dena eta jendarterako oso egokia. «Esneketariarena» deritzana, J. Mendiagek «Amerika hortako esne saltzaileak...» hasten diren bertsoetakoa. Bost puntuko zortziko txikiaren neurri bera du, baina bigarren lerroa errepikatzea da. Azken bi lerroak errepikatzea ere ohizko da. Horrela, bertsolari saioetan publikoa bera errepikatzen partaide izaten du bertsolariak eta giro alai eta hunkigarria sortzen du jaialdietan.

Arau eta doinu hoi arabera, egiturazko teknika zaindu behar du bertsolariak, bertsoak heurak apain osatuaz, gaia ahalik gehien sakonduz eta bertso guzietan batasuna eta adierazpenaren egokitasuna emanaz. Mehanika hortan ongi eramaten dena da baliozkoena.

## Las músicas del bersolari

En el artículo anterior, expuse las técnicas del bersolarismo basándome, principalmente, en la métrica del «zortziko». Hay, además, otras melodías menos usuales que en ocasiones, cuando se trata de concursos, obliga a usarlas el presentador, o el propio jurado, al darles pies forzados.

Entre las músicas tradicionalmente conocidas entran las de *kobla* o *kopla* y las de algunas viejas canciones como «Urso zuria», por ejemplo. Cada música tiene su particularidad en métrica y rima. En *kobla nagusia*, a la mitad de la primera consonancia, en lugar de la simple cesura, se forma otra consonancia y su métrica viene a ser: 8+8+10+8, y tratándose de seis consonancias en cada estrofa, resulta difícil de versificar. En esta métrica son muy famosos los versos entre Xenpelar y Musarro.

Xenpelar se caracterizó por la perfección de sus estrofas y por su dominio en cualquier tema y música. Ha sido tan rico lo que hemos heredado de este hombre, que hoy puede decirse que las principales reglas que rigen en el bersolarismo son establecidas por él. En sus improvisaciones, llegó a dominar las estrofas de nueve consonantes, las más difíciles en este género literario.

Quando a los bersolaris se les obliga a componer con melodías que no sean «zortzikos», generalmente recurren a la conocida por «la de Iparraguirre», que precisamente la popularizó Xenpelar con unas estrofas dedicadas a las mozas de Oyarzun, y con el famoso desafío al bardo Iparraguirre.

Una bonita melodía que cada vez se está introduciendo más, es aquella que utilizó Mendiague en los versos dedicados a los lecheros vascos de América. Tiene la misma métrica que el «zortziko» menor de cinco consonantes, pero repitiendo el segundo verso y con frecuencia también los dos últimos, de forma que el bersolari hace participar al propio público haciéndole corear al unísono los dos últimos versos de cada estrofa. Esto anima las funciones haciéndolas más emocionantes y alegres, y el público se compenetra mejor con la versificación.

Durante los concursos se obliga al bersolari a una serie de prácticas o ejercicios poco comunes: cantándole la primera consonancia para que complete la estrofa dentro de un argumento que él improvise libremente, dándole cuatro palabras para componer la estrofa, obligándole a dialogar con cada consonante, entablando un debate a través del tema impuesto, dedicar tres o cuatro estrofas a un motivo o tema monográfico, etc., etc... Pero, primordialmente, la gracia del bersolaris-

mo está en esos pies forzados a los que tiene que ajustarse cuando el bersolari, segundos antes de componer, ignora el tema que le será impuesto y debe salir airoso de la prueba, encajando bien en el mismo, con elegantes decires, estrofas bien estructuradas y desarrollando bien el conjunto de la composición de las estrofas asignadas, profundizando en el argumento dentro de un orden armónico: exposición, desarrollo y conclusión del tema. Es aquí donde los bertsolaris de primera línea son verdaderos maestros, y las jóvenes promesas siguen atentamente hasta el menor detalle sus actuaciones, con el objeto de formarse para el día de mañana.

1979-XII-10.

## BERTSOLARI TXAPELKETAK

Txapelketak ekarri zuten jendartean bertsolaritzaren birbaliatzea, ahozko literatura hau herriaren aurrean indarberritzea eta munduaren aurrean berebiziko nortasuna ematea.

Gaur ordea, herria da txapelketa eske ari zaiguna. Urtean zehar egiten diren sariketak aski ez direnez, berriz ere hasi da Euskaltzaindia Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusia berbiztuz, aurretik eratzen diren txapelketa eta sariketen buru eta gailur izango dena antolatzen.

Txapelketak, berez, bertsogintza hobetzeko ahaleginera behartzen du bertsolaria. Nor gehiago aritze horrek edonor bertsolari arduraz jartzen bai du.

Baina, bestelako arrazoirik ere badu txapelketak: bertsolari berriak sortzeko bide egokia izatez gainera euskararen alderako eraginaren pizgarri iduritzen zaigu.

Bertsolari txapelketak milakak pertsonak mugitzen ditu bere inguruan. Entzuleak adi adi iharraitzen dituzte saioak. Ondoko egunetan ez ezik, ondoko urteetan ere aipagarriak izaten dira txapelketako saioetatik irtetzen diren zenbait bertso. Askorentzat inoiz ahaztu ezinak. Eta hainbeste hunkipen eta zirrararen artean motz gelditzen dira euskararik ez dakitenez. Honek ondorenez dakar gure hizkuntza ikasteko zioa.

Lehen bertsolari txapelketak 1935 eta 1936. urteetan ospatu ziren, Euskaltzaleak zeritzan elkarteak eraturik. Lehenengoan Basarri eta



bigarrenean Txirrita atera ziren txapeldun. Basarrik ideia berriak ekarri zituen bertsoaritzara, bertsoak heurak taxuz hornitzeaz aparte garaiko jendearen kezakako ziren problemak eta erak bizi agertuaz eta hizkuntza bera ahal zuenik txukunen erabiliaz.

Txapelketa haien muina *Bertsolari-guduak* deritzan liburu batean jaso zen eta orduko epai-mahaikoek erabili zuten aburua 27.orrrialdean jasotzen da. Kontuan eduki beharrezkotzat zituzten: «sorpena, irudipena, bertsoarako erreztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oïnen berdintasuna». Gaur ere hoiek hartzen dira lege. Gaur egungo epai-mahaikoek baliatzeko moduan ere aburu berdintsua jarraitzen da: a) Gaia. Gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu. b) Hizkuntza. Esateko moduaren edertasuna. c) Egitura. Saioaren sarrera, jarripena eta bukaera. d) Neurria eta puntuak. Neurria musikaren arabera. Puntuetan, potoez gainera, ia aberatsak, errazak edo pobreak direnari begiratuko zaio.


Lehenbizikoan, 1935ean, euskararen alde hiruna bertso eskatu ziren Otañoren «Limosnatxo bat» deritzanaren doinuuz. Otañoren doinuuz ez ezik, eraz ere berari jarraituz Basarrik etzuen parera irixten zitzaionik. Aipatutako liburuaren 12 eta 13 orrialdeetan jasotzen dira hiru bertsuok. Baita ere, bertso aipagarrien arteko gelditu da liburu beraren 9.orrrialdean datorren agurra.

Txirrita gizajoa 75 urtera hurbildua zen ordurako eta han entzuten zituen zenbait hitz-berrirentzat berak etzuen ordainik. Honegatik, txanda heldu zitzaionean irten zen bertso zelebre harekin:

*Larogei urte gaiñean ditut,  
nago anketako miñez,  
Donostiara etorria naiz  
erren aundia egiñez.  
Bi bastoïrekin txit larri nabil  
pausorik eman ezîñez  
Euskera ia aztu zait eta  
erderarikan jakin ez,  
maixu batekin eskolan laster  
asi bear det latiñez.*

Era berean, herriaren gogoangarri gelditu zen 1936. urtean gerraren kontra egin zuen bertsoa ere. Ikus aipatutako liburu horren 56. orrialdean.

Gerraondan ezin zen ezer seniorik egin euskararen alde. Hortarako eragozpen handiak bai ziren. Mugazandik zerbait egiten hasi ziren, baina hegoaldekoentzat eragozpen handiak jartzen ziren muga igarotzean.



OTEIZAREN IRUDIRITZA

*Jorge Oteizak bertsolarien txapelketarako buruturiko irudia.*

*Arrasate-Gernika 1979-XII-23 - 30  
Donostia 1980-I-6*

1946an, Eskualtzale Biltzarrak eraturik, Donibane Lohitzunen eta Hazparnen egin ziren sariketak. 1950ean Donibane Garazin, Eusko-Ikaskuntzak eratua, eta 1957an Paris-en, Eskualtzale Biltzarraren babespean euskararen eguna ospatzeko. Hiruretan Basarri izan zen irabazle eta G. Hernandorena saioen bultzatzaile eta eratzzaile. Paris-koak, mugaz gainetik ere hots handia izan zuen eta harek zerbait bigundu zuen hemengo giroa.

1958 eta 1959an egin ziren Bizkaiko lehen txapelketak Euskaltzaindiaren babespean, A. Irigoyenek eraturik. 1959ko azaroan egin zen Guipuzkoan eta inguru berean hasita urrengo urtearen zehar Nafarroan ere. Horrekin Euskal Herri guziko txapelketa prest jarri zen eta 1960. urteko abenduaren 18an ospatu zen Donostiako «Victoria Eugenia» teatroan.

Geroztik 1962, 1965 eta 1967an ospatu ziren Euskaltzaindiak eraturitako Txapelketa Nagusiak, alde zuzenetik herrialdeka kanporaketak eginaz. 1960 eta 1962an Basarri atera zen txapeldun, 1965 eta 1967an Uztapide. Txapelketa hoiek ere liburuetan jaso ziren, Itxaropenako Kulliska Sortan lehena eta Auspoak argitaraturik beste hirurak.

Basarrik ikuspegi berri bat eman zion bertsolaritzari: saloietan era egokiz tokia egitera bultzatu zuen, hizkuntza eta bertso agitura hobeto zaintzea erakutsi zuen eta kultur mailaz gora eroan zuen ahozko literatura hau. Berak zionez, bertsolariak hitz gutxitan asko esaten jakin behar zuen.

Zazpi urteren buruan perretxikoak bezala sortu ziren bertsolari berriak. Sorpresa ederrik era bai gutien espero zen lekutik.

Gaur ordea, bertsolaritzak zuzpertzte berri bat behar du, era berean euskararen lagungarri denez.

### Los concursos de bersolaris

Una de las mayores atracciones del público euskaldún, son los campeonatos de bersolaris. Además de que estas competiciones obligan al bersolari a perfeccionarse cada vez más en el arte de la poesía improvisada, es conveniente transmitir a las nuevas generaciones esta actividad tan propia y querida del pueblo.

De aquellos campeonatos que los seguidores recuerdan con nostalgia, surgieron las máximas figuras del momento actual, y es justo corresponder a ese público al mismo tiempo que se consiguen nuevos aficionados. Por estos motivos y para fomentar el interés por la propia lengua, la comisión de bersolaris que funciona dentro de la sección tu-

telar remodelada de Euskaltzaindia, inició hace más de un año la tarea de promover ese campeonato que ahora se viene celebrando, cuyo final, tras las eliminatorias del presente mes de Diciembre en Mondragón y Guernica, tendrá lugar en San Sebastián el próximo día 6 de Enero, en el Frontón Balda.

Históricamente los bersolaris han tenido la costumbre de actuar en sidrerías y plazas públicas en desafíos y concursos. Los concursos a la manera de hoy comenzaron en 1935. Tras la contienda civil sufrieron una paralización, reanudándose en 1946 allende la frontera, en el país vasco continental, y aquel premio que se celebró en París en 1957, cuya resonancia fue de ámbito internacional, dio paso a los de Vizcaya y Guipúzcoa, en 1958 y 1959 respectivamente, y que culminó con la final del país vasco en aquel memorable 18 de diciembre de 1960, y los subsiguientes de 1962, 1965 y 1967, que en gran medida contribuyeron al despertar de la conciencia hacia la genuina lengua de los vascos.

La comisión organizadora del Concurso de Bersolaris de la Real Academia de la Lengua Vasca reunida en Mondragón en vísperas del Campeonato, acordó los siguientes criterios de valoración que deberá seguir el jurado:

- a) *Tema.* Precisión, profundización y riqueza aportativa.
- b) *Lenguaje.* Expresividad poética.
- c) *Estructura.* Introducción, desarrollo y síntesis final en la composición.
- d) *Métrica y consonancia.* La métrica deberá ajustarse a la música elegida o impuesta. En las consonancias se tendrá en cuenta, además de no repetir la misma, si éstas son ricas, fáciles o pobres.

1979-XII-31.

## AMURIZA TXAPELDUN

Donostiako Karmelo Balda frontoiak egundoko betealdia ezagutu zuen erregen egunean. Goiz eta arratsalde aritu ziren Arrasate eta Gernikako saioaldietatik puntuazioz aurrera pasatu ziren zortzi bertsolariak: Amuriza, Azpillaga eta J. Enbeita bizkaitarrak, Etxeberria, Garmendia, Gorrotategui eta Larrañaga gipuzkoarrak eta Xanpun lapurtarra.

Hauetatik, azken saio bat egitera bi atera behar ziren eta puntuazio arabera Amuriza eta Enbeita hautatu ziren eta amaieran Xabier Amuriza gelditu zen txapelkun.

Jaialdi ederra benetan. Bost ordu iraun zuen: goizetik bi eta arratsaldez hiru. Bertsolariak nekatzekoa zen, ez ordea jendea aspertzekoa. Hango txalo beroak eta hango zenbait bertsoren bukaerak errepikatzeak erakutsi zuen herriak zelako gogo eta berotasunez jarraitzen dituen bertsolari txapelketak.

Kosta zitzaigun txapelketa hau antolatzea, baina nekeak ez dira izan alperrikakoak; ez. Baziren lehengo txapelketa haien garaia pasatu zela esaten zutenek; baita, aurrerantzean hortik guti espero zitekeela uste zutenek ere. Baina aurtengo txapelketaren finalak aurretikoeri ez dio zorrik. Jaialdia bera ongi eratu egotetik aparte, bertsolariak heurak hartu zuten goreneko mailagatik baizik.

Euskara bizia indartsu azalduko bada, beharrezkoa zaigu bertsolaritza bultzatzea, euskararen eraginerako zio bat denez. Ez gainera nolana hiko zioa.

Euskaltzaindiak, kulturgintzarako, beharrezkoa ikusten du euskara idatziaren batasuna. Izan ere, elkargo hau sortzeko arrazoiatariko bat izan zen euskararen batasunaz arduratzea. Euskaltzaindia sortzeko aurre proiektuak hori zion, eta 1920tik erakunde honek duen arautegiak berak ere hori eskatzen du. Baina, bestalde, kasu egin behar dio herriaren euskara biziari, hau delako bestearen muina eta hizkuntzak, esanak esan, mintzaira bizia izaten jarraitu behar duelako. Askok besterik pentsatu izan badu ere eta batzuk gauzak alderantziz adierazten ahalegindu, euskara mintzatua indartu beharra nahitaezkoa zaio Euskaltzaindiari eta uste okerrak uxatzeko egin zuen «Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak» deritzan agerpen hura (*Euskera*, XXIV, 1979, 101-110 orr.). Hori horrela izan ez balitz, 1958tik 1967ra arteko bertsolari txapelketa haiek ez zituen antolatuko.

Bestalde, bertsolaritza, gure herri literaturak duen jenerorik bitxi eta baliozkoena dugu. Bat-bateko bertso neurtuak egiteko ahalmen hori ez baita ezagutzen beste hizkuntzetan. Eta bertsolaritzak hizkuntza bera bizkortzen du.

1978an hasi zen Euskaltzaindiko bertsolaritza batzordea txapelketa berria antolatu nahirik, eta makiña bat jira buelta kosta da. Aurrera eramango bazen, Jose Mari Iriondok buruko minik aski eraman du, Antxon Aranbururekin batean lanik gehien egin duena denez.

Lehengo txapelketak gelditzearen arrazoiak era askotakoak ziren; zentzurak eta politika egoerak sortzen zituen eragozpenez gainera, zenbait bertsolarik ez zuten onartzen. Hauen arrazoiak ere era askotakoak

ziren. Bertsolariak oso larri jartzen dira txapelketetan, estualdi handiak izaten dituzte eta, gainera, ontxuenetako asko ezta irixten bere mailara. Honegatik, ezta harritzekoa bertsolari askok txapelketarik nahi ez izatea.

Hala ere, herriak txapelketa eskatzen du. Ikusi besterik ez dago azken aldi hontan ezagutu diren sari, omenaldi eta gainerakoak ez dutela izan aurreko igandeko txapelketak izan duen arrakastarik.

Txapelketak bertsolari berriak sortzea dakar. Gainera, bertsogintza bera hobetzera behartzen du bertsolaria. Hau ondo ikusi zen Arrasatetik Donostiara Gernika zehar egin diren saioetan. Hasieratik bukaerara nabarmen joan ziren bertsolaririk gehienak goraka. Bertsolari bakoitzak berekiko zenbat gogoeta saio ez ote zituen egin txapelketaren bukaerarako gertakizunetan? Eta, ahaleginok, hobekuntzarako behar beharrezkoak ditu.

Maiz hitz egin da bertsolaritza eraberritzearen premiaz, baina historiak erakusten digunez, eraberritzeak fenomenuegandik datoz eta hauek ahaleginetara behartzea ezta gauza txarra. Eskola zaharrear, Xenpelarren erak Txirritagan ziren eta Uztapide hoien hurbiletik; Otañoren eskolari Basarrik jarraitu zion. Hala ere, bertsolari bakoitzak bere berezitasunak gordetzen ditu, bere izatetik sortuak.

Xalbadorek ordea, poesia hunkigarrizko estilo berri bat ekarri zigan, eta, Amurizak haren joerazko zerbait badu ere, beste gauza bat da. Behar bada aldi berri baten aurrez-aurre gaude. Amurizak zerbait berria dakar, bai poesiaz eta hauek emateko doinuz. «Gizona ezta ogiz bakarrik bizi» gaia eman zitzaionean, guzien artetik nabarmen zutitu zuen bere emaitza. Aurrera irten ziren azken bientzat «Aita» gaia jartzeaz argiago ikusi zen Xabier Amurizaren gorakada Bientzat zen gai oso berezia, bien aitak hain bereziak zirenezker, baina Amurizaren bertsoak hor geldituko dira bertsolaritzaren historiako antologietarako. Bat-batekoetan holakorik berriz nekez entzungo dugu.

Egun gogoangarri hortan, merezimendu guziekin altxatu zen Xabier Amuriza txapeldun.

### **Amuriza campeón**

El pasado día 6 de enero, con el Frontón Carmelo Balda repleto de público, se celebró la final del campeonato de bersolaris, con la participación de los ocho seleccionados tras las actuaciones de Mondragón y Guernica los días 23 y 30 de diciembre: Amuriza, Azpillaga y

J. Enbeita de Vizcaya, Echeverría, Garmendia, Gorrochategui y Larrañaga de Guipúzcoa y Champún de Labourd.

Fue un día memorable para la historia del bersolarismo, que en jornadas de mañana y tarde vino a durar cinco horas de debate. Los bersolaris vinieron muy bien preparados, entregándose al máximo para disputar la «chapela» del campeón y las intervenciones fueron muy reñidas, pues todos ellos se mantuvieron a niveles muy elevados.

La Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia que vela por toda clase de manifestaciones de la lengua vasca, sea oral o escrita, aunque su principal labor reside en la investigación y normativa, no olvida la tutela de la lengua viva, en esta ocasión mostró una vez más sus dotes de organización para la promoción de este género de la literatura popular, fenómeno único en todo el mundo.

Para que una competición de este tipo sea un festival de gran atracción y salga con éxito, lleva consigo enormes dificultades de montaje y temario, porque ha de ser aceptable por los propios bersolaris al mismo tiempo de preveer que resulte agradable al público asistente. El campeonato es dificultoso, tanto para el jurado como para los bersolaris, y estos últimos llevan la peor parte por lo que les toca sufrir en una constante tensión nerviosa. Creemos que la organización de Euskaltzaindia salió con gran éxito de esta jornada.

Como hemos dicho, la competición fue muy reñida. Hubo que practicar el sistema del encierro de los bersolaris, llamado «la cárcel», que consiste en ponerles en local aparte, donde no puedan oír, y sacarles uno a uno para someterles a una prueba sobre el mismo tema. Amuriza se despuntó, sobre todo en el tema «No sólo de pan vive el hombre». Pasaron a disputar la final los vizcaínos Javier Amuriza y Jon Enbeita. Utilizando el mismo procedimiento de encierro y teniendo por tema principal «Padre». El primero compuso una poesía antológica, aportando a la vez una nueva melodía, que le situó en indiscutible campeón. En esta última tanda también se les exigió cantar una estrofa de nueve consonancias en tema libre, por ser la más difícil en metro y rima; prueba por la que los dos finalistas supieron salir airoosamente.

1980-I-14.

## EUSKARAREN ARAZOA AUTONOMIAREN BABESPEAN

Aldez aurretik esan dezadan euskararen arazoaz itxoropentsu aurkitzen naizela Gernikako Estatutoaren aurrez aurre, astekari hontan maiatzaren 28 eta uztailaren 16ko artikuluetan aski argi agertu nuen bezala. Are gehiago, bigarrengoan, euskararen arazoetarako Euskaltzaindiaz hartu zuten erabakiaz bat ez banentorren ere, Autonomiaren babesean euskarak etorkizunik bazuela aitortzen nuen.

Kazetari munduan berri harrigarrien bila ibiltzen diren hoiak, gauza harrigarriak egiten digute. Teresa Doueil kazetariari Euskaltzaindiaz eman nizkion berri batzuetatik edo, nik esan ez ditudan gauzak agertu ditu Efe agentziak, bestela irakur Teresak abuztuaren lehenengoan El Correo Español-en idatzia. Ajentziak, abuztuaren 2an zabaldu bai du hogetalau euskaltzainek protesta egin dutela. Zoritxarrez, 24 euskaltzainik inoiz ezta bildu; eta, zorionez, erabakiak nagusitasunez hartzen dira hortarako kopurua betetzen baldin bada. Holakoetan, erakundea bere arautegiari lotzen bai da.

Estatutoaren projektuko seigarren artikuluan aldakuntza batzuk egin dira. Hoietatik bat, luzarora begira, kaltegarria izan daitake. Projektuan, oraingo diglosiaz bukatzea eskatzen zen, euskara erdararen morroitzapetik irtetzeko. Legeztapen horrek euskarari hobeto lagunduko zion, baina orain, euskaldunon indarren ahalmenaren arabera gelditzen dela iduritzen zaigu. Dena dela, hezkuntzako lege berriak ongi probatuko gaitu. Hau ongi betetzeko gauza bagara, gure hizkuntzaren arazoa bide onetik joango da. Honegatik, aldakuntza hau gora behera ere, Gernikako Estatutoa txalotzen dugu.

Beste aldakuntza, hizkuntzaren arazoetan Euskaltzaindia galdetzea, baina beste erakunde batzuri ere bai. Hala dirudi, «la» bat gora beheragatik.

Politikoak politiko, han eta hemen. Baina holako erabakietarako kontseilariak behar lituzkete. Entzutea dugunez, «diglosia» hitza kendu beharrez aurkitu omen dira, Real Academia Española-ko hiztegian ez datorrelako. Egia esan, nik ez dut sinesten holakorik, zeren hauziren bat baletor, hiztegian ez egonarren, agiriz egiztatu ezinik ez dute guk haina efikazia baldin badute jestic kontuetarako, eta Espainiako hizkuntz elkargo nagusiak horrenbeste izango du, bere barne idazleak ez ezik hizkuntzalariak ere badituenez.

Hitz batek holako eragozpenak sortzen baldin baditu, norengana joango dira gure autonomizko gobernuaren galdeak?

Adibide ederra dugu buru haina aburukin ez gaitzean ibili. Hone-





*Bizkaiko auzo ikastolak. Gertakariak lekuko.*

gatik, argi dago erakunde bakar batek erabaki behar dituela holako arazoak.

Parlamentari batzuk jakin dezateke gure kultur erakundeen berri; guziak ez ordea. Mikel Unzuetak J. L. Torres Murillo kazetariari esan zizkionetatik ohartzen garanez (ikus uztailaren 12ko El Correo Español, eta har dezagun lekuko). Bestela, Historiako eskubideez baliatzen direnek, nola daiteke hizkuntzarekikoan Euskaltzaindia zalantzan jartzea?

Lizarrako Estatutoa Eusko-Ikaskuntzak idatzi zuen, eta euskara kontuko arazo hoiek erabakitzea Euskaltzaindiaren gain utzi zuen, bigarren kapituluko seigarren partean argi jarri zuenez. Honegatik, kasu hontan, Euskaltzaindiak du, inork izatekotan, historiako eskubidea. Gainera, Eusko-Ikaskuntzako bigarren agerpenean, 1919ko bigarren hiruilabeterekoaren 12. orrialdean, garbi jarri zen Euskaltzaindiaren egitekoa.

Euskaltzain guziak ez datozela bat? Horixe bakarrik behar genuen Non datoz guziak bat? Ez inongo elkarte eta ez inongo parlamentu. Baina horretarako ditu elkarte bakoitzak bere arautegiak eta, gainerakoan, parlamentariak heurak ere bete beharrezko legeak. Ez ote? Alderdi guzietan denak ote datoz bat? Beraz, bakoitzak bere barneko problema bere barnetik konpondu dezala.

Badakigu Gernikako Estatutoaren alde borrokan aritu diren parlamentarien lana oso gogorra izan dela eta gure herriak ez dituela eskertuko merezi duten haina. Bene benetan zoriontzeko lana. Urteak joanaz geroago eta gehigo konturatuko garala, uste dut, Estatuto horren ondorenez gure herriak hartu duen askatasun bidez. Eta, Estatuto honegatik, esan dudana gora behera, euskara berak du irabazpenik gehien.

Beste azalpen oker bat, Euskadiko Ezkerreko parlamentariak Euskaltzaindiaren alde irten zuelako, alderdi hontako jendearen nahia zela esatean datza. Euskaltzainok dakigunez, gure erakundeak ez baita E.E.-ko euskaltzainik. Bestalde, hizkuntzaren norma kontuak Euskaltzaindiaren iker sailari dagozkionak dira, eta sail honen buru M. Unzueta bera bazkide den alderdi bereko Koldo Mitxelena dugu.

Guztiok dugu egunero zerbait ikasi beharra. Eta, ikasiak ikasi, guzia jakiterik ez dago. Honegatik, erabaki zehatzak hartzeko orduan on da kontseilari jakitunez hornitzea, Mikelek har zezakean Koldo. Bide ziu-rretik joango ginen eta baketsuago ibiliko.

Hala ere, aitor dezadan, txikikeria hau gora behera gauza handi bat lortu digutela gure parlamenariak: Gernikako Estatutoa. Herri bat itxaropenezko etorkizunera abiatzeko.

Gure bertsolariak ohi duten bezala: Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu.

## La problemática del euskara al amparo de la autonomía

La pasada semana, la agencia Efe ha difundido una nota mal recogida de unas declaraciones mías a un periodista que nada tiene que ver con dicha agencia. Tampoco el asunto tenía la importancia que ha querido dar la misma. El presente artículo sirva a modo aclaratorio sobre el tema.

En «El Correo Español» del día 12 de julio aparecían unas declaraciones de Mikel Unzueta en las que argumentaba las modificaciones del artículo sexto del Estatuto de Guernica, no muy bien fundadas, además de dejar en evidencia a Euskaltzaindia. Y con todos mis respetos para el Sr. Unzueta en el terreno político, he de manifestar que no está informado en el funcionamiento y competencias de nuestros organismos culturales.

Si algún partido político tiene problemas respecto a la lengua, es asunto suyo, y harían bien en no mezclar a la Academia cuya única misión es la regulación de la lengua en normativa, investigación y tutela. ¿Que todos los académicos no están de acuerdo? Como en todo organismo, como entre los parlamentarios y en los propios partidos democráticos, también en la Academia se toman las decisiones por mayoría. Como otra entidad a consultar en materia de lengua cita a la Sociedad de Estudios Vascos, ignorando por lo visto, incomprensiblemente para un político, que la propia Sociedad de Estudios Vascos que confeccionó el primer Estatuto Vasco, aprobado en la magna Asamblea de Municipios vascos en Estella, el año 1931, en el Capítulo Segundo, sexta parte, depositó la parte consultiva en materia lingüística, única y exclusivamente en manos de Euskaltzaindia. Pero ya antes, al constituir la Academia de la Lengua Vasca, la Sociedad de Estudios Vascos - Eusko-Ikaskuntza, dejó bien claras las competencias (ved el Boletín n.º 2, segundo trimestre de 1919, página 12), a Euskaltzaindia corresponden: «trabajos de carácter práctico se enderezarán desde luego (y a tenor de las conclusiones unánimemente aceptadas en la respectiva Sección del Congreso oñatiense) a establecer la unificación léxica, fonética y gráfica del idioma, como base necesaria para la creación de una pujante literatura, y como preliminar indispensable también de la ulterior y definitiva unificación del dialecto literario, aspiración de los vascos todos».

Comprendemos las constantes tensiones que han vivido nuestros políticos para conseguir que salga triunfante el Estatuto de Guernica, cuyo alcance histórico, cara al futuro de nuestro país, ha de aportar incalculables beneficios, sobre todo en lengua y cultura.

Si es verdad que el término «diglósica» ha suscitado problemas para una clara interpretación (término que era fundamental para poner los medios necesarios para la superación de la actual situación diglósica para el porvenir del euskara), razón de más para que la competencia en materia consultiva oficial recaiga en un solo organismo, tal como figuraba en el propio proyecto de Estatuto de Guernica, de la misma manera que se hizo en el de Estella. Sobre todo, es indispensable en materia jurídica. Y, a estas alturas, deberían saber que las decisiones en materia de normativa, en la propia Academia, se encomiendan a la sección de investigación, cuyo director milita en el partido político a que pertenece el señor Unzueta.

Está claro que de la misma manera que se ha exigido el Estatuto por derecho histórico, a Euskaltzaindia corresponde el lingüístico, por la misma razón. Que para la eficacia de gestión es preciso conocimiento. De lo contrario no puede haber gestión eficaz.

Este hecho ha supuesto mera anécdota a la hora de conseguir el Estatuto. Esperamos será reconsiderado para un arreglo en su decisión final. El día de hoy, nuestra gran esperanza está depositada en el Estatuto de Guernica, que puede ser la solución política, cultural y económica del pueblo vasco.

1979-VIII-6.

## EUSKARA ZUZPERTZEZ

Euskara zuzpertzeko ohiauak baino beharrezkoagoa dugu plangintza serio bat eta hau aurrera erodateko ekintza isila.

Plangintza batek buru hotza eskatzen du. Hontarako lehenbizikoz gure egoera sozio-linguistikoaren errealitatea ezagutu eta euskaltzaleon indarrak eta ahalmenak neurtu. Zama handia dugu guregan, bat batean dena eroan ezinezkoa eta zatika eroan beharrezkoa. Txinaurri lana agian.

Gure herrian, historian zehar, bi hizkuntza ezagutu ditugu, bata bezain bestea hedatuago: gure euskara jatorra eta aspalditik sartua zen erdara.

Gaur ordea, inolako laguntzarik gabe berezkitasunean utzirik eta inoiz bazterturik eta zapalduz gain-beheraka zetorren euskararen aldeko kontzientzia iratzartu zaio gure herriari. Kontzientziazte honek berakin dakar hizkuntzarekiko gizarte auzia. Maiz, iskanbilak ere bai,

arazo honi bere soluzioa eman nahirik, eta inoiz elkarren artean haserre eta muturka gabiltza. Baina hau ezta gizonen burubidea.

Oroi Benito Lertxundik Abel Muniategiren letraz kantatzen zue-narekin: «Zenbat gara? lau, bat, hiru, bost, zazpi?... Zer egiten dugu? elkar jo. Zer egingo dugu? elkar hil. Hori ez! Hori ez!» Euskal Herriaren biztanle laurdenetara ez gara heltzen euskaldunok eta, hauetatik, zenbat gara euskaltzale? Gure indarrak ondo neurtzeko kontuak atera beharra dugu, itsumustuka ibili gabe.

Mendeak zehar abandonaturik egon denarentzako soluzioak ez dira gauetik goizera ematekoak. Euskarak presa du, baina bizkorrago ibili nahiagatik beti ez gara urrutiago joaten. Aldez aurretik, nora ta nola joan beharra aztertu beharra dugu.

Gure herrian euskara zuzpertzuko badugu, elebitasun egoki baten oreka lortuko badugu, plangintza serio baten beharrean gaude.

Hau ezta gaur goizeko kontua. Lehen Eusko Kontseilu Nagusia osatu aurretik proposatu nuen 1978ko otsailean (ikus *Eusker*a, XXIII, 295-298 orrialdeetan). Hura idatzi nuenean ez nuen uste Kultur Kontseilaritzan partaide izan behar nintzenik. Eta, hontara heltzea, izan nuen kargua onartzeko nere baldintza bakarra, euskarekiko politika-linguistika sail bat onartzea izan zen jarri nuen kondizio bakarra. Eta hau zertan zen argi utzi nuen ekintzen oinarriak mugatzean. Besteak beste, *Zeruko Argia* batean argi ta garbi agertu nuen euskara zuzpertzeko lana nondik nora eraman behar zen (ikus, *Zeruko Argia*, 793 zeb., 1978ko uztailearen 16koa, bere 28-30 orrialdeetan). Han sartu eta gauzak poliki etorriko zirela ohartu nintzen bezain azkar, urte bereko ekainaren azkenaldera, plangintza orokor baten eskea proposatzen nuen, eta ahal zen denbora irabazteko Euskaltzaindiaren jagon sailetik zerbaitek aurreratzea (ikus *Eusker*a, XXIII, 299-301) Gure politikoez ez bai zuten euskararen alderako gogo gehiegirik agertzen. Eta horren ondorioa izan zen 1979ko abuztuan Foru aurkeztu nuena, jagon sailaren zenbait ekintza berjabeturik ente publiko bihurtzeaz.

Izan ere, trasferentziarik ezagatik eta karguan aski denboran iraun ezinagatik, asmoak bidean gelditu ziren.

Esan beharrik ez dago, hizkuntzaren politika ez zela eta ez dela kultur ekintza bakarra. Hori, nere idea bat besterik ez zen, kontseilaritza baten barnean, eta ondokoak gogoz hartu badute eskergarria da.

Gure nortasunezko ekintzak instituzionalizatetik begiratu behar dugu gure herriaren etorkizuna. Adibidez, Hezkuntza Kontseilaritzak bere aldetik lortu duen elebitasunezko dekretua, euskararen alde historian inoiz lortu ez dena da. Eta, hori da bidea.

Baina, baita ere, esan behar dut, gure autonomiaren gobernaritzan

ezinezkoa dela Kontseilaritza bakoitza bere aldetik ibiltzea: aldi bakoitzekoari dagokion araberan utzirik. Euskararen arazoa askok uste baino serioagoa delako. Aurrera begira, euskararen arazoari soluziorik eman gabe, ez bai dugu bake biderik.

Honegatik, euskarak, bere departamendu edo Kontseilaritza propioa eskatzen du, ikuspegi zabal batez plangintza orokor batean kasu bakoitzeko prolema konkretu erantzungo diona: Hezkuntza, herri administralgoa, komunikabideak eta abar, bakoitzak bere tokia izan dezan eta bakoitzari bere helburu propioa markatuz; bihotzez baina buru hotzez.

### **Sobre la recuperación del euskara**

Trabajar por la recuperación del euskara es una árdua tarea que solamente se puede proyectar desde un poder ejecutivo, con una serie de planificaciones que encaucen la cuestión con programas bien concebidos para lograr soluciones idóneas.

En este sentido se deberían adoptar las medidas necesarias para el logro de un bilingüismo real, que únicamente se puede alcanzar a través de un avance gradual bajo una seria planificación y desarrollo. Evitando discrepancias y manipulaciones partidistas. Los que hablan de obligatoriedades, antes debieran aplicarlas dentro de sus respectivos grupos ideológicos. Sería una experiencia válida.

La exigencia de planes y plazos para los mismos y su puesta en marcha a distintos niveles y zonas, es una medida urgente para hacer viable la solución a esta cuestión.

Para ello, en primer lugar, hemos de ser consecuentes ante la realidad presente y no olvidar que para cualquier planificación tendríamos que partir tomando como base el único estudio existente, como viene a ser el *Estudio Socio-lingüístico del Euskara*, preparado por Siadeco bajo el encargo y la cooperación orientativa de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia. Un resumen de dicho estudio viene a ser la obra *Conflicto lingüístico de Euskadi*.

No olvidemos que la lengua es patrimonio de un pueblo, y en nuestra situación es urgente el abordar el tema con toda seriedad.

A este fin, el ente autonómico debería contar con un departamento o consejería de política-lingüística, dedicado exclusivamente al tema. La importancia del asunto lo requiere.

1980-III-3.

## BERRIZ ERE UNAMUNO

Bilbon, liburu azokaren inguruan, irailaren 26tik urriaren 5era bitartean eratu zen aste kulturaleko gaietako bat «Unamuno eta euskara»ri buruzko mahaiurreko bat izan zen. Harrigarria badirudi ere, alperrik urteak igaro, zenbait ideia lehengo toki berean kokaturik aurkitzen dira, hainbeste urtean zubipetik urik igaro ezbalitz bezala. Sineskaitz zait asko ta asko oraindik ere Unamunoren aburuz nola baliatzen diren euskara deusezteko, edo abertzale eta euskaltzaleak, arrazoi beragatik Unamunogantik sortu ziren pentsamendu guziak ukatzeko. Dena dela, aspaldi gabiltza gogoetarako ahalmenak galdurik eta behar bada hemen aurkitu beharko dugu auzi honen arrazoiak. Bestalde, argi dago, oso ohituak gaudela zerbaiti edo zenbaiti alde edo kontra egiteko gerturik aurkitzen garela, bere ideiaz inoiz ezer irakurri gabe, halako edo holako ideien joerak kondizionatzen gaituelako. Mahaiurreko hartan ere ikusi zen bezala.

Mahaiurreko hartan partaide izan nintzen. Zerbait esateko go-goak bultzatu ninduan partaidetza onartzera, eta aspaldiko ideiak oraindik orain ere bizi dabiltzalako bultzatu ziren antolatzaileak holako gaia jartzera.

Mahaikoan artetik, Martin Ugaldek agertu zuen duela hamalau urte zerk bultzatu zuen orain birargitaratua den *Unamuno y el vascuence* liburua idaztera. Zenbait ideia jakineko jendek, euskara gutiестeko «La cuestión del vascuence» (1901) ahominean erabiltzen zuelako, eta Euskal Herriko seme ospetsu bategandik zetorzkigun ideiak gure hizkuntza jatorrari egiten zion kalteaz jabeturik hartu omen zuen tesi hura egiteko asmoa. Gure hizkuntzaren alde erabili diren gehiegikeriak, defentzaren eraginezkoak zirela agertu zuen. Gainera, gehiegikeriok, lehenago, beste hizkuntzek ere, era batera edo bestera, erabiliak zituztela.

Nere aldetik, maiz zalatu dudan gauza ber-bera agertu nuen. Ez nahasteko Unamuno filosofoa eta filologoa, Unamunok mundu osoan irabazita duen ospea, izan ere, pentsatzaile zen aldetik irabazia zuen. Bere saiok haintzat hartzen ditut, batez ere *Del sentimiento trágico de la vida* eta *La agonía del Cristianismo*. Baina horiegatik bere ospea eta nortasun itzala zuen gizona, gainerako guzian ere zekiena zela ustea izatea, astakeria da. Nere *Euskararen inguruan* eta *Gogoz-en* adierazi nuen bezala, bi gauza dira Unamuno filosofoa eta Unamuno erdalzalea. Honegatik, filosofian errespetagarri iduritzen zaidan hura ez dut maite euskararekin sartzen denean.

Jon Juaristik ordean, Unamunoren lana zernahitarako hain ugaria izanik ere, bertatik bere argudioa hartu beharrez, Martin Ugalden li-

burua kritikatzan hasi zen. Garaiko politika eta arrazazetasuna nahastuz. Bilboko garai hartako giroa bide, Unamunoren euskaraganako gorrotoa justifikatu nahi izan zuen.

Dena dela, sua piztu zen hortik eta eztabaida biziak izan ziren, mahaikoek gure artean eta publikoak bere artean eta mahaikoekin. Askoren uste zintzoak eta beste askoren uste sutsoak, denak nahastu ziren han.

Alde batetik euskaltzale eta bestetik Unamuno-zale den honi bere lana tokatu zitzaion hango sua itzaltzen, Unamunoren egiazko balioak non zeuden eta bere hutsunerik handienak non. Gainera, zein batean eta zein bestean, kontradizioz beterik aurkituko dugula aditzera eman.

Kierkegaard-en lanak hobeto ezagutzeko danez hizkuntzea ikasteari eman zion gizona, zelan zitekean euskararen kontra jartzea. Euskara ezin zela kultur gaitara eraman, gaurko kultur berrirako erderetatik hitzak hartu beharra zuelako? Euskarak ezin zituela bestean hitzak hartu, «jerga» bihurtuko ez bazen? Garai hartan ere nola pentsa zezakean holakorik G. Humboldt gaztelarrera itzultzen ibili zenak? Zeren, Humboldt-en eritziz, gure hizkuntzak bere hitz guziak galduko balitu ere, baina bere morfologia jatorra gorde, hala ere Europako hizkuntzarik zaharrena izaten jarraituko zuen ustekoa bai zen.

Katedratzarako konkurso hura galdu zuen Unamunok, baina egia esan, konkurso hura baino lehenagotik zeraman euskararen kontrako ar hori. Behar bezala benderatu ezin zuelako ote? Ez dakit ziur, baina azterketa sakon bat merezi luke, ia zertatikakoa zuen euskaraganako gorroto hori.

Eboluzioaren ideiak fresko zituen. Hizkuntzak ere beren bizia zutela eta sortu, hasi eta hil egiten zirela. Berezko lege bat balitz bezala. Eta, berezkotasun horren alde irtetzen da. Baina ber-berak, «The english-speaking folk» (*Ob. comp.*, VI, 729) lanean penaz aitortzen du inglesaren aurrerakuntza eta gaztelararen beharpena.

«Mi raza» idatzi zuen Unamunok, maite zuen Euskal Herria, bereziki Bilbo; baina ez euskararik. Bere ikus-molde guziak Bilbotik begiraturik ziren, baina ez behar bada Euskal Herri guzia kontuan harturik, eta hor zegoen bere hutsa. Gaztelarazko klasikoekin zaleturik zegoen, eta honen alde, hizkuntzak herri bati ematen dion dohainez esaldi ederrak agertu zituen. Edozein hizkuntzari jarri ahal izatekoak, noski, eta arrazoi berberagatik gara gu euskaltzale. Gainera, beste huts bat, zera da, batak bestea ukatzen duela uste izatea. Euskaldunok hizkuntza zabalagoaren premian gaude, baina ez euskara uztean.

Esanak esan, berriz ere esan dezadan, Unamunorenik ezer irakurri gabe bere kontra daudenek, irakur dezatela zer defenditzen duten jakin



dezaten. Baina, bestalde, Unamunoren zati bat besterik irakurtzen ez dutenek, baita ere irakur dezatela beste zatia, mundu guzian ospea harzera eramán zuena, esistentzialismoaren filosofiaz aritu zena. Hor du bere nortasuna.

## De nuevo Unamuno

En Bilbao, con motivo de la XI Feria Nacional del Libro, se organizó una semana cultural con un extenso programa de conferencias y mesas redondas. Una de estas en torno a Unamuno y el vascuence, donde me tocó intervenir.

Es increíble que aún perdure la polémica surgida por su tesis «La cuestión del vascuence»; pero es así. Tiene el apoyo del prestigio del pensador de la filosofía existencial y su peso tendremos que aguantar para rato. La cosa no es tan sencilla como algunos opinan, que todo arranca desde que perdió un concurso para ocupar una cátedra. Una manera muy simple de ver las cosas. Ese hecho más o menos anecdótico tiene poco que ver con su postura, que ya la había manifestado en fecha anterior. El eterno paradójico hasta en cuestión de lengua se contradecía. Era un enamorado de la literatura clásica del castellano, cosa muy loable. Cuando trataba de manifestar la importancia de una lengua para un pueblo, lo hacía situándose en el castellano, sin advertir que lo mismo podían servir en defensa de cualquier otra lengua, como hice ver en mi *Euskeraren inguruan* y *Gogoz*.

El hombre que se puso a aprender el danés para comprender mejor a Kierkegaard, el hombre que admira la evolución de las grandes lenguas, el hombre que se apena del retroceso del castellano en México, el hombre que considera esencial un idioma para el espíritu y libertad de un pueblo, el hombre que ama a Bilbao y no ve Euskal Herria, el hombre que pondera su raza y menosprecia la lengua de su pueblo, el hombre que cuando decía ser socialista no reconocía la lengua de los labradores, de los pescadores y de los obreros (aunque en este último caso no fueran más que de los pequeños núcleos urbanos del país vasco),...

Su pensamiento filosófico era un constante discurrir en la búsqueda de la verdad absoluta, y en este caso es muy comprensible que frecuentemente fuera paradójico. Pero en el caso del vascuence, su idea en contra, era fija, y su falta de memoria a la hora de valorar lo que representaban las lenguas para un pueblo, algo incomprensible, o una imperdonable falta de memoria.

En los debates abiertos al público, de aquella mesa redonda, se esgrimieron argumentos de todo tipo. Para unos, había un rechazo a Unamuno en el país, por su ¿ateísmo?; para otros por ser liberal. Pero en este punto —ni tampoco en otros— muchos no están de acuerdo porque bilbaíno es sinónimo de liberal desde aquellos tiempos. Yo creo que sería en aquellos tiempos, porque hoy ser liberal de aquellos es tanto como afirmarse reaccionario.

Llevando las polémicas por esos derroteros, las contradicciones del propio Unamuno quedan muy chiquitas. Y aunque no estemos de acuerdo con Unamuno en lo que respecta al vascuence, donde ni siquiera le consideramos autoridad en la materia, por otra parte, el Unamuno pensador, con todas sus paradojas, nos merece un gran respeto.

1980-X-13.

## EUSKARA AUZITEGIAN

Euskaltzaleon artean ikaragarritzko zalaparta sortu zuen hil honen 14an Euskal Herrian Euskaraz erakundeko sei nafar gazte Iruñeko auzitegian deklarazioak euskaraz egin nahi zituztelako epaituak izango zirela jakiteaz. Azken orduan, zigor arautegiaren kodigoan hortarako betarik ez zuelako erretiratua izan zen. Ba, eskerrak horri, bestela euskara bera auzitegira eramatea bezalakoa zen eta demokratizaziora goazen garai honetan lotsagarri ez ezik injustizia handia gertatuko zen, zer eta «Lingua Navarrorum» epaitu ONU-k 1948an agertu zuen Giza-zuzenbidearen ondorean.

Egia esan, transizio garaiko krisi handi batean gaude eta gure gizartean ez daude animoak hain bare. Honen ondorioa izan dela iduritzen zaigu, txarragorik pentsatzea nahi ez dugunok. Dena dela, deklaraziozko epai bat bederen izan zen eta euskaraz gainera. Egunkariak, juzgaldian deklarazioak euskaraz egiteaz, inoiz gerta ez den arazoa bezala agertu dute, baina Nafarroan hain zuzen, euskaraz epaitzea ezta gauza berria. Epaia alde txarretik eraman bazen, orduan, ez sei gazteak, baizik euskara bera hizkuntza bezala epaitzea izango zen eta hau bai zela Nafarroako historian egundo gertatu ez zena. Jakina, diktadura denboran gertatu da holakorik, gizona zuzentasunaren eskubiderik tipienaren jabe ez zenez.

Gizonen oroitzapenean inoiz ahaztu ez dadin, ongi deritzat Nafarroako historian bertako auzitegietan euskarak izan duen begirapenez zenbait adierazpen azaltzea, zeren hauen berri jakin izan balute euskaldun gazte horien salatzaileek ez ziren ausartuko arazo hori auzitegira eramaten.

Nafarroa Gaztelako erregeen menpeko bihurtu ondorean, Iruñeko Kabildoak, 1530. urtean, Karlos Enperadoreari apezpiku euskalduna (edo euskaraz zekiena) jartzeko eskaria egin zion.

Bestalde, Nafarroaren seigarren merindatea, Nafarroa beheera, berezirik gelditu bazen ere, puntu horietan antzerako jokaerak hartzen zituen eta 1620. urtean, batzar ordezkariak Biarnokin bateraturik jartzea ez zuten ontzat hartzen, hizkuntza desberdinak zituztelako; eta Pabeko (Pau) Korteen denboran (1624-1789) Nafar Parlamenturako jarri ziren arauetan euskaraz zekiten juezak notarioak eta gainerako letraduak eskatzen ziren. Beraz, era hontako tratamendua izan zuen euskarak.

Artiedako auzi hura, 1561ean, itzultzailez baliaturik eraman zen. 1569an Burgiko sorginkeriazko auzi berean ere salaturik izan zirenak euskara hutsean egin zituzten beren deklarazioak. Hau, gauza oso normala zen Nafarroan. Norbaitek esango du oraingo gazte hauek gaztelaraz ere bazekitela, baina eritzi hau ezta aski. Bi hizkuntzaren jabe direnek eskubide osoa dute (giza legez behinikpehin) nahi duten hizkuntzaz baliatzeko, zeren ez baita guzientzat gauza berdina batean edo bestean egitea, bietariko batean argiago eta garbiako adierazteko posibilitatea baldin badugu. Hau da, hizkuntzaren jatortasunak, aberastasunak, ofizialtasunak eta gainerako-tasun guziak alde batera utziaz, behar bezala menderatzen ez duen edo ahalmen gutiago duen hizkuntzan epaitzea ezin ditzake zilegi izan ezta salatuak borondate hutsez hala nahi duelako beste gabe bada ere. Salatuak hizkuntza hautatzeko eskubide osoa bere izan behar du gizarte demokratiko normal batean. Guri hain demokratikoki iduritzen ez zaizkigun aintzinako haietan hori egiten bazen, orain zergatik ez?

Florenzio Idoatek Institución «Príncipe de Viana»-ko *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkariaren 20. zenbakian Burgiko sorginkeriaz eman zituen agiriez gainera beste lan asko argitaratu ditu auzitegietan euskaraz nola baliatzen ziren adierazten dutenak. Jose M.<sup>a</sup> Rekondok *Boletín de la R. S. V. de los Amigos del País* aldizkarian Xabiengo Franzisko Santuaren hizkuntzaz egin zuen lan batean (1961. urtean), era hortako agiri askoren berriak eman zituen, eta baita ere A. Irigarai adiskideak (Apat-Echebarne) *Una geografía diacrónica*

*del euskara en Navarra* (1974) liburuan eman zizkigun era hortako berriak.

Auzi kontuan, oroitzen naizenetik politenetako bat 1629an Leiren erromes eta fraileen artean sortu ziren iskanbiletakoa da. Erromesen artetik irten omen zen bat, dionez, «ermitaño capón» zelakoa, eta erromeskide bati makila eske esan omen zion: «Indac onat maquil ori, nic aditucodiat fraide hoc».

Iruinea bertan, Nafarroako Hospital Nagusian, bertara sartzen zirenei, 1563ko agiriak diotenez, bertako arautegi eta erregelen berri ematean euskaraz ere agertu beharra zegoen. Gainera, 1608. urtean Trinitario ordenako fraileak bertan jartzea ukatu zuten, euskaraz etzekitelako.

Eskolak ekarri zuten, batez ere, euskararen galera, hezkuntza erdaraz erabiltzeaz, J. M. Rekondoren lanean agiri denez. Baina auzitegietan ez zen diskriminaziorik. Gaur egun, Konstituzio berriaren 3. artikulua dugu, dagoen bezala, euskararentzat oso arriskugarria, zigorren kodigoa euskararen aurka jartzea ere posible denez. Ez dut uste hori gertatuko denik, baina arriskua hor dago. Artikulu hortaz eztaikit gure politikariek noraino ohartu diren, baina Euskaltzaindiak bere garaian salatu zuen. Ikus orduan hartu zuen erabakia *Euskera* (XXIV, 1979ko lehen zenbakiaren 131. orrialdean) aldizkarian iragarria.

Lehenago denboretan eskolaz aparte, arduraz begiratzen ziren hizkuntzaren arazoak. 1662. urtean Iruñean Unibertsitatea sortzeko proiektuan ere euskara kontuan hartu zen, eskolak zeramaten bide txarretik joan gabe, euskarari irakaskintzan bere tokia emanez, hortaz ikerketak eginez eta tribunalekoa izateko euskaraz zekiena izan zedin.

Berriz ere arduratsu begiratu beharko ditugu jokabide horiek gure euskara baztertua ikusterik nahi ez badugu. Zeren, inoiz, badirudi sorgin ihizari edo ez ote dabilzan.

## El euskara en los tribunales

El juicio de faltas contra seis jóvenes navarros de «Euskal Herrian Euskaraz» en la Audiencia de Pamplona el 14 de los corrientes, no ha sido un caso insólito en la historia de Navarra, como han apuntado algunos diarios; pero sí ha sido una acusación sin precedentes, como es el hecho de utilizar euskara en sus declaraciones. Menos mal que no tenía encuadramiento en el Código Penal, pues de lo contrario, dicho juicio iba directamente contra la «Lingua Navarrorum», y ni qué decir contra los Derechos Humanos.

Se obró con bastante torpeza al llevar el asunto al juicio. Pues a poco que se repase la historia de Navarra, los procesos entre receptores vascongados y romanizados son copiosos. Nunca fue un hecho delictivo el uso del vascuence y siempre supieron buscar soluciones correctas. En nuestro artículo reseñamos algunos casos de los siglos XVI y XVII que nos pueden valer como ejemplo.

En un proceso de Artieda, el año de 1561, tuvieron que valerse de traductores porque los individuos a comparecer ante el Juez sólo sabían vascuence. Alguno podrá alegar que los seis acusados de nuestros días sabían también castellano, pero esa no es la cuestión, porque un bilingüe puede estar en mejores condiciones para declarar en una lengua y no en otra, y debe tener libertad de elección, aparte de que tiene perfecto derecho a identificarse con una comunidad lingüística en concepto de solidaridad con la misma. Razón por la que se exigía en 1563 en las Ordenanzas y Constituciones del Hospital General de Navarra, en el mismo Pamplona, la lectura de las ordenanzas, escritas en romance, el que las leyere «declare en bascuence para que sepa cada uno» lo que ha de hacerse. Y, en 1608 a los frailes Trinitarios dieron la negativa para instalarse por no saber vascuence.

Del proceso de Brujería de Burgui (Valle de Roncal), llevado acabo en 1569, Florencio Idoate nos dio sabrosos detalles en *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, número 20. Los que llevaron el proceso no creían en el embrujamiento de los acusados. A estas alturas, en nuestro siglo, habría que preguntar si no estaremos volviendo a la caza de brujas.

Pero uno de los pleitos más simpáticos que se sostuvo con intérpretes, es quizás aquel que se libró entre peregrinos de Lumbier y monjes de Leyre, en 1629, de cuando el «ermitaño capón» quiso zurrar al fraile, diciendo: «Idac onat maquil ori, nic aditucodiat fraide hoc» (daca acá ese palo que yo entenderé a estos frayles).

De otro orden son el tratamiento que se le daba al euskara en aquel proyecto de Universidad en Pamplona, en 1662; el nombramiento de un intérprete en Barasoain, en 1708; la petición del Cabildo de Pamplona al Emperador, en 1530, para nombrar Obispos vascongados, etc. Son datos muy elocuentes de la consideración a los vascoparlantes, y hoy no puede ser menos.

1980-X-20.

## HIZKUNTZA ETA GIZARTEA

Ez dugu inork esan beharrik egungo egunean gure hizkuntzaren arazoak zer nolako garrantzia duen gure gizartea bake bidezko anaitasunera eramateko. Joan zen astean gomendatu nuen A. Tovar-en liburuaren azkenaldean argi ta garbi datorren gauza da hori.

Hala ere, euskaltzaleok, guziok larri gara gure hizkuntzaren etorkizunez. Mendeak zehar gainbeheraka etorri zaigun euskara aski eroria aurkitzen bai dugu orain bat batean zuzpertz ahal izan eta biziberrituz egoera itxaropentsu batean sartzeko. Lan nekeza dugu aurrez aurre. Era askotariko beharrak ditugu eta langile guti.

Gure hizkuntzaren on beharrez ari garenok, politikeriak eta taldekeriak alde batera utzi beharrak ditugu euskararen arazoetan, zeren, bestela ez dugu gauzonik egingo.

Helburu baterako, bide asko landu beharrak ditugu. Lehenik plangintzak behar dira eta gero azpiegiturak, geroagoan ekinaren fruituak jasoko badira. Honetan guztiok bat etorriko gara. Lehen premiak zer diren markatzeak ere bere mailakatzea eskatzen du. Hau delata, aurtengo udaran Euskal Herriko Unibertsitatean eratu genituen Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak zirelata, zenbait kritika jaso genuen. Baita zenbait arinkeria aguantatu ere, zeren gure artean arinik ere bada jakitun itxuraz. Kritikak beti dira onak, osagarri direnean; baina zentzu gutikoak direnean arriskugarriak, borondaterik oneneko jendeak ere usterik onenez buruabat egiten duelako. Batzuen ustez, iker lanak baino lehenagokoa zen sozio-linguistika arazoa. Besteok holakorik kontuan izan ez bagendu bezala.

Lehendabizi, zer zertarako eta zelan gogoan izan behar dugu. Eta antolatzaileok, hau, oso kontutan hartua genuen. Ikerketen bidetik abiatzeko premia, hasi berri dugun Euskal Herriko Unibertsitateak erakusten digu. Bestalde, guk baditugu linguistikaren ikerketaz eta batez ere euskal-linguistikaz, beste edonongoen mailakoak. Beraz, erbes-tetik etorriak ez ginduzen eremu-gorrian aurkituko. Kondizionamendu horiegatik ez ginen besteen bendea morroi gisa agertuko eta kanpotiarrekiko harremanak ekar lezazken ondorio onurakorrak neurtu ezi-nezkoak dira. Dena dela, ekintza haren ondorioz, atzerriko Unibertsitateetan hemengo ikasleentzat bekak lortzeko bideetan gaude eta, behar bada, gure Unibertsitatean euskara ikerketak sendo bultzatzeko bidean.

Zoritzarrez, sozio-linguistikaz ez gaude maila berean. Alde batetik, zer da sozio-linguistika bera? Teoria desberdinen adarrez betea. Hizkuntza bere naturalezaz berez uztea predikatzen dutenek eta hizkuntza tipien bizi beharra defenditzen dutenena, muturrik mutur, eta bitar-

tean nahasmendurik aski. Har dezagun txikien eskubidearen alde daudenena, gure egoera hontan hala behar dela iduritzen zaigulako eta zalantzarik gabe, legezkoena delako. Rafael Ll. Ninyoles edo ekarri ezinik ez dugu, baina guk gure aldetik maila hortakorik ezin aurkeztu eta Ninyoles berak gure herriaren egoera behar bezain sakon ezagutu ez; guk geuk ere ez noski, aho-bero batzuk besterik uste badute ere. Burubide ederra lortuko genuen.

Bestalde, egungo egoera kontuan izanik, autonomiako gobernu berriari dagokio eginkizun hori betetzea. Uste dugu, euskara berbizteko guk haina gogo izateaz aparte, plangintzetan ere hasia dela. Ez ote diogu ba emango eskoletan sartzetik telebistara eroateko beharrezko duen epea? Edonor ohartuko da Eusko Jaurlaritzagan daudela, gaur gaurkoz, hizkuntzaren berpizkundeari dagozkion esku-bide eta ahalmenak. Gainerako erakundeen eginkizuna, izatekotan ere, horri laguntzea litzake. Bizpahiru urte barru euskararen etorkizunezko ikuspegia bestelakoa izango dala uste dugu, eta hau kontuan hartu gabe, zeharka ibiltzea, lan antzua da. Sozio-linguistikako jardunaldiak, gaur egun, inork antolatzekotan ere, poderea izango duenak antolatu behar ditu. Ez baita gauza bera papelean gordetzeko teoria politikak egitea eta soluzioak lortzeko plangintzak egitea. Plangintzak, betetzeko ez badira, guti balio bai dute. Baina, gure arteko barregarriena (negargarriena ez bada), zera da, gobernuaren eta instituzionalizatzearen aurka ari direnak heurak dira gehienbat sozio-linguistikaz eta euskararen eskubideetaz mintzatzen direnak, beren ekintzarik emankorrenak letreroak euskaratzen eta azaleko zenbait itxuraz gehiago arduratuz. Ez dut esango hoiiek egin behar ez direnik, baina lehen lehenik utz dezagun behar diren azpiegiturak eta plangintzak egiten ari direnei, hortarako epe lasai bat emanaz.

Zer behar dugun jakitea ezta aski, norik bideratu behar duen ez badakigu. Eskoletan, telebistan eta abar, agintea dutenek, ahalmena ere berengan dute. Eta, bide hoiiek dira bultzatu eta lagundu beharrezkoak.

Euskaltzaleok, arren, euskara lehenago edozein talde baino. Politika jokatu dezagun gizonki bere garaia denean: «Lau eta lau ginen hasi, gehien zenak irabazi; galtzaleok hobe dugu, hobeto ikasi».

## Idioma y sociedad

Es sabido por todos que la lengua vasca ha sufrido un abandono total, tanto por parte de los gobernantes como por el propio pueblo vasco. La concienciación ha venido tardíamente y avanza progresiva-

mente desde el romanticismo. La búsqueda de soluciones para su recuperación, hoy, viene a ser un hecho ineludible. Como bien dice Tovar en el libro que comenté en el artículo de la pasada semana: «la actual crisis, que sacude a los vascos, es una crisis política, mas también lingüística. En el mundo actual, donde no puede haber analfabetos, porque la economía lo prohíbe, la transmisión de la lengua ya no es predominantemente oral... —y seguirá diciendo, que— El camino de la paz en las provincias vascas y en España pasa por la política, y, según se puede ver en este libro, por la política lingüística».

En este momento histórico contamos con una vía autonómica, que es tanto como decir una de las pocas oportunidades para la reconstrucción institucional del país, y que la debemos aprovechar ayudando y potenciando, apartándonos de aventurismos utópicos, conscientes de que hoy por hoy no se nos ofrece otra alternativa. Diré más, y es que dudo de nuestra capacidad para el aprovechamiento al máximo de las posibilidades que nos ofrece la misma. A veces pienso si nuestras reacciones no serán consecuencia de nuestra impotencia. Sea cual fuera, el único camino es el de afrontar con sinceridad y laborar para el logro de un bilingüismo donde el euskara no caiga en una situación a que está sumida por el peso de una errónea política en el transcurso de la historia. Hoy por hoy no hay otra posibilidad para salir de esta situación diglósica.

El buen deseo de la recuperación del euskara y la urgencia que el caso lo requiere para la salvación de la lengua, y asegurar un bilingüismo racional, sin marginaciones, ha acarreado esta situación donde los ánimos de muchos euskarófilos se muestren tan tensos e impacientes, hasta el extremo de repercutir a la inestabilidad política. Por otra parte, cada cual por su lado se considera capacitado para establecer preferencias, cuando en ellas lo primordial son las escuelas y los medios de comunicación modernos.

Es comprensible que en este estado de cosas, una de las críticas desfavorables a los Encuentros Internacionales de Vascólogos fuera precisamente por no haber dado preferencia a unas jornadas de sociolingüística. Aunque esa preocupación, en su día, no fue ajena a los organizadores, entendemos que corresponde al nuevo gobierno autonómico vasco, que dispone de poderes legislativos y ejecutivos. Es más, nadie ignoramos que se están formando equipos que planifiquen y desarrollen los medios necesarios para la recuperación. Ello hace suponer que el panorama lingüístico va a cambiar en pocos años. Y, teorizar al margen de los organismos competentes, hubiera supuesto una labor estéril. Aparte de no contar entre nosotros con especialistas com-



petentes a la altura o nivel que contamos en la investigación lingüística.

Si queremos una convivencia ciudadana y la recuperación del euskara, hemos de depositar nuestra confianza en el desarrollo autonómico, al margen de las ideologías y tendencias, porque a medida de su potenciación podrá apoyar la lengua y cultura que tanto nos preocupan. Recordemos que la historia no nos ha ofrecido una oportunidad igual y hemos de saber aprovecharla.

1980-XII-8.

## EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK

Euskaldunok beste ezerk ez gaitu bereizten hizkuntzak haina. Munduko mapa orokorretan, badirudi, Euskal Herriak hizkuntz-etniakoan soilik duela bere leku berezia.

Hizkuntza gizarte harremanetarako tresna denez gero, honek bere inguruan biltzen du herri bakoitzaren kultur sen berezia.

Euskara aintzinatik aipatzen zen Europako hizkuntzarik zaharrene-takotzat, eta ospe honek ekarri zituen hizkuntzalari arrotzak gure herrira. Wilhem von Humboldt izan zen hoietatik aipagarrienetako bat, zeren gizon ospetsu hau euskararekin zaletu zenetik munduko hizkuntzalaririk famatuena arduratu dira euskararen sustraiz eta jatorriz. Geroztik, berrehun urteren buruan hamaika ikerketa egin da; baina, hala ere, oraindik inkognita berak iharraitzen du eta herririk aurrera-tuenetako hizkuntzalaririk jakitunenak arduratzen dira euskarari buruz.

Azken urte hauetan edonondiko linguistak etorzen dira Euskal Herrira. Gehienek Euskaltzaindira jo izan dute, berri bila edo harreman bila. Ohartuak ginen horietako asko ez zirela elkarren artean ezagutzen, naiz eta inoiz ikerketa berdintsuetan aritu. Eta hortik piztu zen orain aurrera daroagun asmoa.

Euskaltzaindiko iker sail buru den Luis Mitxelenak mugatu dizkigu Jardunaldi hauetako gai nagusiak. Eta dei egin diegu munduan zehar sakabanaturik dauden euskalarietara. Beren erantzuna oso ona izan da. 10 naziotatik hogetakak linguista etorriko dira.

Honako programa honen barnean arituko dira: Euskaltzainburuaren agurraren ondotik, Jean Haritschelhar Euskarari buruzko ikerketak gaur egunean zer egoeratan dauden adieraziko du; André Martinet Fonologia

sinkroniko eta diakronikoaz mintzatuko da: Antonio Tovar, Konparaketaz, lexiko-estadistika eta tipologiaz; Terence H. Wilbur, Euskal sintaxia, forma logikoa eta aditz laguntzailea; Jaques Allières, Dialektologiaz; Robert L. Trask, Morfologiaz; eta, azkenik, L. Mitxelenak, Iker premiak aurrera begira nondik eta nola beharko direnaz.

Gainerako euskalariak eta euskaltzainek gai horien inguruan zenbait agerpen emango dituzte. Hauetarik batzorde batek aukeratuko ditu han bertan irakurriko direnak. Lan guziok bilduma batean argitaratuko dira.

Ekintza honekin, lehen lehenik, euskalariok pertsonalki elkar eza-gutzeko aukera izango dute.

Hemendik aurrerantzean, bakoitza non eta zertaz ari den jakingo dugu. Eta Euskaltzaindiak, bere egitekoetarik arlo bat beteaz, ikerketak zuzpertzuz, aurrerantzean guziekin harreman estuak izanen ditu.

Herri baten hizkuntza alderdikeri guzien gainetik dagoen zerbait da. Hizkuntzari behar duen itzala emanaz, Euskal Herrian bizi diren guziei aditzera eman nahi diegu gure hizkuntzaren garrantzia, ez dakitenei (mintzatzen ez direnei) ikasteko gogoia sortaraziz, dakitenei gehiago erabiltzera bultzaraziz. Ia gure hizkuntzari giro berri egokiago bat lortzen diogun.

Esan beharra dugu, asmo hau aurrera eramatea, ezinezkoa izango zela, aurrez herriak berak lagundu ez baligu. «Bai Euskarari» kanpainaren ondorena bait da oraingo ekintza hau.

Jardunaldi horiei hasiera Gernikako Batzar Etxean emango zaie, ondoko egunetan Euskal Herriko Unibertsitatean (Leioan) iharrartzeko, helduden abuztuaren 25-etik 29ra bitartean.

Goizetan hitzaldiak eta arratsaldez ibilaldiak programatu dira, Euskal Herriaren geografia, kulturtegiak, arte leku, folklore, bertsolari, kanta zahar eta berri ezagutu dezaten, honela, beren ikerketetan, gure herriaren irudia lagungarri izan dezaten.

## **Encuentros Internacionales de Vascólogos**

El idioma es el vehículo de expresión en cuyo entorno acumula la cultura tradicional de un pueblo. Por esto, a través del idioma encontraremos nuestra propia identidad.

La importancia del euskara nos muestran con elocuencia los mapas-mundis, donde podremos observar que únicamente en los lingüístico-étnicos se distingue el País Vasco.

Desde muy antiguo tuvo fama el euskara de ser el primitivo idioma del continente; uno de los pocos pre-indoeuropeos. Esta opinión atrajo a los filólogos extranjeros y, desde hace dos siglos, concretamente desde W. von Humboldt, ha despertado gran interés. Y aún siendo muchísimas las investigaciones realizadas, el idioma vasco sigue siendo una incógnita, y los principales lingüistas del mundo se preocupan en su investigación.

En los últimos años habían desfilado muchísimos lingüistas extranjeros por la sede de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia, a su paso por el país en busca de información directa, y la mayoría de los mismos hablaban euskara. Con algunos se ha mantenido estrecho contacto y hasta han colaborado con sus trabajos en el boletín *Euskera*, órgano de Euskaltzaindia.

De estas visitas y contactos nació nuestra idea de organizar estos Encuentros. Los mismos brindarán a los lingüistas de diversos países la oportunidad de conocerse personalmente, al mismo tiempo de ofrecer una mayor información sobre el estado de las investigaciones de cada uno de ellos y estrechar los lazos en torno a Euskaltzaindia, a donde recurren normalmente y que puede servirles como la institución coordinadora en lo que respecta a la lingüística vasca.

El programa de las sesiones fue confeccionado por Luis Michelena, director de la sección de investigación de Euskaltzaindia.

La convocatoria ha tenido una respuesta positiva. Participarán en los Encuentros más de una veintena de lingüistas de diez países diferentes. Las ponencias de apertura y clausura correrán a cargo de miembros de la Real Academia de la Lengua Vasca, pero el desarrollo del programa establecido: fonética, tipología, sintaxis, dialectología y morfología, correrán a cargo de los lingüistas de renombre universal, A. Martinet, A. Tovar, T. H. Wilbur, J. Allières y R. L. Trask, como ponentes de los temas referidos. Además, leerán sus comunicaciones, aparte de diversos académicos de Euskaltzaindia, los lingüistas Jacobsen, Zytsar, Shimomiya, Rebuschi, Brettchneider, Holmer, etc., cuyas procedencias son, Estados Unidos, Unión Soviética, Japón, Francia, Alemania, Suecia y algunos más que aún es prematuro para poder precisar.

Estos encuentros, además de estimular e impulsar las investigaciones, servirán para establecer mayores contactos en lo sucesivo, y ello redundará en beneficio de la propia lengua, porque ha de incidir positivamente en el estudio y concienciación de los vascos hacia su lengua milenaria, pieza fundamental para la identidad de nuestro pueblo.

Conste que estos Encuentros no hubieran sido realizables sin la

ayuda prestada por el pueblo que tan bien supo responder a la campaña «Bai Euskarari».

De acuerdo con lo fijado en el programa, los Encuentros se iniciarán en la Casa de Juntas de Guernica para continuar en el *campus* de la Universidad del País Vasco, en Lejona, del 25 al 29 del próximo mes de agosto.

Durante esa semana, por las mañana habrá sesiones académicas y por las tardes excursiones con el objeto de ofrecer la oportunidad de conocer el país en su geografía, centros culturales, lugares artísticos, folklore, bersolaris, cantos tradicionales y modernos, para que los lingüistas extranjeros posean una imagen directa que favorezca sus investigaciones en su conjunto de lengua y cultura vasca.

1980-VII-21.

## S. ALTUBE EUSKALARIA

Arrasaten iragan abenduan gramatika gaiez egin ziren jardunaldiak eta helduden abuztuaren bukaeran Gernikan eta Leioan (Euskal Herriko Unibertsitatean) ospatzekotan diren Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak Sebero Altube zenaren omenez antolatuak dira bere ehunurteburuan.

Ongi merezia zuen. Bere denboran, Altube izan bai zen linguistikaren alorreko lege berriak gure herrira sartu zituen lehen euskaltzaina. Egia esan, Euskaltzaindia bera sortu baino lehenagotik zegoen Altube zena garbikeriaren gehiegizkoek kezkatuak, eta herriaren jatorriasunaren alde bideratuko zituen bere lanak.

Bere gaztaroan musikari eta lantegiko zuzendaritzari hain emana zen gizon hura, jakintzaz egarritua, bere buruz jantzia ikasi zuen zekien dena. Frantzez hizkuntza ondo menderatzen zuenez, honen bidez jabetu zen linguistikako joera berriez. L. Villasantek ongi esango zigunez: «Altube jauna etzan, ba, iñungo Unibertsitatetan ibilitako gizona. Baiña hain zuzen, horrexegaitik zaigu begikoago. Bere neke izerdien puruz jantzi bai zuen bere burua. Bere adimenari zor zion azkurria bilatzen ez zen batere ajolakabe edo zabarra izan. Batez ere, Linguistikako estudioetara agertu zuen gose eta zaletasun bizi-bizia. Frantzez hizkuntza ikasi eta Linguistikako frantzez liburuak eskuratzen zituen, horietatik euskararen onerako atera zitezken erakutsi edo argibideak

xurgatu nahiez. Bere idazlanetan ia etengabe ari zaigu linguista hoi-  
izenak eta esanak aipatzen: Hovelacque, Dauzat, Grégoire, Meillet,  
Vendryées eta abar. Berak ikusten zuen hemengo euskalari zaharrek  
uste okerre- zeukatela burua moldatua eta hortik heldu zirela hainbeste  
gaitz eta makur gure euskal baratzerara...».

Ordurarteko euskaltzaleak, Altubek zionez: «hizkuntz jakintzarik  
ez balitz bezala» ibili ziren; eritziak, bakoitzak bere neurrira eginaz,  
bururik haina aburu.

Ausarta behar zuen izan garai hartan garbikeriaren aurka agertzeko;  
baina euskaraganako maitasunez eta jakitunaren itzalez irten zen gure  
Altube, gauzak bere onera eroan nahirik. Gogorkeri gabe eta arrazoiz  
hornitu zituen bere tesi lan nagusiak, bata bestearen ondorean, eten  
gabe, morfologiaz, joskeraz eta fonologiaz. Beti euskararen bizitzaz  
kezkatu. Euskaltzain sarrerako hitzalditik hasi, 1920an, eta ildo beretik  
iharraituz, arduratsu bete zituen gai horien azterketak.

Bere lan nagusien arteko ditugu: *Erderismos* (1929), *El acento  
vasco* (1932), *Observaciones al tratado de «Morfología vasca» de Az-  
kue* (1934), *La vida del euskera* eta *Más sobre la vida del euskera*  
(1934-36) eta beste zenbait txosten euskaraz Euskaltzaindiari aurkez-  
tuak, gai beraren inguruan. Hauetatik aipagarrienak: «Erderatiko itzak,  
itz barriak eta aintxiña itzak» (1920), «Izkuntz jakintzia eta euskeria-  
ren bizitza» (1921), «Euskal itz barriak» (1922), «Batasun bidean»  
(1928), «Euskaltzaindiari» (1933-1956) eta abar.

Argi dago euskara idatziaren batasunez ere arduratu zela. Ahozko  
herri euskaratik hurbil baina nolabaiteko batasunaren beharra agertu  
zuen, literatura indartsu bat burutuko bazen. Euskara bizitik urruti ez  
ibiltzeko, Urruzuno eta Kirikiñoren lanak jartzen zituen eredu.

Bere garairako euskal atlas linguistiko on bat ez zegoelako edo  
bizkaiera soilik ezagutzen zuelako, honen inguruan biltzen zituen bere  
adibiderik gehienak. Hau da, Bizkai aldeko euskalkian oinarrituz adie-  
razten zituen bere teoriak eta horregatik zion Mitxelena, joskeraz  
ari zelarik: «Ez tira, gehienez ere, euskararenak, zenbait dialekturenak  
baizik. Eta dialektu hoietan ere zeharo eta osoro betetzen ezirela esan  
beharrik ez».

Baina, oinarrizko ideia nagusiak, batez ere hitzen erabilkeraz, gaur  
gaurkoak ditugu, eta oroi Altubek 1922. urtean agertu zituela Eusko  
Ikaskuntzak Gernikan antolatu zituen batzarretan. Argi eta garbi azal-  
duko zen gure herrian erroturik zeuden erderatikako hitz arrunten alde.  
Bi urte lehenago Euskaltzaindikoko sarrera hitzaldian euskaraz esana, er-  
daraz berriz errepikatuz. Hemen errotutako hitzak, naiz erderatikakoak  
izan, hitz jatorrak zirela aitortuz. Idea horiekien, bere aburuetan ausart

eta tinko iharraituko zuen, hitz hauek lekuko: «Gogoan euki daigun egi itzal au: gaur eguneko giza-artu-emonetarako, batasunezko eta errijaz adiskide bizi dan idatz-izkerarik euskeraan aurkitzen ezpadogu, gura nai ez, erderetara joko dogula danok, utsune ori beteteko. Zoritarrez, egi itzal eta samin orren ondorenak, larregi ere agiri dira, daborduko ere, euskaldunon artean». (*Euskera*, II, 1921, 48. orrialdea).

Sebero Altubek bere bizitzaren heldutasunean, batez ere zahar-tzarora, bere buruaganako omenaldiak ukatu bazituen ere, gure baitan zordun ginen hainbeste argitasun eskaini zigun euskalari jakintsuarekin eta bere izateari tokatzen zitzaion erako bilerak lortu ditugu gure gizon handiaren ohorez, Arrasateko gramatika jardunaldien ondotik Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak Gernikan eta Leioan.

### S. Altube, el vascólogo

Euskaltzaindia, con las jornadas de estudios gramaticales, celebradas durante el pasado mes de Diciembre, y con los Encuentros Internacionales de vascólogos, programados para el próximo mes de Agosto, no ha podido rendir mejor homenaje a la figura de Severo Altube, con motivo del centenario de su nacimiento.

Severo Altube, musicólogo y empresario en su juventud, en su madurez, e incluso en su vejez, se entregó plenamente a los estudios lingüísticos. Su dominio del francés le dio acceso a una información directa sobre las nuevas corrientes de la lingüística moderna, cuyas teorías supo aplicar en beneficio del euskara contrarrestando los abusos del purismo y orientando las corrientes literarias, saliendo al paso a tantísimos «vascólogos» desaprensivos que obraban ignorando la existencia de la ciencia lingüística, predicando las nuevas normas para la práctica de la lengua, sin alejarse del uso hablado o popular, y, al propio tiempo, mostrando la necesidad de la unificación del vascuence escrito.

Como ejemplo para la fluidez literaria, una y otra vez recomendaría tomar como modelo la belleza artística del lenguaje de P. M. Urruzuno y E. Bustinza «Kirikiño».

En pleno apogeo de la corriente purista, su visión del problema fue clara y rotunda. Mucho antes que sus conocidas tesis, en una carta dirigida al Sr. Garmendia Viciola, en 1916, manifestaría: «No es, a mi juicio, posible retirar del uso una infinidad de palabras de origen latino, porque están ya muy arraigadas en el pueblo; ni siquiera es conveniente».

Con sus estudios sobre morfología, sintaxis y fonología, introdujo nuevos conceptos socio-lingüísticos. Su propio discurso de ingreso en la Academia, en 1920, discurriría sobre estos temas. Sus principales obras fueron: *Erderismos* (1929), *El acento vasco* (1932), *Observaciones al tratado de «Morfología Vasca» de Azkue* (1934), *La vida del euskera* y *Más sobre la vida del euskera* (1934-36). Temas a los que fue añadiendo numerosos apéndices hasta su muerte.

El, hombre modesto, que en vida no admitió ninguna clase de homenajes, sin duda rechazaría ruborizado éste que Euskaltzaindia le dedica, pero nosotros sabemos que lo tenía bien merecido; él que nos alumbró y guió por los nuevos derroteros, se lo había ganado.

1980-VII-28.

## G. VON HUMBOLDT FILOLOGOA

Gilen von Humboldt prusiarra duela berrehun urte Euskal Herrira heldu arte, nolabait euskarekin arduratu zirenek amets hutsetan ari ziren. Askorentzat, euskara, Babel-en sortu ziren hizkuntzetariko bat zen eta beste batzuentzat Tubal-ek ekarria edo Adan eta Eva-ren hizkuntza. Holako usteak zabaldurik, misterio edo mitoz kutsatu zuten euskararekiko ingurua eta irudimenaren ahalmen guziak hortaratuaz eritzi harrigarri guziak bildu zituen gure euskarak. Ez euskararik eta ezta linguistikaren oinarritzko mailaren berririk jakin gabe, baina inork bere burua jakituntzat bazuen, usterik bitxiak agertuko zituen. Euskararik ez ikasteko ere bazuten aski argudio; behin, deabrua bera etorri omen zen Euskal Herrira, gure hizkuntza zail hau ikastera, eta ikasi ezinik eta desesperaturik laster ospa egin omen zuen.

Dena dela, gure euskarak, hizkuntza zaharraren ospea zuen, eta ospe honek ekarri zuen Humboldt. Bere gogoan, aintzinako testu zaharren batzuk aurkitzeko ilusioa zekarren. Testu zaharrak aurkitu ere bai, baina ez hain aintzinakoak. Hala ere, bere etorrera ez zen alperrikakoa izan; hizkuntza beraren morfologia izan bai zen aurkitu zezakean gauzarik bitxiak, eta ondorioz honen ikerketari eskaini zizkion bere lan ezaugarrien parte handi batean.

Gilen Humboldt, gaztaroan poesigintzan eta gero politiko bezala ere nabarmendu bazen, kultur handiko hizkuntzalaria zen eta bere lanak ikerketarako ikuspegi berria ekarri zuten. Bere osparen itzalak beste

hizkuntzalari asko ekarri zituen eta geroztik mundu guziko hizkuntzalariak arduratu dira gure euskararekin.

Gure hizkuntzagan zer aurkitzen duten? Alde batetik, bere zahar-tasunak hizkuntzen sorrerara hurbiltzen ditu, baina bestetik, bere ti-pologian dituen berezitasunak, indoeuropeo aurretiko hizkuntzaren sus-traiak dituenez, munduko beste hizkuntzekin ahaidetasuna bilatu nahia. Honegatik, linguistikaren zientzian (eta, gaur, oso aurreratua dugu zientzia hau) ikerketak egiteko egokitasuna. Antropologia berrian hiz-kuntzaren fenomenoak oso garrantzitsutzat hartzen denez, euskarak ba-du zer erakutsi.

XIX. mendea hastean, Max Müller-ek aditzera eman zuenez, bi lan zeuden hizkuntzaz seriozki eginak, Hervás y Panduro espainiar jesula-gunaren *Catálogo de las Lenguas* eta Joan Kristobal Adelung filologo alemanaren *Mithridates*. Humboldt-ek hoiek izango zituen bere ekin-tzaren oinarritz. 1799an eta 1801ean ibili zen Euskal Herrian. Bidaia bien kronikak taxuz idatzi zituen. Lehenengo bidaiarena M. de Una-munok itzuli zuen gaztelerara eta oraintsu *Los Vascos* izenez birargita-ratua da. Bigarren bidaiarena ere, ber-berak itzulia eta Justo Garate-ren ohar eta orraztapenez argitaratu zen 1951an *Cuatro Ensayos sobre España y América* izenez Austral kolezioan.

Baina hizkuntzari buruzko bere lan nagusiak beste bi liburutan bilduko zituen. Hoietatik garrantzitsuena Adelung-en *Mithridates*-ri egin zizkion zuzenketa eta gehigarritzkoa izan zen. J. Garatek itzulia RIEV-en argitaratu zen, J. Urkixoren hitzaurrez (XXIV. tomoan, 1933). Bestea ordea, euskal-ibero teoriak egina, *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der Vaskischen Sprache* (1821) deritzana. Lan hoiek ordena pizkabat jarri zuten garai hartako eritzietan eta poliki poliki zentzubideratu ziren hizkuntzen kulturaz ar-duratzan zirenek. Hala ere, esan beharra dago, geroztik ere badirela zentzatu ezinak, zentzun gabeak diren bezala. Baina, Humboldt-en lanak, erudizioz beterik, goi mailan jarri zituen euskararen ikerketak.

Kezka handia sortu zuten prusiarraren lanak eta jakitun asko bul-tzatu zituen gure hizkuntzaren ikerketara. Orduan iratzartu zen zale-tasuna oraindik ere ez da itzali. Hil honen azken astean Euskal Herriko Unibertsitatean izango diren Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak di-tugu lekuko. Zeren, espero dugunez, hamar estadutako hogetakak hiz-kuntzalariak izango bai ditugu partaide. Ekintza honekin, Euskaltzain-diak, Humboldt-ek sortu zuen kezka bera giro berritu nahi bai du.

Aipatu dugun *Prüfung...* delako lana, *Espainiako aintzinako biz-tanleak eta euskara*, elkarren artean zer den, euskal-ibero teoriak oinarri trinkoagoak jarri zituen estudioa zenbait aldiz itzulia eta argitaratua izan



da. Jarraitzailerik ere ez zaio falta izan H. Schuchardt eta R. Menéndez Pidal arte. Gaur ordea, aski baztertua da teoria hori.

Ugaria eta zentzuzkoa izan zen Humboldt-en lana. *Mithridates*-i egin zuzenketak eta gehigarriak aparte, esku-izkribu asko utzi zuen eta horien inguruan ere azterketa jakingarriak egin dira. Lan horietaz gehien arduratu dena Justo Garate izan da, eta, lanik aipagarriena *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia* (1933). Bertan ikus daiteke, hizkuntzaren azterketaz, gramatika zehaztuz eta analisi egoki bat eginaz aritu zela. Hain zuzen, hemen aurkitu bai zuen Gilen von Humboldt handiak gauzarik miragarriena, hain hizkuntza zaharrak holako egitura aberatsak izatean. Baita ere, esan beharra dago, Hervás y Panduro eta J. K. Adelung-en oinarritzko lanez gainera P. Astarloa eta J. A. Mogelekkin harreman estuak izan zituela bere ikerlana burutzeko.

Gaur egun, bere eritzietarik asko bazterturik badaude ere, oraingoak asko zor dio Humboldt-en ekintzari, eta historiak beti izango du kontuan Prusiako jakituna.

### G. von Humboldt, el filólogo

Hace casi dos siglos desde la aparición de Guillermo von Humboldt al País Vasco, atraído por la rareza de la lengua vasca, considerada para entonces como lengua isla o preindoeuropea. Parece ser que vino muy ilusionado, abrigando la esperanza de encontrar algunos textos antiguos de importancia, pero lo que encontró fue una magnífica lengua primitiva con una perfecta estructura gramatical. De manera que la falta de algún poema épico perdido de la antigüedad quedó compensada con la maravilla de la propia lengua.

Por su gran autoridad y prestigio influyó entre los filólogos de su tiempo y contribuyó a desterrar los conceptos fantásticos que circulaban sobre su origen y a despertar el interés de los centros científicos sobre la importancia de la lengua vasca. Desde aquellas fechas no ha cesado ese interés de los lingüistas hacia nuestra lengua. Constituirán un hecho elocuente los Encuentros Internacionales de Vascólogos a celebrar en la Universidad del País Vasco durante la última semana del presente mes de agosto bajo la organización de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia. Donde participarán más de una veintena de lingüistas extranjeros, de diez nacionalidades, con ponencias y comunicaciones sobre el euskara.

G. Humboldt realizó dos viajes a nuestro país, en 1799 y 1801,

escribiendo interesantes memorias de sus visitas, que han sido traducidas al español y que han tenido varias ediciones. Pero su labor lingüística se centra preferentemente en las correcciones y adiciones al *Mithridates* del renombrado filólogo alemán Juan Cristóbal Adelung, en una obra sobre las teorías del vasco-iberismo y en los numerosos manuscritos que dejó inéditos.

El Dr. Justo Gárate ha sido la persona que más ha estudiado la obra del prusiano Humboldt, y es básica y fundamental, entre varios estudios y traducciones con notas, la que lleva por título: *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia* (Bilbao, 1933).

Humboldt, para sus estudios, se fundó principalmente en las obras del mencionado Adelung y de Hervás y Panduro. Mantuvo, además, contactos personales y correspondencia epistolar con P. Astarloa, J. A. Moguel y otros.

Muchas de sus teorías han sido arrinconadas, pero el interés despertado se ha mantenido hasta nuestros días. Hoy, su obra, sirve sobre todo para la historia de la evolución de las ideas relativas a los problemas del vascuence.

1980-VIII-4.

## L. L. BONAPARTE PRINTZEA

Erbesteko linguisten artetik ospetsuenetako bat Luis Luziano Bonaparte printzea da. Honi zor deusagu euskalkien lehenengo azterketa zehatza. Ondasunik ez jakon falta eta lanerako gogorik be ez.

1856. urtetik 1869ra bitartian egin ebazan euskararen ikerketak; euskalkiak ez ezik baita euskalki bakotxaren motak be. Ha bai zala langile zehatza.

L. L. Bonaparte, Euskal Herrira baino lehen beste leku batzuetan ibili zan hizkuntzazko azterketak egiten. Euskaragaz interesatu zanean, Euskal Herrira etorri baino lau urte lehenagotik hasi zan liburuetatik euskara ikasten. Bere burua euskaraz nahikoa jantzia eukala iduritu jakonian jo eban gure herrira. Lehenengo aldian urte bi segidan etorri zan, D'Abbadie eta Otaegiren bidez ezagutu zituen Duvoisin, Intxauspe, Etxenike eta beste zenbait. Gure luraren eskualde guztietan bilatu zituen harremonetarako laguntzaileak. Baina, berak nahi ebana aurraz ondo erakutsiaz. Ez eban gura edozelako laguntzailea, bere itaunak

ondo erantzungo ebenak izan ezik. Hola hornitu zan ordezkari, itzultzailez eta aditz eta berben batzailez.

Gero, zortzi urtez ez zan berriro etorriko Euskal Herrira. Baina gutunezko harreman estuak izan zituan bere ordekariegaz eta itzultzaileegaz. Eta, lan horren frutu, liburu asko argitaratu ebazan Londresen. Batzuk hor-hemen aurkitutako testu zaharrak eta gehientsuenak berak agindutako itzulpenak.

Londresen argitaratutako itzulpenen artean aipagarrienak Bibliaren zatiak dira. Ezertariko oharrik bagerik gainera.

Esan dogun lez langintza horretarako ez eban hartzen edozelako laguntzailerik. Bere esanak ondo beteko zituana behar eban izan. Esate baterako, zenbait giputzekin harremanak izan zituan, baina itxura danez, inor ez jakon gogoko eta Uriarte bizkaitarrari agindu eutsan Biblia osoa gipuzkerara itzultzea. Lan honen lehen partea bakarrik argitaratu zan. Biblia osorik Duvoisin kapitanak lapurteraz ipinia bakarrik argitaratu eban. Ebangelioak barriz euskalki askotakoak.

Mapa argitaratu aurretik, ber bera ibili zan Euskal Herri osoan beharrezko iduritzen jakotzen zuzenketak eginaz. Honetarako ez zan konformatu euskera jus-justuan ikasteagaz, ez, euskalkiak heurak be ikasi ebazen eta beharrezko zuzenketak inoren laguntzarik barik egiten ebazen.

Bere lanak ospe handia eta seriotasuna ekarri eban euskal ikerketen arlora; bai Euskal Herrian bertan eta baita Europa guztian be. Honetatik, bere bigarren etorreran ohore handiz hartu zan Euskal Herrian. Ordukoa da donapaleutarrek kanta eutsena:

*Kanta zazu, eskualduna,  
errepika goraki,  
munduko printze lebena  
gurekin da lañoki.*

Bera be ez zan labur gelditzen. Euskaraz bertsoen bat edo beste biribiltzeko haina bazan. Bada bere bertso bat euskaldunei eskainia:

*Nere anai lagun, maite zaituztedanak,  
Teseoren fedez lotu zatzaizkidanak!  
Obidiyak Tristeen libruan ziona  
orain zuri diotzut, Euskalherri ona*

Azpian Obidiok ziona latinez ipinita bere eskuz idatzia ezagutzen da.

Bere laguntzaileetatik aipagarrienak ziren: J. Duvoisin, lapurterra; Fr. J. A. Uriarte, bizkaitarra; E. Intxauspe, zuberotarra; M. Sa-

laberri, baxenabarrekoa; B. Etxenike, nafarra; Casenave, baxenabarrekoa; J. A. Azpiazu, giputza; J. E. Udabe, giputza; P. Hualde eta M. Mendigatxa, erronkariarrak; P. J. Sanper Jaurrietako nafarra; Ibarregarai, baxenabartarra; P. J. Minondo eta M. Elizondo, nafarrak eta beste zenbait. Horren artean ahaztu ezinak dira Antonio d'Abbadie eta Klaudio Otaegi.

Ahozko hizkeraz aparte literaturazkoaz be arduratu zan. Esate baterako, Joakin Lizarraga Elkanokoa ez eban ezagutu, baina honek itzuliak laga zituan San Juan eta San Mateoren Ebangelioak, eta heuratak lehenengoa argitaratu eban Londresen.

Bibliatik bakarrik, Baxe-Nabarreko M. Salaberriren itzulpenezko San Mateoren Ebangeliotik hasi, 1856an eta 1869an Hiruhaurren Kantara arte, Bonaparte printzeak Bibliako zatietatik 31 argitalpen egin ebazen. Ta, hala be, lan asko eta asko hor dare oindinok argitaratu bagerik gure Diputazioetako artxiboetan. Horrek argitaratzen ez diran artean zordun gara Bonaparte printzeagaz eta euskara beragaz.

Dana dala, euskalari ospetsuen artean leku berezi bat merezi dau Bonaparte printzeak. Atzerritarrak beti ekarri deuskue euskararen ikerketetara zerbait berri, baina printze honena zerbait baino gehiago zan.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak laster direlako, ondo merezia dauka gogorapenezko artikulua hau.

## L. L. Bonaparte, el Príncipe

El lingüista extranjero que más aportó al estudio de la lengua vasca fue sin duda el príncipe Luis Luciano Bonaparte. René Lafón reconoció que la geografía lingüística del país vasco llegó a ser conocida hacia 1870 de manera muy precisa y muy segura gracias a los trabajos de L. L. Bonaparte, único lingüista que había realizado encuestas sobre el conjunto de las variedades vascas en el siglo pasado (de 1856 a 1869) y que dedujo una clasificación de las mismas. Califica de magnífico su *Carte des sept provinces basques*. Nuestro erudito vascólogo don Julio de Urquijo, dijo: «pocos hombres se han dedicado con más ahínco que él al estudio de nuestra lengua, y ninguno le ha igualado, si se exceptúa tal vez al señor Azkue, en la penosa e ingrata labor de recoger hechos y materiales lingüísticos que pudieran más tarde servir de base a ulteriores trabajos».

El príncipe Bonaparte, que recibía ayuda financiera de su primo Napoleón III, había realizado diversos estudios de otras lenguas antes

de interesarse por el vascuence, pero en la segunda mitad de su vida se dedicó plenamente a los estudios del euskara. Antes de venir al país, durante cuatro años estudia la lengua en los libros, y cuando se siente ya preparado, viene dos años seguidos a estudiarla en el propio país. Ya no vuelve en el intervalo de ocho años, pero el trabajo —el suyo y el de sus colaboradores— aumenta y se perfecciona. Pues es preciso decir que el príncipe localizó colaboradores a lo largo de la geografía de nuestro país y de ellos se servía para documentarse de las variedades dialectales. A continuación, cuatro años de nuevas expediciones por nuestro país, sólo interrumpidas por una grave crisis cerebral que, durante el invierno 1867-1868 y como resultado del enorme esfuerzo de dos viajes en un año, puso en grave peligro su vida. En su cuarto y último período, se producen grandes cambios en sus medios de vida; caída del Imperio de Napoleón III; supresión de sus recursos económicos; sus ediciones cesan. Pero él, para entonces, había clasificado con gran precisión las variedades dialectales del idioma vasco.

Luis Michelena, en una reciente exposición sobre la necesidad de la sistematización de encuestas hacia la formación de un atlas lingüístico, reconocía al príncipe Luis Luciano como: «precursor distinguido de la dialectología moderna, se valió de dos clases de materiales: de los que él mismo recogió *in situ* o al menos de informadores a los que hacía acudir adonde él se encontraba, y de traducciones de textos, de carácter generalmente religioso (versiones bíblicas, catecismos, etc.), que encargaba traducir, con instrucciones muy precisas, al hablar de una localidad o comarca, a personas (a menudo religiosos, alguna vez seculares) que tenía por buenos conocedores del habla en cuestión y capaces, esto era indispensable, de seguir al pie de la letra sus indicaciones para que las versiones fueran reflejo fiel de la variedad lingüística que, a título de muestra, intentaban amplificar».

L. L. Bonaparte tuvo sus diferencias con Vinson y Van Eys. No obstante, fue elogiosamente ponderado por los mismos. He aquí una frase textual de J. Vinson: «Hombres como él son raros y conviene citarlos siempre como ejemplos. El príncipe Bonaparte se me presentó siempre como un sabio modesto y tímido, a pesar o quizás a causa de su elevada posición oficial; como un trabajador encarnizado e infatigable, hombre de fe y de conciencia».

A él debemos la primera distribución geográfica de los dialectos y subdialectos de nuestra lengua. A su costa editó numerosas obras, entre las mismas la Biblia completa vertida por el capitán J. Duvoisin. Su recuerdo pesará entre los ilustres vascólogos.

1980-VIII-11.

## JULIEN VINSON EUSKALARIA

Lehenago denboretako euskalari ospetsuen artean bere leku berezia merezi du Julien Vinson paristarrak ere. Gaztaroan Indian bizi izan zen eta han agertu zuen nonbait hizkuntzak ikasteko zuen berezko ahalmena. Hogetabat urtekin Nancy-ko «Ecole Forestière»n estudiatu zuen. Baita ere hiri hontan osatu zituen liguistikazko ikastaroak, alemanez eta frantzez literaturaz. Ikerketarako dohainak zituenez, hango irakasle batek bultzatu omen zuen euskarazko ikerketak hastera. Dena dela, oihanetako Inspektore general etorri zen Euskal Herrira, 1866tik Baionan bizi az.

Euskaraz ondo ikasi zuen, hizkuntza honetan gauza askorik idatzi ez bazuen ere. Hirurogei urtetan, bere bizitzako parterik gehiena, euskalaritzari eskaini zion. Jenioz bizia zen eta bere aburuak zorrotzak izaten ziren. Honegatik, euskaldun asko mindu zen berakin, baina bere kritika horiek onuragarriak izan ziren euskal alorrean. Gure hizkuntzaren edertasunez ametsezko zorabioetatik ari zirenak ongi zigortu zituen eta era berean literatur landuaren ordezkari literatura antzua egiten zihardutenak. Esan bezala, etsai asko lortu zituen, baina bere aburuek ikuspegi berriak ideki zituen.

1867an «Revue de Linguistique et de Philologie comparée» sortzaileen artekoa izan zen Paris-en eta aldizkaria honetan argitaratu zituen bere lanik gehienak.

Bere ustez euskaldunak lo zeuden, eta gure herriak etzuen ezer onik bere hizkuntza kenduezkero. Beraz, akullu ona izan zen lozorroan zeudenentzat.

Gure herri literatura biziki maite zuen, ahoz aho populuak bere usuarioz zekartzan kondaira, ipui, kanta, esaldi eta esaera eta abar, bilduaz aritu zen. Zuberoako pastoralak ere gogoko zitzaizkion. Herri literatura aberatsa eta berezia genuen bere eritziz. Bilketen ondorioz *Le Folk-lore du Pays Basque* (1883) deritzan liburu bat argitaratu zuen. Hontarako, esan beharra dago, Francisque Michel-ekin harreman onak izan zituela.

Baina euskal kulturari eskaini zion lanik baliotsuena, zera izan zen, *Bibliographie de la langue basque* (1891) eta *Complément et Supplément* (1898). Lan horiek euskal literaturaren azterketarako behar beharrezkoak izan dira gure egunotan J. Bilbaoarena agertu arte. J. Vinson-ek baino lehen Allende Salazar bizkaitarrak ere egin zuen bibliografiako bilduma handi bat, baina euskarari ez zion eman tokatzen zitzaion lekurik. Julien Vinson-entzat ordea euskara zen gure herriari bere nortasuna ematen zion hizkuntza eta behar beharrezkoa iduritu zitzaion hontan zegoen guziaren berri ematea.

Gure egunotatik begiratuaz, edozein abertzale kultur zalek bezala sentitzen eta sufritzen zuela J. Vinson-ek ikus dezakegu. Gauzen mira joko bai zuen axalean gelditu gabe. Eta, bere lan bikainari esker, posible izan da Euskal Literaturaren historiak idaztea.

Ikerketarako oinarri egokiak jarri zituen Vinson-ek. Egia esan, bere lana aintzina Britainia Handian Ricard de Bury zenak egin zuen erakoa izan zen. Eta, Julio Urkixo izan zen hemen bere urratsak iharritu zituena.

Esan dugunez, oso guti idatzi zuen euskaraz. Hala ere, bere hamalaudunak (sonetoak), aipagarriak dira. Daranatz «Eskuara» poema agertzean egin ziona aski ezaguna da, eta bere euskarazko idazkeraren adibidez hara hemen Jose Manterolaren heriotzaz egin zuena:

*Eliza-zelhayetan arima hardiak  
Elgarri elbaketan, dire paseiatzen,  
Leku ederrenean obi dira biltzen  
Etcchepare lebena duten Euskaldunak.*

*Gizon famatu boyei martchoaren-bilak  
Bozkario handi bat diate ekartzen,  
Erdian Manterola delarik agertzen,  
Lore eder, emana zeruari lurrak.*

*Immortalitatean sartu zirelako,  
Jose, pentsatzen dugu hemen, guk, nigarrez  
Etzaitugula lehen eraz adituko;*

*Jaizkibel beztitu da tristerik elburrez,  
Marrumaka dohakon, olari erranex:  
ahura bezelako bat non da kausituko.*

(París, 1884-IV-8.)

Bere orduko idazkera ikutu gabe hartzen dugu. Jose Manterola donostiarra urte hortako otsailaren azken egunean hil zen. Eta, J. Vinson-en hamalaudunak argi erakusten digu paristarraren bihotza gure idazleanganako maitasunez beterik. Bestalde, euskal poetarentzako zeru hoberik ezin zitekean opa.

### **Julien Vinson, el vascólogo**

En vísperas de los Encuentros Internacionales de Vascólogos y a la hora de dedicar un recuerdo a los personajes ilustres del pasado en

los estudios vascos, nos es ineludible recurrir a la memoria de Julien Vinson.

J. Vinson, parisino de nacimiento, vivió largos años de su infancia y juventud en India, donde mostró facilidad para el aprendizaje de las lenguas. En 1864 estudiaba en la Ecole Forestière de Nancy, y es aquí donde completó sus conocimientos lingüísticos con cursos de alemán y de Lengua y Literatura francesas a cargo del profesor Emile Chasles, quien le dio noticias de la lengua vasca.

Desde 1866 residió en Bayona y era Inspector General de Bosques.

Durante sesenta años se dedicó a los estudios vascos. Se le ha considerado hombre severo en sus juicios, en ocasiones hasta hiriente. Dirigió duras críticas a los soñadores tubalicos que aún vivían en el falso conformismo con las delicias etimológicas en la lengua primitiva, «originaria» de todas las demás lenguas. Por otra parte fue exigente para los cultivadores de la literatura. Pero no hay que olvidar que en la misma medida supo valorar la literatura popular, cuyo testimonio más elocuente es su obra *Folk-Lore du Pays Basque*.

La mayoría de sus muchísimos trabajos vieron la luz en la «Revue de Linguistique et de Philologie comparée» de Paris. Escribió muy poco en vascuence. No obstante, disponemos de algunas muestras interesantes.

Su principal aportación a la cultura vasca constituyó su *Essai d'une Bibliographie de la langue basque* y su *Complément et Supplément*. Fruto de largos años, y que sirvió de base para la formación de una historia de la literatura vasca. Obra que ha sido de indispensable consulta para todo investigador hasta nuestros días, prácticamente hasta que haya visto la luz la magna obra de J. Bilbao.

Este ilustre euskarólogo, al que difícilmente podremos olvidar, falleció en Libourne en 1926.

1980-VIII-18.

## SORTZAILEEN MEZUZ

Gaur bertan hasiko dira Gernikan Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak, bihartik Leioan Euskal Herriko Unibertsitatean iharraitzeko. Iragarria zegoen bezala, aste oroz izango dira euskalarien jardunaldiak, goizez akademilari bilkuraz eta arratsaldez atzerritarrei Euskal Herriko



geografia, leku historiko eta artistikoak erakutsiaz, era berean agiri zaharrak gordetzen diren artxibo eta biblioteken berri emanaz.

Partaide diren 25 atzerritarretatik 5-ek txostenak eta 9-k aurkezpenak irakurriko dituzte, beste 15 Euskal Herrikoak 2 txosten eta 13 aurkezpen. Guziz, batek bi aurkezpen dituenez, hogeitahar hitzaldi emango dira. Ikerketen egoera, fonologia, tipologia eta konparaketa, joskera, dialektologia, morfologia, eta iker premiak aurrera begira izango dira bertako gai nagusiak eta hitzaldi guziak inguru hortatik joango dira.


Lehen aldiz egiten dira holako biltzarrak eta jende askorentzat harrigarriak izan daitezke. Baina ekintza honekin, Euskaltzaindiak, bere sortzaileen mezua betetzen du. Beste zenbait gaiez aparte honako hau ere bete beharrezkoa zuenez.

Aurretiko artikuluetan, Jardunaldi hauen egitekoaz gainera, lehenagoko euskalaririk aipagarrienen berriak eman nituen. Hainbeste zor zaion S. Altube zenegandik hasi eta Humboldt, Bonaparte eta Vinson atzerritar euskalarien berri emateaz. Orrialde hauetan beste batzuk bete dute Euskaltzaindiaren sortzaile izan zirenen nortasunez adieraztea. Honegatik, gaurkoan, laburki baino ez bada ere, sortzaile haien mandatua zertan den agererraziko dut.

Azkue, Eleizalde, Kanpion eta Urkixo izan ziren 1918an Oñatiko Batzar Nagusi haietan Euskaltzaindia sortzeko izendatuak. Elizalde, beste zenbait lanen artean Morfologia baten egile zena, zoritxarrez, handik lasterrera hil zen eta etzuen izan bere nahiak betetzeko aukerarik.

Julio Urkixok ordea, «Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca» zeritzan hitzaldi bat irakurri zuen Oñatin bertan, 1918ko irailaren 3an. Lehenago ere holako lan bat egina zuen frantzezez (RIEV, vol. V, 1911). Gai hau izango da egun Haritschelharrek Gernikan agertuko duena. Garai hartatik honuntza abantaila handiak egin dira euskararen ikerketaz. J. Urkixo berak, behar bada, Oñatikoaz geroztik ezer guti eman zuen bide hortatik, baina egia esan, RIEV aldizkaria aurrera eramate lanak ez zion betarik utzi. Bere emaitza onuragarria izan zen beste alderdi askotatik.

Arturo Kanpionek ordea, 1884. urtean gramatika aipagarri baten mendeurrena betetzen delarik, literaturaz landuenak ziren lau euskalkiren gramatika handia, beste merezimendu ohoregarririk badu gure oroitzapenean J. Urkixok Oñatin agertu zuen gaiez frutu ederrik eman zigunez, zeren euskararen ikerketaz egin zenaren berri aski luze eta sakon eman bai zuen bere *Euskariana* saileko liburuetan. Adibidez, gogoangarriak dira sail hortan *Los orígenes del pueblo euskaldun* ize-



Ezkerretik eskubira, zutik: Julio de Urkixo eta Serapio Mujika.  
Eserita: Karmelo Etxegarai, Arturo Canpion, Txomin Agirre eta Juan Karlos Gerra.

nez eman zituen hiru tomoak, 1927, 1931 eta 1936. urteetan agertuak. Euskal Herria bere antropologiaz, etnografiaz, arkeologiaz, historiiaz eta hizkuntzaz aztertzean, Hizkuntzaren ageriz eman zituen berririk gehienak, bigarren tomoko 106. orrialdetik 431. orrialdean bukatu arte eta hirugarren tomoa oso osorik. Gainera, 1920. urtean Euskaltzaindiaren eskariz eta Broussainen laguntzaz, L. Eleizaldek Oñatiko batzar hartan euskara idatziaren batasunez hartu behar ziren bideak markatu zituen joera beretan oinarrituaz, batasunaren teoriako lehen txostena gertatu zuen.

R. M. Azkue berak, teoria horietan oinarriturik eskaina zuen *Gipuzkera osotua*, bide berdintsuak urratsez. Eta, funtsean, inork ezingo du ukatu gaur egungo joerak sortzaile haien mandatua iharraitzen ez duenik.

Azkueren lanak, bestalde, S. Altuberenak joskeraz bezala, hiztegi eta morfologian oinarri oinarritzkoak dira. Azkue, gizon handia, benetan handirik bada. Hiztegi handi haren ondotik kantategi handi bat bildu zuen eta, gero, Euskaltzaindiaren eskariz, *Morfologia vasca*. Liburu hau, oraindik orain ere oinarritzkoa da euskara ikertu nahi duena-

rentzat. Herri literaturaren bilketaz aparte, zenbait euskalki ere estu-  
diatu zituen.

Sortzaileen lanak ikusiz, inork ezingo du ukatu haien mezuz iha-  
rraitzen ez denik. Mitxelena, Lafitte, Villasante eta beste zenbaiten lan  
handiak aparte, hor daude beste bilketazko lan asko lekuko Jardunaldi  
horietan aurkeztuko den *Euskera* aldizkariaren «Index»ean ikus daite-  
keanez. Urte zailak izan baditugu ere, ez gara lotan egonak, berrogeta-  
bat tomoen aurkibideak ikustea besterik ez dago. Eta, *Euskera* aldiz-  
karitik aparte ere bada lanik anitz, Liburu zuria, sozio-linguistikoko iker-  
keta eta abar. Euskaltzaindiak horrela bete bai ditu bere lanak sortzaileen  
mezuz.

### En mensaje de fundadores

Hoy darán comienzo en Guernica los Encuentros Internacionales  
de Vascólogos, para continuar desde mañana en Lejona, en la Universi-  
dad del País Vasco.

Participan 25 lingüistas de 10 países diferentes, con cinco ponencias  
y diez comunicaciones, aparte de 15 vascos con dos ponencias y  
trece comunicaciones. Cuyos temas se desarrollarán sobre fonología,  
tipología, sintaxis, dialectología y morfología, aparte de las ponencias  
de apertura y clausura que discurrirán en torno al estado actual de las  
investigaciones y perspectivas de las mismas con miras al futuro.

Con esta actividad, la Real Academia de la Lengua Vasca, conti-  
núa el mensaje recibido de sus fundadores. Principalmente de los tres  
representantes nombrados al efecto en aquel Congreso de Estudios  
Vascos celebrado en Oñate en 1918: R. M. de Azkue, A. Campión,  
L. Eleizalde y J. de Urquijo.

Precisamente, el tema presentado por Urquijo al Congreso de  
Oñate fue un esbozo que se titulaba «Estado actual de los estudios rela-  
tivos a la lengua vasca», tema que hoy desarrollará el señor Haritschel-  
har durante el acto de apertura.

Luis de Eleizalde murió joven para poder aportar trabajos a la  
institución naciente, aun así son dignos su Morfología vasca y el  
discurso de Oñate en torno a la necesidad de la unificación del euskara  
escrito. Su teoría fue una importante aportación que más tarde desarro-  
llarían, por mandato de la Academia, Campión y Broussain, en cuyas  
bases se asienta el *Gipuzkera osotua* de Azkue, y, por supuesto, tam-  
poco se distancia la normativa actual en su fundamento básico.

J. de Urquijo estuvo excesivamente ocupado con la Revista Internacional de Estudios Vascos para poder atender personalmente a las necesidades del euskara; no obstante, fue muy importante su aportación a través de la referida publicación. Campión, autor de la Gramática de los cuatro dialectos literarios, informó en considerables síntesis los testimonios lingüísticos en los tomos segundo y tercero de *Los Orígenes del pueblo euskaldun* en la serie de sus *Euskarianas*.

Pero el gigante de los estudios del euskara, sin duda alguna, fue Resurrección María de Azkue, con su Diccionario trilingüe, el cancionero, la *Morfología vasca* (obra fundamental, realizada por encargo de la Academia), las recopilaciones de la literatura popular y otros muchos trabajos, la mayoría publicados en el órgano *Euskera*.

La labor actual no es más que la continuación del mensaje recibido de los fundadores de Euskaltzaindia. Aparte de la gran labor personal de Michelena, Lafitte, Villasante y otros, se podrá apreciar en los 41 tomos publicados de *Euskera*, cuyo «Índice» por autores y materias se presentará durante las jornadas de vascólogos. Además, la Academia ha publicado otras obras como el Libro blanco, el estudio socio-lingüístico cuyo resumen se halla a la venta bajo el título *Conflicto lingüístico en Euskadi*, obras críticas de antiguos autores, etc.

1980-VIII-25.

## JARDUNALDIEN KRONIKA (I)

Programan iragarria zegoen bezala, abuztuaren 25ean hasi ziren Gernikan Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak, ondoko egunetan Leioan Euskal Herriko Unibertsitatean iharraitzeko.

Lehen egunean, Gernikan, Euskadiko gobernuko agintari eta lau Diputazioetako ordezkariak mahaiburu zirela, batez ere protokolozko eginkizunak bete ziren. Hasteko, Fr. Luis Villasante euskaltzainburuak agurrezko hitzak, Gernikako Andra Mari koralak «Agur jaunak» kantatu ondorean. Eta Euskaltzaindiko idazkariak atzerriko euskalarien agerpena egin zuen, beren izenak banan-bana aipatuz eta euskalariok zutituz. Ohoregarrizko aurkezpen hau beharrezkoa zen munduan zehar sakabaturik hainbeste urtean euskararen ikerketaz hain isil ahalegindu diren alde.

Han bertan, Jardunaldieri zuzenki zegokion lehen hitzaldia eman

zuen Jean Haritschelhar euskaltzain buruordeak; bere gaia: *Euskarari buruzko ikerketak gaur egunean*. Ondoko egunetan erabiliko ziren gai bakoitzean azken urteotan zer nolako abantailak eginak diren adierazi zuen, sarrerako hitzaldi gisa. Argibide aberatsak eskaini zituen, linguistika eta filologia arloan egungo egoerara erakarriaz.

Andra Mari koralak Euskaltzaindiko ziren musikarien konposaketaz hornitu zuen eguneko ekintza: J. Olaizola, R. M. Azkue, J. A. Donostia, S. Altube eta koral horren zuzendari eta Jardunaldi hauen antolaketaz batzordeko idazkariak, J. A. Arana Martija berberak, egun honetarako gertatu duen «Gernikako arbola»-rekin bukatzeko.

Azkenik, Euskadido gobernukoak hartu zuten hitza, Kultur sailburu den Labaienek eta Hezkuntza-sailburu den Etxenikek, lehenak euskaraz eta frantzezez eta bigarrenak euskaraz eta ingelesez ongi etorria eta eskerrona agertuz, eta ondorean Garaikoetxea lehendakariak, ekintza hau goraiatuz, euskaraz eta espainolez, ongi etorria emanaz batean idekitzat eman zituen Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak.


Gomitatu, euskalari eta antolatzaile zenbait, ondorean, Santimamiñe deritzan haitzulora joan ziren. Harriaroko aztarnategia eta pinturak erakusteko gidari ona izan zuten Jesus Altuna arkeologoagan.

Lezika baserrian bazkaldu ondorean, ostera ere Gernikara. Batasun plazan, X. Amuriza, J. Enbeita, J. Azpillaga, J. Agirre eta Xanpun, Bizkai, Gipuzkoa eta Lapurdiko bertsolariak izan ziren euskalarien atsegingarri. Euskalaririk gehienok inoiz ez bai zuten izan bertsolariak plazan entzuteko aukerarik, eta gure herri literaturak duen gauzarik bixiena dugun bertsolaritzak, esan beharrik ere eztago ze pozik jarri zituen atzerritarron bihotzak.

Biharamunean, abuztuaren 26an, eta ondoko egunetan, Leioan iharrituko ziren Jardunaldiok.

Mundu guzian hain ospetsu den André Martinet hizkuntzalariak ideki zuen Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatean, *Euskararen fonologia sinkroniko eta diakronikoari* buruz lehen hitzaldia. Euskarak bere barnean izan dituen hotsen aldakuntzazko eboluzioak linguistikarako duen garrantzia adierazi zuen. Aldakuntza horiek argi daudela adierazi zuen batez ere oklusibak (p, t, k; b, d, g) eta xistukarizkoak (s, x, z, ts, tx, tz) ahozkatzean, eta h letra berak ere zer ikustekorik izan zuela. Baita ere, itxura denez, gaztelaniaren hotsetan ere bere influentzia izango zuela euskarak. Horrezgainera, euskararen barne egitura aipatu zuen Europako hizkuntzen artean gauza berezi bezala.

Hitzaldia oso teknikoa izan zen eta, jakina den bezala, entzulerik gehienak ez ziren iristen ulertzeko mailara. Ezta harritzekoa gauza bera gertatzea kazetariei ere. Honegatik, hitzaldi ondorean, kazetarien galderak



euskalarien nazioarteko jardunaldiak  
bascoologists' international meetings

encuentros internacionales de vascoólogos  
rencontres internationaux de bascologues

*Txillidaren irudia Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietarako.*

beste bide batzutatik joan ziren. Euskara batua ala euskalkiak? Normala den bezala, askoren artean hain bizi dagoen problematika. Martinetek argi ta garbi agertu zuen euskara batuaren beharra ofizialtasunerako, batez ere aministrazioan behar beharrezko zaigunez. Hala ere, euskalkiak bizirik daudenez, beren iraupenak laguntza behar du. Bestalde, baita ere gehitu zuen garai bakoitzeko egoerari erantzun beharra eta hizkuntza bezala iraunaraztea nahi badugu batasuna lortu beharra.

Egun berean, fonetikaz mintzo zen Kilburn MacMurrough. Honek, ahoko lege fisikoen aldetik gehiago begiratu zuen, bere espezialitatea hor denez gero. Euskaraz poliki mintzatu zen eta honek eman zien bidea kazetariari gure hizkuntza ia zaila zen adieraz zezan. Eta, MacMurrough jaunak gure metodoak atzerakoiak zirela agertu zuen. Bere ustez, euskara ikasteko metodoak bizkortzeko beharrezkoa zaigu «audio-lingua» deritzan era berrietara jotea.

Goiz berean, E. Knörr eta P. Sancristoval Euskaltzaindikoek beren aurkikuntzen berri eman zuten.

Arantzazuraino joan ginen bazkaitara. Asteko egunik euritsuena tokatu zitzaigun. Baína, guk, euskalari kanpotiarrei bertako kultur lekuak erakutsi nahiaz, programari jarraitu nahi genion. Arratsaldez, eliza eta liburutegia ikusi ondorean Oñatira jaitsi ginen Unibertsitatea eta bertako artxibo eta liburutegiak ikusteko. Arantzazun K. Zubizarreta bezala, Oñatin J. M. Agirrebalzategi izan genuen erakusle gidari. Gainera, Udaletxeok, ongi etorria emateko, herriko dantzariak ekarri zituzten. Folklore biziaren ezaugarri Korpus eguneokoa dantzatu zituzten.

## Crónica de los Encuentros (I)

Siguiendo el anunciado programa, el día 25 de agosto dieron comienzo los Encuentros Internacionales de Vascólogos en Guernica para continuar, días sucesivos, en la Universidad del País Vasco, en Lejona.

El primer día privaron los actos protocolarios, presididos por el señor Garaicoechea, los consejeros de Educación y Cultura y los representantes de las cuatro Diputaciones, Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, fundadoras de Euskaltzaindia y el presidente y secretario de esta entidad académica.

Tomaron la palabra el presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, los consejeros de Cultura y Educación y el presidente Garaicoechea, con saludos de bienvenida y de apertura de los Encuentros.

El señor Haritschelhar, vicepresidente de la Academia, expuso la primera de las ponencias a modo de introducción sobre el estado actual de las investigaciones sobre el euskara.

La coral Andra Mari de Guernica actuó con un repertorio de obras cuyos autores fueron miembros de Euskaltzaindia, para terminar con el «Gernikako arbola» compuesto por su director y secretario de la comisión organizadora de los Encuentras J. A. Arana Martija.

Seguidamente, los vascólogos, convidados y miembros de la organización se trasladaron a Santimamiñe, donde pudieron contemplar el yacimiento y las pinturas parietales del Paleolítico guiados por el arqueólogo don Jesús Altuna.

Tras el almuerzo en el caserío Lezika, próximo a la cueva de Santimamiñe, en la plaza de la Unión de Guernica hubo actuación de bersolaris, al objeto de mostrar a los vascólogos esta particularidad de nuestra literatura popular, y seguidamente, en el frontón Jai-Alai pudieron contemplar un partido a cesta-punta.

Desde el día 26 siguieron las jornadas en el *campus* de la Universidad del País Vasco, en Lejona, iniciando con la ponencia del prestigioso lingüista André Martinet, sobre Fonología sincrónica y diacrónica del euskara. Se centró principalmente en la evolución que ha sufrido el sistema consonántico del vascuence. Que ello se debe, según Martinet, a los cambios acaecidos en las consonantes oclusivas (p, t, k; b, d, g) y silbantes (s, x, z, ts, tx, tz), y la función ejercida por la aspiración (h) en su desarrollo. También se refirió al acento y su aparente influencia en el castellano. Además, hizo alusiones a la estructura interna del idioma vasco.

Después de cada ponencia se dio oportunidad a los periodistas para entrevistar con el orador, y en este caso, las preguntas se orientaron a recoger opiniones sobre el euskara batua y los dialectos. Martinet dijo, a este respecto, que la unificación le era necesaria a la lengua vasca para la oficialidad y uso como lengua de administración, y, naturalmente, la lengua escrita común se tenía que aplicar en la enseñanza, pero que la lengua viva estaba dispersa en los dialectos y convendría ayudar a su mantenimiento, buscando un equilibrio ideal, adaptando la enseñanza de la lengua a cada situación concreta.

A MacMurraugh que expuso un comunicado sobre fonética, tal vez por su dominio del euskara, le preguntaban sobre la dificultad de aprender el vascuence. El mostró la necesidad de aplicar técnicas más modernas para la enseñanza de las lenguas, como es la aplicación de *Audiolingua* que no debemos confundir con *audiovisual*.

Por la tarde se visitó el Santuario de Aránzazu y la Universidad



de Oñate, explicando su historia y mostrando sus valores artísticos y el contenido de sus respectivos archivos y bibliotecas.

1980-IX-8.

## JARDUNALDIEN KRONIKA (II)

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak ez ziren joan itxuraz bezain zelai eta baketsu, antolatzaileontzat behinik-pehin. Holako ekintza batek berez izaten ditu eragozpenak eta desbideratzeak. Hala gertatu ere. Matrikulatuez, gure aurreikuspenak labur gelditu ziren. Uste genuen ehundik ehun eta berrogerira matrikulatu izango genituela, filologia estudiatu dutenen eta estudiantzen ari direnen kopurua kontuan harturik (horietarik 50 matrikulatu ziren) eta linguistica alorrean mugitzen direnak barne zirela. Baina, antolatzaileon zoritxarrerako eta euskararen zorionerako, gure usteak ustel. Berrehuen da berrogeitahamardik pasatu ziren.

Lehendik, opor garai zelako, itzultzaile gutiegi hain denbora laburrean horrenbeste lan itzultzeko. Bestalde, bat-bateko itzulpenetarako euskarazkoan eskolarik ezagatik, gure hizkuntza honen ezina. Gela handi batean lau hizkuntzak bat bateko itzulpenetan erabili ahal izateko tresna-gailurik eza eta abar. Aldez aurretik aditzera eman zenez, hitzaldien gelatik aparte, beste bi gelatan euskaraz eta gazteleraz emango zen monitoren bidez (telebistaz), baina ez ginen oroitu hirugarren bat zuzenean jartzeaz eta arrazoi osoa zuten ingelesez eta frantzezez zekiten matrikulatuak zuzenki entzuteaz. Honegatik, Leioan, bigarren egunean hirugarren monitor bat jarri zen zuzenean entzun nahi zuenarentzat. Lehen bi egunetan, tarteka, huts teknikoak ere izan ziren eta hitzaldi guziak osorik entzuteko eragozpenak izan ziren. Baina bigarren egunetik aurrera hontaz ez zen kejarik jaso.

Bestalde, asteazkeneko programa oso estu eraman zen, hitzaldi gehiegi bildu zelako. Hemen ere bada gertatua adierazi beharra. Txosten edo ponentzien programaketa egin ondorean egin ziren agerpen edo komunikapenen eskariak, hontarako epe bat jarriaz. Epe horren barruan bizpahiru besterik etziren jaso eta zenbait Euskaltzaindikori bigarren deia egin genien zerbait bidali zezaten. Gero, bat batean, epetik kanpora, zenbait lan eta batzuk bai eta beste batzuk ez aukeratzeaz inor ez ginen ausartu. Beraz, denak barrura, baina gero geroakoak. Arratsal-

detako programaketak eginak ziren eta dena estu estu sartu behar. Eskerrak hizlariak bildurik eta gertatua adierazi ondoren bakoitzak berea laburtzea lortu zutela, bestela larri behar genuen. Dena dela, lan guziak oso osorik liburu batean argitaratzeko asmoa dugu.

A. Tovar Konparaketaz, *Lexico-estadistikaz eta tipologiak* mintzatu zen. Entzuleengandik txalo beroak jaso zituen eta ondo merezi ere bai hitzaldi honegatik eta bai euskara hain zapaldua zen garai haietan bere alde aldarrikatu zenak ondo irabaziak zitueta. European lehenago izango ziren hizkuntza zahar haietako baten aztarnak aurkitzen dira euskaran eta bere urrutiko senideak behar bada European ekaldean edo haratago daude. Tipologiak non kokatzen den eta konparaketetarako gaur egun erabiltzen diren teknikak agerrerazi zituen.

Tovar-i ere, zenbait kazetarik, euskararen batasunezko galdea egin zioten. Batua, hil edo bizikoa omen da, eta administraziorako behar beharrezkoa. Zelako batua, euskaldunon kontua dela eta batez ere Euskaltzaindiaren lana. Horrez gainera, euskalkieri ere begiratu beharra, bizirik iraun ditzaten.

Mukarovsky-k bere aurkezpenean, Afrikako ifarraldeko hizkuntze-kin duen senidetasuna agerrerazteko frogak azaldu zituen, Oroz Arizkuren euskara-ibero teoria zaharra zertan datzan, Kintanak Kartveliar izen batzuren kidetasunez, Braun-ek kaukasiar-euskara azterketak. Beraz, konparaketazko aurkezpenak ugari ziren, baina inork hortaz fede guti. Hoiengandian, Brettschneider-en agerpena bestelakoa izan zen, hizkuntzen tipologia eta hizkuntza unibertsalak eta euskara horien artean konparatuz.

Hizkuntzalari aldetik, Gunter Brettschneider-ek teoriak praktikotasuneran eramaten dakiela erakutsi zigun. Honegatik zion euskara ez dela beste hizkuntza bat baizik, hizkuntza normal bat eta salbatzerik nahi badugu hizkuntza oso gaitza den mitoa baztertu behar dugu, bildurra eta errespetoa galduz. Bestalde, euskara batua beharrezko ikusten du, baina euskalkiak ere ezin ditzakegu ahaztu. *Deia*-ko kazetariari adierazi zionez: «Telebista euskaraz jarri behar baldin bada, esate baterako, esan beharrik ere ez euskara batuen izan behar duela. Eta telebista bezala hizkuntza ofizial guztia; euskara batua ez baita hizkuntza ofiziala baizik. Baina bada hizkuntza ofizialaren gainetik tokian tokiko beste herri-hizkuntza bat eta hori ere behar da landu, dialektoen aberastasun hori ez galtzeko».

Terence H. Wilbur-en txostena: *Euskal sintaxia, forma logikoa eta aditz laguntzailea* gaiaren inguruan izan zen. Wilbur-entzat harri-garria da euskararen egitura. Honegatik, euskara ikasteari heldu zionean, Californian bizi den euskaldun batek esan omen zion, hitz eta

aditzen joskerak atzekoz-aurrera ikasteko. Eta, arrazoia omen zuen, joskerak beste era batera egiten direlako. Hori, beretzat, interesgarriagoa izan zen eta hortatik eraman ditu bere ikerketak; gaur egun hemen agertuak.

P. Lafittek aditzari buruz aurkeztu zuena ere oso interesgarria izan zen.

Atxondon, baserri giroko bazkariarekin batera kantari eta soinu-joleak ziren eta ondorean Garai eta Berrizko dantzariak, harrijasotzaile, aizkolari, ahari-talka eta abar.

Elorrioko Udaletxean ongietorria, bertako parrokian euskal-gotiko arkitektura adierazi eta Argiñetan hamargarren mendeko hilobi eta hilarriak erakutsi ondorean berriz Bilboruntza.

Egun beteegia gertatu zen eta azkenerako denak akituak.

Gainera, egun hontan, presaka egin zen *Euskera* (1920-1979) «Index»-aren aurkezpena, egile eta gaien aurkibideekin hirurehun orrialdek osatzen dutela.

## Crónica de los Encuentros (II)

El día 27, la organización tuvo que superar una serie de dificultades debido a una asistencia superior a lo previsto y a varios fallos técnicos en las traducciones simultáneas. Además, para este día se instaló otro monitor de circuito cerrado para aquellos matriculados que preferían escuchar en directo, pues las otras dos salas estaban destinadas para poder escuchar en vascuence y castellano.

Este día hubo dos ponencias. La primera de A. Tovar sobre el tema: *Comparación: Léxico-estadística y tipología*. Y, la segunda, de T. H. Wilbur en torno a la *Sintaxis del euskara*. Ambas se siguieron con gran interés por los oyentes.

Este día estuvo excesivamente recargado de comunicaciones, casi todas de temática comparativa, desde las lenguas africanas hasta las caucásicas pasando por la ibérica. La mayoría de los lingüistas abrigan pocas esperanzas de los resultados de estas investigaciones; pero, sin embargo, el interés del público fue creciente.

Gunter Brettschneider centro la suya sobre la tipología del euskara en relación con otras lenguas, con una exposición muy técnica y precisa, mostrando su profundo conocimiento del euskara.

La comunicación de Pierre Lafitte sobre las similitudes de los

verbos navarro-labortano-guipuzcoano, basándose en los textos de Lizarraga, fue una valiosa aportación.

Las entrevistas a los ponentes siguieron la misma trayectoria. A. Tovar declaró al periodista de *Deia* que «una lengua hoy no puede subsistir sino con escuela y con los medios de comunicación modernos, y una forma de lengua unificada es necesaria para que sirva en estos usos y en los de la administración autónoma. Privar hoy a una lengua de esto es lo mismo que condenarla a muerte. El camino de la paz en las provincias vascas y en España pasa, tanto por la política, como por la política lingüística».

Para Terence H. Wilbur, según declaraciones a *Egin*, «la lengua vasca es una de las menos conocidas del mundo, dándose la circunstancia de que el euskara es una lengua exótica que no vive en una tierra remota, sino en la parte más occidental del Oeste de Europa». Asimismo argumentó que no se sabía bastante acerca de todas las lenguas del mundo: «Es un subterfugio, ya que todas las buenas teorías se basan en pruebas incompletas. Bajo mi punto de vista, los universalistas se han pasado» señaló. Como anecdótico contó que en cierta ocasión un viejo amigo vasco de California le dijo: «Si vas a estudiar euskara apréndelo hacia atrás: Ello significa que la sintaxis en este idioma se invierte, y éste es el mayor problema para los que hablan las lenguas circundantes procedentes de las indoeuropeas».

Para Brettschneider ya va siendo hora de romper de una vez para siempre el mito de que el euskara es una lengua difícil. El euskara es una lengua normal como otra cualquiera, sólo diferente de las que la rodean. La unificación considera necesaria para la oficialidad pero buscando los medios necesarios para mantener vivos los dialectos.

En esta apretada jornada se presentó el «Índice» de la revista *Euskera*, órgano oficial de Euskaltzaindia, donde se recogen los frutos de las investigaciones, trabajos y actas de la Academia, desde 1920 hasta 1979, ordenados por autores y materias y que en lo sucesivo constituirá una obra de consulta indispensable para todo aquel investigador sobre la lengua vasca.

Hubo comida rural en el valle de Achondo con actuaciones folklóricas y visita a Elorrio para mostrar su parroquia del gótico-vasco y los sepulcros de Arguiñeta, del siglo X.

1980-IX-8.

### JARDUNALDIEN KRONIKA (III)

Abuztuaren 28ko bi txostenak *Dialektologia* eta *Aditzaren Morfologia* zituzten gaitzat, Jacques Alliéres eta Robert L. Trask irakasleak adieraziak. Gehienentzako aurretikoak baino gai errazagoak ziren eta entzuleek atseginez jarraitu zituzten, bai txostenlarien mintzaldiak eta baita agerpenak ere. Hauek, Rebuschi, Altuna, Satrustegi, Txillardegi, Irigoyen eta idazle honen gain joan ziren.

Euskalkiez hainbeste lan egin duen Alliéres hizkuntzalariak literaturaz eta gramatikaz gehien landuak diren lau euskalki nagusien adierazpena egin zuen. Baina baita ere, dudamudarik gabe agertu zuen euskararen bizitza eta iraupena batasunari begira zegoela. Euskara batua hil edo biziko kontua zela. Hala ere, euskalkilari bezala, euskalkiok ez galtzearen aldekoa zela eta euskara batua eta euskalkien arteko oreka egokia lortu behar dela. Administrazioak batasuna eskatzen baldin badigu ere, euskalki biziak direla batasun iturri eta haueri begiratu beharra zegoela.

Kazetarien galderak hemendik joan ziren eta idea bera agertuko zuen Tolosako irakasle argiak. Erderatikako hitzak onartzeaz ere galde zitzaion, eta Alliéres-k, puntu hontan ere, argi ta garbi agertu zuen bere eritzia: «Hizkuntza guziak, beti danik, besteen hitzak onartzera behar-tuak izan dira».

Euskalkien ikerketak bere espezialitate dituen hizkuntzalari honen eritziak Euskaltzaindikoak ditugunekin bat datoz, izan ere, Alliéres jauna aspalditik bai da gure elkartekide. Zer esanik ere Jacques Alliéres euskaraz ongi mintzatzen dela. Gainera, ezta izan kasualitateko gauza Jardunaldi hauetara zenbait Euskaltzaindikok euskalkien ikerketazko lanak aurkeztea, lehendik ere horretan arituak izan zirenez.

Robert L. Trask, Liverpool-eko irakasleak aditzaren morfologia izan du bere txostenaren gaia. Aditz forma mugagabeak, forma mugatuak eta aditz morfologia eta joskera aztertu zituen. Bere lanean, gainera, aditzaren morfologia ergatiboa aipatu behar da, hizkuntza kaukasiko-koen salbuespenarekin, euskara delako ergatibotasun hau gorde duen Europako hizkuntza bakarra. Bestalde, argi azpimarratu zuen, gure artean askotxo iraun duela euskal aditza pasiboa zen usteak, baina gaur egun teoria hau guztiz hila dela. Gure aditza zaila den ustez honako hau zion: «euskal aditzaren zailtasun hori euskara Europako beste hizkuntzetatik desberdina izatetik dator, euskarak egitura desberdin bat duelako; baina, berez, euskal aditzak ez du berezko zailtasunik».

Zailtasunak aipatzeaz, beste ohar bat ere egin beharrez gaude.

Trask jaunak prentsaurrekoan agertu zuenez, Jardunaldi hauetan garbi ikusi da euskara gauza dela linguistika gaiok erabiltzeko; honegatik, «orainarte euskalari gehienok gure idazlanak erderaz idatzi ditugu, baina nire ustez bada garaia geure lanak euskaraz idazteko».

Zenbait Euskaltzaindikok erderetan egin zituzten beren agerpenak eta zer esanik ere eman dute euskaltzaleen artean. Egia esan, Nazioarteko Jardunaldiak zirenez, libre utzi zen bakoitzak nahi zuen hizkuntzan mintzatzea, inor behartzea itxurazkoa ez denez. Hare gehiago, batzuen ustez, egoki zen Euskaltzaindiko batzuk ingelesez edo frantsezez mintzatzea, euskaraz mintzatzeko zailtasuna zuten euskalari atzerritarren lagungarri. Hau da, erbestekoak bazterturik bezala agertu ez zitezen. Dena dela, bakoitzak berak nahi zuena hautatzeko eskubide osoa izan zuen.

Egun honetarako Bilbo zaharreko jatetxe hertsia hoietako batean programatua zen bazkaria, baina bertako ohituraren arabera emakumezkoak sarrerarik ez dutena. Antolatzaileok emakumeak ere sartzeko baimena eskatua genuen baina ezetza hartu ondorean, zenbait euskalarik beren emazteengandik bereizterik nahi etzutenez, Ertzilla ostatura aldatua izan zen. Gainera, euskalariak lanerako gogoz zeudenez, arratsaldean hemen bertan iharraitu ziren elkarrizketak, hizkuntzalari eta filologia saileko matrikulatuak deiturik.

Egun hontaz eta goizeko bileren ondotik txostenlariak kazetariekin izan zituzten elkarrizketetan beste gertakari aipagarriak ere izan zen. Adibidez, Allières jaunak gaztelara aski ongi zekin, baina euskara hobeki; aldiz, Trask jaunak, euskaraz oso ongi baina gaztelaraz ez. Kazetarien artean guti ziren euskaraz zekitenik eta euskaratik gaztelararako itzultzaileen beharrean aurkitu ziren. Orain behintzat ezin esan euskarak ezertarako balio ez duenik eta gure hizkuntza hain beharrezko bihurtzeak zer pentsa emango al diote komunikabideekin arduraturik dabiltenoi? Hala bedi. Dena dela, J. Allières frantzeza eta Suzuko Tamura japonesak elkarrizketa alai eta biziak izan zituzten euskara bide zelarik. Bada zer bait.

### Crónica de los Encuentros (III)

Las dos ponencias del día 28 de agosto, sobre *Dialectología* y *Morfología del verbo*, debido a los profesores Allières y Trask, como temas más asequibles, resultaron del máximo interés de la mayoría de los oyentes. Las comunicaciones, que discurrieron por los mismos temas, fueron presentados por Rebuschi, Altuna, Satrustegi, Txillardegui, Irigoyen y el que suscribe.

Jacques Allières, consideró los cuatro dialectos esenciales del euskara con una exposición general de los mismos, y a continuación matizó sin reservas que «la vida del euskara depende primordialmente de su unificación; ahora bien, soy partidario de que los dialectos no se pierdan. Hay que buscar el equilibrio que haga posible la supervivencia de los usos locales y la forma oficial unificada». En las declaraciones a los periodistas añadiría: «Sólo la unificación del euskara permitirá su supervivencia. Cuando se crea una lengua común siempre hay que sacrificar algo, como ha ocurrido en otras lenguas».

A la pregunta sobre la admisión de préstamos de otras lenguas, como se está haciendo actualmente del castellano y francés, el profesor de Toulouse respondería: «Todas las lenguas, desde siempre, están obligadas a aceptar los préstamos».

Las opiniones de este especialista en dialectología, que al propio tiempo es miembro correspondiente de Euskaltzaindia, coinciden con las teorías básicas que siempre hemos mantenido. Como tampoco es un hecho casual que algunos académicos hayamos presentado estudios sobre particularidades dialectales.

Robert L. Trask, profesor de Liverpool, vino a exponer que el tema del verbo vasco le resultaba apasionante, ya que muestra una morfología mucho más rica que la de otras lenguas europeas. Hizo una exposición de formas no finitas. Cada verbo vasco posee un conjunto de formas no finitas —infinitivos, participios, sustantivo verbal y formas relativas—. Verdaderamente, la mayoría de los verbos poseen bastantes formas que pueden ser conjugadas en su totalidad perifrásticamente. Y, siguió con una descripción de formas finitas y la morfología y sintaxis verbal.

Trask, que en la rueda de prensa se expresó en vascuence, insistió sobre la conveniencia de que todos los vascólogos comiencen a exponer sus trabajos en euskara. Pues, como se ha podido comprobar en estos Encuentros, nuestra lengua está capacitada para abordar estos temas. Por otra parte, algunos asistentes se extrañaron de que varios académicos presentaran sus exposiciones en otras lenguas, pudiendo expresarse en la suya. Sin embargo, la postura de tales académicos pudo ser por pura cortesía, puesto que se sabía que no todos los vascólogos invitados estaban en condiciones de mantener sus respectivas cooperaciones en euskara. De todas formas, hubo entera libertad de expresión.

Este día se contaba con la única tarde libre, pero los vascólogos prefirieron seguir las sesiones académicas y con tal fin se convocó a los licenciados y estudiantes de filología matriculados a los Encuentros,

y la reunión tuvo lugar en una sala habilitada al efecto en el Hotel Ercilla de Bilbao.

1980-IX-15.

## JARDUNALDIEN KRONIKA (IV)

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak beren bukaerara heldu ziren abuztuaren 29an. Egun hontako txosten bakarra Mitxelenaarena izan zen, bere gaitzat, Ikerketak etorkizunera begira.

Mitxelena, Jardunaldi horietako adierazpenen laburpen gisako hitzekin hasi zuen bere mintzaldia. Dialektologia, bere era orokorrean, ia L. L. Bonaparte printzearen egunetan bezalatsu aurkitzen du, fonologia eta fonetikak ez oso aurreratuak, hiztegia eta morfologia franko landuxeagoak, joskera iker premia larri batean eta gure literatura behar bezala ezagutzeke, hoiek esan daiteke direla egun euskal ikerlanak erakusten dituen egoera eta premiak.

Mitxelena eritiziz, hizkuntza izan da gure izaeraren habe eta sustengu nagusia. Euskararen inguruan sortu zen garai bateko Euskal Ikaskuntza, eta gure unibertsitate-bizitzak euskara izango du orain ere abiapuntu nabarmenatarik bat. Hala behar ere, horrek bildu baitu, Euskal Herriko semealabek ditugun ondasunen artean, etxeko eta kanpokoengorik gehienak.

Jardunaldiotan, bai etxeko eta bai erbestekoen artean jende gaztea anitz nabari zen. Mitxelena ber-berak ere hau esango zigun: «Gogoak eta beharrak mugiturik doa jende gazteagoa euskal azterketetara». Honek, linguistikaren ikerketen etorkizuna itxaropentsu erakusten digu, euskararen onerako noski. Hala ere, gogoan har dezagun Mitxelenaaren esana: «Euskara ez da beste edozein hizkuntza bezalako zerbait besterik (euskaldunontzat gehixeago badirudi ere), eta galbidean genbiltzake beste hizkuntzetarik berezirik hartu nahi bagenuke».

Honela jarraituko zuen Koldok: «Badugu aho-hizkera eta izkribuzkoa. Ahozkoari dagokionez, badakigu, eta hortaz mintzatu zaizkigu hemen, zertan den gure dialektologia, Bonaparteren egunetan gelditua, gutti gora-behera. Hortik datozkigu presak, berehala egiten ez den gauza franko ez baita sekula egiteko biderik izango». Otoi, honek ezto esan nahi, zenbaitzuk uste duten bezala, atlas guzia osatu arte ezin dela euskara baturako erabakirik hartu. Zorionez, euskara baturako behar haina ezagutzen dira gure euskalki nagusienak, eta atlas on batek presa



baldin badu zenbait euskaldi hilzorian eta beste asko ahulduz doazela-ko da.

Rotaetxe, Heath, Shimomiya eta Azurmendi-Olartek eman zituzten egun hontako agerpenak. Aipagarriak dira Karmele Rotaetxek hezkuntzan hizkuntzak nola erabili behar direnari buruz esan zituenak. Jeffrey Heath amerikanoak, euskarak oraindik hizkuntza zientziari eman dezaiokeenaren garrantzia azpimarratu zuen.

Mitxelena ordea, puntu hortan, aski etsia agertu zen. Euskarak ez omen du behar bada oraingoz argituko aspaldian eskatzen zitzaion misterio ezkutu horietakorik. Zerbait berri jakiteko bidean jar gaitzake, ordea.

Egun hontan, Jardunaldieri amaiera emanaz, hizkuntzalari eta euskaltzainak Getariara jo zuten. Elkanon zenaren hirian udaletxekoen ongi-ettoria jaso ondorean Felipe arrantzale zaharrak gertatutako marmitakoa jan eta ondorean bere zuzendaritzapean itsas-gizonen kantzak kantatu atzerritarren ohorez.

Arratsaldez, Urdanibiako zelaian, hizkuntzalari eta euskaltzainen



*Lizarrako Udaletxean Jardunaldien bukaeran.*

arteako bilera. Jardunaldi hauen ondorioa nahi zen aztertu. Harremanetan jarraitzeko idazkaritza sortzeaz, hontarako batzorde bat izendatuz, harremanekin ikerketak bultzaraztea, zenbait espezialista ikastaroak eta hitzaldiak ematera ekartzear, beka lortzeko lan egiteak, lau urteren epean kongreso bat burutzeaz, ikerlan idatziak biltze eta argitaratze lanak eramateaz eta abar. Luzaz mintzatu ginen. Hain luzaz eze, Jaizubia jatetxeko nagusiak afaltzera dei egin zigun unera arte. Elkarriketok probetxuzkotzat jo genezazke eta bere fruituak geroan ikusi behar.

Biharamunean, larunbata, nahi zuten edo ahal zuten atzerritarrekin Araba eta Nafarroa parte bat ikustera abiatu ginen. Hontarako gidari onak aurkitu genituen bidean gure lurraldeen geografia, historia, etnografia eta artea adierazteko. Gasteizen, Jardunaldion sigilua egin zigun Txillidaren zuzendaritzapean eraikitako Foru plaza soilik ikusi genuen eta handik Errioxa aldera. Labastida, Laguardia, Viana, Torres del Río igaroaz heldu ginen Lizarrara. Hemen, erromes karrikako jauregia eta San Pedro eliza soilik ikustea zen gure asmoa, eta uste baino harrera hobea egin ziguten Lizarrako Udaletxean. Alkatearen ongi-etorriaren erantzunez mintzatu ziren Euskaltzaindiko zuzendaritzakoak. Lastima bertan esan zena jasotzeko kazetaririk eza. Jardunaldiontzat ezin zen bukaera hoberik asmatu eta han zirenen artean nekez ahaztuko dira anaitasunezko agur haiek.

OHARRA: Jardunaldietako lan guziekin *Iker-I* argitaratu du Euskaltzaindiak 1981ean.

### **Crónica de los Encuentros (IV)**

Los Encuentros Internacionales de Vascólogos, inaugurados el día 25 en Guernica y que se desarrollaron a lo largo de toda la semana en el *campus* de la Universidad del País Vasco, en Lejona, se clausuraron el día 29 con la ponencia del profesor Luis Michelena, más cuatro comunicaciones presentadas por Rotaeche, Azurmendi-Olarte, Shimomiya y Heath.

Michelena trató sobre las perspectivas de las investigaciones con miras al futuro. Resumió las jornadas y habló sobre prioridades en la recuperación de la lengua. Subrayó la gran importancia de estos Encuentros, señalando que «la relación que ha existido aquí ha sido completamente amistosa, y el resultado ha sido sorprendentemente satisfactorio, porque han demostrado que hay un interés general. Pienso

además que se han establecido las bases para una colaboración, que ya existía, pero que de ésta ha de salir mejorada, porque los estudios de lingüística vasca deben comenzar, pero no deben terminar. Es muy satisfactorio que extranjeros de distintos puntos del mundo vengan aquí. Pero lo realmente satisfactorio sería que a un congreso sobre lo que sea, por ejemplo, sobre las lenguas caucásicas, hubiera una representación vasca que fuera allí».

De entre las comunicaciones destacaron Karmele Rotaèche por sus planteamientos en aplicar la lengua en el sistema educativo, y Jeffrey Heath por sus elevados conceptos teóricos sobre lo que el vascuence puede aportar al conocimiento de la lingüística general.

Tanto entre asistentes como entre lingüistas se notó un número muy elevado de jóvenes, lo que augura un buen porvenir a los estudios de euskarología.

Este día, después de la clausura, lingüistas y académicos se desplazaron a Guetaria, donde fueron recibidos por la corporación municipal y almorzaron en una sociedad popular con el incomparable «marmitako» preparado por Felipe, «arrantzale» jubilado, que a los postres él mismo dirigió el coro formado entre los asistentes para entonar canciones marineras vascas.

Por la tarde, en la campa de Urdanibia, tuvo lugar una importante reunión para tratar de resultados y posibilidades. Se estudiaron contactos, colaboraciones, intercambios, etc., con el fin de obtener en el futuro conferencias, cursillos, becas, publicaciones, etc., y tal vez culminar dentro de pocos años con un congreso. Las conversaciones duraron hasta que el señor Mangas nos reclamó a un refrigerio.

El día 30, con los extranjeros deseosos de conocer nuestro país, se realizó una excursión por tierras de Alava y Navarra. Guiados por personas expertas en geografía, historia, etnografía y arte. En Vitoria únicamente se visitó la nueva Plaza de los Fueros, diseñada por el escultor E. Chillida, autor del emblema de estos Encuentros. A continuación se recorrió Labastida, Laguardia, Viana y Torres del Río, para terminar en Estella, donde fueron recibidos por la corporación municipal y se intercambiaron emotivos discursos de hermandad entre el alcalde de la ciudad y los directivos de Euskaltzaindia, tras la visita a San Pedro de la Rúa y al Palacio de los Reyes, extraordinarios monumentos románicos.

1980-IX-15.

NOTA: Con todos los trabajos Euskaltzaindia ha publicado el *Iker-1* en 1981.

## 1978. URTEKO EUSKARAZKO LIBURUAK

Aurreko urtean, euskarazko liburugintzan, beherakada somatu genuen, baina 1978.ean, historian inoiz izan duen gailurririk gorenetara jo du, duela hiru urte, 1975.ean, hartu zuen goi mailara hurbilduz.

Eraman dudan kontuan 107 libururen izenburuak aurkitzen dira, eta oraindik, urte honen lehen parte hontan, gehiago ere azalduko dira igazko urtez.

Produkzio goratze hau, batibat, Udako Euskal Unibertsitateak bere VI. ikastaroetarako argitaratu zituen 23 eta Hordago argitaletxearen 17-rak gizentzen dute. U.E.U.-koek Matematikaz, fisikaz, kimikaz, hizkuntzalaritzaz, medikuntzaz, biologiaz, geologiaz, ekologiaz, gizarte zientziaz eta feminismoaz eskaini zituen ikasle euskaldunen lagungarri, gehien gehienak elkar-janean burutuak. Eta, atzeak erakusten duenez aurrea nola erabili, Hordagok sail berria sortu zuen literatura zaharrekoak argitaratzeko eta Etxeberri Ziburukoa, Fr. Bartolome, A. Ubillos, Agirre Asteasukoa, Xurio, Larregi, Uriarte, Añibarro, Lapitze, Iturriaga, Duvoisin, Intxauspe, Goienetx, Kardaberaz, Duhalde, Pouvreau, Harizmendi eta Argainaratz-en lanak birrikusi dute argia. Hara hor, zientzia berriak lantzearen aurpegia eta literatura zaharraren alorra plazaratuak. Horiez gainera, Ustela sailak literaturaren alor berriak lantzeari ekin dio eta kontaera politik agertu digu, K. Izagirre, I. Sarasola, J. A. Arrieta, J. I. Garmendia, J. Casenave eta abarren lanekin.

Beste urtetan bezala, hemen guziak aipatu ezinez, lanik berezienak agertuko ditugu, laburki bada ere.

Durangoko azokan, urteko libururik ederrenetakotzat saritu zen Jose Uriaren *Sagardoa*, Lan bikaina, Donostiako Aurrezki Kutxak apain argitaratua. Behar bada ez zen horrela izango Aurrezki Kutxa ber berak argitaratua den *Bilintx. Bizitza eta bertsoak* han aurkeztu balu. Lan handi eta sakon hau Antton Zavalak burutua da eta berriz ere ongi erakusten digu ikertzaile jatorraren ahalmena.

Saiaeren mailan, Mikel Zaratek *Euskal Literatura II*, aurreko urtean hasi zituen azterbideeri jarraiki. Gai berean, José Antonio Mujikak, *Testu aztertzen* deritzana, dirudienez, gure artean lan hauetarako metodologia berri bat ezartzeko asmoz, baina berandutxo heltzen zai-guna, zeren 1974an Agora saria jaso bai zen. Egile berak, hizkuntzalari mailan, merezimendu handiko *Perpaus bakunaren sintasia* eskaini digu. Eta, Jose Azurmendik, bere eten gabeko lanari jarraituz, Kriseluren bidez, *Errealismo Sozialistaz eta Artea eta gizartea* izenburudun bi lan eder gogoeta zaleentzat. Azkenik, beste saiaerarik aipatzekotan, B.

Kapanagaren *Euskera erro eta gara* aipatuko nuke, hizkuntza beraren erroak ezagutzeko eta beren bidez mintzaiaren sorreraren bilaketan murgildu. Hau izan da egilearen asmoa eta baliagarririk zer aurkitu duenari buruz espezialistek dute hitza. Lehenago euskarari buruz erderaz erabiltzen ziren gaietako bat orain euskaraz eskaintzen zaigu eta ezta guti; gainera, euskara aski samur eta narosan, eta bere igarle eta oharle erako agerpen asko gogoan hartzekoak iduritzen zaizkigu. Gainera, bestalde, etno-filosofiazko lanak ere beharrezkoak ditugu. Beste era bateakoa da aipatu dugun J. A. Mujikaren lana eta Patxi Goenagaren *Gramatika bideetan*. Hauek linguistikaren disziplina formaletan oinarritzen dira eta Kapanagarena semantikazko gogoetetik ari da.

Poesia alorrean anitz liburu agertu da. Zazpi-zortzi bat bai. J. Etxezarragaren *Olerki solteak*, gazte kemena darioz, poeta berri baten itxaropena dakarte. Xabier Azurmendiren *Jesús* dugu beste liburu berezi bat eta Berceo-rekin jartzen duen elkarrizketan irudimenaren bizitasuna nabari dute. Manex Erdozainziren *Hinki-banka*, Mikel Zarateren *Higitura berdez* eta B. Atxagaren *Etiopia* bereziko nituzke aipagarrienen artean. 1978ko liburu hauek aurpegi zabal bat eman diote gure poesia-gintzari. Luis M. Mujikak agertu ditu beste bi liburu; hoberenetakoak ez badira ere, Erramon Etxezarretak «Jakín»-en eman zion jipoia ez zitzaigun bidezkoa iduritu. Behar bada, surrealismoan haina, dadaismoa aztertu beharra dugu, zeren 27. gizaldikoekin batean dadaren kutsapenak nabari ditu Luis Marik eta artistaren instintoak berak ere tratamendu aukerakoa eskatzen bai du.

Bilintxen lan guzien bilduma A. Zavalaren partetik eta *Iztuetaren olerkiak* Jose Garmendiaren aldetik, lehengoaren ikuspegi zabalago bat dugu. Beharrezkoa hau ere. Bestalde, gaur egungo poeten antologiatzat jo genezake G. Arestiren omenez euskal poetek eta artistek azaldu duten *Agiriak* bilduma, 47 poetaren lanak eta 32 artistaren edergarriekin horniturik, neurri handiz egina; otsailaren bian herriari aurkeztekotan dena.

Eleberririk guti agertu da. Txillardegiren *Elsa Scheelen* birargitarua eta beste zenbait lan eleberrietatik baino irakurgai edo kondaira luzeetatik hurbilago daudenak, X. Amurizaren *Menditik mundura*, L. Haranburu Altunaren *Desgizona*, M. Zarateren *Bizipenen bultzadaz*, Daniel Landarten *Aihen abula* eta besteren bat. X. Gereñok lau polizieleberrri eman ditu, irakurgai errazen horniduraz, eta holakorik ere behar genuen.

Antzerkian, Yon Etxaideren *Begia begi truk* eta *Amaiur*, aspaldi aldizkarietan argitaratu zituen dramak, orain liburuz emanak dira. Egile hau ahaztu ezinezkoa zaigu gerraondoko lehen belaunaldikoei eta ezau-

garria gazte berrientzat. Junes Casenaveren *Ibañeta pastoral*-z aparte ez dugu izan beste ezer.

Ipui eta kondairaz zerbait gehiago azaldu da. N. Alzolak *Hirugarren atalak* eta haurrentzako *Ipuiak*. Joseba Gereñok *Euskal Herriko ipuin eta kondairak*.

Lan bildumen artean, Txillardegik *Euskal Herriatik erdal herrietara* eta J. B. Etcheberry-ren *Han bemenka*.

Historia zaleak ere badute ezer berririk, Martin Ugaldere *Euskal Kondairaren sintesia*, gure historia orokorraren zabalkundez nornahik ezagutu beharrezkoa. J. I. Paul Arzaken *Eibarko sozialismoa*, azterketa lanez. Eta, Larzabalen *Nere mendixkatik* agiri mailan.

Biografietan ordea, Bilintxenaz aparte, A. M. Labayenen *Elizanburu*, beronen poesia guzietan. Eta, J. L. Salcedo Bastardo-en *Bolibar X*. Amurizak euskaratua.

Auspoa liburutegiak, ohi duen bezala, beste urtetan baino motelago ibili bada ere, zenbait bertso liburu argitaratu ditu eta hauen artean aipagarrienetako bat *Arrantzaleen bizitza* deritzana.

Itzulpenetan, L. Villasantek Anai Frantzisko eta Arreba Klararen gutunak, Cinsa argitaldaria E. Salgari-ren *Mompracem azkena*.

Bukatu den urtean, zorionez, uste baino liburu gehiago argitaratu da. Hala ere, ez 1975. urtean haina. Baina igaz somatu genuen beherakadaren aurrean oso pozgarria iduritu zaigu berriz ere ehun liburutik gora igaroaz goren mailetako produkzioetara hurbiltzea. Euskarak, biziko bada, kultur maila landu beharra du, euskara idatzia indartu beharra, eta azken urteetako abiadurari eusten baldin badio, itxaropenez begiratu genezake gure mintzairaren iraupena eta etorkizuna.

### Los libros en vascuence, año 1978

En el año que acaba de fenecer, la producción de libros en vascuence ha llegado a alcanzar sus más altas cotas. En mi recuento figuran hasta 107 títulos de obras publicadas en 1978, y aún es de esperar que salgan a la luz más libros fechados este año durante los primeros meses del presente. Anteriormente, la producción máxima se había alcanzado en 1975 con un total de 151 títulos, como se puede comprobar en *Euskal idazleak, gaur* (Historia social de la lengua y literatura vascas) de Juan María Torrealday. Cifras nada despreciables para una lengua reducida y sin oficialidad, como es la nuestra.

La producción de 1977 fue sensiblemente inferior, probablemente

porque algunos escritores se habían dedicado a las actividades políticas y otros fueron absorbidos por los nuevos diarios que en un principio se proclamaron bilingües, Deia y Egin, pero que en la práctica se están volviendo monolingües, a juzgar por la asombrosa reducción de las columnas en vascuence, y lo que aún es peor, muchos escritores euskaldunes han pasado a escribir habitualmente en castellano. Si las direcciones de estos diarios hicieran caso a los estudios socio-lingüísticos de Euskaltzaindia-Siadeco y considerar el lectorado euskaldún, daríamos por seguro la ampliación de espacio para el euskara.

Ciñéndonos a la producción de libros en vascuence durante 1978, hemos de reconocer que el incremento sobre la producción de los dos años precedentes se debe principalmente a la publicación de 23 libros de texto por U. E. U., cursos de Universidad Vasca de Verano, y por las ediciones de clásicos vascos por parte de la casa editora Hordago.

Aun así, el resto de la producción es muy respetable. Aparte de las grandes y lujosas obras como la vida y obra poética de Bilinch, el libro de la sidra y *Agiriak* (Documentos) en homenaje póstumo a G. Aresti, destacan los ensayos sobre temas de literatura y sociedad. La poesía, por otra parte, ha sido uno de los géneros más cultivados. Novela y narración, considerando las reediciones, también ocupa un lugar satisfactorio. Las publicaciones de cuentos y de teatro han sido de lo más bajo, así como las traducciones. Los temas de historia nunca han sido bastante cultivados y podemos darnos por satisfechos con lo publicado.

En general, un buen año para el libro en vascuence.

1979-I-8.

## 1979. URTEKO EUSKARAZKO LIBURUAK

1976 eta 1977. urteetan, euskarazko liburuen argitalpenak behe-rakada somatu zuten, 1978an oster, berriz gora. Euskaraz ikasteko metodoak eta liburuxkak barne zirela, 200 titulura hurbildu zen orduko produkzioa, 191 guttiz. Joan Mari Torrealdai arduratu zen argitaratutako guziak biltzen eta gaiez sailkatzen. Hontaz burutu zuen lana ikus *Jakin* aldizkariaren 9. zenbakiaren (Urtarrila-Martxoa, 1979) 119-139 orrialdeetan.

Uste dugu, aurten ere, horrenbeste egingo duela Juan Marik. Uste honekin, artikulu hontan, argitaratuen zenbatekoari baino gehiago begi-

ratuko diot literaturari 1979. urteak eman diona. Iragan urteko produkzioa aurreko urtekoaren antzerako izango zela iduritzen zaigu eta literaturazko emaitzaz, behar bada, aberatsagoa. Joan Mari Torrealdayk, bere lanean, euskal liburuak merkatuko jokuan, gaiez, jatorri eta adinez, euskara batuaren zenbatekoa, argialetxeen ekintzaz eta abar, estudiantzen zituen. Ondorean gaien sailkapena eta liburuen zerrenda osoa emanaz. Azkenean, baita ere Euskal Herriaz argitaratu ziren erdarazko liburuen ere.

1979. urteko liburuak berrehunera heldu ez badira, ez dira hortik urruti ibiliko.

Berriz ere poesia agertzen zaigu euskarazko literatur sorpenaren gailurrean. Behar bada urte honek ez du eman poesiazo liburu askorik, baina bai onik. Juan Mari Lekuonaren *Ilargiaren eskola*, goi-goian jartzekoa da. Poesiaz gauzeri bere sena filosofiaz kutsaturik ematea ezta edozelako lana; batez ere hizkuntza landu eta samurrean. Lasaiago hartuaz artikulua bat merezi duen liburua dugu J. M. Lekuonaren hau. Amaia Lasa, *Nere paradisuetan* deritzanakin lehengoan gainetik jartzen zaigu, irudimen aldetik ez ezik euskararen aldetik ere abantaila handia egin bai du. Beste liburu atsegin bat Paulo Iztuetaren *Herbestean*, aurretiko urtean Irun saria irabazia.

Eleberrietan ere izan dugu zenbait berri. Txillardegik saiaera giza eskaini digun *Haizeaz bestalde* delakoarekin berriro ere argi erakutsi digu bere hitz-lauzko maisutza. Hitz-lauzkoaren jatortasunez, behar bada rebelazio bat zaigu Gotzon Garate *Elizondoko eskutitzak* eleberriarekin, egile honek lehen idatziak zituen saiaeretatik baino aisago igartzen zaio. Joxe Agustin Arrietak *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* deritzanakin, berriz ere bere estilo berezi eta zaindua erakusten digu.

A, ta ezin nezake ahanzi F. Krutwig-en «Mikelditarrak», nonbait Balzac edo Galdós-en erara episodio luzeen hastapena dakarrena.

Hoez gainera badira beste narratiba liburu aipagarri batzuk. Arantza Urretavizcayaren *Zergatik panpox* izan daitake nobedade bat, estilo eta eraren aldetik, baina ez hor norbaitek bere era gauza bitxitzat jarri duelako, gai erraz eta apal bati haur hizkuntza txanbelinez, alde baliagarria ateratzen jakin duelako baizik; bere kontestuan, neri behinik-pehin Arradoy-ren *Katalinen gogoetak* datorkit burura. L. Haranburu Altunaren *Caritate*, aspaldi idatzia eta orain argitaratua, eta Ustela sailekoak, K. Izagirreraren *Gauzetan*, Maripi Solbesen *Haize lainotuaren nekeak*, era berriko emaitza dakarte. Antzerako asmotik dator Andolin Eguzkitza bere *Leher orenean* delakoarekin, baina euskara hobeto zaindu behar luke. Hortarako adibide ederra da Mikel Zarate zenaren *Utopiaren fantasia*, bere idazkera atseginez saiaera gisaz egina.



Saiaeretan, berriz ere nabarmen agertzen zaigu Joxe Azurmendi, hiru liburu agertu ditu bata bestearen ondorean, *PSOE eta euskal aber-tzaletasuna* (1894-1934), *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa* eta *Nazionalismo-internazionalismo Euskadin*, zein baino zein interesantea goak.

Ipuien alorrean ezta gauza asko argitaratu, itzulpenetatik apartekorik. Gipuzkoako ikastolen elkarteak haurrentzako izanarren, adinekoak ere gustora irakurtzekoa den Jose Mari Satrustegiren *Ipui miresgarriak* deritzanakin eman dio Oinarri izeneko sail berriari hasiera. Lehen hau behintzat oso bizia eta polita benetan. Hordagok irakurgai erreze-tan sortu duen sail berrian, gehienak itzulpenak dira Mark Twain, Lewis Carroll, H. G. Wells eta Jack London-enak euskaratuta eta sail berean hiru Txomin Peillen-enak, *Errotaria errege*, *Buffalo Bill-en abenturak* eta *Mirko printzea*. Eta azkenik, G. Arestiaren, *Ipuiak*.

Biografietan lanik sakonena eta handiena Antonio Zavalak *Bilintx-i* buruz egin, bere bizitza eta lan guziak jasoaz. Vélez de Mendizábal *Sebero Altube*. Irakurgai errezetan, J. M. Irigoienek, *Lope Agirre* eta aurreko urtean X. Gereñok *Napoleón*.

Urteko liburutik berezietako J. M. Arrietaren *Gizartea gaur*, Durangoko azokan saritua izan zen testu liburua. Beste liburu berezi bat, lehen *Egan* aldizkarian argitaratutako gastronomia lanez osatua, A. Arrueren *Jan-edanak*.

Testu zaharren aztertze lanetan, P. Altunak erdaraz Etxepareren lanez eta A. Zelaietak euskaraz *Peru Abarkaren berrirakurtzea*.

Bertsolaritzako bildumetan, Auspoak beste ekinaldi bati gogor eman dio, lehengo urteetako bizitasuna hartuaz, argitaratuen artean bereziko nituzke *Jaiok bizi nai* eta *Nekazariak bai miseriak* lehenagoko gizarte arazoek lekuotasuna dakartenez.

Itzulpenen artean, galdu berri dugun Jokin Zaitegik, hil baino lehentxoago Platon-en bostgarren tomoa argitaratu zuen. G. Aresti berak ere hil aurrean utzi zuen *Boccaccio-ren Dekameronen tipi bat* argitaratu du Kriseluk, Julio Vernerren lan bat Iñaki Azkunek, eta abar.

Euskaltzaindiak: *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* delako estudioa, *Euskal aditz batua*, *Bergarako Biltzar ondoko erabakiak*, *Udal izendegia* eta Apezetxearen Lizarraga Elkanokoaren lanekin lekuko sailari hasiera eman dio.

Uzeik, lehengo Zientzia histegiaren arabera, orain *Fisika* eskaini digu.

Birargitaratzeetan, Hordagok igazko ekintzari jarraitu dio Leizarraga, Artxu, Hiribarren, Larramendi, Salaberry, Intxauspe, Gèze, Zabal, Iturri, Bernaola eta Eusebio Maria Azkueren lanak argitaratuz.

Emankorra deritzagu 1979ko urteari. Behar bada, liburuaren zabalakundea gehiago begiratu behar luteke gure editoreek. Oraindik Euskal Herriko edozein liburu dendatan ez bai da ikusten euskarazko libururik.

### Los libros en vascuence, año 1979

La producción de libros en euskera, durante el año de 1979, ha mantenido la cota alcanzada en 1978, y el total de libros anda rondando los 200 títulos, incluyendo métodos gramaticales y libros de texto. Tras la depresión productiva de los años 1976-77 se puede pensar en su recuperación a unos niveles más estables, ligeramente ascendentes para el libro escrito en euskera.

Para una información detallada de la producción de 1978, con temática inclusive, puede consultarse el trabajo de Juan María Torrealday, en el número 9 de la revista *Jakin* (Enero-Marzo de 1979, pág. 119-139). El señor Torrealday prestará un gran servicio al movimiento literario euskaldún si continúa, año tras año, con lo propuesto en este trabajo.

En el presente artículo me limito a repasar someramente la producción de 1979, mencionando las novedades habidas. En el género de la poesía habría que destacar la obra *Ilargiaren eskola* de Juan María Lecuona. Le siguen en interés otras obras, como la de Amaya Lasa y Pablo Iztueta. En novela y narrativa tal vez, se observa una producción mayor a la de años precedentes. Interesantes obras en estos géneros son las de Txillardegí, Gotzon Gárate, José Agustín Arrieta, Arantza Urretavizcaya, L. Haramburu Altuna, K. Izaguirre, Maripi Solbes, A. Eguzkitza y M. Zárate, entre otros. Una aportación extraordinaria, a modo de novela por episodios, es la iniciada por F. Krutwig con «Mikelditarrak».

En ensayo, con su abrumadora capacidad, vuelve a destacarse José Azurmendi, autor de tres títulos.

De cuentos, se han traducido varias obras, entre las que destacan de autores como Mark Twain, Lewis Carroll, H. G. Wells, Jak London, etc. En la producción propia descuella José María Satrustegui con *Ipui Miresgarriak*, además de tres títulos de Dominique Peillen.

En obras biográficas la más importante sin ningún género de dudas, ha sido *Bilintx* de Antonio Zavala, que estudia la vida y obra del poeta romántico donostiarra. Le siguen otras de menor importancia. Otra obra extraordinaria ha sido *Gizartea gaur* de Jesús María

Arrieta, como libro de texto, y tampoco debemos olvidar *Jan-edanak* de A. Arrue, sobre gastronomía. Se han publicado varios estudios de textos antiguos. F. Altuna, su tesis doctoral sobre el primer libro impreso en euskara, Apecechea sobre Lizarraga de Elcano, que ha constituido el primer número de estudios testimoniales de escritores antiguos en euskara, colección de Euskaltzaindia. Uzei, por su parte, nos ha ofrecido *Fisika*.

Además de las traducciones de los clásicos Platón y Boccaccio, se han reeditado obras de escritores antiguos como Leizarraga, Artchu, Hiribarren, Larramendi, Salaberry, Intchauspe, Gèze, Zabala, Iturri, Bernaola, E. M. Azkue, etc.

De mantenerse esta línea ascendente, en próximos años, puede surgir una literatura densa y pujante, que se hará respetar por propios y extraños.

1980-I-28.

## KALETAR LITERATURAZ EDO USTE OKERREN ZUZENKETAZ

Euskal literaturaz arduratu garen euskaldunok inork esan beharrik ez dugu gure hizkuntza zaharrak ez duela literatura aberatsik eta ditugun ajeak ez dugula inork erakutsi beharrik. Baina literatura hain aberatsa ez izatetik hirugarren mundukotzat jotea beste gauza bat da, euskararik ez dakitenek kultura gabekotzat epaitzen ari zaizkigu. Ulertzen ez dutena era hortara epaitze hori heurak jakingo dute zergaitik, baina ez gurearen maitasunez, noski.

Egia esan, horrek ez nau gehiegi larritzen, edo ez behintzat gure arteko uste okerren haina. Zoritxarrez, euskarazko eskolarik ezaz, ez dugu izan gure literaturaren zabalkunderako aukera gehiegirik (baterez ez esatearren). Eta hor-hemen zabalduak diren zenbait liburutan maizegi erabili da gure literatura nekazari mundukoa den ustea, edo kaletar literaturarik ezarena. Askok gure egunotan opa duten literatura «urbanoa».

Egia esan, kaletar gizartea aldakorragoa da eta bere abidadan egunean egungoa erabiltzea eskatzen du, hein batean, gaurkotasuna. Eta, hontan, aitortu beharrezkoa iduritzen zaigu, egunean egungo beharretara moldatzea kostatzen zaiola euskarari. Baina ez ordea lehendik kaletar edo urbano literaturarik ez duelako.

Euskal literaturaren lehen izpi idatziak Erdi-aroaren bukaerakoak ditugu: Oñaz eta ganboar guduenak, Alos-torrekoa, Mondragoko kantak eta abar, eta Euskal Herriaren beste muturrean Bereterretxen khantoria. Hoiiek inondik ere ez dute baserritar edo «rural» antzik. Edozein gizarte arazotan jartzekoak dira.

Izan ere, Erdi-aro bukaeran hasi eta Pizkundea zehar, Gipuzkoan behinik-pehin, hiriak baserriak baino jendetza gehiago dute: itsas-gizonak, ola-gizonak, artesanoak beren gremioz eta merkatariak, nekazariak eta artzainak baino biztanle gehiago osatzen zuten. Zer esanik ere ez guziak euskaldun zirela, zeren 1892an oraindik, Pierre Loti-k Zumarraga bisitatzean, Papagayo edo loritoak ere euskaraz mintzatzen omen ziren.

Garai hartako Mondragoe (Arrasate ondoan sortutako hiri hura), Tolosa eta Donostiakin batean probintziako hiririk handiena zen 1448-ko erreketara arte, eta bertako kantak kaletartzat har genezazke.

Etxeparek euskarazko lehen liburua inprimatzean (1545), edonorrentzat argitaratu zuen. Leizarragak Biblearen lehen itzulpen hura (1571), Europako Pizkundearekin bateratsu, edonorrentzat idatzi bazuen ere, jakin-zale edo kultur gizonei gehiago begiraturaz, noski, eta protestante mugimenduak populua izan zuen etsairik handiena. Axularren *Gero* (1643) eta Sarako eskolaren inguruan sortu zen erligio literatura bera ere, edozein motatako euskaldunekin pentsatu bazen ere, kultur gizonei begiratu zatorren.

1677an nork behar zuen itsasoko nabegazioari buruzko liburua, era berean Ternuara (Terranova) joateko gida-liburutzat balioko zuena? Martin Hoyarزابalek frantsezez idatzia eta Piarres D'Etxeberrik zerbait gehiturik itzulia.

Ifar Euskal Herrian XVII. mendean indartsu zetorren literatura, urrengo mendean Utrecht-eko tratatuaren ondorenez beheratuko zena, erlijio joerazkoa izan zen gehien bat, baina ez nekazaritzarena.

Besteak beste Oihenarten poemak ez ziren laborari mailakoak.

Hego Euskalerrian, Larramendiren eraginez mugitu zen bertako literaturagintza eta XVIII. mendeko antzerkigileak, Munibe eta Barrutia, hiritarrak ziren. Mogelek, *Peru Abarka-n*, enziklopedia gisa agertu zuena, bertako basarritarra hobeto mintzatzen bada ere, orduko bizierak jasotzen ditu Markiña inguruan. Iztuetaren bilketak non sartu?

Bilintx kaletarraren olerkiak Curros Enríquez-ek maite bazituen eta Etxahun Barkoxekoarenak Chamisso-k, zer esan genezake? Non kokatu hoiak?

Baina, erromantikoetan sartzen garelarik, behar bada hor aurkitu genezake gakoa. Xenpelarrek Iparragirre desafiatu zuenean kantatutako bertsoak adieraziko digunez, Xenpelarrek bere burua baserritar esko-

lako egiten zuen, honek bere bertsoarako legeak zituela agertuz. Bai, Iparragirrek bazuen,

*Eskola ona eta musika,  
bertsolaria gaiñera,*

Besteak ere zerbait izango ziren horrela hornituko balira, baina baserritar eskolak bere legeak eta bere erak zituen, nonbait edo zalantza gabe, Iparragirrek betetzen ez zituenak. Honegatik, ez harritu beste honako hau esan bazion:

*Atoz gure kalera,  
baserritar legera,  
musika boiek utzita:  
Errenderian bizi naiz eta  
egin zaidazu bisita.*

Xenpelarrentzat, Iparragiren hornidura horiek baserritar girotik apartekoak ziren.

Gero, erromantikoak barna ikus genezake M. Hiribarren-en poema Orixe-nagandik oso desberdina zela, kaletarragoa, Jose Manterolak sortu zuen Euskal Erria aldizkaria barna eta naiz Donostian M. Soroagandik sortu zen antzerki mugimendua ez direla kaletarrak baizik.

Erromantikoen azkenaldea, baserriak Arkadia baten mitifikazioa hartzen du, gure ohitura zaharren gorde-leku. Ahozko literatura biltzean, hala beharrez, aberatsagoak edo emankorragoak izan dira nekazari gizartekoak, gizarte zaharragoak hala dakarrenez. Baina, argi geldi bedi, horrek ez duela bestea ukatzen.

Orotariko literatura dugu. Lehenak geroan iraungo badu, orain oraingoa bete beharra dugu. Guk gaur egun eskaintzen duguna baliozkoa ote? Orain da gure ordua eta bete dezagun tokatzen zaigun arloa. Gizaldi bakoitzak berea bete beharra du. Hemen eta non-nahi, literaturagintzak ez du beste zentzurik.

### **Sobre la literatura urbana o los falsos conceptos**

La literatura vasca tiene los inconvenientes que normalmente pueda tener cualquier otra de lengua restringida, y, que para colmo, no ha tenido acceso a la escuela. Ello supone privar de enseñanza y difusión. La mayoría de los vascos licenciados en letras, han ignorado hasta la

existencia de una literatura en vascuence. Sólo unos pocos inquietos, por iniciativa propia, han podido alcanzar algún conocimiento. Por todo ello, no nos extrañe que nos encontremos inmersos en un mar de confusiones y con una gran carga de conceptos equívocos.

Con demasiada frecuencia se arguye que en euskara casi toda la literatura pertenece al mundo rural. Una idea muy equívoca. Sin conocimientos no puede haber capacidad de reflexión y éste es el caso de muchos que opinan sobre literatura vasca, sin leer y, en algunas ocasiones, sin saber vascuence.

Si damos un repaso a la historia de nuestra literatura, comprobaremos que responde a una sociedad compleja, como ha sido y es la nuestra, corresponde a los ciclos normales de los movimientos europeos (en todo caso, su escasa intensidad está en relación con su densidad, de limitada producción y difusión), dentro de las limitaciones propias de una lengua minoritaria. Sí debe quedar claro, que, los cantares del alto medioevo se desarrollaron en las villas, que los autores antiguos no escribieron temas rurales y sí en su mayoría sobre religión, que el movimiento de la Ilustración se desarrolló en los núcleos urbanos, y que el romanticismo tocó todos los aspectos y todos los géneros literarios. En el presente artículo anoto autores y momentos claves de la referida complejidad.

Un gran inconveniente ha sido la penetración de los extraños por la dificultad que entraña la propia lengua, que los extranjeros generalmente se han fijado en su aspecto lingüístico, con algunas pocas excepciones como Chamisso, Curros Enríquez y unos pocos, y generalmente de manera casi fortuita sobre algún autor que por las circunstancias que fueran llegó a tomar contacto.

El mundo urbano cambia con rapidez, las ideas, las ciencias, las técnicas..., no cesan y exigen actualización. Su puesta al día corresponde a las nuevas generaciones, cada uno en su tema, día a día, labrando el hoy de cada día; que sólo así lograremos que haya continuidad.

1981-V-25.

VI

OROITZAPENEZ

Recordando

## GEORGES LACOMBE-ren SORTZE MENDEBURUA

Urtarril honen azken ostiralez, Baionako Euskal Museoa, Euskaltzaindiak eraturik, Georges Lacombe zenaren omenezko biltzarra eta hitzaldiak izanen dira euskaltzain zenaren sortze mendeburua ospatzeko, Apraiz, Lafitte eta Charritton mintzatuz.

G. Lacombe Biarnoko Orthez-en sortua zen 1879ko urtarrilaren 31an. Aita kaskoina zuen eta ama aldiz Saint-Jayme familikoa, baxenabartarra beraz, eta amagandik ikasitako euskal kantak eman zioten euskararen alderako maitasun bizia, eta hortik bihurtu zen euskaltzale eta euskalari jakintzu bezain suharra. Gaztetatik asko ibilia zen hiri batetik bestera, aita gobernuko funtzionarioa zenez, baina azkenean Paris-en kokatu zen, eta han bertan hil 1947ko uztailen.

Sorbona inguruan igaro zituen bere urterik onenak Filosofia ikaskizunetan. Espezialitate hontan jakituna zen baina baita euskarari buruz ere.

1914-1918 gudatean zauritua izanik eskuiko besoa moztu behar izan zioten. Halaz ta guziz alai, kementsu eta oso lagunartekoa izan omen zen beti.

Euskal liburuekin zaletu zen eta Biblioteka garrantzitsua biltzera heldu zen, ahal zituen euskarazko liburu zahar guziak erosiz eta beste asko eskuz kopiatuz. Zaletasun honegatik Julio Urkixorekin adiskide mina zen, eta 1907an *Revista Internacional de Estudios Vascos* (RIEV) sortzetik bizkortzaile ez ezik aldizkariaren bizitza guztirako idazkari izan zen. G. Lacombe-k, bere lanik gehienak RIEV aldizkarian argitaratu zituen, bai hizkuntzari buruz eta baita argitaratzen ziren liburuen aburuz; anitz lan argitaratu ere. Hizkuntza gaietan jakitun zen eta Aldude eta Zuberoako euskalkiak ikertu zituen.

1920. urtean euskaltzain izendatua izan zen Broussain-en hutsartea betetzeko. Bere sarrerako hitzaldia Hazparneko udaletxean egin zuen, 1921eko apirilaren 8an, Broussain eta Bonaparte printzearen laneri buruz. Eta Azkue ber beragandik hartu zuen erantzumena, ongi etorria emanaz eta euskararen batasun premia agerraraziz. Azkue, ordurako



kezkatua zen: «Euskera zaarrak, birgaztetuko bada, nai ta ezkoa du banatasunetik batasunera etortzea», Euskalkiak ikertzen hainbeste lan egin zuen Azkuek euskara batuaren alde dei egin zuen duela berrogetahamazortzi urte. Gure hizkuntzaren bizi nahiaz larriturik aurkitzen zen, euskalki zatiketen eragozpenak argi ikusten bai zituen. Honegatik zion: «Edozein euskaldunek zati bat baino osoa maiteago izan bear du. Au gora-beera guziok «nik nerea, nik nerea, nik nerea»-ka astekoak bagera, otsoak eta aizeriak guziok ezereztu-orduko, sendoen bizi dan euskalkia ar bezate etorkizuneko euskaldun orok berentzat». (ikus hitzaldiok «Euskera»-n, II-II zeb. 1921, 51-63 orr.). Amesten zuen batasun horren teoria helburutzat har genezake Azkueren «Gipuzkera osotua», 1934-1935 urteetan «Euskera» bertan argitaratua, gipuzkoar aditzean oinarritua, beste euskalkietatik zenbait gauza osagarritz hartuaz.

G. Lacombe-k gehien gehiena frantzezez idatzi zuen; euskaraz oso guti. Hala ere baditu zenbait idazlan eta hitzaldi gure hizkuntza soti-lean emanaz. 1930ean, Jean Elissalde «Zerbitzari» zenaren sarrerako hitzaldiaren ihardespena. Zerbitzariren euskaltzaletasun suharraren gores-menez zion: «Guti dire, zu bezala, bihotz eta gogo barnetik senditu dutenak horiek oro ez direla aski eskuararen iraupeneko. Eskualdun laborariak eta langile guziak, beren mintzayaren merexi duen bezala maitha-tzeko, behar dute gaineratekoan irakurtu eta ahal balinbada idatzi eskuaraz, eta eskuara baratze bat bezala laboratu eta moldatu. Hala eskuararen balioa hobeki ikhusiko dute, eta atseginekin nola eginbidez beren haurreri erakatsiko diote Europako hizkuntzetarik zaharrena».

Esan bezala, iker lanean eman zuen fruturik hoberena, batez ere euskalari arrotzen lanak artxiboatatik argitara ateratzen eta lanok az-tertzen. Baina bilaketa horietan bestelakorik ere aurkitu zuen. Adibidez, Irunen 1846ko abustuaren 9an jokatu zen pilota partida ospetsuaren esku-izkribua, «Euskal Erria» aldizkarian 1909an argitaratu zuena.

Bere garaian, euskarari buruz egiten ziren edonolako ikerketa lanak hurbildik jarraitzen zituen Lacombe-k. Bere aulkia betetzera etorri zen Piarres Lafitte jaunak bere sarrera hitzaldian zionez: «Eskuararen ithurburuez duda-mudan zagon: Schuchardt zaukan bere jainko ttipi, eta hunek Iberotarra emanik eskuararen arbaso, ez zuen gezurtatu nahi; bainan ez zuen osoki sinesten. Caucase-ko ithurburu aipatu berria ez zuen baitezpada ukatzen, bainan beha zagon orain artinoko frogak ez askiz. Iduri zitzaion «indo-européen» delakoarekin bazukeela beharbada zerbaiz ahaidego ukanik aspaldiko mendetan: erromanoen hatzak zi-tuen kausitzen argienak, bainan aithor zuen latina ez zela nehundik ere gure mintzaiaren aita izaiten ahal» (G. Lacombe, Baiona, 1949, 8 orr.).

Euskaltzaindian sartzetik urrengo urtean Leenengo Euskaleguneta-

ko Itzaldietan partaide izan zen eta bere hitzaldia «Atzerriko euskalari-  
ez» izan zen. Arestian esan bezala, gai hau zen hurbildik jarraitzen  
zuen, eta P. Lafittek agertu zuenarren Schuchardt bere jainko ttipitzat  
zuela, Durangoko hitzaldi horretan, atzeritarren lanik garrantzitsuenak  
aipatzen dituelarik, honako laburpen hau egiten zuen azkenaldera:

«Gramatikan arrotzek estudiatu dute bereziki aditza. Aditza baka-  
rrik estudiaturik izan da hizkindeko gai guziak baino gehiago. Hemen dauz-  
kagu bi liburu bertze guziak baino indar gehiagokoak: Bonaparte-ren  
*Le Verbe basque* eta Schuchardt-en *Baskische Studien*. «La Syntaxe»  
deitzen dutena ez da, orai arte, barnetik estudiaturik izan. Eskuarazko  
hitzen harat-hunatak bereziki, Schuchardt-en eta Uhlenbeck-en idaztie-  
tan estudiatu behar ditugu. Eskuararen erroetan ere arrotzengatikako  
hitzak zein diren ezagutzen Schuchardt da nagusi».

Hori zen bere aitortzea, euskalari arrotzen lanak ezagutu ondo-  
rean. Hainbeste urteren ondoren, oraindik orain ere, egungo euskalari-  
ek G. Lacombe-ren bidetik ere ibili beharra dute, edo behinik-pehin hain-  
tzat hartu beharra, geroztik ezagutu diren aurrerapenak bestelakorik  
badakarte ere.

### Centenario del nacimiento de Georges Lacombe

El próximo día 31 se cumple el centenario del nacimiento del  
euskarólogo Georges Lacombe y la Real Academia de la Lengua Vasca  
- Euskaltzaindia se está ocupando de los preparativos para rendirle  
un merecido homenaje el día 26 de los corrientes en el Musée Basque  
de Bayona con conferencias de los señores O. de Apraiz, P. Lafitte y  
P. Charritton.

G. Lacombe nació en la población bearnesa de Orthez. Alentado  
por su madre vasca, desde muy niño se interesó por los temas de nues-  
tro país, primero por canciones populares y el aprendizaje del vascuen-  
ce y después, tras estudiar Filosofía en la Sorbona, por la lingüística  
vasca. En 1907, fue cofundador de RIEV con don Julio de Urquijo, y  
se ocuparía de la secretaría de Redacción a lo largo de la fructífera vida  
de dicha publicación. Colaboró en la mayoría de las revistas culturales  
de su época, pero sobre todo publicó numerosos trabajos en la mencio-  
nada Revista Internacional de Estudios Vascos, casi todos en francés  
y algunos en vascuence. Mantenía contactos con los euskarólogos extran-  
jeros que colaboraban en RIEV y se preocupó en la recopilación y  
estudio de los precedentes, desde Humboldt hasta el príncipe Bona-

parte y Van Eys. En los primeros encuentros organizados por Euskaltzaindia en 1921 en la villa de Durango disertó sobre el tema de los euskarólogos extranjeros «Atzerriko euskalariez» (Ved en «Lenengo Euskal Egunetako Itzaldiak», Bilbao, 1922). Sintió especial atracción por los estudios del alemán Schuchardt.

En 1920 fue nombrado académico de número de Euskaltzandia, ocupando la vacante de Broussain. Era, además, miembro de la Sociedad Lingüística de París y del Instituto Francés de Antropología. Tradujo del alemán una obra de Uhlenbeck. Además de su nutrida colaboración en RIEV y otras publicaciones, era autor de «Lengua Vasca», en la obra *Les Langues du Monde* (París, 1952), que él no llegó a ver a la luz, pues había fallecido en París, donde vivió la mayor parte de su vida, el mes de julio de 1947 a la edad de 68 años.

1979-I-15.

## JOANNES LEIZARRAGAREN LANAK

Iragan otsailean Bibliaren lehen astea ospatu zen Donostian, bertako Aurrezki Kutxaren Kultur geletan hitzaldiz eta erakusketaz.

Gipuzkoako Ebangeliozaleek eratua izan zen. Testamentu zahar eta Berri, liburu ederrik ikusteko aukera bikaina izan genuen eta euskarazkoak ere bere tokia izan zuten.

Aste hartan eman ziren hitzaldiak ordea, euskaldunontzat oso jakingarriak izan ziren. Bibliak berez duen garrantziaz gainera, munduko hizkuntza zibilizatu guzietara itzulia denez eta herririk gehienen historiari loturik dagonez. Munduan gehien irakurri den liburua da eta arduraz begiratzekoa zaigu. Holako ideia batzuk agertu nituen Joannes Leizarraga eta bere garaiko giroa aipatzeaz bat.

Juan Maria Olaizola, Julio Caro Baroja, Audelino González Villa, Virgilio Vangioni Rodríguez, J. Ignacio Tellechea Idigoras eta Juan Antonio Monroy izan ziren hizlariak. Nere ustez, hitzaldi hoietan gauza jakingarri asko esan ziren, bai Bibliaz eta bai gure historiari, baina egunkariak aski aipatu etzutelako edo, behar haina jente ez zen agertu, batez ere euskal kulturaz arduratzen direnetatik.

Egunotan, Hordago argitaletxeak, euskal klasikoen sailean kalera-tu du Leizarragaren obra osoa. Lan hau hiru tomok osatzen dute, bi Testamentu Berria eta hirugarrenean Othoitzza, Katexismea, Kalen-



JEANNE D'ALBRET.

*Reine de Navarre,*

*Morte à Paris, le 8 juin 1572 âgée de 44 ans.*

Joana de Albret, Nafarroako erregina,  
Biblia euskaraz jartzeko agindu zuena;  
1571ean J. Leizarragaren itzulpenez argitaratua.

drera eta ABC. Lan guziok Rotxellan argitaratuak izan ziren 1571. urtean; baina oraingo argitalpen hau, faksimilez egonarren, Linschmann eta Schuchardt-ek 1900. urtean Strasburgo-n birargitaratutik egina da, eta ez lehen argitalpen hartatik. Faksimilez egitean hobea izango zen lehenengotik, baina ale hoiek dituztenen partetik eragozpenak izan omen dituzte.

Esan dudanez, gure literaturarekin ez ezik, gure historiarekin ere zer ikusi handia du Leizarragaren obrak. Nafarroako Foru Diputazioko Aizpun jaunak oraintsu esana du, Nafarroak ez duela zer ikusirik gainerako probintziekin, ez historiaz eta ez hizkuntzaz. Ezagutzen dena maitatzen denez, Aizpunek, agertzen digunetik, ez du Nafarroa maite, bestela ezagutu behar zuen, euskara behin bakarrik izan zela ofizial mailara igoa Antso Naxerakoa errege zela, «Lingua Nabarrorum» izenez.

Bestalde, eta hau ere Nafarroaren alde zintzo jokatu nahi izan zutenen historiakoa da, Joana Albret erregina, Gaztelako erregearen jakabideen aurka, erlijioz ere aldatu zen eta Calvino-ren dotrinak harturik protestante bihurtu. Testamentu Berria euskaraz argitaratzea bururatu zitzaion eta hemendik sortu zen Leizarragaren lana. Leizarragak ordea, liburuaren eskaintzaz jarri zizkion hitzetan zionez: «Iainkoaren hitz pu-ruak ukanen luela sartze eta abanzamendu Euskal-herrian: eta hune-takotzat zu Andrea, hunez zerbitzaturen zinadela tronpeta baten antzera, zeinez Iainkoak deitzen baitzaitu hala zure Nafarroako berze leku guzietan».

Kulturaz hornitutako nafarrik bai ote, hori ez dakienik? Nafarroan, hain zuzen, euskarak beste inon baino hobeto, San Joannen araura, «Hatsean (hastean) zen Hitza» Eta, geroztikoa arrotza, Aizpuna bezala. Nafarroaren erresuman, beste inon baino hobeto hasera bertatik «Gauza guziak Hitz harzaz egin izan dirade: eta hura gabe deus ezta egin, egin denik». Hiri eta toki izenak hor daude lekuko.

XVI. mende hortako gertakizunak, Testamentu Berria euskaraz jartzea eta honen ondorioak, R. Lafón eta P. Lafittek ongi aztertu zituzten 1971ko Uztailaren 4an Beskoitzen Leizarragarren omenez egin zituzten hitzaldietan (ikus «Euskera», XVII, 1972, 143-154 orr.). Lehenago Dubarat-ek *Le protestantisme en Béarn et au Pays Basque* (Pau, 1895). Eta nere sarrera hitzaldian ere zenbait argitasun gehitu nituen (ikus «Euskera», XX, 1975, 195-208 orr.), euskal literaturaren hastapenekin zer ikusi handia duen lana denez.

Leizarragak bere lanerako oinarri hartu zuen Biblia, Pierre Robert, Olivetan izengoitidunak gertatua omen zen, eta Calvinistek 1588an argitaratu zutenari aurrea hartu zion.

Holako lan bat burutzea euskararentzat berri pozgarria zen eta

hala aitortu zuen Leizarragak bere hitzaurrekoan: «Euskaldunak bertze nazione guzien artean ez garela hain basa, non gure lengoagez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Iainko Iauna».

### Las obras de Juan de Leizarraga

Estos días, al ponerse a la venta las obras de Juan de Leizarraga, nos viene a la memoria la I Semana de la Biblia, que con gran éxito se celebró en San Sebastián a mediados del mes de febrero, bajo el patrocinio de Evangelistas en Acción y la Obra Cultural de la Caja de Ahorros donostiarra. En la exposición figuraba una sección destinada a versiones vascas de la Biblia. Se mostraban, entre otras, la traducción interdialectal de la versión de Leizarraga al laburdino por Gañdor (Bayona, 1928), ejemplar de una edición corta, pero no figuraba del propio Leizarraga más que la fotocopia de la portada de la edición príncipe de 1571.

En el ciclo de conferencias intervinieron J. M. Olaizola, J. Caro Baroja, A. González Villa, V. Vangioni, J. I. Tellechea Idígoras y J. A. Monroy, con eruditas disertaciones, y, en algunas, Juana de Albret de Navarra y Juan de Leizarraga fueron los personajes centrales del tema.

Ahora, Publicaciones Hordago, en su colección de clásicos vascos, ha dado a la luz las obras de Leizarraga: el Nuevo Testamento en dos tomos y sus trabajos menores, oraciones, catecismo, calendario y ABC en un tercer tomo. Ha sido una pena el que no hayan publicado en facsímil la primera edición, en lugar de la de Strasburgo (1900), llevada a cabo por Linschmann y Schuchardt.

La conquista del reino de Navarra por las tropas del Duque de Alba al servicio del rey Fernando el Católico, en 1512, contada detalladamente por el cronista Luis Correa, fue el último duro golpe a la monarquía navarra reducida únicamente a su sexta merindad, y distanció a la corona del catolicismo, en época de Juan de Labrit. Una heredera, Juana de Albret, reina de Navarra y señora de Bearne, en la Pascua de 1559 adjuró pública y solemnemente el catolicismo y abrazó la reforma de Calvino. En consecuencia, el sínodo calvinista celebrado en Pau (1564) encargó a Leizarraga la traducción del Nuevo Testamento al vascuence, que costado por la citada reina vio la luz en la Rochella en el año de 1571, adelantándose de ese modo a la Biblia calvinista de Ginebra (1588).

Fue un momento interesante para la literatura en vascuence. El trabajo de Leizarraga impulsó la reacción católica que daría cuerpo a un movimiento literario de la vieja lengua.

Aún hace escasos días, que entre otras cosas, el señor Aizpún diputado navarro, declaraba la no existencia de vínculos lingüísticos entre las vascongadas y Navarra. Sin vínculos no se entiende el hecho de Juana de Albret, ni la proclamación de la «Lingua Navarrorum» por un rey navarro anterior, ni la realidad de los actuales pueblos euskaldunes de Navarra, ni la toponimia del sur, ni el propio apellido del declarante. Con el euskara, a Navarra mejor que a nadie «*In principio erat Verbum*» (J. I,1).

Por ser la Biblia la obra más leída por la Humanidad en el transcurso de la historia, la reedición de la obra de Leizarraga tiene un interés especial, pero muy particularmente, para nuestra literatura, por cuanto expone L. Villasante en la página 59 de la «Historia de la Literatura Vasca» (Bilbao, 1961).

1979-IV-9.

## BAKARRIZKETA MIKELI

Mikel: Nahiago neban orainarte lez alkarrizketaz jarraitu, inoiz eztabaidatxoren bat gora-behera, zintzotasunaren indarrez alkarren lagun ginalako; baina nork uste izango eban hain gazte joango zinanik? Orain, bakarrizketaz natorkizu.

Abade egin barri Geriako egotaldian ezagutu ginan alkar, «Zirikadak» eskuan, inguru honetako umoreaz liluraturik etorri zinanean. Txorierriko guraso hizkera jatorra zenduan iturburutzat, zeure amamaren esaldi eta berbetako erak gogoan harturik; harrobi aberatsa zenduan hizkuntzaren zimentarri. Honegatik, zu lez hornituentzat bihurtu zan euskara batua, ebakuntza. Baina, halabe, ulertu zenduan, bizi behararren txertakuntzaz, eta nekeza izan baiatsun be, baturantz jo zenduan. Honek dira bizitzak lagatzen dituen zauriak.

Bizkai aldeko idazleak geuregan izan doguzen gora-beheretan, Azkue hartu zenduan maisutzat, eta honek irabazi eban ustekoa zinan, Bergarako Batzarretan agertu zenduan. Uste berekoa nozu.

Norbaitek esana da, euskaldunon eta euskararen batasunaren kezak leherturik hil zarala. Horrek be, gehienori lez, bihotza eragingo

zeutsun, bai; baina askoz be gehiago hainbeste lan zeure lepora hartu beharrak eta batez be hainbeste abertzaleren euskaraganako ardurabagetasunak. Zerk eroan zinduzan bestela deituren eztabaida ta matrakak sortzeaz, poesi liburuaren sarrera haretan:

—«Yo soy Barayazarra».

—«Yo soy Apraiz».

—«Yo soy Laibarra».

—«Ni... Pérez naiz».

Egia esan, euskararen hesparruan ez zenduan mugarik, euskaltzalerik gehienok eritzien gainetik garelako anai. Hola agertu zenduan —agertu genduan— gure Arestiren ehorte egunean, zu abade eta ni, Eibarren esaten dogun moduan, «Kura laiko». Nere berba ahulak hai-zeak eroan ebazan eta zure otoitza hor gelditu jakun:

### **Gure Aita**

*esan dut, Aresti,  
kaleko arkaitz,  
aurkako bidezti  
kontentagaitz.*

*Gizarte kutsatuaren  
parnaso berriko  
aintzindari,  
hizkuntza urbanoaren  
sortzaile taldeko  
mailukari,*

### **Harri eta herri:**

*harritxo bat izan nabi nuke,  
harritxo bat nik ere,  
egunotan,  
harrizko herri hontan.*

Inork ez daki gogoaren indarra zer dan, baina zerbait probatu dogun euskaltzaleok gure aldazgoran. «Harritxo» bat baina gehiago izan zara harrizko herri honetan. Zure lumatik ipuinak, eleberriak, olerkariak, saiaerak... berrogeta sei urtera heltzeaz hamasei liburu eta beste bat bidean. Horrezgainera, jakintzaz jantzirik zinan, eta gazteak eskolatzen egin dozun lanez, hor ditugu euskaltzale helduak, euskaldun berriak eta idazle ikasiak, zure bakardadeko:



*Numenaren inguma,  
isilaren atsegin,  
mahai, liburu, luma...,  
eta anitz zeregin.*

Zure eten gabeko gogo betean ekinaren frutu.

Herriaren euskara bizitik jasotako gatza eta piperra be erabili zenduan, gure literatura idatziarentzat uzta eskainiaz. Umore bizia, humore zintzoa. Hori azaldu zenduan zeure ipuinetan, baina batez be lagunarteko alkarrizketak alaitzeko. Zuk kontatutako pare bat hizkirimiri edo txiste agertu nituan «Usteak» zeritzan artikulu batean (HOJA DEL LUNES, 1978.11-13) eta Timoteo de Urkiri, CMF. dalako batengandik, asto-baltzarenak jaso nituan, gutun irikiz (EL DIARIO VASCO, 1978-11-16), «su escrito podría figurar, y, con bastante empaque, en una antología de prosas anticlericales» esanaz. Gertaera hau zuri kontatu neutsunean, aze barreak egin zenduzen. Eta, nik dakidanez, egundo ez neban idatzi ha baino artikulu klerikalagorik. Abadiak kontatua gainera.

Kepa Enbeita «Urretxindorra» zanaren omenaldi egunean, Autsegan alkarregaz afaldu genduan hara hizlari joan ginenak eta, ohi zenduan lez, danbolin ederra ipini zenduan afalkideen alaigarri. Nork esango leuskun orduan hilebatzuk barru heriotzak eroan behar zinuzela?

Gure artean amaika jatordu alai ipinitakoa zinan. Agur eta gorazarre, adiskide maitea.

Zuk emona, gure artean, ezta makala izan. Bai, Mikel Zarate adiskidea, zure heriotzagaz langile on bat eta adiskide hobe bat galdu dogu. Euskal-literaturan betirako leku egoki bat izango dozu; baina oindinok beharrezko zinan gure artean.

Bete ete zan zure gogoak gura ebana? Ezetz esango neuke. Baina ezta izan zure ahaleginen faltaz, ez. Nekeak ito zaitu bidean, Mikel, baina zuk ereindako hazia lerdan dator eta itxaropena etorkizunean:

*Europa zaharreko  
erlikia lerdan,  
bitxi zapalduaren  
nekezko iraupen:  
Europa berria dun  
hire itxaropen.*

## Soliloquio a Mikel

Con el presente monólogo pretendo dedicar un sentido recuerdo al escritor Mikel Zárate, con quien en vida compartí tantos diálogos en torno a la literatura en general y sobre la unificación del euskara escrito en particular. Como vizcaíno en quien pesaba la castiza vena de la tradición popular, sus formulaciones hacia la lengua literaria común, a partir de la variedad vizcaína, han sido aportaciones muy válidas, sobre todo en su orientación al máximo aprovechamiento y acercamiento al lenguaje popular vivo.

Mikel, profesor en varios centros, escritor fértil galardonado con los premios más renombrados, a quien su excesiva laboriosidad le cortó la vida: cuentos, narraciones, novelas, poesía, ensayo... habían brotado de su jovial pluma en las horas libres que le permitían las obligaciones de su magisterio, pues era profesor en Derio, Escuela Oficial de Idiomas y Universidad de Deusto.

Sacerdote de vocación tardía, alegre y cordial que sabía identificarse con el elemento popular de su pueblo, que gustaba y compartía las bromas y los chascarrillos. El me encontró emocionado a través de la lectura de mi libro «Zirikadak». Actitud significativa ésta, desde cuyo momento hicimos gran amistad y dialogamos ampliamente de lo divino y de lo humano. Y cuando le mostré aquella carta abierta dirigida por Timoteo de Urquiri (El Diario Vasco, 16-11-1978), tachándome de anticlerical, en respuesta a unos chascarrillos recogidos en Placencia, Eibar y del propio Mikel (que días antes había publicado en estas mismas columnas), él se reía a carcajadas. Lo de Timoteo, le escamoteó. Pero Mikel no era ningún timorato. El sabía de los infinitos aspectos de la literatura popular y de su sentido del humor.

Mostró su humanismo cuantas veces le fue necesario. Por encima de todo estaba el hombre con todas sus virtudes y defectos como la principal criatura de la creación. Por esto, cuando Gabriel Aresti cumplía su última voluntad por lo civil, a mí me tocó hacer de «cura laico», a L. Haranburu Altuna leer el panegírico, a Fr. V. Gandiaga elevar una plegaria por su alma, mientras que Mikel, allí presente, le dedicó un emotivo poema, que se halla recogido en su libro «Higidura berdez». A aquel último adiós de Derio acudieron tantos clérigos como laicos, motivado por la fraternidad en la causa lingüística, de la que la reciente antología «Agiriak» es una prueba evidente.

Su fuerte concienciación hacia el problema de la vida del vascoense le arrastró a una ingente labor, tal vez más allá de sus fuerzas, y al fallecer a los cuarenta y seis años nos ha dejado deciséis obras termina-

das y una más en vías de terminar. Por una parte era consciente de que éramos pocos a trabajar por el vascuence, y por otra le favorecía su rica disposición para la inspiración creativa; pero tal vez fue más allá de su capacidad física, que alteró su sistema cardiovascular. Por otra parte, sufrió como todos nosotros en la problemática de la tan necesaria unificación e institucionalización de la lengua para elevarla a estamentos superiores. Pero sobre todo, sufría ante la indiferencia de muchos abertzales para el euskara, como testimonian algunas poesías suyas. Y su presencia entre nosotros era importante.

En este momento sólo podemos desear eterna gloria para el laborioso amigo que acabamos de perder.

1979-IV-23.

## LAU NAFAR IDAZLEREN GORAZARREZ

Nafarroan, euskara galdu zen eskualdeetan birreuskalduntzearen berbizkunde indarra helduaz zetorren gure mende honen lehen partean. Besteak beste, A. Campián izan zen gogoa piztu zutenen artean buruzagi. Baina gerrak dezegin zituen orduko nafar euskaltzaleen asmoak.

Geroztik, euskararen alderako ekintzak oztopoa besterik ez dute izan. Duela hogeiren bat urte, J. Urmeneta eta P. Diez de Ulzurrun medikoa hasi ziren Foru Diputazioaren babespean Nafar hizkuntza jatorraren alde lan egiten, Antso erregek izendatu zuen «Lingua Navarrorum» bizirik irauneraziz, baina oztopoa oztopoaren gainean.

Urteak igaroarren ezta guziz itzali Nafarroan euskara eta hare gutiago nafarren gogoa, hainbat aldiz Belzuntzekoarena birretsiaz egiten genuen galdea: «Nafartarren arraza, hila ala lo datza?».

Ez lo eta ez hila, Nafarroak oraindik badu arnasa. Ekintzak berriz indartu beharra dago, Nafarroa zer den eta zer izan den bere barnetik ikusiaz.

Nafarroari askok ukatu dioten euskalduntasunaren aurrez aurre, aste hontako ostiralez eta Nafarroako Comptos Ganbara jauregi berean<sup>1</sup>, lau nafar euskal idazleren omenaldiak ospatuko dira. Hauetatik bi duela ehun urte hil zirenak eta beste bi orain ehun urte jaiokoak. Hau da, Nafarroaren lau aldeetako lau idazleren oroitzua herriari agertu, gogo berritzea bultzarazteko.

Hara hemen lau gizonon berri laburrak:

Manex Etxamendi «Bordel» (1792-1879). Luzaideko semea. Bersolaria zen, baina ez edonolakoa, baizik noizbehinka ematen diren hoietakoa, ikasia eta herrikoia. Berdin egiten zituen bat-bateko bertsoak edo naiz idatziak. Luzaide, Nafarroako seigarren Merindatearen zati bakarra dugu gaur egun Espaniako estatu barnean duguna, gainerako erresuma guzira Frantziako estatuarena da. Pirineo mendien gailur eta lepoetatik bi Estaduen artean azken zatiketa egin zenean pasatu zen Aldude Frantziara eta iskanbilarik aski izan zen Luzaidekin gauza bera gerta ez zedin. Hontaz ere egin zituen bertsoak gure Bordelek, nafarren batasunez mindurik. Bere zenbait bertso, herriak, ahoz aho gure egunotaraino kantatu ditu eta Aita Donostiak korurako armonizatu zuen «Mendekoste Bestetan» deritzana. J. M. Satrustegik, bere bizitza ta lanez liburu eder bat eskaini zigun Auspoa liburutegiaren bidez eta Satrustegi bera mintzatuko zaigu Bordelez.

Pedro Prudencio Hualde Maio (1823-1879), Nafarroaren ekaldean eta Erronkariko hegoaldean kokatzen den Bidankoze deritzan herrikoa. Lehen aldiz Erronkariko «uskaraz» idatzi zuena. L. L. Bonaparte printzearekin izan zituen harremanak. Astete-ren katixima itzuli zuen, printzeak 1869an Londres-en argitaratua. San Mateoren ebangelioa ere itzuli zuen baina argitaratu gabe gelditu zen. Julio Urkixo hasi zen RIEV aldizkarian zatika argitaratzen, baina aldizkaria suntsitzeaz bertan behera gelditu ziren Urkixo zenaren asmo onak eta euskarak kultur biderako aintzinamenduak. Hualderen esku-izkribuak, gaur egun, Nafarroako Foru Diputazioan gordetik daude eta San Mateoren ebangelioa oso osorik argitaratzea merezi du.

Jose Iturriak, kaputxinoa zenez, bere ordenako izen-deitura Aita Jose Aranaz zuen, Arantzan jaioa zenez (1879-1952), baina, hala ere, euskal literaturan «Jose de Lezo» edo «Lezoko Jose» bezala ezagunagoa dugu. Bidasoako Arantzakoa izateaz, Nafarroaren ifar-sarkaldeko herri euskaldunera garamaz. Predikari bezala ezagutu zen eta gai hontaz hiru liburu argitaratu zituen «Nere laguna» izenburuz 1922, 1926 eta 1931an, baita ere «Eiza-iztia edo Abere ta piztiak» zeritzan lana Bilboko «Euskadi»-n zatika argitaratua. Aldizkari honez gainera «Zeruko Argia»-n kolaboratu zuen. Bere emaitzaren frutuak askok uste baino ugariagoak izan dira.

Arrigaray ordea, Nafarroaren hegoaldean Erriberako Kaparroson sortua zen, duela ehun urte. Celestino Peralta zuen bere bataio ize-deitura, baina kaputxinoa zenez, A. Celetsino Caparroso hartu zuen bere ordenako izentzat. Hala ere, Arrigaray bezala ezagutua da, bere deitura Peralta-ren itzulpenez. Hemen agertzen ditugun lau nafarretatik hau zen euskaldun-berri bakarra. Beste hirurak sortzez ziren euskaldunak,

baina erriberatarrak geroztik ikasi beharra izan zuen. Bere gramatika, 1931garrenean argitaratua, euskaldun askoren gidaritza izan da, eta hein batean batasunerako ere bai, nafar-gipuzkeran oinarritzen zelarik, lapurtarretik zenbait jantzigarri hartuaz. Euskara oso ongi menderatzerara heldu zen eta gure hizkuntzaren irakaskintzan lan asko egin zuen. Horrez gainera, euskal-literaturako autore zaharrak ongi ezagutzen zituen. Bere ekintza, Nafarroa euskalduntze berbizkundearen aldekoa izan zen, bere jokabidea eredutzat eskainiz eta bere lanak bideratzearen lagungarri.

Bordel, Hualde, Iturri (Lezo), Arrigaray, Euskal-Herriko Nafarroaren lekukoak eta mugimendu berri baten eragileak, zuen gogoia ereinaz berbiztuko dugu nafar herria bere erresuma zabalean.

1. Azken orduan gauzak aldatu ziren eta Nafarroako Museoa ospatu zen.

### **En homenaje a cuatro escritores navarros**

El próximo viernes día 25, la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia tributará homenaje a cuatro escritores navarros. El acto tendrá lugar a las once de la mañana en la Cámara de Comptos de la Diputación Foral de Navarra.

Se trata de los escritores Echamendi «Bordel», Hualde, Iturria «Lezo» y Peralta «Arrigaray», al cumplir el presente año el centenario del fallecimiento de los dos primeros y nacimiento de los dos segundos. Da la coincidencia de que los lugares de nacimiento de los citados escritores marcan los cuatro puntos cardinales de la geografía de Navarra.

Bordel de Valcarlos, único municipio de la sexta Merindad (o Baja Navarra) que pertenece al bloque principal navarro, fue en vida un bersolari culto y a la vez popular, que compuso muchísimos versos escritos e improvisados, de los que buen número de los mismos nos han llegado por transmisión oral. Y su «Mendekoste bestetan», cien años más tarde, fue armonizado por el P. Donostia.

Hualde de Vidangoz (valle de Roncal), fue quien primero escribió en aquel dialecto del euskara. Actuó de corresponsal con el príncipe Luis Luciano Bonaparte en la formación del atlas lingüístico del idioma vasco, y por su encargo tradujo el catecismo de Astete y el Evangelio de San Mateo.

José Iturria «Lezo» era de Aranaz, una de las cinco villas del Bi-

dasoa. Publicó tres libros de homilías bajo el título de «Nere laguna», más otro trabajo sobre la fauna del país que vio la luz en varios números de Euskadi, en Bilbao. Parte de su obra permanece inédita, cuyos manuscritos se guardan en el archivo de los PP. Capuchinos, orden a la que perteneció Iturria.

Celestino Peralta, más conocido por Arrigaray, también fue capuchino como Iturria, y tomó como nombre de la orden el de R. P. Celestino de Caparroso, pues él era del municipio de Caparroso de la Ribera. De los cuatro a homenajear, él era el único «euskaldun berri», que recuperó la lengua siendo adulto. Digo recuperar porque él la consideraba suya a pesar de haberse perdido en Caparroso hace un par de siglos. Se convirtió en profesor de euskara y publicó una interesante gramática que sirvió de avance para la metodología de la enseñanza de la lengua y para la normativa de la unificación escrita. Era, además, conocedor de los autores antiguos más importantes. Con su labor pretendió inculcar el restablecimiento de las campañas de recuperación de la «Lingua Navarrorum», pero la guerra del 36 vino a truncar sus buenas aspiraciones.

Cuatro ilustres navarros, de los cuatro extremos de Navarra, cuyas memorias deben ser difundidas por su extensa geografía para que en este territorio tan discutido se conozcan y se honren. Bien se merecen los hombres que amaron y trabajaron por su propia tierra.

1979-V-21.

## HUGO SCHUCHARDT

Lehengo batean, Gunter Brettschneider-ekin mintzatu nintzen eta pozarren agertu zidan Schuchardt-en gutunak nola bildu dituen eta Sarako euskarari buruz egin zuen lana ere nola hatzeman duen.

Egia esan, nere iduriz behintzat, aski ahantzia dugu hizkuntzalari ospetsua, eta gure eginkizunen artean, bere lanak gaztelerara, frantzezera edo euskarata itzuliaz zabaldu beharra ere badugu. Hugo Schuchardt-en espezialitatea erromanikak izanarren, euskarari buruzko lan asko idatzi zituen. Askí dugu J. Bilbaoren «Eusko Bibliographia» be-giratzeari, bere VII. tomoaren 467-470 orrialdeetan. RIEV aldizkarian bertan anitz lan argitaratu zituen. Bere garaiko linguistarik ospatsuenaz en.

Euskararen ikerketak Europako filologia zientzientzat duen garrantzia agertzeaz Gilen Humboldt izan zen lehen lehenik eta orduandik piztu zen ekintzaren ondorena zen 1866. urtean K. Hannemann eta Th. Linschmann-ek Berlinen sortu zuten «Euskara» aldizkaria. Hiru hilabetero agertu zena 17. zenbakira arte. Geroztik, aleman jakintsuek, arduraz jarraitu dute euskararen ikerketa, eta asko zor diegu gai hontaz.

Schuchardt, jatorriz Turingia-koa zen, Gotha hirian jaio 1842ko otsailaren 4an. Jena eta Bonn-en egin zituen ikasketa nagusiak eta 1864-an hartu zuen doktoradutza, geroago, gehiturik argitaratutako, «Der Vokalismus des Vulgärlateins» deritzan lanez. Europako hizkuntza askotan egin zituen konparaketazko ikerketak eta erromanikazko hizkuntzez soilik ez zen konformatu, baizik euskaldungoan ere inhardun zuen. Bere azken urteetan Graz-en irakasle zen eta hemen itzali ziren bere bizitzako azken egunak, 1927ko apirilaren 21ean.

Hil zenean, bere ikasle izan zen Gerard Bähr-ek (Legazpin jaiotzen hau. Ikus, *Gogoz* liburua 359 orrialdean) biografiazko liburuxka bat idatzi zuen euskaraz. «Hugo Schuchardt zana» (Iruña, 1928) Euskararen Adiskideak deitu elkargoak argitaratua. Eta, honen ildotik emango ditut zenbait berri.

Euskara ongi zekiela aitortzen digu. Jakin ere, euskalkirik euskalki gainera. Hala ikus daiteke, adibidez 1922an Eusko-Ikaskuntzak eratu zituen bigarren batzarretara alemanez bidali zuen poesiari berberak egin zion euskarazko itzulpenetik.

Euskaraganako lehen kezka mutikoa zela iratzartu omen zitzaion, karlisten lehenengo gerratetik ihes egindako kapitana bat ezagutzeari. Baina, 1919an Julio Urkixori egin zion gutun batetik dakigu Schuchardt berberak kontatua, Gotha-nen 1840tik 1860an hil arte bizi zen Barón von Rahden, kapitana ez, baizik karlisten generala izan zena. (Aipatzen den gutun hau «Primitiae Lingvae vasconum»-en hitzaurrean agertzen da. Salamanca, 1947).

Ibero ikerketak egitetik jo zuen euskarara, arestian aipatutako gutunean agertzen duenez, eta berrogei urte zituen Euskal Herrira jo zueanean. Hasteko, Baionan bilatu omen zuen neskame euskalduna. Honek, zer nahi zuen galdetzeaz: «euskara ongi ikasi» eta harek berriz «holako asmo gogorretarako zahartxoa zaitugu», erantzun omen zion irriparez. Gogorra bai, baina bere burua gogorragoa eta adimena zorrotza, esango digu Bähr-ek.

Sara herritxoa hautatu zuen bizileku. Han, solasaldi luzeak izan omen zituen Etxeberri zeritzan zapatari prestu batekin eta hiru hilabeteren buruan Lapurtera bereganatu omen zuen. Euskaldun askoren esanera, «arras ederki» zekien mintzatzen. Gerostik etzuen izan Euskal

Herrira itzultzerik, baina ez zitzaion ahaztu euskararik. Hare gehiago, euskalkiak liburuetatik ikasten jarraitu zuen.

Euskara-Ibero teoriak sakondu zituen. Baina hauek geroztik behera etorri dira Zyhlarz eta Bähr beraren ikerketak eman zuten argitasunez. Bestalde, Detxepare eta Leizarraga autore zaharrak estudiantu zituen, eta hoiien aditz jokoez gainera beste lan asko egin zituen euskara bere barnetik estudiantuz. Hauen artean, Sarako euskara 1922. urterako burutua. Bere azken urteetan gogoz aritu zen euskarazko lanez. Adiskide bati idatzi zionez: «Orain ere, ia hiltzeko zorian nagoen honek, euskarari ekitea nere pozik atseginena dela derizkiot».

Lau Unibertsitatek ohorezko doktor izendatua zen eta hogetabost Akademiak beren elkargoetan izendatua. Euskaltzaindiak bere sorreran ohorezko izendatu zuen eta euskal lanen alde urtero 500 pezeta ematen zizkion. Bere heriotza ondorean Euskaltzaindiaren gelan argazki handi bat jartzeaz gainera, «Schuchardt saria» sortu zuen euskarazko literatura lanentzat.

Gernikako jaialdira bidali zuen agurra ordea, gaur bertan ere ongi datorkigu. Bizkaieraz egina zen eta honela bukatzen zuen: «Zaarrak zaree zuek, euskaldunok; ez barriz, zaar makur indargatuak. Zuen gazte-indarra gaur agiri da itxaropenez barrizatua ta goratua. Goiz gorri ederra bezelantxe agurkatzen zaituet».

## Hugo Schuchardt

Hugo Schuchardt ha sido uno de los más destacados euskarólogos de la escuela alemana, cuyo iniciador fue Guillermo de Humboldt, quien con sus estudios llamó la atención de los filólogos europeos de su tiempo y valoró los estudios vascos. La actuación de Humboldt despertó tanto interés, que al correr de los años, como consecuencia, K. Hanemann y Th. Linschmann crearon en Berlín la revista trimestral «Euskara», que llegó a editar 17 números.

Días pasados tuve la oportunidad de conversar con el profesor Brettschneider, quien, con la seriedad que caracteriza a los alemanes en la disciplina de los estudios, ha llegado a dominar a la perfección el euskara y el castellano, y me hablaba ilusionado por haber recuperado la documentación epistolar y el estudio sobre el euskara, de Sara, de Hugo Schuchardt.

Schuchardt fue el lingüista más prestigioso de su tiempo. Se especializó en lenguas románicas, pero al tratar de estudiar los iberos,



llegó a los vascos y, al igual que Humboldt y otros, quedó prendado por la estructura de nuestro idioma que estudió, primero a través de los libros y luego en el pueblecito labortano de Sara, y le dedicó los últimos años de su vida, estudiando las formas verbales de antiguos autores como Detchepare y Leizarraga y las variaciones dialectales recogidas por el príncipe L. L. Bonaparte.

G. Lacombe señalaba entre sus principales obras: La introducción a la reedición de Leizarraga (1900), Vasco y románico (1906), La declinación ibérica (1907), Nubio y vasco (1912), Vasco y hamítico (1913), ¿Vasco-ibero o ligur? (1915). Para el conocimiento del vasco de Sara (1922), *Primitiae Linguae Vasconum* (1923), El vasco y la ciencia del lenguaje (1925). Todas ellas escritas en alemán, pero algunas han sido ya traducidas. Por ejemplo, *Primitiae Linguae Vasconum*, con versión española y notas de A. Irigaray, se publicó en 1947 por la Universidad de Salamanca. Otros trabajos vieron la luz en RIEV, en el Boletín de la R. S. V. de Amigos del País y otras publicaciones.

Schuchardt nació en Gotha en 1842 y murió en Graz en 1927. Al año y medio de su fallecimiento, Gerard Bähr compuso una breve biografía en vascuence y que fue publicada en un folleto de 12 páginas por la entidad «Euskeraren Adiskideak» de Pamplona.

Schuchardt siempre ocupará un lugar preferente entre los más destacados vascófilos extranjeros.

1979-VI-4.

## BRUNO ETXENIKE ETA BERE LANAK

Louis-Lucien Bonaparte printzearen lankide gorenetakoen artean aipamen berezia merezi du Bruno Etxenike zenak. Ez zion alperrik esango, printzeak bere gutun batean: Zu zaitut eskatzen ditudan itzulpenok nola behar duten bereala ohartu den bakarra.

Bruno Etxenike Garmendia Urdazubin sortu zen, 1819ko uztailaren 9an. Bataio izenez, Bruno Eugenio Maria jarri zioten. Bere aita eta aitatxi ere Urdazubikoak ziren; ama ordea, Berakoa. Beraz, Bruno Etxenike, Axularren sorterrikoa zen, baina bere bizitzako parte handi bat Elizondon igaro zuen, Mugairetik Elizondora bidean aurkitzen den Datuegaraia (Datuena) jauregian. Bonaparte printzearekin hemendik izan zituen harremanak, 1857tik 1862ra bitartekoak behinik-pehin, itzulpen

lanak burutu zituen garaian. Gutunik anitz idatzi zion hemendik printzeari. Bere seme Bruno Etxenike Meokik, printzeari egindako berrogei gutun gordetzen zituen eta J. Urkixori utzi zizkion RIEV-en argitaratzeko. Gero Nafarroako Foru Diputazioeak erosi zituen gutun horiek. Gaur egun, L. L. Bonaparte printzearen eta bere laguntzaile euskaldunen arteko harremanak ikertu nahi dituenak beharrezkoa du gutun hoiek aztertzea.

Etxe aberatseko gizona zen eta, honegatik, diru laguntzaren eskerik gabekoa izan zen printzeari eskaini zion laguntza. Printzeak, Bruno ihizazale zenez, eskopeta bat erregalatu zion bere laguntza eskertu nahirik, eta azken gerratean galdu zitzaizen Etxenikeren biloberi. Ihizaria, arrantzalea eta ibiltari handia omen zen, eta esaten dutenez, Urdazubitik Gasteizera zenbait aldiz mendiz mendi joana omen zen ihizan eginaz. Ibilaldiotan, esan ohi da, Baztan, Ultzama, Sakana, Burunda eta Nafarroa erresuman euskalkien arteko desberdintasunez ohartzten zela eta elkarren arteko konparaketak ikertzea gogozkoa omen zuen.

Honez gainera, bere bizitzaz oso guti dakigu. Bi aldiz ezkondu omen zen. Lehen emaztea Ruiz de Alegría deiturazko arabar bat omen zuen eta beragandik seme-alabak izan zituen, Mikaela eta Joakin. Bigarren ezkontzako emaztea Prudentzia Meoki, eta honekin hiru seme, Bruno, Salvador eta Saturnino. Eta, hoiendorenaz senitarte handia utzi zuen.

Iruñan hil zen, 1893. urteko martxoaren hamalauan.

Nolakoak ziren printzeak agintzen zituen Biblia itzulpenak?

Duvoisin kapitanak Hiribarren apezari esan zionez, Bonaparte printzeak katoliko egiten zuen bere burua, baina Biblia euskaratzean ezertariko oharrik gabekoa nahi zuela, hizkuntzalarientzat nahi zenez. Intxauspek eta Uriarte berak egin zituen ahaleginak alperrikakoak izan ziren. Hontan: «Protestanteek berak baino estuagoa zen gure Printzea», esango digu Aita Akesolok. Bonapartek ez zuen nahi ez behar Biblia beraren itzulpeneko euskara baizik. Baina, bere ekintzari esker, gure literaturaren aberasgarri ditugu bere laguntzaileen lanak.

Bestalde, euskalkiak mugatzeko lehen lan serioetan probetxugarri izan ziren eta Azkue berak ere *Morfología vasca* deritzan lanerako erabili zituen. Baztango euskalkiaren berezitasunez ere baliatuz. Baina, euskalkien ikertze sakon baterako oraindik bada hor materialik aski eta ondoko gizaldiak bertara jo beharko dute gure hizkuntzaren Atlas osatzeko orduan.

Brunok, Bonaparteren aginduz, Bibliaren bost zati itzuli zituen euskarara. Hauetatik bi baizik ez ziren argitaratu:

San Mateo-ren Ebangelioa (*El Evangelio de San Mateo*, Londres,

1857), goi-nafarreraz idatzia eta Jonás-en profecía (*La Profecía de Jonás*, Londres, 1862), Baztango euskarán, joan zen mendearen erdialdera Elizondoko hirian erabiltzen zen erara.

Argitaratu gabe dauden esku-izkribuen artean, nafarroako Foru Diputazioko gordailuan daude: *Salomon-en Kantiketako Kantika*, *Ruth-en liburua*, *San Mateo-ren Ebangelioa*-ren bigarren itzulpen bat eta *San Juanen Apokalipsis*, laurok Baztango euskaraz idatziak.

Iragan maiatzaren 25.ean Iruñan Prudentzio Hualderi buruz eman nuen hitzaldian esan bezala: oroi, gizonak munduan gehien irakurri duen liburua Biblia dela; oroi, argitara gabe gelditzen zaizkigun itzulpenogatik historiarekin eta euskararekin zordun gaudela. Gure literatura ez baita aberatsegia holako lanak gordailu zoko batean edukitzeko.

Ikus dezakegunez, gure euskarak badu oraindik bitxi ederrik izkutaturik. Noiz ikusiko dute argia?

### Bruno Echenique y sus obras

Al conmemorar el centenario de las Fiestas Euskaras, quiero traer al recuerdo a uno de los promotores de las mismas al frente de la Asociación Eúskara de Navarra: Bruno de Echenique; y perfilar, escuetamente, algo de su vida, su obra y sus relaciones con el príncipe Luis-Luciano Bonaparte.

Bruno Eugenio María de Echenique y Garmendia, nació en Urdax el 9 de Julio de 1819, y vivió gran parte de su vida en Elizondo, en la mansión palaciega de Datuegaraya (Datuena). Fue hombre de buena posición social y gran cazador.

De todos los colaboradores del príncipe, fue el que mejor se hizo cargo de sus investigaciones y del método por él adoptado.

Falleció en Pamplona, el 14 de Marzo de 1893.

Por encargo del príncipe Bonaparte tradujo al vascuence navarro, cinco partes de la Biblia: *El Evangelio según San Mateo* (Londres, 1857) y *La Profecía de Jonás* (Londres, 1862), más las hasta ahora inéditas: *El Cantar de los Cantares de Salomón*, *El libro de Ruth* *El Evangelio de San Mateo* (en segunda versión) y *El Apocalipsis de San Juan*, todos ellos en dialecto baztanés, cuyos manuscritos se conservan en el Archivo de la Diputación Foral de Navarra.

1979-VII-23.

## ETXENIKE ETA BONAPARTE PRINTZEAREN ARTEKO HARREMANAK

Nondik eta nola hartu zituen Etxenike zenak Louis-Lucien Bonaparte printzearekingo harremanak?

Bonaparte printzeak Klaudio Otaegi hondarribiar maisua ahaideko zuen, elkarren emazteak ahizpak zirenez. Bere bidez ezagutu zuen nonbait Antoine d'Abbadie eta honek bultzatu zuen euskararen iker lanetara.

Oroi, d'Abbadie jauna izan zela Euskal Jaien sortzaile eta eusle. Urruñan 1853. urtean sortu eta mugazemendik, duela ehun urte lehenbiziko aldiz Elizondoko hirian. Besteak beste, Nafarroako Asociación Euskara elkargoa osatzen zutenekin batean Bruno Etxenike ere partaidea izan zen 1879. urte gogoangarri hartan. Eta, banatu ziren sarien artean, eskola maisurik hoberenaren saria K. Otaegirentzat izan zen.

D'Abbadiek 1856ko apirilaren 25ean egin zion gutun baten bidez gomiatu zuen printzea, Euskal-Herrira etor zedin. Eta, printzea, ikertze asmo berri hura aurrera eramanez nahirik, urte bereko uztailearen 19an heldu zen Baionara eta egun berean agurtu zuten laguntzaile izango zituen Duvoisin eta Intxauspek. Berealaxe Nafarroako bi alderdiekin harremanetan jarri nahi zuen eta abuztuaren 7-rako Baigorriko Etxauz jauregirat dei egin zion d'Abbadie jaunak, bere anaia zen Charles bizi bai zen orduan jauregi hontan; eta gutunean zionez, Elizondon bizi zen Etxenike hau ezagutzeko aukera izan zezan. Eta 1856ko abuztuaren 11an heldu zen Bruno Etxenike Urdazubitik Baigorriara. Hogeitahamasei urte zituen Brunok eta elkarren artean izan zuten lehen harreman hartan hartu zuen beregan San Mateoren Ebangelioa euskaratzea. Bai laster burutu eta argitaratu ere.

Gogozko izan zituen printzeak Etxenikereren itzulpen lanok, dirudinez beste inor baino lehen ohartu bai zen lana burutzeko zehaztasunez. Printzeak ber berak hala aitortu zion 1859ko irailaren 12an izkiriatu zion gutunean: «Usted es el único que inmediatamente se ha hecho cargo de lo que yo quiero en las versiones que encomiendo».

1857ko urrilean egin zuen printzeak bere bigarren bidaia. Hil honen 15erako deitu zituen bere laguntzaileak Baionarat eta Londresko bere inprimategian argitarazi zituen liburuak aurkeztu. Orduan izan zuen Bruno Etxenikek bere lehenbiziko lana eskuratzeko aukera.

Baionako bilera hartan laguntzaileei lanen batasunez hitz egin zien. Bereziki aburu bateratua eta ortografia bakarra eskatuz eta hontarako arauak markatu zituen.

Helburutzat euskararen euskalki desberdinen konparaketazko ikerketa zuela agertuz, argi ta garbi adierazi zien.

Gainera, urte hontako bidaian joan zen printzea lehen aldiz Baztanera.

Eskuratu ahal izan zituen liburu eta itzulpenen bidez, ondoko urteetan, euskara sakonki ikasi eta ikertzeari eman zion. Baita anitz lan burutu ere,

Ongi menderatu zuen gure mintzaira eta zituen zalantzei buruz pertsonalki nahi zuen Euskal-Herrian zehar, han-hemenka, ber berak erabaki. Hortarako etorria, 1866.urtean, urtarriletik martxora bitartean berriz izan genuen hemen. Baionako «Mont St. Jean» etxean kokaturik, deitu zituen bere laguntzaileak. Hauen artean genuen Bruno Etxenike ere. Orduan eraturik eginen zuten gure Nafarroa gaindi ibilaldia. Elkarrekin igaro zituzten hamazazpi egun, Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari..., aldeak ikusiz eta ikertuz, Bonaparte printzea, Otaegi, Etxenike eta hirurak.

Printzearen azken bidaia 1869.urteko udaberriz izan zen. Politika giroagatik, muga pasatzeko eragozpenak izan zituen eta Donibane-Lohitzunen gelditu zen. Harat deitu zituen nafar laguntzaileak eta beste zenbaiten artean joan zen Bruno Etxenike ere.

Urrengo urtean erori zen Frantziako Napoleon III.a eta printzeak etzuen izan bere lanetan jarraitzeko behar zuen laguntzarik. Eta hemen bukatzen dira gure Etxenikeren berriak. Bere lanen mezua guztiz argitara gabe.

## Las relaciones entre Echenique y el Príncipe Bonaparte

El 11 de Agosto de 1856, y por mediación de Antoine d'Abbadie fundador y mantenedor de las Fiestas Eúskaras, Bruno de Echenique tomó contacto con el príncipe Bonaparte en la mansión de Echaux de Saint-Etienne de Baigorri, y allí mismo se comprometió con la traducción de *El Evangelio de San Mateo*.

En 1866 acompañó al príncipe durante 17 días consecutivos, en su recorrido por tierras navarras para hacer las debidas precisiones en sus estudios lingüísticos interdialectales. Para estas fechas, el príncipe, llegó a dominar a la perfección el euskara y quiso hacer personalmente las indagaciones sobre aspectos dudosos.

Julio Altadill dijo de él: «don Bruno Echenique, vascófilo eminentísimo, hombre dotado de excepcionales cualidades de sabiduría atestigüadas en sus innumerables producciones y al frente de la Asociación

Eúskara, entidad patriótica de buena memoria, de la cual Echenique era alma y vida».

Su último viaje lo realizó durante la primavera de 1869. La situación política no le permitió cruzar la frontera y en San Juan de Luz recibió a sus colaboradores.

Al año siguiente declinó la figura de su primo Napoleón III, quien le prestaba la ayuda financiera para sus investigaciones y, desde ese momento, quedaron sin continuidad, tanto las investigaciones como las publicaciones.

Pero gracias a aquella iniciativa suya, las investigaciones eúskaras tomaron un interés hasta entonces desconocido y, en cierto modo, impulsó los trabajos de Vinson, Manterola, Campión, Urquijo, etc.

1979-VIII-13.

## J. ZAITEGI JOAN ZAIGU

*«Gizonen eta aingeruen mintzaira  
oroz mintzatuko banintz,  
baina maitasunik ez banu,  
soinu egiten duen metala edo  
zinbal burrundari bat bezala nintzake».*

(Paulok korintioarrei, lehen gutunean XIII, 1).

Gaur, abuztuaren hamazazpia, egun tristea izan dut. Erronkariko Izabara Jokin Zaitegi adiskide minaren hilberria heldu zait. Atzo hil omen zen Donostian, Probintziko Hospitalean, eta handik Oñatiko babesetxera eraman gaur arratsean Arrasaten ehortzeko.

Bihotzekoaz aspalditik zetorren osasunez gainbeheraka eta itzalteko ordua heldu zaio, hiru eroraldiren ondotik. Lehen bietan Arrasateko poliklinikan bisitatu nuen eta hirugarren hontan Donostiago Hospitalean. Ekainaren 19an, gure teknokrata kaxka gogor hoietako bati «teknokrazia gehiegia ez zela ona, baina humanismo gehiegia ere ez», entzun ondorean. Baina, zoritxarrez, gure herri hontan humanismo gehiegirik inoiz ez da ezagutu. Ez dakit oraindik enteratua denik.

Arratsalde beroa zen bera zegoen gelara heldu nintzenean. Behar bezalako jabetasunik ez zuelako, han zen Pelikene Arrese, hiltzorian zegoanaren oheburuan, Paristik beste gabe etorria. Jokinek, ni ikus-

teaz bat, indarrez baino gehiago bere gogoaren eraginez, eskua luzatu zidan; nereen artean hartzeaz, so samur batez agertu zidan bere esker-raren sentipena. Nik ordea, gizontasuna baino gizonkeria gehiago agertu guran, barne indarrok ahalegindu nituen ene begiok malkoz ez bustitzeko.

Han konturatu nintzenez, euskararentzat ondasuna eta osasuna eman zuen gizonaren alde apenaz inor arduratzen zen, Pelikene izan ezik, bizitzaren eta heriotzaren muga egonarren. Nemesio Etxaniz jaunak maiz bisitatu izan du, baina gainerako euskaltzaleok, deus ez.

J. M. Satrustegirekin mintzatu ondorean, Euskaltzaindiak ordainduz gaueroko zaintzaile bat jartzea erabaki genuen. Zeren, ohorezko euskaltzaina izatez aparte ez zen alperrik gure historian euskararen alde gehien eman duen gizona.

Jokinek gizontasunean eta langiletasunean zuen kemena igaz adierazi nuen orrialde hauetan bi artikuluren bidez. Orduan ez nuen pentsatzen heriotza hain hurbil zuenik.

Gure jakitun eta langilea, Goian bego.

Baina herriak, bereziki herri abertzaleak, oraindik ez daki nor galdu duen.

Gure hizkuntzaren alorrean inork goraipenik merezi baldin badu, lehenetakoa dugu orain joan zaigun Jokin Zaitegi jauna.

Gure historiaren ilunalditik, etorkizunera begira ari zen gure gizon hau, profeta baten gisa, herria bere mintzairarekin zuzpertz nahirik. Jaunak Isaiasen ahotik esana, beretzat pentsatua balitz bezala:

*Zoaz herri horrengana eta esaiozu:  
Belarriz entzuna, ez duzue adituko,  
begiz ikusia, ez duzue nabaituko.  
Mokortuta bai dago herri horren bibotza,  
eta belarriak entzuteko gortuta  
eta begiak hertsu dituzte,  
begiz ez ikusteko,  
belarriz ez entzuteko  
eta bibotzez ez ulertzeko,  
onbidera etorririk, sendatu ez ditzan.*

(Bidalien eginak. XXVIII, 26-27).

Fariseorik ez zuen maite eta publikanoekin adiskidetasunez ibili zen. Apostolu grina zeraman, eta 1950ean, gure herriak jasan zituen ekaitzurteen ondorean, kultura aldizkari bat sortu zuen euskaraz, gure hizkuntza hau zapalduzik eta kinka larrian agertzen zen garaian, *Euzko-*



J. Zaitegi.

*gogo*a. Non eta Guatemalan. Eta lortu zuen gogoen iratzarpena eta bildu zituen bere inguruan munduan zehar deserriurik zebiltzan euskal idazleak eta aberrian argi bila zebiltzan gazte batzuk.

Guatemalako puntan lau urteren buruan irauarazi ondorean, bere asmoak eta kemena indartuz, bere Lizeoa saldu eta Miarritzera etorri zen, herriari bertatik hobeto zerbitu nahiaz. Eskuartean zekarren, euskarara itzulia, «Bidalien eginak», eta bertako mezua ere bai nonbait: «Itzuliko naiz, eta Dabiden etxe eroria berreraikiko dut, zati urratuak osatuaz berriz zutituko dut» (Bid. e. XV, 16).

Eskaini zitzaion laguntzarik hartu gabe eta ekarri zituen ondasunak ahitu zitzaizkionean, berriz Ameriketara itzuli zen. Gutik ulertua izan bazen ere, aberriarekin eta bere gogoarekingo kunplizat bete zituen. Euskara kultur mailarik gorenetera eramatea zen bere asmoa. Aintzinako klasikoen lanak zituen bere espezialitatetzat. Hauek euskaturik beharko dituela biharko euskal Unibertsitateak eta bere lanaren



bidez exenplu ederra emanez gazteria bultzatu zuen bide berrietatik, bakoitzak bere espezialitatean euskara lantzeraz.

Sofokles, Eurípides, Platon..., hor ditugu euskaratuak.

Biharko lanak, lan ilunak; gaur egun gutik haintzat hartzen baditu ere, biharkoan ezagutuko dira bere merituak. Euskarak, biziko bada, hain beharrezko dituen lanak.

Ameriketean, berriz ere goldaketan, gure ikurriñaz olerki epikoak osatzeko adorea izan zuen. Handik berriz itzultzean burutapen bakarra zuen bere gogoan; bizi zen artean Platonen itzulpenak bukatzea eta argitaratzea. Baina asmo hau zeharo bete gabe joan zaigu

Hala ere, bere ekintzarekin adierazpen ederra utzi digu. «Bidalien eginak» itzuli zuenak, haien gisa, lasai esan zezakean:

*Ikus zazute, nardatzaileok, harri eta itzali zaitetze.*

*Zeren lan bat eginen bai dut zuen egunotan,  
inork esan balezaizue ere sinetsiko ez duzuen.*

(Bid. e. XIII, 41)

Testamentu berriko aipamen hauek, ez uste izan buruz nekizkienik, baizik noiz behinka gustatzen zait eta beharrezko dut Bibliaren irakurketa eta aurtengo oporraldietan nerekin ekarri dutanez, egun triste honetan nere gogoaren kontsolagarri izan dut.

Bukatzeo esan dezadan, gure gizaldiko unerik nekegarrietan Jokin Zaitegik egin zuen lana oso nekez sinestekoa dela izan ere. Honegatik, gaur, Euskal-Herriko bazter honetan, doluminezko egun triste honetan, Agur! Jokin.

### Hemos perdido a J. Zaitegui

El pasado año, en estas mismas columnas (*Hoja del Lunes*, del 19 de junio y del 3 de julio, 1978), a través de dos artículos perfilé la figura humana del sacerdote ejemplar Joaquín Zaitegui y la obra por él realizada al frente de la revista cultural «Euzko-gogoa» —dicho sea de paso, que en dicha revista colaborábamos tres «rojos» eibarreses, Toribio Echevarría, Antonio Iturrioz y yo— y entregando la mayor parte de su vida a las traducciones de los clásicos griegos, Sófocles, Eurípides y Platón, dada su especialidad y con el sano deseo de elevar al euskara a nivel universitario, además de cultivar la poesía de creación propia con dos libros publicados en este género, tradujo también *Los Hechos de los Apóstoles*. Y, para mí, en nuestro siglo y en nuestro pueblo, él ha sido un verdadero apóstol de la lengua y su cultura, y ha

pasado a la gloria, por lo menos para los euskaltzales, como un mártir de la fe en la resurrección del euskara (entiéndase por el euskara desesperanzado de los años cincuenta).

En este día diecisiete de agosto y en este rincón de Euskal-Herria que es Isaba (Valle de Roncal), aunque lo veía venir de meses atrás, me ha resultado muy dolorosa la noticia de su fallecimiento. Tanto por la muerte en sí como por las circunstancias que a larga agonía y la escasa atención que se le ha prestado al hombre que dio su fortuna y su salud en aras de la lengua y literatura eúskara.

Pelikene Arrese que ha sufrido el mayor peso del trance doloroso, las visitas periódicas de don Nemesio Echániz, las atenciones prestadas por una asistenta nocturna puesta por Euskaltzaindia y algunas pocas visitas de Mondragón, prácticamente han sido las únicas manifestaciones de afecto que ha recibido en su prolongado lecho de muerte.

Y nuestros hoy tantos abertzales, «patriotas» eufóricos, sin enterarse de lo que estaba sucediendo con el autor del mejor canto épico a la ikurriña, con el hombre que depositó en época contemporánea la mayor entrega conocida en pro del idioma vasco. He ahí nuestra ingratitud. Sin duda, como consecuencia de ignorar nuestra cultura autóctona. Pues, por un hombre de su talla, en otro pueblo, hubieran guardado luto nacional. Mi incontenible dolor me obliga a decir esto, pero tristemente soy consciente de que no exagero.

Zaitegui, entre otras cosas, pasará a la historia como el hombre que inició y orientó el acceso del euskara hacia la Universidad. Y si algún día esta aspiración alcanza su meta, espero que se le hará justicia. Descanse en paz nuestro gran hombre.

*«Si yo hablase lenguas humanas y angélicas, y no tengo caridad, vengo a ser como metal que resuena o címbalo que retiñe».* (Pablo a los corintios, en su primera epístola. XIII,1).

1979-VIII-27.

## P. BORDAZARRE «ETXAHUN» KOBLAKARIAREN OROIZ

*Bizia llaür hiltzia segur hortzaz ez dira düdatzen  
Denek beitakigü beriuak nihur ez diala pharkhatzen*

Kantuz horrela aitortu zuen Pierre Bordazarre, «Etxahun» Iruriko, itzali zaigu. Zuberoako ohitura zaharren euslea, gazte zelarik oinak

arin dantzari agertu zuen bere nortasuna, adinean sartzean xirularia ez ezik koblakari iharduna da herioak eraman arteraino. Bere kantetarik oso ezagunak dira Agur Xuberoa, Goizian argi hastian eta Sorlekhura itzultzia. Horrez gainera, pastural egilea zen, aintzinako ohitureri jarraituaz bederatzi obra burutuaz: Etxahun (1954), Matalaz (1955), Berterretx (1956), Santxo Azkarra (1965), Le comte de Treville (1966), Txikito Kanbo (1967), Pette Beretter (1972) eta azkenik Ximena eta Iparragirre.

Hil honen batean hil zen Pabeko ospitalean eta bere sorterria den Irurin ehortzi zuten. 1908ko maiatzaren 28an jaioa zen.

Gaztaroan herbestetan bizia zen; baina, Orhiko xoriak, Orhi maite. Zuberoa laket zitzaion eta bere barnean Basaburua parte,

*Agradable dirade Larrañe, Ligi eta Sante-Grazi  
Aiphatürik dira Atharratze, Alzai, Aloze, Lakharri  
Zalgize ere aski plasent da, Ozazek badü batzarri  
Bena ooren maithagarriena othe ez deia Iruri.*

Baina hor ez zen mugatzen bere Euskal-Herriaganago maitasuna. Duela bi urte liburu eder bat eskaini zigun, «Etxahun-Iruri khantan» deritzana eta artikulu bat eskaini nion Hoja del Lunes hontan (29-VIII-1977). Orduan agertu nuen bezala, ikuspegi zabala zuen gure herriagan:

*Goxo da bizitzia Xibero gañian  
Mendi horien artian trankilitatian  
Hargatik aihortzen dit mügaz bestaldian  
Badirela xokho hunak, itxas bazterrian  
Khantatzera banua huk phentsamentian*

Gure erresumak goraiatuaz, honako agur honekin eman zuen bertsoen bukaera:

*Kunserba zitziela zelüko Jinkuak  
Bizkai ta Gipuzkoako probintzia goxuak  
Ingana zitziela luzaz itxasuak  
Guretako begiratüz bethi ber amodiua  
Zirekilan beikira oso Xiberua.*

Sentitu ere abertzaletasun osoz sentitzen zuen hegoaldekoentzako maitasun hori, erro errotik herrianganako maitasunez beterik bizi bai zen. Bere kantetan maiz agertzen denez, Orhiko txoriarekin buruabat egiten du:

*Sen-Jüsefen ermitatik  
Goraintzi bat Üskal-Herria  
Zure zerbützari fidel  
Girade Orbiko-txoriak.*

Maitasun hontan mugazandiko askok ohi baino haratako joanen zen, zeren koblakariaren barne gogo zintzoa izaki. Horrek eragin zion ondoko kanta hau osatzera:

*Jeik'hadi Eüskadi eta mintza hadi  
Ozenki gure gazteriar  
behardiela bethi fidelki kunserbi  
Gure usantxa zahar horik.*

Zenbait erresumatako giroen berri jakin zuen gaztarotik, herrialde askotan bizi izan baizen, baina azkenerako Zuberoran pausatu zen, Orhiko xoria bezala. Santa-Garazikoa hartu zuen emaztetzat eta habi goxo bat lortu zuen, pobre baina zoriontsu biziko zena. Arbasoen ohi-tururi jarraituz, pasturalgile, pasturalen zuzendari eta koblakari. Apal-tasunezko zorionetik honela kantatu zigun:

*Nik badit etxe txipi bat Gaindañeko lurretan  
Eniz aberats bargatik alagera bizi nizan  
Zunbat nahi untsa diren beste herri aizuetan  
Düda düd nik izan ditin gü bezaiñ plaser etan.*

*Akordian bizi gira herritarren artian  
Ahal oroz libertitüz xabarrak gaztekilan  
Igarailek ikbus gitzela bozkarioz oro khantan  
Gaindaiñtarrak Gaindaiktarsak Gaindañeko kharrikan.*

Hainbeste lan ederren guraso zen Etxahun Irurikoa, bere merezi-menduegatik aspaldi izendatu zuen Euskaltzaindiak bere laguntzaileen arteko. Bat bateko bertsolaritza ez zen bere ekintza berezietan hain egoki moldatzen zena, baina hala ere zenbait zaio egin zituen hortaz, plazetan Mattin eta Xalbador zenakin kantatuaz. Honegatik, bertsolari elkar-teak helduden urtarrilean omenaldia eskaitzeko hautatua zuen. Bere bizitzaren zahartzaroan egin behar zitzaion omenaldi hori, orain, hilon-dokotzat egin beharraren pena dugu. Beragandik sortu zen «Agur Xu-berua» hainbeste aldiz kantatu duten milakak euskaldunak oroi deite-zela omenaldiko egun hortan, bera goretsiz jar dezaten anaitasunez «Aintzinian gora Eskualdün bandera», bere gogoaren gisara.

## A la memoria del juglar P. Bordazarre «Etxahun»

El día primero de este mes de octubre falleció en un hospital de Pau el trovador suletino Pierre Bordazarre, Etxahun de Iruri, renombrada personalidad del mundo cultural vasco, y recibió sepultura en su villa natal de Iruri (Trois-Villes) de Zuberoa, donde vino al mundo el 28 de mayo de 1908.

En su juventud destacó como bailarín de las mascaradas suletinas y más tarde como ejecutor de músicas populares suletinas con el peculiar instrumento que se conoce por «xirula». Durante su juventud vivió en diversos puntos del País Vasco y de Francia, pero al contraer matrimonio con una suletina se asentó en su villa natal. Compuso numerosas canciones como «koblakari», especialidad tradicional de Soule, algunas de ellas se han hecho muy populares, como es, por ejemplo, «Agur Zuberoa» que está tan difundida por todo el país. Era, además, autor de nueve piezas de pastorales, género de teatro popular de tradición medieval y que los suletinos han sabido mantener juntamente con los trovadores. Los títulos de sus obras son: Etxahun (1954), Matlaz (1955), Berterretx (1956), Santxo Azkarra (1965), Le comte de Treville (1966), Txikito Kanbo (1967), Pette Beretter (1972) y por último Ximena e Iparragirre. Sus cantares con sus melodías, su obra poética, publicó hace dos años en un libro titulado «Etxahun-Iruri khandan», que fue presentado en un homenaje popular que se le tributó al koblakari en Tardets (Soule) el 24 de julio de 1977 con la participación de 250 danzantes, motivo por el que le dediqué por aquellas fechas un artículo en estas mismas columnas. Como afirmaba entonces, en nuestros días, ha sido el representante más importante de la tradición suletina de trovadores.

Por su labor meritoria, hace algunos años que Euskaltzaindia le nombró miembro correspondiente. La agrupación de bertsolaris por su parte, había acordado rendirle un homenaje popular en San Sebastián el próximo enero, porque Etxahun, a pesar de que no era ésta su especialidad, llegó a actuar en diversas ocasiones con Xalbador y Mattin en plazas públicas improvisando versos. Lástima que el homenaje preparado para San Sebastián haya de ser póstumo. Con la pérdida de Etxahun-Iruri, la cultura vasca ha perdido al personaje que constituía una verdadera institución de las tradiciones populares. Descanse en paz el laborioso hombre que fue Pierre Bordazarre «Etxahun-Iruri».

1979-X-8.

# AGUR XIBERUA

1. Sin lekhi-a i-tziarik gog-te nimitza la-rik Pa-risera sarati nimitza Ba-raja kethearak, Pla-  
 -risey guse e-ta bi-niam hartarak Be-ha nia la a-degu-ra bi-zi Bir-tatan gureatik Ni  
 gar e-gi-tan dit Xi-be-ru-a zu-ni *Korapuko:* A-gur Xi-be-ru-a Bag-ter gijie la kaxoklorik eifia-  
 re-na A-gur sin lekhi-a Zuri de-tit e-ne a-metrik gazu-e-na Bi-Pa-tzan re-di-  
 tik Bir-tatan el-ki deita dazit haape-re-na Zii i-tzi gureatik Bi-zi nig bairte-rik A-  
 bam-de-na-tu-rik Ez kanta harririk Pa-risera bairte-rik Zii bizala ko-rik

Agur Xiberoa.

## BORDEL BERTSULARIA

Iragan maiatzaren bukaeran bete ziren ehun urte Bordel bertsularia hil zenetik. Ospe handiko gizon eta bertsulari honek behartzen gaitu gaurko lerro hauek betetzera.

Abuztuaren azkeneko «Herria» astekarian eskaini zion J. M. Sastrategik plana oso bat, eta ongi zion bezala, «gure idazle eta Kultur-arloko gizonak ez dira, denbora luzean, ezagutuak izan euskaldunon artean». Eta duela berrogeita hamar urte, Bordel bertsulariaz bere herritar Manezaundik ziona zekarkigun oroitzamenera: «Espainia aldeko euskaldunek eztute ezagutzen pertsulari haundi hau, ez eta bere izena sekula entzun ere, naski... Nere herrikoa zen, Luzaidekoa; bainan gu Espainiari eratzikiak edo lotuak izanikan ere, Benafarrak, Garazikoak gira, muga egileen gainetik».

Bordel, bere izen deituraz Juan Etxamendi, 1792. urtearekin etorri zen mundura Luzaideko Bordelia deritzan etxean. Adinean sartzeaz hola agertuko zuen bere etxaldea bertsutan:

*Badu erreparu  
Ta badu gero lur,  
Ohianian ere  
Erre-ala egur;  
Negu luzeari  
Sekula, ain segur,  
Bordelen txakurrik  
Etzateken beldur.*

Mendeurrenak betetzeaz behinik-pehin, on zaigu gizon hoietaz oroitzea. Gizonarekin batean bere ekintza eta emaitza lanak zer ziren erakusteko.

Bordel, lehen karlisten gerratean, 1823.ean, Donostiara eraman zuten soldadu. Beste lagun batzuekin bertako gaztelutik ihes egitean arrapatu zuten eta, presondegirik presondegi, gorriak ikustera heldu zen. Ehun zigor ukaldi eman ziotela aitortzen du bere bertsoetan:

*Mila zortzi ehun eta  
Ogei ta irurian  
Zerbitzutan ginauden  
Donostia hirian  
Liberalitateko  
Bandera berrian,*

*Hartarik desertatu  
Inozentkerian,  
Miserable erori  
Etsaien erdian.*

Oso gaizki eroan omen zuten eritegira eta nekez irten zen herioztaren hatzaparretatik;

Bere garaiko gertarien koronikagile bikaina izan zen. Garai haieran Etxahun barkoxtarrarekin eta Otxaldekin batean ahoz aho erabilia zen Bordel. Manezaundik ongi zion bezala: «Omen haundia zuen Benafarroan eta Laphurdin. Ehunka utzi dauzkigu bere pertsuak ezin gehiago ederrak. Nork ez du ezagutzen hango Eskual-herrian bere kanta miresgarria «Lurraren pian sar nindaiteke»? Baztango «Oinazez» abestiaren parekoa da, amodioaren pairamenak erakusten dauzkuna, bihotz zauritua agerian ezarririk».

Gaur egun, bereak zirela uste zen zenbait kanta zalantzan jarriak dira. Baina ni ez naiz sartuko kontu hontan. Hemen ere ikerketa sakonagoak egin beharra bai dugu. Gainera, Bordelek segurki bere bereak dituen bertsuak, beste gabe, gizon eta bertsulariaren maila handia ematen digute.

«Amodiotan den presuna ez da beti alegera», hala zion Bordelek eta bereetan bada orotarik. Bere penak eta pozak, bere barnetikako sentipenak, maitasunez edo protestaz, bertsuen bidez agertu zituen Luzaideko erretxinula honek.

Frantzia eta Espainian artean mugak aldatzeagatik berebiziko salakuntzak agertu zituen «Limiten gainian» deitu kantaz:

*Emeretzi siglotan  
Eztu falta anitz,  
Iru dozena urte  
Tronpatzen expainiz;  
Suyeta publikatzen  
Orai asia niz  
Oroitzen eztirenak  
Adbertitu nahiz,  
Xefen obeditzera  
Obligatu bainiz*

Bestalde, apez karlisten aurka eta Napoleonen alde ere agertu zen. Gure literaturarako ez ezik gure historiarako ere oso baliagarriak dira lekukotasunezko bertsuok:

«Sortuz geroz guziek zor dugu hiltzia» eta hola joan zitzaigun



gure bertsularia. Bere bertsuak ordea, paperetan idatziak edo herriaren ahoetan gelditu ziren, Jose Mari Satrustegik bere biziko lan ona egin zuen hauek biltzen eta 1965. urtean argitaratu zituen Auspoa Liburutegiko ale batean «Bordel bertsularia» izenez. Merezi du ezagutzea.

### **El bersolari Bordel**

En mayo del presente año se cumplió el centenario del fallecimiento del bersolari Bordel, quien en su época, juntamente con el gran bardo Etchahun de Barcus y Etchalde de Bidarry fue el poeta popular más renombrado en el Noroeste del país vasco y, lamentablemente, como dijo su paisano E. Zubiri «Manezaundi», muy poco conocido en la vertiente peninsular.

Bordel, cuyo nombre de pila era Juan Echamendi, había nacido en la casa Bordelia de Valcarlos en 1792. Le tocó el servicio militar en la primera de las guerras carlistas e intentó desertar en San Sebastián junto con otros compañeros y sufrió cien azotes y fuertes penalidades en la prisión, hasta el extremo de ser trasladado en grave estado al hospital; hecho que él describiría en patéticos versos. Cantó a su tierra fronteriza, a sus amoríos, a las guerras carlistas, a los conflictos sobre la delimitación de las mugas entre Francia y España, etc. Sintió simpatía hacia Napoleón y acusó a los curas carlistas. Ya anciano, próximo al límite entre la vida y la muerte, compuso interesantes versos reflexionando sobre la existencia humana.

Bordel fue todo un personaje, y un testigo excepcional de una época turbulenta. Sus poesías, algunas escritas y otras transmitidas oralmente, fueron recogidas por José María Satrustegui y publicadas en un libro titulado «Bordel bertsularia» en la colección Auspoa (1965). Obra que a su valor literario une otros valores como crónica histórica.

1979-X-29.

### **SEBERO ALTUBE EUSKALTZAINA**

Iragan abenduaren hirugarren astean, Euskaltzaindiak, bere IX. Biltzarra gramatika azterketak gaitzat hartuaz Sebero Altube zenari

omenaldiz eskaini zion bere sorterrian, Arrasaten, jaiotzaren mendeurrena ospatuz. Lau egunen buruan ikerketazko txosten ederrik irakurri zen han.

Biltzarreko gaia bera ongi zetorkion *Erderismos*-en egile zenari bere omenaldia ospatzeko.

Aldez aurretik, abenduaren 6an, J. M. Vélez de Mendizabalen liburu ederra aurkeztu zen, *Sebero Altube* biografia, Patxi Altunaren hitzaurrez. Lehen 116 orrialdeetan Altube zenaren bizitza agertzen da, musikari, euskalari, asmatzaile, politika aldetik eta abar, orainarte ezagutzen ez genituen anitz berri eskainiaz. Azken orrialdeetan L. Villante, A. Urrestarazu, M. Lasa eta J. A. Arana Martijaren artikulua dotoz, bakoitzak bere arlotik zenbait berri eskainiz. Liburu hau, irudiz ere ongi horniturik, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. delakoak argitaratua da.

Biltzar egunetan, Hordago argialetxeak, Seberoren *Laztantsu eta Betargi* deritzan eleberri gisako kondaira aurkeztu zuen. Altubek, euskararen ikertzaile aldetik zuen bere ospea, ez ordea literatura lanez. Eta, hara hor non eskaintzen zaigun honako liburu ezaugarri hau, guda-tean Arrasaten izan ziren hilketa tristeak gaitzat harturik.

Euskaltzaindiak, bere aldetik, VIII. Biltzarraren ondotik agertu dituen txostenez *Bergarako Biltzar ondoko erabakiak* deritzan bilduma aurkeztu zuen, euskara idatziaren batasunari buruz.

Sebero Altube Lertxundi, Mondragoen jaio zen 1879ko azaroaren 8an. Formazioz autodidakta zen baina bai mutil azkarra. Bere bi ekintza nagusiak euskalari eta musikarari trebe bezala azaldu zituen. Famili apal bateko seme zen. Ama gaztetxo galdua eta aita bihozgogorren esku gogorragoa ezagutua. Apenaz izan omen zuen haurtzaro ezitsurik. Dohakabeak zaizkida haurtzaro alairik ezagutu ez duten haurrak, dohakabeak inozentziatik oinazea ezagutu dutenek.

Bitoriano Balerdi organulariaren ikasle izan zen. Ez bakarrik organu jotzen, baizik harmonia ikasten ere bai. Benigno bere anaiakin Arrasateko albokari izan omen zen. Hoiek ziren musika gaietako heziak eta hasierak.

Soldadutza bukatzetik lasterra, 22 urte zituela, Gernikako udalak musika banda bat sortzeko konkurso bidez egin zuen deira presentatu zen eta berak atera. 1902. urtea zen hura irabazi zuenean. Gazte suharra Gernikara aldatu zen bizitzera, hiri hontan musikaren iraultzazko zaletasuna barnean zeroala eta bandarekin jabetuz gero, 1903.ean orfeoia ere sortuaz. Bere musikak ere sortu zituen. Baina ez naiz sartuko xehe-tasun hoietan; nahi duenak ikus beza J. M. Vélez de Mendizabalen liburu hortan.



*Sebero Altube, bogeitabost urte zituenean.  
Severo Altube a la edad de veinticinco años.*

Hortaz aparte, beste idea batzuk ere eroan zituen. Alkartasuna zeritzan arma fabrikari buru izan zen 1916.etik 1922ra arte. Gainera, berak asmatutako Alkar zeritzan pistola berri bat ere patentatu omen zuen. Buru argia nonbait.

Bere argitasunez, euskarazko lanetan linguistika jakintzaren bide berriak urratu zituen. Frantzez hizkuntza menderatzen zuen eta orduan gai hortaz han argitaratzen ziren liburu eta aldizkariak jasotzeaz gaia bera zientifikuki ezagutzera bultzatu bai zuen. Hola sortu ziren bere frutu onak euskararen joskeraz, fonetikaz, azentuz, etimologiaz eta abar. Jakitunaren nortasunez atera zen garaiko garbikeriaren aurka eta jator-tasanaren alde. Bere lanetatik aipagarriena *Erderismos* (1929) dugu, baina ez ditugu ahaztu behar morfologiaz Azkueri egin zizkion oharrak, ezta ere euskararen bizitzaz eta batasunez eman zituen hitzaldiak eta idatzi zituen lanak. 1920an, Euskaltzaindia sortu ta laster izendatu zuten euskaltzain.

Politikaz E.A.J. (P.N.V.) alderdikoa zen, baina kultur gizon guziak bezala, politika ekintzetatik aski aparte ibili zen. Hala ere, Gernikako alkate izatera heldu zen eta 1936an Frantziaratu beharrean aurkitu zen, 1958an itzultzeko. Egonaldi hartan gora-behera asko ezagutu zituen eta bere burua intelektual bezala agertuz herbesteratuen babesezko eskubideak gordeko ba zituen frantzezezko lanen bat argitaratu beharrera heldu zen eta oinaze mineri buruzko pentsamenez: *La fonction de la douleur* (Pau, 1958) deritzana, bere emaitzetan hain bitxia iduritzen zaiguna, burutu eta argitaratu zuen. Lan honarako bere bizitzako esperientziak eta bere fede tinkoak asko jokatu zuen.

Gainerako lanak, euskaraz zein erdaraz, 1916. urtean Euskalerriarren alde aldizkarian hasi eta R.I.E.V. (Eusko-Ikaskuntzaren III. Batzarre nagusian ere badu lan bat), Euskal Esnalea, Euzkadi, Txistulari aldizkaria, Eusko Jakintza, Euzko-gogoa, Bol. R.S.V.A.P. eta batez ere Euskaltzaindiaren Euskera-ran 1960. urtean bukatu arte aurkituko ditugu.

Gernikan hil zen 1963ko abuztuaren 27an. Musika lanak eta gainerako zenbait paper Jose Antonio Arana Martijari utzi zizkion eta honek osatu du Vélez de Mendizabalen liburuan datorren bibliografia, baita ere hiztegiño bat 1973ko Euskera aldizkarian argitaratua.

### **El académico Severo de Altube**

El IV Congreso de la Real Academia de la Lengua Vasca, celebrado en Mondragón durante la tercera semana de diciembre, estuvo

dedicado como homenaje al preclaro hijo arrasatearra Severo de Altube, con motivo del centenario de su nacimiento. El tema monográfico de dicho congreso fueron los estudios gramaticales del vascuence, con interesantes aportaciones a la sintaxis euskara, tema al que Altube dedicó profundos estudios a lo largo de su vida. Al finalizar el Congreso hubo diversos actos. A continuación, dio comienzo el concurso de bersolaris.

El día 6 de Diciembre, como preámbulo al referido Congreso, se presentó en la villa mondragonesa una obra biográfica sobre S. Altube, de J. M. Vélez de Mendizábal.

Durante los días en que se celebraba el Congreso se presentó el libro *Laztantzxu eta Betargi* del propio Altube, que narra los sucesos de Mondragón en los primeros días de la última guerra civil. Euskaltzaindia, por su parte, presentó un volumen donde se recogen los estudios y recuerdos a partir de su VIII Congreso celebrado en Vergara en 1978, sobre las normativas a seguir en la unificación del vascuence escrito.

El referido libro de Vélez de Mendizábal perfila la vida y obra de Severo de Altube, como lingüista y músico principalmente.

Severo de Altube y Lerchundi nació en Mondragón el 8 de noviembre de 1879. De formación autodidacta. Recibió lecciones de música del organista Victoriano Balerdi. A los veintidós años, marchó a Guernica para ocupar la plaza de director de la banda municipal que consiguió a través de un concurso, y un año más tarde, en 1903, fundaría el renombrado Orfeón Guerniqués. Estuvo al frente de la armería Alkartasuna, donde diseñó y patentó, en 1917, una pistola automática. Pero el campo cultural donde más se destacó S. de Altube fue el de la lingüística. Académico de número de Euskaltzaindia desde 1920, informado de las corrientes científicas de Europa en esta especialidad, aplicó sus conocimientos a la investigación del euskara. Preparó varios informes de advertencias a la Morfología Vasca de Azkue, investigó y formuló las reglas más castizas de la sintaxis, abogó por el lenguaje popular contra las corrientes puristas de su época y contribuyó con varios trabajos sobre acentuación y lexicografía.

Durante la República ocupó el cargo de la Alcaldía de Guernica. Sufrió el exilio durante 18 años, pero en ningún momento dejó la investigación, y su colaboración en publicaciones culturales vascas. Vino a fallecer en Guernica el 27 de agosto de 1963.

1980-I-7.

## A. IRAIZOZ

Larunbat Santuz, apiril honen 5ean hil zen Aita Polikarpo Iraizoz euskalari ospetsua Baztango Lekarotzen. Hilaren 7an jendetza handia bildu ginen han bertan izan ziren hiletetara.

A. Iraizoz itzal handidun gizona izan da, bai kaputxino ordenan eta bai euskaldungoan. *Escritores euskéricos* (Bilbo, 1968) deritzan liburuan eman nituen berriak hemen berriz agertuko ditut: 1897ko urtarrilaren 31an sortu zen Nafarroako Iraizozen. Kaputxinoetan ohi denez, jaioterriko izena hartu zuen deituraz; baina bere bataio izen-deituraz Agustin Zarranz Bermejo zen. Jakitun eta langilea zenez, bere erlijio ordenaren idazkari nagusia izana zen Erroman hogeitun urteren buruan (1952-1972). Euskaltzaindiaren laguntzaile zen erakunde honen lehen denboretatik eta euskaltzain oso azken hamabi urtean.

Bere ikasketak Altsasun, Hondarribian eta Iruinean osatu zituen. Euskaltzaindiarentzat urte hobeak izan ziren sortu berriko haiek, gure denboretako diru larritasunetatik urrun zeudenak, eta honen beka Zuri-en Filologia ikasketak egin zituen 1922-23. urteetan. Geroztik, Lekarotzen irakasle izan zen 1949an bere ordenak kargu handiagoetarako Erromara deitu arte.

*Zeruko Argia* aldizkariaren gerra aurreko lehen aldi hartan asko idatzi zuen, inoiz Urtsuya izenordez. Gerra ondoan berriz, *Euzko-gogoa* aldizkarian oso ezaguna egin zuen Irisarri izenordea hain ongi taxutzen zekien hamalaukoen (sonetos) bidez. Beste zenbait literatur lan *Olerti*-n ere eman zituen.

*Yesu Kristo gure Yaunaren bizitza* (Iruña, 1934) eta *Kristo gure Jauna eta Andre Dena Maria* (Bilbo, 1979), deritzan liburuen egilea genuen, eta A. Gabriel de Donostiaren *Arimaren zuzenbidea* (Donostia, 1952) gazteleratik euskarara itzulia argitaratu zuen.

Aleman hizkuntza ongi menderatzen zuen eta bertatik gaztelerara itzuli zituen Felder eta Thomas Ohm-en erligio gaizko lanak. Hau da erdarazko liburuen zerrenda: *Los ideales de San Francisco de Asís* (Iruinea, 1926), *Jesús de Nazaret* (Buenos Aires, 1949), *El Caballero de Cristo Francisco de Asís* (Barcelona, 1959) eta *Crítica de Asia sobre el Cristianismo del Occidente* (Buenos Aires, 1950).

Zahartzarora Lekarotzera erretiratua zen eta hemen ari zen isilik euskal lanetan heriotzak eroan arte. Oraindik aski berria dugu *Euskera* aldizkariaren XXIII (1978) zenbakian «erion ala jario» erabilkerari buruzko lana. Baina, batez ere, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian XVIII. mendeko zenbait bertso lanen berri emanez, 24. zenb.

(1976), eta Lizarraga Elkanokoaren hiztegi eta esakeraz beste lan luze eta zehatz bat, 29. zenbakitik 32.ra (1978-79).

Lan asko zuen eskuartean, biziak iraun bazion euskararentzat probetxuzko izango zirenak. Honegatik, galera tamalgarria izan da gure hizkuntzaren iker lanetarako.

OHARRA: *Euskera*, A. Frantzisko Ondarra-ren gehigarri argitaratu zen lanari Nokolas Alzolak osatutako Bibliografia erantsi genion eta A. Iraizoi buruz zerbait gehiago jakin nahi duenak bertara jo beharko du.

### El R. P. Iráizoz

El Sábado Santo, en su lugar de retiro de Lecároz (Navarra), falleció el R. P. Policarpo de Iráizoz, importante hombre de letras, miembro de número de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y ex-secretario general de la Orden Capuchina en Roma.

Recurro a mi obra *Escritores euskéricos* (Bilbao, 1968) para perfilar su *currículum*: Nació en el pueblecito navarro de Iráizoz el 31 de Enero de 1897. Su nombre de pila era Agustín Zarranz. Cursó sus estudios en Alsasua, Fuenterrabía y Pamplona. Becado por Euskaltzaindia (los años 1922-23), estudió Filología Románica en Zurich. Colaboró asiduamente en la primera época de *Zeruko Argia*, empleando generalmente el seudónimo de Urtsuya. En 1934 publicó su obra *Yesu Kristo gure Yaunaren bizia* y en 1979 *Kristo gure Jauna eta Andre Dena María*.

Por sus conocimientos lingüísticos e intelectuales fue llamado, en 1949, a la Curia General de Roma, donde desempeñó distintos cargos, para ocupar la secretaría general desde 1952 hasta 1972. El alejamiento personal, no le distanció de sus sentimientos patrios. Prestó colaboración literaria en publicaciones culturales como *Euzko-gogoa* y *Olerti*, bajo el seudónimo Irisarri, y vertió al vascuence una obra escrita en castellano por el P. Gabriel de Donostia. Asimismo, por su dominio del alemán, vertió al castellano varias obras de tema religioso de Felder y Ohm.

Durante su retiro en Lecároz, se dedicó preferentemente a los estudios del euskara y son muy recientes sus colaboraciones lingüísticas en las publicaciones de la especialidad, como son *Euskera* de Euskaltzaindia y *Fontes Linguae Vasconum* de la Institución Príncipe de Viana. Estas últimas aportaciones muestran la singular personalidad cultural del fallecido: un estudio gramatical sobre las diferencias ver-

bales de «erion» y «jario» (*Euskera*, 1978), Versos euskéricos del siglo XVIII (*Fontes*, 1976) y Vocabulario y fraseología de Joaquín de Lizarraga (*Fontes*, 1978-79).

Ha dejado un considerable material en período de elaboración. Esperamos que la Orden capuchina, que tantos hombres notables ha dado a la cultura vasca, sabrá dar buen destino a su documentación.

Descanse en paz el laborioso euskarólogo.

1980-IV-14.

NOTA: Una información más completa sobre el R. P. Iraizoz se publicó en *Euskera* debido a la ayuda del R. P. Francisco de Ondarra, a la que se añadió una Bibliografía recopilada por Nicolás Alzola.

## AITA ADOAIN AGURGARRIAREN MENDEURRENA

Bihar betetzen da A. Esteban Adoain agurgarriaren heriotza mendurrena. Hau delata, Urraul garaian, oroitzapenezko zenbait ospakizun izango dira astean zehar. Bai bere jaioterri den Adoainen eta baita ere haraneko eliz nagusia den Santa Fen. Ospakuntzetan partaide izango dira Nafarroako Foru Diputazioa, AA. Kaputxinoen ordena bera eta Euskaltzaindia.

Esteban Adoaingoaren bataio izena Pedro Franzisko Markuello Zabalza zen. Adoaingo Eneko-etxean sortu zen 1808ko urriaren 11.ean. Aita haran bereko Aietxu deritzan herrizkako zuen eta ama Adoain bertakoa. Hogei urte betetzean joan zen fraile. Zazpi naziotan saiatu zen ebangelioa predikatzen eta Espainian kaputxino ordena berriztu zuen. Asko idatzi da bere bizitza eta lanez. Lanik nagusienak A. Ildefonso Ziurrizkoak eta Gumersindo Lizarrakoak idatzi dituzte, T. Arbizak Nafarroako «Temas de cultura popular» deritzan sortan argitaratu zuen liburuxka A. Damaso Intzakoak euskaratu zuen (1970ean Iruñian argitaratu zen). Eta aurten bertan argitaratu da beste biografia mardul bat, *Esteban de Adoain*, Lázaro Iriartek idatzia. Lan horietan agertzen zaigu nafar kaputxino misiolari honen nortasuna eta, honegatik hain zuzen, aldaretara eraman nahirik dabilza.

Gazterik joana zen Amerika aldera misiolari eta 1873an itzuli zen Frantziara, 65 urte zituela. Tolosatik Baionara jo zuen eta hemen, haurtzaroko euskara berrikasi eta euskaraz predikatzeari eman zion.



Hontarako, Larramendiaren *El imposible vencido* zeritzan gramatika erabili zuen, eta esku-izkribuzko hiztegi bat; hau ere Larramendigandik kopiaturua. Kopia hau, lehen lehenago Aita Paulo Lizarrakoak egina eta erabilia zen (P. Pablo de Estella zeritzan hau 1758.an jaio zen eta 1824-an hil), gero A. Esteban Adoaingoaren eskuetara pasatuko zena, eta honek bere eskuz 482 hitz gehitu zizkiona.

1966an, Luis Pedro Peña Santiago adiskideak eta biok elkarlanean Urraul garaiko etnografia ikerketazko lan bat burutu genuen, *Munibe* aldizkarian argitaratu zena. Lan honen seigarren kapitulua harranontako hizkuntzari buruzkoa zen. Orduan, tamalez aipatzen genuen Aita Adoainen sermoiak eskuz idatziak zirela, Ziaurritz biografoak aipatzen zuenez, baina zoritxarrez inork ezekiela paper hoi burubiderik. Geroztik, Pedro M.<sup>a</sup> Zabalza jaunak Erroman aurkitu zituen eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratu, 1975 eta 1978. urteetan. Aurkikuntza zoriontsu honek pozturik, kopiaturik nuen hiztegiñoa bera ere argitaratzera bultzatu ninduan, *Fontes* deritzan aldizkari berean, 1977. urtean.

A. Adoainen euskarazko lan hauek garrantzitsuak dira, bai pertsona berak adinean, ospe handiarekin jabetu ondorean egin zuelako, eta baita ere garai hortarako euskara hiltzorian zegoen toki bateko semeagandikoak direlako.

A. Irigaray (Apat-Echebarne) beraren *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra* liburua lekuko, 1778. urtean Urraul garaia guztian egiten zen euskara. Guk gure lana egitean, 1720. urteko agirietan aurkitu genuen Iruñeko apezpikuaren agindua, Irurozki eta Jakoisti herrietako eliz-artxiboan, iganderoko predikuak euskaraz esateko, bertako biztanleak erdararik konprenitzen ez zutelako. L. L. Bonaparte printzeak bere linguistikazko mapa egitean ordea, Urraul garaia elebitasudunen artean sartu zuen (1863. urtean). Goi partea euskalduna eta behe aldea ez. Baina, hala ote zen? Bonaparte Urraul garaira heldu ote zen? Nik nere zalantzak ditut, baina ezetz esango nuke. Dena dela, mendearen hondarraldera galdu zen Urraul garaian euskara, eta gure mende honen hasieran oraindik ezagutzen ziren zenbait atso-agura zahar euskaraz mintzatzen zirenak. Hauen xehetasunak ematen genituen gure iker-lan hortan, Elkoaz, Irurozki, Ongoz eta Ozkoidi herrietako zenbait pertsona euskaldunen berri-emanaz.

Datorren larunbatean, hilaren 11.ean, A. Esteban Adoaingoaren 172. jaioturbea betetzen da, eta egun hori hautatu du Euskaltzaindiak bere aldetik egingo dion omenalditarako. Adoaingo Eneko etxean oroitarri bat jarriko du eta ondorean haraneko eliz nagusia den Santa Fen zenbait hitzaldi Aita Esteban Adoain zenari buruz eta bertako euska-

raren berriak ematez, Bizpahiru euskaltzainez gainera A. Jose Anzin mintzatuko da misiolari agurgarriaren bitizta eta lanaren berri emanaz.

OHARRA: A. Esteban Adoain bizitzaz eta Urraul garaiko euskarari buruzko berri gehiago eman nituen *Eusker*a, XXVI (1981) aldizkarian.

### Centenario del venerable Padre Adoain

Mañana día 7 se cumple el centenario del fallecimiento del venerable capuchino navarro Esteban de Adoain y, durante la semana, en su memoria se celebrarán diversos actos en el valle de Urraul Alto. Concretamente en su pueblo natal de Adoain y en el santuario de dicho valle que es Santa Fe. En los actos intervendrán la Diputación Foral de Navarra, la Curia Provincial de la orden capuchina y la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia.

Esteban de Adoain, cuyo nombre de pila era Pedro Francisco Marcuello Zabalza, nació en la casa Eneko de Adoain. Destacó como evangelizador en siete países y restauró la Orden capuchina en España. Se ha escrito mucho sobre su vida y su obra. Los biógrafos más importantes fueron los padres Ildefonso de Ciáurriz y Gumersindo de Estella, y acaba de salir a la luz otra obra importante debida a la pluma de Lázaro Iriarte, donde se condensa con gran amenidad la personalidad y la labor emprendedora de este insigne navarro.

El año de 1966, en compañía de Luis Pedro Peña Santiago, trabajé en el estudio etnográfico de ese valle tan olvidado, como es, Urraul Alto. El trabajo se publicó en *Munibe*. En él dedicamos un capítulo a la lengua y nos fue ineludible tratar de Esteban de Adoain en relación al vascuence que se habló en el valle hasta finales del siglo pasado. El mismo padre E. Adoain habló vasco en su niñez, recuperó y perfeccionó en edad adulta para ser un destacado predicador en su país. En aquel trabajo nuestro lamentábamos el desconocido paradero de sus sermones escritos en vascuence, al tiempo que dábamos noticia de un vocabulario inédito. Posteriormente los sermones fueron descubiertos por Pedro M.<sup>a</sup> Zabalza Urniza en el Archivo de la Sagrada Congregación para las Causas de los Santos en la Curia de Roma y publicados en la revista *Fontes Linguae Vasconum* (1975 y 1978); motivo que me impulsó a ordenar las fichas del vocabulario y publicar en la misma revista (1977).

Su aportación euskérica ha sido muy valiosa, tanto por tratarse de la obra de una personalidad de su talla como por su procedencia



*Casa Eneko de Adoain,  
donde nació el venerable P. Esteban de Adoain (Navarra).*

de una zona que perdió la lengua vasca en la segunda mitad del siglo pasado. Al realizar nuestro trabajo comprobamos que a comienzos de nuestro siglo aún quedaban algunos ancianos euskaldunes, por los varios testimonios que pudimos recoger a lo largo de toda la geografía de dicho valle.

El próximo sábado día 11, coincidiendo con el 172 aniversario del nacimiento del padre Adoain, Euskaltzaindia dedicará un homenaje a su memoria con la colocación de una placa conmemorativa en la casa natal de Adoain y un acto académico en el santuario de Santa Fe, donde intervendrán, además de varios académicos, el vicepostulador P. José Ancín, en torno a la vida y obra del homenajado.

1980-X-6.

## FAUSTO AROZENA HISTORIAGILEA

Bizitzan zehar izan zen apaltasun berean joan zaigu Fausto Arozena Arregi jauna. Hil honen 16an Donostiatik etorri zitzaigun berri beltza. Gure historiak zerbait arduratu direnak ohartuko dira gizon apal eta jakitun honen galeraz.

Donostian bertan sortua zen 1896ko uztailaren 15ean. Humanidades estudiatu zuen eta gaztarotik historia ikerketeri emana zen. Euskaraz ere zerbait idatzi zuen. Ez asko. 1920. urte inguruan hasita *Junior*-en zenbait kolaborazioz, batez ere poesiaz; baina baita ere *Eusko-Ikaskuntzaren deia* eta *Egan*-en argitara eman zituen euskarazko zenbait lan. Euskarazkoetan daude *Urte berri* poema eta *Unibersidade edo irakas-kuntza orokorra* eta abar. Hala ere, bere lan nagusiak erdarazkoak dira, zenbait liburu eta aldizkaritan barreiatuak.

Xabier Aranburu adiskideak Deia-n eskaini dion artikuluan gogoratzen dizkigun idatziez aparte egin zituen lanak ere, gure herriaren maitasuna agerrarazten duten ekintza bikainak. Adibidez, Julio Urkixo hil zenean, honek utzi zuen biblioteca aberatsa Gipuzkoako Diputazioak erostea, Protokolo artxiboa antolatzea, eta abar. Baina, gizaldi berrientzat harrigarri bada ere, gerraondoan Diputazioko Bibliotekan garbiketa bat egin nahi zutenean, gorri edo abertzale zirenak erreaz, F. Arozena gogor plantatu zen holakorik ez egiteko, Bibliotekak liburuen gordailu izan behar dutela eta ez erretzeko leku.

Eusko-Ikaskuntza sortzean, 1919. urtean, bertako idazkaritza la-

netan sartu zen. Bere maisurik onena Serapio Mujika izan zen eta hau hiltzean beronen kargura pasatu zen, Diputazioko agiritegiaren arduradun.

Historia ikerketaz aldizkari askotan idatzi zuen, bereziki *RIEV* eta *Bol. de la R. S. B. Amigos del País*. Bion aurkibideetan bere lanen zereन्द्रa ederrak agertzen dira, ikerketen frututzat. Bere liburuetan biltzen dira bertako lanik garrantzitsuenak eta horiez aparte beste zenbait liburuetan, ondorean agertuko dudan zerrendan ikus genezakeanez.

Baina bestelako dohainik ere bazuen Faustok, batez ere laguntzarako borondate ona, hala ere gazteren bat joaten bazitzaion historiako parteren baten galdez edo gai hortako ikerketaren bat egin nahirik, liburu ideki bat bezala jartzen zen behar zituen xehetasun guziak galdetuala erakutsiz. Nik neuk ere asko zor diot historia kontuan; idatzizko ihardespenik ere baduk nere paperen artean, jendea gure kulturaz hain guti arduratzen zen garaian pozgarri zitzaion hortarako joera zuten gazteei laguntzea. Laguntza hori guti balitz bezala, nik eskatu gabe bere zenbait liburu erregalatu zizkidan. Bere lehenengo liburuetako bat izan zen Diputazioak egile izenik gabe 1930ean argitaratu zuen *Guía de Guipúzcoa*. Gogoratzen naiz liburua ezin bilaturik nebilenean, berana zela jakin bezain laster nola joan nintzen alerik gelditzen zen galdez eta berak zuen bakarra nola eman zidan esku-izkribuzko eskaitzaz. Eskaitza honen bidez jabetasuna ematen zidan berriz berari ez itzultzeko. Bizenta Mogelen *Ipui onak* birargitaratzea nahi nuenean ere, lehen eta bigarren argitalpenak utzi zizkidan etxean lasai mekanografiatu nezan. Lan harek beste ondorio bitxi bat ere ekarri zidan. Auspoa Liburutegiak *Ipui onak* argitaratzean orduko gure kultur mundu tipian izan zuen hotsari esker, handik lasterrera Getariako Azkue elektrizitagandik lehen argitalpenaren ale bat jaso nuen erregalu, hark bere lanean ari zela sabai batean aurkitua.

Hoiek, oroitzapen tipi batzuk baizik ez dira, baina holako oroitzapen tipiz beterik aurkituko genuke gure garaikoetan; beti laguntzeko gertu zegoen gizonaren oroitza.

Bere burua gordailu aberatsa zen. Tamalgarria izan da azken urteotan, odolaren zirkulazioa burura behar bezala heltzen ez zitzaielarik, memoriak ahul ibiltzea, zeren bere burua historiaren uretan iturburu bai zen.

Lanik aipagarrienak ondoko hauetan bildurik aurkituko ditugu: *Narraciones Folklóricas* (1924), *Doña Blanca Garcés* (1925), *Reseña histórica de Rentería* (1930), S. Mujikarekin elkar lanean egina, *Guía de Guipúzcoa* (1930), hau ere Serapio Mujikaren laguntzaz, *Guipúzcoa por San Ignacio* (1950), Bachiller Zaldibiaren *Suma de las cosas Cantábricas*

y *Guipuzcoanas* edizio kritikoa (1944), *La casa de Zumalacárregui* (1948), J. Yrizarrekin elkarlanean, *Los protocolos guipuzcoanos* (1948), *El País Vasco visto desde fuera* (1949), *Brumas de nuestra historia* (1950), *Problemas históricos guipuzcoanos en la vida de San Ignacio* (1946), *Garibay* (1960), *Nuestra pequeña historia* (1961), *Diccionario biográfica vasco. Guipúzcoa* (1963), *Guipúzcoa en la historia* (1964).

Geroko urte askotan ere, Gipuzkoako historia ikerketak egin nahi dituenak bere lanetara jo beharra izango du. Eta, zordun garenok, inoiz ez gara ahaztuko.

### El historiador Fausto Arocena

El día 16 de los corrientes, a la edad de 84 años ha fallecido don Fausto Arocena. Con él, Guipúzcoa ha perdido a uno de los principales historiadores. Bien ha sabido calificarle nuestro amigo Javier de Aramburu al afirmar, «Guipúzcoa acaba de perder a una persona de excepcionales cualidades humanas y uno de sus mejores historiadores». Fausto era uno de esos hombres bondadosos, siempre abierto y dispuesto, para orientar y ayudar a las personas que acudían al archivo o a la biblioteca de la Diputación guipuzcoana. La verdad sea dicha, los de nuestra época hemos tenido suerte en contar en un cargo tan importante con una persona tan afable, generosidad que de la misma manera haría extensible a José de Arteche y María Milagros Bidegain; que sólo podemos apreciar los que hemos recurrido a ellos a la búsqueda de fuentes y datos precisos para nuestros trabajos.

En la ley biológica algún día tenía que llegar el desenlace fatal. El de Fausto se esperaba muy próximo, pero aún así nos ha llenado de tristeza. Los que recurriamos a él sabemos que era como un libro abierto, un pozo de erudición y que su saber compartía amablemente con cuantos recurrían a él.

Escribió algo en vascuence y mucho en castellano. Autor de dieciséis obras, más numerosos artículos y estudios desperdigados en publicaciones culturales, obras conmemorativas, publicaciones locales, etc.

Trabajó en la secretaría de la Sociedad de Estudios Vascos desde su fundación en 1919 hasta que sustituyera a Serapio de Múgica en el cargo de archivero de la Diputación de Guipúzcoa en 1927. En época de guerra trabajó para salvar la Biblioteca de los riesgos del espurgo. Más tarde, a raíz del fallecimiento de Julio de Urquijo, trabajó para que la Biblioteca de éste pasara a los fondos de la Diputación. Ordenó el

Archivo de Protocolos al pasar a la antigua Universidad de Oñate. Pero, sobre todo, por su erudición y amabilidad, fue seguro guía para muchísimos jóvenes en todo tipo de investigación.

Los títulos de sus obras figuran al final del texto euskérico. Obras que durante varias generaciones serán de indispensable consulta para quienes deseen realizar estudios en torno a la historia de nuestra provincia. Hombre comedido y justo, como se refleja en dichas obras.

Era miembro correspondiente de la Real Academia de la Historia, que por su sencillez no alcanzó otros títulos. El rechazaba toda ostentación para su persona por mucho que sus amigos insistieran ser merecedor de honores. Todo lo que por él se diga es poco. Que en paz descanse el hombre laborioso y bueno.

1980-XII-22.

## BI POETAREN OROIMENEZ (I)

*Gizonarentzat ezer ezta beharrezkoa-  
go itsas zati bat baino eta itxarope-  
nezko bazter bat heriotza baino ha-  
runtzago.*

(Blas de Otero)

Gure bizitzan zehar, giza-jakintza eta aberastasun guziak hutsa lirateke poesiaren berotasunik gabe. Berotasun honek barne gogoia girotzen bai du, gizona gizonago egiteko.

Honegatik, irakurle, ez harritu erderetan idatzi duten bi poetari buruz idazteagatik. Idazle bakoitza bere sentipenak mugitzen bai du. Gainera, gure azken urte hauetako ekintza eraginetan badute zer ikusirik galdu berri ditugun bi poeta hauek: Blas de Otero eta Celso Emilio Ferreiro. Bata Euskal Herriko sementa eta bestea gurea bezalako herri marjinatu batekoa. Biak, euskaldun poeta berrientzat aski ezagunak eta Gabriel Aresti poesia berritzaileak hoiegan zer ikusirik izan zuen.

Hogeiren bat urte dira Blas de Otero izatearen naturalezaz, esistentziaz, arrazoi bila larrimindurik «Ángel fieramente humano» deritzana burutu zuela. Europako esistentzial filosofiaren prolemak zera-maten gizon hau. Eta, nor ez garai hartako pentsatzaileetarik? Gure literaturaren alorretaraino ere heldu zitzaigun garaiko kezka. Bestek beste, nik neuk ere hor eman nituen lehen olerkien bidez.

Blas de Otero, izanaren hauziaz ezer erabakitzerik ez zuela ohartu zenean, gure izatearen malurak eta eternitate aburuak alde batera utziaz, gizarte erazoetaz aurrez aurre jarri zen. Lehenean ez bai zuen bere kabuz ezer erabakitzerik eta bigarreanean gizonen eskubidezko justiziaren alde borroka egin zezakeanez. Erabaki hau hartu zuen une beretik klase borrokan partaide izatera heldu zen. Bazekien ekintza honen zama nekegarriaz: «El cielo es de color indefinido, el niño está llorando en la terraza, sabiendo todo lo que le espera». Baina Tristán Tzara-k zionez, «Kopeta garbi guzietan errebeldia eratzten da».

Gaztelera ongi menderatzen zuen eta literaturagintzarako dohain bereziak zituen. Bere ekintza honi gogotik lotu bazen ere, iragan urteetako zentzura ahalegindu zen bere lana isilarazten. Baina, hala ere, duela hogeirenbat urte, Unibertsitate mailan konsagratua izan zen Emilio Alarcos Llorach irakasleak sarrera hitzaldiko iker gaitzat hartu zuenetik.

Aurtengo udaran sartzeaz hil zaigu Otero bilbotarra eta egunkarietan irakurria dugu sozial poesiaren sortzailea izan zela. Gaur «sozial»-tzat hartzen dugun kontzeptuan. Baina, sortzaileen artekotzat jo genezakeanarren, E. de Nora, V. Crémer, J. A. Goytisolo eta beste batzuekin batean, ezin genuke har egia osotzat. Miguel Hernández eta Rafael Alberti izan baziren, egungo usteetako sozial poesiaren hasiera batean, aintzinean jarri beharra dugu Gabriel Celaya hernaniarra. 1952-an gaztelerazko poeta gazteak orduko poesia berria zertan zen «Antología consultada de la joven poesía española» zeritzan bilduman adierazteaz aparte, José María Castellet eta Leopoldo de Luis-ek beren antologietan diotenagatik, Celaya bide hoietan soilik arduraturik abiatu zirenetarik lehena zen. Eta Blas de Otero berak «En castellano» deritzan liburuan bertan hala aitortzen du.

Blasek Arestikin harreman onak eta aspaldikoak izan zituen eta honengandik jakin nuen gure herria nola maitatzen zuen. Euskararenganako begiramena ere ba omen zuen. Baina, begiramen soila antzu bihurtzen da, eta gure euskara maitatzen dutela diotenen pekatua hor datza, fedea egintzen bidez ez agertzean. Euskara egiz maitatzen duenak, euskaraz hitz egin, irakur eta idatzi, beharrezkoak ditu; gainerakoan, ahuntzaren gaberdiko eztula. Zeren, bestela, ez erabiltzekotan, zertarako dugu ba hizkuntza?

Blas-ek, bere izateko moduagatik asko sufritu beharra izan zuen; bere osasuna galtzeraino. Era guzietako injustiziak salatuko zituen, hitz gutxitan argi eta apain agertuz. Bera joan zaigu, baina bere hitz sotilak hor gelditzen zaizkigu gizonaren pentsamen eta sentimen gogoe-taren ageriz:



*Si he perdido la vida, el tiempo, todo  
lo que tiré, como anillo, al agua,  
si he perdido la voz en la maleza,  
me queda la palabra.*

*Si he sufrido la sed, el hambre, todo  
lo que era mío y resultó ser nada,  
si he segado las sombras en silencio,  
me queda la palabra.*

*Si abrí los ojos para ver el rostro  
puro y terrible de mi patria,  
si abrí los labios hasta desgarrármelos,  
me queda la palabra.*

### **A la memoria de dos poetas. (I.—Blas de Otero)**

En breve espacio de tiempo, acabamos de perder dos figuras señeras de la poesía contemporánea: Blas de Otero y Celso Emilio Ferreiro. Ambos, con su obra, habían contribuido al enriquecimiento de la nueva poesía peninsular. Incluso en la desarrollada en vascuence.

El bilbaíno Blas de Otero, agobiado desde su juventud (época de posguerra), por la angustia existencial que le hiciera ver

*un mundo como un árbol desgajado.  
Una generación desarraigada.  
Unos hombres sin más destino que  
apuntalar las ruinas.*

salió marcado para el resto de su vida.

Con «Pido la paz y la palabra» tomó conciencia hacia una literatura comprometida. Sufrió la prisión y el exilio, pero su pluma siguió fiel al dictado de su propia conciencia, como lo manifestó en sus versos:

*Nací para narrar con estos labios  
que barrerá la muerte un día de estos.*

1979-IX-24.

## BI POETAREN OROIMENEZ (II)

*Jendea heriotzatik ibesik dabil  
baina jendeak barruan daroa heriotza  
(Celso Emilio Ferreiro)*

Mundua Celanova deitzen den lekuen oraintsu hil zaigu Celso Emilio Ferreiro, «Longa noite de pedra» eta beste zenbait libururen egilea; bere proletargo herri-hizkuntzaren alde era honetan agertu zena:

*Nere herriaren proletario hizkuntza  
mintzatzen naiz, hala nabi dudalako,  
guztatzen zaidalako, gura dudalako eta  
gogoak ematen didalako;  
barnetik irtetzen zait, barneko tristura  
mingots batek eraginik, hainbeste ez jakin eskergaiztoko,  
errorik gabeko ñañoak  
gorbata jarri orduko arbasoen  
maitasunez ez dakitenok  
guraso hizkuntza mintzatzuz,  
bilik dauden aitonen hizkuntzaz,  
eta, burua jasoaz,  
hizkuntzaren marinel, nekazaria izan,  
erraun eta golde, beti branka eta goldenabar.*

*Ez naiz mintzatzen arropuzentzat,  
ez naiz mintzatzen doilor eta ahaltzuentzat,  
ez naiz mintzatzen handidikeriazkoentzat,  
ez naiz mintzatzen ergelentzat.  
ez naiz mintzatzen hutsentzat,  
etengabeko injustiziak gogor  
eusten dakitenentzat baizik;  
izerdia eta negarra darienentzat  
eguneroko mitxeleta negarra,  
suz eta haizez begi biluzietan  
Nere hitzak ezin ditut apartatu  
mundu guzian sufritzen dutenengandik.  
Eta zu munduan bizi zara, nere herria,  
nere leinuaren seaska,  
Galizia, Espainien pena goxoa,  
itsas ondoan etzainik, bide hori...*

Honelako hitz gogorrez sentitzen zuen Celso Emiliok bere herrianganako maitasuna, bere hizkuntza eta bere kultura defenditu nahirik.

Garai hartan «felipismoaz» kutsaturik zebilen hemengo gazte asko, gure herriko hizkuntza naturala, gure euskara, burgeskeriaren azpiegiturazkoa zela esanez. Heurak egositakoa heurak janez eta besteei janerazi nahirik. Zertaraino heldu ginen! Baina, hamaika aldiz errepikatu genien: «Lingua proletaria do meu pobo...».

Behin baino gehiagotan nahi izan nuen, Eibarren bertan, bertakoen jakingarriz eta Galiziako etorkinei begira, hango literaturaz mintzatu, elkarren herri problemak ezagutzera hurbiltzeko asmoz; baina, batzuk alde batekotzat, besteak bestekotzat, inork ez zuen nahi bere eskema hertsietatik irtetzerik. Rosalia de Castro, Curros Enríquez, E. Pondal, R. Cabanillas, R. Otero Pedrayo, Castelao eta beste, orainagoko C. Emilio Ferreira, Alonso Montero, Manuel Maria..., idazle bikainak azaldu duten literatura gihartsuaren berri emateko. Baina, alperrik.

Arestik ordea, lan ona egin zuen Barakaldoko galego elkarteak. Eta, etorkinok gure etsai ez bihurtzeko lana egin beharra zegoen; bere herriaren prolema adierazi beharra. Zer zen bestela «itsas ondoan etzanik, bide hori...?». Desarrollo edo hazkuntzazko plangintza baterako aurkibideak? (Ikus «Si la píldora bien supiera no la doraran por defuera», I. zeb. 133 orr., 1968). Horrez gainera, itzulpenekin ere anitz arduratu zen Gabriel, «Agiriak» liburuaren hitzaurrean aditzera eman genuenez.

Dena dela, gutik, oso gutik kantatu du gure mende hontan, bere herrianganako abertzaletasunez, Celso Emiliok hainako kemenez. Galegoz idatzi zuelako, sozial zeritzan mugimendu hartan Espainian agertu ziren antologietan ez zuen lekurik izan. Gezurra badirudi ere, Estadu zentralista baten eraginak justizia eskariz ari ziren ezkertiarrengana ere heltzen ziren. Hortik ikus herrizaletasuna ezker-eskubitik apartekoa dela. Eta, Celso Emilioren lanen berriak, zabalkunde egokirik gabe, bila ari ginenontzat ere nekeza zen aurkitzea, askatasun minez eta justizia egarriz arizenaren lanetarik.

Galego hizkuntza bera ere berezia da poesiagintzarako, baina horrezgainera, galegoaren gizarte egoera latzak markatzen du Celso Emilioren ekintza, inoiz etsipenik hartu gabe: «Para ser libre o home ten que saber decir creo na esperanza». Eta, hizkuntza sotil hortan honela adierazten digu bere poesiagintza:

*Perguntoume un literato,  
¿qué poesía fas ti?  
Eu non fago poesía,  
faima a poesía a min.*

*Cómo son eu non o sei,  
soio sei cómo non son.  
Non son un poeta-ouxeto,  
non son un poeta-sport,  
non son un poeta-fámulo,  
non son un poeta-mol  
pra darlle gusto ós burgueses  
que andan buscando o folclor.*

Curros Enríquez sortu zen hiri berean, mundua Celanova deitzen den lekuan, haur triste bat zegoen, ume-zurtz sentitzen zena: «Jar zazu, jauna, zure eskubian, jostatzen ez zen haur tristeak ez bai zuen beste pozik egunsentiko kanpai hotsa baizik».

### **A la memoria de dos poetas. (II.—Celso Emilio Ferreiro)**

Allá, donde el mundo se llama Celanova, recientemente ha fallecido el poeta Celso Emilio Ferreiro.

Fue en Celanova donde vio la primera luz de su vida y sintió las emociones más profundas y los amores más intensos. Y allí, el palpitar de una vida desasosegada ha llegado a su fin.

*Cuando llegó la noche envuelta en  
nards  
cerró la última luz del día  
que agonizaba allá lejos  
como brasa mortecina de un rescoldo.*

*Como brasa mortecina  
ha sido mi vida,  
como brasa mortecina de un rescoldo.  
Por eso vivo desasosegado  
de no saber si soy lumbre  
o si soy tan sólo humo  
de una remota hoguera.*

Tras larga noche de piedra, viajó al país de los enanos. Supo de las miserias humanas de los acomodados económicamente y preparó los índices estadísticos para un plan de desarrollo.

Falleció inesperadamente en la plenitud de su vida intelectual.

Orense ha perdido a uno de sus hijos preclaros; Galicia su más dulce voz, y, las gentes humildes del orbe entero, al poeta que clamaba justicia.

En Celanova había un niño triste con cárceles durmiendo largas noches, con un hondo río de orfandad en el pecho,

*Ponlo, señor, a tu mano derecha,  
pues era un niño triste y no jugaba  
ni tenía otro contento que el ruido  
de unas campanas al nacer el día.*

1979-X-1.

VII  
OROTĀRIK  
Varios

## ITSAS-HONDOAREN IKERKETAZ

Joan zen asteen, astelehenetik asteazkenera, itsas-hondoa edo itsaspea ikertzeko batzar jakingarriak egin ziren Donostian. Jakintza hau griegozko «bentos» izenez ezagutzen da. INSUB deritzan elkartearen izan da erataile, E.K.N.-ko Kultur Kontseilaritzaren babespean. Ehundik gora pertaide ziren. Gehienak arrotzak.

Itsas-hondoaren ikerketa aspaldikakoa du gizonak, baina berriki metodologia eta teknikak aurreratuz ikuspegi sakonagoen aukera eskaintzen zaie oraingo ikertzaileeri. Bestalde, gizonak, betidanik izan duen ikerketa gogoia, ezagutzen ez diren gauzetaz arduratsu ikertzeko bereziki, ase ezinezko egarria bezala du. Gogo honek bultzaturik, lur azalaren parterik gehiena ezagutzera heldu da; baina, itsaspea hor dago oraindik gehiena ikertu gabea. Janariak jasotzeko almazena izan da itsasoa, batez ere euskaldunentzat. Baina, orain arte, ezta asko arduratu jaki hoiek iraungo badute edo gehituko badira zer nolako giro-aukera komeni zaien eta janariaren almazena guztiz hustuko ez bada beharrezkoa zaigu aukerako ekologia orekaz arduratzea. Gure janari den arrainaren jakiak ezagutu eta zaindu. Itsas-hondoaren ikerketak gauza berriak aurkitzearen zoria eskaintzen dio egungo gizonari eta, aspaldiko gogoaren asegarri, bentos ikerketa honetan, jende gaztea ari zaigu.

Botanika eta biologia zientziak dira jakin beharrezkoak, itsas-hondoa ikertzeko. Eta, martxoaren 26-ko artikulu hartan esaten nuenez, guk itsas-gizon asko eman dugu, bale-arrantza egiten zutenetatik munduari lehendabiziko buelta eman zuena arte, baina ikertzaileerik urri. Hau lortzeko oster, Unibertsitatea behar genuen, baina goimailako ikastetxe hoiek lortzeko beti izan ditugu eragozpenak. Oñatiko Unibertsitate harek, 1542.urtean sortuak, laguntzak baino trabak gehiago izan zituen. Azkoitiko «zalduntxoak» Bergaran ideki zuten Mintegiaz (1766-1804) zer esanik ere ez. Gure mende honen hastapenetan Eusko-Ikaskuntzak (1918) ere bazekarren bere eragina, bertako indarrez sortua, baina gerrarekin suntsitu zuten, ordainez ezer eskaini gabe. Hara hor gure herri honen burubidea. Basatiak izatera behartuak geuden, noizik-

-pehinean gizon argi eta herrizalerik sortu ez balitz. Eta, inoiz, hoiek, inoren laguntzarik gabe sortu dituzte guk hain beharrezko genituen eskolak. Adibidez, Jose Migel Barandiaranek Arkeologiaz eta Etnologiaz lortu duen eskola bezala. Gainera, urrengo, hoiien inguruko eraginetik sortu dira zenbait elkarte ere. Arantzadi Natur Zientzia Elkarte (1948) esate baterako. Egia esan, hemen bertako hizkuntza jator eta naturalak eskoletarako sarrera ofizialik ez duen artean, zer espero genezakean?

INSUB elkarteak, uste dut, sorte hobea izango duela. Unibertsitate berria du bere inguru eta hemendik sortuko diren jakitunak dira geroan itzaropena. Gizonari etzaio agortuko jakin nahia eta hau izango bultzatzaile.

Kutsadurak eten, bentos ikertu, itsaspeko ekologia oreka egokia lortu; eta, honen ondorioz, luzarora begira, hainbeste janari ederren almazena den itsaso zabalaren kontrola izango genuke. Bada hor zereginik; bai horixe.

Simposium hortako partaideek hirurogei txostenetik gora aurkeztu dituzte, mikroorganoz, algaz, arrainez, eta abar; horien bizitzaz, zabalkundez eta abar. Lanok, seguruenik, Euskal Unibertsitateak liburu batean bildurik argitaratuko ditu eta partaideek ondoko urtetan ere lan hoietan jarraitzeko asmoa dute.

Holako ekintzak behar beharrezkoak ditugu herri moderno bezala aurrera egingo badugu, eta gaur egun, Europan, moderno izatea hil edo bizikoa da; ezin uka. Honegatik, Euskal Herriko gazterian, ikerketarako zaletasuna zabaldu beharrezkoa dugu. Edonolako ikerketak Zientziaren helburu.

Jakintza bakoitzean gehiago zakondu den neurrian, Zientziak geroago eta konplexoagoak dira eta guk guzietarako jendea behar dugu. Gure gazteriak, tabernak utzi eta badu bere indarrak non eman, egingakoa baino egin gabea gehiago dugunez. Uste honekin, bijoaz nere zorionak INSUB elkarteko gazte kementsu eta jakintsuentzat, erakunde hau gure herrian lehena izanik bere bete beharra hain ongi eroan dutelako.

### **Estudios del Bentos marino**

Del 9 al 11 de los corrientes se ha celebrado en San Sebastián, en las salas de la Caja de Ahorros Provincial y de la Delegación del Ministerio de Cultura, el primer Simposium de Estudios del Bentos Marino, organizado por la Sociedad Cultural de Investigaciones Sub-



marinas INSUB, bajo el patrocinio de la Consejería de Cultura del C. G. V., en el que han participado más de un centenar de investigadores nacionales y extranjeros, jóvenes en su mayoría, porque al tratarse de un tema poco estudiado, el bentos, promete un inmenso campo para la investigación.

En el artículo del día 26 del pasado mes de Marzo, al comentar la obra «Itxaskaria», mencionaba algunos aspectos de la vida marina vasca, pescadores, navieros, cosmógrafos, etc., que cubren una parte importante de nuestra historia. La mar ha influido en la manera de ser del vasco, y no hablemos sobre el desarrollo económico. En estas tierras nada favorecidas por la naturaleza, la mar ha sido para el vasco la despensa que ha cubierto sus necesidades alimenticias. Por esto aprendió a construir buenos navíos, estudiar a mejorar las técnicas de la pesca, pero apenas le dio por estudiar la fauna y flora bentónicas, que a la larga pueden ayudarnos a previsiones para la explotación de la pesca.

En el fondo, este Simposio del bentos, tampoco ha pretendido analizar las previsiones aludidas, pero en los resultados de estos estudios bentónicos tendrán que basarse en un futuro próximo para saber el comportamiento marino y poder planificar la explotación pesquera.

La falta de una Universidad propia nos ha impedido desarrollar la investigación pura. Aquella añorada Universidad de Oñate (1542) no tuvo el apoyo necesario para su subsistencia; nuestros ilustrados del Real Seminario de Vergara (1766) tampoco contaron con el apoyo estatal; y, en época contemporánea, otra iniciativa privada fue la Sociedad de Estudios Vascos (1918), que precisamente hizo una investigación muy importante sobre los puertos pesqueros; aun así, resultó otro intento que vino a malograrse con la guerra civil. Esperemos que la nueva Universidad Vasca prospere con mejor suerte. Eso sí, ha habido hombres que han sido toda una institución y han llegado a crear escuela; por ejemplo, este es el caso de D. José Miguel de Barandiarán con la Arqueología y la Etnología.

Esperamos mejor suerte para el animoso grupo de jóvenes que componen INSUB.

Las ciencias son cada vez más complejas a medida que se profundiza en ellas, y estamos cada vez más necesitados de las distintas especialidades y, por supuesto, de personal con dedicación en cada disciplina.

1979-IV-16.

## EUSKAL-HERRIKO MUSEOTAN PEDAGOGI SAILA SORTZEAZ

Abenduaren 11an hasi zen Bizkaiko Museo Historikoan Pedagogi Saila. Orduan hasi ziren ekintza honetarako beharrezko diren materialak eratzten eta maisu-maistrentzat, hitzaldien bidez, ikastaro gisa aurkezpenak egiten. Hauek jakin zezaten haurrei Museoa nola erakutsi behar zaien. Hau da, haurra ahalik gutien nekatuz eta ahalik gehien ikasteko eraz.

Ekintza haren lehen urrats nagusia hil honen 10ean eman zen. eskoletako haurrak bisitatzen hasteaz. Ideki zen egun hortan, J. M. Barandiaran izan genuen mahaiburu, eta han bertan agertu zuen zein gozkoa zitzaion Museoan holako sail bat eratzea, bizi gehiago izan zezan, haurtzarotik lehena ezagutzen laguntzeko, gure sustraiak hobeto ezagutuaz gerora begirako ekintzak bide egokietatik eramaten ikasteko, eta honegatik bere zorionik kartsuenak ideia hau izan zutenei eta aurrera eramaten ahalegindu direnei.

E.K.N.-ko Kultur Kontseilaritzakoek aspaldi oharitu ginen transferentzian zain egon gabe zer bait egitera behartuak geundela eta ezer egitekotan ere, Ministeritzatik transfrentzien bidez etorriko zenetik ekin beharrean, hemen premiazko ziren gaiak eta transferentziaz etorriko etzirenak bultzatzea pentsatu genuen. Besteekin ahaztu gabe, baina hauei preferentzia emanaz. Eta, hauetako bat izan da Museoetan Pedagogi Saila sortzeko asmoa.

Europako zenbait Museoetan egiten zenaren berri bagenekien, bereziki Holandan. Eta haiek helburu, gure aldetik ezer asmatzea edo pertsonaren bat hara bialdu eta han ikastaroak egitea baino errazagoa iduritu zitzaigun handik pertsona ikasi bat ekartzea, baina gure nahia hizkuntzak mugatzen zuen. Harat honat jo ondoren, Kataluñako hiru Museoetan era hortara antolatua dituztenetara jo genuen eta hara non aurkitu irakasle aukerako bat: Teresa Casanovas, maistra eta lan hoietan ibilia. Hau kontratatuz eta honen ondoan hemen bertako bat laguntzaile jarriaz hasteko asmoa hartu genuen; baina diru kontuan zegoen bitarte. Eta, museo egokia eta diru laguntza lortzeko, lehen lehenik Arabara jo genuen, baina huts; gero Bizkaira, Bilboko zenbait diru etxetan atea joaz. Bilboko Bankoak laster ulertu zuten gure asmoa eta honerik esker irten ginen aurrera. Gainera, diru laguntza hau lortu ahal izateko, zenbait adiskideren laguntzarekin baliatu beharra izan genuen eta hauetako bat nere adiskide Jon Castañares, Bilboko alkate izatera heldu zen uste gabe. Castañares-ek ongi konprenitu zuen Pedagogi Sailaren beharra eta kargu berriaren bidez jarraipenerako egokitasuna ikusten dugu.

Sail honek zer izan nahi duen?: Gure herriko kulturaren transmisio bide bat izatea. Irakasle, ikasle eta abar lagundu Museora egiten diren ikustaldietatik probetxurik onena ateratzeko. Ikusleen estetika eta sormen zentzua sendotu. Museoa ikergune bat izan dadila bertara doazen ikasleek Euskal-Herriko Historia eta Etnografiari buruz ikerketak egiteko laguntza izan dezaten. Hezkuntza eginkor eta bultzakor baten alde lagundu ikerketa mailan Arte, Etnografia eta Arkeologia saileko harremanetan oinarrituz. Museo erakunde «bizi» eta guztiona izaten aldagarriz eta gure zaletasun sortzemenen laguntzaile izan dadila, gure txolarre edo bitarteak sorketaz betetzeko.

Asmo hoiengatik arabera, zera eskaintzen du: Ikasle taldeei ikustaldi azalduak. Ikus-entzute proiektuak Museo gaiak ulertzen lagun dezatenak. Azalpen eta gai beraien lan ariketen proposameneko argitalpenak. Gehigarri ekintzak eta umeentzat ikastaroak museoaz zer ikusia duten gai desberdineri buruz. Museoko gaiari buruz irakasleentzat kontseilu didaktikoak. Museoko gaiari buruz haurrentzat biblioteka pedagogikoa. Ikasleentzat argibide bibliografiko eta metodologikoak. Eskatzen duten erakundeentzat ihardunaldi eta hitzaldiak.

Ekintza honetarako zenbait liburuzka monografiko argitaratu da. Orain artekoak: Prehistoria, Zeramika eta lanerako inkesta gisako orriak izan dira. Gai bakoitza bertan espezialista den baten laguntzarekin egina da. Hau da, gaiaren espezialista eta gainera ber bertakoa, Euskal-Herriko Prehistoria, Euskal-Herriko Historia eta Euskal-Herriko Zeramika ezagutzen dituzten pertsonak. Hoiengatik laguntzaz, Casanovas andereñoak Pedagogiako teknika berriak aplikatzen ditu.

Orain arteko liburuzka hoiengatik hamar-hamabi orrialdekoak dira. Itsasoa, Olazaharrak eta beste, gertatzen ari dira. Lan guztia Museoan dagoen materialaren arabera. Lana aurrera bizkortuz, bere fruituak laster ikusiko dira. Gure iduriz, orain arte ez baita aprobeztatu behar haina gure Museoetan dagoen materiala. Baina, badaukigu, baita ere, Museoak, dauden baino hobeto ez badaude, ez dela izan bertako zuzendaritzaren faltaz; zeren ez bai dute izan inolako laguntzarik agintarien partetik. Eta, izan dituzten asmo onak ere ez dira aprobeztatu. Eta bada Euskal-Herrian Museo ederrik. Bai, balio handiegia daude gure museoetan behar haina probetxu atera gabe uzteko eta gure herria ez dago kulturaz aberatsegi holako gauza garrantzitsu bat jaramonik egin gabe uzteko.

Hau, hasiera besterik ezta. Honen fruituak ikusi ondorean Euskal-Herriko museo guzietara banan bana eramanez nahi genuke Pedagogiako Saila. Lehen bete beharra dugu. Lehendik badira zenbait iker sail eta baita oso ongi jarritako museoak ere, baina plangintza orokor baten lehena Pedagogia iduritu zaigu, zeren gurasoen kontzientzietara heltzen

ez bagara, gurasoei museoen kultur heziketa balioa erakusten ez badiogo, aurrera begira datozen urte demokratikoetan ez genuke izango herriaren laguntzarik gure museoen alde. Uste honekin, haurraren bidez gurasoengana helduko gara, gurasoak ere arduratuko dira, eta denborarekin inork ez du jarriko eragozpenik museoak hobetzeko diru laguntzaz, eta gure museoen hobetu beharrak, era orokorrez, anitz dira: Etxeen hobetza, argitik hasi eta tenperaturara, TV zelataria, gauza bakoitzaren seguritatea, zerbitzuak (hoietan, liburu eta postal salketatik gai bakoitzaren bibliografia eskaintzera arte), iker sailak eta abar.

### **Sobre la creación de Departamentos Pedagógicos en los museos del País Vasco**

El 20 de diciembre se dio a conocer públicamente el Departamento Pedagógico instalado por la Consejería de Cultura del C. G. V. en el Museo Histórico de Vizcaya. Desde entonces, las personas encargadas en su organización, han elaborado el plan general de acuerdo con los materiales que dispone dicho Museo para la enseñanza de la Prehistoria e Historia del Señorío de Vizcaya bajo el asesoramiento de diversos especialistas en la materia, y han organizado varios seminarios para profesores y enseñantes para la mejor utilización de las visitas al Museo en compañía de sus alumnos. Y el día 10 del presente mes de abril se inauguró la apertura de visitas conforme a los planes indicados. El acto inaugural fue presidido por don José Miguel de Barandiarán, quien desde hace sesenta años fue depositando en dicho Museo los materiales más antiguos de Vizcaya que hoy posee dicho Museo. Y a este respecto suyas fueron estas palabras: «Esto me admira y me gusta, es la forma de conseguir que un museo tenga vida. Nosotros, para proyectarnos hacia el porvenir, tenemos que buscar la base en las raíces, y me parece excelente que se enseñe a los niños a interesarse por esas raíces. Felicito al que tuvo la idea y a los que han trabajado en ella».

La idea fue elaborada la primavera pasada, tan pronto se constituyera la Consejería de Cultura, dando prioridad a aquellos asuntos que no se alcanzarían a través de las transferencias, puesto que los Departamentos Pedagógicos aún no están institucionalizados a nivel ministerial. Y aunque a algunos centros les consta que hay muchas cosas por hacer y otras por mejorar, considerando muy importante la preocupación didáctica del C. G. V., como vertiente importante de un Museo, no se comprometieron en asumir la idea. Sólo después de

muchas gestiones en diversas entidades nos encontramos con la dirección del Banco de Bilbao que comprendió la idea y puso los medios necesarios para su desarrollo.

El Departamento Pedagógico instalado en el Museo Histórico de Vizcaya servirá como experiencia piloto en nuestro país y sus resultados nos enseñarán el modo de instalar en otros Museos para lograr el máximo rendimiento del material expuesto en cada uno de ellos.

Este Departamento pretende: ser un medio de transmisión de la cultura del país. Ayudar a profesores, alumnos y público en general, a sacar el máximo provecho de las visitas al Museo. Potenciar en el visitante el sentido estético y la creatividad. Que el Museo sea un centro de estudio que anime y ayude al estudiante a investigar sobre los temas de Historia y Etnografía del País Vasco. Colaborar en la implantación de una enseñanza activa y dinámica, basada en la investigación en contacto con el objeto de Arte, Etnografía y Arqueología. Convertir al Museo en una institución «viva» y de todos y que ayude a crear nuevas aficiones, para cubrir nuestro ocio de manera creativa.

Y conforme a esta pretensión, ofrecer: Visitas explicadas para grupos de alumnos. Proyecciones de audiovisuales que ayuden a comprender los temas del Museo. Publicaciones explicativas y propuestas de ejercicios de trabajos de los mismos temas. Actividades complementarias y cursillos para niños sobre temas diversos relacionados con el Museo. Asesoría didáctica para profesores en torno a los temas del Museo. Biblioteca infantil y Pedagógica sobre los temas del Museo. Orientación bibliográfica y metodológica para estudiantes. Y charlas y conferencias a las entidades que lo soliciten.

En cuestión, una nueva actividad para nuestro desarrollo cultural, cuyos frutos se verán a muy corto plazo.

1979-V-7.

### **«JAN-EDANAK», MOKO-FINEN GOMENDAGARRI**

Egunotan, beste zenbaiten artean, liburu berezi bat agertu digu Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak: «Jan edanak». Liburu eder honek, izen buruak dion bezala, gastronomía du gaitzat, baina liburuaren barrena literatura umoretsu baten jabe da. Berri jakingarriz hornitua, hizkuntzaz eta informazioz aberats eta irakurgai bezala bene betetan atsegina.

F. Krutwig adiskide onaren aburuak ez ditut ukatuko, berak esaten duelarik sukaldari liburuetatik aparte ezer guti idatzi dugula euskaldunok garrantzizkorik. Hain zuzen, hori aitortzera bai dator. A. Arrue zenaren liburu hau.

Hirureun ta berrogeta bi orrialdeko liburua da. 15tik 207. orrialdera arte, parterik gehiena noski, 1954tik 1975.era bitartean «Egan» aldizkarian euskaraz eraman zuen sailetik bilduak dira. Eta 209.etik 342ra zenbait hitzaldi eta lanez osatua. Lan hauek hamaika dira eta bat ez beste guztiak erdaraz. Bigarren zati hontako lanik gehienak *Cofradía Vasca de Gastronomía* delako elkartearen boletinean argitaratuak ziren.

Astekari honetan, 1977ko abuztuaren batean, «Jan-edanen inguruan» zeritzan artikulua batean eman nuen euskaraz gastronomia gaiez argitaraturik dauden liburuen berri eta bukaeran hau esaten nuen: «Arrue zenak 1954/1975 hogeitabat urtean «Egan» aldizkarian eman zuen Jan-edanak zeritzan sail beretik liburu ederra osatu ditzake, bere kontaera umoretsu eta gatz-ospinduaz». Baita ere esaten nuen, jakien zerrenda bat aurkibidetzat beharko zuela; baina, zoritxarrez hau gabe argitaratua da.

A. Zavala izan da biltzaile eta liburuen prestatzaile eta L. Villante euskaltzainburuaren hitzaurrea daroa.

Sukaldaritzari buruz laugarren liburua dugu euskaraz: «Eskualdun kozinera» (1864), bere berri 40. orrialdean ematen du A. Arruere liburu honek; «Kozinan ikasteko liburua» (1889), 17-39 orrialdeetan adierazten duena; eta, «Osasuna, merketza ta janaritzea» (1920), 177.orrialdean aipatzen duena. Horiez gainera badira beste bi liburuxka, «Edariak» eta «Janariak», Gordailuk 1975ean argitaratuak.

Liburuaren 268. orrialdean Bibliografia bat ere azaltzen da, gure herriko jakiez nortzuk idatzi duten aipatuz. Hala ere badut nik Eibarren bertan mende honen hasieran publikatu zen liburuxka bat, 33 orrialdekoa, «Manual del arte de cocina» deritzana. Herriko inprimategiari buruz egin nuen lan batean azaldu nituen bere berezitasunak (Boletín R. S. V. Amigos del País, XXXIV, 1978, 311-315 orr.). Ondoren, gai hauetaz hain jakituna den Jose Mari Busca Isusi adiskideak, liburu beraren beste edizio baten berri eman zidan. Berak duen alea ere Eibarren argitaratua da 1913. urtean Fernández y Diego inprimategian.

Honek erakusten digu aintzinako eibartarrak armagintzaz bakarrik ez zirela arduratu, baizik, orain esaten den gisa «gourmet» onak ere baziren. Honetarako, aipatzen dugun liburutxoak ez ezik, Jovellanos-ek egin zuen bazkari hura dugu adierazpenik onena. 1791eko abuztuko egun batean heldu zen Eibarrera, bere *Diario*-an agertzen duenez, armagintzak

ezagutu nahirik eta armaginekin hauetako baten etxean bazkaldu. Hara hemen berak diona hitzez-hitz: «Hubo buen humor y buena comida: asado, calamares, anguilas, truchas, magras, guisado y frutas: entre otras, unas ciruelas de enorme tamaño, pues igualaban al más grande huevo de gallina: son doradas como las claudias, bien maduras, de gusto suave; pero ni tan finas, ni tan dulces, ni tan jugosas como ellas. Buen vino generoso, bizcochos bañados y confituras; por último, anisete».

Ohitura onak ez galtzarren, eibartarrok beti ahalegindu gara mahaia ondo zerbitzen, eta herbestekoei esku zabaltasuna erakutsiz. Hau ere ezagutu zuen Arrue berak. Euskaltzaindiak sosik ez eta egiten zituen bileretara joateko, ogibidezko lanerako eguna galtzeaz gainera, bideko gastuak eta bazkaria bakoitzak bere poltsikotik ordaindu behar izaten zuen. Eibarren ordea, 1959.urtean Juan Antonio Mogelen omezez egin genuen hartan herriko semeen leptotik izan zen. Hortik dator 77. orrialdean jasotzen den esker ona: «Ez da inñolaz ere mundu ontan gauza atsegingarriagorik, jatetxe batean sartu, bazkari on bat egin ta, kontua eskatutakoan, dana ordaindua dagoala zerbitzariaren aotik entzutea baño. Au gertatu zitzaigun Eibarren, bertako azkeneko euskal-jaietako egun batean». Jovellanos-ena bezain ona eta ugaria izan ez bazen ere, prezio berdinekoa izan zen: duan.

Hain ezaguna den Arcipreste de Hita-ren bisigu aipamena oker dakar 313. orrialdean. Bermeo behar du eta ez Ondarroa.

Angula kontua ezta urrutiko intxaurrak bezala. Liburuaren 326. orrialdea irakurri besterik ez dugu, bakoitzak bere etxeko suari putz egiten diola. Luis Antonio de la Vega eta Bardají jaunen arteko eritziak, angularik onenak nongoak diren erabaki nahirik, Bilbo eta Donostia hiri nagusien tira-birazko indarra nabari da. Hiriak zenbat eta handiagoak, zabalkundezko indar handiagoa, eta honen arabera ospea. Nere ustez, ibai batetik besterako diferentziok ez ziren hain handiak izango. Era berean, Urola bailadakoentzat Beduakoak eta Debarrukoentzat Sasiola-koak. Zergatik ez? Gure garai hontan Mediterraneoetik ekarrita hemen maniatzen direnek ere oso onak bai dira.

Liburuak, tarteka-marteka gertaera eta hizkirimiri politik ere jasotzen du. Hara hemen bat, adibidez:

—Egia al da lengoan erbi koxkor bat bota uala?

—Bai.

—Ta jan al zenduen?

—Bai.

—Ta zenbat lagun ziñaten jaten?

—Bi: erbia ta ni.

Baina, hara hemen postretarako ongi zetorren gertari bat. Mahai

ondoko elkarrizketa hoietako batean, euskal filologiak ere nornahi ari-tzen denez, *f* letra euskalduna etzela eta bazela. Sabela ondo beterik eta gogoia umoretsu. Neskameak postreak eskaintzean, bere ustez eus-kaldunik jatorrena zenak:

—Nik, «plana» nahi dut.

Eta, neskameak, belarrondokoa emanaz: «Lotsagabiori!».

### «Jan-edanak», literatura gastronómica

A. Zavala, hombre paciente y laborioso, ha reunido en un libro toda la obra literario-gastronómica del fallecido amigo Antonio Arrue bajo el título «Jan-edanak» que el autor usara en su sección sobre el tema en la revista literario «Egan» y ha sido publicada por la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.

La obra, que está dividida en dos partes, reúne en su primera los artículos en euskera que vieron la luz en «Egan» desde 1954 hasta 1975, y en la segunda parte varias conferencias y recetas culinarias; una en vascuence y las demás en castellano, y que la mayoría vieron la luz en el Boletín de la Cofradía Vasca de Gastronomía.

Aparte de algunos folletos, que yo sepa, es el cuarto libro que se escribe sobre gastronomía en vascuence. Este, a sus valores culinarios, ha sabido unir el literario como ningún otro. Además, aporta muchísima información de lo que en el país, y fuera de él, se ha escrito en esta materia. En mi comentario añado la cita de un «Manual del arte de cocina» publicado, sin autor, en Eibar a primeros del presente siglo. Ejemplar que localicé en el Valle del Roncal hace unos años y que otra edición del mismo, fechada en 1913, obra en poder del amigo José M.<sup>a</sup> Busca Isusi. También añado, como nota curiosa, el menú que los armeros eibarreses le prepararon a Jovellanos a su paso por Ei-bar en 1791. Aquella comida tuvo lugar en casa del renombrado ar-mero Juan Esteban Bustinduy, y participaron en ella representantes de los gremios de la armería: Andrés Mendizábal, Juan Andrés Gaviola, el más célebre *llavero*; Vicente Aldecoa, *cañonero*, y Juan Garagalza, mer-cader de la bajada de Santa Cruz y comerciante de estos géneros en Madrid. El curioso en estos temas, hallará, en el texto en vascuence, intercalada la minuta tal como figura en los *Diarios* del ilustre esta-dista asturiano.

La obra está salpicada de chascarrillos que, unidos al buen estilo del autor, hacen una literatura amena.



Aparte del índice general, le hubiera venido bien otro del temario, ya que la obra aporta una valiosa y copiosa información en recetas y especies, que ayudarían a una mayor utilidad para consultar fórmulas de preparación culinaria.

1979-XI-12.

## ARABA ZABALDUA

Araba zabaldua. Gaur aurrera jarraitzen dugu, historia eginez, zuhaitz bera, etxe bera, gizon bera ditugula euskarrí, eta lur maite emankor hau esku berriez landuz. Hemen, urruti, neure Euskal Herriaren iragana hausnartzen dut. Zein gatazka eta ahalegin, bei irrika eta eten beharra. Ezaugarri bereziak dituen populua gara gu, zuhurtziaz irabazitako lege eta eskubideekin.

Iragan itzaltsuaren oinordekoak gara. Etorkizun handia sortzeko behartuak gaude, Gizakiak beharrezko du ere amets egitea —errealitatea hor dago— eta horregatik poetak bere oroitzapenak kantatzen dizkigu...

Hemen, Lautadan, badira herri ederrak, kanpo aldera begira daudenak, zeinean elizak orotara barreiatzen bait du bere abotsaren soinua.

Horrelako edertasunak egiten jakinik, nola izan gaitezke honen ankerrak?!

Badira bere hitzaz eta musikaz populuen izpiritua altxatzen dutenak. Baina Historiak gehienetan borroka, zapalkuntza eta zigorrez hitz egiten digu... horregatik gabiltza aterbe bila geure «bizikidetasun habietan». Etxea zerbait sakratu ukiezina izan beharko litzateke, maitasun eta bizi-gogoaren iturria. Kaleak hutsik geldituko lirateke abots eta ideirik gabe... etxeek lur joko lukete eta soroek beren ondasuna galduko, gogoia balihoakigu.

Honela ikusten du, poetak gisa, *Araba zabaldua*, fotografo bihotz samur begi zoilaren ikuspegiak han-hemenka egin dituen argazkieri adierazpenak egitean. Nork esan zuen? Walt Whitman-ek?: «Hau ezta liburu bat. Ikutzen duenak, gizona ikutzen du». Baina, *Araba zabaldua* deritzan liburua ikutzen duenak herri bat ere ikutzen du. Oraindik bizirik dauden historia agiriak jasotzen ditu, argazki bidez. Hauek, beren testuz, Alberto Schommer-i zor zaizkio eta itzulpena Endrique Knörr-i.

Arte zaleak ez daki bertan zer gehiago goraiatu, jasotzen diren

motiboak ala fotografien edertasuna. Dena dela, holako argazkiak hitz guti eskatzen zuten eta hauek ere neurritz eta taxuz daude begiratu behar duenaren lagungarri, poesia zentzuzko esaldiz hornituta; guziak euskaraz eta gaztelera. Hitzaurre labur bat ere badu. Hau ere elebitara egina.

Hitzaurrean, labur ematen ditu Arabako geografia, historia eta beste zenbait berri, euskararen galerazkoa tarte dela. Arabarentzat hain garrantzitsua eta berriki hain eztabaidatua den Trebiñoren auziaz ere argitasun ona ematen du.

Gaztelako erregeak 1200. urtean Gasteiz hartzean bereganatu zuen Trebiño ere, ondorean errege Enrique II.ak Pedro de Manrique-ri emateko. Hortik sortu zen kondepeko, eta geroztik, eginalak egin, ezta izan lehengo jabetasunera bihurtzerik. Auzi honi buruzko iturriak hitzaurrearen bibliografia oharretan ematen ditu. Landazuriren *Trebiño ilustrado* delakoan oinarriturik. Eusko Ikaskuntzak argitaratu zuen lantxo hau oraindik salgai aurkitzen da eta, hala ere, gure kazetariak, auzi honi buruzko historia ikutzean ez dakite nondik dabilzan.

Baina, auzi honetan politena zera da, Nafarroa ezin da Euskal Herrira bat egin nafarrik gehienek nahi ez dutelako. Eta hau defenditzen duten beraiek, Trebiñoko maioriak nahi duena ez dute onartzen. Zauri honek noiz arte iraunen du?

Beti sortzen da gauza mingarriren bat ames atseginak etetzeko. Arabak bere sabelean itsatsirik daroa arantza mingarria.

Fotografoak, ordea, begien atsedenerako erabili du bere kamara, historiaren lekukotasunak biltzeaz gainera, gauzak berean baliatuko ditu, tokietan klik! disparatuz: Argazki hau bagoaren gorazarrea izan dadila... Klik! Beste hau, kutsatu gabeko errekeri, karramarroari, ezkailuari, loinari... Klik! Arabako lusagarrari gorazarrea...

Orrialderik orrialde poema iraunkor baten zurrumurrua nabari da. Baina zantzo alairik ere bai. Zeren, begi-belarri eraberrituez bizi du folklorea. Zein laster doan denbora... eta belaunaldiak! Tradizioak eta hoberenen legeek badiraute, eta kultura eta ohiturak taxutzen. Hiriak haien isladatzea dira, hein batez. Haietan bizikide dira, gizaldiak eta beren abots bateratua dute entzunarazten; beste batzuk isilean egiten dute lan... lurra irauliz eta urrezko irudiak ez bait ziren ageri, lanean ikasi zuten... ipuin zahar-zaharrak laku bare galduaren hondoan ahaztu ziren...


Azken batean, Schommer eta Knörr-en eskutik eta Kutxa Probintzialaren babespean probintzia beraren omenaldiz, H. Fournier inprimategiak argitaratua dator *Araba zabaldua*.

## Alava abierta

*Alava abierta* es una obra que no se puede comprender sin ver y leer. Un hermoso álbum de 254 páginas a base del paisaje y paisanaje, con artísticas fotografías en color de Alberto Schommer, con una breve introducción y líneas descriptivas a pie de foto traducidas por Enrique Knörr.

Una delicada compenetración de ilustraciones y textos hacen de *Alava abierta* un libro encantador.

Elogian la tierra con amor, de la que dirán: Hoy seguimos adelante haciendo la historia apoyándonos en el mismo árbol, en la misma casa, en el mismo hombre y trabajando esta tierra querida y fértil con manos nuevas. Somos un pueblo con especiales características, con leyes y privilegios ganados por la inteligencia. Somos herederos de un importante pasado. Estamos obligados a crear un gran futuro. El hombre necesita soñar —la realidad está ahí— y por ello el poeta nos canta sus recuerdos... Así continúa el justo y preciso texto a lo largo de unas maravillosas páginas ilustradas por un gran artista de la fotografía. A través de este libro se palpan las inquietudes de un país.



*La torre de Mendoza (Alava).*

En un breve prólogo se describe la provincia de Alava, su nombre, su marco geográfico, sus llanos y montes, sus poblaciones milenarias, su antigua lengua, etc. El caso de Treviño, tan debatido en nuestros días, ha merecido su debido tratamiento en lo histórico dentro de un marco geográfico, recurriendo para dicha cuestión a la documentación fundamental, *Treviño ilustrado* de los manuscritos de J. J. de Landázuri, publicados por la Sociedad de Estudios Vascos con prólogo de J. Allende-Salazar.

Vaya nuestro reconocimiento y felicitación para los autores A. Schommer y E. Knörr, así como a la Caja Provincial de Ahorros de Alava que ha costeado la admirable edición llevada a cabo por la empresa Heraclio Fournier, S. A. *Alava abierta* es un cálido homenaje a la provincia y sus habitantes.

Han sabido reflejar muy bien el hombre, y la tierra por él trabajada: «...al revolver la tierra y no aparecer estatuas de oro, aprendieron a trabajar... fueron olvidadas las viejísimas leyendas en el fondo de un plácido y perdido lago...». Así rezan sucesivamente los poéticos pies de fotos, donde se proclama que «Un hogar debiera ser algo sagrado e inviolable, de donde surge el amor, la ilusión de vivir. Las calles quedarían vacías sin la voz y las ideas..., los edificios se arruinarían y los campos perderían su riqueza, si la ilusión nos abandona».

1980-II-18.

## **NAHI ETA BEHARREZKO EUSKAL ZINEMA. ZESTOAKO TOPAKETEN INGURUAN**

Zestoako IV. Euskal Zinema Topaketan aurkeztu diren filmak ikusteko aukera izan dugu eta urtez urte hobetuz datorren ekintza iduritu zaigu.

Ohi denez, filma laburrak soilki eta euskaraz izatea da bertan aurkezten direnei eskatzen zaien baldintza bakarra.

Guziak ez daude konforme euskarazkoak bakarrik onartzeaz, baina eratzailleek nahi dituzten mugak jartzeko eskubide oso izateaz gainera, erdarazkoak ez dute promozionatu beharrik egunoro edozein zinemaretotan ikus ditzakegunez, eta euskarazkoak oraindik bideak urratu beharrean daude. Zine kontuan ezer guti egin bai da euskarazkorik.

Bost edo sei urte izango dira Lankide Aurrezkikoak beren koopera-

tiba entresiaz filmatu zutela euskaraz. Aurkezpenetan esaten zenez, lehenbiziko zinea euskara hutsean. Baina lehenagokorik bazen.

Nik neuk euskaraz ezagutu dudan lehenengokoa, duela hamabosten bat urte izango zen. Gotzon Elortzak Euskal Herriko eta erbesteko gaiez aurkeztu zituen filma laburrezko dokumental horietakoak ziren, kolorez eta 16 milimetroko neurritz eginak. Publiko aurrean erakusteko eskubiderik etzuen, zenbait elkartetan pribatuan agertu zituen.

Ez dakit bizi den, eta bizi bada nondik nora ibiliko den Gotzon Elortza. Jatorriz Otxandio aldekoa zen eta egun batez etxean bizitatu ninduen. Baina, bizi, Paris-en bizi zen, Passy-n. Han egiten zuen lana eta bertako Club S. C. A. elkartekide zen. Ez dakit zer neurritaraino egongo zen profesionalismoan sartuta, baina, bere hotsa izan zuen «Avignon» zeritzan dokumental bat aurkeztu zuenean.

Oroitzen naiz Idoetak «Pelotari» eta «Alquezar» aurkeztean, hoi elementu plastikoak aintzat harturik zioena, G. Elortzaren zinea euskaraz egonarren, beste hauek euskaldunagoak zirela beren plastiko baliok jatorragoak zirenez. Baina, bi mintzaira desberdin dira arte-plastikoren adierazpena eta gizonen ahotikako hizkuntzaren adierazpena. Euskararik ez dakitenei bakarrik bururutzen zaizkete holakoak, euskararen aurrean beren buruak guti-etsi ezinez. Ongi egiten dute zestoarrek baldintzok mugatzeaz.

Dena dela, inoiz euskarazko zinearen historiari egin behar balitz, G. Elortza baino lehenagokorik ez dakit izango den, baina Elortzari bere tokia zor zaio. 1967an Caracas-en argitaratu zen *Eman* (Cuadernos vasco-americanos) zeritzanak bost zenbaki besterik ez zituen izan eta bigarrenaren 13-14 orrialdeetan agertu ziren Elortza-ren lanen berriak.

Euskarazko zinea lortuko bada, holako ekintzetatik beharko du. Bertako telebista sortzen denerako ere behar beharrezko materiala eskainiko liguke. Guzti honegatik eskergarria deritzagu Xabier Unanue, Xabier Azkargorta, Ana Mari Bergara, Xabier Ibarria eta gainerako lagun taldea egiten ari den lanari.

Aurtengo aurkezpenetara hogeirenetan filma agertu dira. Era askotako gaien artean, on eta txar, bada bertan zer hautaturik.

Azpeitiarrek beren nortasuna agertu dute aurten ere. Igaz «Satsudura» agertu zutenek izan behar dira, udaberri-udazkenez, *Aequinoctium* edo antzerako izenburuzko filma aurkeztu dutenak. Fotografiaz eta musikaz oso ongi egina. Behar bada hitz batzuk falta ditu, eta poesiaren bat ongi letorke.

Pirineoetan hainbeste ibili ondorean inoiz artziki ikusi ez dugunontzat harrigarria da «Euskalerriko azken artza» deritzana. Nekeza iduritzen zaigu holako filma burutzea. Baina, azken partean neurritz pasatzen

da bertako oihanak erakutsi nahirik. Artzaren pasarteetatik kanporakoa laburtu beharrezko du. Honela, asko irabaziko luke.

Natur gaietan ederrena, «Marisorgin» (Mantis). Bertako sekuentziak ez dira nolanhikoak. «Erlauntza» ere oso ona omen zen; baina ni ez nintzen heldu hau ikustera.

Etnografia gaiez ongi zegoen «Txisteragintza». Egilea esku-lanak filmatzeko ongi gertatua iduritzen zaigu.

Saiaerazkorik ere ez zen falta. Magia edo sorginkeria du oinarri «Irudi zuria» zeritzanak. Irudi horiek, zapi zuriak zuhaitz adarretan korapillatuz, lehenago Daniel Txopiteak pinturara eramanak zituen.

Sergi Eisenstein-i omenaldia eskainiz, bere bizitza ta lanezko filma bat ere bazen. Ez zen beste mundukoa, ezta gutiagorik ere, baina mai-tagarria egiten zen zine giroaren barnean.

Beste askoren artean, komika labur bat ere bazen, laburtzua au-keran. Lehen saioa nonbait. «Akerrakadarrak...» edo holako zerbait zuela uste dut bere tituluz. Oso ona iduritu zitzaidan, baina hitzak eta doinua falta zituen.

Hoiek ziren ikusi nituenen artean bereizgarrienak. Gainerakoak argizko edo muntaiazko hutsak zituzten.

Martxa honetan lan ederra egiten ari zaizkigu zestoarrak. Gure amesetako euskal telebistak beharrezkoak izango ditu lan hoiek. Zestoako antolatzaileek horrenbeste badakite. Iharrai zuen bideari.

### **El deseado y necesario cine vasco. En torno a los encuentros de Cestona**

En la cuarta edición de los encuentros de cine en Cestona, observamos un notable avance técnico y conceptual respecto a los de años precedentes.

Estos encuentros, por expresa voluntad de los organizadores, se convocan para cortometrajes en euskara, con el buen fin de promocionar el séptimo arte en nuestra lengua.

En este sentido recordamos los trabajos realizados por Angel Elorza en la década del sesenta. Este señor, vizcaíno, residente en París y miembro del Club S. C. A., llevó a cabo varios reportajes en banda sonora de 16 mm., en color, con música vasca como fondo, y explicados en vascuence. La publicación *Eman* de Caracas (en su segundo cuaderno de 1967, páginas 13-14) le dedicó un efusivo artículo por su labor pionera en el idioma eúskaro. Lástima que, por las dificultades que en-

trañaba dicha empresa en aquella época, no tuviera mayor difusión en nuestras latitudes. No obstante, la labor de A. Elorza es digna de tener en cuenta para la historia del cine vasco producido en euskara.

La mayoría de las obras presentadas al IV Encuentro de Cine Vasco de Cestona, son reportajes y destacan los trabajos de los azpeitianos en número de participación.

Entre la veintena de filmes que han respondido a la convocatoria, ha habido grandes diferencias de calidad.

El equipo que el pasado año presentó un reportaje sobre la contaminación, en el presente lo ha hecho con «Equinocio». Artísticamente muy bien presentado, pero quizás faltándole una voz que recitara poesía complementaria.

La calidad más extraordinaria ha sido, tal vez, el reportaje sobre la mantis religiosa. Parece estar doblada al vascuence, y el montaje de la voz no está debidamente sincronizado a la cinta... Otro sobre la colmena (que no llegó a verlo) recibió los elogios de los comentaristas.

Otros que merecen ser mencionados, son el filme sobre la fabricación de *Txisteras* para el juego de pelota a cesta-punta. Muy emotiva la biografía sobre Sergi Eisenstein. El comic «Akerrakadarrak...» puede constituir un serio intento hacia cotas más altas, pero habría que ver de acoplar música y voz a esta cinta. Por otra parte, las imágenes blancas presentadas por Espocio y Gutiérrez son ensayos mágicos que en su día D. Txopitea llevó a la pintura, pero que en esta ocasión se presentan faltos de descripción literaria.

En otras obras observamos defectos de expresividad mímica, y esto será muy difícil de lograr si no se desarrolla un sólido movimiento en el teatro.

Los encuentros, en su conjunto, han sido un gran éxito.

1980-IV-21.

## MUNDUAREN GAILURREAN

1953ko maitzaren 29an, goizeko hamaiketan, bi gizon heldu ziren, lehen aldiz, Everest tontorra. Himalaya-ko mendietan, bere 8.848 metrokin munduko gailurrik altuena. Eta, hil honen 14an, arratsaldeko hiruterdietan euskaldun batek zapaldu du munduaren gailur hori.

Hogetazazpi urteko bitarte hortan zenbait espediziotako mendiza-

leek benderatu zuten gailurra, baina beste askok ezin izan zuten. Orain euskaldun mendizale taldeak egin duenak erakusten digu kirol honen heldutasuna Euskal Herrian. Lorpen ausart honegatik bijoaz gure zorionik kartsuenak taldea osatu duten J. I. Lorente, A. Rosen, L. M. Saez de Olazagutia, F. Uriarte, R. Gallardo, E. Hernando, X. Erro, J. R. Arrue, E. de Pablo, J. Urbietta, X. Garayoa eta gailurra hartzera heldu zen M. Zabaletarentzat. Zuek burutu bai duzute gure artean aintzinatik genkarren gogoia.

Munduko gailurrik gorenaren izen jatorra Xomoluñma da. Munduaren Ama Jainkoa esan nahi omen du. Baina ingelesek lehen neurketak egin zituztenean, orduko geografoen koronelaren deitura jarri zioten izentzat: Everest (sir George Everest-ena). Izen jator polit hura galtzea penagarria bada ere, geroztik mundurik gehienean Everest bezala ezagutzen da.

Gizonak berez sortzetikan dakarren munduaren bazter guziak konkistatu nahian, 1909 eta 1911. urteetan Ifar eta Hego Poloak oinperatu zituenetik, mendirik altuenen gailurretara begira ipini zituen begiak. Ordurako Mont Blanc igoa zen, baina beste anitz zeuden gizonak oinperatu gaberik. Everest-erako gogoak Europako lehen gerrate garaian sortu ziren, eta lehen espedizioa 1921ekoa izan zen, ingelesak antolatua, H. Bury buruzagi zela eta Mallory izan zen orduko eskalatzailerik ospetsuena eta lehen ekinaldi hartan aurrenengo ibili zena. Mendiaren ifarraldetik egin zituzten beren ahaleginak, eta ez ziren izan alperrikakoak. Ondorengo espedizioetarako asko ikasi zuten, bai mendia bera hobeto ezagutzen eta baita ere ekipoa hobetzen. Ondoko bi urteetan, 1922 eta 1924an, G. Bruce buruzagi zela egin zituzten berriz ere igotzeko intentoak. Hirugarrenean hil ziren Mallory eta Irvine.

1935ean, berriz hasi ziren ingelesak Everest mendiaren tontorrera igo nahirik. 1936an eta 1938an ere jarraitu zuten. Bide berriak ere intentatu zituzten, baina alperrik. Eragozpenak handiak ziren.

Himalayan, garai hartan, hotza izan zuten beti etsairik handiena. Ez bakarra, noski. Haizea bera ez zen izan askoz hobeagoa, eta altura handiak berakin dituen beste gaitz asko. Esan beharra dago lehen espedizioetatik erabili zutela oxigenoa. Baina orduko bonbonak astunak ziren. Eta, gorputzak, altura haietan holako laguntzak beharrezko ditu, zeren desgastean sartzen delarik ez baitu inolazko errekuperatzerik. Gerrate ondoreneko naylon eta aluminio gogorragoetz jabetzea abantaila handia izan zen. Beraz, tekniken aurrerapen horrek jarriko zien ekipa egokiagoak gertatzeko aukera: soineko akoltxatuak, aluminiozko tresneria, naylonezko sokak eta kanpaina dendak, eta abar.

1950 eta 1951an, berriz ere han ziren, lehenengo Tilman glaziarrak



hobeto ezagutzen eta gero igo nahirik. Orduan deskubritu zuen Eric Shipton-ek Hego aldeko lepoa. Urte bete geroago, 1952an, zuizarrak intentatu zuten. Lambert gailurretik hurbil egon zen baina ez zuen igo.

Lehenengo esperientziak ezaguturik eta teknika berrien aukera aprobetxaturik, 1953.urtean ingelesak eratu zuten espedizio handi bat. Eze-  
goen amor ematerik. J. Hunt izan zen buruzagi eta aspaldiko egarria ase zuten Hillary eta Tensing-ek gailurra hartzeaz.

Literatura ugaria du Everest mendiak eta historiari-  
k ederrenetako bat idatzi zuen zenbait espediziotan partaide izan den W. H. Murray-k. Mendizaletasunez euskaraz idatzia den lehen liburua A. Narbaizaren *Goi mendietan zehar* deritzana da eta laburki baina zehatz agertzen ditu, beste mendi batzuez aparte, Everest-go berriak 9 eta 10. kapitulu-  
etan, eta 11.ean, 1974 Tximist izenez euskaldunek eratu zutena adie-  
raziz.

Geroztik askok igo dute, baina beste asko gelditu dira ezinez. Eus-  
kal Herriko lehen espedizioa bera, 1974.urtean, gailurretik urbil egon  
zen baina igo gabe itxuli beharrean gelditu ziren. Orain, munduaren  
gailurra oinpean hartzeaz, Euskal Herriko mendizaleen historian eza-  
gutzen den arrakastarik handiena lortu da. Zorionak guziori!

### **En la cumbre de la Tierra**

El día 14 del presente mes, al alcanzar el hernaniarra Martín Zabaleta la cumbre del Everest, el montañismo vasco ha logrado el mayor éxito de su historia. Ha sido extraordinaria la proeza del equipo de 12 personas bajo la dirección del vitoriano J. I. Lorente.

Hollar el Everest, con sus 8.848 mts. sobre el nivel del mar, desde aquella expedición inglesa de 1921, ha sido la máxima aspiración de todo escalador del deporte de la montaña. Todos los aficionados hemos seguido con interés las noticias de los sucesivos intentos, aún de las posteriores expediciones a aquella de 1953 que por primera vez coronara la cima.

Los mayores impedimentos de su ascensión, han sido el intenso frío y los fuertes vientos, además de la altitud que, con su falta de oxígeno, hace que una vez de alcanzados los 8.000 metros, el organismo humano entre en un progresivo desgaste físico.

Los primeros intentos y exploraciones y los avances técnicos en el material facilitaron el triunfo de su conquista. Pero en este punto hemos de recordar que anteriormente no existía la fibra de nylon que

ha permitido que la vestimenta y las cuerdas no se helaran; el progreso del aluminio y la mejoría del material férrico han sido una gran ayuda a la hora del transporte. Están, además, los avances técnicos de la escalada en hielo para superar los «sérac» de la parte baja del glaciar.

Desde 1953 se han efectuado diversas ascensiones, pero otras muchas expediciones no lograron el objetivo. Muchas veces el éxito es cuestión de suerte atmosférica en los días en que la expedición ha alcanzado las grandes alturas. La primera expedición vasca de 1974 superó todas las dificultades y estuvo a punto de llegar a la cima, pero los fuertes vientos y las bajas temperaturas impidieron el éxito y se ha tenido que esperar seis años para emprender el segundo intento, que ha sido decisivo. Un gran triunfo para el montañismo vasco.

1980-V-19.

## ISRAELGO ADIBIDEA

Euskaltzaindiko Oinarrizko Euskararen batzordeak eraturik 50 lagunek kultur ibilaldia egin genuen Israelera. Taldeko gehienak irakasleak ziren eta hauekin batera zenbait Euskaltzaindiko. Hebraiera eta kultur irakaskuntzaren berriak ezagutu eta jasotzea izan zen talde honen egitekoa.

Badugu zer ikasirik.

Herri bakoitzak bere filosofia du, historian zehar bizitzaren esperientziak emana, eta hor ikusi dugu herri bat bere erroetatik eraikitzen. Israeldarrentzat testu zaharrak, erlijio zaharra, historia..., dira oinarri herria girotzeko eta eraikitzeko. Masada-ko biztanleak aintzina ikasi zuten gizonak libre ez izatekotan, hiltzea hobe zuela. Beren txikitasunaren irakaskuntza Dabid-ek Goliat benitzean aurkitu genezake. Baina, beharrezkoena, herri bezala, alderdikerien gainetik guziak bat egitea. Batasunean dagoen indarraren bila jo zuten munduan zehar sakabanuturik zebiltzan juduak Israel-era. Ezta izan bat batean hartutako kontzientzia, baizik joan zen mendetik zetorren gogo hori indartuz eta munduko azken gerratean Hitler-en menpeko naziak egin zituzten hilketen ondorean bizkortu zen lurralde horretan errotzea.

Guk gure egoeratik badugu zer ikasirik israeldarregandik eta asmo horrek eroan ginduzen hara. Lehen lehen, galdurik zen hebraiera nola berpiztu den jakin, Ulpan deritzaten eskolak hortarako izan duten

eragina estudiantuz. Baina, laster oharu ginen hizkuntza soilaren arrazoiak heurak bakarrik ez zirela aski, honek bere ondoan edo inguruan duen kultura zaharra ezagutu, bertan oinarritu eta aurrera begira beren erroetatik herri berri bat eraiki. Gure egoerarentzat erakusbide ederra.

Anitz urte dira gure don Nemesio Etxanizek Ben Yuda-ri buruz zenbait itzaldi eman zizkigula, hilik zegoen hizkuntza berpiztu zuena. Baina, guk han ikusi dugunez, Arabiako hegoaldean ba omen ziren oraindik ere hebraiera mintzatzen zirenak eta hauen etortzea lagungarri izan omen zen hizkuntzaren berbizkunderako. Dena dela, israeldarrek hizkuntzan oinarritzen dute beren herritasuna. Abertzale izatea ezta aski, beren hizkuntza gabe. Ikaspide ederra guretzat.

Handik itzultzean, hiru lagunuen artean idazki bat gertatu genuen eta bidaikideak ontzat hartu zuten hura argitara ematea, juduen adibidea iharraituz, euskara hutsean eginaz. Beraz, idazki hori ildo ildo emanen dut, baina orrialde honetan ohi dudanez, erdarazko itzulpena ere emango dut, nere hau argitaratu orduko euskarazkoaren zabalkunde egin izanen delako.

Han, ia egunoro izan genituen hitzaldiak, irakasle, akademilari eta kultur ministeritzako ordezkari hornituak. Hauek aurkeztu zizkiguten hizkuntza salbatzeko erabili zituzten helburuak.

Zenbait Kibutz ere bisitatu genituen. Elkar-lanean egiten duten nekazaritzaz aparte industria berezia eta bertako eskolen berriak jaso genituen.

Biblian aipatzen diren zenbait herri zahar eta hauek Israelengan duten balio berezia erakutsi ziguten. Herri baten erroak, bere historia eta erlijio emaitzak lotzen bai du judu komunitatearen gogoan.

Baina, bereziki, esan bezala, Israel herriak hizkuntza du bere kultur oinarri. Askoren ustez hila zegoen hizkuntza izan baita herri honek egin duen mirakulurik handiena; berentzat ordea, plangintza baten barnean anitz urtetan, ekin eta iharraiz lortu dena da. Gaur egun, hebraiera da beren hizkuntza nagusia bizitzako arlo guztietarako, lehen mailako eskolatik Unibertsitatearaino; era berean komunikabideetarako. Oroi, duela bi urte, biztanle proportzioz, liburu argitalpenetan, munduan bigarren jarri zirela. Horrez gainera, antzerki taldeak eta zinegileak bere geografia guztian hedatuak aurkitzen dira.

Israelek zazpi Unibertsitate ditu, guztietan hebraieraz irakasten dela. 1912. urtean Haifako Unibertsitate barruan, hezkuntza hebraieraz egitearen alde, lehen aldiz ezagutu zen ikasleen greba. Hala ere, zenbait teknika eta zientzia gaietan inglesa ere erabiltzen da.

Ibilaldi taldeak Israeldarren Elkargo horiekin harremanetan jarraitzeko asmoa du. Honenbestez, hasteko bederen, bi beka jartzen dira

euskaldun irakasleak hango esperientziak ezagutzeko ikastaro bat egin dezaten.

Bidaia honetan partaide izan direnen eritziz, hebraieraren esperientzia euskal hizkuntza eta kultura salbatzeko adierazpen egokia da.

### El ejemplo de Israel

Bajo la organización de la comisión para el desarrollo de la enseñanza del euskara básico, que funciona dentro de las organizaciones de la sección de tutela de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia, una embajada cultural de 50 vascos, en su mayoría profesores y algunos académicos, han realizado una gira a Israel con el fin de recoger información sobre las diversas organizaciones de enseñanza y metodologías didácticas que el pueblo judío ha utilizado para la recuperación de su lengua. Reviste particular importancia la visita a los Ulpan, centros de enseñanza de la lengua a los adultos. Se ha recogido información teórico-práctica, con participación activa de los expedicionarios.

Diariamente hubo conferencias a cargo de enseñantes, académicos y un miembro del Ministerio de Cultura; quienes han informado del proceso educativo y principalmente de la recuperación de la lengua.

Asimismo se han realizado visitas a varios Kibutz, centros agrícolas de explotación comunitaria, que además desarrollan hoy día pequeña industria cualificada. Los mismos Kibutz organizan en locales propios la enseñanza primaria con experiencias pedagógicas interesantes.

Se han visitado lugares bíblicos y arqueológicos constantando la importancia que los mismos ejercen en la tradición israelita. Llama poderosamente la atención la influencia decisiva que ejerce el conocimiento histórico y el legado religioso en la función aglutinante de la comunidad hebrea.

Para Israel la lengua es la piedra angular que une a un pueblo. Lo que para muchos se considera un milagro, la recuperación de una lengua prácticamente muerta, para ellos constituye el resultado de una entrega perseverante y tenaz de varias décadas, debidamente planificadas de manera ejemplar. Como hemos podido constatar, hoy en día es la lengua común del Estado israelí en todas las manifestaciones de la vida, desde la escuela primaria a la Universidad y en los diversos medios de comunicación. Un dato significativo es que dos años fue la segunda nación del mundo que en proporción a sus habitantes tuvo la mayor

producción de libros, toda ella en lengua hebrea. Llama la atención el desarrollo alcanzado por los grupos de teatro y cine en toda la geografía.

Israel tiene siete Universidades que imparten la enseñanza en su lengua. Ya en 1912 los estudiantes de la Universidad técnica de Haifa promovieron la primera huelga estudiantil reivindicando la enseñanza del hebreo en la Universidad. Para algunas especialidades técnicas y científicas también se utiliza el inglés.

Una representación del grupo visitó las instalaciones de Radio y Televisión hebrea.

Es deseo de los expedicionarios mantener contacto permanente con los organismos culturales israelitas. A este propósito se cuenta ya con dos becas para dos profesores que deseen profundizar esta experiencia.

La impresión general de los visitantes vascos es que la experiencia de los judíos puede ser un ejemplo a imitar para consolidar la lengua y cultura vasca.

1980-VII-14.

VIII

UMOREZ  
De Humor

## PERNANDOREN UMOREAK ZUEN NORTASUNA

Gure haurtzaroan, galdetzen zigutenean: «Pernando Amezketarra, nor zen?». Erantzuna azkar ematen genuen: «Hilargia pixatu zuena». Zein eta, galdetzean: «Elkano, nor zen?»: «Munduaren jiran lehen aldiz bueltia eman zuena», erantzuten genun gisan.

Pernandok hilargia pixatu ordea? Nola zitekean? Ba, bai. Hilargia pixatu. Beno, pixatu, ez gero pixa eginez. Hori beste gauza bat litzake. Edanez Oria ibaia agortu izan balu ere ezin zitekean horrenbestekorik egin. Bestela, hilargian ezin zitekeana, horrelako legortea izatea. Espunikak ere txalupekin joan beharko ziren bestela. Hemen esan nahi dedana, beste gauza bat da, bere astuntasuna pixatzea. Eta hori ere ezta gutxi.



Behin, Amezketako sagardutegi batean, ba omen ziren gizon batzuk eztabaidaka, oraingo euskaltzaleak bezala, baina haiek astronomiari buruz. Moda omen zen da. Eta, haiek, matematikekin bilutsik ibiliarren, ba omen zituzten beren erako lojikak, gai horri buruz. Orraitiok, nonbait, sakontxo sartu zirelarik, ezin omen zuten erabaki hilargiaren astuntasuna. Hortan, Pernando agertu omen zen, eta orduantxe lasaitu gure gizonok:

—Hi, Pernando; hik aterik haina maratilla dituk eta ia auzi hau erabakitzen dukan: hilargiak zenbat pixatzen duen jakin nahi diagu.

—Hilargiak? Hori gauza erraza duk: libra bat.

—Bakarrik?

—Ez, eguzkiarekin gehiago. Hara —esanaz—, beatza sagardotan bustiaz, irrada biribil bat egin zuen mahainean, eta ondoren, gurutza bat erditik lau zatitan partituaz.

—...? Ta...

—Lau laurden, libria.

Hori zen hilargiaren pixua. Gaurko astronomoak ere oraindik pikutan dabilta.

☆ ☆ ☆

Ezta harritzekoa. Lurretik hilargirainoko denbora neurria ere ba omen zekin eta.

Behin, apaiz gazte zirikatzaile batek galdetu zionean:

—Pernando, ba ahaldakizu hemendik hilargira joaten zenbat denbora beharko litzakean?

—Hemendik hilargira ez. Baina, hilargitik honera, zerbait esango nuke nik.

—Bai?

—Bai.

—Esan ba.

—Hilargian jarriko balitz apaiz gazte bat eguerdiko hamabiak laurden gutxiagotan, hamabietarako erretorearen etxeko mahaian litzake, bazkaitarako prest.

☆ ☆ ☆

Horrelakoa omen zen Pernandoren umorea. Mutikotan, bere ipui, gertaera eta ateraldiak barra-barra erabiltzen genituen. Eta orduan esaten zen, gure artean, Pernando Amezketarra Plaentziakoa zela. Izan ere, hain parregarria ta hain zirikatzaile trebea, gure buruarentzan ezin zitekan izan beste inongoa, Plaentziakoa izan ezik.

Eta, Pernando, *euli-herrikoa* (Amezqueta) bazen ere, eztena luze erabili zuen bere denboran. Hain luze eze, gure arteraino heldu dira bere eztenkadak. Baina, bada Sagar-errekako uraren lorratzen bat. Egin-go bagenu belaunaldiak gora azterketa bat, laster agiriko litzaiguke bere zainetan Soraluezko odola. Eta horrek ez ninduke harrituko. Arbasoei begira, gurasoen gurasoetan plaentziarrik ez aurkitzeak harrituko ninduke. Dena dela, *euli-herrikoak*, eztena luze.

☆ ☆ ☆

Bertsokak biribillatzen ere ez omen zen mutil txarra.

Gure herriko adiskide batek esan zidan bezala, Pernando Amezketarrak adierazten digula, bera bizi zenetik berrehun urtera, elektrika baino lehenago ere bazirela argiak. Eta, ez dakit zer arraiogatik da-



biltzan orain nuklear indarra sartu nahirik. Kapitalistak argiaren jabetasun osoa nahi dutelako izango da.

✧ ✧ ✧

Ikusi besterik ez dugu bere umore fiñaren oihartzuna noraino heldu den. Eta, bere liburua (Gregorio Mujikak idatzia) izango da, noski, euskaraz gehien irakurri denetako bat. Eztakit nork esan zuen, umorea osasuna dela. Eta, hori horrela balitz, nik ez dakit Fernando Amezketarraren liburuak zelan ez diren jartzen farmazietan salgai.

✧ ✧ ✧

Baina, mundua horrela da. Beti okerreko bidetik. Horrenbeste osasungarri zabaltzera etorri zen ura, pobre ez-ezik, zorpean bizi behar. Bai tokatu ere hari, Bengoetxea izan beharra bizitza baserria, beti Bengoetxea jaso ezinik ibili zedin.

✧ ✧ ✧

Harek etzuen orain esan ohi den bezala «Irri-par egizu, arren», esan beharrik. Autorik etzen orduan, baina seguru nago bere astoari horrelakorik etziona jarriko. Etzuen inori mezedez eskatu baharrik, parrere eragiteko. Eta oraindik, gure zorionerako, elektrika garaian ere argi egiten jarraituko du amezketarrak.

### **Personalidad humorística de Fernando el de Amézqueta**

«Fernando Amezketarra» era durante nuestra niñez el humor personificado y difícilmente se nos hacía creer que él no fuera de Placencia, villa del humor por antonomasia; por lo menos para los habitantes de la cuenca baja del Deva. Le identificábamos como la persona que dedujo el peso de la luna, al sumar los cuatro cuartos. Y también midió la distancia de la luna a nuestro planeta, al decir que si a las doce menos cuarto del mediodía dejaran caer de allá a un estudiante clérigo, seguro que a las doce en punto estaba sentado a la mesa en casa del señor párroco.

Sus ocurrencias y anécdotas circulaban de boca en boca en el ambiente de nuestra mocedad. Tal vez fortalecidas desde que Gregorio de Múgica recopilara sus cuentos y chascarrillos para publicarlos en un librito, en 1927. La versión castellana de los mismos, con ampliación

de datos biográficos, le debemos a su descendiente Pedro María Zabala Bengoechea, autor de «Mi tatarabuelo Pernando Amezketarra» (1964).

Asimismo le contamos entre los primeros bersolaris que afloraron a la historia, con Zabala de Amézqueta, Txabalategi de Hernani, el sacristán de Aizarnazabal, el carnicero de Tolosa, el solterón de Ostoz, Ametza, Otobezino, Albitxuarra, Michel, Martín Amorex, Francisco Iribarren, Bautista Uribarren, Martín Azcárate y otros, sin contar a Etchahun y Beñat Mardo. Antonio Zavala recopiló sus materiales dispersos en verso y prosa y publicó en un libro de su colección Auspoa, en 1966.

A pesar de todo, en algunas mentes no cabe comprender que Fernando el de Amézqueta, aquel personaje legendario, fuera un hombre de carne y hueso. Y, sin embargo, así es. Se llamaba Fernando Bengoechea Altuna. Nacido el 10 de octubre de 1764 en el caserío Espilla-saletxe de Amézqueta y fallecido en el caserío Azentzin-txikia del propio pueblo el 9 de julio de 1823.

1979-VIII-20.

## TELEFONOZ

Tirriiin!

—Aizu, Hospitala da hor?

—Bai.

—Notariatik deitzen dizut. Aditzera eman ez nator bart hil den Joxe Beltzak zuen guzia Hospital horrentzat utzi duela.

—Zenbat?

—Zortzi seme.

—Beltza da ba!

☆ ☆ ☆

Telefonozko deia jaso eta nor den ez galdetzearren:

—Hi, afaria prest bazegok laster gaituk hor eta ardo botillak freskatzen ipini. Gaur jan-edan ederrez juerga on bat bota behar diagu ta.

—Zer?

—Bizi-pozez beterik garala eta egundoko juerga egiteko asmoa dugula.

—Ba ahal dakik norekin ari haizen hizketan?

—«Allegro» lagunarteko soziedadea ez duk ala?

—Hori duk otimismoa daukana. Ni, Patxi, Kanposantuko (Hilerriko) enterradorea nauk.

—...? Ba, barkatu, oraindik ez haut behar.

—Hoba ez. Nere beharrean aurkitzen haizenean heuk deitu gabe ekarriko haute.

—Joño! Hau duk sustoa hartu dudana. Eskapada ederra egin diat.

✧ ✧ ✧

Tirriin!

—Nor da?

—Bolingoko Patxi naiz. Don Bizente medikuakin mintzatu nahi nuke.

—Neu naiz.

—Nere analisisak begiratu ahal dituzu?

—Baí.

—Ta, zer?

—Ba, gibelak galantak izango dituzu, baina alkoholak ikutuak dituzu eta hasteko behintzat, sei hilabete pasatu beharko dituzu ardorik probatu gabe.

—Ta, sagardorik?

—Ezta. Edaririk, ura bakarrik.

—Mediku jauna, bada-etzpada, lehenengo zergaitik ez duzu kuiekin aproba egiten?

✧ ✧ ✧

Plaentziako Industrias Gol, S. A. delako lantegikoak hots egin dute:

—Aquí, de Gol.

—A sus órdenes, mi general!

✧ ✧ ✧

Eztabaida batean, behin bati, nortasunik ez zuela aurpegira bota ziotenean. —«Nor, ez naizela? Hori gezurra dela laster demostratuko dizuet»— Lekukoak hartu eta hasi zen batera eta bestera telefonoz deika. Tirrina bukatzen zen bakoitzean: «Nor da» batetik eta «Nor da» bestetik jaso ondorean:

—Entzun, entzun!, hara hor guzti hoiek zer dioten, «nor da eta nor da». Beraz, neri ez ezan nor ez naizenik.

✱ ✱ ✱

Plaentziako Txiskaz-en emazteari ez zegoen nor zen galdetu beharrik. Hainbeste dei eukitzeaz ohitua dago eta inork ezer galde baino lehen, aldez aurretik aditzera ematen du, alperrikako hitzetan denborarik ez galtzeko. Izan ere, plaentziatarrak berriketa gabekoak dira.

Txiskaz elektrizista, Iberdueroko arduraduna da eta aberiaren bat denean, haren telefono tirriñak ez du bakerik izaten. Emazteak, hartu orduko:

—Aquí, la mujer de Iberduero, diga.

Sinmotesiak inoiz esan be bai: —Holakorik ez dezanala erantzun, bestela, Nuklear zentralak dirala ta, egunen batean bonbaren bat ipiniko deune.

Baina, alde batetik, plaentziarrak beti izan dira progresista aurrerazale hoietakoak eta, bestetik, amets hutsezkoak ez direnez, Plaentziako zuloan ez dute eguzki indarraren esperantzarik.

✱ ✱ ✱

Tirriiin!

—Zu, Alderdi Komunista da?

—Bai.

—Hara ba; ni 853. sozioa naiz eta baja eman behar didazu.

—Zergatik?

—Loteria tokatu zaidalako.

✱ ✱ ✱

Tirriiin!

—Aquí, el Bachoqui.

—Orduan hi zer haiz?, abertzale, abertxale ala aberlatxe?

✱ ✱ ✱

Elgoibarko San Pedro fabrikatik:

—Eibarko «Star» pistola fabrika al da?

—Bai jauna.

—Hemen San Pedro. Pistolak erostia nahi genuke...

—Baina, zuek ere bai?!

—Bai. Ehun pistola behar ditugu.

—Ehun pistola?!

—Bai. Ehun pistola hainbat arinen.

—Baina..., da... zelan nahi zenduke ba horra bialtzea?

—Sabinekin.

Telefonoak inoiz izaten dituen zarategatik edo ez zuen ondo aditu Sabin errekadistaren izena.

—Zeinekin esan duzu?

—Sabinekin.

—Gagarinekin?

—Bai. Hori da gure errekadista.

—Bueno, bueno. Geure kontu. Gagarin astronauta horrek urrengo zeruetara egiten duen bidaian bialduko ditugu.

—Beno, ondo dago. Adio!

—Bai, adio San Pedro, saladuori! Gorantziak Santo Tomasi. («Entzun ez banu, sinestu ez»).

✧ ✧ ✧

Tirriiin!, eta totelak hartu telefonoa:

—Di - di - di - ...

—Komunikatzen.

### Por teléfono

Los sucedidos por teléfono también son tema para chascarrillos en nuestra vecina Placencia, desde antes que hicieran su aparición Tip y Coll en las cámaras de televisión, pues el mismo Gila se aprovechó de ello a través de aquel bar de la ilustración soraluzearra que, según tengo entendido, fue de donde el humorista tomó su propio nombre.

Con el tiempo Eibar ha superado a Placencia en la fabricación de armas, de lo contrario cualquiera se imagina lo que hubiera ocurrido si el pedido de pistolas por San Pedro hubiera sido hecha a la antigua Soraluze-Erlaibia.

Cuando, desde Elgoibar, reclamaron la recepción de un pedido de tornillos y el placentino alegaba que hiciera la reclamación a la estación de FF.CC. de Elgoibar, puesto que el envío había sido hecho por este medio, el elgoibarrés le dijo: —¿No sabes tú que la estación de ferrocarriles no tiene teléfono? La salida del placentino fue: —«Peor ocurre en la estación de Vergara». —Pues, ¿qué ocurre en la

estación de Vergara? —«Qué va a ocurrir, que tienen estación pero no tienen tren».

Y, aquella vez que, de Industrias Gol llaman a Treviño: «Aquí de Gol» (De Gaulle), la respuesta fue: «A sus órdenes, mi general».

De este modo saben sacar los placentinos la chispa a la vida. Como la esposa del «Chispa», electricista encargado de las reparaciones de Iberduero, que cuando atendía a las cuantiosas llamadas ahorraba tiempo dándose a conocer, a la vez que a la compañía eléctrica; «Aquí, la mujer de Iberduero». En más de una ocasión le advirtió la señora de Sinmote, que tuviera cuidado en identificarse como la esposa de Iberduero, no sea que los antinucleares fueran a darle algún susto. Pero, los placentinos no son de temer en este sentido; ya que, además de ser progresistas, no creen en el milagro de la energía solar en las honduras de su bien regada ribera.

Lo que no falta en estos lares, es el sentido del humor. Cosa importante. La muestra que recojo es un buen exponente de ello.

1979-XI-26.

## BERTSOLARIENAK

Bertsolariak umore onekoak dira gehienak; buru azkardunak, zer esanik ere ez. Honegatik, beren ateraldiak zorrotzak dira, batez ere zirikadaz eta hizkirimiriz ari direnean. Gaurko hontan, agerbidez, haue-tako batzuk kontatuko ditut, negarrezko eremu honetan ere irakurleek irri egiteko aukera izan dezaten.

Lehen bertsolari ezagunen artekoa dugu Pernando Amezketarra, kristautasuna Trento-ko araueraz zintzo betetzen zen garaikoa, eta Pazkuakoa egitera joan zen batean, apezak galdetu omen zion:

—Hil ondorean nora joan nahi duzu, Pernando?

—Ez dakit, bada, jauna. Bietan, bai zeruan eta bai inpernuan, lagun onak badituz eta.

✧ ✧ ✧

Txirritaren ateraldiak ez ziren makalagoak. Bere sendotasuna eta trankiltasuna ikusirik, adiskide batek honako hau esan omen zion:

—Lasai bizi haiz, Txirrita.

Txirritak ordea, oso gizena zenez, honela erantzun omen zion:  
—Hi ere lasai biziko hintzake nere galtzetan sartuko bahintza.

✧ ✧ ✧

Zepairenak ez ziren gutiago. Uso sasoiari ihizatik mendian behera, eskopeta bizkarrean zekarrela eta uso soil bat gerritik zintzilirik, bidean aurkitu zuen batek galde egin omen zion:

—Uso asko pasatu dituk?

—Hauxe ez, beste guziak.

Idiazabalen jatetxea jarri ondorean, beste zenbait jatetxetan ohi zen bezala, «On parle français» letrerua jarri omen zuen atean. Eta, behin batek galdetu zion:

—Hi, Akilino, zuen etxean nor mintzatzen duk frantzezez?

—Beraiek, datozenean.

✧ ✧ ✧

Xalbadorrek ordea, ateraldiak ere txukun apaindurik eskaintzen zituen. Oroitzen naiz behin, bertsolari egun bat ospatuz, Azkaineko Larruxenean bazkalondoan nola hasi zen suieta. Mahaiondoa bapo girotu zen. Baina bazen han, bazter batean, lore ederdun ontzi bat jatetxearen apaingarri, baina baita ere bere ondoan edanez alaiturik tarteka marteka parte hartuz bertso txar askoak botatzen zituen bat. Halako batean, Xalbadorri heldu zitzaion bere txanda eta jatetxeko nagusiari bertsoz hots egin zion, honako eskaria eginaz: «Larruxe jauna, etxe honen ohorez, arren, ken zazu arantza hori lora politen ondotik».

✧ ✧ ✧

Mattin, umore gabeko bertsorik egiten ez dakien gizona. «Minifalda» modan jarri zen garaian, bertso saio batean bere eritzia eskatu zitzaionean, ongi zeriola zion, baina itxusiei debekatu ezker. Bertso saio bereko arratsaldez, kafe bat bestearen ondoren hartuarazi ziotenean eta oraindik ere beste bat eskaini: «Har zak beste kafe bat» esaten zion adiskideari honako erantzun hau eman zion Mattinek: «Aski diat, bestela gaur gabean nere emazteak ez dik lorik egingen».

✧ ✧ ✧

Lazkao-txiki motorrean zijoan batean, bidegurutzeko Stop batean geldiuenerik gabe aurrera abiatu zen. Baina, holakoetan maiz gertatzen dena, zera, behar dena ez errespetatzearren behar ez denarekin topo. Trafikokoak geldiarazi zuten eta galde:

—¿Es que, usted no ha visto la señal de Stop?

—La señal de Stop sí; pero a ustedes no.

## De los bersolaris

El bersolari, más que socarrón, es irónico y procura avivar las improvisaciones versificadas con ocurrencias humorísticas. Pero esto no le ocurre únicamente a la hora de componer los versos, sino en el transcurso de cualquier conversación. Recordemos que aquel Fernando de Bengoechea, más conocido por Fernando Amezketarra (Fernando de Amézqueta) casi un personaje legendario que personifica el humor en la literatura oral vasca, era bersolari. De él y de otros recogemos aquí un breve muestrario para que el lector pueda comprender las características del discurrir de esta peculiaridad que tan bien se da en nuestros bersolaris.

En una ocasión en que un sacerdote de Amézqueta preguntó al bueno de Fernando a dónde le gustaría ir después de muerto, si al cielo o al infierno, la respuesta fue, que tenía sus dudas al respecto, ya que contaba con buenos amigos en ambos lugares.

Al viejo Txirrita (Chirrita), hombre obeso y tranquilo, con fama de vago, en cierta ocasión le dijo un conocido: «tú sí que vives a tus anchas»; a esto contestó Txirrita que también él vivira muy ancho si se metiera en sus pantalones.

Zepai que, además de bersolari, era cazador, bajaba por un sendero con su escopeta y una paloma colgada a la cintura, única pieza cobrada ese día. Un paisano que se cruzó con él, le preguntó: «¿Han pasado muchas palomas?». La respuesta fue fulminante: «Todas, menos ésta».

Cuando Zepai abrió su bar-restaurante en Idiazábal, siguiendo la costumbre de otros restaurantes, puso a la puerta un letrero de: «On parle français». Y cuando un cliente le preguntó que quién hablaba francés en aquella casa, contestó: «Los franceses, cuando vienen». Esto sí que es libertad de expresión, y no la de los que decían: «Hable Vd. en cristiano».

Las ocurrencias de Xalbador, como su versificación poética, so-



lían ser muy finas. Recuerdo el detalle de una sobremesa donde intervinieron varios bersolaris. Desde un rincón, decorado con hermosas flores, salía de vez en cuando la voz de un aficionado, que pretendía participar en el coloquio de los poetas populares, con desafortunadas improvisaciones. Cuando llegó el turno de Xalbador, éste, con discretos modales, pidió al propietario del restaurante que retirase aquella espina de entre las hermosas flores.

Al célebre Mattin, tan incapaz de improvisar un verso serio como de contener su rebosante humor, en cierta ocasión en que un amigo le instaba a que tomara otro café más, le respondió: «No, no quiero más café, porque de lo contrario esta noche no va a dormir mi mujer».

En una ocasión en que Lazkao-txiki se saltó una señal de stop sin hacer caso de ella, los guardias de tráfico que le vieron le preguntaron si no había visto la señal. El respondió: «La señal sí, pero a ustedes, no».

1980-IX-22.

## MEDIKUENAK

Lehentxo batean, ezagun batek galdetu zidan, medikuntzaz ere idatzi nuela eta ia ofizio hortan ez zen umorezko gertaririk Eibar eta Plaentzia aldean, beste zenbait ofiziotan zen bezala. Jakiña. Horixe bai. Izan ere, umorea ezta koloreetan bakarrik sailkatzen, bizi moldeetan ere bada zer konta. Beraz, medikuntzakerik ere bada eta ez bakarrik. Eibarren eta Plaentzian. Honegatik, gaurkoan dakarten muestratxo hau Txirrita bertsolariaren ateraldi batekin hasiko dut.

Txirrita bera hargina zen ofizioz. Behin batean, astelehena ere bazen da, harria landu ezinik omen zebilen, golpea hñan eta golpea hemen, baina golpe txarrez alde batean zatia hautsi eta bestean apurtu...

Aurrekaldetik pasatu zen mediku batek esan omen zion:

—Harginaren faillu, bustinak bardindu.

Eta, Txirritak, hitzetik hortzera:

—Medikuan falta, lurrak tapa.



Eibartar ezkertiar gorri horietako bat sartu zen medikuan kon-

sultara, bere gerriaren ezker aldera eskuak eroanaz, minak haintxe zituela esanaz, eta «Gibeleko mina edo...» izango zuela aurreratuaz. Medikuak ordea:

—Zer? Gibeleko mina eta gerriaren ezker aldean? Gibela eskubiko aldean zegoen.

—Baina ni ezker aldean naiz.

\* \* \*

Ez dakit ber bera ez ote zen bere burua heriotza ordura hurbildurik ikusi zuenean, hestu ta larri medikuari deitu eta errekonozidu ondorean, sendagilearen aurpegi serioari begira itaundu zuena:

—Da...?

—Ba..., hasi hadi dakiana ahal bezala erresatzen.

\* \* \*

Beste behin, medikuaren gelan hiletaz beterik sartu zen gaixoak, hara zer zion:

—Hara, mediku jauna, neri pasatzen zaidana, zera da, ezin naitekela egon ez jarrita, ez zutik eta ezta etzanda ere.

—Orduan, beste modurik ez baduzu, zintzilika ipini zaite.

\* \* \*

Inguru honetan, izan ere, herria halakoa bada, medikuak ere ez dira gutiago. Plaentzian esaten duten bezala: «Zelako lapiko, halako tapa».

Artadi medikua lasai kafea hartzen zegoen tokira sartu zen zalapartero kuadrila bat, beren kantaz eta uluez bazterrak eragin beharrean. Haie-tako gazte baten familiko medikua izan Artadi eta errespeturik galdu nahi ez eta hurbildu zitzaion esanaz:

—Artadi jauna, faltatzen gare?

Besteak ordea:

—Ez; sobrate zagoze!

\* \* \*

Beste batean, medikuak, gaixoa ikusi ondorean, esan zion:

—Sei hilabetean ardorik ezin duzu probatu.

—Baina garagardoa edo sagardoa edan ahal nezake?

—Ez. Edaririk, ura bakarrik.

—Zu, mediku jauna, bada-ezpada ere, prueba hori zergatik ez duzu egiten lehendabizi kuiekin?

✧ ✧ ✧

Baina, harek kuintzat eskatzen zuen froga hori, nonbait, beste batek egina zuen; bere buruarekin gainera. Zeren, medikuak errekonozidu ondorean, erretzeari eta edateari utzi behar ziola agindu zion eta, bestalde, goizago oheratzea. Gaixoak ordea, bera goizago erretiratzen zela, ez zela erretzailea eta ezta ere edalea.

—Ba, gorputz zahartua eta nekatua aurkitzen dizut. Behar bada gehiegi jan eta emakumeekin geitxo ibiltzearena edo izan daiteke.

—Ez ba, mediku jauna; ni ez naiz jatuna eta emakumeetarako biziorik ere ez dut.

—Orduan, zuk, ezer ez egitekotan zertarako nahi duzu bizi?

✧ ✧ ✧

Bai batzuetan erremedio azkarrak bilatu ere. Jateko gogorik gabe zebilen gaixoa bisitatzen deitua zen medikuak emandako erantzuna lekuko. Zer sentitzen zuen galdetu zionean:

—Hara, don Karlos; nik ee... gauza argia jateko gogoia edukitzen dut.

Medikuaren ihardespena:

—Etxekoandre, ekartzazu kandelia eta poxpoluak prijiduta.

✧ ✧ ✧

Hemen ere, ofizio guzietan bezala, diruaren interesak ere birtartean erabiltzen dira. Bi adiskidek kalean topo egin dute eta hau izan zen beren elkarrizketa:

—Zer, Kalixto? Ez daukak aurpegiz itxura onik. Ondoezik hago ala?

—Ez nagok ondo. Oraintxe natok medikuagandik.

—Eta; igarri dik?

—Ixa bai.

—Ixa baietz?

—Bai; milla pezeta nizkian eta bederatzirehun kendu zizkidak.

✧ ✧ ✧

Alderantziz, beste behin, elgorria sendatu zion hauraren gurasoa

joan zen medikuari ordainketa egitera, eta zenbat merkatuko zion galdera egin zion.

—Merkatu? Zer dela ta?

—Ba, eskerrak nere semeari, aurtengo urtean irabazketa handiak izan dituzu, zeren nere semea izan bai zen eskolako haur guziak elgorriz kutsatu zituen.

✧ ✧ ✧

Beste behin, gaixorik zegoen adiskidea bisitatzera joan zenak, bere oheburuan hau zion:

—Iño! Ba, ez hago hain gaizki ere. Anka biak ohean dituk behintzat.

—Zer esan nahi duk? Anka biak ohean?

—Bai. Zeren don Nikanor medikuak esan didanez, anka bata kanposantuan duela omen hago ta...

✧ ✧ ✧

Apezpiku bat Deba bisitatzera joan zenean, garai hartan herriko mediku zen Martin Aranbururi galde omen zion, zerbait galdetu beharrez edo isilik ez egotearren: «Jende asko hiltzen al da?»; eta bergarar medikuaren erantzuna:

—Bai, hemen denak; batzuk lehenago eta beste batzuk geroago.

## De los médicos

Tras la publicación de los artículos que escribí sobre noticias históricas de la medicina en el país, un amigo que quiso saber si había chascarrillos de la profesión médica en el contorno Eibar-Placencia, donde el humor trasciende más allá de los límites de los colores. Efectivamente, existen. Y, como de vez en cuando es muy conveniente tratar del humor y con humor, he ahí una buena muestra en el texto en vascuence.

Que van desde aquel izquierdista que sentía dolores de hígado en el lado izquierdo, obedeciendo a sus ideales, y la revancha del médico en su diagnóstico mostrándole las cosas con gravedad y en su punto: «Vete rezando lo que sepas». Hasta aquel visitante que a la cabecera de la cama le espetó al enfermo: «Pues la verdad sea dicha, no te encuentro tan mal como me imaginaba, porque tienes las dos piernas en la cama». Al preguntarle el enfermo aclarara lo de las dos

piernas, el visitante, ni corto ni perezoso, le dijo: «Es que, el médico don Nicanor, me había dicho que estabas con una pierna en el cementerio».

En el elemento popular se pueden recoger infinidad de sucedidos y chascarrillos de todo tipo y en su propia salsa. La convivencia en estos pueblos, hasta a los médicos allegados les va alcanzando su gracia chispeante. Podría seguir enumerando muchísimos casos anecdóticos, pero no quisiera caer en el abuso de los mismos, y parodiando a lo sucedido a aquel placentino que se percató de que los excesivos cantos de su grupo en un local público pudieran molestar al doctor Artadi, allí presente, se acercó tratando de disculparse, para decir: «Qué, señor Artadi, ¿acaso estamos faltando?». Y a quien contestó: «No, no estáis faltando; estáis sobrando».

1980-XII-15.